U.Z.E.I.

HIZKUNTZALARITZA /1

HIZTEGIA

elkar s.a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

Gipuzkoako Foru-Aldundiaren
laguntzaz ematen da argitara
Hizkuntzalaritza, Hiztegia.

© de la presente edición:
ELKAR. Euskal liburu eta kantuen argitaldaria, S. A.
Esterlines, 10 - San Sebastián

I.S.B.N. 84-7529-035-3 (O. C.)
84-7529-034-5 (Tomo I)

Dep. Leg.: S. S. 381-1982

Imprime: Litografía Danona, S. Coop.
Polígono Ugaldetxo - Oyarzun

Liburu hau UZEIk prestatzen dituen hiztegietako bat da. Hiztegibilduma horren alor bat hartzen du, beraz, gainerakoekin batera liburusorta osatuz.

Eginahal honen bidez, normalizazio linguistiko eta sozial oso batetara eraman nahi dugu euskara. Lan hauek, beste gabe, ez dute hizkuntza salbatuko, baina (eta, horretaz erabat ziur gaude) gisa honetako lanik gabe ere ezingo du inork eta ezerk euskara aurrera atera.

Aipatutako normalizazio horren bila, nazioarteko kultur hizkuntzekiko «homologazioa» bilatu da. Euskararen parean espainola, frantsesa eta ingelesa erabiliko dira. Alemana ere emango da inoiz; eta sarriagotan, hemen ematen ez denean ere, gure fitxategietara bildua izango da.

Orohar, lehenengo epealdi honetako hiztegi-argitalpenak Unibertsitate atariko mailan kokatzen dira. Kasu batzutan, goraxeago ere bai. Baina, hiztegi hauen planketan, geroago etorriko da Unibertsitatea bere osoan eta sakonean hartuko duen bilduma.

Hori horrela, beste zerbait ere iradokirik geratzen da: maila honetako lanok saiakera orokor bat dira gure aldetik. Besterik ez; baina hori izan nahi dute behintzat: saiakera orokorra *eta, ahalik osoena. Normalizaziorako hautabide ezberdinak ezagutu egin beharko dira lehenbait lehen; baina, beti ere, alor bakoitza bere osotasunean hartuz noski.*

Gure lan hau behin-behinekoa da, eta premiazkoak izango ditu kritikari eta lankide berriak, gerora maila jasoago eta helduago batetara eraman dezagun.

Hiztegi hauek fitxategi aberats bat dute beren atzetik, eta liburuetan bertan ematen den hitz-zerrenda ordenadoreetan bildua geratzen da, etorkizunean baliagarriagoa izan dadin. Langaiak kontrolatu eta alderatzeko ongi etorriko da hori, hizkuntz normalizazioak dakartzan milaka eta milaka arazo eta zalantza ezin baitira bestela denak batera gogoan izan.

Laguntza eta lankidetza askori esker bukatu dira hiztegi hauek. Ez ditugu hemen espreski aipatuko, izan ere izenak emanez ez baikenieke justiziarik egingo. Hala ere, dagoeneko euskal munduan aski ezagunak diren Aurrezki Kutxa, Banketxe, Enpresa, Kooperatiba eta abarri gure eskerrona agertu nahi diegu. Berorien laguntzarik gabe ez zen orain UZEIrik egongo eta, ondorioz, ez hiztegirik ere.

Lankideena ere aipatzekoa da. Gizon eta emakume anitz izan da asmo honetan parte hartu duena. Elkar-lanean azaldu duten lehia biziaren fruitu umotua da hiztegi-bilduma hau. Bakoitzaren izen-abizenak, dagozkien tokietan aurkituko ditu irakurleak.

Bidea hasi dute hiztegiek. Geroak esango du zer zen on, eta zer zuzengarri.

HIZKUNTZALARITZA ATARIKOAK

LANKIDEAK

ZUZENDARITZA

Zuzendari-Zuzentzaileak:

Txillardegi (Jose Luis Alvarez Enparantza)
Ana M. Toledo

Laguntzaileak:

Pello Huizi
Jose Antonio Aduriz

ARTIKULUGILEAK

Aduriz, Jose Antonio
Agirre, Garbiñe
Aldazabal, Jokin
Alvarez (Txillardegi), Jose Luis
Aramendi, Xabier
Arkotxa, Aureli
Artola, Koldo
Artola, Lupe
Artzamendi, Jesus
Azkarate, Miren
Azpiroz, Jose Antonio
Azurmendi, Mari Jose
Baxok, Erramun
Bergaretxe, Rafael
Egia, Gotzon
Eguzkitza, Andolin
Goenaga, Patxi
Huizi, Pello
Idiazabal, Itziar
Irigoyen, Alfontso
Iturrioz, Jose Luis
Kintana, Xabier
Lasarte, Maria Pilar
Mujika, Jose Antonio
Nabarro, Koro
Pikabea, Josu
Toledo, Ana Mari
Videgain, Charles
Zubiaur, Jose Ramon

ERDAREN LANTZAILEAK

Frantsesarena:

Zubillaga, Elisabet

Ingelesarena:

Hawhee, Howard W.
King, Alan
Ormazabal, Xabier F.

SARRERA

Txillardegi
Ana M. Toledo

NOLA ERABIL HIZTEGI HAU

Hiru era edo aldetara erabil eta irakur daiteke Hiztegi hau. Erabilkera bakoitzerako bere bide eta laguntzak eskaintzen ditu.

1. Irakurketa jarraitua

Artikulu nagusiek Hizkuntzalaritza bere osotasunean biltzen dute; eta, bata bestearen ondoren irakurriz, benetako Tratatua osatzen dute, eta *Informazio* zabala ematen.

2. Aukerazko irakurketa

Irakurleak gai berezi bat argitu eta aztertu nahi baldin badu, horri dagokion artikuluan edo paragrafoan aurki dezake argibidea. Horregatik *Kontsultabide* eta azterbide gertatzen da Hiztegia.

Horretarako lagungarri bat ematen da:

— Artikulu guztiak *alfabetoaren arabera,* eta aurkitzeko erraz.

3. Irakurketa elkarlotua

Hiztegiko artikuluak eta gaiak elkarloturik doaz, eta elkar argitzen eta osatzen dute. Artikulu batetan ulerzen ez diren adigaiak beste batetan bereziki edo hobeto adierazita egongo dira.

Bi adierazpide erabili dira elkarlotura horiek agertzeko.

— →*geziak* hitzen aurrekaldean, adigai hauek Hiztegian artikulu berezi bana dutela adierazten dutenak.

— "Ik." *laburdura* bidez, artikuluan azaltzen den gaia beste nonbait ere azaltzen dela adierazten da, textuinguru desberdin edo-ta zabalago batetan.

HIZTEGIAREN EDUKIN HANDIENAK

Atarikoa

Sarrera: hiztegiaren nondik norako guztia, lanbidea, metodologia, etab.

Gorputza

Hiztegi honetako gai guztiak alfabetoaren arabera ordenatuak aurkitzen dira, baina hiru mailatakoak aurkituko dituzu:

— Lehen mailakoak —16 artikulu— gorputzeko ardatz edo izan nahi dutenak. Letra handiz eta orri osoa betez agertzen dira.
— Bigarren mailakoak —75 artikulu—. Aurrekoen mailakoak ez izanik ere, gai honetan garrantzizko kontzeptuak. Aurrekoak bezala, hauek ere izenpetuak, baina bi pilaretan doaz.
— Hirugarren mailakoak —610 artikulu edo artikuluburu—. Bi pilaretan eta izenpetu gabe doaz.

31 Biografia

Alfabetoaren arabera, gorputzeko artikuluen artean jarriak.

Lexikoa

5.800 hitzetako hitz-zerrendak datozkizu. Lan egiteko orduan gehiago kontsultatu arren, lau hizkuntzatara mugatu gara liburuan:

— Euskara - espainiera - frantsesa - ingelesa
— Espainiera - euskara
— Frantsesa - euskara
— Ingelesa - euskara

ARTIKULU NAGUSIAK

	Orr.
Estrukturalismotik gramatika sortzailera *Jose Luis Iturriotz*	101
Europako estrukturalismoa *Andolin Eguzkitza*	122
Euskara eta beste hizkuntzak *Xabier Kintana*	138
Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar *Alfontso Irigoyen*	147
Euskararen ezaugarri nagusiak *Txillardegi*	157
Fonetika-Fonologia *Jose Ramon Zubiaur*	168
Hitz-eraketa: Lexiko-sorkuntzarako baliabideak *Mikel Zalbide*	197
Hizkuntz Geografia *Erramun Baxok*	215
Hizkuntza arteko konparazioa *Alfontso Irigoyen*	234
Hizkuntzen irakasbideak *Jose Antonio Mujika*	252
Linguistika eta Matematika *Txillardegi*	292
Mintzamena gizonetik at *Txillardegi*	315
Morfosintaxia *Patxi Goenaga*	328
Psikolinguistika *Itziar Idiazabal*	355
Semantika *Jesus Artzamendi*	368
Soziolinguistika *M. Jose Azurmendi*	383

Sarrera

Hitzaurre honek hiztegiaren aurkezpena izan nahi luke. Zalantzarik gabe, hainbat eta hainbat lekutan lehendik esanak dauden kontuak esango ditugu; izan ere, hizkuntzalaritza-hiztegi hau projektu handiago eta orokorrago batetan txertatzen da, hots, jakintza-sail eta lanbide-eremu desberdinetako euskararen normalizazio lexikalerako UZEIk jarri nahi dituen oinarrietan, eta, neurri batetan behintzat, projektu horren emaitza den heinean, egitura, lan-prozedura eta abarretan berdina da.

Projektu horren emaitza batzuk kalean daude: Fisika, Politika, Kimika, Psikologia... eta horiei jarraitzen die arestian esan dugun egitura, lan-prozedura eta abarretan.

Baina, hizkuntzalaritza gai espezifiko bat dugu zientzi alorrean, eta honenbestez berezitasun batzuk izango ditu; bestalde, aurkitu dituen muga, oztopo eta abarrek eraginda bere historio partikularra egin du, bere ibilbide propioa.

Ondoren datozen puntuetan guzti honen berri ematen saiatuko gara.

I. Hiztegiaren egitura

Hiztegiaren egiturari dagokionez ez dakar berrikuntzarik, honetan, orain arte argitaratu diren hiztegien egitura berbera agertzen bait du. gorputza eta lexikoa.

Gorputza

Agian, norbaitek pentsa dezake hiztegia gorputz eta lexikoaz osatzea lana luzatzea besterik ez dela, gorputz horretan datozen artikuluak eskain dezaketen informazioa espainierazko edo frantsesezko edozein hiztegitan

aurki daitekeela eta bienbitartean nahitanahiez hiztegiak prozesu luzeagoa eskatzen duela.

Eta arrazoi puska bat izan dezake, hiztegi honetan datozen artikuluak ez bait daude ikerketa-mailan eginak, eta neurri horretan, esandakoak berresan besterik ez bait dute egiten sintesi hobeago edo txarragoak lortuaz.

Baina, UZEIren asmoa ez da artikulu hauetan ikerketa-lanak aurkeztea baizik eta zientzi alor bakoitzeko lexiko espezifikoa bere textuinguruan kokatzea eta bidenabar hizkera zientifikoak eska dezakeen mintzairan saioak egitea, ahalik eta mintzairarik landuena lortzeko urratsak ematea.

Eta helburu honi erantzuten dio hiztegiaren gorputzak, irakurleak hizkuntzalaritza saileko zenbait kontzeptu eta gai euskaraz idatzirik aurkituko bait ditu beste edozein hizkuntzatako hiztegitan bezala.

Lexikoa

Lexikoak hizkuntzalaritzan erabiltzen diren hitz teknikoak jasotzen ditu. Ez hitzak soilik, baizik eta batzutan baita esaldiak ere.

Hitz soiletara ez mugatzeko geneukan arrazoia hau zen: euskaraz zientzi mailako terminologian ohitura batzu garaturik ez edukitzea.

Konposizio, atzizki eta abar luze baten datorkigun tradizioa galtzen ari garen une hauetan, euskaldunok egungo egoera sozialari erantzuteko hizkuntza horren txiroturik aurkitzen dugunean, horrenbeste mailegu hartuak eta hartzen ari garenean, bide bat, aukera bat, ohitura batzuk eman eta sortu nahi genituen.

II. Hiztegiaren historia

1978an hasi zen hiztegi hau, ordukoak dira lehen mailako artikuluen programazioa, lehen lexiko-zerrendak etab.

Elkar-lana

UZEIko beste hiztegiak bezala hasieratik bukaeraraino talde-lanean eginda; taldea izan da benetako protagonista.

Hizkuntzalaritzako espezialistek elkarrekin lan eginaz burutu dute hiztegia, artikulugintzan eta lexikogintzan parte hartuaz.

Lexikogintzari dagokionez bakoitzak bere proposamenak egiteko aukera izan du, era berean, besteenak kritikatzekoa. Ildo honetatik abiatuaz nolabaiteko «consensus» batetara heldu nahi izan da.

Artikulu nagusiak hautatzeko erabili diren erizpideak

Hiztegi hauen antzera egindako erdal hiztegiak hartu dira kontutan, espainierazkoak eta frantsesezkoak bereziki. Eta alderaketa honetan, berehala gailendu dira gai nagusi batzu, Hizkuntzalaritzaren oinarritzat har daitezkeen iker-sailak hain zuzen: *Psikolinguistika, Soziolinguistika, Morfosintaxia, Fonologia, Semantika.* Era berean, eta zientzia honen historia azaldu nahiz, artikulu nagusi hauek ere proposatu ziren: *Hizkuntzen arteko konparazioa, Estrukturalismoa* eta *Gramatika Sortzailea.* Baita, dialektologian duen eraginarengatik, kapitulu berezi bat: *Hizkuntz geografia.*

Beste gai nagusi batzu, aldiz, Euskal Herriak daukan hizkuntz arazoari loturik daude: *Hitz-eraketa: lexiko-sorkuntzarako baliabideak* deritzona, oso egokitzat jo genuen gure hizkuntzak dituen gorabeherak aipatzeko. Asmo berak sortu zituen *Euskara eta inguruko hizkuntzak* eta *Euskararen ezaugarri nagusiak* azterketa bereziak; baita *Hizkuntzen irakaspideari* dagokion kapitulua ere, gure herrian dagoen irakatsi beharrak idarokia.

Horrainoko hautapena erraza izan da: *Hizkuntzalaritza orokorrari* erantzun nahi izan zaio, batetik; eta *Euskarak* berak duen *problematika bereziari,* bestetik.

Bi puntutan, hala ere, ikerketa berriei eman nahi izan zaie leku. *Zenbatasunezko* Hizkuntzalaritzak, batetik, fruitu hobeak eman ditu bilaketa hutsaren mailan, ondorio praktikoetan baino. Adibidez, gradu desberdinetako entropien kalkuluak, praktikan, zertarako balio duen ez da garbi ageri; ezta hizkuntzari buruzko lege estatikoek ere. Hala ere, zenbatasunezko hizkuntzen ikerketak gero eta garrantzi handiagoa hartuko duela pentsaturik, horretan ere arreta jarri beharra adierazi nahi izan dugu.

Mintzamena gizonetik at artikuluan, berriz, antropologian izan dezakeen ondorioengatik, txinpantzeekin orain dela hamabost bat urte eginak diren ikerketen berri eman nahi izan dugu. Giza-mintzairaren oinarria bera artikulazio bikoitza baldin bada, antropoideek ikasi duten mintzabidea ez da giza-mintzaira. Esanahien lerrakuntzan, sintaxiaren hastapenetan eta abarretan somatzen diren joerak, hala ere, argi-iturri bikaina izan daitezke hizkuntzen jaiotza, eta Psikolinguistikaren zimenduak berak, ulertzeko.

Gai nagusi horiek guztiak, nolanahi ere, ikertzaile eta irakasle jantzien eskuetan jarri ditugu, J. R. Zubiaur-ek Fonologia irakasten badu, J. Artzamendi-k Semantika azaltzen du, P. Goenaga-k Morfosintaxia etab. Horregatik, eta emandako iritzi batzu zenbait aldiz pertsonalegi gerta daitezkeen beldur, hamasei artikulu nagusiek beren egileen sinadura daramate.

Eta, jatorrizko izkribua euskaraz idatzi izan ez denean, UZEI da itzulpenaren erantzule.

Bigarren mailako artikuluen programazioa

Askoz zailagoa izan da «bigarren mailako» artikuluak hautatzea (luzerari dagokionez «bigarren mailakoak», jakina; eta ez funtsez). Egia esan, eta nahiz erdarazko hiztegiak laguntzailetzat hartu, «bigarren mailakoak» non amaitzen diren, eta «hirugarren»-ekoak non hasten ez bait da batere gauza nabarmena eta argia.

Hiztegi honetan, esate baterako, «bigarren» mailakoen luzeran datoz kontzeptu hauek: *bit, adjektiboa, maileguak;* eta «hirugarren» mailakoen luzeran, berriz, *deskodeketa, maiztasuna* eta *bustidura.* Berehala uler daitekeenez, irakurleak pentsa dezake, alderantziz izan behar lukeela: azkeneko hauek «bigarren» mailakoak, eta «hirugarren»-ekoak haiek. Ez da ahaztu behar, bestalde, gai batzu, zeharbidez, hausnartuak izan direla hamasei artikulu nagusietan eta berriro luze hartu beharrik ez zegoela.

Beste alde batetik, bukatzeko, «hirugarren» mailako kontzeptu batzu, arrazoin sakonik gabe, sailkapenaren arabera legokiekeena baino luzeago gertatu direla aitortu behar da. Baina neurri zehatzak zertan ibili beharrik ez genuen ikusten.

Hirugarren mailako artikuluen eraketa

Bi hitz bakarrik artikulu hauek hautatzerakoan kontutan hartu diren erizpideei buruz.

Alde batetik, ondoko hilabeteotan agertuko den *Literatur hiztegia* gogoan harturik (eta, puntu honetan, Lázaro Carreter-en hiztegitik, esate baterako, urrunduz), *metrika*-arazoak erabat utzi ditugu alde batera; eta jokabide bera hartu dugu literaturari zuzenago dagozkion beste zenbait gaitan.

Hiztegiaren neurria bera izan da bigarren mugatzaile nagusia: ezin hiztegi hau lodiegi edo luzeegi atera. Eta mugaketa-lan horretan beti ongi asmatu ote dugun ezin dezakegu guk esan. Irakurleek eta geroak esango dute hau.

Nolanahi ere, kontzeptu eta sarrera-hitz bakoitzean, *euskarari* datxezkion adibideak ematen saiatu gara, nahiz laguntzailetzat hartu ditugun erdal hiztegietan, horrelakorik sekula ez topatu. Euskal adibideen bilaketa honek lanak ekarri dizkigu; baina gure irakurleek hobeki uler ditzakete euskal munduko etsenplu horiek, Europa-ko edo bestetango erdaretan hartutako etsenpluak baino. Azkenik, eta hirugarren mailako

artikulu hauek direla-ta frantsesezko Larousse-n *Dictionnaire de linguistique* daukatela oinarritzat esan beharra dago. Kontzeptu hauek bideratzerakoan bera hartu bait dugu gidaritzat.

Biografiak: Aukeratzeko erabilitako erizpideak

Biografiak hautatzea, era berean, oso zaila izan da. Hizkuntzalaritza orokorrean hamar izen aukeratzea, entzutearen arabera bederen, erraz samarra da. Saussure, Jakobson, Sapir, Chomsky etab.

Horren ezagunak ez izanik ere, garrantzia izan duten hizkuntzalalarien zerrenda non pika, eta zergatik? Egin dugun hautua kritikagarria izan daiteke; baina hautatu egin behar genuen.

Gauza bera Euskal Hizkuntzalaritzan. Historian barrena gailendu diren batzu hautatzea, lan erraza da: Humboldt, Bonaparte, Azkue. Non buka, ordea? Zergatik? Ez dakigu beti ongi jokatu ote dugun!

Areago bizirik dauden euskalarien artean. Ez genuen inor aipatu nahi, baina Mitxelena-ren berri ez ematea, adibidez, kaltegarri iruditzen zitzaigun, irakurleen aldetik. Eta, azkenean, euskararen ikerkuntzan ari diren autore bizi bakan batzuren berri eman dugu.

Lexikoa

Lehen esan dugun bezala, hiztegi hau gorputz eta lexiko batez osatua dago. Lexiko honek antolamendu hau dakar:

— Euskara/Espainiera/Frantsesa/Ingelesa
— Espainiera/Euskara
— Frantsesa/Euskara
— Ingelesa/Euskara

1.—Lexikoa finkatzeko egindako ibilbidea

Hiztegi honetan, UZEIko hiztegi guztietan bezala, zuzendaritza bat egon da, egia da; baina *laguntzaile-talde* bat ere bai. Bai hiztegiko sarrerak hautatzerakoan; bai, areago agian, erabilkizun izan den euskal hitzerrendan ere.

Hots, gauza ezaguna denez, bakanka baizik ez datoz bat euskaltzaleak gai hauetan; eta Hizkuntzalaritza-hiztegi honetan ari izan direnak ere ez. Aski du irakurleak zenbait euskal hiztegi edo hizkuntz gaiei buruz egindako liburu batzuk elkarrekin alderatzea lexiko-mailan dauden desberdintasunez ohartzeko; horien artean «garbizaleagoak» direnak eta hainbeste ez direnak aurki ditzake.

UZEIn, beraz, behin eta berriz antolatu diren bilerak, ez dira beti gozoak eta erosoak izan; zenbait aldiz garratz ere gertatuz. Hautatu den euskal hitz-zerrenda, horregatik, eragin guztien bilduma eta ondorioa da; eta ez honen edo haren erizpidearen araberakoa. Nolazpait esateko euskal hiztegia ez da «inoren gustokoa» izan, talde-lanaren fruitua baizik.

Hots, hauxe behar genuen; eta hauxe bilatzen zuen UZEIk: Hiztegi berezituen sail hau, euskaltzale guztien arteko akordio bat izatea. Hemen proposatzen den hiztegi teknikoa, horregatik, ez dator bat Goenaga-ren lanekin, ez Kintana-renekin, ez Txillardegi-renekin, ez Irigoyen-enekin, eta ez inorenekin ere. Baina hau seinale ona da: denek eman bait dute amore honetan edo hartan.

Ongi dakigu UZEIko hiztegigintza honetan parte hartu dugunok, beste herritan mendeetan barrena, eta Unibertsitate eta idazle pilo batek gidaturik, burutua izan den lan gaitza, gu hala-beharrez, presaka eta muturka mamitzen ari garela. Inork ez daki hori guk baino hobeto.

Baina, gaurko kinka larri honetatik euskara bizirik irtengo bada, aberasketa eta finkapen honen bidez irtengo da bizirik; tresna egokituz eta gaurkotuz, alegia. Eta ez, askotan bezala, hiztunak edo idazleak benetan aurkitzen dituen arazoei iruzur edo itzulinguru eginez. Euskara gaurkotu eta zehaztu behar zen; eta Hizkuntzalaritzaren alorrean ere bai. Hori da, hain zuzen, hiztegi hau prestatuz, talde-lanean ari izan garen guztiok geure asmorik hoberenaz gaur eskain dezakeguna.

Noizpait lan hau hobetua eta gainditua izango da. Badakigu. Baina, hobetu eta gainditu arte horretan, urrats bat bederen egiten laguntzen badu, ez dugu beste saririk bilatzen eta ez espero. Honekin bakarrik, benetan, oso pozik gintezke.

2.—Erabilitako erizpideak

Euskararen normalizaziorik eza dela eta idazle bakoitzak egokien iruditzen zitzaion hitza erabili izan du Hizkuntzalaritzaren kontzeptuak euskaraz adierazi beharrean aurkitzen zenean.

Hiztegi honek, bere behinbehinekotasunean ere, bide bat proposatu nahi du eta bide hori ahalik eta koherenteena izan dadin, hiztegia hasi zenez gero erizpideak bateratzen saiatu gara.

Nolanahi ere, hastapenetan gaudenez, eta lehen esan dugun bezala, lankideok kasu guztietan bat etortzerik ez genuenez, hiztegia, neurri handi batetan behintzat, ireki samarrik gelditu da; alegia, sarritan, kontzeptu bakar bat adierazteko bi hitz datoz. Kasu hauetan bata euskal harrobikoa da, edo euskal harrobitik sortua, eta bestea mailegatua.

Erabilerak bat gailenduko duelakoan gaude, edo agian, beste proposamen hobeago bat egingo duelakoan. Hala izan bedi!

Erizpideak aipatu ditugunez, ondoren hauen ildo nagusiak zeintzu izan diren orokorki adieraziko dugu:

a) Euskal hitz zaharrak.

Orohar euskal hitz zaharrekiko bi jokabide-mota hartu ditugula esan daiteke:

— Egunoroko hizkeran darabiltzagun hainbat hitz, zenbait kasutan zabalkuntza semantiko baten bidez, espezializatu egin ditugu hizkuntzalaritzako kontzeptuak adierazteko. Adibidetzat *antzekoa* (análogo), *adierazia* (significado), *gaitasuna* (competencia) etab. eman ditzakegu. Hitz hauek euskaldunon ahotan dabiltzanak dira; eta, era berean, hizkuntzalaritzak eskatzen dituen kontzeptu zehatzak ere aditzera emateko gai direla uste izan dugu.

— Zabalkuntza semantikoaz gainera berrezarpen lexikala deitzen dugunaz ere baliatu gara, hots, erabilerarik ez zuen, edo soziologikoki erabilera murriztuta zeukan hitza zientzi sail honetako kontzepturen bat adierazteko hartu. Berrezarpen lexikalaren lekuko «erkide» hitz zaharra har dezakegu, «común» adierazteko erabili bait dugu.

Hauetaz gainera lerrakuntza semantikoaz ere baliatu gara, hau da, hitz batek hasieran zuen esanahiaren eremua aldatuz, beste esanahi bat eman diogu, nahiz eta aurrekoarekin zer-ikusia duena izan. Sarritan berrezarpen lexikalak lerrakuntza semantikoa ere suposa dezake: «discurso» aditzera emateko «berbaldi» jarri dugunean, euskaldun batzurentzat berrezarpen lexikala da eta gainera, lerrakuntza bat jasan duena jatorriz zuen esanahiak aldaketa bat jasan duelako.

b) Hitz mailegatuak

Mailegutzaren barnean sartzen garelarik konbinazio-mota desberdinak aurki ditzakegu:

— Hitz mailegatua aldaketa ortografiko huts batzuekin bakarrik bere hartan utzi dugu: «aspirazio», «klik» etab. luze bat agertzen zaigu horien lekuko.

— Hitz mailegatuak hartu eta euskal atzizkiz hornitu dira: *agentetasun, kausatzaile, konjugagarri, kreamen* etab.

Zehaztasunaren izenean, berriz, hainbat euskal hitz baztertu beharrean aurkitu gara, «batu» «standard» adierazteko; edo «zalantzagarri» «ambiguo» esateko, etab.

Beste batzutan «espezializatzera» jo dugu, «trinko» «denso»-ren ordezkotzat hartu dugu nahiz eta euskal aditz sintetikoari erreferentzia egiteko ere erabili izan den; aditz-mota honentzat «sintetiko» soilik utzi dugu «espezializazio» honen izenean.

Honekin ideia orokor bat besterik ez genuen eman nahi, xehetasunetan sartzeak luze joko ligukeenez honenbestean utziko dugu.

III. Hiztegiaren helburua

Hiztegiaren helburua honetara bil daiteke; hizkuntzalaritzan erabiltzen diren kontzeptuak euskaraz nola adieraz ditzakegun proposatzea. Hiztegiak gorputza eta lexikoa dituelarik, hitz soilez gainera hizkera landu nahi izan dugu.

Norentzat egina

Hiztegia irakaskuntzan gai hauek erabili behar dituztenentzat egina dago bereziki, eskolak euskaraz ematerakoan laguntza izan dezaten.

Hiztegiak luzera eta maila desberdinetako artikuluak dituelarik, gaiaren eta gaiak hartzen duen tratamenduaren arabera B.B.B., U.B.I. edo Unibertsitateko lehen urteetako ikasleentzat erabilgarria izan daiteke; lexikoari dagokionez ere maila horietan erabiltzen dena aisa jasotzen duelakoan gaude.

Zertarako egina

Talde-lanean egin delarik lankide izan garenok hizkuntzalaritzari buruzko gaiak euskaraz garatzeko parada izan dugu. Honek ez du esan nahi, besterik gabe, euskaraz idazteko erraztasuna hartu dugunik; baina, erraztasun hori lortzeko lehen hastapena behintzat izan da.

Bestalde, hiztegi honek jakintza desberdinetarako lortu nahi den normalizazio linguistikoan ekarpen txiki bat besterik ez du egiten, baina, beharrezkoa projektu orokor horren zati bat den heinean.

Erabilerak erabakiko du zein hitz baztertzen den eta zein gelditzen, bidea hasteko abiapuntua badugu zer nolako ibilbidea egiten den geroak esango duelarik.

Txillardegi
Ana M. Toledo
Donostian, 1981eko Ekainean

LEHEN ATALA

GAIAK

HIZTEGIAN ERABILTZEN DIREN LABURDURAK

adib. = adibidez
ad. = aditza
adj. = adjektiboa
ant. = antonimoa
e. b. = esate baterako
etab. = eta abar
h. d. = hau da
ik. = ikus
ird. = irudia
itz. = itzultzailea
iz. = izena
K. a. = Kristo aurretik
K. o. = Kristo ondoren
or(r). = orrialdea(k)
sin. = sinonimoa

A

Abiakaria
incoativo / inchoatif / inchoative

→Ekintza baten hasiera bakarrik adierazten duen →aditz-formari, bere ondorengo garapena kontutan hartu gabe, abiakari deritza: «negarrez hasi zen».

Ik. ASPEKTUA

Ablatiboa
ablativo / ablatif / ablative

Greziarrek bost deklinazio-kasu zituzten bezala, erromatarrek sei zituzten. Eta seigarren →kasu horri nola esan ez zekiten beti. Hastapenetan «sectus casus» bataiatua, «ablativus» deitu zuten azkenean; eta, hitzak berak adierazten duenez, *urrunketa* markatzen du eskuarki kasu honek.

Latinezko ablatiboa, dena dela, balioanitza zen, eta →bitartezkoa edo lekuzkoa ere izaten zen tarteka. Hori dela bide, *moduzko ablatiboa* aipatu da batzutan, edo *bitartezkoa,* edo-ta *lekuzkoa.* Horrelakoxe sailkapenak egin ohi ditu ere ohizko →sintaxiak.

Zenbait hizkuntzatan (suomieraz, esate baterako) barne-ablatiboa *(ab)* eta kanpo-ablatiboa *(ex)* berezten dira.

Absolutua
absoluto / absolu / absolute

1. *Ablatibo absolutua* esan ohi zaio latinez →subjektua →ablatiboan eta →aditza partizipioan duen perpaus zirkunstatzial bati, bai subjektua eta bai partizipioa biak ablatiboan doazelarik. Adibidez: *me nolente* «nik nahi gabe», edo horrelako zerbait.

2. Adjektibo bat absolutua dela esaten dugu berez inolako mailaketarik eta graduatzailerik onartzen ez duenean. Beraz, inolako konparaziorik ezin egin daitekeenean. Adibidez, *kultural* euskal adjektibotzat onartzen badugu, adjektibo hau absolutua dela esango genuke, ezin bait daiteke esan, adibidez, **oso aste kulturala.* Bestalde, *superlativo absolutua* deitzen diogu konparaziorik onartzen ez duen →superlatiboari: *oso handia,* adibidez. *Superlatibo erlatiboari (gizonik handiena,* adibidez) aurkajartzen zaio.

3. *Absolutu* deitu izan zaio, baita ere, euskal →deklinabidean →nominatiboari edo *nor* →sintagmari. Baina ez dirudi oso deitura aproposa denik.

Abstraktua
abstracto / abstrait / abstract

1. Gramatika tradizionalean konkretu ez den →izenaren →sinonimoa.

2. Gramatika →sortzailearen eremuan →aditz bati *abstraktua* dela esaten zaio, →izentzapen eta adjektibaziozko →transformazioetan teorikoki inplikatua egon arren, inolako egiaztapen →morfofonologikorik ukaten ez duenean. Adibidez, *ingeniari* izena **ingenia(tu)* aditz teorikotik sortu den izentzapena da; frantsesezko edo gaztelaniazko *audible* →adjektiboa **audi* aditz teorikoaren →errotik sortu den →eratorpena da. Halaber izen bat *abstraktua* dela esaten da, →hitz eratorri bat esplikatzeko hizkuntzan ez dagoen erro bat suposatu behar dugunean. Esate baterako, *kamastra* euskaraz agertzen ez den **kama*-tik sorturiko hitz-tzat jo liteke.

3. Gramatika sortzailean ere, benetan gertatzen diren perpaus ebakiekiko →aurkakotasunaz (perpaus konkretuak), *perpaus abstraktua* zerari esaten zaio, →ikur orokorrenez osaturiko sakoneko →egituraren perpausari (IS, izen-sintagma, AS aditz-sintagma e.a.).

Adberbioa

Adberbio hitzak «aditzaren ondokoa» edo, adierazten du. Greziako gramatikalariek asmatu zuten →kategoria hau.

Adberbioa zerbait marjinala izan ohi da perpausean.

Gramatika zaharren abiapuntua semantikoa baldin bazen ere, adberbioa sarritan funtzionalki definitua izan da: adberbioak →aditza, →adjektiboa edo beste adberbio bat aldatzen duten →hitz-→klasea direla esaten bait du.

Berez, elementu aldaezina da adberbioa. Ez du mugatzailerik onartzen, baina batzuk —lekua eta denbora adierazten dutenek, adibidez— lekuzko →kasuei dagozkien →atzizkiak *(atzo, atzotik)* har ditzakete. Hain zuzen, hauxe da, aditzlagunak eta adberbioak zeregin berbera bete dezakete, baina horretarako, aditzlagunak nahitaezkoa du atzizkia eta adber-

bioak, berriz, ez. Adibidez: *bihar* eta *egun horretan* →esanahiaren eta →funtzioaren arabera gauza bera izan daitezke, baina *bihar* elementu trinkoa eta ezin banatuzkoa den bezala, *egun horretan,* gutxienez hiru elementuz osatua dago: *egun* + *hori* + *n.*

Esan ohi denez, aditzaren esanahia ez ezik beste zenbait perpaus-zatiren esanahia ere aldatzen du adberbioak: adjektiboarena, adibidez *(gizon handia* baina *oso gizon handia)* edo beste adberbio bat ere bai *(urruti,* baina *oso urruti).*

Sailkapena: Era askotara egin daiteke erizpide desberdinen arabera.

Badira batzu ez dutenak aditz bat edo perpaus bat aldatzen, eta bai adjektibo edo adberbio bat: *oso,* adibidez. Beste batzu, morfologikoki ere, →erakusleekin edo beste →izenorde batzurekin zer-ikusirik badute *(hemen, inora...).* Badira atzizki bidez eratzen direnak ere *(-ki, -ka, -ik...).* Morfologiaren arabera, badira deklinazio-atzizkiak onartzen dituztenak ere *(non, nondik, biharko...).*

Esanahiaren araberako sailkapenak ere egin izan dira: a) moduzkoak *(ongi, gaizki...);* b) lekuzkoak *(hor, hemen...);* c) denborazkoak *(gaur, gero, bihar...);* d) kantitatezkoak *(oso, asko, gutxi...);* e) baiezpenezkoak *(bai, egiazki...);* f) ezezpenezkoak *(ez...);* g) zalantzazkoak *(agian, apika...).* Baina, badirudi, funtsean hiru motatakoak ditugula adberbioak: a) *nola* galderari erantzuten diotenak (= moduzkoak); b) *non* eta honetatik eratorritako galderei erantzuten diotenak (lekuzkoak); c) eta *noiz* galderari erantzuten diotenak (edo denborazkoak). Beste guztiak edo ez dira adberbioak *(asko* eta *gutxi* bezala) edo hauetariko batean sartu beharko genituzke. Adibidez, *bai* eta *ez* partikulek adberbio baino gehiago perpaus-ordain dirudite.

Beste asko, berriz, gramatiketan adberbiotzat ematen badira ere *(gainean, goian...)* ez dira aditzlagunak baizik *(gainean = gain* + a + n; *haitzean = haitz* + a + n).

Adberbioak →galdetzaileak ere izan daitezke *(nola, non, noiz...).*

Euskaraz, adberbioen artean moduzkoek osatzen dute multzorik handiena eta gainera, atzizki egokiei esker beste gramatika-kategorietatik sor daitezke: *eder* + *ki* = *ederki; harri* + *ka* = *harrika...).*

Askotan, hala ere, ez da erraz izaten elementu bat adberbio den ala zer den jakitea.

P. Goenaga

Adiera

acepción / acception / sense

→Lexikografian hitz batek adiera asko duela esaten da, →textuinguruen arabera →esanahi desberdinak edukitzen dituenean. Esate baterako, *gertatu* →aditzak euskaraz «bazkaria gertatu dut» perpausean *prestatu* esan nahi du, baina «atzo istripu handi bat gertatu zen» textuinguruan, berriz, *«jazo».* *Adiera* asko duen hitza →polisemikoa da.

Adierazia

significado / signifié / signified

→Saussure-ren terminologian, *adierazi* hitza →*kontzeptu* hitzaren →sinonimo bezala agertzen da. Hizkuntz →zeinua, haren begitan, →adierazle baten eta adierazi baten, edo bestela esanda, irudi akustiko baten eta kontzeptu baten elkarketatik sortzen da.

Ezer gutxi esaten du Saussure-k kontzeptuaren edo adieraziaren izaera zehatzaz. Jartzen dituen adibideetan hiztegi orokorreko hitz arruntak erabiltzen ditu.

Adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura aztertzerakoan, zeinuaren hautazkotasuna baiezten du Saussure-k: «'Ahizpa' ideiak ez du inolako barne-loturarik bere adierazle den [aispa] →soinu-sailarekin». E. Benveniste-k dioenez, baiezpen hori egiteko gauza berera jotzen du Saussure-k: «ahizpa» ideiak, aitzitik, funtsezko lotura du *ahizpa* adierazlearekin, hizkuntzan zeinuak duen oinarri-izaerari buruzko Saussure-n beraren teoria kontutan hartzen bada: adierazlea eta adierazia biltzen dituen hizkuntz zeinuaren eta hizkuntzaz kanpoko errealitatearen arteko erlazioa da nahitaez →hautazkoa.

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Adierazlea

significante / signifiant / signifier

→Saussure-n terminologian, hizkuntz →zeinua *adierazle* baten eta →adierazi baten elkargoaren emaitza da, edo beste hitzez

esateko, irudi akustiko baten eta →kontzeptu baten →elkargoaren emaitza.

Irudi akustiko esamoldea *adierazle* hitzaren →sinonimo gisa erabiltzean, *adierazle* deituriko →fonema-segidaren izaera espezifikoa bakarrik hartu nahi du aintzakotzat F. de Saussure-k: haren irakaskuntzatik sortutako lehen zientzia linguistikoaren arabera, →zeinuaren alderdi materiala osatzen duen →soinu-segidaren alderdi fonologikoa izango litzateke adierazlea. Bakoitzaren aldaketak, tinbrea, ahoskuntz akatsak →fonetikari dagozkio (hizkuntzako soinuen →aktualizazioa), baina adierazlea, birtuala izanik, hiztun guztientzat erkide da.

Adierazle linguistikoa denboraren lerroan gertatzen da: esaldiaren une bakoitzak ez du onartzen egintza foniko bakar bat baizik, beste zenbait sistema semiologikotan dimentsio desberdinen arabera →agerkidetzak aurkez daitezkeen bitartean (semaforoaren kasua); adierazlearen →lerrozko izaera, elkarketa sintagmatikoen jatorrian dagoena, hizkuntzaren oinarrizko datua da Saussure-(re)ntzat. Adierazleari buruzko Saussure-(re)n ikuspegiak badu problemarik: zeinua adierazle baten eta adierazi baten elkargoa bada, hitzaren parekotzat hartu behar da hura? Garrantzizko gertaerak baztertu beharko lirateke horretarako: adierazleak desberdinak izan arren, *table* eta *tables*-ek baino gutxiago errepresentatzen ote dute *cheval* eta *chevaux*-k hitz bera? Gutxienezko zeinua, hitza baino txikiagoa da?, h. d., →aurrizkiak, →desinentziak, etab., zeinu dira, adierazle bat eta adierazi bat konbinatzen dituztenez gero?

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Adierazpena

expresión / expression / expression

1. Gramatika tradizionalean, adierazpena deritza osagai orori, (→hitza nahiz →sintagma dela).

2. Adierazpen-elementua, hizkuntzaren adierazpen-planoko unitaterik txikiena da, →edukinaren planoan →bereizle dena.

3. →Hjelmslev-entzat, edozein →mezuk bi alde ditu: adierazpena eta edukina, hots, bi ikuspegitatik azter daiteke: adierazlearen ikuspegitik (adierazpena) edo-ta adieraziaren ikuspegitik (edukina).

Aditza

Greziarrentzat *onoma* eta *rema* ziren →berbaldi-atal bereziak. Rema hori perpausaren ardaztzat hartua izan zen eta latinoek *verbum* izena eman zioten.

→Aditzaren definizioa Aintzinatetik eztabaidatua izan da. Greziar gramatikalariek eta latinoek honako erizpideen arabera definitzen zuten aditza: a) →kasu-→flexiorik ez du ametitzen; b) →denbora adierazten du; c) →ekintza edo →egoera adierazten du. →Sintaxiaren ikuspegitik, berriz, →predikatuaren →kategoria bezala agertzen da aditza. Geroago, beste hainbat definizio eman dira. Adibidez, Lafittek →subjektuaren egoera edo ekintza aditzera ematen duen hitza dela esaten du. Dena dela, badirudi aditza definitzeko bere →paradigman oinarritu behar dugula. Alegia, aditza, *jokatu* egiten delako da aditz. Eta →aditz-joko horretan →pertsonak eta denborak garrantzi handia dute. Aditza ezin dugu definitu ekintza edo egoera adierazten duen zerbait bezala, ekintza eta egoera (hitzek berek ere ekintza eta egoera adierazten bait dute, nahiz eta →izenak izan), izenek ere adieraz lezaketelako. Bestela esan: maila batean behintzat *datoz* eta *etorrera* oso argi dago bata aditza dela eta bestea izena, nahiz eta bigarrena →*nominalizazio*-prozesu bati esker sortua izan.

Aditzaren sailkapenak ikuspegi askotatik egin daitezke:

— Aditz →iragankorraren eta →iragangaitzaren berezketa latinoentzat ezaguna zen. Euskaltzaindiak ere —euskarari gagozkiolarik— onartu du eta iragangaitz/iragankor berezketa ontzat eman du. Baina badirudi gaur egokiago dela NOR, NORI eta NORK →sintagmen araberako sailkapen bat egitea. Euskal aditzak perpausean ager daitezkeen hiru sintagma horiekiko →komunztadura bait du.

— Aditz →laguntzailearen kontzeptua Pizkundez gero ezaguna da. Honen arabera, euskaraz aditz-forma jokatuak bi eratakoak izan daitezke: a) aditz-forma *sintetikoak (nator, da, zebilkigun...)* eta b) aditz-forma *perifrastikoak (etorri da, izan da, ibili zitzaigun...)*. Perifrastikoek, aditz-izenaz aparte aditz laguntzailea ere badute.

— Aditz *loturazkoa* ere izan daiteke. *Izan* normalki loturazkoa dugu. Honen zeregina subjektuaren eta izen-predikatu-

aren artean dagoen erlazioaren euskarri izatea da. Beste aditzak aditz *predikatitzaile* izan ohi dira.

Sintaxiaren aldetik beste hainbat sailkapen egin daiteke. Adibidez, zer-nolako →konpletiboa eskatzen duten kontutan izanik. Esaterako, *nahi* eta *esan* desberdinak dira alde honetatik. Bestalde, euskaraz, *ari* aditza ametitzen dutenak eta ez dutenak ere badira.

Aditzari dagozkion kategoriak

a) *Denbora* betidanik izan da aditzari dagozkion kategorietatik nagusiena.

b) →*Aspektua* ere oso garrantzitsua da. Adibidez, *egin du* eta *egiten du* aspektuaz berezten dira.

c) →*Moduak* hiztunak duen jarrera mentala adierazten du.

P. Goenaga

Aditz-jokoa

conjugación / conjugaison / conjugation
Sin.: KONJUGAZIOA

→Denbora, →modua, →aspektua, →zenbakia, →pertsona eta abarrezko →kategoriak adieraztekotan, nahiz soilik nahiz →laguntzaile batez, →aditz batek molde mordo bat har dezake: *jan dut, jaten zuten, jan lezakete, jango nuke,* eta abar. Molde hauen multzoari aditz-jokoa edo konjugazioa deritzo.

Aditz-jokoak, beraz, →*paradigma* bat osatzen du.

Zenbait hizkuntzatan bide beretik jokatzen dira aditz guztiak; beste zenbaitetan, aldiz, hiru, lau, edo hainbeste modutara. Gaztelaniaz, aditz →irregularretatik aparte, jokatzeko hiru modu daude: *amar, temer, partir.* Frantsesez beste hiru. Eta abar.

Euskarazko aditz-joko perifrastikoak (laguntzailezkoak, alegia), bi joko-modu dauzka:

izan (eta **edin)*-ena, eta
ukan (eta **ezan)*-ena.

Adjektiboa

Aintzinatean, bai Platonek, bai Aristotelek, bai sanskritoaren gramatikariek, logikaren araberako arrazoinez baliatuz, →kategoria berean sartu zituzten adjektiboa eta →aditza; →predikatuaren betekizuna bait dagokie biei →perpausean.

Estoikoek, berriz, garrantzi handiagoa aitortu zioten morfologiari, eta →izenkategorian sartu zuten: biak deklinatzen dira.

Filosofo «espekulatiboek», bestalde; eta hauekin batera eskuarki gramatika tradizionalak (eta hau ez da, izan, hein handi batez, «modi significandi» edo perpaus-atalen teoria metafisikoa baizik), kategoria independentetzat daukate adjektiboa. →Izenari dagokionez, bai →generoa, bai →zenbakia eta →kasua, derrigorrezkoak dira. Adjektiboari dagokionez, berriz, →komunztadura mailako arazoak dira horiek, azaleko egitura-arazoak, gaurko erara hitz egitekotan: adjektiboak, hitz batez, mugatzen duen izenak dakartzan morfologi ezaugarriak hartzen ditu. Hizkuntza guztiek, halere, ez dute latinak bezala jokatzen alderdi honetatik: alemanieraz ez da komunztadura hori egiten adjektibo predikatzailearekin; eta euskaraz kasu bakar horretan, eta horretan soil-soilik, gertatzen da horrelakorik: →sintagma guztian →morfemak ez dira behin baizik agertzen.

a) las cas*as* son blanc*as,* die Häuser sind weiß (∅), etxe*ak* zuri*ak* dira.

b) las cas*as* blanc*as,* die Weiß*en* Häus*er,* etxe zuri*ak.*

Beste alde batetik, adjektibo predikatzaileak ez ditu aditzak berezko dituen ezaugarri morfologikoak: →denbora, →modua, →pertsona, →boza. Hizkuntza askotan, quasi-aditz bat erabiltzen da horretarako (→kopula), adibideetan ikus daitekeenez.

Azaleko egiturak eta sakoneko →egiturak berezteak, bide berriak urratu dizkio eztabaidari. Gramatika Sortzailearen zenbait ordezkarik (Lakoff, Rosenbaum, Fillmore), sakoneko egituran aditza eta adjektiboa kategoria bakar eta berbera direla aldarrikatzen du; beste zenbaitek, berriz (Bach...), sakoneko egitura berberan sartzen dituzte izenak, aditzak eta adjektiboak.

Argudio-mordo bien gezurra salatu dute batzuk (→Chomsky-k berak, besteak beste, 1970-ko «Remarks on Nominalization» delakoan); haren muinean uste hau bait datza: lexiko-kategoria oroko-

rrak bilatzea. Gauza bera egin du P. Schachter-ek: «On Syntactic Categories», U.C.L.A., 1973.

→Semantika bidezko saiaketek, dena dela, beti egiten dute topo anitz eragozpenekin. Nolakotasuna zer den bide ziklikotara jo gabe azaltzeak, esate baterako (alegia, adjektiboaren →esanahia askoren ustez), egoerarekiko →aurkakotasunez; baina baita honek ere: (± dinamiko) →ezaugarriak biak azpi-kategorizatzen dituelako, bai adjektiboa, bai aditza (argi vs. eri; jakin vs. kantatu).

Kategori gramatikan (Jespersen, Ajdukiewiez, Bar-Hillel, D.-Lewis, Montague, Bartsoh...) kategoria logiko berezitzat zedarritzen da adjektiboa. Haren betekizun sintaktikoa hauxe da: →izen →erkide bati erantsi, eta egitura berri bat egin, berau ere izen-kategoriaren barruan: $\text{neska}_N + \text{polita}_{N/N} \rightarrow (\text{neska polita})_N$

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Adstratua

Ik. SUBSTRATUA; SUPERESTRATUA; ADSTRATUA

Afasia

Afasia hitzarekin intelektualki pertsona normalen →komunikazio linguistikoan zenbait eragozpen sortzen duen gaixotasuna adierazten da. Kausak fisiologikoak dira, h.d., burumuinaren ezkerreko hemisferioan —eskumatien kasuan— mintzairaren alderdian gertatutako kalte kortikalak, entzumen, ikusmen eta hizketaren organoekin zer-ikusirik ez dutenak. Kalte horiek →adierazpen eta ulerkuntzan eragiten dute, eta maila eta mota askotakoak izan daitezke; hainbeste non eritasunaren ikertzaileek berek ere, sailkapen bakar bat lortu ez bait dute.

Afasia-motarik ezagunen eta oinarrizkoenak, Henri Hecaen-en arabera, hauek dira: 1. Adierazpen-afasia edo afasia higitzailea, 2. Zentzu-afasia, 3. Broca-ren afasia, 4. Eroalpen-afasia eta 5. Amnesi afasia.

1. Adierazpen-afasiaren kasuan, mezu-igorpena, h.d., →mezu linguistikoen ekoizpena, oso behaztopatua agertzen da, eta maiz ezin daiteke inolaz ere gerta. Gehienetan eriak ez du hitz bat besterik erabiltzen: Broca-k aztertu zuen kasuan, adibidez, «tan tan tan» zen gaixoak esaten zuen hitz bakarra. Gaixotasunak ez baditu sustraiak oso sarturik, eria halako modu telegrafikoz mintza daiteke, duen →hiztegia oso murrizturik dagoelako eta erabiltzen dituen unitateek aldaketa asko jasaten dutelako. Ulerkuntzak, hasieran izan ezik, ez du kalterik pairatzen, eta irakurketak ere ez; adierazpen idatziak, hala ere, mintzaira mintzatuak dituen oztopo berdinak ditu.

2. Zentzu-afasia, Wernicke-ren afasia izendapenaz ere ezagutua, aurrekoaren kontrakoa da. Kasu honetan mezuen harrera da behaztopatua dagoena. Kasurik txarrenetan eriak ez du ezer ulertzen; eta besteetan, eragozpenak perpaus korapilotsuen ulerkuntzan gertatzen dira bakarrik. Mezu-ekoizpena bere kasako etorriaz egiten da, baina →adiera maiz oso aldaturik egoten da, hitz batzu besteren ordez erabiltzen bait dira (parafasia).

3. Broca-ren afasia adierazpen-afasia eta zentzu-afasiaren arteko nahas-mahasa da. Kasu hauetan eriak oztopo handiak ditu adierazpenean; mezu-harrera mintzatuan, berriz, ez hainbeste; eta irakurketan are gutxiago.

4. Laugarren afasia-mota hau oso gutxitan gertatzen da, eta adierazpenaren eragozpen askorekin batera, mintzaira mintzatuaren ulerkuntza hobe bat aurkezten du; irakurketa oso gutxi dago behaztopatua, eta idazkera, aitzitik, oso txarra da, kopian izan ezik.

5. Amnesi afasia, hitzak ahazten direnean gertatzen da, hots, zentzu-afasia batetan joera hori nagusi denean. Afasia hau jasaten duten eriek gehienetan ulerkuntza, irakurketa eta idazkera onak dituzte.

Azkenez, mintzairaren kontzepzio →bitar batez, Jakobson-ek eta Halle-k proposatzen duten eredu teorikoa aipa daiteke, haien ustez eri afasikoen mintzairak horixe besterik ez bait du uzten agerian, eriengan →paradigmaren mailako →elkar-

goa, edo-ta →sintagmaren mailakoa agertzen bait da hondatua.

A. Eguzkitza

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Aferesia

aféresis / aphérèse / apheresis

Aferesia →aldaketa fonetiko bat da hasierako →fonema baten erortzeagatik gertatzen dena, edo-ta aurreko zatiaren ezabaketagatik (hitz baten lehen →silaba edo gehiago). Erortze hau, zenbait kasutan, →artikuluarekiko nahasketa bati zor zaio, adibidez «boutique» frantses hitzean, hitz honek grekozko «apotheke» delakoan bait du bere jatorria. Gaztelaniazko *lo* eta *la* artikuluak ere aferesiz sortu dira latinezko *illum* eta *illam*-etik, eta euskaraz, esate baterako, mintzaira idatzian markatzen ez den aferesi bat gertatzen da mintzaira mintzatuan, h. d., *eta* →juntagailuaren lehen →bokalaren erortzea aurreko hitza bokalez amaitzen denean. Euskarazko «*Laharraga*»tik, «*Arga*» sortu da aferesiz; frantsesezko «Rhône» euskal *Larrun*-dik irten den bezala.

Afixua

Ik. HIZKIA

Afixuzkoa

Ik. HIZKIZKOA

Afrikatua

africado / affriquée / affricate

Afrikatua, →herskari bat eta →igurzkari bat ezkontzen dituen →kontsonantea da. Etsenpluz, euskarazko *etxe* hitzean, bigarrena afrikatua da, [tʃ], edo-ta [č] bezala ere errepresentatua. Euskaraz hiru afrikatu →gor ditugu, «tz», «ts» eta «tx» idatziak.

Nahiz eta afrikatuaren hasieran leherkaria garrantzitsuagoa den eta igurzkaria bukaeran, luzaroan uste izan denaren kontra, higidura bi horiek aldiberekoak dira. Artikulazio hau *erdi-herskari* edo *erdi-igurzkari* deitzen da ere. Hizkuntzen historia begiratzen badugu, badirudi afrikatuek herskari ezaugarria galtzen dutela igurzkari bihurtzeko; frantses zaharretik frantses modernora gertatu den bilakaeran ederto ikus daiteke hori:

[tsir] → [sir] «cire» edo eta [tʃer] → [ʃer] «cher»

→Akustikaren eremuan afrikatuak eta leherkariak desberdintzen dituena karrankaritasuna da, eta afrikatuak eta igurzkariak desberdintzen dituena, berriz, etenkortasuna.

Ik. FONETIKA-FONOLOGIA

Agentea

agente / agent / agent

Sin.: EGILEA

1) →Aditz pasiboaren →osagarria da *osagarri-egilea. Osagarri-egile* horri dagokion →funtzioa aktiboan →subjektu bilakatzea da. Adibidez, «Paul est blessé par Pierre» frantses perpausean, *osagarri-egilea,* «par» edo «de» aurretik duela, «par Pierre», «Pierre blessé Paul» perpaus aktiboan, subjektua bilakatzen da.

2) Egiturazko gramatikan, aditz →iragangaitz eta zentzu pasiboko aditz pronominalen *(la branche casse, les fruits se vendent cher),* eta aditz pasiboen artean dagoen desberdintasuna *(la branche est cassée, les fruits sont vendus cher)* zera da, *prozesura* edo →*ekintzara zuzenduriko* perpaus-moten (aditz iragangaitza edo zentzu pasiboko pronominala dutenen) eta *agentera zuzenduriko* perpaus-moten (aditz pasiboa dutenen) arteko desberdintasuna da.

Agerpena

ocurrencia / occurrence / occurrence

Elementu linguistiko bat textu batean, agertzen den bakoitzean, agerpen bat gertatzen da. Honela, ikuspuntu linguistikoz azterturiko textu batetan, *abertzaletasun* →hitza aurkitzen den bakoitzean, *abertzaletasun* hitzaren *agerpen* bana daukagu.

Aginduzkoa

imperativo / impératif / imperative

Sin.: INPERATIBOA

1. Solaskide bati edo anitzi emandako agindua adierazten duen →aditz-modua da aginduzkoa (baiezko perpausetan), edo-ta debekua (ezezko perpausetan); zatoz; ez zaitez sar. Euskara zaharrez bi aginduzko zeuden: *egizu* (orain), eta *egikezu* (gero).

2. Gramatika sortzailean, aginduzkoa perpaus-mota bat da, →perpaus →galdetzailea eta perpaus →deklaratzailea bezala. Perpausaren osagai honek, bigarren →pertsonako →subjektua bakarrik onartzen du (edo 2. pertsona besarkatuaz, adib.: gu), eta sortzen den →transformazioa aginduzkoa da.

3. *Aginduzko funtzioa, mintzairaren* funtzio bat da. →Funtzio honen bidez →*igorleak →jasotzaileari jokabide* konkretu bat ezartzen dio. Funtzio konatiboa ere deitzen zaio.

Ahaidetasuna

parentesco / parenté / relationship

Bi ahaidetasun-mota berezten ditu →linguistika historikoak: historikoa edo geneti-

koa bata, tipologikoa bestea. Bi hizkuntza genetikoki ahaidetuak daude, biak hizkuntza bakar baten eboluziotik datozenean. Batzutan historiak ematen du ahaidetasun historikoa ezartzeko aukerarik; hau da latinetik datozen hizkuntza erromanikoen kasua. Sarriagotan, ordea, alderaketaren bidez frogatzen da ahaidetasuna; indoeuropar familia osatzen duten hizkuntzen kasua da.

Ahaidetasun tipologikorik ere ezar daiteke; horrela, hasiera batean desberdinak izan arren, eskualde batzutako hizkuntzek elkarri hurbiltzeko joera agertzen dute.

Ustegabeko hurbilketak ere gertatzen dira, Hego Afrikako tswana-ren eta germanikoaren artekoak adibidez (antzeko kontsonantismoak); era berean, takelmak eta indoeuroparrak sei →ezaugarri tipologiko inportante dituzte →erkide. Ustegabeko konbergentziak ematen direnean hobe da kidetasunaz hitzegitea, ahaidetasun kontzeptua jatorri erkidearen hipotesia ezartzen denerako utziz.

Ahalezkoa

potencial / potentiel / potential

→Aditzari gagozkiolarik, →aurkakotasun bat aurki daiteke. Baldintza edo hipotesi batzu, inolaz ere mamitu ezinak dira; beste batzu, berriz, gertagarri direlarik. Aurkakotasun honi *irreal/erreal* bikotea datxekio, eta bigarren hau adierazteko *ahalezkoa* dago. *Si dicas,* latinez, «esan bazeneza»; esate hori erreala iruditzen zaidan ber.

Euskaraz, berriz, adizkera-multzo oso bati deritzo *ahalezkoa;* eta hauetan *ahal izan / ezin izan* bikotea da gidari:

Eror nintekeen, eror naiteke; edo-ta, *eros nezakeen, eros dezaket: pude / podré* bikotea ordaintzen du, gutxi gora-behera (je pus / je pourrai).

Aho-gingila

úvula / uvule / uvula

Sin.: UBULA

Aho-gingila (latinez «uvula») zenbait artikulazioren tinbre →sudurkaria edo →ahozkoa zehazteko esku hartu behar duen →aho-sabaiaren mutur mugikorra da. Ahozko →fonema bat ebakitzeko aho-gingila goratua dago, fonema sudurkarientzat beheratua. Aho-gingilak →aho-gingilezko →soinuen →ahoskuntzan ere artikulatzaile goren bezala parte hartzen du, nahiz →igurzkariak nahiz →dardarkariak izan (frantsesez [ʁ] / [R]): [R] dardarkaria, [ʁ] igurzkaria.

Aho-gingilezkoa

uvular / uvulaire / uvular

Sin.: UBULARRA

→Aho-gingilak *(uvula,* latinez), bibratuz, mingainaren atzekaldearekin egiten dituen ukipen errepikatuek sortzen duten →kontsonantea. →Mingainkariak dira normalean ubularrak. →Igurzkariak izan daitezke hauek (adibidez, *mer* edo *barre* hitz frantsesen bukaeretan aurkitzen den «Parisko [r]» deitu →fonema: mingainaren atzekaldeak estutu egiten du airearen pasabidea aho-gingilaren kontra. Ubularrak →darkarkariak ere izan daitezke (adibidez [r̃] dardarkari →apikariaren ordez maiz den «[r] grasseyé» deitu fonema). Aho-gingilaren barrerak airearen pasabidean duen eragina dela kausa, airearen uherdura oso gogor batek ezaugarritzen ditu fonema ubularrak; horregatik, fonema karrankari gertatzen dira eta kideko fonema →belareei oposatzen zaizkie, mateak bait dira azkenekook.

Aho-sabaia

paladar / palais / palate

Aho-sabaia, aho-barrunbearen goiko pareta da; aurretik goiko hortzen albeoloek mugatzen dute, atzetik →aho-gingilak.

Aho-sabaiaren aurreko atalaren bi herenak aho-gangak osatzen ditu; zati hau hezurrezkoa da eta mugiezina, eta *aho-sabai gogorra* ere esaten zaio. Atzeko atala trenkada bigun bat da, mugikorra neurri batetan, →*aho-sabai biguna* esaten zaiona eta →aho-gingilean bukatzen dena. Aho-sabai gogorra hiru zatitan banatzen da: aurresabaia, erdisabaia eta atzesabaia. Aho-sabai biguna beste hirutan: aurrebelarea, atzebelarea eta aho-gingila.

Aho-sabai biguna

velo del paladar / voile du palais / soft palate

Aho-sabai biguna, aho-sabai gogorraren atzekaldeko →aho-sabaiaren zatiari esaten zaio. Honen mutur higikorrak, →aho-gingil izenekoak, ireki eta itxi egin dezake sudurtzuloetarako pasabidea, aho- eta sudur-artikulazioak bereztea posibleztatuz.

Ahokaria

oral / oral / oral

Fonema ahokaria (edo ez-sudurkaria), →aho-sabaia jasoz gauzatzen den →fonema da; aho-sabaiaren jasotzeak sudurtzuloen itxiera dakar, eta, ondorioz, arnasbeheraairea aho-barrunbetik barrena irteten da.

Ahoskuntza

Ik. EBAKERA

Ahots-aparatua

aparato vocal / appareil vocal / speech apparatus

→Hizketaren organo-saila eta hura higiarazten duten muskuluak ahots-aparatu izenaz ezagutzen ditugu.

Ahots-kordak

cuerdas vocales / cordes vocales / vocal cords

Ahots-kordak bi ezpain simetriko dira, muskulu batez eta lokarri elastiko batez osatuak. Laringearen bi aldeetara aurkitzen dira, hezur krikoideo edo «zintzursagarren» eta kurruska aritenoideoen artean, hura aurretik eta hauek atzetik gelditzen direla. Aritenoide bakoitzari ahots-korda baten muturra dago loturik. Aritenoideen aldenketak, ahots-korden V gisako →irekidura dakar, ahots-kordak aurrekaldetik (krikoideoaren gainean) lotuta segitzen dutenez. Glotia, ahots-korden arteko tartegunea da. Aritenoideoak elkartzen direnean, ahots-kordak ere elkartzera bultzatuz, glotia itxi egiten da eta ez da airerik pasatzen.

Fonazioa gertatzen den bitartean, itxita daude ahots-kordak hauen atzean pilatzen da biriketatik datorren airea eta honen presioak azkenean berezi egiten ditu ahots-kordak. Ateratzen da airea, gutxitzen da presioa, berriro ixten dira ahots-kordak. Presioa berrezartzen denean, berriro hasten da zikloa.

→Akustikaren ikuspegitik, ahots-korden dardarak burrunbada entzungarri bat sortzen du, ahotsa, ondoren laringe-gaineko durundigileek aldarazten dutena. →Ozenketa esaten zaio ahots-korden dardarari. Munduko hizkuntzetan ahots-korden dardara erabiltzen duten →fonemak dira ugarienak: →bokal guztiak jeneralean eta baita →kontsonanterik gehienak ere.

Ahozkoa

oral / oral / oral

Ahozko hizkuntza:

a) *Hizkuntza mintzatuaren* →sinonimo da;

b) Zehazkiago, boz goraz ahoskaturiko hizkuntzaren forma idatzia adierazten du (irakurketa).

Ahula

débil / faible / weak

1. Zenbait →kontsonanteei *ahul* deritze, kontsonante bortitzei aurkajarriz. Honela, /b/, ahula, /p/ bortitzari aurkajartzen zaio.

2. Eraketa (→kasua, →deklinazioak) *ahul* dira, flexiodun hizkuntzatan, enborraren gradu laburra dutenak, gradu bortitza dutenei kontrajartzen zaielarik.

Ahulketa

debilitamiento / affaiblissement / lenition

Horrela deitzen zaio bilakaera historikoetan edo →alternantzia sinkronikoetan gertatzen den fenomeno bati. Fenomenoa hauxe da: hizkuntza batzuetan eta lekugune berezietan (gehienetan →bokalartean), →kontsonanteak, →bokaleen eraginagatik itxitura txikiagoz egitea. Kontsonante bat ahulketaz desager daiteke. *Hizkuntza Zeltikoetan* kontsonante-→sistema guztia ukitzen duen fenomeno hori argi ikus daiteke.

Mendebaleko hizkuntza erromanikoak sortzeko latinetik gertatu zen bilakaera historikoan; esate baterako portugesa, gaztelania, katalana e. a.koak sortzekoan. Adibidez:

rotam (lat.), roda (port.), rueda (gazt.), roda (kat.), roude (fran.). Bizkaiko zenbait tokitan *arroda* erabiltzen da.

Aitzinkaria

antecedente / antécédent / antecedent

1) Gramatika jeneralean, perpaus-atal bat edo →proposizio bat aitzinkariak direla esaten da, erreferentzi oinarri bezala harturiko →hitzaren edo hitz-sailaren aurrean jartzen direnean.

2) Gramatika tradizionalean *aitzinkaria* zerari esaten zaio, →erlatiboaren aurrean doan →izen edo →izenordeari. Adibidez, espainierazko perpaus honetan: «ha comprado las manzanas que yo le he dicho», *las manzanas, que*-ren *aitzinkaria* dugu. Euskaraz ezin daiteke *aitzinkariaz* hitz egin: «erosi ditudan sagarrak onak dira».

3) →Izenorde anaforiko bati dagokion atala ere *aitzinkaria* deitzen da. «Eñaut atxilotu dute; hark ez du gaur etortzerik izanen» perpausean *Eñaut, hark* izenordearen aitzinkaria dugu. Batez ere, perpaus nagusien aurretik ipintzen diren →menpeko perpausak deitzen dira *aitzinkariak*. Beraz, «Etortzen bada hitz egin iezaiozu», bezalako perpausetan, «etortzen bada» baldintzazko proposizioa, aitzinkaria dela esaten da. Ik. EUSKARAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Aitzinapena

anticipación / anticipation / anticipation

→Fonema batek lehenago dagoen beste fonema bati eragiten dion atzeranzko egintzari aitzinapena deitzen zaio (→sinonimoa: →atzeranzko →asimilazioa). Italierara iragaterakoan, bi →kontsonante desberdinetako latindar sekuentziak sarritan, geminatu bihurtu dira, bigarren kontsonantea aitzinatzen delarik: lectum → letto, octo → otto, etab.

Aktantea

Ik. JARDULEA

Aktualizazioa

actualización / actualisation / realization

Hizkuntzaren unitate bat →hizketara pasatzeko egiten den operazioa da aktualizazioa; hots: unitate isolatuen zentzu indeterminatutik →mezu jakin batetan hartzen duten zentzu zehatzera iragatea. Aktualizazioaren bidez, lekutu egiten da (denboran nahiz espazioan) kontzeptu oro, eta kuantifikatu (zenbatzailea hartzen du).

→Komunikazio-→egoerak berak segurta dezake aktualizazioa: *Sua! Egun on!* Maizenik, hala ere, egoera linguistikoak segurtatzen du aktualizazioa, termino bakarreko →esakunetan; *bai,* aurreko gertaera linguistiko bati erantzuna da (solaskidearen galderari erantzuna). Batzutan, bestalde, esakuneak azpian du aktualizazioa: «kontuz» dioen kartel baten irakurleak, komunikazio-egoeraren funtziotan, azpiko esakune linguistikoa osa dezake; adibidez, «kontuz ibili beharra dago». Esakune-kasu partikular hauetatik berezi egin behar da aktualizazioaren inplizitu edo explizitutasunaren arazoa. Aktualizazioaren eskakizunak desberdinak dira hizkuntza batetik bestera. Honela, →aditz →indoeuroparrak ez zuen aditz-→ekintza →denboran lekutzen →aspektua bakarrik kontutan harturik; denborazko aktualizazioa, berriz, inplizitua zen, →textuinguruaren kontu geratzen zen. Hizkuntzarik gehienetan, beharrezkoa da aktualizazio-motaren bat, mezuari burutuzkotasuna emateko. Linguista batzuren ustez, hala ere, bada aktualizazioaren premiarik ez duen hizkuntzarik, unitate lexiko bat mezu bezala erabiltzea aktualizatzeko aski delarik.

Akusatiboa

acusativo / accusatif / accusative

Greziar gramatikarien ustez, →ekintzaren obrakuntzari datxekio →kasu hau. Baina zenbait →adiera desberdin izan ditzake; eta, gutxi gora-behera, honela azal daiteke: →aditz-ekintzak zuzenki ukitzen duen →objektua dela akusatiboa.

Euskararen ikuspegitik ikusirik, aise samar esan daiteke akusatiboa zer den: aditzean NOR-ZER galderari datxekiona.

Normalean *Kanpo-objektuzko akusatiboa* izaten da, eta NORK aditzekin gertatzen da: *arraina jan dute* (arraina, beraz); baina frantsesezko *aller son chemin* perpausean ere, nahiz «aller» hori NOR aditza izan, akusatibotzat har daiteke «son chemin» hori.

Zenbait hizkuntzatan (latinez, esate baterako) *akusatibo bikoitza* gertatzen da batzutan: *docere pueros grammaticam* perpausean, adibidez, bi akusatibo ditugu elkarren ondoan.

Akustika

1. *Akustika* hotsen egitura eta belarriak hots horietara duen erreakzioa ikertzen duen Fisikaren atala da.

2. →*Fonetika Akustikoak* →ahozko →mezuaren izaera fisikoa aztertzen du, mezu horren sortzeko eta jasotzeko baldintzak alde batera utzita. Artikulaziozko fonetikak eta saiakuntza fonetikoek egin dituzten aurrerabideek erakutsi digute artikulazioak ez direla lehenago uste ziren bezain egonkorrak. Honela, fenomeno akustiko bat, konpentsazioazterketen bitartez anitz gisatara lortzen ahal da. Adibidez, *feu* frantses hitzaren [∅] bokala [e] batetatik lor daiteke, mihia kenduz edo ezpainak borobilduz. Hots bat definitzen duten parametro akustikoak hauek dira: dardarketen →maiztasunak sortarazten duen *altuera,* →zabaltasunak eta maiztasunak ematen duten →*intentsitatea* eta →tonu partzial edo harmonikoen entzungarritasunak sortzen duen *tinbrea.*

Erresonantzi hutsune bakoitzak, iragazki akustiko baten gisa, bere maiztasuneko eta ongi heldutako tonu partzialak indartzen ditu. *Goi*-harmonikoak indartzen badira tinbrearen soinu argi bat lortzen da, aldiz, harmoniko apalak indartuak badira tonua larritzen da. Maiztasun indartsuek hots bakoitzaren tinbrea zertzen duten →formanteak eraikitzen dituzte.

Gaurko elektrakustikaren metodoez edozein hots linguistiko azter dezakegu

eta azterketaren ekoizpena ager, hotsaren egitura akustikoa (→tonu partzialak, →maiztasuna, →intentsitatea) erakusten duen espektro baten itxuran.

Espektro akustikoari esker, hizkuntzaren soinuen sailkapen bat egin daiteke artikulaziozko sailkapenari dagokiona. R. →Jakobson, G. Fant eta M. Hallek lehen saio bat 1952an egin zuten «Preliminaries to Speech Analysis» delakoan, →binarismoaren postulatuen arabera. Hizkuntzalari eta fonologilari horien eritziz badira hamabi →aurkakotasun akustiko, eremu horretan hizkuntza bakoitzak bere hautapen fonologikoa egiten duelarik: →bokalezko/ez-bokalezko, kontsonantezko/ez-kontsonantezko, →trinko/barreiatu, →jarrai/etenkor, →ozen/→gor, behaztopatu/ez-behaztopatu, bemolizatu/ez-bemolizatu, →sudurkari/→ahokari, teinko/nasai, lodi/zorrotz, dieresifikatu/ez-dieresifikatu, karrankari/mate.

→Bokal eta →kontsonanteen ikerketa akustikoak argi ditzake zernolako eragipenak dituzten elkarren artean; horrela →silabari buruzko teoria berriei eta orobat →metafonia edo bilakaera diakronikozko interakzio-fenomenoen interpretazio berriei irekitzen zaie bidea.

A. Arkotxa

Ik. FONETIKA; FONOLOGIA

Albeolarra

alveolar / alvéolaire / alveolar

Gehienetan mihiaren puntaren aplikazioaz gaineko hortz-albeolotan artikulatua den kontsonantezko →fonemari «albeolar» deitzen zaio: →kontsonante-mota hori →horzkarien sailean sartzen da. (S) eta (Z) kontsonanteak → igurzkari albeolarrak dira: euskaraz, *zozo,* frantsesez, *zig-zag, sur.*

Aldaera

variante / variante / variant

Bi unitate linguistiko (→fonema edo →morfema) inguru (fonemiko edo morfemiko) berean agertzen badira eta →hitzaren edo →esaldiaren zentzu denotatiboa aldatu gabe elkar ordezka badezakete, bi morfema edo fonema hauek fonema edo morfema bakarraren *aldaera →askeak* dira; aldaera estilistiko ere esaten zaie.

Bi unitate linguistiko (morfema edo fonema) inoiz inguru (fonemiko edo morfemiko) berean agertzen ez badira eta baldin elkarren artean ahaidetasunen bat (artikulaziozkoa edo akustikoa fonemetan; semantikoa morfemetan) badute, unitateok morfema edo fonema beraren *konbinaziozko aldaerak* dira. *Hau-* eta *hon-* morfemak «lehen mailako hurbiltasuneko erakuslea» esan nahi duen morfema bat beraren konbinaziozko aldaerak dira, bakoitza inguru exklusibo banatan agertzen bait da: *hau-* singularreko nor kasuan eta pluralekoetan *(hau; hauen, hauetako,* etab.) eta *hon-* singularreko beste kasuetan *(honi, honekin, honetara,* etab.). *Textuinguruzko aldaera* ere esaten zaie.

L. →Hjelmslev-en arabera, →formaz beste batetatik berezten den baina haren →edukina aldatzen ez duen →adierazpen-forma bat da aldaera. Aldaerak, uztartuak (hots: inguruak baldintzatuak) edo-ta askeak izan daitezke.

Aldagailua

conmutador / embrayeur / shifter

Aldagailuak esaten zaie, egoerarekin batera zentzua aldatzen duten →hitzei; hizkuntzan →erreferentzia propiorik ez dutenez, ez dute erreferenterik hartzen →mezu baten barnean izan ezik.

Adibidez, *ni, aita, atzo, hemen* hitzek ez dute baliorik hartzen, mintzatzaile →igorle bati buruz eta →esakuntzaren denborari buruz ez bada. *Ni, aita, hemen* hitzek, nor mintzatzen den jakitea eskatzen dute; *atzo* hitzak, →esakunea noiz gauzatu den ezagutzea eskatzen du.

Baina →esanahi jeneral bakarra ez edukitzea ez da aski aldagailuak definitzeko. Hizkuntza naturaletan erabiltzen diren operadore logikoek *(orain, baina, beraz),* esate baterako, →berbaldiaren barruan ez dute sekula logikan duten balio kontzeptual propioa; hauek, aldi bakoitzean, bi kontzepturen edo bi →proposizioren artean, harreman berezi bat adierazten dute. Erizpide esentziala, hortaz, derrigorrez berbaldira bidaltzea da.

Mintzairaren →funtzioen deskribapenaren arabera, derrigorrez mezura bidaltzen duten →kodeko unitateentzat utziko da *aldagailu* izena. Horien zerrenda eman gabe, →izenordea eta →aditz-→denborak seinalatzen ditu R. →Jakobson-ek. Izan ere, mezua gauzatu aurreko edo ondoko gertaera bat seinalatzeko balio dutenez, aldagailu-rola betetzen dute aditz-denborek.

Aldaketa

1. *Aldaketa* da zalantzarik gabe mintzairak duen ezaugarririk garrantzitsuena. Bi garai desberdinetan ikus daiteke hitz bat, edo hitz-parte bat, edo eraketa morfologiko bat, ez dela era berdinean azaltzen, batzutan idazkera engainagarria bada ere. Honela, K. Mitxelenak dioenez gaurko «ardo» hitza garai batean «*ardano» forma omen zen; «aberats» hitza berez «abere duen pertsona» zen, baina, egun jadanik «diru eta ondasun handia duen pertsona» da aberatsa nahiz eta abererik ez izan.

Aldaketa geografikoa ez da idazkeran soilik agertzen, →ebakeran eta mintzaira mintzatuan ere azaltzen da. Honela «ardano» hitz bakar batetik, G. «ardo», B. «ardau», eta Iparraldeko euskalkietan «arno» hitzak ditugu.

Aldaketa-mota desberdinen artean hor ditugu, *aldaketa fonetikoa, aldaketa fonologikoa, →analogi aldaketa,* etab. Azken hau ez da erregularra eta egoera berezitan bakarrik ezartzen da. *Aldaketaren* jatorria →elebitasunezko egoera denean, →interferentzia, →mailegu eta →kalkoaz hitz egiten da.

2. Historian zehar hizkuntza baten →soinuek jasaten duten modifikazio azkar edo motelagoa da aldaketa fonetikoa. Aldaketa fonetikoa berez ebakeraren ohituraren bilakaeraz gertatzen dena da, eta ez du hizkuntzaren →sistema fonologikoa ukitzen; aldaketa fonologikoak, berriz, hizkuntzaren egitura fonematikoa aldatzen du fonema bat edo batzuk agertuaz edo-ta desagertuaz. Honela lehengo ingelesaren bokal luzeen diptongazioa («stan» [sta:n] «stone» [stown]) aldaketa fonetiko bat da. Ordea, aitzineko euskaran bazegoen nonbait soinu ezpainbikari hasperendu bat [∅], iparraldeko euskalkietako /h/ fonemaren jatorria; hegoaldeko euskalkietan fonema hau galdua da, aldaketa fonologiko bat eraturik, orain «hura» eta «ura» [ura] berdin ahoskatzen bait dira.

Dena dela, bereztasun hau egungo →hizkuntzalaritzak ezarri duen «soinu» eta «fonema»-ren arteko →aurkakotasunarekin loturik dagoenez, *aldaketa fonetiko* izenaren bidez hizkuntza baten soinuen ebakeraren edozein aldaketa adierazten da, garrantzi linguistikoa ukan zein ez. Jacob Grimm izan zen, Ramus Rask-i jarraikiz, aldaketa fonetikoen logika eta erregulartasuna adierazi zuen lehenenetarikoa 1822an, germanikoaren →mutazioaz egin zuen aurkikundearekin, geroago «Grimm-en legea» izendatua izan zena. Haren susmo zuzenak berrogeitamar urte geroago neogramatikariek jarraitu zituzten, batez ere W. Scherer-ek eta Herman Paul-ek; aldaketa fonetikoak lege «aldaezinetaz» gidatzen zirela erakusten saiatu ziren, salbuespenak analogia eta maileguaren bidez azalduz. Geroztik egin izan diren lanek zera erakutsi dute: *aldaketa fonetikoak* nahitaezko legeak gabe joera orokorrak jarraitzen dituztela.

3. Gramatika →sortzailean, egiturazko aldaketa →transformazioaren aspektu bat da.

L. Artola

Ik. TRANSFORMAZIOA

Aldebikaria

bilateral / bilatérale / bilateral

→Kontsonante aldebikaria artikulagunearen bi aldeetatik aireak ihes eginez artikulatzen den kontsonante →aldekaria da. Hauxe da, hain zuzen, kontsonante aldekarietan erabiliena: aldekari-→sabaikaria italierazko «figlio», gaztelaniazko «llevar» hitzetan edo, aldekari-→horzkaria euskarazko «honela» eta «alaba» etab. Batzutan zera gertatzen da, aldekari hau aldebakar bezala egiten dela desberdintasun akustikorik nabaritzen ez delarik. Kasu hauen artikulaziozko desberdintasunak ez du balio fonologikorik.

Aldebikoa

bilateral / bilatéral / bilateral

→Aurkakotasun aldebiko bat bi →fonemen arteko aurkakotasun fonologikoa da. Bi fonemok, proposatutako hizkuntzaren beste fonema batek ere ez duen →ezaugarri berezgarri multzo bat behar dute izan elkarren artean. Honela, euskaraz beste zenbait hizkuntzatan bezala, /p/ eta /b/ fonemak aurkakotasun aldebiko batek lotzen ditu, hauek bait dira →herskari →ezpainbikari bakarrak. →Koerlazio batean oinarritzen den aurkakotasunak nahi eta nahiez aldebikoa

izan behar du. Aldebikoak ez diren aurkakotasunak aldeanitzak deitzen dira.

Aldekaria

lateral / latérale / lateral

→Kontsonante aldekaria ahoskatzeko, elkartzen diren bi puntuak hauek dira: behe aldetik, mihia, eta goi aldetik, hortzak [l] ala aho-sabaia [ļ], airea mihiaren bi aldeetatik igarotzen delarik.

Alderaketa

comparación / comparaison / comparison

Sin.: KONPARAZIOA

1. Gramatika konparatzailean, alderaketa bi hizkuntza paraleloki aztertzen dituen eragiketa da, bere helburua diferentziak ateratzea, eta batez ere, askotan ahaidetasuna ezagutarazten duten elkarkidetzak agertaraztea delarik.

2. Erretorikan, alderaketa eta metafora →ezaugarri formalen bidez berezten dira. Alderaketan, bi →adiera paraleloki ipintzean, *bezala* edo antzeko elementuren bat beti aurkituko dugu; gainera alderaketan bi elementuak azaltzen dira, bertan daude, alderatua eta →erreferentzia bezala erabiltzen dena: *izarrak* bezalako *begiak* ditu neska horrek. Metaforan ez dugu elementu laguntzailerik, beraz, jatorrizko elementuaren ordez, honi alderatzen dioguna azalduko zaigu: aurpegian bi *izar* zituen.

3. Gramatika tradizionalean, *baino... -ago, bezain, bezala...* elementuak daramatzaten perpaus txertatuei *alderaketazko* edo *konparatzaile* esaten zaie.

4. *Alderaketa-mailak* →adjektibo edo →adberbioei dagozkien indizeak dira, handiago edo txikiago, bortitzago edo ahulago izan daitekeen nolakotasun bat aurkezten dutelarik. Nolakotasun hauei buruz, beste izaki edo gauza batzuekiko alderaketa egiten badugu, maila erlatibokoak direla esango dugu; baina berez kontsideratzen baditugu, hau da, beste ezerekin alderatu gabe, maila absolutuko deituko diegu.

Alexia

alexia / alexie / alexia

Alexia edo *itsuera berbala* mintzairaren zentruko atzeko esparruaren zauri kortikal baten ondorioetatik sortzen den irakurketarako nahasketa da. Zauri horrek ez ditu ikus-aparatuak ukitzen. Gehienetan hauek berezten dira: *letra-alexia* (gaixoak hitzak frango poliki irakurtzen ditu baina letrak ez ditzake irakur), *hitz-alexia* (letrak irakur ditzake baina ez hitzak), eta *perpaus-alexia* (gaixoak letrak eta hitzak irakurtzen ahal ditu baina →perpausak ezin ditzake irakur ez eta ulertu ere).

Alfabetoa

alfabeto / alphabet / alphabet

1) Alfabetozko idazkera batek erabiltzen duen edozein zeinu-multzori alfabeto deitzen zaio; →zeinu hauek →fonemak eta batzutan fonema-sailak idazteko erabiliak direlarik. Adibidez, latinezko alfabetoa, 26 letrez osatua da, eta, aldaketa txiki batzuekin eta zeinu diakritikoen gehitzearekin, ondoko hizkuntzak idazteko balio du: hizkuntza erromanikoak, germanikoak, txekera, turkiera eta euskara bera beste batzuen artean; alfabeto zirilikoa, alfabeto grekoaren, letra handietatik etorria, errusiera eta bulgariera idazteko erabiltzen da.

2) Gramatika →sortzailearen arabera, alfabetoa hizkuntza baten elementuak izendatzen dituen zeinuen multzo mugatua da.

Alfabeto fonetikoa

→Berbaldi bat transkribatu ahal izateko —hots: haren erregistro linguistikoa grafiaz egin ahal izateko— hizkuntzaren →soinuak sinbolizatuko dituen zeinu-→sistema bat behar da. Ahalik eta xehetasun foniko gehien irudikatu nahi bada, nahiz eta →funtzio linguistikorik ez izan, mako artean [...] egingo da →transkripzioa (transkripzio fonetikoa); funtzio linguistikoren bat duten →ezaugarri fonikoak bakarrik irudikatu nahi badira, berriz, marra zeiharren artean /.../ egingo da transkripzioa (transkripzio fonologikoa). Nolanahi ere, ez dago transkripzio fonetiko perfekturik, hotsak analisatzeko oszilografoak bezalako tresnen bidez egina ez bada behintzat, ez bait da posible →fonema baten →ebakera bakoitzaren xehetasun foniko guztiak erregistratzea. Horregatik, transkripzio fonologikoa fonetikoa baino errazagoa da: ez bait ditu fonema beraren aldaera desberdinak adieraziko eta →zeinu bakarra erabiliko bait du, transkripzio fonetikoak hainbat zeinu desberdinez baliatu beharko duen artean unitate bereizle baten →aldaera nagusiak (konbinaziozkoak, sozialak edo indibidualak) seinalatzeko. Alfabeto fonetikoaren helburua, beraz, munduko hizkuntzen gauzatze fonetiko nagusienei dagozkien zeinuen sorta era-

tzea da, adierazkera fonologikoak horien artean aukera dezan. Alfabeto fonetikoaren printzipioa zera da: «zeinu bakarra soinuko, soinu bakarra zeinuko». →Alfabeto batzu aldendu egiten dira idazkeraren gure tradiziozko ohituretatik, hala nola Bell-en *Visible Speech* (honen →sinboloak, soinuen emisio-kokamenduan dauden ahots-organoen diagrama sinplifikatuak dira), eta O. Jespersenen *Alphabetic Notation* (bi zeinu-mota konbinatzen ditu honek: ahots-organoei dagozkien grekozko letrak eta artikulaziounean organook duten lekugunea adierazten duten zifra arabiarrak). Alfabetorik gehienak tradiziozko gure alfabetoaren aldaketak dira. Ezagunena A.P.I.da («Alphabet Phonétique International»): «Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa», *Association phonétique internationale* Erakundeak (D. Jones, H. Sweet, P. Passy, etab.ek) 1888an sortua, gerora Erakundeak hobetua. Alfabeto honek grekozko eta latinezko alfabetoetatik hartutako letrak erabiltzen ditu, hizkuntza horietan duten balioa emanik, edo-ta fonetikariek asmaturiko sinboloak, adibidez /ʃ/ edo /ʒ/.

Zeinu →diakritikoak edo, balioa aldatzeko, →letrei gehitzen zaizkien zeinuak (→azentuak, adibidez) ere erabiltzen ditu.

Alfabeto hau da hizkuntzalariek erabiliena. Baina, batetik, ez da bakarra: adibidez, *Alfabeto Filologikoa* eta *Alfabeto Etnologikoa* ere erabiltzen dira, beren erosotasunari esker batez ere, horien zeinuak idaz-makinaren tekleriakoen antzekoagoak bait dira; eta, bestetik, oinarritzat API onartu arren, birmoldatu beharra izaten da hizkuntzen arabera; adibidez, euskararen →igurzkari eta →afrikatuen multzo hirukoitzak transkribatzeko, bina zeinu bakarrik ditu APIk (halaber Alfabeto Filologikoak eta Alfabeto Etnologikoak): [s, ʃ] eta [ts, tʃ]; egokituz [s, ś, ʃ] eta [ts, tś, tʃ] zeinuak erabiltzea proposatu da euskal transkripzioetan.

Ikus hemen berton (38 or.) «APIren zeinurik erabilienen taula» eta kontsonantezko euskal soinurik arruntenak transkribatzeko erabiltzen diren zeinuen azalpena». Bigarren taula honi dagokionez, ohar dezagun ez direla inondik ere euskaraz entzun daitezkeen kontsonantezko soinu guztiak jasotzen, arruntenak bakarrik baizik. Bestalde, hor ematen diren transkripzioak fonologikoagoak dira, fonetikoak baino, textuinguruaren eraginari arretarik ia batere egin gabe eta hautatu diren zeinuetara mugatuz emanak, alegia.

G. Agirre

Algoritmoa

algoritmo / algorithme / algorithm

Arazo-klase berezi bat konpontzera iristen den oinarrizko elementuen segida zorrozki deskribatuari *algoritmo* deritza. Gramatika, honela, algoritmotzat har daiteke: perpausen sorrera zilegiztatzen duen →erregela explizituen multzo bezala, alegia.

Alienaezina

inalienable / inaliénable / inalienable

→Izen baten eta honen osagarriaren arteko harremanak *edute alienaezina* adierazten du, izenaren osagarria osotasun bat bada eta oinarrizko hitza berriz, osotasun horren zati intrintseko bat; adibidez: «Yonen oinak», «mahaiaren hankak», etab. Alderantziz, edukitzailearekin halako harremanik ez duten hitzek, alienagarri-ezaugarria dute: «Yonen etxea», «gelako telebista»...

Alienagarria

alienable / aliénable / alienable

Edukitze alienagarria dagoela esaten da jabetua dena kontingenteki lotzen zaionean jabeari:

Amaren gona gorria

Aitzitik, edukitze ez-alienagarria elementu biak era beharrezkoaz lotzen direnean agertzen da:

Amaren belauna

Aliterazioa

aliteración / allitération / alliteration

→Silaba edo →esakune berdineko hitzmultzo batzuen hasieran diren hots edo hots-multzo batzuen errepikapenari esaten zaio *aliterazioa.* Adibidez, frantsesez: *farfouiller,* edo euskaraz *akerrak adarrak okerrak ditu.* Aliterazioa →prosa poetikoan edo olerkaritzan erabiltzen da, tresna estilistiko gisa.

Aliterazioari esker, zenbait hizkuntzatako olerki zahar batzuetan berraurkitzen ahal da galdua zen →ebakera bat.

NAZIOARTEKO ALFABETO FONETIKOAREN (APIren) ZEINURIK ERABILIENAK

KONTSONANTEAK

Ozentasuna	EZPAINKARIAK: Ezpainbikariak —	+	Ezpain-horzkariak —	+	HORZKARIAK: Horzkari eta —	+	Albeolareak —	+	Erretroflexuak —	+	SABAIKARIAK: Ahosabai-albeolareak —	+	Albeolo-sabaikariak —	+	Sabaikariak —	+	BELAREAK: Belareak —	+	Ubularrak —	+	Faringariak —	+	Glotalak —	+
Herskariak	p	b					t	d	ʈ	ɖ					c	ɟ	k	g	q	G			ʔ	
Igurzkariak	ɸ	β	f	v	θ	ð	s	z	ʂ	ʐ	ʃ	ʒ	ɕ	ʑ	ç	j	X	ɣ	χ	ʁ	ħ	ʕ	h	ɦ
Sudurkariak		m		ɱ				n		ɳ						ɲ		ɧ		N				
Aldekariak								ɾ		ɭ						ʎ								
Dardarkariak								r		ɽ										R				
Erdibokalak	w	ɥ	ʋ												j	(ɥ)	(w)							

BOKALAK

	Sabaikariak		Erdikoak		Belareak	
Itxiak	i	y				u
Erditxiak	e	ø			ɤ	o
Erdirekiak	ɛ			a œ æ	ʌ ɛ	ɔ
Irekiak				a	ɑ	ɒ

KONTSONANTEZKO EUSKAL SOINURIK ARRUNTENAK TRANSKRIBATZEKO ERABILTZEN DIREN ZEINUEN AZALPENA

Zeinuak				Transkripzioak		
API	Fil.	Etn.	Ohizko grafia	API	Filol.	Etnol.
p	p	p	pare	[pare]	[pare]	[pare]
b	b	b	bele	[bele]	[bele]	[bele]
t	t	t	talo	[talo]	[talo]	[talo]
d	d	d	dator	[dator]	[datoř]	[datoř]
c	ţ	t'	pattarra	[pacara]	[paţařa]	[pat'ařa]
ɟ	ḑ	d'	onddo	[onɟo]	[onḑo]	[ond'o]
k	k	k	katu	[katu]	[katu]	[katu]
g	g	g	gertatu	[gertatu]	[geřtatu]	[geřtatu]
ts	ŝ	ţ	*Ikus ondoan*			
β	ƀ	ƀ	abade	[aβaðe]	[aƀaḑe]	[aƀaḑe]
f	f	f	afari	[afari]	[afari]	[afari]
ð	đ	đ	edan	[eðan]	[eđan]	[eđan]
s	s	s	*Ikus ondoan*			
j	y	y	Maddi	[maji]	[mayi]	[mayi]
x	x	x	jan	[xan]	[xan]	[xan]
ɣ	ǧ	ǧ	ageri	[aɣeri]	[aǧeri]	[aǧeri]
X	x̌	x̌	jun	[Xun]	[x̌un]	[x̌un]
h	h	h	handi	[handi]	[handi]	[handi]
m	m	m	mutur	[mutur]	[mutuř]	[mutuř]
n	n	n	ene	[ene]	[ene]	[ene]
ɲ	ŋ	ñ	ñabar	[ɲaβar]	[ŋaƀař]	[naƀar]
ŋ	ŋ	ṅ	nongo	[noŋgo]	[noŋgo]	[noṅgo]
l	l	l	lau	[laŭ]	[lau]	[lau]
ʎ	l̬	l̬	llabur	[ʎaβur]	[l̬aƀuř]	[l̬aƀuř]
r	ř	ř	barre	[bare]	[baře]	[baře]
ɾ	r	r	bare	[bare]	[bare]	[bare]

Zeinuak					Transkripzioak			
API	Fil.	Etn.	Egokit.	Ohizko grafia	API	Filol.	Etnol.	Egokitua
ts	ŝ	ţ	c	atzo	[atso]	[aŝo]	[aţo]	[aco]
dz	ẑ	ḑ	dz	dza	[dza]	[ẑa]	[ḑa]	[dza]
(tś)	—	—	ć	atso	[atśo]	—	—	[ać o]
(dź)	—	—	dź	ura	[udźa]	—	—	[udźa]
tʃ	ĉ=ŝ	č	č	etxe	[etʃe]	[eĉe]	[eče]	[eče]
dʒ	ẑ	ǰ	dž	jan	[dʒan]	[ẑan]	[ǰan]	[džan]
s	s	s	s	zeru	[seru]	[seru]	[seru]	[seru]
z	z	z	z	ez du	[ezdu]	[ezdu]	[ezdu]	[ezdu]
(ś)	—	—	ś	sabai	[śaβaĭ]	—	—	[śabai]
(ź)	—	—	ź	deusik	[deŭźik]	—	—	[deŭźik]
ʃ	š	š	š	xagu	[ʃaɣu]	[šaǧu]	[šaǧu]	[šaǧu]
ʒ	ž	ž	ž	joan	[ʒoan]	[žoan]	[žoan]	[žoan]

OHARRA: Afrikatuen eta →igurzkari →txistukari-txitxekarien multzoak (→gorrak, behintzat) hirukoitzak dira euskaraz; →alfabetoetako →zeinuak, berriz, bikoitzak dira. Alfabeto hauek euskarari egokitu ez-ezik, beste zeinu-sail bat moldatu dute euskal hizkuntzalariek, igurzkariak eta afrikatuak transkribatzeko. Zeinu egokitu-moldatuok bait dira erabilienak, habe berezi batean jasoko ditugu, hauen bidez egin ohi den transkripzioa gehituz eta →dialekto-→aldaera →ozenei dagozkien zeinu-transkripzioak ere jasoz.

Alografoa

alógrafo / allographe / allograph

Idazketan, →grafema elementu abstraktuaren irudikapen konkretua edo elementu konkretuetako bakoitza da alografoa. Alografoaren eta →grafemen arteko erlazioak →alofonoaren eta →fonemaren artekoak berak dira. Alografoen banaketa, textuinguruzkoa da; horrela, «S»ri dagokion grekozko «sigma»k →banaketa-osagarrian dauden bi alografo ditu: bata «r» hitzaren hasieran edo tartean joango da beti, eta bestea «s» beti amaieran; →aldaerak dira, beraz: inguruak agintzen du bataren zein bestearen agerpen exklusiboa. Era berean, L majuskula eta l minuskula grafema beraren bi alografo dira. Grafema bakoitzak alografo bat nahiz gehiago izan ditzake: grafema bat, hortakoz, alografo-klase batek osatua dago.

Alofonoa

alófono / allophone / allophone

Gehienetan «→fonema baten konbinazio→aldaera» adierazteko erabiltzen da *alofono* terminoa. →Adiera honen arabera, fonema baten alofonoak fonema horren →ebakerak dira, katea mintzatuan banakatuak direnak, non eta beste ebakera bat inguru berean ez bait liteke inoiz ager, hemen fonema →soinu-sail bat bezala definituta dagoelarik. Katea mintzatuaren puntu berezi batean alofono bakoitzaren hautatzea →textuinguruak erabakitzen du mekanikoki eta aintzinetik muga daiteke. Fonema bakoitzarentzat alofonoen zenbaki mugatu bat eskatzen du interpretazio horrek, zeren eta katea mintzatuaren puntu batetan egiten ahal diren →banaketa fonemikoen kopurua mugatua bait da, hizkuntza baten fonemen kopurua bezala. Adibidez, /d/ euskal fonemak bi alofono dauzka: [d̠] igurzkaria, bokalartean agertzen dena (eḑan), eta [d] →herskaria →kontsonante baten ukitzearekin edo hitz hasiera huts gisa agertzen dena [denda]. Estatu Batuetan hedatu den alofonoaren nozio hori askotan →neutralizazio eta →artxifonemaren nozioei kontrajartzen zaie, azken bi nozio hauek Europan →Pragako eskolak hedatu dituelarik gehienik, zeren aldi batez «fonema bat dena beti da fonema» printzipioari jarraikiz, bi fonema desberdinei alofono bakar bat emateak ez bait du inongo zentzurik.

Alofono hitza, anitzez zabalago den adieraz erabiltzen dute hizkuntzalari zenbaitzuk. Fonema baten edozein →aldaera, nahiz konbinaziozko, nahiz →aske (estilistiko, sozial, edo indibiduala) fonema horren alofonoa da. Beraz, fonema bakoitzak alofono-kopuru infinito bat badauka, fonema horren →ezaugarri →bereizleak erkide dituztenak, baina beste aldetik, bereizle ez diren gutxi edo aski garrantzitsu diren aldaera batzuen bitartez, bat bestetatik desberdintzen direnak.

Alokutiboa

alocutivo / allocutif / allocutive

Mintzo denaren hitzak norbaiti zuzenduak direlarik, norbait hori «alokutibo» da I. Damourette eta E. Pichon-en terminologian.

Ad.: Aitak ikusi dik/din (hi = alokutiboa).

Alomorfoa

alomorfo / allomorphe / allomorph

→Esanahia duen gutxienezko unitateari →morfema esaten zaiolarik, morfema honen →textuinguruaren araberazko →aldaerak *alomorfoak* deitzen dira. *Alomorfoak* fonologikoki baldintzatuak izaten ahal dira (berarekin uztartzen den unitatearen forma fonologikoaren baitan dagoelarik alomorfoaren hautapena); adibidez, [baị] / [baịt], →sintagma hauetan [baịnaịs] [baịcara].

Baldintzapena morfologikoa ere izan daiteke (berarekin ezkontzen den beste morfemaren baitan dagoelarik alomorfoaren hautapena); adibidez, frantsesezko kasu honetan, *all-(er) / i-(ra) / v-(a)*, non eta →geroaldiaren →singularreko hirugarren pertsonaren *-ra* →markak baldintzen bait du *i* alomorfoa.

Beste abantail batzuez gainera, alomorfoaren kontzeptuak morfema/morfo →aurkakotasuna agerrerazten du. Morfoa da edozein morfemaren forma egiazkoren bat, ebakietarik bat: gaztelaniaz *cab- / cup- / quep* formak morfema beraren hiru morfo dira. Orduan morfema morfo-sail bat bezala defini daiteke (ikus →Artxilexema, →Artxifonema). →Textuinguru fonologiko edo morfologikoen arabera, morfema bera egiaztatzen duten morfo desberdinak izateak, zera zilegiztatzen du: deskribapen gramatikal baten barnean forma →erregularrak eta →irregularrak elkarrekin erabiltzea.

Alosema

alosema / allosème / alloseme

E. A. Nidaren terminologian *sema* hitzak gutxienezko →ezaugarri esanahiduna adierazten du, eta kokatua dagoen ingurune semantikoaren araberako gauzatze desberdinak hartzeko gai den *sema, alosema* deitzen da. Edozein unitateren →esanahia osatzen

duten →ezaugarri semantikoen multzoa den sememaren barnean, sema batzu alosema bezala kontsideratzen dira. Esate baterako: *zango kakola* eta *mahaiaren zangoak* adibideetatik sema bat atera daiteke (beheko adarra). Baina sema hori lehenengo kasuan (bizidun baten beheko adarra) alosema bezala gauzatzen da, eta bigarrenean (bizigabe baten beheko adarra) alosema bezala.

Badu abantailik berezkuntza honek: →osagaien analisian zentzu nagusiaren eta bigarren zentzuaren arteko berezkuntza gainditzeko aukera ematen du.

Eman adibidean, *zango*-aren zentzu nagusia «gorputzadarra» izango litzateke, eta «haltzari batentzako erabilera metaforikoa» bigarren zentzua. Hala ere, beste tratamendu egingarri bat komeni da aipatzea, unitate esanahidunari transfert-ezaugarriak ematen dizkiona hain zuzen ere: unitatearen semantismoa aldaezintzat jotzen da (alosemak bazterturik) eta orduan unitate askoren konbinazioa da transfert-ezaugarri bat mamitzen duena. Eman dugun etsenpluan *zango*-aren [+bizidun] sema transfert-ezaugarri bat izango da.

Alternantzia

Ik. TXANDAKETA

ALTUBE, Sebero

Arrasaten sortua 1879. urtean, 1901 ean Gernikara joango da. 1920an euskaltzain izendatuko dute Txomin Agirrek utzitako lekua betetzeko. 1936tik 1958 ra atzerrian bizi izan ondoren 1963an Gernikan hilko da.

Musika eta euskara izango dira bere bizitzako zaletasunik handienak.

Bere musika-lanak alde batera utzita euskararen inguruan egin zituen lanei helduko gatzaizkie.

Bere gisa ihardun zuen →linguistika ikasten eta horretarako frantsesa ere ikasi zuen penintsulaz kanpoko korronte linguistikoen berri eduki ahal izateko; euskara aztertu nahiak eraman zuen oinarri hauen bila.

Euskarari dagokionez sail desberdinak ukitu zituen: *sintaxia,* hor daukagu, →sintaxi-mailako lanetan, agian ospetsuena izan den *Erderismos*. Liburu honetan, euskararen joskera-legeak aztertu eta aditzera eman zituen, batez ere hurbilen zeukan hizkerarenak (Gernikakoarenak) batipat mintzaira mintzatuan oinarrituaz.

Gaur egun nahiko eztabaidatuak dira Altuberen ikuspuntuak eta galdegaiaren arazoak zutik dirau.

Sintaxiaz gain euskararen batasunari buruz ere idatzi zuen erizpide batzuk azalduaz eta lan horren premia azpimarkatuaz.

Euskal hitzei dagokionez ere hainbat lan argitaratu zituen bere ikuspuntuen berri emateko. Hor dugu lekuko, gaur egun oraindik oihartzunik jaso dezakeen *Euskal-hitz berrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun bear deuskuen.* Nahiz eta izenik ez aipatu lan honetan bai Sabindarren eta bai Azkueren aurka agertzen da, maila batetan behintzat. Lehenengoen garbizaletasun paregabea arbuiatzen du eta bigarrenari berriz, euskaran tradizioa duten, baina erdal kutsuko diren zenbait hitz ez jasotzea salatzen dio.

Euskal →azentua ere bere ikerlanen artean sartzen da eta nahiz eta geroztik egin diren azterketek gehiago sakondu duten arazo honetan Altuberi dagokio oinarri batzuk jarri izana.

Beste hainbat gai ere erabili zituen bere idazlanetan, hala nola morfologia, euskararen bizitza etab.

Amaierakoa

terminal / terminal / terminal

Gramatika →sortzailean, oinarriaren →berridazketa-→erregeletan geziaren ezkerretan inoiz agertzen ez den elementuari esaten zaio *amaierakoa:* hots, amaierako elementua ezin daiteke beste ezein →kategori →ikurrez berridatz. Honela, Lag (→laguntzailea) D (→denbora) →ikurraz berridatz daiteke; eta hau orain (→orainaldia) nahiz *Irag* (→iragana) bezala. *Lag* ikurra ez-amaierako elementua da; *Irag* berriz, amaierakoa, ezin bait daiteke beste kategori ikur baten bidez berridatz.

Oinarria sortzeko erregela guztiak aplikatu ondoren, amaierako elementuez bakarrik osatua dagoen kateari, *amaierako katea* esaten zaio. Oinarriaren amaierako katea hau berezi beharra dago amaierako katea transformatutik, hau osagai transformazionalaren azken produkzioa bait da (→transformazio guztiak aplikatu ondoren lortua, alegia).

Amalgama

amalgama / amalgame / amalgam

1) →Monema bi edo gehiago hain askaezinik daudenean bat eginda, non, bakoitzaren →esanahi desberdinak →edukin mailan aurkitu ahal badira ere, →forma mailan segmentu bakarra ikusten bait da, *amalgama* bat dagoela esaten da.

2) →Hizkuntz ukipenetan →ordezkapenik (hizkuntza berezkoaren uztea beste baten abantailetan) edo →trukaketarik (hizkuntza bi edo gehiagoren erabilkuntza aldizkatua) gertatzen ez delarik, bi hizkuntzen amalgama dago, esan nahi bait da, hizkuntza bietarik bat bestea baino abantailatuago eta erabiliago dela, nahiz eta besteak interferentzia asko egiten dion.

Amankomuna

Ik. ERKIDEA

Analisia

Katea mintzatu bat edo elementu bat osatzen duten atalak berezteari deitzen zaio *analisia.* Analisi hori maila askotan egin daiteke, maila fonetikoan, morfologikoan, sintaktikoan...

→Glosematikarentzat oso garrantzizko bihurtzen da metodo hau, batez ere *Inmediate Constituents analysis* delakoaren bidez. Metodo hau honetan datza, hots: hartu textu bat eta honen osagai txikienetaraino iritsi arteko analisia egiten da elementu nagusienetatik gero eta atal txikiagoetara joanaz.

Tradizionalki egiten zen analisia, funtsean, analisi-mota horixe da, alegia, →perpaus bat piramide gisako eraikuntza hierarkiadun bat dela kontutan hartuz, honen atalak berezten dira. Adibidez, perpaus hau:

gizon hura atzo etorri zen Donostiara.

Perpaus honetan bi zati berezi ohi ditugu: *gizon hura* (IS) eta *atzo etorri zen Donostiara* (AS) eta IS hori, berriz, bi atalek osatzen dute: *gizon* eta *hura*-k. AS-n, berriz, beste hiru zati bereziko ditugu: *atzo* + *etorri zen* + *Donostiara* eta abar. Jakina, horietako atal bakoitzari dagokion →forma eta →funtzioa aztertu ohi dira, bakoitza zein →kategoriatakoa den esanaz.

→Eredu hau →sintaxi orotan aurkituko dugu, baina estrukturalistek landu dute bereziki. →Bloomfield-ek bere *Language* (1933) liburuan aurkeztutako metodo hau azken berrogei urteotan landuagoa izan da. Analisi-modu honen originaltasuna batez ere ohizko formulazioak sistematizatzean datza. Orain perpaus baten zatikatzea azken elementuetaraino (hots: →morfemetaraino) eramaten da analisi sintaktiko tradizionalean →hitzetan gelditzen zen bitartean. Eta hitzak, gero, morfologian aztertzen ziren. Beraz, analisiak bi parte izan ohi zituen: bata, sintaktikoa, →subjektua, →objektua, mugatzaileak aldatzaile eta abar zeintzu diren esaten zigularik eta gero, morfologiak hitzak aztertzen zituen: elementu bakoitzaren gramatika-kategoria aztertuz, eta abar.

P. Goenaga

Anafora

anáfora / anaphore / anaphora

Erretorikan, bata bestearen ondoan dauden →esakune zenbaiten hasieran, hitz edo hitz-multzo baten errepikapenari *anafora* deitzen zaio. Prozedura horren xedea beraz, errepikapen den multzoaren enfasiztatzea da. Adibidez:

Zergatik ikasi
ahanztekoz gero
ikasiak oro?
Zergatik ikhusi
hainbertze lurralde,
hainbat, hainbat jende?
Ezer ezin eutsi...
Zergatik laztandu?
Zergatik higuindu?

(Jon Mirande, Orhoituz. Poema guztiak. Kriselu, Donostia, 1976.)

Prozesu sintaktiko bat da anafora, →berbaldiaren segmentu bat, →izen-→sintagma bat adibidez, beste segmentu baten bidez, →izenorde baten bidez bereziki, berraipatzean datzana.

Anakolutoa

anacoluto / anacoluthe / anacoluthon

Perpaus baten eraikuntzan ematen den etendura da *anakolutoa;* ondorioz, bi zati izango ditu perpausak; zati bakoitza joskeraz egokia izan arren, sekuentzia batetan elkartzean, perpaus joskeraz konplexua, eznormala edo-ta desbideratua emango dute. Adibidez: *atzo erosi nuen liburua, horretan irakurri dut.*

Analogia

analogía / analogie / analogy

Askotan gertatzen da hizkuntzen eboluzioan barrena, berezko zuten bilakabidea utzi, eta beste eredu baten araberako →aldaketak izatea. Kasu honetan *analogia* aipatu ohi da; eta era horretako aldaketei, *analogi aldaketa* deritze.

Honetara azal daiteke, esate baterako, euskarazko *-r* samurrei gertatzen zaiena. Eskuarki hau dugu:

zakur → zakurra
malkar → malkarra
alor → alorra

Analogi bidez, hortaz, ondoko hau entzun daiteke batzutan:

inor → inorri

Analogiak, beraz, hizkuntzen erregulartasuna azkartzen du; →eredutik ateko formak suntsituz.

Anaptixia

anaptixis / anaptyxe / vowel epenthesis

Anaptixia →bokal baten sortzeaz gertatzen den →epentesia da. Maiz →kontsonante bat edo kontsonante-multzo bat eta →urkari edo →sudurkari baten artean gertatzen da. Adibidez: *Ingalaterra, Garazi, gurutze,* eta abar. Sortzen den bokalari anaptiktiko deitzen zaio.

Anbiguotasuna

ambigüedad / ambiguïté / ambiguity

Zentzu bat baino gehiago duten perpausen propietatea da anbiguotasuna. Anbiguotasuna lexikoari dagokionean, hots, →morfema lexikal batek hainbat zentzu dituenean, lexikozko anbiguotasuna esaten zaio. Honela, *gure mutilak heldu dira* perpausa bi eratara uler daiteke: «iritsi dira, etorri dira» eta «gizondu dira, handitu dira» bezala. Anbiguotasuna perpausaren egitura sintaktiko batek hainbat interpretazio hartu ahal izateari zor zaionean, anbiguotasun *sintaktikoa* edo *eraikuntz homonimia* deitzen zaio. *Ondo jandako oiloak ziren* perpausaren azpian, beste biok egon daitezke: «oiloek ondo jan zuten» eta «guk ondo jan genituen oiloak».

Anomalia

anomalía / anomalie / anomaly

1) Kristoren aurreko bigarren mendeko gramatikarien artean anomalia hitzak hizkuntzaren →irregulartasuna adierazten zuen (analogiari kontrajartzen zaiona) eta, hedaduraz, inolako arauri jarraitzen ez zaion erabilera oro.

2) Gaur eguneko →hizkuntzalaritzan hizkuntzaren arauen aurrean zenbait dibergentzia agertzen duen perpausa anomalotzat jotzen da. Gramatika-anomaliak izendatzeko ez-gramatikaltasuna edo →gramatikaltasun-mailak terminoak erabiltzen dira batez ere, *anomalia* hitza →desbiderapen semantikoa adierazteko gordetzen delarik.

Honela «Mendi gosetiak estakuru anitz jarri dio gorrotoari», semantikoki, anomaloa da. «Goseti» →adjektiboak →sujektu →biziduna behar duelako, besteak beste; eta perpaus osoa ez daiteke uler metaforaz ez bada.

Anomaliaren eta ez-gramatikaltasunaren arteko diferentzia osagai sintaktiko eta semantikoen →edukinaren menpean dago; baina edukin hori hizkuntz teoriekin batera aldatzen denez gero, nahiko kolokan geratzen da delako diferentzia.

Antiesaldia

antífrase / antiphrase / antiphrasis

Hitz bat nahiz hitz-talde bat bere benetako →esanahiaren kontrakoaz erabiltzeari *antiesaldia* deritza. Adibidez, *gozoa dago!,* perpausa bi zentzutan erabil daiteke: janaria ona dagoenean, edo haserre dagoen gizon batetaz mintzatzean; bigarren erabilera hau da antiesaldia.

Antitesia

antítesis / antithèse / antithesis

Antitesia adierazpide bat da, →textuinguru batetan dauden kontrako zentzua duten bi hitz edo-ta bi hitz-talde elkarren aurka jartzean zehazten dena. Adibidez: «eta zaldiaren gainera iganik, nahi zuen berarengandik jaitsi». *Igan*ik eta *jaitsi*ren artean antitesi bat badago.

Antonimoa

antónimo / antonyme / antonym

Hitz baten aurkakoari deritzo *antonimo.* *Sartu* eta *atera* euskal hitzak elkarren antonimoak dira; eta gauza bera *luze / labur* edo *astun / arin* bikoteak.

Antonomasia

antonomasia / antonomase / antonomasia

Antonomasia estiloaren →figura bat da. Hori dela eta, →pertsona bat izendatzeko, →izen →propioaren ordez izen →erkide bat erabiltzen da edo, bestela, izen erkide baten ordez, izen propio bat; adibidez zuberotarrek «manex» hitza erabiltzen dutenean,

Manex izen propioa izanik ere, adierazi nahi izaten dute zuberotar ez den edozein euskaldun.

Antroponimia

antroponimia / antrhoponymie / anthroponymy

Antroponimia pertsona-izenen →etimologia ikertzen duen onomastikaren atala da, askotan hizkuntzatik kanpoko ikerketekin lotu behar dena, historiarekin esate baterako. Euskararen historia ezagutzeko oso garrantzitsua da *antroponimia,* Etxeparek bere liburua 1545ean argitaratu zuen arte, lehen euskal textu luzea, garai anitzetako dokumentu bakarrak pertsona-izenak dira, eta maiz bakarrak ez badira ere garrantzitsuenak direlako.

Aoristoa

aoristo / aoriste / aorist

Grekoaren →aditz-jokoaren aldi berezia da, →pertsona eta →zenbaki-→desinentzia bereziak dituena. Forma batzuk *s* →artizkia dute →aditz-→erroari lotua (aoristo sigmatikoa edo lehen aoristoa) edo artizkirik gabeko erroa, sarritan laburtua (aoristo bortitza edo aoristo bigarrena).

Aoristoa →orainaldiari eta perfektuari kontrajartzen zaie. Hauek, →ekintza →subjektuaren ikuspegitik bere garapenean aurkezten dute. Aoristoak, ostera, ekintza →esakunearen subjektuarekiko menpekotasunik gabe aurkezten du. Hau da aoristoaren →aspektu-balioa. Bestalde, aoristoa zehaztugabea da →ekintzaren aldiari buruz.

Aoristoak ekintza bere azken burura iritsia bezala aurkez dezake. Hau litzateke benetako aoristoa. Edo ekintza bere hasieran aurkez dezake, edo baita ekintza orokor eta denboragabe bat, inolako lekutasunik ez bait du →denboran. Honi aoristo *gnomikoa* deitzen zaio.

Euskaraz, idazle zaharrak ere nolabaiteko aoristoaz baliatzen ziren. Bazen orainaldi aoristiko bat, menpeko perpausetan bakarrik erabiltzen zena *dohakabe bat ikus dezagunean, urrikaldu behar gatzaizkio.* Eta baita →iragan aoristiko bat ere: *orduan nagusia ethor zedin.* Forma zahar hauen benetako balioaz jabetzea ez da erraz eta gaur egun ez ditugu erabiltzen, aspektu eta →denbora bereztasunak deuseztuz joan diren heinean. Gaur →subjuntibotzat hartzen ditugunak lehen aoristo antzeko zerbait ziren (ikus, honi buruz, →Lafon-en «Systhème» liburu famatua).

Apelatiboa

Ik. DEITZAILEA

Apikaria

apical / apical / apical

Mihiaren punta →aho-sabai gogorraren aurreko zatira, albeolotara edo-ta hortzetara hurbiltzen denean, →soinu apikari bat egiten dugu.

Euskarazko /ś/a →fonema →apikaria da.

Apodosia

apodosis / apodose / apodosis

Baldintzazko perpausean menpeko proposizio baten ondoren jartzen dugun →proposizio nagusia *apodosia* dugu. Aurreko menpekoa, berriz, *protasi* izenaz ezagutzen da. Apodosiak baldintzaren ondorioa adierazten du. Etsenpluz: «Otsandak urdairik erosten ez badu, *afaririk gabe geratuko gara berriro ere*». Azpimarraturiko atala *apodosia* da.

Apofonia

apofonía / apophonie / ablaut

Bokalezko →txandaketaren →sinonimoa.

Apokopea

apócope / apocope / apocope

Apokopea hitz baten bukaeran dagoen →fonema edo-ta →silaba baten edo batzuen erortzean gertatzen den →aldaketa fonetikoa da. Latinezko *arborem,* horrela, *arbor* egin zen lehendabizikoz gaztelaniaz apokope-fenomeno bategatik (geroago →disimilazioz *árbol* bihurtu zena), eta Iparrameriketako ingelesez, kasu batez, *laborategi* esateko *lab* erabiltzen da gehiago *laboratory* baino, *Skylab* kasuan bezala. Katalanez ere oso fenomeno bizia da gaurko hizkuntzan, eman dezagun /-r/ren apokopea →infinitiboetan edo-ta fonema horretaz amaitzen diren →substantibo →singularretan. →Pluralezko formetan, berriz, /r/ horiek berriro agertzen dira: *mercader / mercaderes,* lehenengoan [r] ebakitzen ez delarik, baina bai bigarrenean. Gehienetan *apokopea* ez da →sandhi-fenomeno bat besterik, perpauseko zenbait hitz aurreko edo atzeko hitzaren atal bezala erabiltzeagatik gertatzen dena. Hori da, hain zuzen, euskaraz *pixkat*-en gertatzen den fenomenoetariko bat.

Aposizioa

aposición / apposition /apposition

→Izen bati lotzen zaion →kategoria bereko hitz edo hitz-taldeari esaten zaio *aposizioa,* izenak izendatzen duen errealitate be-

ra, baina beste era batez, izendatzen duenean. Honela, izen bat *(irakaslea)* erants geniezaioke beste bati, *Eneko irakaslea, musugorria da* perpausean bezala. →Zentzu hertsian, izenaren erabilera isolatuari deritza aposizioa, ez erabilera bereko →adjektiboari; baina, hedaduraz, adjektibo *honi* ere deitzen zaio. Aposizioan dagoen izenak ez du berez →funtzio sintaktikorik, ez da funtzio gramatikal bat. Beste funtzio hauek izan ditzake, ordea: *funtzio explikatzailea* (edo *epexegetikoa),* lotzen zaioneko izenaren ezaugarri bat nabarmentzen duenean: *Detxepare, lehen euskal idazlea, oso ezaguna da:* edo *funtzio murriztailea,* izena identifikatzeko eta hari buruzko zalanzak ezabatzeko erabiltzen denean: *Joanes Etxeberri, Ziburuko idazlea, aztertzen ari gara* (Sarakoa ez; bestea, alegia). Bi erabilera hauek predikatzaileak dira, izendaturiko →pertsona nahiz gauza determinatzen dutelarik.

ARANA, Sabino

Sabino Arana Goiri Abandon (gaur egun Bilbo) jaio zen 1865. urtean eta Pedernales-en 1903. urtean heriotzak harrapatu zuen.

Euskaldun berria zen, bere gurasoengandik ez bait zuen ikasi euskara. Van Eys-en idatziak izan zituen gidari lehen euskalduntze-urteetan.

Batipat politika izan zuen ekintza nagusitzat, baina, euskara ere aztergaitzat hartu zuen.

Zenbait aldizkari eta egunkari sortzeaz gainera hainbat izkribu idatzi zituen euskarari buruz.

Horien artean aipagarrienak honako hauek lirateke: *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizcaino* (1896). Bertan ortografi sistema bat proposatzen du bizkaitar euskararentzat. Horretarako bizkaieraren →soinuak aztertu zituen eta errepresentazio grafiko bat proposatu zuen soinu bakoitzarentzat.

Artikuluen artean honako hauek aipatuko ditugu: *Análisis y reforma de la numeración euzkérica* eta *Análisis y reforma del Pater Noster del euzkera usual.*

Aranak Larramendik bezala hizperri asko sortu zituen, baina, bada diferentziarik bien artean; lehenak sortzen zituen hitzak erabili egiten zituen, aldiz, bigarrenak ez.

Garbizale porrokatua izan zen batez ere lexikoan: gaur egun darabiltzagun zenbait hitz S. Aranak sortu zituen, nahiz eta beste mordo bat arbuiatua izan; bestalde berak eman zien euskal itxura garai hartan jartzen ziren pertsona-→izenei. Baina Aranaren «erreformak» lexikoa ezik →aditz-jokoa ere harrapatu zuen.

Balorazio mailan sartzerakoan interesgarria gerta dakiguke Aita Villasantek bere *Historia de la literatura vasca*-n dioena aipatzea. S. Aranaren garrantzia idatzi zituen lanen kopuru eta kalitatean baino gehiago eskaini zuen indarrean datza, alegia, Euskal Herriaren kontzientzia hizkuntzarekiko piztean eta euskaldunak beren hizkuntza lantzera bultzatzean.

Arartegabeko osagaia

Ik. OSAGAI, ARARTEGABEKO

Ardatza

eje / axe / axis

F. de →Saussure-ren terminologian erlazio sintagmatikoak eta →elkargo-erlazioak kontrajartzen dira. Saussure-ren ondoko hizkuntzalariek, berriz, *ardatz sintagmatikoa* eta *ardatz paradigmatikoa* kontrajarri ohi dituzte, lehenengoa katea mintzatuko elementuen arteko harremanena, horizontala beraz, eta bertikala bigarrena, hau da, elkar truka dezaketen unitateena.

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Argia

claro / clair / clear

→Bokal argia akustikoki →zorrotz den bokala da, hau da, genetikoki →aho-sabaikaria: [i], [e], [ɛ], [a], [y], [o] eta [oe]. Bokal argiek bokal →itzaltsu edo →lodiekin →aurkakotasun bat eratzen dute. *Argia* hitza oso erabilia izan da, fonologo eta fonetikari estrukturalisten lehen inpresioaren eta argi-zorroztasunaren ikusmenezko inpresioaren arteko elkargo naturala adierazten du.

Argota

argot / argot / argot

Argota lexikora mugatua den bizkarkoi erako →dialekto soziala da (berez dagoen →hiztegia, zentzu afektibo berriekin, bikoiztu besterik egiten ez duen neurrian). Bere

burua besteekin lehian dakusan zenbait gizarte-geruzatan erabilia, haren jomuga tarteko ez den inorentzat ulertezina izatean edota talde bateko ezaugarritzat erabiltzean datza. Berez, argota, hasieran gaizkileena izan da (Frantzian, esate baterako, *jobelin, narquin* e.a. Euskal Herrian, berriz, buhameen hizkuntza aipa daiteke. Sasieuskara horretaz, hain zuzen ere, Jon Mirandek poema bat idatzi zuen *kama goli* zeritzona). Beste zenbait lanbidetan ere bizkortu da argot bat (saltzaile ibiltarien artean adibidez) edo-ta zenbait taldetan (eskoletan, ejerzitotan edo gerrako presoen artean). Lanbide batzutan badago hitz teknikoez gainera argotezko hitzak erabiltzeko joera. Argot guzti hauek, eta inoiz herri-mintzairak ere, badituzte antzekoak diren eratze-prozedura batzu (→silaba batzuen galera, atzizkitze bizkarkoia, silaben edo →soinuen alderantziketa e.a.). Kodeketa-prozedura batzu ere erabiltzen dira: Adibidez *ti* eransten diogunean silaba bakoitzari aurretik: *Tinatihi tinutike tipetirrak tetigin.* Halako hamaika bide dago. →Hitz-altxorra berritzeko irudia ere erabiltzen da. «Hori da lotsagabea hori» esan beharrean «horrek daukan bekokia» esatea.

Arikaria

cursivo / cursif / cursive

→Ekintza egiten ari dela adierazten duen →aspektuari esaten zaio *aspektu arikaria;* adibidez: *irakurtzen ari da, elaberri bat idazten ari da.*

Ik. ASPEKTUA

Ariketa

Ik. PERFORMANTZIA

Arkaismoa

arcaismo / archaïsme / archaism

1. *Arkaismoa* →sinkronia batetan desagertu edo-ta desagertzeko zorian den →sistema bati dagokion forma lexikala edo →joskera da. Une jakin batetan eta komunitate baten hizkuntzari gagozkiola, talde sozial eta belaunaldien arabera, hizkuntz sistema desberdinak egoten dira eta badira forma batzu adin handieneko →hiztunei baizik ez dagozkienak; hauek hiztun gazteagoek arau arruntaren arabera arkaismotzat joko dituzte. Honela, Ch. de Delescluze-k 1871an, komunaren denboretan, zaharturik dirudien edo gazte iraultzaileei zahar iruditzen zaien *réacteur* hitza erabiltzen du; gazte horiek komatxo artean jartzen zuten hori, beraiek réactionnaire →hitza baizik ez bait zuten erabiltzen. Euskaraz ere, agian, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa ahantziko bagenu, gauza bera esan ahal izango genuke *erreboluzio/ iraultza* eta *izparringi/egunkari* bikoteez.

2. Estilistikan, egungo mintzamoldean gehiago erabiltzen ez den eta antzinako hizkuntz egoera bati dagokion hitz baten erabilera *arkaismotzat* jotzen da. *Arkaismoak* hizkuntza standard eta literatur mintzairaren arteko berezketen zati bat dira. Kasu batez, *etsai pertsonala* eta *izterbegia* halakoaren adibidetzat jo daiteke.

Artifiziala

artificial / artificielle / artificial

Berez hizkuntza desberdinek dituzten →hiztunek elkar ulertzeko apropos sorturiko hizkuntzari hizkuntza artifiziala deitzen zaio. (Aurkakoa: berezko hizkuntza).

Esperantoa (idoa geroago hartatik sorturiko beste hizkuntza bat izanik) 1887an sendagile poloniar batek, Lazare Zamenhoff-ek, sortua da; mundu guztian zenbait ehun milaka pertsonak erabiltzen dute. Bere erroak ahal den nazioartekotasunik handienarekin hautatuak izan ziren; gramatika-alderdiak ikaskuntza erraztearren, erraztasun osoz burutuak daude (unitate lexikalen aldaezintasuna, →azentua azkenaurreko →silaban beti, bukaeran ezagutzen diren →kategoriak: /-o/ →izenentzat, /-a/ →adjektiboentzat, /-e/ →adberbioentzat; →aditz-joko bakarra eta →laguntzaile bat «esti» (izan); →konposizio lexikalaren ahalbidea →juxtaposizioz.

Volapükera 1880an sortua izan da ingelesa oinarritzat harturik; sortzailea: Konstanze inguruko Martin Schleyer apaiza. Horren porrota honetan datza: funtsik gabeko sinplifikazioak, →deklinabide arbitrarioa, aditz-joko arkaikoa...

Zenbait hizkuntzalarik interlingua delakoa sortu dute.

Artikulazioa

articulación / articulation / articulation

Laringeko airea igarotzerakoan durundigile desberdinen forma eta, hortaz, mintzairako →soinuak gauzatzeko erabiltzen diren soinu-uhinen izaera mugatzen dituzten ahots-organoen higidura-multzoa da artikulazioa.

Bi koordenatuk zedarritzen dute artikulazioa: artikulaguneak eta artikulazio-moduak. Lehenengoak soinu bat ahoskatzerakoan hersketarik handiena jasaten duen ahobideko puntuaren berri ematen digu eta bigarrenak aireak igarotzean aurkitzen dituen oztopo eta egoerarena.

Artikulazio bikoitza

Giza-mintzaira mugatzeko lanbidean, André Martinet-ek urrats handi bat egin zuen giza-hizkuntzek, animalien «hizkuntzek», edo «mintzaira» →artifizialek ez bezala, artikulazio bikoitza, edo bi artikulazio dituztela baieztatu zuenean. Haren ustez, edozein →esakuntza, →esanahia duen gutxienezko unitatetan bana daiteke, h.d., →morfematan, edo →Martinet-en beraren terminologian, →monematan (Ik. *Monema).* Eta monemak, halaber, esanahirik ez duten gutxienezko unitatetan bana daitezke, h.d., →fonematan. Horregatik dio, hizkuntza bi artikulazioz, edo-ta artikulazio bikoitz batez egituratzen dela, monematan lehenengoa, eta fonematan bigarrena. Perpaus hau, adibidez,

gizonak liburua dakar

lehenengo artikulazioko unitate hauetan (= «monema» hauetan) bana daiteke:

gizon-a-k liburu-a d-a-kar

eta bigarren artikulazioko hauetan (= «fonema» hauetan):

[*g-i-s-o-n-a-k-l-i-b̆-u-r-u-a-d̆-a-k-a-r̄*]

Martinet-ek dioenez, artikulazio bikoitza →ekonomia linguistikoaren kausaz sorturiko egitura da; osterantzean errealitatearen elementu batbedera izendatzeko, →soinu desberdin batez baliatu beharko bait genuke; gainera bera da egitate linguistikoen hautazkotasunaren gordetzailea, hizkuntza bakoitzak →mezuak →zeinuteria propio baten arabera antolatzen bait ditu, eta zeinuteriaren unitateak orobat unitate diferenteez osaturiko →sistema berezi batez.

Proposamendu hau dela eta, ea hizkuntza ezin azter ote daitekeen bi maila horietan baino gehiagotan galde liteke. Erantzuna argia da: aztertu egin daiteke, bai; baina azterketa-maila berri horiek ez dute artikulaziorik osatzen, horko unitateak ezin bait daitezke katea mintzatuan bakan eta artikula. Fonemak, esate baterako, unitate txikiagotan azter daitezke; baina unitate horiek ez dira artikulatzen, ez dute errealitaterik katea mintzatuan, eta horregatik ez dute artikulaziorik osatzen. Monemak baino handiagoak diren unitateez ere gauza bera esan behar da, azterketa-maila berriek harreman berririk deskribatzen ez dutelako monemek perpausean elkarren artean dituzten harremanetatik aparte. Honegatik esan daiteke artikulazio bikoitza giza-mintzairaren ezaugarri unibertsala dela.

A. Eguzkitza

Artikulua

Grekoek bereizten zituzten perpausatalak zortzi ziren, artikulua ere tartean zelarik. Erromatar gramatikariek, berriz, perpaus-ataletan ez dute artikulua sartzen latinak ez bait zuen artikulurik.

→Izen batí laguntzen dion mugatzaile bereziari *artikulua* esan ohi diogu. Gure inguruko hizkuntzetan artikulua beti izenaren aurrean joan ohi da eta izen hori zerbait mugatu bezala aurkezten digu edo zerbait zehaztu gabe bezala. Horrela, berezi ohi dira artikulu determinatuak eta artikulu indeterminatuak.

Artikuluari hurbilen zaion elementua euskaraz, *mugatzailea* dugu. Mugatzaile hau itxura desberdinez agertzen zaigu. Normalki, →singularrean *-a* dugu eta →pluralean *-ak*. Hau, inguruko hizkuntzetan ez bezala, →izenaren edo izen-→sintagmaren azkenean doa:

gizon-a; gizon handi-ak.

Mugatzaile hau, azken batean →erakusle bat besterik ez da. Bizkaieraz, oraindik ere erakusle bezala agertuko zaigu: *gizon a etorri da.*

Hizkuntza erromanikoetan gertatua gertatu da euskaraz ere, hots: jatorriz erakusle zirenak artikulu bihurtu direla.

Mugatzaile honen ondoren etorriko da →deklinazio-→atzizkia ere. Eta orduan mugatzaile horrek, azaleko egituran behintzat, forma desberdinak har ditzake: *-a, -ak; -a, -e;* ∅, *-eta-*.

Pluraltasuna eta singulartasuna ere mugatzaile honi atxikirik doaz: singularra eta plurala mugatuak izango dira beti. Hala ere, bada arazo bat: noiz erabili mugatzailea? Badirudi mugatzailea, izen-sintagma perpausaren izen-sintagma denean (→subjektua, alegia)

mugatzailerik gabe agertzeko arrazoi bereziak behar direla, adibidez, zenbatzaileren bat edo galdetzaileren bat agertzen baldin bada. Bestela, →aditzari bereziki loturikako →objektuetan ere ager daiteke mugagabea: *parte hartu, gai izan*...) edo -Z atzizkia edo lekuzko atzizkiren bat duenean *(oinez, hotzez, uretan, belarretan*...).

Euskal gramatikarik gehienetan erdara hartzen da eredutzat eta erdal eredu horiek itzultzen saiatzen dira, baina erdararekin alderatzeak ez du gauza gehiegi aurreratzen. Bestalde, erdaretan artikulu indefinitu bat ba omen denez, askok euskaraz ere badela diote. Hainbeste erabiltzen dugun *bat* hori, hain zuzen. Baina badirudi artikulu baino gehiago zenbatzaile dela.

Hala ere, *-a* eta *-ak* [±def] izan omen daitezke. Honela esplikatuko litzateke zergatik baieztapenean *-a* agertzen den eta ezeztapenean, berriz, *-a* eta *-ik,* lehenbizikoa [+def] eta bigarrena [—def]. Honek esan nahi du honako perpaus bat, adibidez: *gizona dator* anbiguoa dela. Horretaz, mugatzaileak mugatu egiten duela diogunean mugatze hori zer den ikusi beharko da.

P. Goenaga

Artizkia

infijo / infixe / infix

Zentzua aldatzeko hitz baten barnean txertatzen den →hizkiari artizkia deritza; honela batzuetan latinez *n* artizki →sudurkaria →aditza sortzeko, →hitzaren →erroan txertatzen da; «frag-» erroari *n* artizkia txertatuz «frango» sortzen da («hautsi»).

Euskaraz artizki gutxi ditugu: -ra- artizkia (egin, eragin) fosildurik dagoela dio Villasantek.

Artxifonema

archifonema / archiphonème / archiphoneme

Artxifonema →aurkakotasun neutralgarria duten bi →fonemen arteko →ezaugarri erkideen multzoari deitzen zaio. Honela, gaur euskaraz, Ekialdeko euskalkietan izan ezik (eta agian beste hizkera mugatuago batzutan) [p], [t], [k] eta [b], [d], [g] →herskarien arteko aurkakotasuna [n] eta [l]ren atzean neutraltzen da, lekugune horretan fonema horien →ebakera bakarra fonema →ozenak bait dira. Esan behar da, baita ere, artxifonemaren kontzeptua ez dela →fonologia sortzailean onartzen, eta →aurkakotasunaren neutralizazioko lekugunetan agertzen diren ezaugarri →bereizleak aurkakotasun horren bi fonemei dagozkien ezaugarri erkideak direla. Aurreko adibidean, beraz, →ezpainbikariak eta herskariak izatea [p] eta [b]-ren kasuan. Ezaugarri horiek dira artxifonema fonologikoki zehazten dutenak, grafikoki letra majuskulaz errepresentatua h.d., /B/.

Artxilexema

archilexema / archilexème / archilexeme

→Lexikografia estrukturalak bere terminologia analisi fonologikotik kalkatu duelarik, artxilexemaren nozioa, →artxifonemaren parekidea gertatzen da. Artxifonemak, →aurkakotasun baten →neutralizazioa suposatzen du (adibidez, /k/ / /g/ aurkakotasuna *egingo* forman) eta beraz, zera errepresentatzen, azterturiko →fonemen →ezaugarri fonologiko erkideen multzoa.

Artxilexemak, era berean, zenbait ezaugarri semantikoren aurkakotasun baten neutralizazioa itxuratzen du, h.d., sortako unitate desberdinei dagozkien ezaugarri semantiko erkideen multzoa aurkezten. Eman dezagun, *jan, elikatu, ahoratu, irentsi, gosaldu, bazkaldu, askaldu, afaldu* eta *bazkatu* hitzek badute zer edo zer erkide, beharbada, «jakiren bat jartzea gorputzean» izan litekeena. Kasu honetan hori izango litzateke artxilexema, zeren hitz hauen aldeanitzeko aurkakotasuna neutraltzen bait du eta nolabait hitz horien ezaugarri erkideen multzoa biltzen.

Artxisemema

archisemema / archisémème / archisememe

Semantika estrukturalean *artxisemema*ren nozioa familia semantikoen →esanahia definitzeko erabilia izaten da. Hitz bakoitzaren esanahia semema bezala edo-ta sema-fardeltzat (semen multzotzat) jotzen delarik, familia batetako →hitzen sememetan berdin diren semak, semema bakoitzaren barne den azpimultzo bat osatzen dute, hots, sema guztien ebaketa (S).

Demagun «aulkia» esateko izen-segida. Aulkien deskribapenen multzoak zenbait →ezaugarri agerrerazten du (bizkarralde zurezkoa, lau hanka, eseritzeko); horietatik batzu zenbait aulkiren berezgarri izango dira, beste batzu, aldiz, aulki guztien ezaugarri. Horren arabera: S_1 = bizkarraldeduna, S_2 = hankaduna, S_3 = pertsona bakar

batentzat, S_4 = eseritzeko. *Aulkia*ren S guztien multzoak *aulki* horren semema osatzen du.

Besaulkiarekin prozedura berbera erabiliz, lehenago aipatu diren S-ak (S_1, S_2, S_3, S_4) eta gainera S_5 agertzen dira, besoduna izatea, alegia. Honela, aulki-mota guztien izenekin jarraikiz (zizailua, kadira, jargua, lanka) *eserleku*aren A artxisememe kasu guztietan agertzen diren S-en azpimultzoak osatua izango da.

Nahiz eta →artxifonemaren kontzeptuaren gainean eginda egon eta hark gauzatze fonologikorik ez eduki, artxisememak badu gauzatze lexikal bat edukitzeko gaitasuna. Kasu horretan, agian, konfigurazio semiko gutxienaz mintzatzea egokiago litzateke.

Aryar

ario / aryen / Aryan

Aryar, «indoeuropar» hitzaren →sinonimotzat erabiltzen da. Berez, indiar eta iraniarrei bakarrik ezarri beharko litzaieke, beren asabak aryar izenez ezagutzen bait ziren.

Asertzioa

aserción / assertion / assertion

Asertzioa →subjektu →hiztunak, beraren eta solaskide(ar)en artean antolaturiko →komunikazio-mota bat da, eta subjektu horrek bere →proposizioak *«nik diotsut...-la»* perpaus inplizituaren menpeko egitean datza. Galdera, *«ea...-n galdetzen dizut»* perpaus inplizituaren menpeko da; eta →inperatiboa, *-la agintzen dizut* perpausaren menpekoa.

Asibilazioa

asibilación / assibilation / assibilation

→Herskari bat →txistukari bilakatzen denean asibilazioa gertatu dela esaten da; frantsesaren bilakaera historikoan, esate baterako, honako kasu hauetan gertatu da *asibilazioa:* latinezko (k)-ren kasuan, beraren atzean (e) edo (i) agertzen direnean (latinezko *certus* [kertus], **certanus* herrilatinaren formaz > *certain* [sertẽn] bihurtua), edo-ta /t/ fonemarena (i) baten aurrean aurkitzen denean, euskaraz latinetiko hitz batzuetan ere gertatzen dena: *nation* frantsesez edo *nazio* euskaraz.

Asimilazioa

asimilación / assimilation / assimilation

Asimilazioa →fonema batek aldamenekoa ukitzean jasaten duen →aldaketari esaten zaio, eta aipaturiko aldaketa honetan datza: ukipenezko bi unitateak artikulazio-→ezaugarri erkideak lortzean. Aldaketa hau, jarraikitzen den fonema hobe ebakitzearren ahoskuntz organoek hartzen duten artikulazioa aurreratua bezala defini daitekeenean →atzeranzko *asimilazioa* da. Alderantziz ere, →aurreranzko *asimilazioa* izan daiteke, hots, aurreko fonemaren artikulazioa atzeratu egiten denean eta ondoko fonemaren →ebakera eragiten duenean. Hori da euskaraz /n/ askoren bustiduran gertatzen dena, adibidez, *Egin-ek esan du* [eginek esandu]. Fonema bat aldi berean aurrean nahiz atzean dituenengatik aldatzen denean *asimilazioa* bikoitza dela esaten da.

Asindetona

asindeton / asyndète / asyndeton

Orokorki harturik, elkarrekin eratutako bi hizkuntz unitatek inolako lotura formalik ez dutenean, asindetona sortzen dela esaten da. Hizkuntzalaritzan, berriz, arauak lotura-hitz bat eskatzen duen tokian hitz horren ez egoteari esaten zaio asindetona. Horrela, adibidez, *hik esan arabera prestatu diagu/dinagu* perpausean, asindeton bat gertatu dela esan dezakegu, *hik esandakoaren arabera...* behar bait zen gramatikaren arauei jarraituaz. →Koordinaziozko juntagailuaren ezean sortzen den asindetona, aldiz, estiloefektu bat da zerrendapenetan, azken terminoaren aurrean, *eta* ezabatzen denean; adibidez: *aita, osaba, haur guztiak azaldu ziren.*

Bestalde, badago zenbait hizkuntzatar euskaraz ezin egin daitekeen asindetona alegia, perpaus →konpletiboetan agertzen diren juntagailuen desagertzea: *Ich glaube Du hast recht* (nik uste dut arrazoia duzula), esan bait daiteke alemanieraz →erregelen arabera agertu behar lukeen eta maiz agertzen den: *Ich glaube, dass Du recht hast,* delakoaren ordez.

Askea

libre / libre / free

1. →Bokal askea, →silaba berean →kontsonanterik jarraitzen ez zaion bokala da. Silaba irekietako bokala da, eta silaba itxietako bokal →trabatuei aurkajartzen zaie. *Ama* hitzean, bi bokalak askeak dira.

2. L. Hjelmslev-entzat, →aldaera bat askea da, →textuinguruak automatikoki ezarria ez denean. Aldaera askeari «aldaketa» ere esaten zaio.

3. →Zeharkako →berbaldia (edo estiloa) askea deitzen da, menpekotzailea eta perpaus nagusia *(—(e)la esan zuen)* agertzen ez direnean.

Asonantzia

asonancia / assonance / assonance

→Hitz baten edo-ta talde erritmiko baten azkenean jadanik aurreko beste hitz edo-ta talde erritmiko baten azkenean agerturiko →bokal azentudunaren errepikatzeari *asonantzia* deitzen zaio. Adibidez, erromantze gaztelau honetan gertatzen dena *reinába, lláma Saldáña* eta *amába* unitateen kasuan:

En los reinos de León
el Casto Alfonso reinaba;
hermosa hermana tenía
doña Jimena se llama.
Enamorárase de ella
ese conde de Saldaña,
mas no vivía engañado,
porque la infanta lo amaba.

Asoziazioa

Ik. ELKARGOA

Aspektua

→Aditzak adierazten duen prozesua →hiztunak nola irudikatzen duen aditzera ematen du aspektuak. Aspektua oso eztabaidatua izan den gramatika-→kategoria dugu. Bere zentzurik hertsienean, aditz-ekintza batek bere garapenaren eta bukaeraren ikuspegitik har dezakeen itxura da .Deitura honekin aditz-forma desberdinek adierazten dituzten ñabardura ezdenborazkoak deitu ohi ditugu. Adibidez, *erosi nuen* eta *erosten nuen* aditz-formek adierazten duten →ekintza bi ikuspegi desberdinetatik begiratzen du hiztunak: →*denboraren* aldetik, biak →iraganak direla argi ikusten dugu; eta *aspektuaren* aldetik bi formak iraganak izan arren, batak ekintza →*burutua* adierazten du *(erosi nuen)* eta besteak, ekintza hori *burutugabea,* edo prozesuan bezala, aurkezten digu *(erosten nuen).*

Aspektuak indar handia du zenbait hizkuntzatan: eslaboetan eta greko zaharrean, adibidez. Hain zuzen, *aspektu* →hitza errusierazko *vid*'-en itzulpena da.

Badira beste zenbait aditz-forma ere aspektuaren alderditik aztertu ohi direnak. Adibidez, ekintzaren hasiera gogoan hartzen den ala ez, edo ekintza errepikatzen den ala ez esaten digute. →Modalitate hauek era desberdinetan adierazten dira hizkuntza batean eta bestean. Dena dela, berezi egin behar da aspektuari dagozkion ñabardura hauek gramatika bidez adierazten diren ala →semantikari dagozkion zerbait diren, eta beraz, desberdintasun hori hiztegi mailan kokatzen den ala ez. Adibidez, zenbait aditzek, beren →edukin semantikoa dela eta, hasiera adieraziko dute eta beste batzuk amaiera. Berez, *hasi* eta *amaitu* ez dira kontrajartzen aspektuaren aldetik baina bai hiztegi mailan. Aspektuak aditzaren ekintza hiztunak nola kontsideratzen duen esaten digu: zerbait burutu ala zerbait burutugabe bezala. Adibidez: *amaitu da / amaitzen da* bikotearen arteko desberdintasuna, bai, aspektuari dagokio.

Euskaraz, aspektuaren arazoak ez daude oraindik zeharo argituak.

Gramatika sortzailean *aspektuak, denborarekin* eta *modalarekin* batera, *laguntzailea* osatzen du: Lag → asp + d + (M).

P. Goenaga

Atlas linguistikoa

atlas lingüístico / atlas linguistique / linguistic atlas

Atlas linguistikoa zer den azaltzerakoan Jules Gilliéron-ek eginiko «Atlas linguistique de la France» aipa dezakegu, bera izan delako luzaroan atlas linguistikoen eredua. Halako atlas baten osagarriak honako hauek dira: 1) galdesorta, inkestaturiko gizabanakoak aipatu behar dituen nozioak markatzen dituena, eta era berean, eskuratu behar diren perpausak edo-ta jorratu behar diren elkarrizketak. 2) Inkesta-leku eta inkestatu behar diren →hiztunen mugapen zehatza eta 3) hizkuntz mapak. Berauetan, puntuz puntu jasoriko plegu, →hitz, esaera eta →joskera-motak agertzen dira.

Ik. HIZKUNTZ GEOGRAFIA

Atonoa

Ik. AZENTUGABEA

Atributua

atributo / attribut / attribute

Gramatika tradizionalaren arabera, →izenari →aditz kopulatibo baten bidez lotzen zaion →adjektibo, →substantibo edo →hitzari deritza *atributua.* Adibidez, *ona, irakaslea ona da* perpausean, edo *ardo, Jesusek ura ardo bihurtu zuen* perpausean.

Atribuziozkoa

atributivo / attributif / attributive

1) Gramatika tradizionalean, →atributu-funtzioa →aditz kopulatiboa duten aditz-→sintagmen barruan dauden →adjektibo eta →izen-sintagmek betetzen duten →funtzioa da. Honako perpaus hauetan, *Mikel alaia da* eta *Mikel mutila da, alaia*-k eta *mutila*-k atributu-funtzioa betetzen dute.

2) Gramatika estrukturalistan eta →sortzailean, elementu hauek dituzten aditz-sintagmetan: *aditza + izen-sintagma + post-posizio-sintagma/preposizio-sintagma,* azken elementuari atribuziozkoa deitzen zaio. Euskarak bezala →kasu-markak dauzkaten hizkuntzek, funtzio hau →datiboaren →markaren bidez adierazten dute: *Idoiak Edurneri sagar bat eman dio.*

3) Aditz kopulatiboa daramaten perpaus predikatzaileetan aditz-sintagmen osagai diren adjektibo eta izen-sintagmen funtzioari esaten zaio *atribuziozko funtzioa.* Perpaus hauetan *Patxi beltzarana da* eta *Patxi hemen da,* «beltzarana da» eta «hemen da» atribuziozko sintagmak dira.

Atzekoa

posterior / postérieur / back

Atzekoa esaten zaio →fonema bati, beronen artikulagunea aho-barrunbearen atzean aurkitzen denean. Aurreko fonemei aurkajartzen zaie, hauek →aho-sabai gogorraren, hortzen edo ezpainen mailan gauzatzen bait dira. Atzeko fonemak dira: →bokal →belareak [u, o, w], →kontsonante belareak [k, g, x], eta baita kontsonante →ubular, faringal eta laringalak ere.

Atzeranzkoa

regresivo / regressif / regressive

→Asimilazioari buruz erabiltzen da →hitz hau, eta →aurreranzkoaren →antonimoa da.

Atzeranzko asimilazioan bigarren →fonema nagusitzen zaio lehenengoari:

erd. desde → [deźde]

(bigarren fonemak, →ozena berez, ozen bihurtu du aurreko «s» [ś]). Euskaraz esne → [eźne] aurreko [ś], ozendu egin da [ź] bihurtuaz.

Atzizkia

sufijo / suffixe / suffix

→Erradikalari edo oinarri lexikalari eransten zaion →hizkia da atzizkia. Batetik →desinentzi edo flexio-atzizkiak eta bestetik eratorpenezkoak bereiz ditzakegu. Lehenengoek →kasu-→markak eratzen dituzte. Euskal adibide bat hartuaz: «gizonari» azalpenean, -ari flexio-atzizkiak: zenbakia (singularra), funtzioa (datiboa) eta mugatua dela adierazten digu.

Eratorpenezkoak, aldiz, erradikaletatik edo oinarri lexikaletatik abiatuaz elementu berriak sortzen dituzte; atzizki hauek →hitz eratorriaren →kategoria, →joskera-harreman eta →esanahi berriak mugatuko dituzte. Adibidez «handi»-tik handitasun eratortzen dugunean →adjektibo bat atzizki baten bidez kategoriaz aldatzen da →izen bat bilakatuaz eta, honenbestez, bere sintaxi-harremanak eta esanahia ere aldatuak gelditzen dira.

Aukerazkoa

facultativo / facultatif / optional

Gramatika →sortzailean, teoriaren lehenengo etapan, bi →transformazio-mota berezten ziren: *derrigorrezkoak* (→hizkizko transformazioa, esaterako), edozein perpausmotari aplikatzen zitzaizkionak, eta *aukerazkoak,* edaslearen erabakiari daudenak (galdezko, ezezko... transformazioak).

Aurkakotasuna

Sin.: OPOSIZIOA

Termino honen bidez →paradigma baten bi elementuren artean gertatzen den harremana izendatzen da. Kontrastea, berriz, →sintagmaren barruko bi elementuren artean dagoen harremanari esaten zaio.

Hizkuntzalaritzan gehienbat bi aurkakotasun-mota bereztu ohi dira: aurkakotasun fonologikoak eta esanahidun aurkakotasunak. Lehenengoak iraunkorrak edo neutralizagarriak izan daitezke, →aldebikoak edo aldeanitzekoak, →pribatiboak edo mailakatuak eta →proportziozkoak edo isolatuak.

Aurkakotasun iraunkorra edozein lekugunetan gertatzen denari esaten zaio. Eman dezagun euskarazko z/s arteko aurkakotasuna. Aurkakotasun neutralizagarria, ostera, zenbait →textuingurutan desagertzen dena dugu. Euskaraz, kasu batez, m/n arteko aurkakotasuna →silaba baten amaieran desagertzen da. Aldebiko aurkakotasunak aurkakotasuna gertatzen deneko →fonemetan beste fonemetan aurkitzen ez diren →ezaugarri fonologikoak agertzen direnean gertatzen da. Esate baterako, k/g euskarazko fonema →belare bakarrak dira. Aldeanitzeko aurkakotasunetan kontrako kasua gertatzen

da. Adibidez p/b aurkakotasunean agertzen den →gor/→ozen bikotea t/d edo k/g aurkakotasunean ere agertzen da. Aurkakotasun pribatiboak →marka baten egote edo egoterik ezaz definitzen direnak dira. Etsenpluz, euskarazko /p/t/k/ versus /b/d/g/ aurkakotasun pribatiboak dira lehen saila ozentasunik ez edukitzearren definitzen delako. Aurkakotasun mailakatuak, aitzitik, ezaugarri berberaren agertze mailakatuaz definitzen dira, eman dezagun /u/ eta /o/ eta /i/ eta /e/-ren arteko aurkakotasuna. Azkenez aurkakotasun proportzionaltzat beste aurkakotasunetan gertatzen den harreman berbera dutenak jotzen dira. Adibidez, p/b, t/d eta k/g-ren arteko diferentziak gor/ozen bikoteaz definitzen dira. Aurkakotasun isolatuak, berriz, aurkakotasunaren terminoak berorretan bakarrik agertzen direnean gertatzen da. Demagun, /l/ eta /r/-ren artekoa euskaraz.

Esanahidun aurkakotasuna →esanahi desberdina duten hizkuntzaren →zeinu biren artekoa da. Bi motatakoak dira: isolatuak edo lexikalak: urgazle/haitzurlari, eta gramatikalak: behar (izena)/ behar (aditza), h.d., beharra dut/behar dut.

A. Eguzkitza

Aurrekoa

anterior / antérieur / front

→Fonetikan, mihia ahoaren aurreko alderantz aintzinatzen denean aurreko →bokal bat egiten da. Baina aldi berean mihia goratzen denez gero, →aho-sabai gogorrerantz, hain zuzen, aurreko bokal horiek →*ahosabaikariak* ere deitzen dira, hots, [i] eta [e] euskaraz.

Aurreranzkoa

progresivo / progressif / progressive

→Asimilazioari buruz erabiltzen da →hitz hau, eta atzeranzkoaren →antonimoa da.

Ahoskuntzaren mailan, aurreranzkoa da euskarak erabiltzen duen asimilazioa, lehenengo →fonema bigarrenari nagusitzen zaiolarik:

ez dakit → [estakit]

(/s/ →fonemak, gortu egiten du ondoko /d/ fonema → [t]).

Aurresatezkoa

predictivo / prédictif / predictive

Gramatika batek mintzaira batez gertatzen diren perpaus guztiak azaltzen dituenean; eta, honez gain, gerta zitezkeen perpaus guztiak ere ematen dituenean, aurresatezkoa dela esango dugu.

Aurrizkia

prefijo / préfixe / prefix

Unitate lexikal baten hasieran kokatzen den →morfema bati deritzo aurrizkia. Morfema hau →hizkien →klasean sartzen da. Lekugune honetan →lexema baten edo-ta beste aurrizki baten aurrean joan daiteke; berez, hiru aurrizki dituen sekuentzia ere aurki genezake.

Euskara →atzizkitan aberatsa dugu, ez ordea, aurrizkitan, hor ditugu ibilbide historiko bat egin duten bir- (ber-) eta des-.

Atzizkia →kategori aldatzailea izan daiteke (handi → handitasun), baina ez aurrizkia; unitate lexikal berriak oinarritzat hartu duen unitatearen kategoria bera du (ikusi → berrikusi).

Autonomoa

autónomo / autonome / autonomous

→Martinet-en kontzepzioan, unitate bat inolako aldaketarik jasan gabe →enuntziatuko edozein toki edo lekugunetan ager daitekeenean *autonomoa* dela esaten da. Era horretan hiru unitate edo →monema-mota berezten ditu. Lehenengo eta behin, *autonomoak* ez direnak *mahai* bezala, gero *autonomoak* direnak *atzo* edo *bihar* bezala, eta azkenez *monema funtzionalak*. Azken hauen bidez autonomoak ez diren monemak autonomo egiten dira; esate baterako, →preposizioak dauzkaten hizkuntzetan hainbestetan gertatzen den bezala: *aui* eta *die Strasse, auf die Strasse* (kalera) *ich gehe auf die Strasse* delako perpausean (kalera noa).

Ik. MONEMA

Axioma

axioma / axiome / axiom

→Izen horretaz, →sistema edo hizkuntz teoria baten frogatu gabeko formula egoki bakoitza ezagutzen da.

Azentua

→Hitz batetan (edo →*morfema* batetan) →*silaba* bat gainerakoen ondoan berrindartzeari deritzo azentu; hitz edo

morfema bereko beste horiek «azenturik gabe» gelditzen direlarik.

Berrindartze hori era hauetara gerta daiteke:

— →*intentsitate* edo *indarrez;*
— *altuera* edo →*tonuz;*
— *kantitate* edo *iraupenez.*

Hori dela eta, autoreren batek izendapen hauek proposatu ditu:

— *intentsitate - azentua,*
— *tonu - azentua,*
— *kantitate - azentua.*

Tradizioz, halere, *intentsitatezko* berrindartzeari buruz erabiltzeko berezitu da *azentu* →hitza; beste biei *kantitate* edo tonu deritzelarik. *Azentua,* hala ere, ez da beti *dinamikoa* izaten, ezta bakuna ere; eta maiz →*prosodi* →*ezaugarri* sorta bat izaten da, ikertzen zaila; *serbo-kroazieraz* bezala.

Azentuari dagokionez, honela sailkatzen dira *hitzak* (edo morfemak):

— *azentudunak,* azentua daramatenak, alegia,
— *klitikoak,* azenturik ez daramatenak, nahiz, zenbait →textuingurutan azentua har badezakete ere.

Batzutan, hizkuntza gutxi-asko hierarkizatutan, errusieraz esate baterako, azentu-mota desberdinak eta azentu-mailak daude.

Hitzean edo *morfeman* daukan lekuguneagatik, berez daiteke:

— azentu *finkoa,* frantsesa, txekera;
— azentu →*askea,* espainiera, italiera.

Azkeneko hauek funtzio *fonologikoak* bete ditzakete (Ikus *prosodia);* nahiz eta, funtsean, azentuak →funtzio *kontrastiboak* bete.

Azentuaren arabera, azkenekorik, *silabazko hizkuntzak* eta →*morazko hizkuntzak* berezten dira; gertatzen den *azentu-unitatearen* arabera.

Euskal *azentua* —eta euskal *prosodia* guztia gauza bera— *Euskal Fonetikaren* kapituluetan zailenetako bat dugu; eta ez bide ditu kontraste handiarekin berezten *azentudun* silabak eta *azentugabeak.* Badirudi *azentu-eredu* batzu daudela; eta hauen artean joera badagoela hitzaren bigarren silaban jartzeko (hasieratik kontatuz), baina berau ere perpaus osoaren *intonazio*aren menpeko gelditzen delarik.

Zubererak —eta Mendebaldeko *bizkaierak* ere bai agian— erliebe handiagoko azentua bide dute; lehenengoan balio →bereizlea ere dutelarik.

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Ik. PROSODIA

Azentuazioa

acentuación / accentuation / accentuation

→Fonetikan →silaba bat nahiz gehiago, →ezaugarri foniko bati esker, →hitzaren nahiz hitz-taldearen barnean nabarmentzea da *azentuazioa;* hitzak besteetatik berezten dituen ezaugarria, arnasbehera-indar handiagoa (→intentsitate-→azentua) edo tinbre →zorrotzagoa (→tonua) izan daiteke.

Azentugabea

átono / atone / unstressed

1) →Azenturik eramaten ez duten →hitz guztiez, atono edo *azentugabeak* direla esaten da. Gaztelaniazko *alondra* hitzean, esate baterako, lehenengo eta hirugarren →silabak *azentugabeak* dira.

2) →Aditzaren edo-ta aditzlaguntzailearen aurrean jarri, eta →osagarri-→funtzioa betetzen duten →izenorde pertsonalak *azentugabe* izenaz ezagutzen ditugu; honela, *le, me, se* formak, adibidez, *tu me donnes le livre* edo *yo se lo diré* direlako frantses eta gaztelau perpausetan forma *azentugabeak* dira.

AZKUE, Resurrección María

Euskararen printze hau, printze erraldoi eta langilea oroz lehen, 1864ean jaio zen Lekeition euskal idazle baten etxean. Herioak, ostera, 1951an eraman zuen Bilbon, behin gauez hibaira jauts eta atera eta gero obratu zitzaion alborengoagatik. Nortasun gogorreko gizona baina umore onekoa, apaiz eta musikalari, euskara ukan zuen bere bizitzaren axola, Gasteizen teologia, Eliz Zuzen eta izkribu sagaratuak Salamancan, eta Bruselasen eta Kolonian musika ikasi zituelarik. Gogortasun hori zela bide ez ziren gutxi izan gertatu zitzaizkion eztabaidak, baina berorri eskerrak ere, esate baterako, bera da egundaino bere izena edozein erdaratan ondo idatzirik aurkitu duen euskalari

eta euskal idazle bakarretarikoa, beraren hiztegi ospatsuan dioenez:

> «De no observar esta elemental regla de ortografía internacional, llamémosla así, o por lo menos interlingual, si fuera posible decirlo, se seguiría que muchísimos nos veríamos obligados a escribir de diferente manera nuestro nombre, según fuese la lengua en que la usáramos. Por lo que a mí hace, tendría que valerme de *Azcue* entre gentes de lengua española, *Ascouai* entre franceses, y entre ingleses *Ascooeh* o cosa por el estilo; y confieso que ni de chico tuve afición a disfrazarme» (XXXI. or.).

Agian ez da bakarra izango.

Hasieratik Euskaltzaindiaren lehendakaria, postu horretan hil arte iraun zuen, eta zenbait kontrakar gora-behera, behin eta berriro izan zen aukeratua, beste batzuen artean Urkixo eta Campión zirenengan zuen euskarriagatik. Baina haren dinamikak baino idatzi zituen lanek ukan dute eragin gehiago. Erdaraz idatzi zituen euskal ikaspide batzuetatik aparte, euskarazkoen artean «Euskaltzale» zeritzon aldizkariko artikuluak aipa daitezke, geroago «Txirristadak» izeneko liburuan berrargitaratuak, eta orobat «Jesus Biotzaren Illa», bizkaieraz 1901ean aterea, eta idatzi zituen bi operak, «Ortzuri» eta «Urlo». 1919an bere «Ardi galdua» izeneko elaberria agertu zen, berak zuen euskara batuaren burutapenaren erakusgarri, hots, defendatzen zuen «Gipuzkera osotu»arena. Baina bost dira Azkueren obra nagusiak: 1. «Euskal Izkindea», 2. «Diccionario Vasco-Español-Francés», 3. «Morfología Vasca», 4. «Cancionero Popular Vasco» eta 5.ena izan zen «Euskalerriaren Yakintza».

Lehenengoa euskaraz eta espainieraz 1891an agertu zen Bilbon. Obra hura zela eta Dogson-ek, ingeles euskaltzaleak, «vascuence»z gabe «azkuence»z hitz egiten ohi zuen, eta egileak berak bere hiztegian honela dio:

> «Confieso haber sufrido al escribir esta gramática dos equivocaciones enormes. La primera, el creer que los diversos dialectos de nuestra lengua se podrían reunir y conglomerar tan fácilmente como substancias que se baten en una redoma... Mi segunda equivocación fue la de creer conveniente una traducción muy literal en columna contigua, para que al mismo tiempo que aprendiese las reglas tuviese el lector ejercicio práctico, constante y cómodo».

Baina haren obretan lehena, hogeita hemeretzi urte besterik ez zituela argitaratu zuen lana, bere hiztegia da. Hamabost urtez burututako lan ikaragarri hau, euskal hiztegirik baliosena dugu oraindik orain; Azkueren honi zioten zorra aitortuz ere, iparraldeko euskalkietarako aita Lhandek eta aita Lafittek egin zituztenak dira, agian, salbuespen bakarrak. Mintzaira mintzatuaren altxor segurua, ez da makalago literatura zaharraren datuak ematerakoan, eta dauzkan errakuntzak eta guztiz ere (hala nola purismo apala, zenbait ezurlerpen eta interpretazio faltsu, lekuko zahar batzuen kontutan hartzerik eza —ikus Mitxelenaren «En torno a las fuentes del diccionario de Azkue»—), Orixek zioena guztiz da zuzen, hiztegi hau lehenengo eta behin «euskera onaren iturri» bait dugu, bat ere zalantzarik gabe. Darabilen dialektoen sailkapena Bonaparte-rena bera da baina apur bat aldatua, Azkuek ez bait du Nafarroa Behereko euskalki bat besterik onartzen, eta beste bat Nafarroa Garairako; eta Erronkariera eta Zuberoera, Bonapartek bat bakartzat jota, desberdintzat ematen ditu berak. 1923an bere «Morfología Vasca» eman zuen argitara bi partetan banatua, →atzizki-tratatu bat den lehenengoa, beharbada orain arte egin den onena, eta gramatika-→kategorien azterketa sakona den bigarrena, →aditzari ematen diolarik garrantzirik gehien, seguru asko liburuaren atalik ahulena.

Azkenez beraren beste altxor biak aipatu behar ditugu, Azkue ezer bada «altxorgilea» bait da, sakabanaturik zegoena berak bildu bait zuen eta galtzekotan zegoena salbatu. Lehena «Kantutegia» dugu, egin den handiena eta orobat lehen mailakoa, eta bigarrena «Euskale-

rriaren Yakintza» hainbeste ipuin, esaera zahar eta gure arbasoen pentsamolde eta adierazpidekera gorde dituena. Euskaraz eta espainierazko itzulpenarekin argitaratua lau atal ditu: ohiturak lehenengoa, ipuinak dakartzan bigarrena, esaera zahar eta jokuz betetako hirugarrena, eta herri-poesia, herri-mitologia eta herri-medikuntzaz aritzen den laugarrena.

A. Eguzkitza

Azpiestratua

Ik. SUBSTRATUA, SUPERESTRATUA, ADSTRATUA

Azpigeruza

Ik. SUBSTRATUA, SUPERESTRATUA, ADSTRATUA

B

Baiezpena

afirmación / affirmation / affirmation

Ezezpenezko perpausaren aurkakotzat definitua, baiezpeneko, →galdezko eta →aginduzko izan daitezkeen oinarrizko perpausen →modua da, perpausaren predikua egiazkotzat, ahalezko legez edo gertakizun, eta kontingente edo-ta beharrezko bezala aurkezten duena.

Bakuna

Sin.: SINPLEA

simple / simple / simple

1) Erro →morfemari →*hitz bakuna* esaten zaio, *hitz eratorri* edo *elkartuarekin* aurkajarriz.

2) →Aditz-erroaz eta lehenaldiko →hizki batez osatutako aditz-formak, →*lehenaldi bakun* (passé simple) izena hartzen dute.

Terminologia honetan lehenaldi bakuna, lehenaldi elkartuarekin aurkajartzen da, hots, «avoir» (edo «être») →laguntzaileaz eta lehenaldiko partizipioaz osatutakoarekin.

3) →*Perpaus bakuna, perpaus anizkunarekin* aurkajarriz, →proposizio batekin bakarrik jokatzen duenari esaten zaio.

4) →*Denbora bakuna* frantsesez, →aditzjokoaren laguntzaile gabeko forma bati deitzen zaio.

Bala

haz / faisceau / bundle

→Isoglosa-lerroen multzoa, zeintzuen gainezarpenak edo hurbiltasunak dialekto batetik beste →dialekto batera iragaten dela adierazten bait du, *isoglosa-bala* deitzen da. Bertako →hiztunen sentimendu linguistikoari dagokiona kendurik, isoglosa-balen azterketa da dialektoen arteko mugak ezartzeko bide ziur bakarra. Isoglosa-bal kontzeptua egoteak berak argi eta garbi erakusten du, zein diren zehazgabeak →hizkuntz familia bereko dialektoen arteko hizkuntz mugak.

Baldintzazkoa

condicional / conditionnel / conditional

→Proposizio nagusian esaten dena gerta dadin, menpeko proposizioan jartzen den baldintza betetzea beharrezkoa dela adierazten duten perpaus elkartuei esaten zaie baldintzazkoak. Baldintza adierazten duen proposizioa →*protasia* deitzen da; ondorioa adierazten duena, berriz, →*apodosia*. Protasiko →aditzari baldintzazko *ba-* →aurrizkia eranstea da baldintza adierazteko biderik erabiliena (sarritan *ba-* honen aurretik baldin hitza jartzen da). Adibidez, *etortzen bazara, emango dizut*. Euskal gramatiketan protasiari *baldintzazko perpausa* esan ohi zaio eta apodosiari, *baldintzaren ondorioa*.

Perpaus honetan, agertzen den →modua eta baldintza bera ongi berezi behar dira. Bi modu nagusi erabili ohi dira baldintzazko perpausetan: →modu *erreala* eta modu *irreala* edo ebentuala. Baina modu-aukera perpaus osoari dagokio, eta ez alde batetik baldintzari eta bestetik ondorioari. Esan nahi da, baldintzaren modua ebentuala baldin bada, ondorioarenak ere ebentuala izan behar duela. **Etortzen bazara, esango nizuke,* edo **etorriko bazina, esango dizut* bezalako perpausak ez dira zuzenak, modu erreala eta modu irreala nahasten direnez.

Gramatika tradizionaletan baldintzazko proposizioa menpeko proposiziotzat hartu ohi da, baina gramatika →sortzailearen ikus-

pegitik zalantzan jartzen dute batzuk baldintzazko proposizioaren →menpekotasuna.

Baliokidetasuna

equivalencia / équivalence / equivalence

1. →Fonetikan, igorri den →soinu baten ordez, honen antzeko beste bat entzun uste denean gertatzen den entzute-okerrari *baliokidetasun akustikoa* deritza. Oker honi zor zaio zenbait bilakabide anomalo.

2. Banaketazko analisiaren arabera, bi unitate →textuinguru-→klase berean agertzen badira, →banaketa bera dute; bestela esan, *banaketaz baliokideak* dira. Baliokidetasuna, horrela, bi elementuren (nahiz gehiagoren) arteko erlazioa da: ingurune beretan dauden bi elementuren artekoa, edo-ta ingurune baliokideetan daudenen artekoa.

3. Gramatika →sortzailean, perpaus-multzo bera sortzen duten bi gramatikak *baliokidetasun ahula* dutela esaten da; perpaus-multzo bera sortu ez-ezik, perpausoi egiturazko deskribapen bera ematen dieten bi gramatikak, aldiz, *baliokidetasun sendoa* dutela esaten da.

Banaketa

Elementu batek parte hartzen duen harreman sintagmatiko eta paradigmatikoen multzo gisa defini daiteke banaketa. Ikerbide estrukturalisten alorrean beren →aldaera guztietan barrena oinarrizko idea bat da hau; eta beronen bitartez azaldu nahi da hizkuntza, esanahietara jo gabe, gramatikaren maila desberdinetan dagozkien unitateak eta berauen arteko harremanak zehazten direlarik.

Banaketa bilatzekotan erabiltzen den azterbideak, bi eragintza funtsezko ditu:

a) Katea mintzatuaren segmentazio mailakorra, gutxienezko →bikoteak eratzen direla. Perpaus bat hartu, eta segmentatzen den atalei osagai deritze →sintaxian; eta berorien arteko harremanari izari sintagmatiko deritzo: →sintagma bat osatzen dute, eta horrek ere berebat beste sintagma batzurekin plegu bereko harremanak lotzen ditu, horretara sintagma konplexuago bat eratuz. Sintagma bati buruzko barnekotza bilatzerakoan erabiltzen den froga, →*permutazioa* da.

b) *Sailkapena.* Sintagma batetan eta leku zehatz batetan elkarrekin truka daitezkeen elementu adierazgarri guztiak harreman paradigmatikoan daudela esaten da, eta osagai-→klase bat osatzen dute; edo-ta *banaketa-klase* bat. →Trukaketa bidez oinarritzen da, beraz, sailkapena.

Saiaketa hauek banaketa bidearen onespide intersubjektiboa eskaintzen dutela ematen da.

Eman dezagun orain ondoko analisi urrats hau:

A) *Nork ekarri dio pilota bat haur hari?*

Elementu →pluralen trukaketak, esate baterako, hiztunek onartu egin ditzaketen ondorioak ematen ditu: *nork ekarri bat dio pilota haur hari?, *nork ekarri dio pilota haur bat hari?

Zutabezko harremana: paradigmatikoa.

Kateazko harremana: sintagmatikoa.

Ikerbide honek, dena dela, bere soilean, eta sailkapen hauen bitartez bakarrik, ezin dezake azal sintagmen arteko elkar-menpekotasuna. Esate baterako: ezin dezakegu *dio*-ren ordez *die* jar, denbora berean *hari*-ren ordez *haiei* jarri gabe; *gauza bera haiek eta diote;* eta abar.

B)

Nork	ekarri	dio	pilota	haur	hari
nik	eman	diot	zigarro	gizon	haiei
guk	saldu	diogu	kazeta	neska	—
haiek	—	diote	sagar	mutil	—
—	—	die	—	—	—
—	—	diet	—	—	—
—	—	diegu	—	—	—
—	—	diete	—	—	—

Hau dela bide, →paradigma baten banaketa honela eman daiteke: ager daitekeen sintagma (→textuinguru) guztien multzo gisa.

Kontzeptu honen azalpen xeheago bat nahi izanez gero, edo beraren kondaira eta taxonomiazko ikerbidearen mugena, «Harris eta distribuzionalismoa» artikuluan aurki daiteke.

Txillardegi

Banatzailea

distributivo / distributif / distributive

Banatzaileak, objektuen →banaketa-zentzua ematen duten →zenbakizko →adjektiboak dira, objektu bakoitza partikularki hartzen delarik. Zenbakizko adjektiboei *-na* atzizkia erantsiz lortzen dira banatzaileak: *bana, bina, hiruna,* etab. *Zenbat* adjektibo →galdetzaileak ere har dezake *-na* atzizkia: *zenbana.*

Barbarismoa

barbarismo / barbarisme / barbarism

Hizkuntza baten ikaspidean, hizkuntza hori ikasten dihardutenek beren ama-hizkuntzaren eraginez hizkuntza berriaren erabileran egin edo ukan ditzaketen akats edo hutsak *barbarismoak* direla esango dugu. Bestela ere, eragin historiko, politiko edo-ta kulturalak direla bide, edozein hizkuntzak barbarismoak har ditzake alboko hizkuntzetatik. Euskara ikasten ari den askok, adibidez, hasieran bederen, ez ditu berezten ondo *nor* eta *nork* →sintagmak, eta honela esan ohi du: **Mikel egin du.* Honako kasu honetan, zalantzarik gabe, halako barbarismoak frantses eta espainieraren eraginez heldu dira.

Barnekotasuna

pertenencia / appartenance / membership

1. Elementu bat (A) multzo baten *barnekoa dela* esaten da, —eta o ε A idazten da—, elementu hau A osatzen duten objektu edo nozioen artean zenbatzen denean (banaketazko definizioa) edo elementua multzoaren definizioan inplikaturik dagoenean (ezagupidezko definizioa). Ez dira nahasi behar *barnekotasun* eta inklusio kontzeptuak. Elementu bat multzo baten barnekoa dela esango da, baina azpimultzo bat multzo batetan inkludituta dagoela esaten da. Barnekotasun-nozioa asko erabiltzen da →semantikan; →hitz bat, zentzuaren arabera, sema-bilduma baten barruan analisatzen denean, sema horietako bakoitza hitzaren →esanahia osatzen duten semen multzoaren *barnekoa da.* Horrela, «esertzeko» sema (ε ikur hau *barne* irakurtzen da) «esertoki» kontzeptuaren semen multzoaren barnekoa dela esango da.

2. *Barnekotasunaz* hitzegiten bait da, *izan* →aditza objektu-klase baten barnekoa dela adierazteko erabiltzen denean ere —esate baterako, *Joan irakaslea da* perpausean (Joan irakasleen klasekoa da)—, identitate eta inklusiozko zentzuei kontrajarriz.

Behaviorismoa

behaviorismo / béhaviorisme / behaviorism

Hizkuntz fenomenoak portaera ohargarriak bakarrik aztertuaz esplikatzen dituen teoria psikologikoa da behaviorismoa. Portaera hauek egoera batzuri emandako erantzunak bezala behar dira ulertu, eta egoera hauek erantzunak sortarazten dituzten estimulu bezala definituko dira. Honela, →komunikazioa S-R (Estimulua-Erantzuna) eskema ezagunera laburtuta gelditzen da. →Bloomfield-en amerikar →estrukturalismoak bere baitan daraman teoria honek, zentzu-arazoak komunitate sozio-kulturalaren esperientzietara igortzen ditu. Hizkuntzalari sortzaileek (N. →Chomsky) →behaviorismoa kritikatu dute, teoria hau ez dela →hiztunaren sormen eta haurrak mintzaira bereganatzeko duen ahalmenaren berri emateko gai esanaz.

Beheranzkoa

decreciente / décroissant / falling

Elementurik itxiena bigarren lekugunean daukan →diptongoari *beheranzko diptongoa* deitzen zaio, alemanieraz, kasu batez, badaude horrelako diptongoak ([au̯] *Haus,* edo [ai̯] *frei);* gauza bera euskaraz ere gertatzen da ([oi̯] *goiz,* [au̯] *lau).*

Belarea

velar / vélaire / velar

Bere errealizaziorako →aho-sabaiaren atzeko aldeaz baliatu behar duen →fonema, fonema belarea da. Honela [u, o], euskal →bokalak [k, g], →kontsonanteak belareak dira. *Sabaiatzeko* ere esaten zaie. →Fonologian, belare terminoak hedadura zabalagoa du: sabaiaren atzeko aldean errealizaturiko fonema guztiak izendatzen ditu, errealizazioleku desberdinek (→aho-sabaia, →aho-gingila, →faringea, laringea) desberdintasun fonologikorik sortzen ez dutenez. Kontsonante belare guztiak, izan ere, →lodiak eta →trinkoak dira; fonologikoki, bokal belare guztiak lodiak dira.

Berbaldia

Sin.: MINTZURA

1. Berbaldia, →ekintzara ematen den mintzaira da, edo mintzaira gauzatua; →hiztunak *bereganatzen* duen hizkuntza. (Sin.: →HIZKETA).

2. Berbaldia, perpausa bezalako edo luzeago izan daitekeen unitatea da; hasiera bat eta bukaera bat duen →mezua eratzen duen elementu-segida batez osaturik dago. (Sin.: →ESAKUNEA).

3. Linguistika modernoaren ikuspuntutik berbaldia zera da, perpausa baino luzeago den edozein esakune da, esakunea perpaus-segiden kateamendu-erregelen aldetik aztertzen delarik. Berbaldi-analisiaren mailan, beraz, perpausa ez da izango azken hizkuntz unitatea.

Berbaldi-analisia baino lehenagoko problematikan, berbaldi hitza esakunearen sinonimoa zen. Esakune/berbaldi →aurkakotasunak, linguistika eta ez-linguistikaren arteko aurkakotasuna azpimarratzen zuen. Linguistikak, →corpus batetan bildurik analisirako prestatzen ziren esakuneak hartzen zituen; berbaldiaren erregelak beste eredu eta metodo batzutan estudiatzen ziren, partikularki hiztuna kontutan hartzen zuten metodoetan, psikoanalisian esaterako.

J. Lacan-en idazlanak aztertzerakoan bururatzen zaio E. Benveniste-ri berbaldiaren problema linguistika mailan planteatzea. Benveniste-rentzat, perpausak, hizkuntz unitate bezala hartuta, ez ditu beste perpausekin, maila desberdineko hizkuntz unitateek beren artean dituzten erlazio berak. →Fonemak fonemei aurkajartzen zaizkie, →morfemak morfemei eta →lexemak lexemei. Perpausak, ordea, ez dira elkarrekin aurkajar daitezkeen unitateak. Perpausarekin, hizkuntzaren eremua uzten da, hizkuntza →zeinu-→sistema den aldetik. Berbaldiaren eremuan sartzen gara, non hizkuntza komunikazio-tresna bait da. Eremu honetan perpausa ez da jadanik azken terminoa; unitate bihurtzen da: perpausa, berbaldiaren unitatea da.

Horrez gainera, E. Benveniste-k, beste balio bat ematen dio berbaldi →hitzari, kontaketa *vs* berbaldi aurkakotasun baten barruan. Autore honentzat, kontaketa edo narrazioa →esakuntzaren zero gradua da: kontaketan, gertakizunak berez kontatzen bait dira, inor mintzatuko ez balitz bezala gertatzen dira gauzak; berbaldian, berriz, esakuntza bat dago, →edasle bat eta →entzule bat suposatzen dituelarik, eta edasleak solaskideari eragiteko asmoa du.

Esakunea berbaldia dela kontsideraturik, linguistikaren objektua zabalduz doa. Honek analisi-bideak bilatu beharra dakar: esakunea berbaldi gisa ikusten bada, kateamendu-erregelak, berbaldi-prozesuak formulatu behar dira.

Lehenengo entseiua zentzu honetan Z. S. Harris-i zor zaio. Honen lanean, →banaketazko analisian hizkuntzako beste unitateak hartzen zutenaren antzeko tratamendua harzen dute perpausek. Berbaldiek ezaugarri formal bereziak aurkezten dituzte. Baina, maila apalagoko unitateetan ((→morfemetan, esate baterako) gertatzen ez den bezala, oso arraroa da perpaus mailan bi inguruneren identitatea. Horregatik, aldez aurretik →baliokidetasun-nozioa definitu behar du Harris-ek: *Hostoak hemen udazkenaren erdi aldera erortzen dira* eta *Hostoak hemen urriaren azken aldera erortzen dira* →esakuneen alderaketak, *udazkenaren erdi aldera* eta *urriaren azken aldera*-ren arteko →baliokidetasun linguistikoa baiezteko aukera ematen digu, bien ingurunea berdina bait da. Printzipio honetan oinarrituko du analistak baliokidetasunmoten ikerketa.

R. →Jakobson eta E. Benveniste-k, mintzairaren →funtzioen azterketaren ondorioz, →hizketa-→kontzeptua aldatuko dute; →esakuntzaren →marken bidez, hiztunak ni eta zu-ren arabera moldatzen du hizkuntza. Berbaldi-analisiaren kezka bat, gaur egun, esakuntzaren adierazgailuen inbentario metodikoa lortzea da.

Berbaldi-kontzeptuak erabat aldatu ditu gaurko linguistikaren perspektibak: lexikologiaren problematika berritzen du berbaldi-analisiak; perpausa unitate gisa hartzean, N. →Chomsky-ren edasle-entzule idealizatuen aurrean esakuntzaren →subjektua eta eraketa ideologikoak

sartzean, hizkuntza eta gizartearen arteko harremanen estudio berria eskatzen du.

II. *Berbaldi zuzena, zeharkako berbaldia*

Kontatzaileak, beste norbaiten hitzak, honek esan zituen bezala errepikatzen dituenean, berbaldia (edo estiloa) →*zuzena* dela esan ohi da. Horrela, *baietz uste diat (nik)* esan duen norbaiten hitzak estilo zuzenean errepikatzen badira, →aldaketarik gabe sartuko da perpaus hau kontaketan; *nik* vs *hi* →markak mantentzen dira, eta →aditza orainaldian uzten da.

Norbaiten →hitzak, ez honek esan dituen bezala, baizik eta menpekotzaile bat, gehienetan *(e)la,* sartuz errepikatzen direnean, berbaldia →*zeharkakoa* da. →Transformazio bat gertatzen da. Transformazio honek *nik* vs *hi* esakuntz marken desagertzea dakar. Perpausa honela geratzen da: *Baietz uste zuela esan zion* (edo *zidan).* →Izenordeak hirugarren →pertsonan daude (lehenengo pertsona kontatzaileari dagokio), eta →aditza lehenaldian jarri da.

L. Artola

Bereizlea

pertinente / pertinent / distinguishing

→Ezaugarri foniko bat *bereizlea* dela esaten da, ezaugarri hori →fonema baten gauzatzean agertzeak ala ez agertzeak esanahizko unitatearen zentzu-aldaketa dakarrenean. Honela, →aldekariak →dardarkariei (oklusioa eta airearen ahotik iragatea batera ala elkarren segidan gertatzea) aurkajartzen dizkien ezaugarria bereizlea da gaztelaniaz *(pero/pelo),* baita hizkuntza erromaniko askotan ere; ez, ordea, japonieran, non edozein hitzetan jar bait daiteke *l r*-ren ordez eta alderantziz, inolako →esanahi-→aldaketarik gertatu gabe.

Zenbait hizkuntzalarik, R. →Jakobsonekin, →adiera zabalagoa eman nahi dio *bereizle* →hitzari. Ezaugarri bereizlea, ikuspegi honetatik, →komunikazioan rol bat betetzen duen ezaugarri foniko bat da, eta hori baita berezte-→funtziorik ez duenean ere. Fonema baten gauzatzean parte hartu eta beroren *identifikazioa errazten duten ezaugarriak* bereizleak dira: ingelesez, esate baterako, →herskari →gorren gauzatzean ematen den →hasperenketa; frantsesez, →kontsonante →ozenen gauzatzean ematen den laxotasuna; hainbat eta hainbat hizkuntzatan, →atzeko →bokalen gauzatzean gertatzen den ezpainkaritze-ezaugarria.

Berezgarria

distintivo / distinctif / distinctive

→Ezaugarri berezgarriak elementu foniko gutxienezkoak dira, zeintzu gauza bait dira hizkuntza berean aurkajartzeko, →esanahi desberdina baina, ezaugarri horiek kendurik, →adierazle berdina duten bi →esakune. Euskaraz, *gai* eta *kai* →hitzak aurkajartzen dituen ezaugarria ozentasuna da, lehenengo hitzaren hasieran agertzen dena eta bigarrenaren hasieran ez dagoena.

→Fonemaz behetiko unitateak dira ezaugarri berezgarriak: fonemaren trukaketazko azterketa baten bidez atzeman daitezke, eta ez haren segmentaziozko azterketaren bidez. Izan ere, ezaugarri berezgarriak ezin dira agertu katea *mintzatuan* ez badatoz aldi berean beste batzuekin konbinatuta →bal batetan, foneman alegia, honen gauzatze konkretuan beste ezaugarri foniko ez-berezgarri batzu ere sartzen bait dira.

Berridazketa

reescritura / réécriture / rewriting

Berridazketa-→erregelek, *informatika*-programakuntzari datxezkion hizkeretatik hurbil, ezkerreko elementua zer bihurtzen den adierazten dute eskuin aldean: A → B (irakur: «A berridatz B»; alegia, A hori B bihurtzen da). Bide beretik: P → IS + AS. Perpausa, beraz, bi elementu horien sekuentzia bihurtu behar da: →izen-→sintagma lehendabizikorik, →aditz-sintagma segidan eskuinaldean. Berridazketa-erregelak dira gramatika →sortzaileen muina.

Betea

pleno / plein / full

Hitz baten forma laburtuaren ondoan existitzen den forma osoari esaten zaio forma betea, forma laburtua →apokope edo →elisio baten ondorioz sortzen delarik. Latinez, *nil* forma laburtuaren ondoan *nihil* forma betea dago.

Betekizuna

Ik. FUNTZIOA

Bihurkorra

reflexivo / reflexif / reflexive

Perpaus batetan →aditzaren hiru →subjektuetako bi, edo hiru berbera gertatzen

baldin badira, aditzaren →ekintza «bihurtu» egiten dela dirudi:

Andonik bere burua saldu zuen.

Hor Andoni bera da saltzailea eta saldua.

Bihurketa bai Kausasoko hizkuntzetan, bai euskaraz, «*-re burua*»-ren bitartez adierazten da.

Beste hizkuntzetan →izenorde batez marka daiteke bihurkaritza:,

Andoni se traicionó (a sí mismo).

Gramatika →sortzailearen arabera, →transformazio baten bidez lortzen da bihurketaren adierazpena.

Bikotea

doblete / doublet / doublet

Sin.: PAREA

Bikote izena ematen zaio etimo beretik sorturiko bi →hitzen multzoari, horietatik bata hizkuntzako beste hitzetatik atera daitezkeen →lege fonetikoen arabera sortu denean eta bestea hizkuntza ama barruko hitzaren →kalko hutsez eratu denean. Eboluzio jenerala jasan duen hitza «herritarra» deitzen da, eta zuzenean kalkatu den forma, hitz «kultua» edo «kultur hitza».

Binarismoa

binarismo / binarisme / binarism

Binarismo izenez ezagutzen da teoria fonologiko bat, hizkuntzalaritzaren beste eremu batzutan ere nagusitu dena, eta baita giza-zientzi batzutan ere (antropologian batik bat). Roman Jakobson hizkuntzalariak garatu zuen teoria hau nahiz eta berak izen hau sekulan erabili ez duen, zenbait adiskideren laguntzaz (M. Halle). Honako hau da teoria honen abiaburu-hipotesia: hizkuntza desberdinetako unitate foniko →bereizleen arteko harreman gehienak, guztiak ez badira, printzipio bitarraz eratzen dira (→ezaugarri →berezgarri bat izatea ala ez). Munduko hizkuntzetan aurki ditzakegun →aurkakotasun guztiak 12 aurkakotasun bitarretako eskala batera labur daitezke, guztiak →komunikazioaren bilakaerako epe bakoitzari dagozkion maila desberdinetan definigarriak direlarik, batik bat orain arte ezagunenak diren artikulazioaren eta →akustikaren eremuan. Hipotesi bitarrak erantzun egoki bat ematen dio, tradiziozko sailkapen fonologikoak baino hobeki, zientziak eskatzen duen laburtasun eta unibertsaltasunari. →Jakobson-en 12 ezaugarriak hein baten alde batera utzi badira ere, →Chomsky-Halle-n oinarritzat eman dute binarismoaren projektua; eta gauza bera fonologia sortzaileak, orokorki. Nahiz balore *eskalareen* aldeko joera guztiz suntsiturik ez egon (Ladefoged, eta beste).

→Semantikaren alorrean ere, binarismoan finkatu nahi litzateke zientzia.

Biribildua

redondeado / arrondi / rounded

Ezpainen biribiltzeaz eginiko →bokalezko artikulazioa da, hain zuzen ere, biribildua.

→Bokal →belareak, sarritan, biribilduak izan ohi dira (nahiz-eta errusiarrek eta errumaniarrek, adibidez, biribildua ez den «i» belare bat izan). Frantsesak biribildu gabeko bokal →aho-sabaikari sorta baten aurrean, badu biribildutako bokal aho-sabaikari sorta bat ere: [y], [Ø], [oe].

Artikulazio honek bigarren mailako baten eransketa dakar berarekin: durundigile →ezpainkaria; durundigile honek berak agertzen du, izan ere, zergatik →akustikaren eremuan →fonema biribilduak bemolizatuak izaten diren.

Bita

Informazio-kantitatearen unitateari *bit* deritzo.

«Bit» izen hau («binit» ere zenbait aldiz esana), ingelesezko «binary digit» esaeraren laburdura baizik ez da (= *b. inary dig.it)*. Eta izarigabea da.

Hautapenik sinpleena, jakina, probabilitate bereko bi aukeraren artean egin daitekeena da: txanpon bat aidean gora bota, esate baterako, eta aurpegia ala gurutzea atera ote den ikusi.

Aurpegia geratzeko probabilitatea hau zen: $P_a = 1/2$ eta gurutzea gertatzeko probabilitatea era berean: $P_g = 1/2$.

Definizioz informazio-kantitatea hau da: $I = -\log_2 P$.

Eta gure kasuan, beraz:

$I_a = -\log_2 P_a = -\log_2 (1/2) = \log_2 2 = 1$

$I_b = -\log_2 P_b = -\log_2 (1/2) = \log_2 2 = 1$

Informazio-kantitatea horrela definituz gero, beraz, txanponaren adibidean *unitatea* lortzen dugu.

Hots, ordenadoreetan eta antzekoetan, elektrika *pasa/ez pasa* izaten da aukera; eta →sistema bitarrek, horregatik, *0* eta *1* →ikurrak baizik ez dute erabiltzen.

Bide horretatik, beraz, gertakari batek (edo →fonema batek, esate baterako)

agertzeko 1/7 probabilitatea baldin badu, *agertu delarik* informazio-kantitate hau erantsiko du:

$$I = -\log_2 1/7 = \log_2 7 = \frac{\log 7}{\log 2}$$

$$= \frac{0{,}84510}{0{,}30103} = 2{,}8076$$

eta neurri hori «bitetan» emango dugu:

I = 2,8076 [bit]

Txillardegi

Bitarra

binario / binaire / binary

1. →Sistema fonologiko baten →ezaugarri →berezgarrien arteko erlazio-mota berezia da →aurkakotasun bitarra. Ezaugarri berezgarri bakoitzaren aukerak hautakizun baten bi terminoen arteko hautapen bat suposatzen du: ezaugarri bat agertzea ala ez agertzea (adibidez, →sudurkaria, ez-sudurkaria), edo →kategoria beraren bi ezaugarri muturrekoen artekoa (adibidez, →lodia, →zorrotza).

2. Gramatika →sortzailean, teoriaren lehen epe batean, →transformazio bitarra sakoneko →egituraren bi perpausen (bata matriza, bestea osagaia) artean egindako →transformazioa da. Honela «Nik hau diot» eta «Xabier joango da» dira egituraren bi perpausak, zenbait transformazioren bidez «Nik Xabier joango dela diot» perpausean bilakatuko direnak. Beraz, perpaus hau transformazio bitar batetik sortua da.

Bitartezkoa

instrumental / instrumental / instrumental

Sin.: INSTRUMENTALA

→Aditzak adierazten duen prozesua zein tresnaz edo zeren bitartez burutzen den adierazten duen →kasua deitzen da bitartezkoa edo instrumentala (adib.: *sagarra* LABANAZ *ebaki zuen).*

Biziduna

animado / animé / animate

→Izen bizidunek semantikoki izaki biziak adierazten dituzten izenen azpikategoria osatzen dute; dela gizakume edo animalia (Beñat, Osaba, Zakur) edo-ta halakotzat harturikoak (Jainko, aingeru, deabru). Hauek denak →sintaxiaren aldetik bizidun ez direnetatik, hots, bizigabeengandik berezten dira.

Esate baterako →aurkakotasun bat agertzen zaigu *nor* eta *zer*-en artean galderetan (Nor ikusi duzu?, biziduna/ Zer ikusi duzu?, bizigabea). Esan daiteke, baita ere, *Iñaki, andre, katu,* →morfemek →ezaugarri →berezgarria (+ biziduna) dutela, aldiz, *makila, landare, gurdi* morfemek ezaugarri berezgarritzat (+ bizigabea) edo (— biziduna) dutela. →Aditzek eta →adjektiboek textuinguruzko ezaugarria dute (+ biziduna) edo-ta (— biziduna), (edo biak), ikusirik (+ bizidun) edo (— bizidun) ezaugarria daramaten izenekin elkargarri diren ala ez. Honela, «hitz egin» →aditzak (+ subjektu animatua) textuinguruzko ezaugarria dauka; izan ere, gizakumeak (+ bizidunak) bakarrik eraman dezake →ekintza hori aurrera, animaliek ezin bait dute, metaforaz ez bada behintzat. Bestalde, *loratu* ez daiteke izan bizigabea besterik.

BLOOMFIELD, Leonard

Chicago-n jaio zen 1887an. 1906an Bachelor of Arts delakoa lortu zuen Harward-en. Wisconsin (1906-1908), Chicago (1908-1909), Leipzig (1913-1914), eta Göttingen-go (1914) unibertsitateetan ikasi zuen. Doktorego-gradua iritsi zuen Chicago-koan 1909an. Wisconsin, Chicago, Cincinatti eta Ohio-ko Unibertsitateetan, alemaniera eta hizkuntzalaritza konparatzailearen irakasle gisa egin zuen lan, eta, 1940-az geroztik, Yalekoan →linguistika-irakasle gisaz.

Leipzig-en zegoelarik, →neogramatikarien aleman eskolaren ikerbideez jabetu zen. Amerikar →estrukturalismoaren lehenengo belaunaldian (deskriptibismo deritzonean), puntuzko aintzindaria da. «Language» deritzon liburua, luzaroan izan zen Estatu Batuetan idazlan standarra. Horretan aurreko tradizioarekin hautsi, eta zientziazko linguistikaren oinariak ipintzen saiatu zen. Ikus:

— FRIES C. C.: The Bloomfield School. In: *Trends in European and American Linguistics 1930-1960.* Utrecht-Antwerpen 1961.
— BLOCH B.: *Leonard Bloomfield.* Language 1949.

Obrak:

— *Introduction to the Study of Language.* New York 1914.
— *Tagalog Texts with Grammatical Analysis.* 1917.

— *First German Book.* 1923.
— *A Set of Postulates for the Science of Language.* Language 1926.
— *Menomini Texts.* 1928.
— *Sacred Stories of the Sweet Grass Cree.* 1930.
— Review of Ties. *Language* 7, 1931, 204-9.
— *Language.* London 1933.
— *Plains Cree Texts.* 1934.
— *Languages or Ideas?* Language 1936.
— *Linguistic Aspects of Science,* 1939.
— *Meaning. Monatshefte für den deutschen Unterricht.* Wisconsin 1943.

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Bokala

Gertakari *fonikoak,* bai *puntualak* bai *segmentalak,* →soinu konkretuak alegia, betidanik zatitzen dira bi partetan: *bokalak* eta →*kontsonanteak.*

Ahotsa edo →*tonu laringala, gloti gainetiko barrunbeetan* barrena trabarik gabe igarotzen denean, *bokala* dugu. Pasabide zabaleko soinua da, hortaz, eta →ozena eskuarki; nahiz, zenbait hizkuntzatan txutxuputxukan *gortutako bokalik* ere gerta badaiteke. Soinuek eskailera etengabe bat eratzen dutenez gero, bokalak eta kontsonanteak erabat bereziko lituzkeen mugarik ez dago.

Hori dela-ta, badira:
— *Kontsonantetu* egiten *diren bolakal.* Euskarari gagozkiolarik: *gau, gaba.*
— *bokaldu* egiten diren *kontsonanteak.* Latinari gagozkiolarik: *faktum,* Port. *feito.*

→Silabaren *erdigunea* da bokala, haren *konstantea,* haren →*silabema.* →*Azentuaren* eta *tonuen* ezargunea izaten da.

→*Fonologia binaristak* (ik. Fonetika orokorra), lau sail nagusitan zatitzen ditu hizkuntzaren soinuak: *bokalak, kontsonanteak, sonanteak, eta lokailuak.*

Bokalek ezaugarri hauek bide dituzte beren →matrizeetan:

$$\begin{bmatrix} + \text{ bok} \\ - \text{ konts.} \end{bmatrix}$$

Sonanteek, berriz, hauek dituztelarik:

$$\begin{bmatrix} + \text{ bok} \\ \pm \text{ konts.} \end{bmatrix}$$

Nahiz bokal guztiak →*irekiak* izan, edo-ta trabarik gabeak, beren artean, eta irekidura-mailari dagokionez, honetara sailkatzen dira: *irekiak, ertainak,* →*itxiak,* eta abar. Artikulaguneari dagokionez, berriz, →*aurrekoak* izan daitezke edo-ta →*aho-sabaikariak;* edo-ta *erdikoak,* →*atzekoak* edo →*belareak.* Besterik ere izan daitezke: →*ahokari,* →*sudurkari, zabaldu* edo *ezpainkarituak;* edo-ta →*labur* edo →*luze, teinkoak,* edo *nasaiak.*

→Akustikaren aldetik, →*formanteen* arabera sailkatzen dira bokalak. Horietako bik F1 eta F2 deritzenek, eta faringearen eta ahoaren erresonantziaren emari direnek usuenik erabiltzen diren bokalak berezten dituzte.

Horretara, mota hauetako bokalak berezten dira:
— →*trinkoak eta barreiatuak*
— →*zorrotzak eta* →*lodiak*

Sailkapen hau, eta →artikulazioaren arabera egin ohi dena:
— *irekiak / itxiak*
— *aurrekoak / atzekoak*
elkarren antzekoak dira.

Bokal guztien ezaugarria, hau da: organorik batere ukitu gabe ebakitzen direla. Honetxek azaltzen du berorien aldamaila, kontsonanteei berei dagokiena baino handiagoa.

Euskarak, azkenik, molde triangeluarraren sistema dauka: oso maiz aurkitua, *bost* →*fonema bokaliko* ditu.

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Bokal-harmonia

armonía vocálica / harmonie vocalique / vowel harmony

→Asimilazio →bokalikoaren fenomeno bati esaten zaio. Fenomeno hau gertatzen deneko hizkuntzetan (turkieran, hizkuntza fino-hungariarretan), lekugune jakin batetako →bokalaren hautapena ez da →askea, beste bokal baten presentziak automatikoki determinatua baizik. Fineraz, kasurako, →desinentziaren bokalismoa erradikalaren bokalak baldintzatzen du hein batetan; honela, →kasu-→desinentzia bera *-ssa* edo *ssä* izango da erradikalaren bokalaren arabera: *talo-ssa* «etxean», baina *metsä-ssä* «basoan». Turkieraz, →hitzaren lehen bokala →aurrekoa

ala →atzekoa den, horren arabera bokal guztiak izango dira edo aurrekoak *(gözleriniz* «zure begiak», *gözümü* «gure begiak») edo atzekoak *(kolum* «nire besoa», *kollarïmïz* «gure besoak»). Bokal-harmonia →aurreranzkoa izan daiteke (ikusi ditugun kasuetan bezala) edo →atzeranzkoa. Euskaraz gertatzen den fenomenoa:

buru → burue
mendi → mendie

bokal-harmoniatzat hartu du euskalari askok.

Bokalartekoa

intervocálico / intervocalique / intervocalic

→Hitzak berak esaten duen bezala, →kontsonante bokalartekoa, zera da: bi →bokalen artean aurkitzen den kontsonantea. Horrela, [č], *etxe* adibidean.

Bokalezkoa

vocálico / vocalique / vocalic

Sin.: BOKALIKOA

Bokalezko →fonemak, airearen aho-aparatuan zeharreko irteera libreak ezaugarritzen ditu, →soinu-uhinak →ahots-korden bibrazioak bakarrik sortzen dituelarik. Bokalezko fonemak, iturri periodiko bakarra dute, beraz: ahotsa. Akustikoki, →formanteen egitura oso argiak berezten ditu ez-bokalezko fonemetatik. Bokalak [i, e, o, u, eta abar] eta [l] eta [r] →urkariak dira batez ere, (Azken hauek, bokalezko →ezaugarriekin batera, →kontsonantezkoak ere badituzte). Honen ordez [±syllabic] (=silabiko) ezaugarria hobesten da Fonologia sortzaile modernoan.

Bokalikoa

Ik. BOKALEZKOA

Bokalizazioa

vocalización / vocalisation / vocalization

Kontsonantezkoa zen elementu bat →bokalezko bihurtzen delarik, *bokalizazioa* egon dela esaten da. Fenomeno hau diakronikoa izan daiteke (frantsesezko *albe → aube),* edo sinkronikoa, →alternantzia gisa. Gaur, →*ozenketa* →hitza erabiltzen da batzutan fenomeno hau adierazteko: *ireki → iregi.*

Bokatiboa

vocativo / vocatif / vocative

→Apelatiboen bidez egiten den galde zuzena adierazten duen →kasuari deritza *bokatiboa. Hator, Pello* perpausean, *Pello* bokatiboan dago.

BONAPARTE, Louis Lucien

Euskalari hau, tituluz printze eta Napoleonen iloba, euskal →dialektologiaren sortzailetzat jo daiteke, bera baino lehen Larramendi eta haren eskolakoak eremu hori jorratzen hasiak baziren ere. Ingalaterran jaioa, 1816an Thorngrowe-n, Waterloo-ko porrotaldiaren ondoren bere familiarekin Musignanora, Eliz Estatuetara alde egin zuen, bertan gaztaroa igaroaz eta ikasiz. Hogei urtetan ezkondu zelarik, ez zuen, nonbait, lar zori onik ukan, eta emaztearengandik aldendua bizi izan zen. Hura hil zenean Clemencia Richard-ekin ezkondu zen. Honek, Araian, Zegaman eta Hondarribian izateagatik euskaraz ederto omen zekien. Gazteagotan Europa eta Estatu Batuetan zehar ibiliz, kimika eta mineralogia izan ziren haren erein-eremuak, baina laster hizkuntzalaritzaz arduratzen hasita, horretan iraun zuen 1891an, Fanon (Italian) hil zen arte. Eta hizkuntzen esparruan euskara ukan zuen bere maitea. Napoleon III.aren denboran jaso zuen urteko 130.000 frankotako doteak ez zuen garrantzi gutxi ukan euskalkien ikerketen aitzineramendurako egin zituen lanetan; horregatik, 1870tik aurrera, enperadoregoaren jautsapenaren ostean, nahiko estu ibili behar izan zuen.

Haren ikerketak egiteko, 1856 eta 1869 bitartean, bost hizkuntz txango egin zituen Euskal Herrian gaindi datuak jasoz, eta euskal biblioteka oso on bat egin eta gero laguntzaile-talde eder bat osatu zuen. Haien artean, Intxauspe zuberotar kalonjea, Duvoisin lapurtar kapitaina, Otaegi giputza —haren emaztearen ezkon-neba— aita Uriarte bizkaitarra eta Bruno Etxenike nafarra aipa daitezke, nahiz eta informatzaileen taldeak askozaz handiagoak izan.

Bere lanaren fruitu, euskalkien lehen sailkapena egin zuen. Zortzi dira haren ustez euskal →dialektoak: zuberoera, ekialdeko nafar beherera, mendebaldeko nafar beherera, lapurtera, hegoaldeko nafar garaiera, iparraldeko nafar garaiera, gipuzkera eta bizkaiera. Horrez gain, euskalkien barruan azpieuskalkiak, hogeitabost, ezberdindu zituen. Hain zuzen,

Azkueren aldaketa txikiekin (ikus *Azkue)* gaur egun oraino ere darabilgun sailkapena. Lana egiteko bi bide erabili zituen, batetik landa-lana, jakina, horretarako egin bait zituen bidaiak, eta bestetik itzulpenak, toki bateko eta besteko jendeari haien hizkeretan itzulerazten zizkion Bibliaren liburu eta atalak, gero oso ale gutxitan argitaratzen ohi zituenak.

Garaiko gizona, ez zituen larregi erabili erizpide fonetikoak (ik. Michelena, «Sobre el pasado de la lengua vasca»); haien artean, /ü/, /h/ eta →bokal →sudurkarien agertzea ukan zituen gogotan, hirurek Zuberoan eta azkenek Erronkarin balio fonologikoa bait dute. Gainerakoan, →fonetika historikoari dagozkionetan */j/ →fonemaren formak kontutan hartu zituen, eta azkenez —oso inportantzia handia emanaz— eufoniak, hala nola, *dan/den, alabea/alaba/alabara, gizonak/gizonek* e.a., baina →aditza izan zen, seguru asko, gehien kezkatu zuena: *dut/det/dot* edo *niz/naiz/nax* eta horrelako sailak, izan ere historikoki oso ondo esplika daitezkeen hainbat forma bait dira. Erabilitako beste →isoglosak: *izan/ukan, esan/erran,* /-a/ →galdetzailea *(etorri dea?), zuketa*ren erabilera *(etorri duzu)* eta abar.

Argitaratu zuen lanik aipatzekotan, hona hemen batzu: «Le verbe basque en tableaux» (1869), «Deux cartes des sept Provinces basques» (1869), «Les dialectes d'Aezcoa de Salazar et de Roncal» (1872), «Observaciones sobre el vascuence de Navarra» (1881) eta beste.

A. Eguzkitza

BOUDA, Karl

Hamburgon jaio zen 1901ean euskalari hau, Erlangen-en katedratiko, 1932. urtean argitaratu zuen euskarari buruzko lehen lana: *Zwei baskische Worter.* Geroztik euskal aldizkari batzutan lankide izan da: *RIEV, Fontes Linguae Vasconum, Euskera,* BRSVAP eta abarretan. Azterketa mailan batipat euskara eta kaukasiar hizkuntzen arteko harremanei, gramatikari eta onomastikari lotu zaio. Aipagarrienetako bat *Nombres vascos de las plantas* izan daiteke.

Boza

voz / voix / voice

Boza, →aditzari eta honen →laguntzaileari dagokien →gramatika-→kategoria bat da, eta aditzaren, →subjektu edo →agentearen eta →objektuaren arteko gramatika-erlazioa adierazten du; boz bakoitzak aditz-flexio espezifikoak ditu (→desinentziak nahiz →aurrizkiak, laguntzailearen forma desberdinak, etab.). (Sin.: Diatesia).

Aditzaren subjektua objektu batetaz arduratzen den →ekintza baten agentea denean, aditza boz aktiboan dago; perpausa, perpaus aktiboa da. Honela gaztelaniazko *Pedro escucha una conferencia* adibidean.

Perpausaren subjektua azpiko perpaus batetako aditz aktibo baten objektua denean, aditza boz pasiboan dago, eta perpausa, perpaus pasiboa da. Horrela, frantsesezko *Pierre a été blessé par Paul* perpausa, *Paul a blessé Pierre* perpausetik atera da; kasu honetan, azpiko perpaus aktiboaren subjektua, Paul, gauzaturiko perpausako agente bilakatu da, eta *Pierre,* objektua, subjektu. *Pierre a été blessé* perpausean, gauzaturiko perpausaren agente bilakatu den azpiko perpausaren subjektua ez da espezifikoa.

Perpausaren subjektua aldi berean, aditzak adierazitako ekintzaren objektua baldin bada (subjektu hau ekintzaren agente izan nahiz ez), orduan aditza boz ertainean dago; Grezierazko →ereduaren arabera definitu izan dira bozak: grezieraz, aktibo-erak ertain-erak eta pasibo-erak, zeinek bere →aditz-joko aski espezifikoak ditu (ertainera eta pasibo-era →geroaldian eta →aoristoan bakarrik berezten badira ere); latinez, aktibo-erak eta pasibo-erak →flexio espezifikoak dituzte; bada gainera, *boz deponente* bat, flexioaz pasibo-eraren antzekoa, eta erabileraz gehienbat ertain-erari dagokiona; honela latinezko *sequi-k* «jarraitu» esan nahi du. Frantsesez eta gaztelaniaz badagoen aktibo-eraren eta pasibo-eraren arteko →oposiziorik ez dagoke euskaraz.

Burutua

perfecto / accompli / perfect

Sin.: PERFEKTUA

Aditz-aspektuaren forma berezi bat da eta →aditzak adierazten duen →ekintza nolabait bukatua dela adierazten du perpausaren →subjektuaren ikuspegitik begiratuta. *Peru etorri da* edo *Peru etorri zen* esaten dugunean →aspektuaren aldetik aditzaren ekintza burutua dela adierazten dugu, nahiz bata →orainaldikoa izan eta bestea →lehenaldikoa. Dena dela, ongi berezi behar dira eus-

karaz aspektua eta →denbora, askotan erraza izaten ez bada ere.

Bestalde, euskaraz baditugu *etorri da / etorri zen*-en ondoan *etorria da* eta *etorria zen* formak ere. Azken hauek agian →transformazio bidez sortarazi daitezkeen formak ditugu, →atributuaren bitartez.

*Burutua*rentzat beste deitura batzu ere erabiltzen dira: zentzu bera dute *perfekto* eta *perfektibo* hitzek.

Euskaraz, aditz-forma burutuak partizipio perfektuaz baliatzen dira. Gehienak *-tu* atzizkia daramate baina beste zenbait atzizki ere eraman ditzateke: ∅,—I,...

Burutugabea

Ik. INPERFEKTUA

Bustidura

Ik. PALATALIZAZIOA

Bustrofedon

bustrofedon / boustrophédon / boustrophedon

Grezia klasikoan erabilitako idazkeramota berezi bati ematen zaio bustrofedon izena. Idazkeraren lerroak baratzean ildoak egiten diren bezalaxe egiten dira, hau da, lehenik ezkerretik eskubira eta hurrengoa eskubitik ezkerrera.

C

Centum

centum / centum / centum

Centum izenaz indoeuropar hizkuntz multzo bat izendatzen da, italiera, grekoa, germanikoa, zeltera, veneziera, tokariera eta hitita hizkuntzek osatzen dutena. Halako izena [k] →herskari →gorra atxeki dutelako eman zitzaien, latinezko [kentum] «ehun» →hitza adibidetzat harturik. Multzo honi kontrajarrita «satem» terminoaz izendatutako hizkuntz multzoa dago.

CHOMSKY, Noam

Filadelfian jaio zen (Pensilvania) 1928 ko Abenduaren 7an. Pensilvania-ko Unibertsitatean linguistika, matematika eta filosofia ikasi zituen; 1951-1953-etan Harvard-eko Unibersitatean «Junior Fellow» gisa egin zituen ikerketa-lanen ondorioz, doktore-gradua lortzen zuelarik. Zalantzarik gabe, Zellig Harris-ek izan zuen harengan eraginik handiena, orduan hori Pensilvania-ko Unibertsitatean hizkuntzalaritza-irakasle zelarik. 1955az geroztik, hizkuntza modernoen eta linguistikaren katedran irakasten du Massachussets-ko Teknologi Institutuan.

Haren lehenengo liburua, «Sintactic Structures», 1957an agertu zen; eta, askoren ustez, iraultza kopernikar bat hasi zuen hizkuntzaren zientzietan. Geroztik, gramatikaren teori atal guztietan izan du Chomsky-k eragin nagusia. Tarteka, eta irakasle gonbidatu gisa, Berkeley, Oxford eta Kondon-go Unibertsitateetan egin izan du lan.

Gaztetandik kezkatua da politika-arazoez, eta betidanik hartu zuen jokabide sozialista eta anarkista. Haren idazlanik ezagunenak idazpuru hau darama: «American Power and the new Mandarins». Liburu honetan gogor eraso zion amerikar kanpo-politikari, eta Vietnam-go eskusartzeari bereziki; gudaketa hiltzaile horretan soldadu gisa parte hartu nahi ez zuten gazte ugarien alde agertuz.

N. Chomsky: Obrak

— Three Models for the Description of Language, in: *IRE Transactions on Information Theory,* vol. T-2, 1956, 3.

— *Syntactic Structures.* 's Gravenhage 1957. The Hague 1963.

— Some Methodological Remarks on Generative Grammar. *Word* 2 (1962). Baita beste honetan ere: *Readings in Applied English Linguistics.* New York 1964.

— /G. A. Miller: Introduction to the Formal Analysis of Natural Langua-

ges, in: *Handbook of Mathematical Psychology*. Vol. II, cap. 12. New York/London 1963.

— Categories and Relations in Syntactic Theory. Cambridge (Maes.) 1964, in: *Materialien zum II. Internationalen Symposium «Zeichen und System der Sprache»*. Magdeburg 1964.

— The Logical Basis in Linguistic Theory, in: *Proceedings of the Ninth International Congress of Linguists* (Cambridge/Mass. 1962). The Hague 1964.

— *Current Issues in Linguistic Theory*. The Hague 1964. Baita: *The Structure of Language*, argit. J. A. Fodor J. J. Katz. New Jersey 1965.

— A Review of B. F. Skinner's «Verbal Behavior», in: *Language 35*. Baita beste honetan ere: *Fodor/Katz* 1965.

— On the Notion «Rule of Grammar», in: *Fodor/Katz* 1965.

— A Transformational Approach to Syntax, in: *Fodor/Katz* 1965.

— *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge (Mass.) 1965.

— Topics in the Theory of Generative Grammar, in: *Current Trends in Linguistics*, argit. Th. A. Sebeok. Vol. III. The Hague/Paris 1966.

— *Cartesian Linguistics*. New York/London 1966.

— *Language and Mind*. New York 1968 (1972an gehitua).

— Deep Structure, Surface Structure and Semantic Interpretation, in: *Steinberg/Jakobovits* 1971, 183-216 orr. Berrargitalpena in Chomsky 1972.

— Remarks on Nominalization, in: *Jacobs/Rosenbaum* 1970, 184-221 orr. Berrargitalpena in Chomsky 1972.

— *Studies on Semantics in Generative Grammar*. The Hague 1972.

— *The Logical Structure of Linguistic Theory*. New York/London 1976. (1955eko eskuizkribu baten berrikustapena; sarrera berria).

— *Reflections on Language*. London 1976.

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Consecutio temporum

consecutio temporum / consecutio temporum / tense agreement
Ik.: DENBORA-KOMUNZTADURA

Corpus

corpus / corpus / corpus

→Gramatika deskribatzaileak, bere aztergaia osatuko duen →enuntziatu-multzoa behar du abiapuntutzat; multzo hau izango da azterketako *corpusa*. *Corpusak* errepresentagarria behar du izan, hau da, egituramota guztiak aurkitu behar ditugu bertan. Agian, oztopo hauek gaindituko genituzke, *corpusa* exhaustiboa balitz, baina hau ezinezkoa da, enuntziatuen kopurua mugagabea bait da. Bestalde, alferrikako diren enuntziatuak pilatzeak azterketa nahastu besterik ez luke egingo. Hizkuntzalaria horregatik, *corpusa* ez-errepresentagarri bihurtuko lukeen edozer gauza (inkestarako hartutako metodoa, hizkuntzari buruzko aurreiritziak...) baztertzen saiatuko da.

Gramatika →sortzaileak, gertakizun diren perpausen kopuru mugagabearen berri eman nahi duelarik (eta ez enuntziatu-multzo mugatu batena), ez du abiapuntutzat *corpus* bat hartuko, ezin bait lezake sekula osa. Gehienez ere, *corpusari* buruz zerbait esatekotan, hizkuntza jakin batetan, garai jakin batetan eta →textuinguru jakin batetan gertakizun diren enuntziatuak definituko lituzkeela esango genuke.

D

Dardarkaria
vibrante / vibrante / vibrant

→Kontsonante dardarkaria kontsonante →ahokari bat da; honen artikulazioak oklusio batek edo gehiagok etendako airearen irteera librea eskatzen bait du; oklusio hauek artikulatzaile bat (mihiaren muturra edo →aho-gingila) airea pasatzean, dardaraka jartzeari zor zaizkio. [r] →soinurik ugariena, euskaraz, hizkuntza erromantze eta eslaviarretan besteren artean, dardarkari →apiko-→horzkaria da. Dardarkaria, →ubularra ere izan daiteke, frantsesezko edo probentzalezko [r] →fonemaren errealizazio gogorretan, adibidez.

Datazioa
datación / datation / dating

→Lexikografian, artikulu bat eskaintzen zaion →hitz bakoitzaren →etimologiaren ondoan, hitza lehenengo aldiz idatzita agertzen den data jartzen da, ondoren zein lanetan erabili den lehenengoz adierazten delarik; *datazio* hau hartzen da hitzaren lehenengo agerpentzat hizkuntzaren barruan.

Datiboa
dativo / datif / dative

→Aditz-→sintagma baten barruan atributiboaren →funtzio gramatikala adierazten duen →kasua deitzen da *datiboa.* Adibidez, «Peruk Mikeli liburuak kendu dizkio» perpausean *Mikeli* da datiboa. Datiboa daraman aditz-sintagmak nahitanahiez eraman behar du →izen-sintagma bat →objektu zuzenaren funtzioan.

Defektiboa
defectivo / défectif / defective

→Izen-→flexioak (→kasua) edo →aditz-flexioak (→denbora eta →pertsona) dituzten →hitzen →klasekoa izanik, forma guztiak ezin hartu dituen edo formen →paradigma ez-osoa duen hitza deitzen da *defektiboa.*

Deiktikoa
deíctico / déictique / deictic

Zenbait elementu linguistikori →esakune batetan egiten duten erreferentziengatik, *deiktiko* deitzen zaio. →Erreferentzia eta aipamenak hauek izan daitezke: 1) Esakune hori gertatzen deneko →egoera; 2) esakunearen unea (→aditzaren →denbora eta →aspektua); eta 3) hitz egiten duena. Horrela, bada, →erakusleak, lekuzko eta denborazko →adberbioak, →pertsona-→izenordeak eta →artikuluak *deiktikoak* dira, mintzairaren elementu seinalatzaileak, hain zuzen, ere.

Esakune bat gertatzen deneko zirkunstantziei *koordenatu deiktikoak* deitzen zaie, egoera hori →hiztunarekiko, tokiarekiko eta orobat denborarekiko definitzen delarik.

Deitzailea
apelativo / appellatif / vocative

Sin.: APELATIBOA

1. Deitzaileak, →komunikazio zuzenean, →edasleak →solaskidea aipatzearren edo-ta edasle horrek berak solaskidearekiko dauzkan edo eratzen dituen harreman sozialak izendatzeko erabiltzen diren →hitzak dira: *GIZONA, zer egiten duzu?, JAUNA, har ezazu liburu hau, mesedez!, JOSU, goazen etxerantz!* Deitzaileak →izen bereziak dira, ahaidetasun terminoak edo-ta izen espezifikoak *(aita, neba, jaun* e.a.).

2. →*Funtzio deitzailea* komunikazio zuzeneko deitzaileek betetzen duten funtzioari esaten zaio. →Kasua duten hizkuntzetan *bokatiboa* izan ohi da →funtzio hori betetzen duena.

Deixia
deixis / deixis / deixis

→Esakune guztiak espazio-denborazko koordenatuek definitzen duten →egoera batetan gauzatzen dira. →Subjektuak, esate baterako, bere esakunea →esakuntzaren unearekiko, →komunikazioan parte hartzen duten →hiztunekiko eta esakune hori sortzen den tokiarekiko erreferentziaz ematen du. →Egoera honen →erreferentzia guztiek *deixia* osatzen dute, eta esakunea kokatzeko laguntzen duten elementu guztiak *deiktikoak* deitzen.

Elementu deiktiko horiek komunikazioan aldez aurretik aipaturiko zerbaiti egiten badiote erreferentzia, *anaforikoak* deitzen dira: «Donostian egon naiz, *bertan* bizi bait da nire laguna». Elementu horiek, ordea, gero aipatuko den zerbait erakartzen badigute *kataforikoak* deitzen ditugu: «Triskantza izugarria gertatu da, baina arrazoi bakarra hau *da:* pertsonen eskubideak zanpatuak izan direla».

Deklaratzailea

declarativo / déclaratif / declarative

1. Perpaus deklaratzailea baiezko perpausari deritzo.

2. →Baiezpen baten →enuntziazio garbi eta →bakuna adierazten duten →aditzak *aditz deklaratzaileak* deitzen dira, esate baterako, *esan, kontatu, iragarri* e.a. Eritzizko aditzek, horiei aurkajarriaz, ondoko baiezpena ez dela onartua *(uste izan)* inplikatzen dute, eritzi soiltzat *(eritzi)* eman dela, alegia.

Deklinabidea

→Izen-→lexemak jasaten duten itxuraaldaketari deritzo deklinazioa (→izenordeak, →adjektiboak, →izenak). Aldaketa horiek →sintaxi-erlazioen arabera gertatzen dira (cf. →kasua), eta sarritan bestelako →gramatika-→kategorien →menpekotasunaren arabera: →*zenbakia,* esate baterako (latin, turkiera, euskara...) [± mugatua] (euskara), etab.

Hizkuntza sintetikoen →ezaugarri berezi berezia da. Hauen artean desberdintasun asko dago: bai →paradigma barruko forma-kopuruari dagokionez, bai beren artean eta →erroarekin →morfema desberdinek erakusten duten bategite-mailari dagokionez ere, hizkuntza hauek sailkatzerakoan →tipologiak erabiltzen duen erizpidea, hain zuzen.

Turkierak, hizkuntza →eransle jatorra denez, oso ongi bakantzen ditu →morfologi osakinak (→bokal-harmonia alde batera utziaz), eta bi numeroetan kasu-morfema berbera erabiltzen du. Hizkuntza indoeuroparrek, aldiz, →flexiozko hizkuntzak direnez, bategite-maila handia dutelako →alomorfoak erabiltzen dituzte kasu berean numeroaren arabera (lat.: *domum* akus, sg., *domos,* akus. pl.), →generoaren arabera (lat.: *domini,* nom. pl. mask.; *templa,* nom. pl. neut.), eta →enborraren bukaeraren arabera (lat.: *dominis, rebus,* biok dat./abl. pl.).

Bigarren hizkuntza-mota hauetarako, tagmema-bidea ez da egokia; →hitz gramatikala ezin bait da arbitrarietaterik gabe lakaindu →morfema fonologikoki identifikagarri eta →funtzio eta →esanahi bakarrekotan. Egokiago gertatzen da, gertatu, batera ari diren →ezaugarri-→matrizen bitartez →erregela morfonemikoak erabiltzea. Bi bide horietako lehenengoak (Hockett: item and arrangement) morfema aitortzen du oinarrizko unitatetzat, eta bigarrenak (Hockett: word and paradigm) →hitza. Gramatika →sortzailean helburu honekin prestatzen dira prozesu morfologikoak.

Aipatutako hizkuntzen sailkapen horrek, dena dela, balio erlatiboa besterik ez du, ez bait dago mota garbi-garbirik: ingelesak, oso analitikoa izanagatik ere, →pluralaren osaketan eta →izenordeetan (I/me; mouse/mice) →flexio-arrastoak baditu oraino.

Hein handi batez, →singularrean eta pluralean, kasu-→atzizki berberak erabiltzen ditu euskarak; baina →erroari dagozkion morfemak lakaintzen ez da beti posible izaten: zenbakia, determinazioa, kasua. Mendi-a-(r)i: Erroa + mug. + ∅ + dat.; mendi-e-i: erroa + ∅ + pl + dat. Hori dela eta, →homofonoak gertatzen dira; hala nola mendiak: abs. pl. eta erg. sg.

Funtsean lexemaren →esanahiari lotuta dauden →alomorfoak ere badira; esate baterako, bizigabeetan *-antz norabidekoan,* edo-ta pertsonakoetan *-engana.*

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Deliberatzailea

deliberativo / déliberatif / deliberative

Hitz egitean, →subjektuak hartu behar duen erabakiaz egiten dituen galderak adierazteko balio duten adizki eta perpausei *deliberatzaileak* deitzen zaie. Euskarazko *zer egin?* esateko; adibidez latinez subjuntiboa erabiltzen da forma deliberatzaile bezala: *quid faciam?*

Denbora

tiempo / temps / tense

→Aditzaren azterketa egiten denean, →gramatika-→kategoria batzu aurkitzen dira. Hauetako bat, nagusietakoa, *denbora* da; eta →ekintzen denboratasunari dagokio. Denborari dagokionez, →oposizio hau egin daiteke:

orainaldia ≠ ez-orainaldia

Baina →orainaldia ez dena, →lehenaldia izan daiteke, edo-ta →geroaldia (= etorki-

zuna). Sailkapena, hortaz, honela egin daiteke:

orainaldia ≠ { lehenaldia / geroaldia }

Bestetik ere, egia orokorrak daude; alegia, denboratik at gertatzen direnak: *gizona hilkorra da* (ez →geroaldia da, ez lehenaldia; baina nolabait egia gertatzen da mementu guztietan). Hau dela eta, denboratik ateko egiak orainaldiaz eman ohi dira mintzaira askotan.

Hizkuntza askotan, bestalde, eta euskaraz ere bai, gero eta denborazkoago gertatzen da ekintzen azterkera: *atzo, gaur, bihar* (erosi nuen, erosten dut, erosiko dut); antzinako →*aspektuak* galtzen ari direlarik. *Erosi dut,* horretara, *erosten dut* baino «atzerago» dagoela esango dugu; nahiz desberdintasuna *aspektuari* loturik egon: *erosi dut* (erosketa hori bukatua dut) eta *erosten dut* (erosketaren erdian nago oraindik). Gaurko euskaraz, horretara, *eros nezan* zaharrari *erosi nuen* nagusitu zaio; eta beste mila xehetasun galdu dira.

Ik. ASPEKTUA

Denboragabea

atemporal / atemporel / atemporal

Ez-iragana (→iraganaldiari buruz) eta ez-geroaldia (→geroaldiari buruz) adierazten dituen aldiari esaten zaio *denboragabea.* Tradiziozko izendegian orainaldia esaten zaio, baina honen erabileren artean zati bat besterik betetzen ez duelarik; zentzu zabaleko orainaldia dugu hori, esate baterako, «Planetak eguzkiaren inguruan biratzen dira».

Denboren komunztadura

concordancia de tiempos / concordance de temps / tense agreement

→Hitz batek beste →kategoria batetako hitz baten →generoa, →zenbakia edo →pertsonaren arabera, bere genero, zenbaki edo pertsonaren →markak aldatzeari →*komunztadura* izena ematen badiogu, perpaus txertatu baten →aditzaren denbora perpaus nagusikoarenaren arabera ipintzeari *denboren komunztadura* deituko diogu. Horrela, *Itziarrek* zera esan dezake:

amak babarrunak prestatu dizkigu bazkaltzeko

Baina perpaus hau «Itziarrek esan zuen» delakoaren azpian txertatzen badugu, *denboren komunztaduraren* legearen arabera, hau agertuko zaigu:

«Atzo Itziarrek amak babarrunak prestatuko zizkigula esan zuen».

Denotazioa

denotación / dénotation / denotation

Unitate lexikal baten *denotazioa* beraren →esanahia osatzen duen →kontzeptuaren →hedadura da. *Denotazioa* beti →*konnotazioari* aurkajarriz definitu ohi da; alde horretatik, *denotazioa,* unitate lexikalen elementu egonkorra da, objektiboa eta →berbalditik aparte azter daitekeena; *konnotazioa,* berriz, →textuinguruen araberako elementu subjektibo eta aldakorrek osatua da. *Berde* koloreak, eman dezagun, *denotazioaren* aldetik halako argi-maiztasuna adierazten du →textuinguru batzutan, baina, askatasunaren eta arriskurik ezaren *konnotazioa* ere ukan lezake.

Deponentea

deponente / déponent / deponent

Deponente izena latineko →boz ertainari ematen zaio, hau da, gramatikari latindarren analisiari jarraituz, →flexio aktiboa «utzi» *(deponere)* eta, nahiz eta zentzu aktiboa gorde, flexio pasiboa hartzen duen →aditz-multzoari.

Desasperenketa

desaspiración / désaspiration / de-aspiration

Normalki hasperendua izanik, baldintza jakin batzutan →ezaugarri hori galtzen duen →kontsonanteak jasaten duen →aldaketari esaten zaio desasperenketa. Fenomeno hau →alternantzia sinkroniko batetan gerta daiteke konbinaziozko aldaketa baten bidez, edo baita aldaketa diakroniko baten ondorioz ere. Euskaraz, hitz elkartuetan ematen da desasperenketa; ezaguna denez, euskarak ez du →hasperenketa bat baino gehiago onartzen hitz berean. Horrela, *hil + herri > hilerri* edo *ilherri.*

Desbiderapen (linguistikoa)

desviación (lingüística) / écart (linguistique) / (linguistic) deviation

Bi hizkuntz →egoera alderatzean, eta batean unitate bat azaltzen den lekuan, bestean zentzu bereko beste unitate bat erabiltzen dela ikustean, bi hizkuntz egoera hauen artean *desbiderapena* gertatu dela esango dugu: horrela, desbiderapen bat eman da frantsesezko *rei* [rei] zaharraren eta *roi* [rwa] modernoaren artean. →Aldaketa sistematikoen →klaseak osa daitezke desbiderapen honi esker. Desbiderapen geografiko eta sozialak ere eman daitezke: euskaraz,

desberdin ebakitzen da *j* euskalki batetik bestera.

Desfonologizazioa

desfonologización / déphonologisation / dephonologization

Bi →fonemaren arteko desberdintasun fonologikoa ezabatzeari desfonologizazioa deritza. Adibidez Espainiako eskualde gehienetan [ʎ]-rekin gertatua, aldekaritasuna galdu eta [y] fonemarekin nahasi dena: (pollo — poyo).

Desideratiboa

desiderativo / désideratif / desiderative

Desira-ideia adierazteko balio duen adizkiari desideratibo deitzen zaio; desideratibo hori atzizki espezifiko baten bidez eman daiteke; latinez *-urire* zen →atzizkia. *Edere/esse* (jan) →aditzetik, *esurire* (jan nahi) desideratiboa sortu zen.

Desinentzia

desinencia / désinence / desinence

→Izen baten, →izenorde baten edo →adjektibo baten bukaeran (→kasu-desinentziak) edo →aditz baten bukaeran (→pertsona-desinentziak), →erroarekin batera forma jokatu bat osatzeko, jartzen den →hizkiari esaten zaio desinentzia. Horrela, *gizoni* forman, *-i* da desinentzia.

Deskodeketa

descodificación / décodage / decoding

Sin.: DESKODIFIKAZIOA

Bidali den →mezuaren hartzaileak egiten duen →zeinuen identifikazioa eta interpretazioa da, hots, kodeketaren kontrako eragiketa. →Jakobsonek dioenez, deskodeketa prozesua →soinutatik zentzutara doa, alegia, elementuetatik →ikurretara.

Deskodifikazioa

Ik. DESKODEKETA

Desplazamendu semantikoa

desplazamiento semántico / glissement de sens / semantic displacement

Desplazamendu semantikoa edo zentzu-→aldaketa, →eratorpen-prozesu inplizitutzat hartzen du Ch. Bally-k. Desplazamendu semantikoa, →hitz bat formaz aldatu gabe beste →kategoria batetara pasaraztea da.

Gramatika tradizionalak *eratorpen inpropio* bezala sailkatzen zuen fenomeno hau eta gertaera oso nabarmenak, →infinitiboa edo →adjektiboa →substantibo-→funtzioan jartzea adibidez, seinalatzeko erabiltzen zuen izen hori.

Ch. Bally-k lexikoaren eraketarako bereziki emankorra den bide jeneral bat ikusten du hor. Ematen dituen adibideak —frantsesez jartzen ditu— argigarriak dira, beren aniztasunagatik: *une femme-enfant,* «emakume umea»; *monter une caisse au grenier,* «kaxa bat ganbarara igo»; *un à-côté,* «alboko arazoa, puntua» *(umea* nolakotasunezko adjektibo bezala erabiltzen da; *monter,* berez →iragangaitza, →iragankor gisa agertzen da hemen «eraman» →esanahiarekin; *à côté* →lokuzio adberbiala izendurik dator).

→Atzizkirik aurkezten ez duen eratorpen oro «eratorpen inplizitua» izendatuko da. →Hitza sartzen den →kategoria berria hitzetik beretik kanpo dauden →zeinu batzutan agertzen da: *negu gogorra, neguaren gogorra.*

Izenetan, bereziki emankorra izango da →metonimiaz baliatzea: *egurra, ohorea,* materi izena eta izen →abstraktua, izen →konkretu bilaka daitezke gauzak edo pertsonak adieraziz *(egurra eman dio; Aresti, gure literaturaren ohorea).*

Determinatua

Determinatu →kontzeptua, eta →betekizun horretarako hitz berezi bat dagoen hizkuntzetan, →artikuluari datxekio lehen-lehenik (espainiera, ingeles, alemaniera). Erreferentzial esan dezakegun izarian sar daiteke kontzeptu hau; eta, →aditzari dagokion betekizun predikatzaileari aurkajarriaz, →izen-→sintagmari datxekio betekizun funtsezko hau: *gizonak lapikoa garbitu du.* Horrelako perpaus bat erabiltzen dugunean, gizon eta lapiko berezi eta konkretuei buruz ari garela adierazi nahi dugu; eta horietaz diogu *garbitu*-k azaltzen duen erlazioan daudela. Ez dira, dena dela, kontzeptu hau, batetik, eta «entzuleak ezaguna», edo-ta «jadanik aipatua», bestetik nahasi behar.

«X-en erailea bilatzen du poliziak» esaten dugunean, ez du horrek nahitaez adierazten poliziak →hiztunaren ustez pertsona hori nor den dakienik edo sinesten duenik.

Logikariek «yota» deritzon operadoreaz azaltzen du artikulu determinatu

bakarraren →adiera; eta, horretara, hau irakur genezake: «X-ren erailea den pertsona bakar hori». Horrelako izen-sintagma baten betekizuna hau da: →hizketaren baranoan baldintza hori betetzen duen pertsona bakarra aipatzea; alegia, elkarrizketa gertatzen den inguramendu pragmatiko edo egoeran aipatzea. Gauza bera esan daiteke →pluralaz; baina honetan gauza edo pertsona-multzo konkretua da aipagai.

Azalpen honen arabera gauza bat da ageri: ez dela egia artikulu determinatuak betekizun hori, are gutxiago betekizun hori bakarrik, duenik. Determinatuen artean sailkatu behar dira, era berean, zenbait →erakusle *(hau, hori, hura* versus *baten bat, zenbait, norbait, nornahi,* eta abar), zenbait →adberbio *(hemen, han, orain, orduan* versus *noizpait, nonbait,* eta abar), →pertsona-→izenordeak, eta abar. Horiek guztiok artikulu determinatuaren menpekotasun berbera erakusten bait dute.

Beste alde batetik, forma berezirik ez duten hizkuntzak, bestelako adierazpidez baliatzen dira: →intonazioaz edo →hitzen ordenaz. Latinari dagokionez, horretara, thema/rhema (topic/comment) →aurkakotasuna eta determinazioa oso lotuta daudela erakutsi zuen Benvenistek. Eta *ist Johanni liber* perpausak «liburu bat dauka Joanesek» adierazten badu, *liber ist Johanni* perpausa honela itzuli behar da: «Joanesena da liburua».

Aipatutako sailean sartzen ez den betekizunik ere badu artikuluak maiz. Azaldutako aurkakotasunak, esate baterako, gizabanako edo multzo berezi bati buruz ez-baina, orokorki, sail osoari buruz hitz egin nahi denean, gesaldu egiten dira:

a) Gizona adimendun animalia da.
b) Gizonak adimendun animaliak dira.

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Ik. MUGAGABEA

Determinatzailea

determinante / déterminant / determiner

1. Determinatzaileak, zentzu zabalean, →izen-→sintagmaren barruan izenaren menpean dauden osagaiak dira, izen-sintagmaren osagai nagusia izena delarik. Kasu honetan, →artikuluak, →adjektiboak, izen-osagarriak dira determinatzaileak; h.d., izena (determinatua) aktualizatzen duten elementuak dira.

2. Zentzu hertsiago eta arruntagoan, determinatzaileek →morfema gramatikalen →klase bat osatzen dute, →generoan (dagoenean) eta →numeroan laguntzen dioten izenaren menpeko direnak. Determinatzaileak, zentzu honetan, artikuluak, →edutezkoak, →erakusleak, →galde-adjektiboak, adjektibo mugagabeak eta →zenbakizkoak dira.

3. Gramatika →sortzailean, izen-sintagmaren derrigorrezko osagaia da determinatzailea (Det laburdura):

$$IS \rightarrow I + Det$$

Diakritikoa

diacrítico / diacritique / diacritic

Berez transkribatzen duena ez baizik eta beste →fonema bat transkribatzen duela adierazteko, →alfabetoko →grafema →bakun bati eransten zaion zeinu grafikoari esaten zaio zeinu diakritikoa (horrela, →azentu zirkunflexuak frantsesez, →aurreko (a)-ren eta →atzeko (α)-ren arteko →aurkakotasuna adierazten du batzutan; lehenengoa zirkunflexurik gabe idazten da, eta bigarrena zirkunflexu eta guzti).

Diakronia

Ferdinand de →Saussure-k, bere *Cours de linguistique générale*-n, hizkuntza aztertzeko bi era proposatzen zituen: bata deskribatzailea zen; hau da, hizkuntza bat, une konkretu batetan, nolakoa den agertzeko. Besteak, aldiz, bere historian zehar hizkuntza horrek nolako aldaketak izan dituen azalduko luke.

Lehen modu deskribatzaileari Saussurek analisi sinkronikoa zeritzon; eta bigarrenari, historikoari, analisi diakronikoa. Hizkuntza baten edozein fenomeno, une konkretu batekoa izan arren, lehenagotik datorren zerbaiten ondorioa den aldetik, ikuspegi batetik zein bestetik araka daitekeela pentsatzen zuen Saussurek, biok hizkuntza aztertzeko bide zientifiko eta elkarren osagarritzat hartuz.

Modu honetara, XIX. mendeko hizkuntzalaritza historikoak ahantzixea zuen ikerbide deskribatzailea birpiztu zuen.

Egia esan, aurreko mendeetako gramatikariek ere hizkuntzen deskribapenak eginak zituzten; baina maiz haiek filosofi jarrera arauemaileez nahasirik agertzen ziren.

Bestalde, Saussurek hizkuntza sinkronikoki aztertzerakoan, bertan, denbora berean, ematen diren fenomeno guztien arteko harremanak bereziki ikertu beharra seinalatzen zuen. Horrela hizkuntza, →sistema osotzat, bere baitan eta bere ataletan bildua, jotzen zuen. Antoine →Meillet-ek, Saussure-ren ikasle zenak, bere garaian hizkuntzaren atal edo elementu bat bakarka estudiatzetik sor zitezkeen arriskuak azpimarratzen zituen, hizkuntzaren sistema bere osotasunean ikusiz. Sistema hori mugatzea eta bera nolakoa den zientifikoki azaltzea dateke, beraz, hizkuntzalaritza sinkronikoaren betekizuna.

Hizkuntzalaritza diakronikoak, aldiz, hizkuntzaren fenomeno historikoak aztertzean, denboran beren aurretik eta atzetik gertatu direnak ere kontutan hartu behar ditu, eboluzio-legeak agertuz.

Sinkronia eta Diakronia kontzeptuok, beraz, argi diren arren, praktikan gauzak ez dira, ordea, hain errazak, bata eta bestearen eremua norainokoa den maiz ezin mugatuz. Izan ere, hizkuntza, edozein hizkuntza, beti aldatuz doan izakia baldin bada, nola erabaki dezakegu une konkretu batetakoa zer den? Noiz hasten da fenomenoa zahar bihurtzen? Noiz hartu behar da berrikuntza bat eredutzat? Eta nola jo behar dira lehenagotik bizirik heldu zaizkigun usadio arkaikoak *(ai ene, aita gurea, hala biz, indazu, on dizula, daugin astean...)* edo-ta estilo, maila edo ofizio desberdinekoak *(ekar dezan/ekartzeko, mutil/motel, ezagun/ezagutu, pixa/gernu, andre/emazte, orduan/beraz, bidali/igorri, maistra/andereño...)?* Hizkuntza bat →dialekto bi edo gehiagoren arteko oreka bat denean (euskararen kasua, noski), gainera, deskribapen sinkronikoa, nahitaez, geografikoki mugatu beharko litzateke, eta hala eta guztiz ere pertsona bakoitzaren etorki eta kultura mailaren arabera, usadioa desberdina litzateke toki berean ere.

Saussurek, egia esan, ez zuen inoiz esan aztertze-modu biok erabat aldendu behar zirenik, bakarka erabiltzeko, aitzitik, elkarren arteko osagarritasuna aitortu zuen beti. Gaur egun, ordea, zenbait hizkuntzalarik USAn bereziki, aurreko mendean *Junggrammatiker* haiek diakroniagatik sinkronia ahaztean egin zutena alderantziz eginez, hizkuntza funtsean zerbait aldakor dela ahazten dute. Planteoak, beraz, zaluagoa izan behar du, hauxe kontutan edukirik, edozein hizkuntza konkretutan, une batean, lehenagoko oihartzun eta hatzek nolabait irauten dutela, bai eta sistema batetan, zenbait mailatan bederen (elkarrizketazko hizkeran, adibidez) beti azaltzen direla, bazterrean bezala, etorkizuneko hizkuntzaren eredu gertatuko diren fenomenoak ere. Beharrezkoa da, hortaz, analisi sinkronikoak egitean alde diakronikoa ere begien bistan izatea, eta alderantziz ere bai.

X. Kintana

Dialektoa

Eskuarki, dialekto, hizkuntza jakin eta eredu baten hitz egiteko era berezi aski aldatuei esaten zaie. Hau, ordea, era askotara uler daiteke. Batzutan, eredutzat harturiko hizkuntza, jadanik mintzatua ez delako, hila da, baina harengandik, eboluzioz sortuak, badiraute beste batzuk, eta hauexek jotzen dira aurrekoaren dialektotzat. Portugesa, gaztelania, katalana, frantsesa, italiera eta errumaniera, honetara, latinetiko dialektotzat jo daitezke. Euskararen hizkera bereziak, hau da, euskalkiak, barneko eboluzioz gure hizkuntzak agertzeko izan dituen erak diren aldetik, halaber, euskal dialektoak dira.

Beste batzutan, aldiz, hizkuntz eredua bizi bizirik dago, eta kasu honetan dialektoak dira, bai beragandik, eboluzio arinagoz, zenbait tokitan sorturiko hizkera bereziak (andalusiera eta Amerikako toki batzutako espainiera bitxia gaztelaniarekiko, kasu), eta bai genetikoki haren anaia hurbilak diren beste hizkerak ere, guztiak erro berekoak izanik (Asturiasko bablea eta aragoiera gaztelaniarekiko, Ipar Frantziako *patois* ugariak

frantses ofizialarekiko, bizkaiera eta zuberera euskara batuarekiko, esaterako). Bigarren →adiera honetan, hizkuntz eredua arrazoi sozialez igona da, eta besteak, prestigio txikiagoz, bazterturik gelditzen. Hortik dator, bestetik, jende ezjakinek zentzu pejoratiboz eta irain gisa ofizial ez diren mintzaira guztiei →dialekto esatea.

Dialektoak banatzeko erizpide zehatzik ez dago. Honetan, maiz aurreritzi soziologiko eta politikoak agertzen zaizkigu linguistikarekin nahasirik. Zientifikoki, dialektoak hizkuntz fenomeno dibergente batzuren arabera berezten dira, fenomeno bakoitzari →isoglosa bana egokituz. Isoglosa desberdin eta esanguratsu asko gainezartzen diren tokietan, horrela, dialektoen mugak agertuko lirateke. Problemak, ordea, badira honetan ere. Alde batetik ez dago erizpide ziurrik fenomenoak aukeratzeko; eta bestetik dialektoak desberdintzeko eredutzat hartzen diren berezkuntza guztiak ez dira beti garrantzi berekoak izaten. Bizkaiera gipuzkeratik banatzeko erabiltzen diren fenomenoak, esate baterako, gipuzkera ipar-nafarrera garaitik berezteko azaltzen direnak baino garrantzitsuagoak izan ohi dira. Horregatik, zenbait hizkuntzalarik nahiago izaten du fenomeno bakoitza banaka aztertzea, dialektoez mintzatu gabe. Izan ere, dialektoak makroikuskeraz nabari badira ere —inoiz elkar ulertzea eragotzi arteko punturaino!— mikroikuskeraz fenomeno txikitan ezerezten dira.

Ez dago garbi, bestetik, hizkuntza eta dialekto arteko muga. Maiz, arrazoi politikoz gertatzen da dialekto bat hizkuntz eredu bilakatzea. Nederlandera, adibidez, Holanda eta Belgikan hizkuntza nazionalaren eredu ofiziala da. Ipar Alemaniako mintzaira batzu, ordea, nederlanderarekin aleman ofizialarekin baino kidetasun handiagoa izan arren, eskuarki alemaniera erkidearen «dialektotzat» hartuak izaten dira, prestigiorik ezaz.

Gizarteko itzalaz eta literatur kontsiderazio guztioz landa, dialektoak berez, ez dira ezer arbuiagarri. Hizkuntza baten barne-aldaketaren ondorioak dira, eta horietan agertzen dira maiz, era dibergentez bada ere, hizkuntzaren →aldaketa fonetikoaren eta sintaktikoaren legeak. Dialektoak aztertu eta elkarrekin konparatzea, hortaz, ezinbestekoa izaten da hizkuntzaren eboluziobidea argitzeko eta enbor erkideko aintzinako formak nolabait antzemateko. Aurreko hizkuntza ama ezaguna ez denean, gainera, dialektoak izaten dira hizkuntzaren iragana ezagutzeko era bakarra. Honela, esaterako, bizk. *ardao,* gip. *ardo,* naf. lap. *arno* eta zenbait tokitako *ardan*-erroa *(ardantza, ardangela...)* elkarrekin konparaturik, euskara zaharraren **ardano* delako hitz etimo erkidea atera dezakegu, eboluzio desberdinez gaur euskalki bakoitzean modu banaz agertua.

X. Kintana

Dialektologia

Dialektologia hitzak, batzutan hizkuntz geografiaren →sinonimo huts bezala hartzen denak, honako helburu honi lotzen zaion disziplina adierazten du: hizkuntza baten enborretik, espazioan, sortzen diren →sistema edo dialekto desberdinak elkarrekin konparatuz deskribatu eta berorien arteko mugak ezartzeari, alegia. →Hizketak bakarka hartuta deskribatzen direnean ere, hau da, alboko edo familia bereko hizketak kontutan hartu gabe, dialektologiaz hitz egiten da.

«Lege Fonetikoak» ezartzearren neogramatikariek eginiko ikerkuntzetatik jaioa eta George Wenker-ek Alemanian sistematikoki eratua, J. Gilliéron-en lanek eta hizkuntz atlasek finkatu zuten dialektologia.

→Bereizletzat jotzen diren zenbait →ezaugarri lexikal edo sintaktiko aukeratu ondoren, inkestak egiteari ekiten zaio, hizketa lokalak aldez aurretik hautatutako erizpide horiei buruz karakterizatzearren. Ikerturiko eskualdeko puntu haiek, non igarotzen bait da ezaugarri batetik bestera, →isoglosak edo isoglosalerroak deitzen dira eta hizkuntz mapatan transkribatzen dira. Euskal Herrian, isoglosa batek, *a* organikoa duten hitzen nominatiboan *a* + *a* = *ea* eta *a* + *a*

= *a* egiten deneko lurraldeak mugarrituko lituzke. Zenbait isoglosa-lerro, edo hobeki esan, isogolsa-→balen bidez mugarritzen dira hizketa edo dialekto erregionalak, edo, hobeki, dialekto-eskualdeak. *Dialektologia estrukturalak,* bi hizketaren arteko antzekotasunak adierazten dituzten →diasistemak eratzera jotzen du hizketak deskribatzeko.

Dialektologia, hizkuntz geografiaren eta dialektotan desberdintze edo dialektalizazio-fenomenoen estudio bateratua ere bada.

Dialektalizazio-fenomenoak direla medio, garai batetan erlatiboki homogenoa zen hizkuntza batek, historian zehar, aldaketa diakroniko desberdinak jasaten ditu puntu desberdinetan, azkenean dialektoak eta are hizkuntza diferenteak eratzera iritsi arte. Holako edo halako berrikuntza baten hedatzea edo ez hedatzea azaltzeko, kausa geografikoak (oztoporik egotea edo ez egotea), politikoak (muga gehiago edo gutxiago iragazkorrak), sozioekonomikoak, soziokulturalak (txokokeria, prestigio-nozioa) edo linguistikoak (→substraturik, →superestraturik edo →adstrakturik dagoen ala ez dagoen) aipatzen ditu dialektologiak.

Era horretan hizkuntz uhinen mapa egiten da, non agerterazten bait dira berrikuntza jeneralizatu deneko erdialdeko eskualdeak eta →arkaismoak mantentzen direneko ertzaldeko eskualdeak.

Dialektologia, azkenik, dialekto sozialen azterketa da —dialektologia sozialaz hitz egiten da— eta →soziolinguistikaren barnean sartzen da orduan.

G. Egia

Diasistema

diasistema / diasystème / dia-system

Muga linguistikoak ezarri nahi izan dituenean →dialektologiak aurkitu dituen eragozpenak direla eta, teoria linguistiko estrukturala diasistemak edo supersistemak eraikitzen saiatu da h.d., sistema homogeno eta diskretuen mailaz goitiko sistemak. Antzekotasun partzialeko bi sistematatik abiatuz eginiko azterketa linguistiko batek erabakitzen ditu diasistemak. Eraikuntza hau ez da beti lan zientifiko baten ondorio bakarrik; praktikan, intuizioz ere egin dezakete hori hiztun elebidunek (bi hizkuntza, bi →dialekto edo hizkuntza bat eta dialekto bat menderatzen dituztenek, alegia).

Euskara, alde honetatik, euskalkiei dagokien diasistema da.

Diatesia

diátesis / diathèse / diathesis

Ik. BOZA

Dieresia

diéresis / diérèse / dieresis

Normalean →silaba bakarra osatzen duten bokalezko bi elementuren segida bi silabatan ematea da dieresia. Honen alderantzizko fenomenoa →sineresia deitzen da.

Diglosia

Hitz hau →soziolinguistikan sortu zen (Ch. A. Ferguson, 1959), eta ez du harrera onegirik izan →soziolinguistikaren barnean; eta are gutxiago gainerako zientzietan: hizkuntzalarien artean, esate baterako.

Alde batetik, erabili izan den anbiguotasunean eta balioaniztasunean bila daiteke kakoa. Baina baita hitza baliatua izan den ukipen-egoerak (barietate linguistiko eta hizkuntzen arteko ukipen-egoerak, alegia), desberdinegiak izan direlako; eta erabilkera horretan, edo erabiltzean bertan edo ez-erabiltzean, ikertzaile bakoitzari are eskola soziolinguistiko bakoitzari, interes desberdinek eragin diotelako. Arazo honen argigarri bat, Sánchez Carrión-en izkribuan aurki daiteke: *«Bilingüismo-Diglosia-Contacto de Lenguas»* (ikus «Soziolinguistika» hitzsarrerari dagokion Bibliografia). Lan horretan diglosiaren birmugaketa eta zedarriketa egiten dira saialdi berri batetan; eta, hein batez, hari jarraikiko gatzaizkio hemen.

«Hizkuntz ukipen»ezko egoera dagoelarik, «diglosia» gerta daiteke; alegia, bi hizkuntzen artean halako menpekotasun-harremana mamitzea; eta, hau dela bide, bion erabilkuntzari dagokionez, sailkapen bat gertatzea, hizkuntzen erabilkuntza bortxazko, baldintzatu eta menpeko gertatzen dela.

1) Teoriaz bederen, eta elebitasunari buruz bezala (ikus *Elebitasuna* hitz-sarrera), ukipenetan dauden bi hizkuntz barietateen arteko «hizkuntz urrunera»ren arabera egin liteke lehendabiziko hitzezdarritzapen bat. Eta ondoko hauek bereziko genituzke: hizkuntza bereko hizkeren artean gertatzen den diglosia (hau nolanahikoa izanik ere: geografiazkoa edo dialektala, gizartezkoa, funtziozkoa, eta abar). Esate baterako: alemaniera batuaren eta alemandar Suitzako alemanieraren artean (Sánchez Carrión-ek bezala, guk ere «endodiglosia» dei genezake). Eta hizkuntza desberdinen artean gertatzen dena, bestetik: oraingoan barne-mota desberdinik ote duen erreparatzen ez dugularik, ezta mota horien artean dauden desberdintasunak norainokoak ote diren, eta abar. Diglosi mota honi «exodiglosia» esan geniezaioke.

Horrez gainera, dena dela, gure Euskal Herrian gertatzen den bezala, batera gerta daitezke endodiglosia eta exodiglosia delakook; eta endodiglosia delako hori, izan, exodiglosiaren ondorio eta errainu izaten da: A < B (B < B'). Halaz ere, eta funtsean exodiglosiazkoa den egoera izendatzeko «diglosia» hitz hutsa erabili ohi denez gero (iadanik hitz gizartekotua), →adiera nagusi hori duelarik hemen ere erabiltzea bidezkoa dela dirudi.

2) Diglosia honetara sailka liteke:

Gizabanazkoa. Gizanabazko elebitasunaren barneko motatzat har daiteke diglosia hau: menpekotasun-harremana gertatzen da bi mintzairen artean, eta bion erabilkuntza ere baldintzapetua da eta menpekotua. Eskuarki gizarte-diglosi egoera batetan gertatu ohi da, eta orduan pertsonari gizartekiro onarrerazten zaizkio hizkuntzazko jokabidea eta erabilkuntza. Horixe da, adibidez, gure herriko euskaldun elebidunari gertatzen zaiona: euskara batetik, erdara biak bestetik. Baina gizarte-diglosiazko egoeratik at ere gerta liteke: USAko euskaldun etorkinekin bezala, edo-ta Alemaniako españatarrekin.

Gizartezkoa. Ukipenetan dauden hizkuntzen arteko harremanari dagokionez, nagusitasun eta menpekotasunezko harremana gertatzen da; eta horretan, hizkuntzetako bata (hobeki esan, bi hizkuntz taldeetako baten hizkuntza) «hizkuntza menpekotu» bihurtzen da soziologiaren mailan; bestea, bizkitartean, «hizkuntza de elebidunak, batetik, eta badaude ere, bihurtzen delarik. Hizkuntzazko erabilkuntza edo jokabideei dagokienez, berriz, gizarte-talde osoan ager daitezke, gizabanazko diglosia orokorrean barrena; edota, zenbait gizarte-sektoretan bakarrik (banaketa batetik bestera aldatzen delarik: geografiazkoa, soziologiazkoa, lanbidezkoa, eta abar), eta orduan, gizabanazko diglosia ez dago orokorturik: gure herrian, esate baterako. (Badaude eskualde elebidunak, batetik, eta badaude ere, gaztelania zein frantses hutsez, elebakarrak diren eskualdeak. Eskualde elebidun horietan, bestalde, soziologi talde nagusiek elebakartasunean egon nahi dute, eta berorietan diglosia egotea beraz ez da nahitaezkoa; soziologi talde menpekotuetan, aldiz, mota guztietako egoerak gertatzen dira: elebakartasunak, elebitasunak, diglosiak. Funtzionari-multzoa elebakarra/gainerako lanbideak (?); eta abar).

Lurraldezkoa. Maila honetan ere, zenbait diglosi mota eta gradu eman daiteke; eta, horretan guztian, eragina dute elebitasunek eta elebakartasunek beren mota eta gradu guztietan, bai gizabanakoaren mailan bai gizartearenean. Adibide bat izan daiteke, esate baterako, inperialismo edo kolonizazio-egoera bati (bata zein bestea, nondik begiratzen zaion) darraikion diglosi mota. Kasu honetan soziolinguistikaren alderditik elkarren ukatzaile gertatzen diren bi taldeok, ez dira, izan, gizarte edo gizatalde bereko soziologi talde desberdin hutsak; baizik eta bi gizarte diferente oraingoz. Zeren eta hor bi gizatalde badaude (edo bi gizarte, edo bi nazio, eta abar), jatorriz desberdinak: bata azpiratua, bertakoa; eta honetan ez bestetan gertatzen da diglosia. Eta kanpotikakoa bestea, goitik behera onarrerazia, eta azpiratzaile agertzen dena (ezin ote lekioke diglosi mota honi «koloni diglosia» esan?). Hauxe da

gure herrian dagoen egoera; honetan euskal gizataldea bait da, soziolinguistikaz, azpiratua; eta espainiar eta frantses gizataldeak, soziolisguistikari dagokionez, azpiratzaile.

Maila honetan, baita, beraz, koloni diglosi motan ere, zenbait mota eta gradu desberdinetako diglosiazko elebitasun eman daiteke, gizabanazkoak eta gizartezkoak. Maila honetan gailentzen dira gorakien ahalmen, indar, ospe, eta abarren artean, dauden loturak. Hain zuzen, oso ongi berrazaldu du Sánchez Carriónek diglosia zer den: «Gizarte-desbideraketa: horra hor diglosia zer den. Diglosiaren helburua hau da: ospea dela eta, hizkuntzazko sailkapena egin: menpeko dituen pertsonen ospearen arabera; eta (hizkuntzazko) ospe horri, kidetza betean, ahalmen (politikoa) dagokiola. Eta horrela politika-aginteaz jabetu den gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntzazko ospea ere biltzen eta monopolizatzen du» (67 orr.).

Maila honetan ageri da agian garbikienik, hizkuntzen egoera beste alderdi edo aurpegi bat besterik ez dela; eta sustraizko fenomenoa, kakoa, histori harremana dela (harreman ekonomiko-gizartezko-kulturazkoak), menpekotasunez eta nagusitasunez. Harreman hori, bestalde, joera berean mamitzen da beti, gizarte azpiratuaren aurkako joeran oraingoan; eta, horregatik, diglosi arazoa orduantxe hedatzen eta orokortzen da, eta orduantxe ere mamitzen «hizkuntzaren berreskuratze»aren aldeko bultzadak: gure herrian, esate baterako, ikastolen sortzea Nafarroa-ko Erriberan; alegia, elebakarrak diren geografi eskualdeetan.

Maila honetan izaten da istilutsuena diglosia, bere moduetan eta bere agergraduetan. Eta maila honetantxe ere egin ohi dira diglosiaren ezaugarritze-saialdiak: funtsezko →oposizio bitarra; hizkuntz erabilkuntzen gorabeherak, talde soziolinguistiko nagusiaren arabera markatuak; liskartasuna, eta abar. Horra hor, adibidez, M. J. Azurmendi-ren idazlanak: «Bilingüismo», Euskararen Liburu Zurian; eta «Algunos aspectos sociolingüísticos del bilingüismo» (Ikus Soziolinguistika hitz-sarrerako bibliografia).

3) Diglosia desberdinen tipologi sailkapenari buruz abiaturik, eta gizartezko «hizkuntz jokabidea»ren mailan, «funtzionamendu-eremuen» arazoa izan da aztertuena (hein batez desberdinak gerta daitezke eremuak gizarte batetik bestera pasatzean). Adibidez: familia, eskola, lana, erlijioa, administrazioa eta abar.

Beste alderdirik ere hartu behar da gogoan, dena dela: mintzagaia diren «topiko»ei dagokienez, esate baterako, eta gure herrian bereziki puntu garrantzitsua.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Digrama
digrama / digramme / digram

→Fonema bat bakarra bi →letraz transkribatzen denean, digrama izena ematen zaio bi letra horien multzoari. /c/ fonema *tz* digramaz transkribatzen da euskaraz.

Diminutiboa
Ik. TXIPIGARRIA

Dinamikoa
dinámico / dynamique / dynamic

1. Termino ez-burutuari esaten zaio *dinamikoa, izan* (→burutua) (estatikoa) eta *bilakatu* (ez-burutua) (dinamikoa) bikoteak mugaturiko aspektuzko →aurkakotasunean.

2. →Fonetikan, azentu dinamikoa edo →intentsitate-→azentua →prosodi →ezaugarria da, indar-ezaugarrien silabarteko desberdintasun batetan datzana: laringepeko mekanismoari eta bereziki abdomenaren eta diafragmaren mugimenduei esker, segida bereko beste →silabak baino indar handiagoz ahoskatzen da azentu hau hartzen duen silaba. Azentu honek gailur-→funtzioa du, funtzio mugarritzailearekin eta berezte-funtzioarekin konbinatzen dena.

Disimilazioa
Hitz bakar batetan dauden bi →soinu berdinak, edo →ezaugarri batzuk erkide dituztenak, desberdinak edo-ta desberdinago egiten badira disimilazio-fenomenoa gertatzen dela esaten da. Esate baterako, XVI.mendean «tartufolo» →hitza

italieratik alemanierara igaro zen, eta gaur egun hitz hori alemanieraz [kartofəl] ebakitzen da (Kartoffel = patata). Grammont-ek aurreko kasua bezalako fenomenoetarako bakarrik erabiltzen du terminoa, h.d., disimilazioa tarte batez gertatzen deneko kasuetarako, honako hauetan bezala: latinezko arbor > árbol da gaztelaniaz; euskaraz ere /h/ bat bakarra ohi da hitz bakoitzean, horregatik hitz elkartuetako baten jatorrizko elementuek /h/ bana baldin badute, bietako bat, erregela batzuen arabera, galtzen da:

zehe + *mehe* ⟶ **zehamehe* ⟶ *zehame*
zehe + *bethe* ⟶ **zehabethe* ⟶ *zehabete*

era berean italieran eta alemanieran gertatutako fenomeno hauek azal daitezke: latinez peregrinum > pellegrino egin da italieran eta hitz bera honela igaro da alemanierara, peregrinus > pelegrinus herri-latinean > piligrim alemaniera garai zaharrean, eta > Pilger alemaniera garai berrian.

Elkarren ondoan dauden bi soinuren disimilazioa *diferentziazio* deitzen du Grammont-ek. Esate baterako, /oi/ frantsesaren diptongoa, lehenago [o̯i̯] ebakia, eta [wa] orain bezala, /e͡i/ [e͡i̯] zen, beste diptongo batetan duena bere jatorria, diferentziazioaren amorez /oi/ bilakatu zena. Alemanieraz /ei/ diptongoa [a͡i̯] ebakitzen da, askoren ustez, fenomeno berberagatik.

Zenbait kasutan ere, euskaraz aipatu ditugun etsenpluetan bezala, disimilatu-

$$\begin{bmatrix} - \text{ sonantea} \\ + \text{ ozena} \\ - \text{ etengabea} \\ - \text{ karrankaria} \end{bmatrix} \dashrightarrow [- \text{ ozena}] \; / \; \begin{bmatrix} + \text{ sonantea} \\ + \text{ aurrekoa} \\ + \text{ bokalikoa} \\ + \text{ koronala} \end{bmatrix} \; - \; B$$

honela irakurri behar dena, →ezaugarri horiek dauzkaten soinuek, h.d., /b/, /d/ eta /g/, /p/, /t/, /k/ bilakatzen dira, riko elementua desagertu egin daiteke: *aratru* > *arado*

Badaude bestalde beste disimilaziomota bi, bata alderantzizko disimilazioa, h.d., →hiztunen buruetan duen irmotasunagatik disimilatu behar zen soinuak disimilazioa eragiten duenean gertatzen dena:

**militalis* > *militaris*
baina *naualis, regalis* e.a.

eta bestea, disimilazio profilaktikoa deitzen du Lázaro Carreter-ek, desberdintasun bat gerta dadin behaztopatzen duena. Denbora batez, latinez, →bokalarteko /-s-/ak /-r-/ bihurtzen ziren, baina, fenomeno hori, ez zen kasu honetan egiaztatu:

miser > **mirer*

Azkenez, →fonologia sortzaileak, hots, fonologia prozesutan ikusten duen eskolak, nola adierazten dituen prozesu horiek begira ditzakegu. Eman dezagun, zuberoeraz eta erronkarieraz, beste euskalkietan ez bezala, /n/ eta /l/ren atzean agertzen diren →leherkari →gorrak ez dira →ozen egiten:

zank(h) o/ zango, boront(h)ate/ borondate

fenomenoa latinetiko →maileguetan oso nabaria da. Baina, antza, jatorriz euskaldunak diren, →hitzetan ere gertatzen da, hala nola:

igante/igande, alt(h)e/alde e.a.

beraz, egia balitz formarik zaharrenak forma erkideenak direla, h.d., *igande* eta *alde,* disimilazio hori honela adieraz daiteke fonologia sortzailearen tresneriaz:

/n/ edo /l/ alde batetan eta →bokal bat bestean osaturiko →textuinguruan.

A. Eguzkitza

Diptongoa

→Silaba berean bi →bokalen elkarketari deritzo diptongoa; edo-ta, hobeki, bokal bat, batetik, eta →erdikontsonante edo →erdibokal bat, bestetik, elkartzeaz sortzen den multzo fonetikoari. Diptongo eta →hiato, beraz, elkarren aurkakoak dira.

Bi diptongo-mota berez daitezke:

— →goranzkoak = erdikontsonantea + bokala
adibidez: [we], [ja].

— →beheranzkoak = bokala + erdibokala
adibidez: [au̯], [oi̯].

Diptongoa silaba-erdigune bakoitza da; eta berorren erpina diptongoaren bokala da. →Fonologiaren alorrean, arazo bat izan ohi dute diptongoek, beren interpretazioari dagokionez: monofonematikoa ala bifonematikoak direnez.

Diptongoen sorbideari dagokionez, berriz, eskuarki modu hauetara sortu ohi dira normalean:

— bokal luzeetatik, berorien hasierako eta bukaerako tinbreak desberdintzen dituztelarik;

— →kontsonante baten bokalizaziotik;

— edo-ta, hiatotik diptongora igarotzetik, sarritan →bokalarteko kontsonantearen galeraren ondorioz.

Diptongoak, bestalde, monoptongatu egiten dira sarri:

— beren elementuetan gertatzen den elkar-→asimilazioz;

— erdikoa ez den elementuaren «gogorketa» edo kontsonantizazioaren ondorioz.

Hizkuntzen →diakronian barrena, oso maiz gertatu ohi dira monoptongazioak eta diptongazioak.

Artikulazio nasaia duten hizkuntzak (espainiera, ingelesa, adibidez), ugariak izaten dira diptongotan. Hauek, orduan, sailetan gertatu ohi dira; eta ez bakanka. Frantsesak, aldiz, artikulazio trinkoa du; eta ez du diptongorik.

Fenomeno batzuk (→Dieresia, →Sineresia eta →Sinalefa delakoak) ez dira, nahitaez «poetikoak»; askotan, hiatotik diptongora pasatzearekin loturik etortzen dira. Edo alderantziz.

Euskararen barruan (ikus Euskal Fonetika), eskuarki beheranzkoak dira diptongoak; eta honetan bertago bide dago euskara hizkuntza germanikoetatik, erromanikoetatik baino. Zabalduenak hauek dira: [au̯], [eu̯], [oi̯]; eta →aldaera monoptongatuak dituzte Ekialdeko euskalkietan.

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Ik. BOKALA eta HIATOA

Diskretua

discreto / discret / discrete

Elementu kantitatez mugatuek egituratzen duten →sistema batetako unitate elkarren artean desberdinez osaturiko magnitudeari, *diskretua* deritza. Adibidez, hizkuntza batetako →morfemak eratzen dituzten →fonemak *unitate diskretuak* dira, fonema-→ordezkapenak morfemaren esanahizko →aldaketa bait dakar, euskarazko /c/ vs /ć/ fonemen →aurkakotasunean ikus daitekeenez *(atzo* vs *atso)*. Era berean, morfemak ere unitate diskretuak dira: *ura edan nuen* perpausean *ur*-en ordez *ardo* jarriz, aldatu egiten bait da perpausaren →esanahia. →Esakunea ere magnitude diskretua da.

Unitate linguistikoen diskretutasunari zor zaio esakuneak segmentatu ahal izatea, hots: magnitude diskretutzat hartzen den katea mintzatua maila desberdinetako unitatetan segmentatu ahal izatea. Horregatik, hizkuntzaren propietaterik oinarrizkoenetarikoa da diskretutasuna →linguistikarentzat, eskola batetik bestera alderik egon daitekeen arren; adibidez, →estrukturalismo funtzionalistaren arabera, fonema unitate diskretua da maila fonemikoan, baina ez →intonazio-kurba, segmentaezina bait da maila berean; distribuzionalismoaren arabera, berriz, morfema desberdinetan lakaingarria da intonazio-kurba.

Distentsioa

distensión / détente / release

→Teinkadura edo katastasiari aurkajarriz, *metastasi* izenaz ere ezagutua, edozein →fonemaren artikulazioaren azken fasea da. Une honetan organo artikulatzaileek ebaki den →soinuaren ezaugarri diren lekuguneak uzten dituzte, dela lasaitzeko edo-ta hurrengo soinuaren artikulaguneak hartzeko.

Dual

dual / duel / dual

→Zenbaki-→kategoriaren →kasu gramatikal bat da. →Izen kontagarritan bitasuna

adierazten du. Grekoa edo arabiera klasikoa bezalako hizkuntzetan →desinentzia espezifikoak dituzte izenek eta →aditzek duala aditzera emateko. Euskarari dagokionez (Ik. Kintana *Linguistika orain arte)*, Bizkaian «bi» numerala izen-→sintagmaren bukaeran jartzeko dagoen ohitura kontutan hartuaz, aintzinako dual baten aztarna izan ote daitekeenez mintzatu dira.

E

Ebakera
pronunciación / prononciation / pronunciation
Sin.: AHOSKUNTZA

Artikulatzeko modua da →*ebakera;* alegia, →fonema, →morfema edo perpaus bati bere itxura fonikoa emateko modua. →Alfabeto fonetikoaz adierazten da, ez ohizko alfabetoaz (hein batez bederen fonologikoa bait da hau).

Eboluzioa
evolución / évolution / evolution

Hizkuntza guztiak →aldaketa etengabearen seme dira, hizkuntza guztiek dute bere historia. Barne-historiak hizkuntzak bere eboluzioan zehar jasan dituen egitura-aldaketak ikertzen ditu. Kanpo-historiak gizataldeek eta hauen beharrek dituzten aldaketak ikertuko ditu. Kanpo-historia eboluzio linguistikoaren baldintzak zehazten saiatuko da.

Edukina
contenido / contenu / content

L. →Hjelmslev-en terminologian, *edukin* →hitza →*adierazpen* hitzari aurkajartzen zaio, →Saussure-rengan *adierazi* →*adierazleri* aurkajartzen zaion bezala. →Mezu orok alderdi adierazkor bat darama eta zerbait esan nahi du. Edukina mezuaren alderdi →abstraktua da, alderdi kontzeptuala, mezuaren gaia.

Mezuaren gaia edo objektua bi alderdi elkar-osagarritatik kontsidera daiteke: →forma (egitura) bezala eta →substantzia bezala. Edukinaren substantzia kanpo-mundua eta mintzamena harremanetan jartzea da, edo errealitateari buruz zerbait aditzera emateko asmoa. Edukinaren forma, hizkuntza jakin baten bidez komunikatzeko asmoari egitura bat ematea da. Edukinaren egiturak modu berezian zehazten du →egoera. Egoera-ezaugarriak →errekurtsiboak dira hizkuntza bakoitzaren barruan.

Bi analisi-mota sorterazten ditu edukinaren azterketak:

1. edukinaren analisia, batetik, arruntki soziologiak egiten duena eta →berbaldiaren analisitik garbiro berezten dena; analisimota honek maila psikosozialaren eta mundu errealaren arteko harremanak aztertzen ditu; 2. →semantika estrukturala, bestetik. Ikuspegi honetatik, hitzak bi aurpegi aurkezten ditu: →lexema eta semema. Lexema lexikologia estrukturalaren metodoez baliatuz aztertuko den bitartean, semema edukin-unitate gisa estudiatuko da.

Edutezkoa
posesivo / possessif / possessive
Sin.: POSESIBOA

Euskaraz *noren*-kari ere deitu izana; alegia, jabetasuna adierazten duen elementua. Euskaraz bi sail ditugu:

• *ene, hire, haren, gure, zure, zuen, haien* batetik (hire ama ikusi diat); eta • *neure, heure, bere, geure, zeure, zeuen, beren* bestetik (hik heure ama ikusi huen).

Euskal edutezko hauek, →izenordeak berak baizik ez dira; baina *-re(n)* →atzizkiaz horniturik: *gu-re, ha-ren,* eta abar.

Euskal edutezkoak aurretik doaz.

Egilea
Ik. AGENTEA

Egitura, sakoneko
estructura profunda / structure profonde / deep structure

Gramatika →sortzailearen arabera, bi maila edo egitura bereiz daitezke edozein perpausetan: *azaleko egitura,* batetik, agerian ikus dezakegun →sintaxi-moldaketa, alegia; eta *sakoneko egitura,* bestetik, ikus ezin

daitekeen moldaketa →abstraktua, →transformazio deitu operazioen aurrekoa.

Egoera

estado, situación / état, situation / state, situation

1. Perpauseko →subjektua egoera jakin batetan dagoela adierazten duten →aditzak *egoera-aditzak* deitzen dira, →*ekintza-aditzei* aurkajarriz. Aditz hauek —*izan, egon, bilakatu,* etab.—, laguntzen dien →izen-→sintagma edo →adjektiboarekin aditz-sintagma atributiboa osatzen dute.

2. Hizkuntzatik at dauden baldintzen multzoari deritzo *egoera.* Baldintza horiek, beraz, psikologikoak, historikoak eta sozialak izan daitezke.

Ik. TEXTUINGURUA

Egokitzapena

adecuación / adéquation / adequation

Hizkuntza batetako →esakuneak bi formatan ager daitezke: izkribuzkoan eta hizketazkoan; bereizketa hori egiten denean, lehena bigarrenari egokitzearen arazoa planteatzen da: izkribuzko formak, ordezkatzen duen hizketazkoarekin dituen erlazioak izendatzen ditu *egokitzapen* terminoak.

Erlazio hauen neurketa, izkribuzko formek esakune mintzatuak zein zehaztasungradutan ordezkatzen dituzten begiratuz egiten da. Honela, latinaren →alfabetoa italierari frantsesari baino hobeto egokitzen zaiola esaten da.

Ejektiboa

ejectivo / éjectif / ejective

→Kontsonante ejektiboak, glotalduak ere deituak, arnasketaren menpean ez dauden kontsonanteak dira. →Laringe-gaineko aireaz baliatzen dira soilik, →ahots-korden elkartzea dela medio arnasketa-airearen iraganbidea itxita dagoelarik. →Herskari ejektiboak herste bikoitz baten bidez lortzen dira: aho mailakoa bata, gloti mailakoa bestea. Lehenengo mementuan ahoan gertatzen den herstea nasaitzen da leherpenzarata sortuz; eta, segidan, glotian gertatzen dena. →Akustikaren aldetik, →fonema blokatu diren kontsonante hauek dagozkien kontsonante ez-ejektibo eta, beraz, akustika mailan ez-blokatuei aurkajartzen zaizkie. Dagokion kontsonanteari eskubian eta goialdean (') zeinua jarriz berezten dira kontsonante ejektiboak. Kaukaso-ko hizkuntzetan aurki daitezke honelako fonemak. Zirkasieraz esate baterako, gauza bat da (c'a) *izena* eta beste bat (ca) *hortza.* Ameriketan eta Afrikan ere kontsonante ejektiboak dituzten mintzairak badaude.

Ekintza

acción / action / action

Ekintzazko → aditzak, →egoerazko aditzaren kontra, ekintza bat adierazten du (zerbait aldatu, higidura bat egin, zerbait sorterazi e.a.). Adibidez euskaraz: *joan, ibili, jaitsi, irakurri, saldu* e.a.

Ekolalia

ecolalia / écholalie / echolalia

Ekolalia izenak eri afasikoari gertatzen zaion fenomeno hau adierazten du: eriak, entzun dituen →hitz edo perpaus batzu, behin eta berriro esaten ditu, nahiz eta horiek →esanahirik ez izan eriarentzat berarentzat. Sarritan ez die beste erantzunik ematen jartzen zaizkion galderei.

Ekonomia

economía / économie / economy

Katea mintzatua eratzen delarik, bi indar edo joera ari dira lanean, eta elkarren kontra. Batetik, →fonemak desberdin gerta daitezen ahalegindu behar dugu; bestela, ulergaitza izango bait litzateke →mezua. Bestetik, berriz, →erredundantziak txikitu behar ditugu: matematikoki froga daitekeenez, behar den →zeinu-kopuruaren bikoitza erabili ohi dugu hizkuntza normaletan.

Elkarren aurkako bi joera horien arteko oreka aldakorrari deritzo Martinet-ek «hizkuntz ekonomia». Eta alderdi batzutan agertzen dira haren ondorioak:

a) Gauza edo →kontzeptu bakoitzari fonema berezi bana eskaini behar balitzaio, fonema ugari horien arteko desberdintasunari eutsi beharra antiekonomiko gertatuko litzateke. Honetan funtsatzen da →artikulazio bikoitza, baita fonemen kopurua 30-40 inguruan egotea ere.

b) →Koerlaziotan ez dauden fonemei, artikulazio-modu berezia dagokie; alegia, estatistikoki hitz eginez, artikulatzeko modu bakana eta antiekonomikoa. Koerlaziotan lotzen ez diren fonemak galdu egiten dira (euskarazko /h/, besteak beste).

c) →Fonologi →aurkakotasun bat gutxitan gertatzen bada, ekonomiari buruz aldrebesa delako, galdu egiten da. Hori gertatzen zaio euskarazko -r/-r̄ aurkakotasunari.

d) Informazio-teorian ere, behin eta berriz gertatzen da gidari eta eragile ekonomiazko arazoa.

Elatiboa

elativo / élatif / elative

1. Leku baten barnetik kanpora doan higidura adierazten duen kasua *elatiboa* deitzen da. Adibidez; Txomin etxe*tik* jalgi da.

2. Batzutan, →superlatibo erlatiboari ere *elatiboa* deitzen zaio.

Elebitasuna

Bai «elebitasuna» eta bai «eleaniztasuna», hizkuntz ukipenezko →egoera batetan gerta daitezkeen fenomeno bezala ulertzen dira egun. «→Hizkuntz ukipen» kontzeptua orokorragoa da eta neutroagoa, «elebitasun» kontzeptua baino, eta ez da hau bezain higatua. Hizkuntz ukipenezko egoeran, bi barietate linguistiko daude harremanetan eta txandaka erabiltzen dira.

Dagoeneko txit ezaguna denez, ez elebitasun hitza erabili da zientzi alor bakoitzean (linguistikan, soziologian, psikologian, eta abar) →adiera bakar batez, ez berezi diren elebitasun-motei ezarri zaizkien hitzak ere; eta are gutxiago, jakina, zientzia batetik bestera igarotzean. Halaz ere, bai izendapenen batasunari buruz, bai elebitasunaz arduratzen diren zientzi joera guztientzako tipologia bakun eta beharbestekoari buruz, saiaketa batzu izan dira; eta gauza bera zientzia bakoitzeko joerei buruz. Hein batez gugandik hurbil eta beraz pisudunagoa ere bai, eta berriki samar gertatua, hor dago Sánchez Carrión-ek eskaini diguna: *«Bilingüismo-Diglosia. Contacto de lenguas»* (ikus «Soziolinguistika» hitz-sarrerari dagokion bibliografia); hein batez, hemen guk jarraitua.

1) Elebitasunaren lehendabiziko zedarriztapen bat, ukipenean gertaturiko barietate linguistikoen arteko «hizkuntz distantzia»ren arabera egin liteke; eta, gutxienez, bi harreman-maila hauek berezi: hizkuntza desberdinen artean gertatzen den «elebitasuna» batetik; eta hizkuntza bereko mota desberdinen artean gertatzen den «dialektobitasuna» bestetik. (Nahiz berorien arteko mugaketa oso erlatiboa izan; baina, soziologiari dagokionez, interes handikoa).

2) Teoriaren mailan jarriz gero, ondoko erizpide horien arabera sailka genezake elebitasuna (eta gauza berbera egin liteke dialektobitasunaz eta eleaniztasunaz):

a) «Gizabanazkoa» (zenbait aldiz, bertikal ere deitu izana);

b) «Gizartezkoa» (zenbait aldiz, bide beretik, horizontal deitu izana). Kasu honetan, gizarte-talde zehatz baten multzo osoan barrena gerta daiteke: edo, goitik, gizarte guztian batera; edo behetik, gizarte-talde horretako zenbait sektoretan bakarrik (esate baterako: jatorrizko diferentzien arabera; edo adin, bizileku, sexu, lanbide, eta abarrezko diferentzien arabera). Gizartezko elebitasunaren barruan, bestalde, gizabanazko elebitasuna gertatzen da: osoki, batzutan; hein handi edo txikian, bestetan.

c) «Lurraldezkoa»: geografi lurralde batetan (Euskal Herrian, adibidez), nahiz muga politikoekin ez egokitua izan (estatu-mugak edo beste), edo kultur lurralde batetan, eta abar, bi hizkuntzaren arteko harremana eta txandaketa gertatzen denean. Lurraldezko elebitasunean, ondoko egoera hauek gerta daitezke: Gizabanazko elebitasun eta elebakartasuna, gizartezko elebitasuna eta elebakartasuna, eta elealbotasuna (berau bere mota eta maila guztietan); edo egoera guztiok batera, gure herrian gertatzen denaren arabera.

Bi hizkuntza elkarren ondoan gertatu, eta praktikan bion arteko txandaketarik ez dagoenean, «elealbotasuna» aipatzen da. Berau ere mota batzutakoa izan daiteke:

a) «Gizabanazkoa» pertsona batek mementu batetik aurrera, bigarren mintzaira bat erabiltzen duenean («ukipenezkoa», hain zuzen); ordura artean erabili zuena sekula ez darabilelarik; urrats hau elebitasunezko aldi baten ondoren ematen bada ere. Hitz batez, mintzaira honetako elebakartasunetik, mintzaira

hartako elebakartasunera pasa denean.

b) «Gizartezkoa»: zenbait sektoretan, eta praktikan, hizkuntza honetako elebakartasuna ematen denean; eta, era berean, eta gizarte-talde bereko beste zenbait sektoretan (edo gizarte osoan), hizkuntza hartako elebakartasuna ematen denean. Sektore batzutan, bestalde, gerta daiteke elebitasunik; baina elebitasunik ez izatea ere gerta daiteke.

3) a) «Lurraldezkoa» lurralde batetan, Euskal Herrian esate baterako, hizkuntza honetan, eta honetan bakarrik, mintzatzen den geografi eskualde bat, eta hizkuntza hartan, eta hartan bakarrik, mintzatzen den beste eskualde bat, ematen direnean; edo hizkuntza horietako batetan bakarrik mintzatzen den eskualde bat eta bi hizkuntzak elebitasunean erabiltzen dituen beste eskualde bat ematen direnean; edo-ta hizkuntza honetan bakarrik mintzatzen den eskualde bat, hizkuntza hartan bakarrik mintzatzen den beste eskualde bat (gehienetan aurreko bi eskualdeen artean) ematen direnean.

4) «Elebitasun orekatua» (ikus «Elebitasun orekatua» lema). Ukipenean dauden bi hizkuntzen artean halako berdintasun-harremana gertatzen denean; bi hizkuntza horiei buruz, jokabide eta hizkuntz erabilera berberak daudenean; eta, azkenik, erabilera horri buruzko txandaketa ere berbera denean, «elebitasun orekatua» dagoela esaten da. Gerta daiteke, beraz, maila guztietan: gizabanazkoa izan daiteke, edo gizartezkoa, edo lurraldezkoa; alegia, gizabanazko elebitasun orekatua, gizartezko elebitasun orekatua eta lurraldezko elebitasun orekatua gerta daitezke; baina izan daiteke, era berean, ez gertatzea.

«Elealbotasun orekatua», berriz, hau izango litzateke, teoriaz bederen: ukipenean dauden bi hizkuntzak berdintasun -harremanean egotea; baina →txandaketarik gabe: ez gizabanazkorik, ez gizartezkorik edo lurraldezkorik.

Gerta daiteke ere, ordea, «elebitasun orekagabea»: gizabanakoaren, gizartearen edo lurraldearen mailetan. Eta, bide beretik, elealbotasun orekagabea izan daiteke.

Elebitasunari buruz egiten dugun sailkapen horren arabera: «orekatua/orekagabea», uler daiteke elebitasunari buruzko hiztegirik gehiena. Adibidez:

a) «Elebitasuna» (elebitasun orekatuaren kide gisa)/«sasi-elebitasuna» (alegia, elebitasun orekagabea).

b) «Eleparetasuna»/«elebitasuna»: lehenengoan, bi hizkuntzen jabego osoa dago, egiazki bi hizkuntzak sarturik daudelarik; bigarrenean, aldiz, hizkuntza bat eta erdi ezagutzen direla esan beharko da.

d) «Simetrikoa»/«asimetrikoa»: alde batetik, ukipenean dauden bi hizkuntzen ezaguera osoa (edo ez-osoa) dela adieraziz, baita erabilera-baldintzapenei dagokienez.

e) «Koordinatua»/«menpekoa» (edo «konposatua»). Lehenengoaren kasuan, bai hizkuntzak berak (bai, hau delarik hizkuntza bakoitzak adierazten duen semazko munduak ere), arras desberdindurik daude, eta arras bereziki ere erabiltzen dira. Bigarrenean, aldiz, ez. Menpeko elebitasun honen ezaugarria da, hain zuzen, →«hizkuntz interferentzia». Alde bakar batetara gerta daiteke, eta orduan hizkuntzetako bat «hizkuntz iturri» edo «hizkuntz iturburu» bihurtzen da; bigarren hizkuntza, horretara, «hizkuntz ontzi» edo «hizkuntz helburu» bihurtzen delarik. Baina bi alderdietara ere batera gerta daiteke, eta orduan hizkuntzazko ebaketa maila desberdinetara irits daiteke, «hizkuntza mixtoak» sortuz, mota eta maila desberdinetan.

f) «Egonkorra/atzeranzkoa», alegia, elebitasun horren indarkuntzaren aldekoa baldin bada egoera, joera nagusiaren arabera; edo-ta, alderantziz, elebakartasunaren aldera.

Kasu honetan, aukera bikuna dago: «elebitasun normaltzaile»aren bitartez, «hizkuntzaren berreskuratze»ra joan daiteke: eta «elebitasun ordez-

katzaile»aren bitartez, berriz, hizkuntz ordezkapenera joan daiteke.

g) «Eragilea/jasalea», sortzaile eta jasotzaile baldin bada; edo-ta jasotzaile (zein sortzaile).

h) «Diglosikoa/diglosigabea» (ikus honetaz *Diglosia* lema) ukipenean dauden bi hizkuntzen harremanetan eta erabileran banaketa zuzena, edo partiketa, dagoen ala ez dagoen kontu. Honi buruzko baldintzaileak, hauek dira: hizkuntza berean ematen diren barietate linguistikoak (→argota, →dialektoak, →koinea, mintzaira idatzia, eta abar); ukipenean dauden mintzairak; gizartezko eremu eta betekizunak (adibidez: familia, jokoa, eskola, administrazioa, eta abar); baita aipatuak diren topiko edo gaiak. Hemen baleudeke bestelako izendapen batzu: «elebitasun instituzionala», «ofiziala», «eskolakoa», edo «elebitasun berezia», «kulturazkoa», eta abar.

i) «Harremanetarakoa» («funtzionala» ere deitua zenbait aldiz) /«berdintzailea». Lehenengoa beste hizkuntzaz baliatzen diren pertsonekin edo giza-taldeekin mintzatzeko, eta ez besterako erabiltzen da; bigarrenak beste hizkuntzan mintzatzen den gizarte edo talde sozialean integratzea du helburua. Arrazoin eragileak dira bereizgarria, hitz batez; eta horregatik erabili izan da gehien-gehienik gizabanako mailan.

j) «Goiztarra»/«berankorra», nagusia bestela esanik. Lau urteak bete baino lehenago edo bete ondoren.

k) «Naturala»/«ez-naturala», edo ezarria (edo «berezkoa/ezarria»).

l) «Onartua»/«ez onartua»

eta abar.

Ohar bat egin beharra dago hemen: hitz eta dikotomia horiek guztiak erlatibotasun osoan erabili behar direla (bakanka baizik ez dira elkarren ukatzaile); eta dikotomia bakoitzaren zedarriketan gertatu ohi diren mailaketa-diferentziak ere ezin direla ahaztu.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Elebitasun orekatua

Teoriaren mailan «elebitasun orekatua» gerta badaiteke ere, halako batasuna badago itxuraz ikertzaileen artean: praktikan, eta gaur gaurkoz bederen, ezinezkoa da. Hala ere, →elebitasunen artean motarik desiragarriena denez gero, baita zenbait gizartetan bilatua den eredu soziolinguistikoa ere, borobiltasun-nahirik batere gabe, honela zedarritzen saia gaitezke:

1) *Gizabanazko mailan*

a) Hizkuntzazko ikuspegiaren arabera, hau uler liteke: →gaitasun linguistikoaren ezaguera-maila berbera izatea bi hizkuntzetan; eta, batera, hizkuntza bakoitzean «gaitasun linguistiko» hori ahalik eta gorena izatea; edo-ta, gutxienez, elebakarrarengan gertatu ohi den gaitasun-maila bera. (Hipotesi honen arabera, inolako →«hizkuntz interferentzia»rik ez egotea pentsa liteke)).

b) Soziologiaren ikuspegiaren arabera: bi hizkuntzek garrantzi edo irudi berbera edukitzea; eta, beraz, biekiko istimu eta jarrera berdinak izatea (ahalmenaz, ospez, gizarte-egoeraz, eta abar). Eta, hori guztia dela bide, bai nolakotasunez bai zenbatasunez, bi mintzairok erabilkuntza berbera egitea.

c) Psikologiaren ikuspegiaren arabera: barne-baretasun osoa izatea: berezkotasuna osoa izatea, hizkuntza bata zein bestea erabiltzekotan, biok berdinzki, inolako baldintzarik gabe (eta hau edozein hizketa-lagunekin, edozein gizarteralor edo betebeharretan, edozein gai edo topikotan, eta abar).

d) Historiaren ikuspegiaren arabera: gaurko elebitasun-→egoeraren egonkortasunari buruzko segurtamena; baita jarraikitasun hori mugagabe gertatuko dela jakiteko ere.

2) *Gizarte eta lurralde mailan*

a) Barne-taldeak (bertakoak) eta kanpo-taldeak (kanpotikakoak), bai pertsonen mailan bai gizarte-taldeenean, maila berean elebidunak izatea adieraziko luke horrek delako barne-talde, gizarte edo lurraldean. Euskal Herrian, esate bate-

rako, hauxe adieraziko luke: bai euskotarrek bai euskotar ez direnek, berdinzki erabiliko lituzketela euskara eta erdara.

b) Bai aginteari dagokionez, bai gizarte-gradu edo «status»ari buruz, bai betekizunari buruz, eta abar, bi hizkuntzen artean berdintasun osoa gertatzea.

c) Bioi buruz ere, entzutez, ospez eta balorazioz, berdintasuna izatea.

d) Kultur hazkunde berbera izatea, zenbatasunaz eta nolakotasunaz: bi hizkuntzotan, bi hizkuntzoz eta bi hizkuntzoi buruz.

e) Bi hizkuntzoi buruz, era berean, nolanahiko indar-iturri guztietan, banaketa berdintzailea izatea, eta «gizarte-kostu» berbera.

f) Bi hizkuntzok, «nazioarteko harreman-hizkuntza» bihurtzeko aukera bera izatea.

g) Bi hizkuntzok, azkenik, gizarte horretan berean, «gizarte-hizkuntza» izateko bidea zinez izatea.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Elkargoa

asociación / association / association

Sin.: ASOZIAZIOA

1) →Hitz-elkargoa esaten diogu, unitate jakin baten eta unitate sor bat edo gehiagoren artean gerta daitekeen erlazio-multzoari. Elkargozko loturek sail birtual batetan elkartzen dituzte item-ak. Horrela, bada, norbaiti, hitz bat ematen bazaio eta horrekin loturik bururatzen zaizkion guztiak esateko agintzen bazaio, erantzun bezala emandako hitz guztiek hitz-elkargoa osatzen dute. Era horretan, birtual zen erlazioa ukigarri edo-ta erreparagarri bilakatzen da. Asozia zio-erlazio hauek elkarturiko hitzen →ezaugarri semantikoei zor zaie, edo-ta sarri askotan elkarrekin gertatzeagatik sorturiko experientziari.

2) Katea mintzatuan hurbil dauden bi hitzen arteko elkargoa, *elkargo sintagmatikoa* deitzen da. Esate baterako, norbaitek *lapikokoa* unitateari *jatea* erantzuten edota lotzen badio, *elkargo sintagmatiko* bat gertatu dela esango dugu. *Elkargo paradigmatikoa* zera da berriz, katea mintzatuaren toki berean ager daitezkeen bi unitateren artekoa. Horrela, *lapikokoa* unitateari *zopa* erantzuten bazaio, unitate bi horien arteko elkargoa *paradigmatikoa* dela esango dugu.

Elipsia

elipse / ellipse / ellipsis

Perpaus batetan, atal hau edo hura kendu, eta funtsezko →adiera oraindik ere ulergarria delarik, *elipsi* bat egin dugula esango dugu. Hein batez, beraz, adierazkien *ekonomigintzan* jokatu dela esan daiteke. Gramatika bihurtzailearen iritziz, bai perpaus osoan, bai elipsi-bidez laburtutakoan, berbera da sakoneko →egitura; eta horrek azaltzen du, adierari dagokionez, bi moldeon kidetasuna. Esate baterako:

Sagarrek berrogei pezeta balio dute, eta udareek hirurogei

Alegia, udareek hirurogei pezeta.

Elisioa

elisión / élision / elision

→*Hitz-mugan gertatzen den konbinazio*ko fonetikako fenomenoa da elisioa, eta honetan datza: hitz-bukaeran dagoen →bokal tonugabea galdu egiten da hurrengo hitza bokalez hasten denean. Esate baterako, *l'extension, l'amie,* etab. Zenbait hizkuntzatan, beti gertatzen da elisioa katea mintzatuan barrena, hitzen artean etenaldirik egiten ez denean.

Elkarketa

combinación / combinaison / combination

1. Hizkuntzaren mailako unitate bat, hizketa mailan, →enuntziatu bereko beste elementuekin harremanetan jartze-prozesua da elkarketa.

2. →Fonetika mailan, bi artikulazio edo gehiago, bateratasunez edo albokotasunez antolatzeari esaten zaio *elkarketa.* →Fonema konplexuak bi artikulazio bateraturen elkarketatik sortzen dira (bata →herskaria, bestea →igurzkaria, →afrikatuen kasuan; esaterako, euskal /c/ «tz» edo /ć/ «ts»). Bata bestearen alboan dauden fonemak elkartzeko, baditu hizkuntza bakoitzak bere arauak; eta fonema hauek elkarren gain duten eraginarengatik, →aldaketak gertatu ohi dira. Horrela, euskaraz, aurreko fonemaren arabera /k/ edo /g/ aurkituko dugu: /n/, /l/ eta batzuetan /r/ →kontsonanteen ondoren, /g/ →ozena, gainerantzeko fonemen ondoren, berriz, /k/ →gorra: *ongi, ederki.*

Elkarrekikoa

recíproco / réciproque / reciprocal

Bi elementu izan, eta batak bestera eramaten duenean, eta alderantziz, bi elementu horiek *elkarrekikoak* direla esaten da.

Senar/emazte, jan/edan, bikoteetan, elkarrekikoak dira elementu horiek.

Elkarrekiko →*izenordeari* dagokionez, berriz, *elkar* →hitzaren bidez egiten da euskaraz:

nik zuri opari bat egin
zuk niri opari bat egin
biok elkarri opari bana egin

Elkarrulerkuntza

intercomprensión / intercompréhension / mutual intelligibility

Komunitate bereko diren →hiztunen arteko solasetan elkar ulertzeko ahalmenari, elkarrulerkuntza deritza. Elkarrulerkuntza honek mugatzen du hizkuntza, →dialekto edo hizkera batek duen hedadura.

Emendioa

aumento / augment / augment

Izen honetaz, greko klasikoaren gramatikan batez ere, →lehenaldiko adizkietan agertzen den →silaba gehigarri bat ezagutzen da. Berez →aditz-→erroari eransten zaion →aurrizkia da, hala nola *paideüo* (hezten dut) eta *epaideüon* (hezten nuen).

Emisorea

Ik. IGORLEA

Enfatikoa

enfático / emphatique / emphatic

1. Alde batetik, →*bustidura enfatikoa* aipa daiteke. Ekialdeko Kaukaso-ko hizkuntza batzutan gertatzen da eta balio fonologikorik gabeko bustidura berezia da.

2. Beste alde batetik, berriz, eta gramatika →sortzailearen barruan, →*transformazio enfatikoa* aipa daiteke. «Focus» edo enfasi ideiarekin lotua, transformazio honen arabera azal daiteke euskaraz ezagutzen den *galdegaia*-ren arazoa.

Enklitikoa

enclítico / enclitique / enclitic

Azentuzko unitate baten barruan, gerta daiteke zenbait aldiz, eta gertatu ere egiten da, bertako →azentu-gailurraren ondoren →morfema edo →hitz bat joatea:

gizon bat (gisómbat)
etorri da (etóřiđa)

Atzekaldeko morfema horiek *(bat, da)* enklitikoak direla esango dugu.

Entropia

entropía / entropie / entropy

→Hitz hau hastapenetan Termodinamikan erabili bazen ere, gaur Linguistikara ere hedatu da; eta, hein batez, eta gertakari baten probabiliteari datxekion aldetik, ideia bera du funtsean.

→Komunikazioaren Teorian (ikus «informazio» hitza), honela definitzen da informazio-kantitatea:

$$I = -\sum p_i \log_2 p_i \text{ (bit/sinb.)}$$

(p_i horiek, elementuen probabilitateak direlarik).

Hots, (bit/sinb.)-tan neurtzen den informazio-kopuru horri *1-ordenako entropia* deritzo:

$$H_1 = -\sum p_i \log_2 p_i$$

Probabilitateok berdinak baldin badira, eta n →sinbolo baditugu:

$$p_i = \frac{1}{n}$$

eta

$$H = -\sum \frac{1}{n} \cdot \log_2 \frac{1}{n} = \log_2 n$$

Eta, kasu berezi honetan:

$H_o = \log_2 n$
H_0 honi *0-ordenako* entropia deritzo; eta hau dugu;
$H_1 \leq H_0$

Bide beretik, beraz, eta elementu-bikoteen probabilitateak ezagutuz gero, *2-ordenako entropia* eman daiteke:

$$H_2 = -\sum p_{ii} \cdot \log_2 p_{ii}$$

beti ere hau dugularik:

$$H_2 \leq H_1 \leq H_0$$

Entropia anizkun hauen bitartez, →fonemen (edo →morfemen) urrutirako eragina neurtzen da gaur matematikoki.

Kalkulu berbera egin daiteke hitzen mailan; eta lortzen diren baloreak oso adierazgarriak dira →erredundantziaz eta hizkuntzaren informazio-mailaz.

Enuntziatua

Ik. ESAKUNEA

Enuntziazioa

Ik. ESAKUNTZA

Epentesia

epéntesis / épenthèse / epenthesis

→Eufoniaren, artikulaziorako erosotasunaren, →analogia edo beste zerbaiten izenean, →hitz nahiz hitz-talde batetan etimologikoa ez den →fonema bat tartekatzean datzan fenomenoa ezagutzen da epentesi izenaz. Horrela, *liburu* hitzean, *u*-ren epentesia dago, latinezko *librum* hitzari buruz.

Epitetoa
epiteto / épithète / epithet

Epitetoa, orokorki, lotura-→hitzik gabe →substantibo bat edo honen baliokide bat determinatzen duen edozein unitate da. Ikuspuntu honetatik, →aposizioak ere epitetoak dira, baina nomenklatura tradizionalak →adjektiboaren edo beronen baliokideen →funtzioetako batentzat erabili izan du epiteto hitza.

Polita, zailak epitetoak dira perpaus hauetan: *Neskatila polita zuen alaba, Xerra zailak atera zizkiguten.*

Epiglotia
epiglotis / épiglotte / epiglottis

Epiglotia, udare antzeko kurruska edo kartilago bat da, laringearen gainean aurkitzen dena eta laringeko sarrera babesten duena. Epiglotiaren punta zintzur-sagarrari lotua dago, beste muturra aske dagoen bitartean. Irensterakoan, tokialdatu egiten da epiglotiaren mutur askea zintzurra ixteko, janariak ez daitezen horra sar. Arnasketa normala denean eta fonazioa gertatzen den bitartean, mihinaren atzekaldera dago epiglotia, laringeko aireari pasabidea irekirik uzteko.

Epizenoa
epiceno / épicène / epicene

Epizenoak esaten zaie, →bizidunen →kategoriakoak izanik, →genero bikoitza hartzeko gai diren →izenei. Genero bakoitza sexu-→aurkakotasuneko gaietako bati dagokio (genero naturala). Horrela, frantsesezko *enfant* izena epizenoa da, zeren eta →femeninoa izan bait daiteke *Une enfant est heureuse* perpausean (femeninoa eta emea) eta →maskulinoa *Un enfant est heureux* perpausean (maskulinoa eta arra).

Erabilgarria
disponible / disponible / available

Hiztegiaren *erabilgarritasun* nozioa →maiztasun nozioari aurkajartzen zaio. Maiztasun apala eta egonkortasun gutxikoa izan arren, erabiliak eta egokiak diren eta →hiztunaren peskizan dauden hitzen multzoa deitzen da *hiztegi erabilgarria.*

Maiztasunak bakarrik hartzen badira kontutan, ez dago edozein hizkuntzatako oinarrizko →hiztegia finkatzerik. →Maiztasuna hitzaren funtsezko atributua bada ere, aski da maiztasun-zerrendak ikustea, ematen diguten hiztegiaren irudia hiztegi erabilgarri kontzeptuaz zuzendu behar dela konturatzeko. Izan ere, maiztasun-taulen arabera, hitz gramatikalei (→artikulu, →izenorde eta abarrei) legokieke lehentasuna; hauen atzetik →aditzak etorriko lirateke, eta azkenik →izenak. Erizpide honi maiztasunaren egonkortasunarena eransten bazaio, →aditzei dagokie lehentasuna, eta ondoren →adjektiboak datoz, izenen aurretik. Harrigarriena, hala ere, zera da: goi-maiztasuneko izen konkretu gutxi agertzen dela maiztasun-zerrendetan. Hauxe da, erabilgarritasun-erizpidea sartzeko arrazoirik nagusiena.

Bestelako ondorioak ateratzen dira hiztegi erabilgarriaren zerrendak ezartzera zuzenduriko textuetatik. Horrela, gai jakin bati buruz, aztertutako eremuko izen konkretuen funtsezko egonkortasuna egiaztatzen da (adib.: *txuleta* harakinaren baitan). Orduan aditzak gutxi dira eta ez-egonkorrak. Bestalde, interes-zentru bereko hitz konkretuek erabilgarritasun-maila desberdinak aurkez ditzakete dirudienez. Adibidez, *hatzezur* hitzak erabilgarritasun-maila apalagoa izango du *hatz* hitzak baino.

Eraendu
regir / régir / govern

→Hitz batek ondoko beste bat molde honetara edo hartara behartzen duenean, hitz hori *eraendu* egiten duela esan ohi da. Latinezko *ex* →morfemak, esate baterako, →*ablatiboa* eraentzen du.

Moldea nagusi erazten duen hitzari *eraentzailea* deritzo; eta menpeko agertzen denari *eraendua.*

Eraenketa
rección / rection / government

Perpausaren barruan, →hitz batzuri →morfema edo molde berezi bat dagokie. Lehenengoak *eraendu* egiten duela esaten dugu.

Gertakari horri eraenketa deritzo.

Eragilea
causativo / causatif / causative

→Ekintza, ez →subjektuak berak, baizik eta honen eraginez beste norbaitek egiten duela adierazten duen →aditz-formari esaten zaio *eragilea* edo *faktitiboa.* Adibidez, *moneo* latinez («gogora erazi») *faire construire* frantsesez, *hacer construir* gaztelaniaz. Euskaraz *-erazi* edo *-arazi* →atzizkiez baliatzen gara eragileak eratzeko; adibidez, *edanerazi, adierazi;* baina lehenago beste bide bat ere bagenuen: -ra- →artizkia:

entzun → erantzun
ekarri → erakarri.

Erakarpena

atracción / attraction / attraction

Edozein →hitzek, berarekin harreman sintaktikoez loturik dagoen beste hitz baten eraginaren pean jasaten duen →aldaketa morfologikoari *erakarpen* izena ematen zaio. Horrela, latinez, erakarpen bat gertatzen da, izenezko →atributuak *esse* →aditza daraman perpaus predikatzaile baten →subjektua den →erakusle →neutroa, →generoan eta →zenbakian aldarazten duenean. *Hoc est error* perpausa *Hic est error* bilakatzen da, *error* hitzaren erakarpenez *hoc* →neutroa *hic* →maskulinoa bihurtzen delarik.

Erakarpen paronimiko izenaz, ostera, herri-→etimologiaren fenomenoa ezagutzen da. Horren bidez, formaz baizik erlazionaturik ez zeuden hitzei erabilera berdinak edo antzekoak ematen zaizkie. Kasu batez, zenbait euskaldunek darabilen *artoa* hitzaren →ebakera, artua alegia, Ameriketan *(h)artua* izateagatik heldu dela uste dute.

Erakuslea

Erakusleek batetik eta →pertsona-→izenordeek *(ni, hi, zu...)*, eta zenbait lekuzko eta denborazko adberbiok *(orain, orduan, hemen, hor, han...)* bestetik, →funtzio deiktikoa izaten dute. Honen arabera, hortaz, erakusleen interpretazio semantikoa, berorien erreferentzia mugatzea, ezinezkoa da egoera jakin baten leku-denborazko koordenatuetatik, eta bertan hizkuntzaz baliatzen diren pertsonetatik at. Eman dezagun *hau* →izenordea. Ez du honek adierazten aipatu nahi den pertsona edo gauzari datxekion ezaugarririk, alegia, entzuleari nor edo zer den ezagutzen lagunduko dionik ezer; baizik eta erabili duen pertsonagandik zera hori hurbil samar dagoela, eta besterik ez. *Hori* delakoak, berriz, entzuten duen pertsonari buruzko hurbiltasuna adierazten du *(zu, hi)*; eta *hura*-k, azkenekorik, bi mintzatzaileei buruzko urruntasuna. Gauza berbera gertatzen da *hemen, hona-hemendik, horra, hortik-hau, hara, handik* sailekin. →Erreferentziaren aldetik, kasu bakoitzean partaideei buruzko lekuaren urruntasuna ematen da. *Orain* hitzak, berriz, elkarrizketaren unea dakar gogora, eta abar.

Hizkuntza guztiek ez dute batzuren →sistema hirukuna. Euskarak, latinak, turkierak, espainierak, eta bestek, bai. Beste batzuek, berriz (alemanierak, esate baterako), bigarren eta hirugarren pertsonen arteko →aurkakotasuna neutraldu egiten dute; eta sistema bikun bat gelditzen zaie (al. *dieser* vs. *jener)*. Zenbait hizkuntzatan, berriz, hirugarren pertsonari datxekion pertsona-izenorde berezirik ez dago: latinez, grekoz, turkieraz, euskaraz, esate baterako; eta →funtzio hori, erakusleei dagokie. Bi →kategoriok daude, ordea, alemanieraz *(er* vs. *jener,* espainieraz él, vs. aquél).

Bestetik ere, erakusleen eta →artikulu →mugatuaren artean lotura estua dago; eta →fonologiaren mailan ere nabarmentzen da. Hizkuntza erromanikoen artikulu mugatua latinezko erakusleetatik dator; eta *el* eta *él* hitzen arteko desberdintasun bakarra, →azentuan datza. Alemanieraz, bide beretik, artikulu mugatuak azentua daramanean erakusle gisa erabiltzen da.

Balio deiktikoa duten hitzen →deklinabidea maiz berezi ohi da izenen deklinabidetik; alemanieraz, adibidez, bortitza deritzon deklinabideari darraizkio; eta horrixe darraizkio →adjektiboak ere, artikulu mugatuaz edo izenorde erakusleez *horniturik* ez daudenean. Grekoz, eta hinduera zaharraz bereziki, izenordeen deklinabideari darraio gutxi gorabehera balio erreferentzial-deiktiboa duten adjektibo-sail luze bat.

→Sintaxiari gagozkiolarik, berriz, IS kategoriaren barruan sartzen dira izenordeak, izen →propioak bezala; baina, hauek ez bezala, izen erkideekin elkartzen den mugatzaile-mota berezi gisa erabiltzen dira.

J. L. Iturrioz

Itz.: *Txillardegi*

Eranslea

aglutinante / agglutinant / agglutinating

Eransketaren berezitasun estrukturala duten hizkuntzak, hizkuntza eransleak dira, hau da, erlazio gramatikalak adierazteko, →erroaren atzean →hizki desberdinak pilatzen dituzten hizkuntzak. Adibidez, *turkieraz, -ler* →plurala markatzen duen →atzizkitik eta *-i* →posesiboa markatzen duenetik, *ev* «etxea» erroarekin →hitz hauek egingo

ditugu: *evler* «etxeak» (→nominatibo plurala); *evi* «etxea» (posesibo →singularra); *evleri* «etxeak» (posesibo plurala). Hizkuntza eransleak flexiozko hizkuntzetarik berezten dira.

Erantzuna


respuesta / réponse / response, reply, answer

Teoria behavioristaren arabera, edozein →estimuluri (stimulus, S), hitzezkoa (s) nahiz ez-hitzezkoa (S) izan, *erantzun* bat darraikio (response, r); hau ere, hitzezkoa (r) nahiz ez-hitzezkoa (R) izan daiteke.

Eratorpena

1. Bere zentzurik zabalenean, hitz honekin morfologia lexikal osoa adierazi izan da inoiz: →atzizki-→aurrizkiez gainera, beraz, →konposizio-arazoak ere bildu izan dira hortaz eratorpenaren atalera.


Normalean →esanahi murritzago batez erabiltzen da →hitz hau, ordea. Azken zentzu honen arabera, lexiko-sorkuntzarako bideetariko bat dela esaten da, eta honako era honetan definitzen: eratorpena, bere zentzu klasiko ezagunenean, autonomia lexikal osoa duen →erro edo oinarri lexikal bati, posizio jakin batean, autonomia lexikalik gabeko elementu bat(zu) erantsiz elementu lexikal berri bat sortzea da. Irudi bidez emateko, honela adieraz daiteke hitz eratorri baten egitura.



Segun →hizkia erroari bere aurretik, tartean edo atzetik eransten zaion, *aurrizkiez*, →*artizkiez* edo *atzizkiez* hitzegin ohi da hurrenez hurren.


Berriro ere irudietara joaz, ondoko adierazpideok era daitezke atzizki-aurrizkientzat:

a) atzizki bidezko eratorpena:



garden → gardentasun; transforma(tu) → transformagarri; bihur(tu) → bihurkor; sor(tu) → sortzaile; eliza → elizkoi; luza(tu) → luzamendu.

b) aurrizki bidezko eratorpena:



agertu → desagertu; etsi → birretsi; gidatu → telegidatu.

c) artizki bidezko eratorpena:

egin → eragin; ekarri → erakarri; ebaki → erabaki.

Definizio eta azalpen hauen arabera, alde batetik eratorpena dagoela esan ohi da eta, bestetik, →konposizioa; azken honen bereizgarria, hitz elkartuaren osagai desberdinek autonomia lexikala izatea litzateke: mendi-hegala, zakur-jana, begiluzea, jangela...

Muga hori oso urruti dago, ordea, lehen begirada batean dirudikeen bezain argi izatetik; non sartu, izan ere, kontrapozoin, zimaurtegi, irabazpide, apaizgai, sasimaisu, basaginga... eta antzeko adibideak?

«Autonomia» kontzeptua nekez izan liteke beraz, bere huts-hutsean, mugaezarle ahalguztiduna. Zailtasun horren eta antzeko beste batzuren konponbiderako, badirudi mekanismo bion funtsezko erkidetasunak kontutan hartzetik abiatu beharra legokeela. Horrek, jakina, diakroniazko arazoetan barrena eramango luke azterketa.

Eratorpenari buruzko azalpenetan, banan banako zerrendak nahiz multzokako sailkapenak ematerakoan, eratorpen-hizkiak ondoko bi faktoreon arabera aztertu ohi dira nagusiki: hizki bakoitzaren esanahia batetik, eta bestetik bere →kategori aldaketazko jokabidea.

→Esanahiari dagokionez, horrela, →hizki batzuek →ekintza eta/edo ondorioa adierazten dutela esan ohi da (-mendu, -keta, -kuntza, -pen...), beste batzuk egilea (-(tzai)le, -gailu, -garri...) beste batzuk izakera (-tsu, -ti, -bera...) eta abar.

Kategori aldaketazko jokamoldeari dagokionez, bestalde, lehen banaketa baten arabera hizki batzuk kategori aldatzaileak direla esaten da, eta beste batzuk ez.

Hizkuntza askotan, euskara barne delarik, atzizki gehienak kategori aldatzaileak dira. Horrela, adibidez, *-kor* atzizkiak →aditzetik →adjektibora pasatzen du normalean, *-tasun* atzizkiak adjektibotik →izenera, *-pen* atzizkiak aditzetik izenera eta *-ti*-k, azkenik, izenetik adjektibora.

Aurrizkiak, aldiz, ez dira normalean kategori aldatzaileak izaten.

Eratorpenaz hitzegiterakoan, bestalde, *hipostasi* edo *eratorpen* inpropioa ere aipatu ohi da inoiz edo behin; batez ere lexikologia tradizionalean: kategoria jakin bateko unitate lexikal batek itxurazko inolako →aldaketarik jasan gabe, jokabide praktikoari dagokionez agertzen duen kategori aldaketazko fenomenoa adierazi nahi izaten da horrekin (horrela, esate baterako, ondoko kasuotan: *joan-etorri* luze bat egin; *janak* kalte egin; sail berekoa litzateke, agian, beste hau ere: auto *azkarra* → autoa *azkar* etorri da).

2. Gramatika →sortzailearen baitan, *eratorpen* hitza zera adierazteko erabiltzen da: hasierako elementu batetik abiatuz oinarriko →erregelek perpausak sortzen dituzteneko prozedura; hartarako katea bakoitza aurrekotik eratortzen da, gramatikazko arau bakar baten bidez. Eratorpen hau zuhaitz batez nahiz parentesi bidezko paketamendu batez adieraz daiteke. Bestalde, gainera, horrela sorturiko katen multzo osoari ere eratorpena esaten zaio batzutan.

M. Zalbide

Eratorria

derivado / derivé / derived

→Eratorpenez sortutako unitate lexikalak izendatzeko erabiltzen den terminoa da.

Erdibokala

semivocal / semi-voyelle / semivowel

Erdibokalek, →erdikontsonanteekin batera, →kontsonanteen eta →bokalen arteko →soinu-klase bat osatzen dute; →*glide* izena ere ematen zaie. Diptongo *beheranzkoen* bigarren partea da erdibokala: *gauza* hitzean, [u̯]; edo *aita* hitzean, [i̯].

Erdikoa

medio / médian, moyen / mid, mid-position

Sin.: ZENTRALA

1. →Fonema bati *erdiko fonema* esaten zaio, horren artikulaziogunea aho-barrunbearen barneko aldean aurkitzen denean, ez periferian. Artikulazio →sabaikariak eta →horzkariak [t, d, r, n̪] erdiko fonemak dira, eta artikulazio →ezpainkari eta belareei [p, b, k, g] aurkajartzen zaizkie; azken hauek, ikuspegi honetatik, periferikoak dira.

→Akustikaren aldetik, erdiko fonemak →zorrotzak dira, periferikoak →lodiak diren bitartean.

2. Zenbaitetan, eta batez ere →bokalei dagokienez hiru →irekidura-maila soilik ezagutzen dituzten →sistema fonologikoetan, erdibideko irekidura duten bokalak deitzen dira *erdiko bokalak*. Euskaraz, [e] eta [o] izango lirateke erdiko bokalak.

3. →Aditz →indoeuroparren, eta batez ere grekozko aditzen, →boz bati esaten zaio *erdiko boza*. Zer hauek adieraz ditzake: perpauseko →subjektua →egile eta →objektu dela batera (euskarazko *Peruk bere burua garbitu du* bezalako perpausei legokieke), edo subjektua eta egilea desberdinak direla (euskarazko *hautsi egin da, hil egin da* eta antzeko perpausei legokieke), edo baita →ekintzak mesede egiten diona egilea bera dela (*nork bere eskuak garbitu* gisako →esaldietan).

Erdikontsonantea

semiconsonante / semi-consonne / semiconsonant

Aho-barrunbearen →irekidura-mailari dagokionez →kontsonanterik irekienaren eta →bokalik itxienaren artean kokatzen den →soinu-mota bati ematen zaio *erdikontsonante* edo →*erdibokal* izena; Esate baterako, [j] *pie* [pje] hitzean, [w] *mueta* [mweta] hitzean. Artikulazio mailako →ezaugarri honi berezitasun hauek dagozkio →akustika mailan: alde batetik, →formante-egitura garbiro mugaturik ez egotea —honek berezten ditu bokaletatik (ez-bokalezkoak)—, eta bestetik, ahots-bidean eragozpenik ez egotearen ondoriozko energia baten presentzia espektroan —honek berezten ditu →kontsonanteetatik (ez-kontsonantezkoak).

Erizpide sintagmatikoak erabiltzen dituzte hizkuntzalari batzuk erdikontsonanteen eta erdibokalen artean berezteko: *erdikontsonantea,* →silaba-hasieran, bokalaren aurrean, aurkitzen den unitatea izango litzateke, eta *erdibokala,* bokalaren atzean aur-

kitzen dena. Egitez, →linguistikaren aldetik ez dago arrazoirik berezketa hau egiteko. Horregatik, gero eta gehiago erabiltzen da, bi →hitz hauen ordez, ingelesetik mailegatutako →*glide* hitz globala.

→Soinu-mota hau →fonema baten gauzatzea izan daiteke, edo bokalezko nahiz kontsonantezko fonema baten konbinaziozko →aldaeraren balioa izan dezake besterik gabe: italieraz, glide →aho-sabaikaria fonema da silaba-hasieran (*iato* «hiatus» *lato* «Saihetsa») eta /i/ fonemaren →alofonoa silaba-amaieran (*mai* «inoiz ez» [maj] edo [mai] ebakitzen da). Soinu-mota hau oso sarritan ager daiteke hizkuntza batetan (non soinuak ez duen fonema-baliorik) loturazko soinu bezala bi fonemaren artean, euskarri bezala bi bokalen artean edo iragaite bezala kontsonante baten eta bokal baten artean.

Eredua

modelo / modèle / model

1. Egitura logiko edo matematiko bat da *eredua,* beren artean zenbait erlazio duten bilakaeren multzo baten berri emateko erabiltzen dena.

2. →Estrukturalismoan, →morfema-→sekuentzia bat beste baten (bere →hedapenaren) *eredua* da, bigarren honek, luzeagoa izanik, lehenaren →banaketa bera duenean.

Honela *Jonen gurasoak ikusi ditut* perpausean *gurasoak* morfema-sekuentzia *Jonen gurasoak* sekuentziaren eredua da.

Ergatiboa

ergativo / ergatif / ergative

Ergatiboa, prozesuaren →egilea adierazten duen →kasua da, →nominatibotik berezi behar dena. Eraikuntza ergatiboak ezagutzen dituzten hizkuntzetan, $IS_1 + A + IS_2$ motako perpausetako egilea da ergatiboa, →aditza hirugarren →pertsona ez-markatuan dagoelarik; nominatiboa, hortaz, aditz →iragangaitza duten perpausetako →subjektua da. Beste hizkuntza batzutan, ergatiboak →akusatiboa baztertzen du eta iragangaitz gisa erabilitako aditz iragankorren subjektuaren kasua da (*Peruk mendira begiratzen du),* nominatiboa iragangaitzaren eta →pasiboaren subjektuaren kasua den bitartean.

Eremua

campo / champ / field

Hizkuntzalaritzari buruz ari, eta «eremu» hitza aipatzen delarik, zenbait era desberdinetan erabil daiteke. Badago, alde batetik eremu lexikoa: gizarte-gune edo sail jakin batean erabiltzen den →hiztegia honek bere gain hartzen du. Baina badago, beste aldetik, eremu semantikoaren azterketa: honen arabera, →hitz jakin baten hedadura semantikoa aztertzen da.

Bi azterpide horiek, bestalde, bai *sinkronikoak,* bai *diakronikoak* izan daitezke.

Euskarazko «gorri» hitzak, esate baterako, →adiera desberdinak ditu. *Zapi gorria / zapi berdea* bikotean, kolorea du aipu. Baina *lur gorrian etzan* esaeran, edo *larru gorrian irten* delakoan, beste balio semantiko batzu hartzen ditu. Adiera hauek «gorri» hitzaren eremu semantikoa osatzen dute.

Arrantzari buruzko hiztegia aztertuz, berriz, *arrantzari* dagokion eremu lexikoa ikertuko genuke.

Erkidea

común / commun / common

Sin.: AMANKOMUNA

1. →Hitz honek, →adiera desberdinak ditu, gramatika historikoan ala gramatika deskribatzailean erabili; horren arabera:

a) Gramatika historikoan, *erkide*-k, hizkuntza edo →dialekto desberdinetan berezi aurretiko hizkuntza baten →egoera, gehienetan lekukotasunik gabekoa, adierazten du. (Hizkuntza bera ere batzuetan halakoxea izan ohi da: gaurko euskalkiak antzinako euskara erkide batetik datozelakoan gaude).

b) Gramatika deskribatzailean *erkide*-k, ahaidetasuna duten hizkuntzetako edo dialekto desberdinetako herriek beren artean mintzatzeko onartutako formen multzoa mugatzen du: esaterako K. a. IV-III. mendeetako →*koine* edo *greko erkidea.*

c) Azkenik, linguistikaren plangintzalariek batasun-hizkuntzak finkatu dituzte, dialekto-diferentziak ezabaturik, interkomunikazio zabal batetarako hizkuntza bat lortzeko. Euskara batua edo alemaniera batua (Hochdeutsch) hemen sartu behar dira.

2. Gramatika tradizionalean, *izen erkidea* (izen →propioari kontrajarririk), mota edo →kategoria batekoa den izaki edo gauza bati esaten zaio: gizon, liburu, emakume, zuhaitz... izen erkideak dira euskaraz.

Erlazioa

Erlazio nozioa →Saussure-k ezarri zuen argi eta garbi eta gaurko hizkuntzalaritzan funtsezkoa da; bere abiapuntua honako konstatazio hau da: edozein hizkuntz →egoeratan, dena harremanen gain eraikitzen da: hizkuntz →zeinuak gauza errealekin harremanetan daude; hizkuntz

zeinua bera ere →adierazle eta →adieraziaren arteko erlazioaren ondorio da. Balio linguistikoa bi erlaziok osatzen dute: →hitz batez «truka» daitekeen gauza ez-antzeko batekiko (ideiarekiko) erlazioak eta hitz batekin konpara daitekeen gauza antzeko batekiko (beste hitz batekiko) erlazioak. «Facta» lexikalak bezala, «facta» gramatikalak (sing./pl. →aurkakotasuna esaterako) eta «facta» fonologikoak ere (→bokal eta →kontsonante baten arteko kontrastea, edo bi bokalen arteko kontrastea, esaterako) funtsean erlazioak dira, eta ez izate positiboak.

Saussure-k erlazio sintagmatiko eta →elkargo-erlazioen artean egin zuen berezketa, egiturazko hizkuntzalaritzak *erlazio sintagmatiko* eta *erlazio paradigmatiko* izenpean gorde du.

F. de Saussure-rentzat *erlazio sintagmatikoa* →hizketa mailakoa da: hizketan, →hitzek katea mintzatuaren izaera linealean oinarrituriko erlazioak dituzte beren artean; →sintagma beren artean erlazioa duten unitateen ezkontza da; esaterako, *giza-bizitza, denen aurka, etxeko atea* sintagmetan elementu osakinek erlazio sintagmatikoa dute. *Erlazio paradigmatikoa* hizkuntza mailakoa da: erlazio paradigmatikoak hitz desberdinak kontrajartzen ditu, hitz bakoitzak bere balioa, hain zuzen, →aurkakotasun honetatik lortzen duelarik. Hitz hauetatik bat bakarrik gauzatuko da →berbaldian. Horrela, *irakaskuntza* hitzak erlazio paradigmatikoa izango du alde batetik *hezkuntza, ikaskuntza...* eta abarrekin; bestalde, *irakatsi, irakasten...* eta abarrekin ere bai. Azkenik *mintzakuntza, hedakuntza...* eta →atzizki berdindun hitzekin ere erlazio paradigmatikoa izango luke.

Baina hizkuntza/hizketa →aurkakotasunaren eta erlazio paradigmatiko/erlazio sintagmatiko aurkakotasunaren arteko nahasketa hau ez dugu hizkuntzalari guztiengan aurkitzen. Hain zuzen ere erlazio sintagmatikoak eta paradigmatikoak bai hizkuntzan eta bai hizketan badirela konstata dezakegu. Eman dezagun adibide bat:

— hizkuntza mailan, *gizon* hitzean [g], [i], [s], [o] eta [n] erlazio kontrastiboan daude ardatz sintagmatikoan [gison] zeinua lortzeko; ardatz paradigmatikoan, *gizon* aurkakotasun-erlazioan dago alde batetik *ume* eta *agure*rekin, bestalde, *neska, emakume*rekin, eta *animalia, robot* eta abarrekin ere bai;

— hizketa mailan, ardatz sintagmatikoan *gizon* hitza erlazio kontrastiboan egongo da berbaldiko beste elementuekiko *«gizon hori aberatsa da»* berbaldian esaterako. Ardatz paradigmatikoan *gizon* aurkakotasun-erlazioan legoke berbaldian bere ordez erabil ditzakegun hitzekin. Horrela: *gizon, ekar ezak ogia!,* balitz gure berbaldia, *gizon* eta *agure, ume, mutiko...*-ren artean aurkakotasun paradigmatikoa legoke, baina ez *gizon* eta *emakume, neska*ren artean, aukeratuko dugun berbaldian ezin bait ditugu erabili ez *neska* eta ez *emakume gizon*en ordez. Halaber, *robot* ez litzateke aurkakotasun-erlazioan egongo, semantika aldetik.

M. Azkarate

Erlatiboa

Erlatiboa →hitza gehienetan *perpaus erlatibo*ari buruz erabili ohi dugu. Perpaus erlatiboa →izen-→sintagmaren barnean agertu ohi da, izen-sintagma horretako muina den izenaren →determinatzaile bezala. →Adjektiboaren zeregina ere determinazio hori bera denez, perpaus erlatiboari perpaus adjektiboa ere deitzen zaio. Bestalde, gramatika →sortzaile-transformatzaileak adjektiboak →transformazio bidez sartzen ditu izen-sintagmaren barnean, erlatiboaren transformaziotik pasatuz, askotan behintzat.

Euskaraz, berez, ez dugu beste hizkuntzetan ba omen dituzten →*izenorde erlatiboak*. Gu →txertakuntza gehienetan bezala, →atzizkiez baliatzen gara perpaus erlatiboak eratzeko, *-en* atzizkiaz, hain zuzen. Hala ere literatur tradizioan eta zenbait lekutan egunoroko hizketan ere bai, aurkitzen ditugu hizkuntza indoeuroparretan aurkitzen diren izenorde erlatiboak. Hauek, →galdetzaileak berak dira baina oraingoan erlatibo bihurtuak. Adibidez: *Andonik, zeinek dirutza handia*

bait du, liburu berri batzu agindu dizkigu.

Holakoetan badirudi →aditzari menpekotasunezko →markaren bat erantsi behar zaiola: *bait-* edo *-en.*

Baina perpaus erlatiboetan bi mota berezi ohi dira: a) erlatibo *murriztaileak.* Adibidez, *dirutza handia duten gizonek liburu berri batzu agindu dizkigute.*

Hemen gizonen multzo osotik dirutza handia dutenak hartu dira kontutan. Horregatik deitzen zaie murriztaileak era honetako perpaus erlatiboei. b) Erlatibo *ez-murriztaileak.* Era honetakoak ditugu *zein* eta beste *galdetzaile* batzuz baliatuz lortzen diren erlatiboak. Eta baita, agian, —gaur ia beti kausazkotzat hartzen badugu ere— *bait*-aditz-→aurrizkiaz baliatuz osatzen duguna ere: *Katonek (printzipalenetarik bat baitzen) erran zuen.*

Euskaraz, erlatiboaren bidez osatzen dira semantika aldetik era askotara sailka daitezkeen perpaus txertatu asko: denborazkoak, adibidez. Izan ere, *etorri naizenean* moduko perpaus baten azpian *etorri naizen momentuan* edo *etorri naizen garaian* edo antzeko zerbait bait dago. Beraz, zeharo bistakoa da erlatibozko egitura.

P. Goenaga

Erortzea

caída / chute / loss

→Fonema bat edo batzu desagertzean gertatzen den →aldaketa fonikoari esaten zaio erortzea. →Hitzaren hasieran gerta daiteke (→aferesia: lat. *illem* > gazt. *le),* edo hitzaren barruan (→sinkopa: →etimologia zuzena bada, lat. *moneta* > eusk. *moeta* eta *mota),* edo hitzaren bukaeran (→apokopea: lat. *suam* > gazt. *su).*

Erradikala

radical / radical / radical, root

→Erro batek *(kar, kus, bil),* →aurrizki eta →atzizkien bidez, forma desberdinak har ditzake: *ekarri, dakart, ekartzen.* Zenbait aldiz, sail bakar bat sortzen da *erro* horretatik, eta erradikal bakar bat dugu. Beste batzutan, berriz, bi erradikal sor daitezke: *bel, beltz (bele, beltzaran);* edo frantsesezko *venais, venait; viens, viendront:* kasu hauetan bi erradikal ditugu.

Erorkorra

caduco / caduc / unstable

Katea mintzatuaren aitzineramenduan desager daitezkeen →fonemak, →bokalak batipat, *erorkorrak* direla diogu. Euskara mintzatuan ere, sarri askotan gertatzen dira halako galerak, *Kariga* deitzen denean *Kariaga* izeneko auzoa, esate baterako, lehen →ebakera horretan /a/ →azentugabe bat galtzen delarik.

Erredundantzia

Eman dezagun →mezu hau: *ABAAB.*

Bost →zeinu ditu; eta, zeinu bakoitza bidaltzeko, segundo erdi bat behar baldin badugu, bidalketak denbora hau behar du:

$$T_1 = 5 \times 0{,}5 = 2{,}5 \ [seg].$$

Edozein arrazoinengatik (zarata kalean, tximistek sortutako hari-bizkarroiak, edo beste mezu hori osorik iristen ez bada:

AAAB

entzuleak (edo mezuaren →jasotzaileak) ez du ulertuko:

$$AAAB \neq ABAAB$$

Hau gerta ez dadin, seinale bakoitza errepika genezake:

AABBAAAABB

Eta, honi esker, ikur batzuk galdurik ere, osoki ulertzeko parada izango luke jasotzaileak:

$$ABBAAABB > ABAAB$$

Hipotesi honetan, ordea:

$$T_2 = 10 \times 0{,}5 = 5 \ [seg].$$

Denbora (eta energia) gehiago behar izan dugu.

Erredundantziak, hitz batez, ulerkuntza errazten du; baina →informazio-kantitatea jaisten. Eta, matematikoki hitz egitekotan:

$$R = \frac{I}{I_{max}}$$

R [= erredundantzia]

I [= egiazko informazio-kantitatea]

I_{max} [= $I_{max} = \log_2 n$]

Adibidez:

$I = 4{,}265$ [bit/s]

$I_{max} = 4{,}858$ [bit/s]

$$R = 1 - \frac{4{,}265}{4{,}858} = 1 - 0{,}8779$$

$$= 0{,}1221$$

Edo, beste modu batez $R = 12{,}21\ \%$.
Berezko hizkuntzetan $R \sim 50\ \%$.
(Hitz batez, zaratarengatik →fonemen erdiak galdurik ere, *mezua* ulertu ohi da).

Txillardegi

Erreferentea

referente / référent / referent

Hizkuntz →zeinuak, berez, eta →hiztunen talde bakoitzean bereziki, hizkuntzaz kanpoko gauzetara bidaltzen gaitu. Hizkuntzatik at dagoen hori *erreferentea* da *(designatum* ere esaten zaio).

Erreferentea ez da, inola ere, egiazko gauzen munduko atal bat. Zenbait «gauza», egia esan, edozein kultur egituraketa baino lehenago bide dago. Baina hizkuntzek ez dute errealitatea modu berera egituratzen edo ebakitzen: hizkuntza batek sexua kontutan hartzen badu *(ahizpa, arreba)*, beste batek ez *(hermana)*; hizkuntza batek →aspektuen arabera esan erazten ditu baldintzak, beste batek ez; eta abar.

Erreferentea, bestalde, izan ez izatea ere gerta daiteke (zentaurua).

Erreferentzia

referencia / référence / reference

→Erreferentziaren bitartez, hizkuntzaren mundutik at irteten gara; eta, hau dela bide, erreferentziarik gabeko mintzairarik ez dago.

Saussure-k lehendabizikorik azaldu zuenez, hizkuntz zeinu batek bi aurpegi edo izari lotzen ditu: →kontzeptu bat eta dagokion irudi akustikoa. Baina hizkuntzari datxekion *erreferentziaren* bitartez kontzeptuen maila horretatik kanpora joaten bide gara: [goĩ] →soinu-ilararen bitartez, esate baterako, «gorri» →hitzari dagokion «kontzeptua» dugu gogoan. Baina kontzeptu hau kanpoko errealitate bati datxekio. Hots, «aipatu»tako hau, dena dela, pertzepzio-bidez ezagutzen dugu; eta, hitz batez, ez da gauza bera; gauza hau, kultur-bahez iragan ondoren, agertzen zaiguna baizik. Triangelu hau eman daiteke, hortaz:



Diagraman ikus daitekeenez, hertsiagoa da →adieraziak →adierazlearekin eta erreferentziarekin dituen loturak, adierazlea eta erreferentzia lotzen dituena baino.

Erregela

Gaur egun, hizkuntza baten perpaus zuzen guztien sortzaile den erregela-→sistema gisa aurkeztu ohi da gramatika. Sistema horrek egiturazko deskribapen bat ematen die.

Gramatika →sortzaile standard delakoaren oinarrizko osagaiak →*ordezkapen-erregela* mordo bat dauka aurrenik (eraketa, →berridazketa, →hedapena). Horrek →kategori →ikurrak erabiltzen ditu eta lexikoarekin batera sakoneko →egiturak sortzen. Ezkerraldeko ikurra, ikur baten edo batzuren bidez berridazten da geziaz eskuinaldean; eskema orokor honen arabera:

$$A \rightarrow Z/X \text{ — } Y$$

Erregela horretan, kategori ikur bat da A; Z-k berriz, badu ikur bat gutxienik, eta X eta Y kateak dira, hutsak zenbait aldiz, A-ren →textuingurua osatzen dutelarik. Textuinguru hori dagoenean erabil daiteke, hain zuzen, erregela hori.

Badago beste oinarrizko erregela-mota bat, →Chomsky-k 1965ean sartua: *azpikategorizazio* izenekoak, alegia. →Ezaugarri sintaktiko-semantikoak sartzea dute helburu, horretara ikur konplexuak sortzen dituztelarik. Esate baterako, horien arteko ez-murriztaileek I (izena) ikurrari, ezaugarri batzu erantsiko dizkiote: (± abstraktu), esate baterako, edo-ta (± gizatiar); eta ezaugarri hauek lexiko-unitateen ezarpena amaiera-katean mugatzen dute. [+ I, + gizatiar, + nagusi, + mask] ikur konplexua, esate baterako, *gizon* hitzaz ordezkatu daiteke; ez, ordea, *etxe, andre* edo *seme* →hitzez.

Erregela murriztaileen artean, berriz, *azpikategorizazio* hertsiari dagozkion erregelek, ondoko kategori ingurunearen arabera sailkatzen dituzte kategoria lexikal batzuk. Eta, horretara, eta hizkuntza askotan [+ art —] ezar dakieke →izen →erkideei; ezaugarri horren bitartez, hau adierazten dugularik: izen →propioez bestaldera, aurretik →artikulua eraman dezaketela. →Aditzak, bide beretik, ira-

gankor eta →iragangaitz gisa azpisailka daitezke, bigarren izen-→sintagmarik eraman dezaketen ala ez kontu: [± — IS]. Bigarren erregela murriztaile mota honi, →hautapenezkoa deritzo; →hautapen-erregelen →funtzioa, bukaerarreko katean →morfemak hautatzerakoan murrizketak ezartzea da, morfema horien egitura semantikoaren arabera. Esate baterako, aditz baten ezarpena ezaugarri sintaktiko-semantiko jakin bat →subjektu edo →objektu bezala perpausean agertzeak baldintzatzen du; aditz baten →ikur konplexuak era honetako hautapen-ezaugarri bat badu

$$\left[\begin{array}{ll} \left[\begin{array}{l} \text{—— [+ bizidun]} \\ \text{I} \end{array}\right] & \text{...} \\ \text{IS} & \end{array}\right]_{\text{AS}}$$

subjektua *txakurra* izan daiteke agian, baina ez *liburu*.

Badago beste erregelarik ere Gramatika →Sortzailean: transformaziozkoak, segmentaziozkoak, →erredundantziko erregela fonologikoak, morfema-egiturazko erregelak, eta abar.

J. L. Iturrioz

Itz.: *Txillardegi*

Erregularra

regular / régulier / regular

Funtsezkotzat ematen den →paradigmari (→deklinabidearen, →aditz-jokoaren, perpausmotaren eta abarren paradigmari) jarraitzen zaion hizkuntz forma oro *erregularra* deitzen da. Paradigma erregularra, forma-kopururik zabalena biltzen duena da.

→Aldaketa bat, baldintza berdinetan jarririko segmentu guztiei aplikatzen zaienean, *erregularra* dela esaten da.

Errekurtsiboa

Elementu errekurtsiboa, Gramatika →sortzailean, bere izaera berbera duen beste elementu baten atal gisa nahi adina bider txerta daitekeen hizkuntz elementuari deitzen zaio.

Perpaus-egiturazko gramatika batek, →erregela-multzo mugatua duenez, perpaus-multzo azkengabea sortarazteko behar-beharrezko du matematikaren aldetik zenbait →ikurrek beren burua dominatzea. Era honetara:

$$X \rightarrow A\ B$$
$$A \rightarrow X\ C$$

Hemen X dugu elementu errekurtsiboa.

Gaur egun, gramatika sortzailearen aldeko gehienek ametitzen dute P (= perpausa) dela ikur errekurtsiko bakarra. Adibidez, gramatika sortzaile batean honako erregela parea aurki daiteke: P → I S + A S eta beste hau: I S → (P) + I + mug.

Lehenbiziko erregela honetan P elementua geziaren ezkerretara agertzen da. Bestean, berriz, ikur bera, aukerako atal bezala, geziaren eskuinetara agertzen zaigu. Hau gertatzen denean —definizioz— erregelak errekurtsiboak dira.

Erregelen errekurtsibotasun hau dela medio, behin eta berriro aplika daitezke perpaus baten →eratorpena egiterakoan. Eta, beraz, perpaus bat bestearen barnean behin eta berriro txerta daiteke, horrela perpaus-kopuru azkengabea lortuz.

Prozesu sortzaile errekurtsiboa, Gramatika sortzailean, erregela-multzo mugatu baten bidez elementu-multzo bukaezina zenbakitzen duen prozesuari deitzen zaio, adibidez, hizkuntza bateko perpaus-kopurua zenbakitzen duenari.

P. Goenaga

Errekzioa

Ik. ERAENKETA

Erretroflexua

retroflejo / rétroflexe / retroflex

→Fonema baten artikulazioak →mihi-punta aho-sabai aldera jasotzea eskatzen duenean, fonema horri *erretroflexua* esaten zaio. Artikulazio erretroflexua *kakuminala* edo *zerebrala* ere deitzen da.

→Kontsonante erretroflexuak, →horzkari ez-erretroflexu sail bati horzkari erretroflexu sail bat aurkajartzen dioten erretroflexuak dira. India-ko →dialektoetan, arabieraz eta Europa-ko leku bakan batzutan ematen dira.

→Bokal erretroflexuak suedieraz eta ingeles-barietate batzutan gertatzen dira. Azken hauetan bokalak atzetik datorren [r]-rekin bat egiten duelako gertatzen dira: *girl, far* hitzetan. Suedieraz ere badago →artikulazio-mota hau, [r] baten eta atzetik

datorren [t] edo [d]-ren arteko bategitetik dator *kort* «laburra», *bord,* «mahaia» hitzetan.

→Akustikaren aldetik, fonema erretroflexuak bemolizatuak dira, →kontsonante →ezpainkari eta →faringariak bezala. Kontsonantearen azpian jartzen den puntu batez edo bemolizazioaren zeinu musikalaren bidez adierazten dira.

Euskal /s/ fonema, erretroflexua izan da berandu arte; eta hala da oraindik Zuberoan (ik. Larrasquet), gutxienez.

Errima

rima / rime / rhyme

Bertsogintzan, →hitzen bukaeren artean badago →fonema-berdintasuna. →Bokal berbera aurki daiteke bietan (errima txiroa); bokal berberaz gain, →kontsonantea ere berbera izan daiteke (errima askizkoa); eta gerta daiteke, azkenekorik, bokal berberaren aurretik eta atzetik kontsonante berberak izatea.

Erritmoak ere eman dezake beste mota batetako errima.

Ohizko sailkapenaren arabera, badira *emezko* errimak (-e); eta arrezko errimak (-e) gabeak. (Frantsesari dagokionez hau).

Erritmoa

ritmo / rythme / rhythm

Katea mintzatuan zehar, →prosodi elementuek sorturiko entzumenezko inpresio analogoak aldioro errepikatzen badira, errepikapen horri *erritmo* deritza. Mota desberdinak daude. →Kantitatearen arabera eraiki daiteke, →silaba luzeek erritmoaren gailurrak osatzen dituztelarik, eta silaba laburrak tarteetan doazelarik. Erritmo-mota hauxe zegoen hizkuntza →indoeuroparretan (sanskritoan, grezieran, latin klasikoan etab.). Kantitatezko erritmo horri (latinetiko hizkuntza modernoetan, esate baterako), →azentua nagusitu zaio: →oposizioa, orduan, silaba azentudun eta ez-azentudunen artean gertatzen da.

Erroa

raíz / racine / root

Eman dezagun →hitz-multzo hau:

ekarri, ekarle, dakarte, ekarpen.

→Adierari dagokionez, garbi dago «ekarri» ideia edo sema dagoela denon funtsean. Hots, ideia horri dagokion *erroa,* berez erabili ezina, *-kar-* da:

e-karr-i, e-kar-le, da-kar-te, e-kar-pen.

Kar lortzeko, beraz, →aurrizki eta →atzizki guztiak kendu behar izan ditugu.

Arabieraz, hebraieraz eta gainerako hizkuntza semitikoetan hiru letraz osaturik izan ohi da *erroa.*

Erroak, dena dela, bi molde izan ditzake oinarri, edo gehiago; eta molde hauek, zeinek bere bidetik, sail bereziak eman. Hauetako bat izan liteke agian euskarazko *bel* eta *beltz* →bikotea *(bele, harbel;* baina *beltz, beztu).* Honi →*erradikal* esaten zaio.

Errotatua (r)

rotado (r) / roulé (r) / trilled (r)

Frantziako zenbait herrialdetan, *rue, mer* eta *terre* bezalako →hitzen →ebakeran, era berezian gauzatzen da [r] →dardarkari →apikaria. Hortzen, albeoloen edo aurresabai-aldearen kontra mihi-puntaz kolpe bat edo gehiago emanez gauzatzen da →kontsonante hau. Ba, horrela gauzatzen den [r]-ri esaten zaio *r errotatua.*

Errotazismoa

rotacismo / rhotacisme / rhotacism

[z] →txistukari →ozena [r] →apikari bihurtzean datzan fenomenoari esaten zaio errotazismoa. Prozesu hau latinaren →fonetika historikoan somatzen da: *amare, legere, audire...* infinitiboak →aditz-→erroari *-se* infinitibo-atzizkia erantsiz eta →bokalarteko [z] hori [r] bihurtuz atera dira.

Euskaraz fenomeno honen aztarna nabarmenak ditugu: esan = erran; eta, bide beretik, *oro* eta *oso* hitzek duten antz semantikoa. Hedaduraz, errotazismo izena ematen zaio, beste zenbait kontsonante [d], esate baterako, eta batez ere [l] [r] bihurtzeari ere. Horrela, →dialekto italiko askotan, latineko [l] →bokalartekoak errotazismo-fenomenoa ezagutu du zenbait lekugunetan: dela →bokal artean, dela →kontsonante aurrean. Fenomeno hau euskaraz ere gertatu izan da latinetik hartutako zenbait hitzetan: *caelum* > *zeru, angelus* > *aingeru.*

Esakunea

Sin.: ENUNTZIATUA

1. Esakune edo enuntziatu →hitzak, edasle batek edo batzuk igortzen duten hitz-sekuentzia mugatu oro adierazten du. Esakunearen itxidura, hitz-sekuentziaren aurretik eta atzetik →hiztunek egiten duten isilune batez agertzen da. Perpaus batez zein batzuz osatua egon daiteke esakunea; hau gramatikala nahiz agramatikala, semantikoa nahiz asemantikoa izan daiteke. *Esakune* hitzari →adjektiborik ere erants dakioke, →berbaldi-mota

(esakune mintzatua nahiz idatzia), edo hizkuntz mota (euskarazko, latinezko esakunea) mugatzeko. Esakune-multzo batek osatzen ditu hizkuntz azterketaren datu enpirikoak (→corpus); erabilitako teoriaren arabera, honek esakune ekoitziak azalduko ditu edo corpus horretako perpausak eraentzen dituzten →erregelak kontutan harturik esakune posibleak aurresango ditu. Banaketazko →linguistikan, katea mintzatuaren segmentua da esakunea, →mugagabeko luzera duena, baina →marka formalez garbiro zedarriturik dagoena. Marka formalak honako hauek dira: edasle batek hitza hartzea, isilune iraunkor baten edo beste edasle batek hitza hartzen duelarik edo isilune iraunkor bat gertatzen delarik. Honela, elkarrizketa honetan: *Hartu al duzu berokia? —Bai— Ba jantz ezazu irteteko, hotz egiten du eta,* hiru esakune daude: (1) *Hartu duzu berokia?,* (2) *Bai,* (3) *Ba jantz ezazu irteteko, hotz egiten du eta.* Baina bi orduko etengabeko hitzaldia ere esakune bat da.

2. *Esakune* hitza, batzutan, *perpaus* hitzaren ordez erabiltzen da, esakuneen analisia, sarritan, esakuneak osatzen dituzten perpausen analisira mugatu den neurrian.

3. *Esakunea,* batzutan, perpaus-sekuentzia baten edo-ta perpaus baten esanahia da. Baina nahiago izaten da *dictum* hitza erabili, *esakune* hitzari 1. atalean eman zaion zentzuarekin ez nahasteko.

4. Maiz, *esakunearen analisi* esamoldea hobesten da *berbaldiaren analisi* esamoldea baino, *berbaldi* hitza anbiguoa denez (hizkuntza arruntean, esakunemota jakin bat adierazten du).

M. Azkarate

Esakuntza

Sin.: ENUNTZIAZIOA

Esakuntza, →esakunea-ri kontrajartzen zaio: hizkuntzaren erabilera-egintza indibiduala da *esakuntza; esakunea,* berriz, egintza horren ondorioa, →hiztunaren kreazio-egintza (ik. Kreamena). Zentzu hertsian, ez du →hizketaren igorpen-harreretako fenomeno fisikoa adierazten, ez-eta egoerak ekar ditzakeen konkretizazioak ere; bakarrik, hizkuntzaren →kodekoak diren baina perpaus batetik bestera beren zentzua alda dezaketen elementuei dagokie *esakuntza* (adibidez, *ni, hi, orain, hor,* etab.). Linguistikaren aztergaia, «esakuntz prozesuak esakunean uzten duen aztarna da».

J. R. Searle logikalari iparramerikarrak zazpi →oposizioren bidez egiten du analisi linguistikoaren kategorizazioa: lehenik (eta garrantzizkoena), egintzaren norabidea edo helburua dago (adib., baiezpenaren eta galderaren arteko diferentzia); bigarren, →igorlearen eta →hartzailearen elkarrekiko kokamendua (eskabidearen eta aginduaren arteko diferentzia); hirugarren, harturiko konpromisu-gradua (intentzio-adierazpen soilaren eta agintzariaren arteko diferentzia); laugarren, →proposizio-→edukineko diferentzia (aurresateen eta konprobazioen arteko diferentzia); bostgarren, proposizioa igorlearen eta hartzailearen interesekin lotzeko era diferenteak (harrotzearen eta kexatzearen arteko diferentzia, gaztigatzearen eta aurresatearen artekoa); seigarren, adierazten diren →egoera psikologikoak (agintzariaren, intentzio-→adierazpenaren, eta →baiezpenaren, konbikzio-adierazpenaren arteko diferentzia); zazpigarren, esakune bat elkarrizketarekin erlazionatzeko era diferenteak (aurreko ihardespenaren erantzun soilaren eta esanberriaren objekzioaren arteko diferentzia)».

Esakuntza beti presente badago esakunean, era eta intentsitate-maila desberdinez egon daiteke presente; desberdintasunok aztertuz, →berbaldien tipologia bat lor daiteke, →oposizio batzuri esker. Lau kategoriatan oinarri daitezke, autore batzuren arabera, oposizio horiek:

1. →Hiztunak esakuneari buruz hartzen duen jarrera, distantzia koxkortzekoa nahiz handitzekoa izan daiteke (nika ariko da, adibidez, lehen kasuan, eta hirugarren →pertsonaz baliatuko bigarrenean);

2. Hiztunak adierazi egin dezake bere esakuneari atxekitzen zaion ala atxekitze hori errefusatu egiten duen (atxekimendu-gradua, *agian, beharbada, zalantzarik*

gabe bezalako modalizatzaileen bidez adierazten da);

3. →Hartzailearen esakunearekiko erlazioen arabera, berbaldia gardena nahiz opakoa izango da;


4. →Igorlearen eta hartzailearen arteko erlazioei esker, solaskidea eta kanpoko mundua esakuneari buruz lekutzeko saiõa izango da berbaldia.

M. Azkarate

Esaldia

→Adiera berberaz erabilirik, nahiz maiz bestelako →konnotazioz ere, →sintagma eta osagai hitzak dira, besteak beste. →Erregela sintaktiko bidez moldatutako elkarketa da esaldia; eta, era honetan, unitate sintaktiko konplexu baten atal gisa azal daiteke.

Emango den definizioa, jakina, onartua izan den gramatika-→ereduaren arabera aldatzen da. Aktualizatutako mintzairatik abiatuz gero, eta osagaien analisizko metodoa onartzen bada, bere arartegabeko →osagaietan zatitzen da perpausa; eta horrela, aurrera, unitateetaraino heldu arte (hauek ez bait dira sintaxi-bidez aztergarri). Esate baterako:



(1) →Ergatibo →-marka →transformazio bidez lortuko genuke.

(2) Erregela morfofonemikoak aplikatu ondoren helduko ginateke azken kateara, ahoskatuko den kateara, hain zuzen.

Bestela esatekotan, adabegi bakoitzak esaldia mugatzen du; eta hau, hark zuzenki edo zeharbidez, menperatzen dituen amaiera-kateko elementu guztiez osatua dago: *mutil hauen, mutil hauen lagunak, gauza asko,* eta abar.

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Esanahia

Behaviorismoaren eraginez, hizkuntzaz kanpoko keztatzat harturik, luzaro egon da esanahiaren arazoa hizkuntzalaritzatik at deserriturik: →Bloomfield, Harris, →Chomsky 1957. (Ikus «Estrukturalismotik Gramatika Sortzailera»).

→Praga-ko eta →Kopenhave-ko eskoletan garrantzi handiagoa aitortu zitzaion esanahiari.

→Adierazia eta →adierazlea lotzen dituen zeinu-sistema gisa definitu zuen hizkuntza →Saussure-k (→zeinuaren bi aurpegi berezi-ezinak); eta esanahia honetara zertzen da: kanporako bere funtzioaren aldetik (errealitateari buruzko atxekiduraz), eta →sistemaren barruan duen lekugunearen aldetik; alegia, sistemako gainerako elementuekiko dituen harremanen aldetik.

Pentsamendu honen lehenengo ondorio praktikoak, →semantikaren →eremuan eginiko azterketetan lortu ziren (J. Trier: «El vocabulario alemán en la esfera del entendimiento»). Semantikari, dena dela, Hjelmslev-ek eman zion leku seguru bat, eta biderik gotorrenetik, bere lau geruzen teoriaren bidez →edukinen analisia gidatu zuelarik.

Semantika estruktural paradigmatikoaren ordezkari garrantzitsuak ditugu A. J. Greimas eta B. Pottier. →Jakobson-en →ezaugarri →berezgarrien ildotik eta →analogiaz, semaren kontzeptua sartu dute semantikan. Sema horiek artikulatu egiten dira, eta sememak osatzen dituzte; erabat hauek →lexemen bide semantikoak direla. (K. Heger, K. Baldinger, S. Ullman, J. Lyons, E. Coseriu, eta abar).

Gramatika →sortzailearen bigarren urratsean, osagai semantiko bat erantsi da gramatikan; eta osagai honek sakoneko →egituren interpretazioa du helburutzat. Horren bitartez, esanahiaren azterketari izari sintagmatiko bat erantsi zaio: perpausaren barruko harreman semantikoen deskribapena. Ordezkaririk famatuena J. J. Katz da. Hemen ere ezaugarri semantikozko sorta gisa hartzen da edukina: «Ezkongai», adibidez, «gizakume + nagusi + ezkondu gabea». Berehala jaiki ziren ezaugarri-pilaketa honen kontrako ahots kritikoak: U. →Weinreich-ek, eta semantika sortzailearen ordezkariek (G. Lakoff, Mc Cauley, etab.), ezaugarri semantiko horiek →sintaxi-bidez ere egituraturik daudela uste dute; eta, hortaz, ondorio hau ateratzen: sintaxiaren eta semantikaren arteko muga inon ipintzerik ez dagoela. Egia esan, hauek eta haiek kalkulu sintaktiko berri bat azaldu besterik ez dute egiten; eta kalkulu horren elementuak ez dira, omen, lexemak, hitzen eta errealitatearen arteko kontzeptu zubiak baizik.

Arrazoinetako bat, zalantzarik gabe, hau da: "«zakur» hitzaren edukina, eman dezagun, zakurrak dira" perpausaren moduko perpausei langa bat jartzea. Baina beste perpaus hau: "«zakur» hitzaren edukina, zakur deritzen abereei buruz →hiztunek duten kontzeptua da" ez da inolaz ere hobea. Nominalista diren filosofo eta logikariek (Goodman, Quine, etab.) hau erantzungo lukete: "«zakurrak» esaten dugunean, ez garela zakurrari buruz dugun geure kontzeptuaz mintzo, zakurrez berez baizik"; bestela honelako zerbait esango genuke: "zakurrari buruzko ene kontzeptua».

Husserl-ek eta Frege-k urratutako beste pentsamendu-joeran, esanahiak bere piskologi alderdi hori galtzen du; eta esanahiak orain izari logikoa du soilki. Logika intentsional deritzon horren gerozko hazkundean, intentsioak ez dira →funtzioak baizik, eta hitz hau bere alderdi logiko-matematiko soilean hartzen dugula. Izaera funtzional soil horrek, ez bestek, azal dezake perpaus baten esanahia, osatzen duten elementuen funtzio izatea (Carnap, Church, Tarski, D. Levis, Montagne, eta abar). Beste hitzez esateko, zein baldintzatan esan daitekeen perpaus bat egiazkoa ala faltsua ote den.

Filosofia analitikoak, oro har, jarrera kritikoa hartu zuen semantikari buruz egin den ohizko formulazioaz. Austin, Wittgenstein, eta gainerakoen iritziz, «zein da hitz honi datxekion esanahia» galdera, sasi-galdera ezagun horietako bat besterik ez da. *Hitz horren esanahia* ez da deskribapen zehatz bat; ez bait dago «gauza» bati letxekiokeen esanaharik. Filosofo hauek, eta bide beretik Alston-ek ere, definizio horiek ordaintzea proposatzen dute; eta, ordainketa horretan, erabilera-→erregela bat ematea, hitz baten esanahia azaldu nahi dugu-

nean, egin ohi ditugun juzkuen azterketaren bidez.

Lerro hauetan →hiztegi-semantikaz mintzatu gara (paradigmatikaz), perpausazko sintagmatikaz, erreferentzialaz (errealitateari atxekiaz), formal-funtzionalaz.

Beste arazo batzuk, berriz, perpausaren →textuinguru hertsitik at eramaten gaituzte: Zein dira perpausen artean dauden harremanak, textu edo elkarrizketa bat trinkoa izan dadin, eta funtsa izan dezan? (textuinguruzko pragmatika).

Txillardegi

Eskantsioa

escansión / scansion / scansion

Bertsogintza greko-latinoari dagokionez, punttua neurtzeko erabiltzen den markabidea. Funtsean, «oinaz jo» adierazten zuen «scandere» →aditzak.

Eskualdea

región / région / region

Egintza baten edo multzo batzuen berezko →eremu geografikoari deitzen zaio *eskualde linguistikoa.*

Esparrua

área / aire / area

Gertaera bat edo gertaera-multzo bat ezaugarritzat duen geografi →eremuari hizkuntz esparru esaten zaio.

Espirantizazioa

espirantización / spirantisation / spirantization

Espirantizazioa, aho-bidearen erdigunea estutzea da; batez ere →igurzkariak eta konstrikziozkoak gauzatzean gertatzen da. →Linguistika diakroniko eta sinkronikoan, →soinu →herskarietatik igurzkarietara iragateari ere *espirantizazioa* esaten zaio. Euskaraz, adibidez [b, d, ĵ, g] herskariak [b, ḑ, y, g̱] igurzkari bilakatzen dira →bokalartean.

Estatistika

Gero eta maizago, estatistikaren ikerbideak erabiltzen dira gaur →Linguistikaren →eremuan.

1) Alde batetik, eta Literaturaren laguntzaile, idazleen edo hizkuntzen →hitz-aberastasunaren gorabeherak aztertzeko: zenbat eta zein hitz erabiltzen diren egunoroko →hizketan, egile berberarengan →hiztegia urteetan barrena aberastuz edo txirotuz doan, eta abar.

2) Beste alde batetik, eta hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, oso oinarri interesgarria da egunoroko hizketan, eta giza-giro honetan edo hartan, eskuarki zein hitz erabiltzen den, eta zein ez, zehazki jakitea. Gutxi gora-behera, horretara, textu guztien hitzetan % 75 edo % 80-a ez dira 2.000 bat baizik. Edo, bestela esateko, 2.000 hitz zentzuz, eta zientzi bidez hautaturik, ikasiz gero, aski da hizketa guztien % 80 eman ahal izateko. Honetarako, noski, estatistikaren laguntza behar da.

3) Lege funtsezko batzu (Zipf, Swadesh) estatistika-legeak dira.

4) →Komunikazio-teoriaren oinarria →fonemen (edo →morfemen) *probabilitatea* da. Hots, probabilitatea hauxe da, izan:

$$P = \frac{\text{→corpus-ean ageri diren aldekoak}}{\text{corpus-ean ageri diren guztiak}}$$

Bestela esateko: estatistika behar.

Estatistika, hitz batez, Linguistikaren laguntzaile bikain agertzen da gaur egun.

Txillardegi

Estimulua

estímulo / stimulus / stimulus

Sin.: KINADA

Teoria behavioristaren arabera, →erantzun bat (R) sortzen duen gertakari bat da *estimulua* (S). Estimulu hau hitzezkoa izan daiteke; baina bestelakoa ere bai: hizketa ez da beti hitzezko estimulu bati erantzuna.

Estokastikoa

Prozesu bat, zoriaren legeen menpean dagoenean, eta probabilitate-kalkulua ezar dakiokeenean, prozesu *estokastikoa* dela esaten da. Prozesu hau, hizkuntz →eredu baten oinarri gisa erabili ahal izan da. →Sinbolo elementalen kopuru mugatu batez osaturiko →mezu bat automatikoki ekoiztea ahalbidetzen duen mekanismo bezala ikusten da eredu hori; sinbolo bakoitzari iraupen berezia dagokio. Mezu bakoitza ezkerraldetik eskuinaldera joanez produzitzen da (denbora irudikatzen duen ordena lineala). Mezua osatzen duen saileko lehenengo sinboloaren hautapena librea da; baina hurrengo sinboloa emititu berria denak determinatzen du; lehenengo sinboloaren funtzioan bat emi-

titu ondoren, →egoera berri batetara pasatzen da makina, aurreko egoeraren menpean dagoena. Matematikan, Marcov-en eredua esaten zaio prozesu honi. Hortaz, egoera posible mugatu batzu eta egoera batetik bestera pasatzeko probabilitatesail bat dauzka →sistemak. Ondoko egoerak aurreko «hitz»en funtzio dira. Hizkuntza bateko perpausak eratzeko behar diren datuak makinaren programan sartzen badira, eredu honek hizkuntza horretako perpaus guztiak sor ditzake. Marcov-en prozesuaren arabera, hizkuntza bat gramatikazko →erregela-multzo mugatu batez determinatutako zenbait sinbolo (edo perpaus) sailez osaturik dago; erregela bakoitzak, sistemaren zein egoeratan aplikatu behar den eta zein sinbolo produzitu den egoera batetik bestera pasatzean, adierazten du.

Txillardegi

Estrukturalismoa

Maiz, estrukturalismoaren izenaz hogeigarren mendeko →hizkuntzalaritza osoa ikusi nahi izan da; baina hitz hori zehazkiago erabiltzen badugu, gauza askotan desberdinkiro pentsatzen duen zenbait eskola, eta haatik printzipio metodologiko →erkide batzu dituzten eskolen multzoa, ulertu behar dugu beraren bidez: has Saussure-rengan, eta hizkuntzalaritza sortzaileraino, berau jadanik oso hein txikian dei daitekeelarik estrukturalista (ik. *Estrukturalismotik gramatika sortzailera).*

→Hjelmslev-ek zioenez («Structural analysis of language», Ik. Bibliografia), Ferdinand de →Saussure izan zen «mintzairaren azterketa estrukturalaren beharra aldarrikatu zuen lehendabizikoa, h,d., mintzairaren azterketa zientifikoa beraren unitateen arteko harremanen deskribapen gisa proposatzen zuena; unitate horiek izan ditzaketen →ezaugarriez ohartu gabe, berorien harremanekin zer-ikusirik ez bait dute, eta harreman horien ondorio ez bait dira. Norabide horretan, beraz, harremanak dira hizkuntzaren mamia; eta harremanen sisteman datza hizkuntza hauen eta haien arteko diferentzia. (Ik. *Europako Estrukturalismoa).*

Aurreko hizkuntzalaritzarekin erkaturik, Estrukturalismoaren metodoak, formaren azterketarekin batera, abstrakzioa eta generalizazioa dakartza aurreko hizkuntzalarien konkretuaren eta bereziaren ikerketari aitzi; hots, hizkuntzalaritza historikoaren kontra. Baina eskola estrukturalistek batzen dituzten ezaugarriak; distribuzionalismoa, →glosematika eta →funtzionalismoa, beraz, elkartzen dituzten puntuak, honako hauek dira:

1. Zientzia linguistikoa jadanik buruturiko perpausen azterketan oinarritzen dute, eta, beraz, textuaren teoria bat osatzea dute helburu. Baina textu hori, edo-ta perpaus horiek sortu diren egoerari eta perpaus horien →egileei jaramonik egin gabe.
2. Egituraren kontzeptua.
3. Hizkuntzaren eta →hizketaren arteko diferentzia.
4. →Sinkroniaren ikerketa, eta ez →diakroniarena.
5. →Substantzia eta →formaren arteko diferentzia, eta bion arteko isomorfismoa.
6. Diferentzien azterketan definitzen den →binarismoaren printzipioa, hots, sintagmatiko zein paradigmatiko izan daitezkeen →aurkakotasun horiek binaka definitzen direla.
7. Azterbide induktiboa.

Eta ezaugarri hauetan beretan dago, hain zuzen ere, Estrukturalismoaren jautsapenaren kako eta kausa, gramatika →sortzailearen aitzinamenduaren aurrean. →Chomsky-ren eta haren jarraitzaileen eritziz, Estrukturalismoa azkenik taxonomia hutsa da.

A. Eguzkitza

Estrukturalismotik gramatika sortzailera

Jose Luis Iturrioz

Orrialde gutxitan iparramerikar →hizkuntzalaritzaren berrogeitamar urteetan zeharreko aitzinamendua laburtu eta azaltzea, oso zail gertatzen zait. Horregatik, eskola hauetako ordezkaririk garrantzisuenak baino ez ditut aipatuko, oinarrizko puntuei helduz, eta bilakabide dinamikoa agerian utziz.

I. SAPIR, WORF, ETNOLINGUISTIKA. «GENERAL SEMANTICS»

→Bloomfield-ek, neogramatikarien eskolan heziak, →semantika →hizkuntzalaritzatik aparte utzi behar dela defendatzen duen bitartean, hots, hizkuntzalaritzak hizkuntzak deskribatu besterik ez duela egin behar, badago beste hizkuntzalari-talde bat, «→hiztuna-hizkuntza-kanpo-errealitatea» harremanez arduratzen dena; berauek →Humboldt eta Weisgerber-ekin loturarik eduki gabe, puntu askotan oso antzeko den teoria bat garatu zuten. Jarraipen bat baino gehiago aldiberean edo bateratsu oratua izan zen teoria honek, amerikar eskola antropologikoaren ikerketa etnolinguistikoetan ditu bere sustraiak. Eskola honen ordezkariek (Boas eta beraren diszipuluek) indioen bizitza eta hizkuntzak ukan bait zituzten beren lanaren helburu.

Boas-ek hizkuntzen ikerketek etnologiari buruz daukaten garrantzia nabarmendu eta ageriko egin zituen. →Sapir-ek hizkuntzari komunitate baten experientzien antolatzailearen funtzioa eman zion, eta halaber haren munduaren egileen eta errealitate sozialaren itxuratzailearena (hizkuntza batbederak «Weltanschauung» —mundu-ikuskera— bat dauka); baina inguruneak mintzairaren eraketan daukan eragina ahantzi gabe. Haren ideiak denboraren denboraz erradikalduz joan ziren, eta «Conceptual categories» eta «The Status» direlakoetan, kasu batez, zera dio: erreali-

tatea gehienbat hizkuntza den «antolamendu itxi, sortzaile eta sinbolikoaren» projekzio inkontzientea dela. →Whorf-ek, maisuaren tesiak askozaz nabarmenkiago formulaturik, hopi indioen hizkuntzetan egindako arakaketen bidez, →edukin enpirikoez bete nahi izan zituen beraiek; eta horretarako erlatibitate linguistikoaren printzipioa definitu zuen: «natura geure ama-hizkuntzaren joeren arabera antolatzen dugu. Mundu fenomenikotik abstrakzioz ateratzen ditugun kategoria eta tipoak, ez dira, berez, bertan aurkitzen..., aitzitik, mundua inpresioen isun edo korronte kaleidoskopiko batez aurkezten da, gero gure izpirituak antolatuko duena; esan nahi bait da, sistema linguistikoak gure izpirituan antolatua» (*Language, thought and reality,* 213-4. orr.).

Antzeko ideiak defendatzen dituzte «General semantics»-koaren ordezkariek (izen hori A. H. Korzybski-ren obra baten izenburua da). Gizakiak hizkuntzaren bidez ezagutzen du errealitatea, errealitatearen ispilu nahaslea den hizkuntzaren bidez: hizkuntza da ordenatu, sailkatu eta abstraitu egiten duena; ez gu. →Hiztuna →ikur-sare batetan aurkitzen da preso, berak errealitatearen harremantzat jotzen dituen harremanek gartzeleratua.

II. BLOOMFIELD ETA DESKRIPTIBISMOA

Europako eskolez, iparramerikar →estrukturalismoak gehienik ikerbide deduktiboa erabili izan du. Ez dira teoria abstraktutan finkatzen, gero hizkuntza naturalen egitura ulertzeko; aldiz, tradizio positibistari jarraituz, zera uste dute: zientziaren betebeharra behatu eta deskribatzea dela geroago pilaturiko datuok ordenatzen direlarik. Baieztapen hau, ordea, ez da amerikar joera linguistiko guztien ezaugarri orokortzat eman behar, eskuartean dugun objektuaren bi zentzutako mugaketatzat baizik; lehenengoa kronologikoa da, hemen europar estrukturalismoaren lehenengo aldiaz mintzo bait naiz bakarrik: bigarrena pertsonala, zeren ez bait dut uste sartu behar dudanik hemen Estatu Batuetan, New Yorkeko Zirkulu Linguistikoaren lehenengo ordezkariek (Martinet eta →Jakobson europar herbesteratuek) egin zuten lana (neurri handi batez Europako tradizioari zerraiona); talde heterogeno horren aldizkaria «Word» izan zen.

Amerikar estrukturalismoaren historian, Bloomfield-en «Language» deritzon liburuak, →Troubetzkoy-ren «Fonologiaren oinarriak» eta →Hjelmslev-en «Prolegomenoak» direlakoek eduki zuten beste indar eragile ukan zuen. Bloomfield-ek liburu honetan hizkuntzalaritza zientzia gisa oinarritu nahi du. Eraginik hurbilena psikologia behavioristan ikusi behar da, ordurako animali jokabidearen ikerketan emaitza sendoak

lortuak zeuzkana, eta kontutan hartzen ez bada, zibernetikaren aitzinamendua ulertzea ezinezkoa egiten duena. Materialismo mekanizistaren molde honek kontzientziaren edukinei ukatzen die objektu izateko eskubidea, joera hori defendatzen dutenak mentalistak bailiran albora uzten dituelarik. Zientziak zera du objektu: experientziaren eremuan berez agitzen, eta behaketaz eskura daitekeena. Jokabidearen edozein fenomeno, organismoaren (mekanismoaren) orekan gertatutako apurtura gisa esplikatzen da: eta mekanismoaren bi une berezi behar dira: →*kinada* edo *input* (al. Eingabe, gazt. estímulo) eta →*erantzuna* edo *output* (al. Ausgabe, gazt. respuesta). Organismo baten edozein ekintza, kanpoko eragin bati erantzun gisa azaltzen da (S → R); eta jokabidea oinarri honetaz esplika daiteke, h.d., kinaden eta erantzunen katea zedarrigabe gisa. Hizkuntza, haren liburuko hasieran agertzen den pasarte famatuan esaten denez (24. or.), gertabide horretan sartzen da. Pertsona batek gose izanari (S) zuhaitz batetara igoaz erantzun diezaioke (R) sagar bat hartzeko; baina bai eta beste bati igan dadila eskatuz ere. Kasu honetan lehen aipaturiko erantzuna, erantzun linguistiko batez ordezkatzen da (S), bidenabar entzulearen estimulu gisa funtzionatzen du (R), eta zuhaitzera iganez ala ez erantzun daitekeena (S → r → s → R).

Teoria honen kontra objekzio asko azaldu da: esate baterako, organismoaren ahalmen autorregulatzailea kontutan ez hartzea, gizakiaren kasuan batez ere. Edozein kasutan ere, Bloomfield-ek ez zuen azaldu nahi izan hizkuntza bat zer den, beraren gizarte-betekizuna baizik, jokabide osoaren barruan daukan ezarpena, berorren parte izanez eskuragarri gertatzen bait zaigu. Haren helburua zera zen: estimulu eta erantzun linguistikoen artean kontzeptuak tartekatzea baztertzea, haren eritziz, kontzeptu horiek mintzairaren formen ordezko hutsak bait dira; eta desabantaila daukatelako, behaketari biderik ez ematea. Honela ulerturik, semantikaren kontrako kritika hau guztiz zuzenetsirik dago, baina horrek ez du esan nahi berak proposaturiko hautabidea besterik ez dagoenik. Bloomfield-en ustez →forma baten esanahia, erabiltzen den →egoera-multzoekin eta entzulearengan sortzen duen erantzunarekin dugu baliokide, h.d. S → R parea errepikaria da. Kontzepzio honek gauza bitara behartzen du.

a) →esanahia, mintzairatik at egonez, ezin daiteke linguistikaren objektu izan.
b) Mintzairaren moldeen definizio semantikoa ezina da: honek errealitatearen ezaguera exhaustibo eta entziklopedikoa eskatuko luke.

Hizkuntzalaritzak, hortaz, eremu honetan eduki behar ditu bere hesiak, gramatika-→kategorien definizio formalean, forma bakoitzaren →funtzioaren azterketaz lortzen duguna, h.d., perpaus batetan formak ager ditzakeen lekuguneak arakatuz. Lekugune batetan ager daitezkeen

molde guztiek «→klase formal» bat osatzen dute, nahiz eta klase horrek ez duen beti klase-esanahia edukitzen (esate baterako →subjektu kategoriari ez dagokio beti «→egile» nozioa). Bloomfield-en postulatu hauek semantika ikerketatik baztertzea lortu zuten urte luzez. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Bloomfield-engandik →Chomsky-renganaino, inplizituki gutxienez, lorturiko emaitzen azken egiaztapen-erizpide gisa, esanahia erabili dela beti. →Soinu biren banaketa berbera ikusi eta gero (hots-hotz), →fonema desberdinak diren ala ez modu batez bakarrik juzka daiteke, bata eta bestea, *hotsa* eta *hotza* gauza bera diren galdetuz. Azterketak gutxienez esanahiaren intuiziozko ezaguera jartzen du aurretik; horregatik, hain zuzen, azterketen balioen zuzenespide hauek, askotan ikus daitezke autoreengan.

Esanahia daukaten unitaterik txikienak «glosema» izenaz bataiatzen ditu Bloomfield-ek (→Martinet-ek →monema izenaz), eta haien esanahia («some feature of the practical world» bezala ulertuaz, Lan.162 or.) «noema»izenaz. Unitate hauek bi motatako izan daitezke: *free forms,* «→morfema» izena daukaten unitate lexikalak (esanahia: semema), eta *bound forms,* izaera gramatikala duten unitateak, «tegmemak» izendatzen dituenak (esanahia: episemema). Mota bi hauek Martinet-en →lexemen (zerrenda zedarrigabea) eta morfemen (zerrenda itxia) baliokide dira gehienetan. Baina Bloomfield-ek darabilen erizpidea desberdina da, ez du Martinet-enak sortzen dituen oztoporik jartzen. «Bound form» bat «a linguistic form which is never spoken alone» bezala (hizketan bakarrik inoiz erabiltzen ez den forma) definitzen da (160.or.), kasu batez, «-tzen» *ezagutzen*-en.

III. HARRIS ETA DISTRIBUZIONALISMOA

Bloomfield-ek finkatu zuen objektibotasunaren printzipioari fidel, Harris-ek hizkuntzalaritzak daukan betebeharra hizkuntzak deskribatzea dela uste du, maila bakoitzean agertzen (edo elkartzen) diren segmentuak (co. occurrence) sailkatuz, eta haien →banaketa ikusiz. Elementu baten banaketa (soinu, morfema, →sintagma) «beraren ingurune guztien batuketa da» *(Distributional structure,* 146 or.), eta «nahikoa da fonemak eta morfemak mugatzeko, eta haien gainean gramatika bat eraikitzeko» (ibid., 155 or.). «→Linguistika matematikoak hemen garatzen den eran, giza-mintzaira objektu arbitrarioen klase-→sistema gisa definitzen du». *(Mathematical structures,* 1.or.). Honetatik ondoriozta daitekeena argi dago: esanahia, linguistikatik aparte geratzen den bezala, hala direla propietate fisikoak ere elementuetatik aparte geratzen; eta hizkuntzalaritzaren objektu bakarra, beraz, egitura da. Maila bakoitzeko azken

unitateak katea mintzatuaren segmentazioz aurki daitezke; erabiltzen den ikerbidea →ordezkapenarena da, modu horretan elementu-klaseak finkatuz; eta klase hauetako bakoitza, ingurune (→textuinguru) mugatu batetan, elkar ordezka dezaketen unitateez osatua da.

Harris-ek, horregatik, esanahia banaketaren →funtzioa dela uste du, esanahi hori erabiliko litzatekeen egoera guztiak bezala. Aurreko hizkuntzalaritzarekiko erkaketaz, ikerbide taxonomikoaren abantailak (→arartegabeko osagaien analisiaren baliokidea: IC-analysis Postal 1964; Chomsky 1963: PSG) hauek dira: zehaztasuna, objektibotasuna eta datuen egiaztagarritasuna. Haren desabantailak eta hutsak, baina, laster jarri ziren agerian. Batzu baizik ez ditut aipatuko. Azken ondorioetaraino joanez gero, ikerbide hau experimentazio amaigabe batetan galduko litzateke; praktikan, intuizioari eta hiztunen informazioari helduz mozten bait dira eragiketa horiek. Banaketa bidezko semantika, zirkularra da, gurpil zoroa; eta horrez gain, →*eremu* semantiko laburtu baten elementuak (esate baterako, kolorea izendatzen duten →adjektiboak) esanahi bera dutela baieztatzerik ez dagoenean banaketa berbera dute. Antzeko eragozpenak ikus daitezke espainierazko denbora-sistemari buruzko Bull-en liburuan (1958) →erreferentzi alor bat beharrezkoa da «minutu» eta «segundo» arteko esanahi-diferentzia ondoko gaztelaniazko perpausetan ulertuko badugu:

— Koldo durmió una hora (= Koldok ordubetez egin zuen lo)
— Koldo se levantó una hora (= Koldo ordubetez jaiki zen)

«una hora» (= ordubete) honek, modu desberdinez eragiten ditu →aditzak: lehenengo kasuan, Koldok lotan eman zuen denboraren luzeaz ari da; bigarrenean, ostera, jaikita egon zenaz, ez jaikitzen eman zuenaz. Aditz bion kontzeptu eta semantikazko egitura-diferentzia, ezin daiteke banaketaz azal.

Bar-Hillel-ek 1945ean (1964, 38. or. eta ond.) dilema edo hautakizun hau aurkeztu zuen:

a) Gertagarri diren perpaus-mota guztien osotasun gisa definitzen bada hizkuntza, Harris-en hipotesia faltsua da: urdin eta zuri hitzek banaketa berbera dute.

b) Orain egindako perpaus guztien osotasun gisa (tokens) definitzen bada, orduan, elementu bik sekula ez luteke banaketa berbera izango.

Banaketa-berdintasuna, beraz, esanahiaren berdintasunerako bete beharreko baldintza da; ez ordea nahikoa. Harris-engan «-z ordezkakorra» terminoa «mintzaira» bezain nahasia da.
— Begi-medikua / Hagin-medikua

Lehen hitz hori daukan edozein perpaus besterik bihurtzen da (ez nahitaez zentzu berberaz edo-ta egiatasun-balio berberaz) bigarrenaz ordezkatzen bada.

— ... (nahitaez egiatasun-balio berberaz)...

Beraz zera berezi behar da:

a) Banaketaren aldetik ordezkagarri, trukagarri.


b) Logikaren aldetik, ordezkagarri salva significatione, salva veritate, trukagarri. Ondoko perpausok begira ditzagun:

— Oftalmologilariak begi-medikuak duen esanahi bera du.


— Begi-medikuak begi-medikuak duen esanahi bera du.


«Oftalmologilaria» «begi-mediku»az ordezkatuz ez da egitura aldatu. Baina bigarrena logikoki egiazko den bitartean, lehenengoak ez du zertan egiazko izan beharrik, ez da tautologia bat.

Urrats tranformazional edo bihurtzailera igaro baino lehen «ararte-gabeko osagaien» metodoaz (IC -inmediate constituents) zerbait esan nahi nuke, 1947an Wells-ek oso zehatz deskribatu zuena, eta garaiko hizkuntzalari guztiek erabilia izan zena: Hockett-ek 1959an, Gleason-ek 1955ean, Fries-ek 1963an... Oinarrizko ideia hau da, unitate gramatikal guztiak goragoko maila batetako beste unitate baten atal direla (perpausa izan ezik), eta, era berean, bi segmentuz osatua dela (beraren ararte-gabeko osagaiak), bakoitza beste bitan bana daitekeela... osagarririk txikienetaraino heldu arte (morfemak, eta formatiboak). Perpaus guztiak, hortaz, modu honetara daude hierarkikoki antolaturik:




edo euskarazko adibide bat jartzen badugu:






Eskolako ordezkari desberdinek erabilitako metodoa ez da beti bera; emaitzak fenomeno morfologikoen azterketan, batez ere, diferente izaten dira. Postal-ek, ordea, 1964ean bertsio guzti horiek maila ahul batez baliokide zirela frogatu zuen, h.d., berak «gramatika taxonomiko» izenaz bataiatzen zuenaren →aldaera, gehiago edo gutxiago formalizatu eta explizituak: gramatika hura ere, hein batez bestalde, PSG-rekin maila ahul batez baliokidea dela esan daiteke (*phrase structure grammar*, esaldi-egituren gramatika, Chomsky 1957, 1963); diferentziarik garrantzitsuena zerean dago, egitura-zuhaitzek edo →erregela →errekurtsiboek kategoriak ere ematen dizkietela segmentuei:



Honelako sakoneko egitura batetik helduko ginateke azaleko egiturara.

Edo euskaraz etsenplua emanez gero:
Pertsonak ibiltzen dira. Pertsonak sendo daude.



Perpaus txertatuan eta nagusian agertzen diren izen-sintagmak berdinak dira. Perpaus txertatukoa ezabatzen dugularik: «Ibiltzen diren pertsonak sendo daude».
Azaleko egitura errealera heltzeko beste zenbait aldaketa morfofonemiko egin beharko genituzke.

Beherago gramatika hauen beste alderdi batzu erabiliko ditut. Baina ez litzateke zuzena izango, Harris-ek, 1952an jadanik, →transformazioen sartzearen beharra ikusi zuela esateaz gogoratuko ez bagina; geroagoko lanetan (1957, 1965, 1968) haren metodoa explizituago egiten da. Transformazioa hemen agerkidetza (cooccurrence) kontzeptuarekin lotuta dago, eta zera ematen du aditzera, formal, eta distribuzionalki, baliokide diren perpausen arteko harremana; harreman horren frogaketarako ez da esanahia erabiltzen. Halako formula erraz batez egin daiteke definizioa: eraikuntza biren gertakidetzen berdintasunetik, bion arteko transformazio-harreman bat ondoriozta daiteke. Hautapen-murrizketak muinarekiko edo forma proposizionalarekiko erreferentziaz formulatzen dira. I_1 aA-ó I_2 hirukote honetaz betetzen da: «Colón», «descubrir», eta «América». Baina I_2 «fue descubierto/a por» I_1 eraikuntza (edo beste edozein hizkuntza indogermanikoren eraikuntza →pasibo bat) betetzen duten hirukoteak, lehenengoa betetzen dutenak baina kontrako norabidean direnez gero, eraikuntza bi horiek harreman transformazional bat daukatela ondoriozta daiteke. →Eredu honek, baina, eragozpen praktiko asko dauka. Horrela, bada, formalki pasiboak diren perpausak, baina aipaturiko baldintzez perpaus aktibo bat ez dagokienak asko izanik, Harris-ek norabide bakarreko transformazio bat dela diosku:

$$I_1 \quad aA \quad I_2 \longrightarrow I_2 \quad a\text{-be} \quad A\text{-en} \quad by \quad I_1$$

Baina hemen ere salbuespenak daude:

— The wreck was seen by the seashore.
— *The seashore saw the wreck.
— It caught by it.

Transformazioen izatea ezin daiteke banaketazko propietateetatik ondoriozta eta atera. Harris-en eredu transformazionalaren ikerketa kritiko bat Plötz-engan aurki daiteke (1971); ikerbide hauen akatsen azterketa bat, itxuraz bait dira bakarrik azterbide, Abercrombie-ren izkributan irakur daitekeenez (1963).

IV. GRAMATIKA SORTZAILE TRANSFORMAZIONALA


1957an Chomsky-k hiru gramatika-eredu proposatu zituen haietatik zein den gauza hizkuntza baten perpaus gramatikal guztiak, *eta horiek bakarrik,* sortzeko galderari erantzutearren. Lehenengoa egoera finituetako makina baten lan-moldeari dagokio: egoera batetik besterako iragan-

bidean, makinak (gramatikak) lehenagotik ekoitzitako sortari informazio-unitate (morfema) berri bat eransten dio eskuinetik. Matematiketan makina hauek «egoera finitutako Markov-en prozesuak» izenaz ezagutzen dira. Chomsky-k eredu hau hizkuntza naturalak ekoizteko desegokia dela erakusten du. Zenbait egitura ezin daiteke era eta molde honetaz sor. Esate baterako, «if S_1 (sentence), then S_2» (= baldin eta P_1 —perpausa— orduan P_2). Lehendabizikoz «if» eta «then» unitateak elkarren menpe eta dependentzian daudela esan behar da; bigarrenez, S_1 era honetako formula batez ordezka daitekeela: «either S_3 or S_4» (P_3 ala P_4, orduan P_2), S_3 edo S_4 ere berriro beste formula batez ordezka daitezke, hala nola «the man who said that S_5, is arriving» (P_5 -la zioen gizona heltzen ari da) (P_5 -la formula ulertzeko inguratzen gaituzten hizkuntzen *que, that, dass* →juntagailuak, euskaraz aditzari eransten zaion /-la/ →atzizkiaren bidez adierazten dela kontutan hartu behar da), gertatua hau delarik: «if either the man who said that S_5 is arriving or S_4, then S_2» (baldin eta P_5 -la zioen gizona heltzen ari da ala P_4, orduan P_2). S_1 egondako lekugune guztietan, aipatu diren hiru egitura errekurtsiboetako baten formaz, formula berri bat beti sar daiteke. Argi eta garbi dago honelako egiturak dauzkan edozein minzaira ezin daitekeela egoera finitutako gramatika batez sor. Aplikazioaren edozein zedarriketa, eta horrekin batera edozein perpausen luzerarena, arbitrarioak izango lirateke: horregatik norabide horretan erabaki bat hartuko balitz, orduan, mintzaira bat halako gramatika batez sor zitekeen, mintzaira horren perpaus posible guztiak aipatzea izango litzateke irtenbide bakarra; eman dezagun; hizkuntza baten lexikoak 1.000.000 bat unitate baldin badauzka, eta perpaus baten luzerarik handiena hogei unitate badira, perpaus-kopururik handiena hau litzateke: $1.000.000^{20}$. Eta honelako gramatika bat interes gutxikoa gertatzen da (hala ere ikus Reich 1969). Hizkuntza baten perpausen amaigabetasuna onartzen bada zeragatik izaten da, horrek hizkuntzaren deskribapena errazten duelako. Beraz, →gaitasun sortzaile handiagoko gramatikak behar dira, eta orobat teoria linguistiko abstraktuago bat deskribapen-maila desberdinekin (Chomsky 1957, 24.or.); aipaturiko baldintzak betetzen dituen bigarren gramatika-ereduak osagaien analisian dauka oinarria (parsing). Mintzairaren perpaus bakoitza P hasierako ikur batetik irteten diren →berridazketa-erregelez (ordezkapena, →hedapena) ateratzen den →eratorpen bat da $X \rightarrow Y$; katea bat, bestalde, →amaierako deitzen da formatiboz (amaierako hiztegiko elementuak: →lexemak edo morfema gramatikalak), ez bestez, osatua denean, h.d., →hiztegi laguntzaileko inolako elementurik ez daukanean. Chomsky-k 1964ean, eta Postal-ek urte berean ere, gramatika hauek erregelak bakun baldin badira desegokiak direla erakutsi zuten; hots, textuingurua kontutan hartzen ez badute, gramatika taxonomikoetan gertatu ohi denez. Ordezkapen-erregelak, beraz, era honetara idatzi behar dira, $A \rightarrow Z/X \rightarrow Y$ (A, Z berridazten da $X \rightarrow Y$ textuinguruan), X eta Y katea hutsak ere

izan daitezkeelarik. Erregelak, beste aldetik, multzo ordenatu bat osatzen dute, eta horregatik edozein eratorpen-erregelen segida bat da (ordena hori, hain zuzen, gordetzen duten erregelen segida). Edozein eratorpen, amaiera-sorta gisa aurkez daiteke, katea bakoitza katea txikiagotan banatzen dituen parentesi-sistema batekin; eta giltza pare bakoitzak kategori →marka bana daramalarik. Modu berean, zuhaitzen bidez (diagramak, grafoak) aurkez daitezke; horietan adabegi bakoitzak bere ikur *laguntzailea* dauka, eta, adabegi horrek menderatzen duen sortaren kategoria sintaktikoa aditzera ematen digu; zuhaitzean adabegiak daukaten lekuguneak funtzio gramatikala adierazten du. Hedapen-erregela bakoitzak, beraz, harreman sintaktiko multzo bat definitzen du:

-ren subjektua: IS.P-k zuzenik menderaturiko izen-sintagma.
-ren predikatua: AS, P.
-ren aditz nagusia: A, AS.

Hona hemen, bada, diagrama bat eta erregela-sistema oso sinplifikatu bat (perpaus baten mugak adierazten dituen formatibo gramatikala da):



edo euskaraz emango bagenu: «zintasunak haurra izu dezake»

P → IS Pred
IS → (Det) I
Det → { Artikulua / ⋮ }
Pred → Lag AS

Lag → denbora (modala) (perfektiboa) (aurreranzkoa)
AS → A IS

(((sincerity) I)IS (((may)Mod)Lag ((frighten)A ((the) Artik. (boy)I)IS) AS)Pred)P. Orain arte hain modu sinplifikatuan aurkeztu dena, gramatikaren oinarrizko osagaia da; beronek ekoizten dituen egitura guztiek badute, interpretazio semantikorako, beharrezko den adina informazio funtzional. Mekanismo sortzaile honek, lexikoa ekoizpen-erregeletatik aparte uzten duen mekanismo honek (erregelek hiztegi laguntzaile batez egiten dute lan bakarrik), badauzka zenbait ezaugarri, bera PSG klasikoetatik («phrase structure grammar» klasikoetatik) berezten dutena: horietan, a) ekoizpen-erregelek multzo ordenatu bat osatzen ez dutelako; eta, b) diagramaren adabegiak amaierako hiztegiko ikurrez izendatzen direlarik, egitura sintaktikoa *sailkapen* eta *segmentazio* direlako eragiketen bidez jakin daitekeelako.

Lexikoa berezirik aztertzeak, eta halaber erregelen ordenamenduak, oinarrizko osagaia eragiten dute beronek amaieraurreko sorten multzo finitu bat sor dezan, transformazioaren eta ezarpen lexikalaren bidez errealitateko perpausa, h.d., hizkuntza errealaren perpaus mordo amaigabearen iturria izan dadin. PSG-etan perpaus errealak zuzenki sortzen dira. 1965ean lehendabizikoz egindako zenbait berrikuntza garrantzitsuz hitz egin baino lehen eredu berri honen ahalmen sortzailea ikertzen saiatuko naiz.

A) GRAMATIKAREN AHALMEN SORTZAILEAZ

Argi dago, PSG batek, egoera finitutako gramatika batentzat ezinezkoak ziren egitura-motak sor ditzakeela, gisa honetako erregela errekurtsiboen laguntzaz:

P → ab
P → aEb

Haatik gramatika hauek ere, dauden beste egitura-mota batzu sortzeko, desegokiak direla froga daiteke.

1.—Perpausak biltzeko prozesua

Elementu bera, eta funtzio berberaz perpaus biëtan, bietako batetan ezaba daiteke:

a) Allandek liburua irakurtzen du —P_1
b) Pellok egunkaria irakurtzen du —P_2
c) Allandek liburua irakurtzen du eta Pellok egunkaria (irakurtzen du) —P_3

Oztopoa gramatika hauek Markov-en egoera finitutako gertabideekin erkide dauzkaten ezaugarritan dago. PSG-etan, sortak eskuinetik ezkerrera gabe, goitik behera («top to bottom») sortzen badira ere, erregela bakoitza, sekuentzia eratorri bat dena, aldez aurretik ekoitzitako sortaren baitan dago. Baina eskuartean daukagun erregelarako, perpaus bien barne-egiturei buruzko informazioa behar dugu, P_1 eta P_2 perpausen eratorpen-historia ezagutu behar dugu.

2.—Aditz laguntzaileak

PSG batek perpausen azaleko egiturak urratsez urrats sortzen ditu, elementuak batzen dituelarik unitate konplexuagoak sortzeko (ikus 5.or.). Gramatika honek ez ditzake azal aditz-osagaiaren morfema laguntzaileen elkarketa desberdinak (ikus Chomsky, 1957, 38.or. eta hur.):

the man take + S the book

have + S take + en the book
have + S be + en take + ing the book

be + S take + ing the book

3.—Aktiboa-pasiboa

Perpausen arteko harreman honek ere, transformazio pasiboak hain modu konkretuz aldatzen duen perpausaren barne-egiturari buruzko informazioa eskatzen du: IS_{subj}-aren eta IS_{obj}-aren alderantziketa e.a.

Chomsky-k erabilitako hirugarren ereduak, transformazionalak, eta gorago apur bat azaldu dugunak, fenomeno hauen erabilkeran ahalmen sortzaile handiagoa erakusten du. Oinarrizko osagaiarekin batera osagai transformazionala dauka. Lehenengoak sakoneko →egiturak sortzen ditu, interpretazio semantikorako beharrezko den informazioa dutenak; bigarrenak, berriz, sakoneko egitura horiek azaleko bihurtzen ditu, hizkuntzaren perpaus benetako eta errealak, alegia. Honako hedakuntzaren erregela hauek (Chomsky 1957, 39. or.):

(29 iii) Lag → K (Mod) (have+en) (be+ing) (be+ren)
(K horrek laguntzailearen morfema guztien →komunztadura adierazten du) eta

$$K \rightarrow \left\{ \begin{array}{ll} S & IS_{sing}\text{-aren textuinguruan} \\ \varnothing & IS_{pl}\text{-aren textuinguruan} \\ irag & (irag: iraganaldia) \end{array} \right\}$$

egitura hauek sortzen dituzte:

the man s		take the book
	s have-en	take the book
	s have-en be-ing	take the book

eta inbertsiozko transformazio bakun bat erabiliz:

(29 ii) hiz + a → a + hiz

(a: aditza) *hiz* horrek *irag, -s, -Ø, -en, -ing* hizkiak ordezkatzen ditu).

Honelako amaierako kateak sortzen dira:

the man takes the book
the man has taken the book
the man has been taking the book

1957an deskribaturiko gramatika-ereduekin konparatuz, hauek dira «Joskera-teoriaren zenbait alderdi» delako obrak egiten dituen aldaketa eta gehitzeak:

a) Perpaus-mota seinalatzen duten adierazgailu abstraktuak sartzen dira (→baieztapena, galdera...), azaleko egituraren morfema bezala gauzatzen ez direnak, eta halaz ere zenbait transformazioren erabilera eragiten dutenak.

b) Zuhaitz jeneralizatuak sortzen dira: horrela P zera da; perpaus baten barneko beste baten txertakuntza esplikatzen duen kategoria errekurtsiboa. Orain ez dago esanahia aldatzen duen →transformaziorik.

c) Amaieraurreko sorten kategoria lexikalak (I, A...) ez dira zuzenik unitate lexikalez ordezkatzen, ikur konplexuez baizik (ezaugarri-multzoak), honelako azpikategorizazio hertsiaren erregelez osatzen direnak:

I → [± I, ± bizidun]
[+bizidun] → [± gizatiar]

esate baterako, honelako ikur konplexu bat:

$$\begin{bmatrix} + \text{ I} \\ + \text{ deitzaile} \\ + \text{ bakoiztaile} \\ + \text{ bizidun} \\ + \text{gizatiar} \end{bmatrix}$$

lexema batez ordezka daiteke, baldin eta lexema horrek matrize honetan agertzen diren ezaugarriren batekin ere kontraesanik ez badu [± bizidun],. [± abstraktu] ezaugarriak, inmanenteak dira izenean, hots, berebaitakoak, textuinguruarekiko independente. Beste batzu,

ostera, kasu batez [± —— Deit] = (±deitzaile) textuinguru kategorialarekin daude loturik, ([— —— Det]-k zera ematen du aditzera, artikuluarekin ezin elkar daitekeen izena dela, h.d., izen propioa dela); aditzak, adibidez, honela dira azpikategorizatzen: [± —— IS] (iragankor, →iragangaitz...).

d) Horrez gain, kategoria menperatuetan, ezaugarri hautakorrak daude (Chomsky-ren eritziz, adibidez, izena aditzarekiko menperatzailea da); era horretan, aditz baten ezarpena *subjektu/→objektuaren* lekugunean, ikur konplexuak dauzkan ezaugarri inmanenteen baitan dago... Horrela, Chomsky-k 1957an sintaktikoki ondo osatutzat ematen zituen perpaus asko eta asko oraingoan baztertu egiten ditu: «*zuhaitzak olerkaria laudatu zuen», «*ideia berdeek koloretsuki egiten dute lo». «Lauda» aditzak subjektuari gizatiar izatea eskatzen dio [+[+gizatiar] — —subj.] e.a...

1969an Steeinitz-ek ezaugarri hautakorren erabilkera zabaldu eta sistematizatu zuen: horrela, adberbiozko sintagmen azterketara ere zabaldu zituen. Chomsky-ren murrizketa arbitrario biren ezabatu beharra frogatzen zuelarik:

— Azpikategorizazioak adabegi berberak menperaturiko osagaien mugak igarotzen ditu: «*se cayó durante una hora» (ez errepikaria).

— Hala azpikategorizazio hertsia, nola hautakorra, ez dira kategoria lexikaletara mugatu behar; kategoria konplexuek ere honelako ezaugarriak eduki behar dituzte (AS, ADB...).

B) GEROZKO GEHITZEAK


Hemen azaldu dugun teoria, denboran zehar jasan dituen gehitze eta aldaketekin, teoria standartzat ezagutzen da (Ross, Jacobs, Rosenbaum, Katz, Fodor...), Chomsky-k 1970ean, interpretazio semantikoa ez dela sakoneko →egituren funtzioa bakarrik ontzat jotzen du, baita azaleko egituren funtzioa ere dela dio, operadore logikoen skopus eta kuantifikatzaileak bezalako fenomenoekin harremanetan, eta orobat korreferentziarekin, focusarekin, aintzinsuposizioarekin... Honek zenbatezinezko erregela interpretatzaileen formulazioa eskatzen du (beste batzuen artean Jackendorff); nire aburuz, eredua zalantzatan jartzen dutenak.

Semantika interpretatzailea sortzeko lehen saioa, 1963an egin zen. Katz eta Fodor-en eskutik, pausoz pauso, egitura sintaktikoari jarraikiz, unitate lexikaletarako lexikoan markaturiko ezaugarri semantikoak amalgamatuz doazen projekzio-erregelak formulatzen zituztelarik.

Weinreich-ek, 1966an, jokabide honen desegokitasuna utzi zuen agerian: adierazpen konplexu oso baten esanahia, egiturarik gabeko

ezaugarri-pilo bihurtzen duelako, eta halaber, hitzen eta perpausen esanahien bereztea ezinezko egiten duelako. 1972an Katz-ek interpretazio semantikorako askozaz gehiago landuriko teoria bat aurkeztu zuen, →ezaugarri semantikoak berak ere egituratuak aurkezten dituena. Zentzu honetan jadanik (1967, 1969) Bierwisch-ek lan garrantzitsu asko egina zuen.

Hasieratik ia, guztiz zirt edo zarteko bezala ikusi egin zen irregulartasun sintaktikoen erabilera (G. Lakoff 1970, Postal 1971, Perlmutter 1971...). Oztopo guzti hauek Semantika Sortzailea deritzonaren ordezkariak (Lakoff, Mac-Cauley...) joskeraren autonomiaren printzipioa uztera bultzatu zituzten, Chomsky-k 1965ean hasi zuen kategoria semantikoen erabilera azken ondorioetaraino eramanez. Joskeraren fenomeno guztiek oinarri semantikoa daukate eta ez dago joskerarik gabeko semantikarik. Oinarrizko osagaiak orain egitura semantikoak sortzen ditu. Lexikounitate bat bere esanahia irudikatzen duen parte konplexuaren zuhaitz estrukturalaren bidez eman daiteke: «Bruto mató a César» (Brutok Zesar hil zuen).



Ezin gaitezke xehetasunetan sar. Ohar pare bat aski izango dugu. Darabilten notazioa ez da, ez eta gutxiagorik ere, logikoa (ikus Bartsch

1971). Egiten dutena ez da semantika, hiztegi berri batez joskera berri bat baizik. Gehienetan, lexema, eta bera irudikatzen duen zuhaitz partzialaren arteko harremana, ez da baliokidetzazkoa, inplikaziozkoa baizik: hiltzen duenak nor edo nor hilerazten du, baina, hilerazten duen guztiak ez du beti hiltzen; gaztelaniazko «asesinar»ek, baina, subjektu egilearen egintza tartekorik gabe eskatzen bide du. Hauek eta deskonposaketa lexikalean agertzen diren beste eragozpen batzu, aditz kausatzaileen kasuan Shibatanik (1976) aztertu ditu.

V. FONOLOGIA SORTZAILEAZ AZKEN OHAR BAT

Teoria standardean bezala, hala semantika sortzailean ere, osagai fonologikoak funtzio interpretatzailea dauka; azaleko egituretan egiten du lan, joskerak ekoitzitako sortei forma edo gauzatze fonikoa ematen dielarik.

Esanahiaren unitate →bereizlerik txikienak ez dira fonemak, ezaugarri fonologikoak baizik. →Fonema bakoitza ezaugarri-matrize batez irudikatzen da. Halaz ere, fonemak beti dira segmenturik txikienak. Ezaugarri →bereizleak hauek dira adibidez, ± bokalezko, ± kontsonantezko, ± teinko, ± ozen...

Textuinguru fonemiko edo morfemikoaren arabera, eta prozesu (morfo-) fonemikoen laguntzaz, segmentu batek bere ezaugarri-→matrizean jasaten dituen aldaketen berri eman daiteke, dela sinkronikoki, dela diakronikoki; →asimilazioa (→bustidura, ezpainkaritzea, sudurkaritzea, →bokal-harmonia), →neutralizazioa, diptongazioa...

$$\begin{bmatrix} + \text{ Kontsonantezko} \\ + \text{ etengabe} \\ + \text{ aurreko} \\ - \text{ ozen} \\ \vdots \\ \vdots \\ \vdots \end{bmatrix} \rightarrow \varnothing / \neq \begin{bmatrix} + \text{ kontsonantezko} \\ + \text{ sudurkari} \\ + \text{ horzkari} \\ \vdots \\ \vdots \\ \vdots \end{bmatrix} \text{ ez naiz} \rightarrow \text{enaiz}$$

Fonologia sortzailearen apartatu formalerako sarrera bikaina, S.A. Shaneren baitan (1937) aurki daiteke.

Itz.: *Andolin Eguzkitza*

BIBLIOGRAFIA

BAR-HILLEL, Y.: *Language and Information*. Massachusetts 1964 (1973 [3]).
BARTSCH, R.: Zum Problem pseudo-logischer Notationen in der Generativen Semantik, in *Beiträge zur Linguistik und Informations-Verarbeitung*, 13 (1971).
BIERWISCH, M.: *Eine Hierarchie syntaktisch-semantischer Merkmale. Studia Grammatica V.* Berlin 1965.
— *Some Semantic Universals of German Adjectivals*. FL. 1 (1967).
— *On Certain Problems of Semantic Features*. Berlin 1967.
BLOOMFIELD, L.: *Language*. New York 1933 (London 1955).
BOAS, F.: *Handbook of American Indian Languages*. Washington 1911.
BULL, W. E.: *Time, Tense and the Verb*. Berkeley, Los Angeles 1958.
CHOMSKY, N.: *Syntactic Structures*. s'Gravenhage 1957.
— Formal Properties of Grammars, in *A. D. Luce / R. Bush / E. Galenter* (ed.) 1963.
— *Three Models for the Description of Language*. 1956 (Zuzendurik aldizkari honetan R. D. Luce / R. Bush / E. Galenter 1965).
— *Aspects of the Theory of Syntax*. Massachusetts 1965.
— Remarks on Nominalization, in *Jacobs / Rosenbaum* (eds.) 1970.
HARRIS, Z. S.: *Discourse Analysis*. Lg. 28 (1952).
— Co-occurrence and Transformation in *Linguistic Structure*. Lg. 33 (1957).
— *Transformational Theory*. Lg. 41 (1965).
— *Mathematical Structures of Language*. London 1968.
FRIES, C. C.: *The Structure of English*. N. Y. 1952 (London 1963).
HOCKETT, C. F.: *A Course in Modern Linguistic*. N. Y. 1959.
KATZ, J. J.: *Semantic Theory*. N. Y. 1972.
KATZ, J. J. eta FODOR, J. A.: *The Structure of a Semantic Theory*. Lg. 2 (1963).
KORZYBSKI, A. H.: *General Semantics*. Chicago 1949.
LAKOFF, G.: *Irregularity in Syntax*. N. Y. 1970.
PERLMUTTER, D. M.: *Deep and Surface Structure Constraints in Syntax*. N. Y. 1971.
PLÖTZ, S.: Über die transformationelle Theorie bei Harris, in *Stechow* (argit.) 1971.
POSTAL, P. M.: *Cross-Over Phenomena*. N. Y. 1971.
SAPIR, E.: *Conceptual Categories in Primitive Languages*. Science 74 (1931).
— The Status of Linguistics as a Science, in *Selected Writings of E. Sapir*.
SHANE, S. A.: *Generative Phonology*, N. Jersey 1973.
SHIBATANI, M. (ed.): *Syntax and Semantics. The Grammar of Causative Constructions*. 1976.
STEINITZ, R.: *Adverbialsyntax*. Berlin 1969.
WEINREICH, U.: *Explorations in Semantic Theory*. The Hague, Paris 1966.
WELLS, R. S.: *Immediate Constituents*. Lg. 1947.
WHORF, D. L.: *Language, Thought and Reality*. N. Y. 1956.

Etekin funtzionala

rendimiento funcional / rendement fonctionnel / functional load

→Aurkakotasun baten *etekin funtzionala* da, hizkuntza batetan ematen den aurkakotasun batek duen gaitasuna, aurkakotasun honen arabera egiturariko serie paradigmatiko sail handiago edo txikiago batetan zertzeko. Hortaz, hizkuntzaren funtzionamenduan aurkakotasun batek duen garrantzia da. Horregatik, hain zuzen, batez ere →linguistika funtzional baten ikuspegitik plantea daiteke aurkakotasun baten etekin funtzionalaren arazoa. →Funtzio-nozioa batera dator hizkuntz pertinentzi nozioarekin: →esakuneko elementuetatik, informazioa dakartenak dira →bereizleak, ez automatismoen indarrez daudenak. →Esakuneko elementu bat funtzioari begira bakarrik izango da linguistikoa.

Etenaldia

pausa / pause / pause

Sin.: PAUSA

Katea mintzatuan barrena, isiluneak gertatu ohi dira eskuarki, etenaldiak alegia. →Intonazioaren alderditik, beheranzko →inflexio bat izaten da etenaldiaren aurretik, nabarmenago edo izkutuago. Zenbait hizkuntzatan, eta errusieraz bereziki, *etenaldi/etenaldirik ez* →oposizioak, balio →bereizlea izan dezake: lehen perpausean bi terminoren segida hutsa izango dugu; bigarrenean, aldiz, bion artean halako kidetza sortuko.

Ondorio fonologikoen aldetik, kidetzat eman daitezke etenaldia eta →kontsonantea; eta, horregatik kontsonanteen artean agertu ohi da →sinboloa. Italieraz, esate baterako, kontsonante geminaturik ez dago kontsonante ondoren, eta etenaldiaren ondoren ere ez.

Hau dela eta, →erregela hau proposatu du →*Weinrich*-ek: →fonema bat kontsonante ondoren ez dagoenean, etenaldiaren ondoren ere ez dago.

Etengabea

continuo / continu / continuant

Sin.: JARRAIA

→Soinu baten →ebakera laringeko airea (partzial nahiz osoki) etengabe iraganez gertatzen bada, soinu hori etengabea dela esaten da. →Bokalak etengabeak dira, baita →herskari, →afrikatu eta →dardarkariez beste →kontsonante guztiak ere. →Bokalen, →erdikontsonante eta →erdibokalen eta →igurzkarien kasuan, ez da ahots-bidearen hersterik ematen. →Aldekarien eta →sudurkarien kasuan, gertatzen da hersterik aho mailan, baina aldi berean airea pasatzen da, dela aho-barrunbetik barrena herstearen bi aldeetatik, dela sudurtzuloetatik barrena.

Kontsonante etengabeei «sonante» edo «iraunkorrak» ere esaten zaie, «mementukoei» aurkajartzeko.

Etikoa

ético / éthique / ethic

→Hiztunak →ekintzan hartzen duen arreta adierazten duen →datiboari esaten zaio datibo etikoa. Adibidez, *Hori egiten baduk...* esan ordez, *Hori egiten badidak neri...* esaten denean, *neri* hori datibo etikoa da.

Etimologia

Etimologia, hitz batek bere etorki den beste unitate zaharrago batekin dituen erlazioen ikerketa da.

I. AINTZINAKO ZENTZUAK

Etimologia, Greziar aintzinatean, →hitzen egiazko izaera hautemateko balio duen «benetako» edo funtsezko zentzuaren bilaketa da. Ikusmolde hau, hitzen forma adierazten dituzten objektuei benetan eta naturalki dagokielako ustean oinarritzen da. Onomatopeiazko jatorririk aurkitzen ez zaion hitza, beronekin nolabaiteko forma-antza duten eta beraren zentzu zehatza agertuko luketen beste unitate batzuri alderatzen zaie, edo beste hitz batzuren →silabatara jotzen da, horien konbinazioa esanahiduna izango delakoan: horrela, *Dionusos didous ton oinon,* «ardoa ematen duena», *cadaver ca(ro) da(ta) ver(mibus),* «harrei emanda haragia».

Erdi Aroan, hizkuntza guztiak hizkuntza ezagun eta jakin batetik datozelako ustean oinarrituriko ikerkuntza da etimologia. Letrak tokiz aldatuz, kenduz, erantsiz edo ordeztuz iragaten zen hizkuntza batetik bestera.

II. ZENTZU MODERNOAK

→Eratorpenari buruzko ikerkuntzan, etimologia hitzen eraketaz arduratzen den disziplina da, zeinaren bidez unitate berriagoak jadanik ezagunak diren hitze-

tara bihurtzen bait dira: honela, *eraman eman* →aditzetik eratorria dela azalduko da.

→Linguistika historikoan, betekizun bezala hitzen bilakabidea azaltzea duen disziplina da etimologia; horretarako iraganaldi ahalik eta urruneneraino joan behar da —sarritan aztertu hizkuntzaren mugak ere gaindituz— etymon izeneko unitatera iritsi arte. Etymon delako horretatik eratorrerazten da forma modernoa. Hizkuntza erromanikoen kasuan, batez ere latinera joko da etymon delakoaren bila.

Linguistika modernoaren ikuspegitik, etimologiaren egitekoa ezin muga daiteke hitz baten edo hitz-multzo baten →erroaren bilaketara. Izan ere, hitz bakoitzari, hizkuntzan integratu zenetik, sartzen den erlazio-→sistema guztietan jarraitu behar zaio, etengabe etimologia hertsiki deituari dagozkion galderak eginez. Lehenengo erlazio-saila hitza kokatzen den →eremu semantikoetako unitateekin ezartzen da. Etimologia estrukturalak era honetan, zalantzan jartzen du neurri batetan →Saussure-k definitutako →zeinuaren hautazkotasunaren teoria: izan ere, ezaugarri formal batzuren eta zentzuinbariante batzuren artean erlaziorik badagoela egiaztatzen bait da (greziar filosofoen asmoetara bihurtzen gara berriro, bide zehatzagotik bada ere). Hitzaren formak azaltzen du batzutan, erlazio-sistema konplexu baten barruan, azkenean hartzen duen zentzua.

III. HEDADURAZKO ZENTZUA

Etimologia esaten zaio *etymon* delakoari ere, eta baita etymon-etik hitz eratorrira iritsi arte gertatu diren hurrenez hurrengo eboluzioei (historiari) ere.

IV. ETIMOLOGIA HERRITARRA

→Hiztunak, ohartuki nahiz ohartzeke antzekotasun formal batzutan oin harturik, forma jakin bat beronekin inolako jatorri-ahaidetasunik ez zuen beste forma batekin erlazionatzen duenean, *etimologia herritarraz,* edo *etimologia gurutzatuaz,* hitzegiten da.

Etnolinguistika

etnolingüística / ethnolinguistique / ethnolinguistics

→Hitzaren zentzu zabalean, etnolinguistika →soziolinguistikaren atala da, hizkuntza, kultura baten adierazpen den aldetik eta →komunikazio-→egoerari begira aztertzen duena. Komunikazio-egoeraren estudio oso bat egitea zaila denez gizarte modernoetan, etnolinguistika, →esanahi-lerrakuntza bat dela tarteko, gizarte «primitibo» direlakoei aplikatzen zaie funtsean.

→Linguistikaren eta mundu-ikuskeraren arteko harremanei dagozkien problemak aztertzen ditu etnolinguistikak. Seri-ren sistemak (Mexiko), adibidez, hiltzen dena gizakia izan ala animalia, →aditz desberdinak dauzka *hil* kontzeptua emateko; euskaraz ere gauza bera gertatzen da: pertsonak *hiltzen* dira; animaliak *akabatu* egiten dira. Hor, mundua antolatzeko era berezia agertzen da. Bigarren arazo-saila mintzairari eta hizkuntzei herri jakin batek ematen dien lekuari dagokio (ea mintzairari buruzko mitologiarik, edo-ta tabu linguistikorik dagoen ala ez).

Hizkuntza desberdinak dituzten herrien arteko komunikazioak edo herri meneratu batek bi hizkuntza edo gehiago erabiltzeak (eleaniztasunak) sortzen dituen problemez ere arduratzen da etnolinguistika.

Oro har, egitura linguistikoen eta gizarte-egituren isomorfismoaren problema da etnolinguistikaren ikergai nagusia.

Eufemismoa

eufemismo / euphémisme / euphemism

Beren gordintasunean azalduz gero min eman dezaketen →ekintza nahiz ideiak adierazteko erabiltzen den edozein era leundu edo gozatu da eufemismoa. Eufemismoa, esan nahi denaren kontrakoa adierazten duen →hitz nahiz →esaldi bat erabiltzera irits daiteke.

Eufonia

eufonía / euphonie / euphony

Eufonia, →soinu entzuteko atseginen tasuna da; horri zor zaio, alboko edo hurbileko →fonemen eraginez gertatzen den zenbait →aldaketa fonetiko. Eufonia →asimilazio-eragile izan daiteke, kontraste fonetiko gozagaitzak saihesteko, edo alderantziz →disimilazio-eragile, errepikapen jasangaitz batzu baztertzeko.

Europako estrukturalismoa

Andolin Eguzkitza

Europar linguistika estrukturalistaz hitz egiteak, eta are gehiago XX. mendeko hizkuntzalaritzaz mintzatzeak, gizon baten izena aipatzera behartzen gaitu halabeharrez: Ferdinand de Saussure; bera bait da hizkuntzalaritza modernoaren oinarri eta habe nagusia: eta Saussure aipatzeak, ostera, haren «Cours de linguistique générale» gogora ekartzea esan nahi du. Gizaldi honetako hizkuntzalaritzaren zimentarri eta iturburua liburu hori delako, izan ere.


Hizkuntzalaritzari norabide berri bat ematen hasi ziren lehenak «die Junggrammatiker» (neogramatikariak) izan ziren; berauek, konparatzaileek ez bezala, zientzia historiko bat sortu bait zuten. Konparatzaileak, hizkuntzak →lege fonetikoen eraginengatik deseginez doazen printzipioan finkaturik, elementuen erkaketaz bakarrik zeuden interesatuta. →Saussure-k, berriz, printzipio hura errotik ukatzen zuen, haren ustez, hizkuntzek edozein bilakaera jasanda ere beti bat dirautelako, →komunikazioa bait da daukaten →funtzio nagusi eta bakarra.

I. SAUSSURE-REN EKARRIA

Genevako irakasleak hain maisukiro mugatu zuen hainbeste kontzepturen artean, geroko hizkuntzalaritzan sortu dituzten ondorio oparo eta eztabaidengatik oso garrantzitsu gertatu diren batzu aipatuko ditugu:


A) MINTZAIRA - HIZKUNTZA - HIZKETA

Zientzia linguistikoaren objektuaren bilaketan saiatzen garenean, hiru kontzeptu hauek berezten ditugu; eta geroko eztabaidak eta guztiz ere, honela sailka daitezke:



Mintzaira giza-ahalmen edo mintzamen gisa definitzen du, h.d., gizaki bakoitzak hizkuntza baten bidez komunikatzeko daukan ahalmen gisa; aparatu fonatzailearekin zer-ikusirik ez duena. Gizakiari berezko datxekiona ez bait da mintzaira mintzatua, hizkuntza sortzeko ahalmena baizik; hots, →zeinu desberdinen sistema edo mintzaira artikulatua, alemaniarrek «gegliederte Sprache» deitu ohi dutena. Horregatik dio mintzaira dela hizkuntzalaritzaren objektua; mintzairarekin zer-ikusirik daukan guztia, alegia.

Hizkuntza-hizketa →aurkakotasunaz, berriz, lehenengoa mintzairaren gizarte-alderdia dela eta, pertsonala bigarrena esan dezakegu; komunikazioan lehendabizikoa oinarrizkoa, eta zorizkoa bigarrena. Saussure berarekin batera, komunikazio-egintza baten azterketaz ikusiko dugu zer den bata, eta zer bestea. Eman dezagun:



Pertsona bi, A eta B. Bien buruetan kontzeptu batzu daude, irudi akustiko batzuekin loturik. Edozein komunikazio-egintzatan bi gertabidemota agertzen dira: gertabide fisikoak eta gertabide psikologikoak. Fisikoak, fonazioa eta entzutea, noski; eta psikologikoak, →kontzeptu eta irudi akustikoen →elkargoa. Komunikazioa lortzen bada beraz zeragatik da: A-k eta B-k, irudi berberez kontzeptu berberak estekaturik darabiltzatelako; hizkuntza berbera —mintzairaren alderdi soziala— darabiltelako.


Hizkuntza, Saussure-k dioen legez, «altxor bat da, mintzatzearen bidez gizabanako bakoitzak egina; eta, era berean, gramatika-→sistema bat, birtualki gizatalde bateko pertsona bakoitzaren buruan dagoena. Hizkuntza ez bait dago inorengan osorik, osoa guztiengan agertzen bait da».

→Hizketa zer den, orduan, berez ikusten da: hots, komunikazio-egintzetan →hiztun bakoitzari dagokiona, gizabanakoarena dena, hiz-


kuntza baten erabilera batbedera; horregatik esan dugu gorago pertsonala eta zorizkoa dela, hiztun bakoitzari dagokiolako, alegia. Laburtuz, beraz, gizatalde baten zeinu-→sistema linguistiko gisa defini daiteke hizkuntza —irudi akustiko bat eta kontzeptu bat lotzen dituzten zeinuen sistema—; eta hizketa, berriz, haren →aktualizazio faktiko pertsonal gisa.

B) ADIERAZLEA - ADIERAZIA

Oraintxe bertan hizkuntza zeinu-sistema linguistikoa dela, hots, zeinu linguistikoz osaturiko sistema dela esan dugu. Zer da, ordea Saussure-ren baitan zeinu linguistikoa? Lehenago ikusi dugunez, irudi akustiko baten eta kontzeptu baten elkargoa; eta ez egunoroko hizketan ulertu ohi denez, irudi akustikoa bakarrik. «Etxe» zeinuak bi alde dauzka; batetik [eče] irudi akustikoa, eta bestetik «etxe» kontzeptua euskaraz.



Irudi akustikoa «→adierazle» («signifiant») deitu zuen Genevakoak, eta kontzeptua, ostera, «→adierazi» («signifié»). Autorearen ustez, bestalde, zeinuak bere osotasunean, *adierazle →adierazi* den osotasun horretan, aurkakotasunez, oposizioz, edo-ta diferentziez bakarrik dauka baliorik, hizkuntzaren zeinu bakoitza beste zeinuek mugatua eta inguratua agerten bait da:



Honegatik, dio, hizkuntzan diferentziak baizik ez dago; zeinu bakoitza bera inguratzen duten beste zeinuak ez direna bait da bakarrik. Eta horregatik ere hainbesteko garrantzia duen baieztapen hau egiten: hizkuntza ez da «→substantzia», «→forma» hutsa baizik.

C) SINTAGMATIKA - PARADIGMATIKA

Edozein hizkuntza-egoeratan bi harreman-mota gertatzen dira: harreman sintagmatikoak eta harreman paradigmatikoak. Biak dira gure

buru-ekintzaren produktu: hizkuntzak duen lerrozkotasunean finkaturik lehendabizikoak, eta oroimenean gauzak eta →hitzak elkartzeko eta egituratzeko gizakiak duen ahalmenean bigarrenak.

→Sintagma bat bata bestearen ondoan dauden bi unitatez edo gehiagoz osatzen da:

gure kontra, berrikusi (ber-ikusi)...

eta sintagmen barruko edozein unitatek, aurreko zein atzekoarekiko, edo -ta biekiko, →aurkakotasunez bakarrik hartzen du baliorik. Hortik «Cours»eko baieztapen hau: harreman sintagmatikoak «in praesentia» direla; paradigmatikoak, aitzitik, «in absentia». Zeren-eta paradigma hizketan ageri ez diren unitateez osatzen bait da; eta unitate horiek elkarren trukagarri bait dira. →Paradigma bat molde askotakoa izan daiteke: formaren arabera, esate baterako, /-kuntza/ atzizkia duten euskarazko izen →abstraktu guztiek osa dezakete:

irakaskuntza, sorkuntza, hezkuntza...

edo →esanahiaren aldetik, kasu batez, «jatea»rekin zer-ikusia duten terminoak:

bazka, elikadura, jaki...

Zein diferentzia dago orduan sintagmen eta paradigmen artean? Lehenengoek elementu →mugatuak eta ordenatuak eskaintzen dituzte; paradigmek, ostera, ez mugatu eta ez ordenatu diren elementuak.

D) SINKRONIA - DIAKRONIA

Azkenez Genevako hizkuntzalariak ikerketa sinkroniko, edo unean uneko, eta ikerketa diakroniko (edo historikoaren) artean proposatzen duen apurtura absolutuari emango diogu begirada bat.

Haren eritziz, apurtura ezagun horren oinarri nagusia balioen kontzepzioan datza; zientzia linguistikoan balioen bidez egiten bait da lan, eta balio horiek unean uneko →egoerek mugatuak izanik, denboran zehar hedaturiko azterketa ezinezko egiten bait dute. Ekonomian, kasu batez, eta haren etsenplu bati jarraituz, balioak denboran zehar segi daitezke; ez, ordea, hizkuntzalaritzan. Balioak gure zientzian, ekonomian ez bezala, hutsak bait dira; hots, naturarekin inolako loturarik gabekoak. Horregatik hizkuntza ardatz bitan ikertu behar dela defendatzen du, jarraikotasunaren ardatzean, edo →diakronian; eta bateratasuneko ardatzean, edo →sinkronian. Eta ikusmolde horri jarraikiz, bi linguistika-mota sortu behar dira: hizkuntzalaritza sinkronikoa, eta hizkuntzalaritza diakronikoa.

Bestalde, hizkuntzaren gauzak aztertzen baditugu, hiztuna hizkuntzaren jarraikotasunari ohartzen ez zaiola behingoan konturatzen garelako,

«Cours»ak zera proposatzen du: edozein hizkuntza-egoera ikertzen duenak, erabat behar duela diakronia ahantzi. Are gehiago, linguistika bien arteko apurtura osoa da; gertakari diakronikoak beren baitan zuzenesten direlako, eta helburu-sistemaren aldaketa funtzionala ez dutelako. Izan ere, diakroni gertakarietan elementuak dira aldatzen, ez →funtzioak. Alemaniera zaharrean, «ostari» edo «arrotz» honela esaten zen →singularrean eta →pluralean:

Gast ——— Gasti

eta gaur egungo alemanieraz, berriz, aurkakotasun hori honela egiten da:

Gast ——— Gäste

Hor ikusten da ederto goian esandakoa, h.d., elementuak aldatu direla, ez ordea funtzioa; gertatu den fenomeno bakarra hauxe delarik:

Sing.		Plur.	
x	———	x	1. denboraldia
↓		↓	
x	———	x	2. denboraldia

Horrez gain, edozein hizkuntza-egoeratan ustegabekotasuna berehala ikusten da, eta gertakari diakronikoen eta sinkronikoen arteko maila-diferentzia, fenomeno honetan uzten da agerian: diakronian termino bakar bat interesatzen zaigu, itxura berria ager dezakeen zaharrak ostendu behar duelako; sinkronian, aitzitik, edozein gertakari da esanahitsu; lehengo adibidean plurala ez zen, etsenpluz, «Gäste» terminoaz adierazten, «Gast ——— Gäste» aurkakotasunaz baizik.


Bukatzeko, hona hemen hizkuntzalaritzaren sailkapen egokia Saussure-ren arabera:

mintzaira { hizkuntza / hizketa } { sinkronia / diakronia }

Saussure-ren ondoren, «kurtsu»aren apailatzaileak izan ziren Genevan haren irakaskuntzari jarraipena eman ziotenak: 1939rarte Bally-k, eta 1939tik 1945erarte Sechehaye-k; gero Frei-k hartu zuen zuzendaritza. Genevako eskola honen lanak Saussure zenaren altxorraren gordetzaile-funtzioa bete du gehienbat, eta 1941ean sortu zenez geroztik «Cahiers Ferdinand de Saussure» aldizkaria izan da haren bozeramailea.

II. SAUSSURE-REN ONDOKO JOERAK

Genevako irakaslearen kurtsuak joera nagusi bi ukan ditu jarraitzaile: alde batean →*glosematika,* edo →Kopenhave-ko eskola; eta, →Pragako eskolan zehar, →*funtzionalismoa* bestean:



A) GLOSEMATIKA

Hiru dira Kopenhave-ko eskolaren ordezkaririk aipagarrienak (ikus *Glosematika)* Viggo Brøndal, H. J. Uldall, eta eskola hartako bururik ezagunena izan zen Louis Hjelmslev.

1.—Brøndal

Viggo Brøndal-ek (1887-1942) hizkuntzalaritzaren barrutian lan historiko batez bere bidea 1917an hasi bazuen ere, ez zuen 1931rarte, Louis Hjelmslev-ekin batera «Kopenhave-ko zirkulu linguistikoa» sortu arte, bere bizitzaren denboraldirik interesgarriena hizkuntzalari bezala ireki; garai honetan, eta hil arte, bere «Essais de linguistique générale» idatzi bait zuen. Logikarekin axolaturik, haren kezkarik handienetariko bat hizkuntzaren →kategorien arazoa izan zen, eta gai horretaz idatzi zuen lanean dioenez, lau dira oinarrizko kategoria horiek: *relatum*-a, *relator*-a, *descriptum*-a *eta descriptor*-a. Izen bat adibidez hau da haren ustez:

relatum + relator

eta *relator* baten eta *descriptor* baten batuketa, berriz, →aditz bat.

Bestalde, «La linguistique structurale» deritzon artikuluan dioen legez, XIX. mendeko kumea zen hizkuntzalaritza konparatzaileari aurkajarriz, hiru zimentarri dauzka linguistika estrukturalistak: sinkronia, hizkuntzaren kontzeptua eta egitura. Eta hori hiru arrazoirengatik. Antipositibista izanez, lehenik, zientziaren objektua edozein egoeratan isolatzeko, eta, era berean, egoera batetik bestera jauzi ustegabeez igarotzeko gauza delako. Bigarrenik kasu guztien abstrakzio gisa hizkuntza aurkitu duelako. Eta egitura, azkenez, elementu guztien elkarren arteko menpekotasuna, Saussure-ren sistemaren kontzepzioan eriden duelako.

2.—Uldall

Uldall, Hjelmslev-en laguntzailea izan zen; elkarrekin lehendabizikoz, «On the principles of phonetics» saiotxoa fonetikarien batzarrean aurkeztu zuten. Eta geroago Uldall-ek berak «Glosematika» izenaz bataiatu zuen iker-sailari buruz, bien artean lana aurrera eramatea projektatu zuten. Uldall-ek 1957an, hil zen urtean hain zuzen ere, argitara zuen bere partea: «Ouitlines of Glossematics»; ez, ordea, Hjelmslev-ek, 1965ean hil arren bere atala burura gabe utzi bait zuen.

3.—Hjelmslev

Louis →Hjelmslev-en obrarik garrantzitsuena 1943an argitaratu zen, «Mintzairaren teoria baten hasikinak»; baina 1953an ingelesera itzuli zen arte (lehen argitarapena danieraz egin bait zen), ez zen lar ezaguna izan. Haren aburuz, benetako hizkuntzalaritza bakarra, hizkuntzari berez dagokionaz arduratzen da, hizkuntzari propio zaionaz, h.d., beraren egitura «sui generis» hori kontutan hartzen duena.

Horretarako, egiazko teoria linguistiko hori eraikitzeko, →*glosematika* alegia, bere lanean proposatzen duen teoriari, «enpirismoaren printzipioa» betetzea eskatzen dio; alegia, ez-kontraesanezkoa, osoa eta ahalik bakunena izatea. «Enpirismo» terminoa badarabil ere, ez du horrek esan nahi enpirismoak eskatu ohi duen indukzio-bidea eta indukzio horri datxekion sintesia ontzat ematen dituenik, ezta gutxiagorik ere, zera baizik: errealitatearen azterketa bat eskatzen dela; eta hizkuntzalaritzaren esparruan gabiltzalarik, textuaren azterketa. Teoria, bestalde, ez da, haren eritziz, errealitatearen baitan definitzen, beraren baitan baizik, h.d., ez da hipotesi bat —edo-ta hipotesi-multzo bat— esperientziaren arabera ontzat ala txartzat jo daitekeena, sistema itxi bat baizik, ondorioztapenez egiaztatzen den ala ez ikus daitekeena. Baina inolaz ere egiaztapen horren baitan izaten ez dena.

Textua aztertzeko orduan, textu hori nola bana: horra hor sortzen zaigun arazorik larriena; baina berak esan bezala problema ez da objektu bat banatzea, osotasunaren harreman eta menpekotasunak argitzea baizik. Hori zaio hizkuntzalaritzaren benetako jomuga. Haren ustez hiru dira harreman-mota horiek: 1. elkarren arteko menpekotasuna adierazten dutenak, edo *dependentziak;* 2. elementu batek beste bat inplikatzen duen kasuak, baina ez alderantziz, edo *determinazioak,* eta 3. elkarren arteko menpekotasunik adierazten ez dutenak, edo *konstelazioak.* Harremanak *funtzio* deitzen ditu, eta harremanen elementuak *funtiboak.* Funtzio horien artean bi dira batez ere aipatzekoak: *«eta» funtzioa,* hots, konjuntzio edo →juntagailua; eta *«ala» funtzioa,* edo disjuntzioa. Lehenengoa textuan gertatzen da; bigarrena, berriz, sisteman, hizkuntz errealitate normala textua delarik, eta sistema, berriz, atzean dagoen egituraketa.

Lehenengo funtzio hori textuan gertatzen dela esaten da, bertan nahi den beste unitate, bata bestearen atzean, ager daitekeelako; eta bigarrena, berriz, sisteman, unitate bakoitza besteekin paradigma baten osagaiak izanik, bata erabiltzen bada bestea ezin erabil bait daiteke, hots, «bata ala bestea».

Bestalde, Saussure-ren baieztapen famatu hura onarturik: «hizkuntza ez da substantzia, forma hutsa baizik», eta zeinu linguistikoak hizkuntzan agertzen diren unitaterik txikienak ez direla kontutan hartuz —fonemak eta semak bait daude hor— hizkuntzak bi maila dauzkala dio, →*adierazpena*ren maila eta →*edukinarena,* substantzia eta formaren arabera bereiz daitezkeenak:

	Substantzia	Forma
Adierazpena	eremu fonikoa edo soinuak	fonologia
Edukina	semantikaren eremua	kontzeptuak

Zeinu linguistikoa bera baino txikiagoak diren unitate horiei →*figura* deritze, eta amaigabeko diren zeinu linguistikoak, zeinu ez diren unitatekopuru mugatu batez osatuak izatea, egitura linguistikoaren ezaugarririk interesgarrien eta garrantzitsuenetakotzat jotzen du. Horrez gain, hitz bakoitza, edo-ta silaba bakoitza, behin baino gehiagotan ager daitezkeelako, →*aldaera* deitzen ditu: elementu horiek osatzen dituzten unitateak, berriz, *inbariante*. Adierazpenaren mailako inbarianteak, adibidez, fonemak dira. Inbarianteak isolatzeko, eta hizkuntza bakoitzaren kategoriak aurkitzeko erabiltzen den eragiketa →*trukaketa* da. Horrela, bada, eragiketa honen bidez gertaturiko maila batetako edozein →aldaketak, beste unitate bat sortzen du beste mailan ere, dela adierazpenean, dela edukinarenean, eta desberdina da. Eman dezagun:

etsi → etzi

Antzekotasun eta desberdintasun linguistikoak, azkenez, formaren arabera juzkatu behar direla dio; substantzia, berez, formarekin ezkondu eta lotu baino lehen forma gabeko masa bat besterik ez delako: eta horregatik, forma linguistikoa deskribatzen bada bakarrik, gerta daiteke substantzia azterketa linguistikoaren helburu.

B) FUNTZIONALISMOA

→*Praga-ko eskolan* gauzatu zen, bestalde, Geneva-tik sortu zen bigarren joera (Ikus *Praga-ko eskola),* Praga-ko Zirkulu Linguistikoak egindako lanak bait dira XX. mendeko europar hizkuntzalaritzaren beste

zutabe garrantzitsua. Haren ideiak ondo ezagutzeko, lankideek egin zuten agiriaren hiru tesi ezagunenen berri emango dugu; agiriak zeuzkan bederatzietatik, hiru horiek bait dira hizkuntzalaritza orokorraren arazoez ari izan zirenak.

1.—Praga-koen lehenengo tesia

Lehen tesian hizkuntzaren burutapenaz dihardute, eta diotenez hizkuntza sistema funtzionaltzat jo behar da, h.d., helburu batetarako egoki den adierazpide-sistematzat, izan ere, →Jakobson-ek beranduago errepikatuko du gauza bera: hizkuntzan «zertarakoa» garrantzitsuago dela, «zergatikoa» baino. Ideia horri sistemaz zuten kontzepzioa gehitzen diote: «ezin daiteke hizkuntzaren ezein fenomeno uler, fenomeno hori sarturik dagoen sistema kontutan hartu gabe», eta orobat ikerketa sinkronikoari lehentasuna ematen, azterketa linguistikoa kontzientzia linguistikoan finkatzen bait da. Horregatik, deskribapen sinkronikoak ez omen du diakronikoa eragozten, edozein hizkuntza-egoeratan elementu desberdinak bizi bait dira, batzu emankorrak, beste batzu →arkaismotzat jotzen direnak, eta abar. Azkenez metodo konparatzailea ukitzen dute, haien ustez azterketa konparatzailearen azken jomugak hizkuntza guztien tipologia osatzea izan behar duelako. Era horretan Jakobson-ek «odol-ahaidetasuna» eta «ezkon-ahaidetasuna» bereizten ditu; eta horren arabera Troubetzkoy-k →hizkuntz familiak (Sprachfamilien), oinarri lexiko eta gramatikal berberak dituztenak, eta hizkuntz loturak (Sprachbünde) egitura sintaktiko, morfologiko eta fonologikoetan antz handia dutenak bereizten ditu.

2.—Praga-koen bigarren tesia

Bigarren tesiaren bidez sistema linguistiko baten azterketak eskatzen duena argitzen saiatzen dira. Hizkuntzaren alderdi fonikoa ikertzean hiru modutara berezi behar da →soinua, haien eritziz: objektu fisiko objektiboa den aldetik, →irudikapena den aldetik, eta sistema funtzionalaren elementu den aldetik. Era berean azterketa akustikoak artikulazio-azterketak baino garrantzi handiagoa izan behar duela, eta fonologia sinkronikoak fonemak eta beren arteko harremanak arakatu behar dituela uste dute; eta halaber morfologiaren eremuan diferentzia fonologikoen erabilera →morfonologiaren lana dela. Azkenean aipatzen duten «izendatze edo onomatologia linguistikoaren teoria» ere aipa dezakegu, haientzat hitza, ikuspuntu funtzionalista batez, ekintza izendatzailearen emaitza bait da, eta hitzaren izate autonomoa, behar filosofiko gisa ikusi behar delako. Norabide horretan sarturik, hitzak nola elkartzen diren ikertzeak ekintza sintagmatikoaren arakatzera bultzatu zituen eskolakideak.

3.—Praga-koen hirugarren tesia

Tesi honetan hizkuntzaren funtzio-desberdinak erideten ahalegintzen dira. Lehendabizikoz, barne-hizkuntzaren eta hizkuntza ageriaren artean berezketa egin behar dela defendatzen dute, eta, hizkuntzaren errealitatearekiko harremanak kontutan harturik, funtzio bi berezten dituzte: komunikazioa eta poesigintza. Lehenengoan →esakunea adieraziari zuzentzen zaio; bigarrenean, ostera, →adierazleari. Eremu honetan funtzioen hierarkizazioa da arazoa. Tesiaren bigarren atalean, berriz, literatur mintzaira aipatzen dute eta honela ezaugarritzen: batetik bizitza kultural eta zientifikoan jokatzen duen betekizun nagusiaren bidez; eta, bestaldetik, polizia sozialaren erregelen azpian egoteak ematen dion gogortasun eta tinkotasunaren bidez. Horrez gain, hizkuntz molde horrek dituen zabalkunderako, edo-ta →koine bat izateko, joera eta orobat klase menperatzailearen tresna izateko ganua ere ez dute haren ezaugarrien artean ahazten. Amaitzeko, mintzaira poetikoa tradizio poetikoaren gordelekutzat, eta gizabanakoaren sortze-lan bakoitzeko hizkera poetikoaren oinarritzat jotzen dute; eta mintzaira poetikoaren eta komunikazio-mintzairaren arteko diferentziak aztertzearen beharra baieztatzen dutelarik, ikuspuntu sinkronikoak bezala, hala diakronikoak ere erabili behar direla proposatzen.

4.—Troubetzkoy

Eskola honen ordezkarien artean →Troubetzkoy aipatu behar da lehenengoz (ikus *Praga-ko eskola).* 1890ean Moskun jaioa, antropologia, eta honen bidez hizkuntzalaritzarekin, goiz goizetik arduratu zen. 1913an Leipzig-en egonaldi bat egin eta gero, hots, neogramatikarien metodoak ezagutuz gero, Moskun hasi zen irakasten. 1917ko iraultzaren ostean, Errusia utzi zuen, eta 1922tik 1938rarte filologia eslabiarra irakatsi zuen Vienan. Haren obra nagusia, eta →fonologiaren printzipioak finkatu zituena, «Grundzüge der Phonologie» delakoa izan zen, bera hil eta apur bat geroago argitara eman zena lehendabizikoz. Liburu horretan hainbeste sistema fonologikoren ikerketaz zientzia linguistikoaren eremu garrantzitsu honi mugak eta hesiak jarri zizkion, orain aipatu besterik egingo ez ditugunak.

Lehendabizikoz, Saussure-ren *hizkuntza-hizketa* aurkakotasunaz baliaturik, →fonetika eta →fonologia finkatzen ditu, bakoitza beraren barrutian, gero fonema bat zer den definitzen du, eta beronen aldaeren problema erabiltzen; eta, azkenez, aurkakotasunak eta →koerlazioak aipatzen ditu, lehenengo aldiz tipologia zehatz batez. Jakobson-ek «Acta Lingüistica»n idatzi zuen ohar nekrologikoan honela dio:

> «Koerlazioaren kontzeptua eta aurkakotasun fonologikoari buruz agertzen den eta agertzen ez denaren artean, Saussure-k zituen

ideiak ederto lotu zituen, eta, Martinet-ekin batera, arazo horrekin oso estu estekaturik dagoen aurkakotasunaren desagertzearen problema aitzineratu zuen: Jakovlev-en eragipen zuzenei jarraituz, kontsonantezko koerlazioen azterketa osoa burutu zuen, eta seinale mugatzaileen sistematika sendo bat eraiki: berak ere aurkakotasun fonologikoen sailkapenaren lehen saioa egin zuen, eta deskribapen fonologikoen teknikak oso zehazki erabili zituen.»


5.—Jakobson

Roman Jakobson da bestaldetik Praga-ko eskolaren «beste irakaslea» (ikus *Roman Jakobson).* Hiru dira errusiar irakasle honek erabili dituen gaiak edo-ta arloak: poetika, fonologia eta haurraren hizkuntza; eta orain era xumeaz aipatzen saiatuko gara.

Haren ustez sei dira hizkuntzaren funtzioak:

1. Aipatzailea (référentielle/referencial).
2. Hunkitzailea (émotive/emotiva).
3. Konatiboa (conative/conativa).
4. Faktikoa.
5. Metalinguistikoa.
6. Poetikoa.

Berak dioenez, sei funtzio dituen eredu hau, Praga-ko eskolarekin harremanak ukan zituen Bühler-ek proposaturikoaren aitzinamendu bat da. Bühler-en arabera hiru funtzio ditugu edozein zeinuren igorpenean (ik. 1. irudia).



1. Ird. **Bühler-ek zeinuaren igorpenean bereizten dituen hiru funtzioak.**

Jakobson-ek, aitzitik, sei dakuski eta honetara aurkezten du bere eredua:

textuingurua
(aipatzailea)

igorpena
(poetikoa)

igorlea
(hunkitzailea)

jasotzailea
(konatiboa)

ukipena
(faktikoa)

zeinuteria
(metalinguistikoa)

Funtzio konatiboa, →bokatibo eta →aginduzkoetan gertatzen da; eta faktikoa, berriz, hizkuntza erabiltzearen helburua lotura bat sortzea denean, eman dezagun, telefono-elkarrizketa bat entzuten dela adierazteko erabiltzen den zenbait hots.

Fonologiaren eremuan, 1927an jadanik, Praga-ko Zirkuluan egindako hitzaldi batetan, sinkroniaren eta diakroniaren arteko apurtura ez zela benetakoa defendatu zuen; zeren bere ustez soinu-aldaketak, soinu horiek partaide diren sistema fonologikoaren barruan ikertu behar bait dira, h.d., aldaketa horiek jasaten dituen sistema fonologikoaren barnean. Bera da, beraz, fonologia historikoaren lehen ordezkaria, eta bere ikusmoldearen alde ematen duen argudio nagusia, sistemaren orekarena da; edozein sistema linguistikotan, eta are gehiago soinu-sistema batetan, orekarako joerak beti eragiten duelako. Ideia hau askotan ukitu du gero Jakobson-ek, eta modu sistematiko batez bere «Prinzipien der historischen Phonologie» delako artikuluan. Bertan dioenez, edozein aldaketa ulerkor izan dadin, sisteman jokatzen duen papera ezagutu behar da. Soinu-aldaketek esanahi fonologikoa eduki lezakete; zenbait kasutan, baina, ez da hori jazotzen. Lehen kasuan, eta guri interesatzen zaigun bakarra, →mutazio bat dela esaten da. Haren eritziz bi mutazio-mota daude: desfonologizazioa, edo lehenago zegoen diferentzia baten aienatzea; eta fonologizazioa, edo-ta diferentzia berri baten sortzea. Lanaren amaieran gorago aipatu dugun gogoeta errepikatzen du, hots, edozein aldaketak orekari eustea duela helburu; eta, horregatik, ezina dela diakroniarik zein sinkroniarik egin, bien arteko harremanak kontutan hartu gabe. Fonologiaren barrutian ere, Halle-rekin batera, aurkakotasun fonologikoak →bitarrak direla defendatzen du; eta are gehiago, modu horretan definituriko aurkakotasunak, hamabi hain zuzen ere, unibertsalak direla.

Bi taldetan banatzen dira aurkakotasun hauek, ozentasun-ezaugarrien (Sonoritätsmerkmale) arabera lehen bederatziak, eta tonutasun-ezaugarrien (Tonalitätsmerkmale) arabera besteak:

1. Bokalezko / Ez-bokalezko.
2. Kontsonantezko / Ez-kontsonantezko.
3. Trinko / Barreiatu (Kompakt / diffus).
4. Teinko / Nasai.
5. Ozen / Gor.
6. Sudurkari / Ahokari.
7. Etenkor / Jarraikor (abrupt / kontinuerlich).
8. Zorrotz / Bigun.
9. Blokatu / Blokatugabe.
10. Ilun / Argi.
11. Bemolizatu / Ez-bemolizatu.
12. Dieresifikatu / Ez-dieresifikatu.

Haurraren hizkuntzaren eremuan, azkenez, bi →afasia-mota nagusi berezten ditu Jakobson-ek: zeinuen aukeran gertatzen dena, eta zeinuen elkargoan jazotzen dena. Esan nahi bait da, paradigmaren mailakoa lehenengoa, eta sintagmaren mailakoa bigarrena (ikus *Afasia).* Lehenengo kasuan «antzekotasun-akats» (Ähnlichkeitsstörung) batez mintzo da, bigarrenean, aitzitik, «albokotasun-akats» (Kontiguitätsstörung) batez.

Lehenengo afasia daukan eri batek, metaforak erabil ditzake, ez ordea →metonimia eta →sinekdokerik; bigarren afasia daukana, ostera, metonimia eta sinekdokerik erabiltzeko gauza da, ez ordea metaforarik egiteko.

6.—Martinet

Europako estrukturalismoan *funtzionalismoa* dugu nolabait sona lortu duen azken eskola; Praga-koengandik etorriz, eta Jakobson lagun, →Martinet da, batere zalantzarik gabe, eskola honen ordezkaririk nagusiena. Saussure-ri buruz mintzatzean esan dugunez, hizkuntza komunikazio-tresna bezala hartzea da berak, konparatzaileei aurkajarriz, proposatu zuen ideia interesgarrienetako bat; Praga-koek lehendabizikoz, eta funtzionalistek gero, aitzineratu duten kontzepzioa, berauek hizkuntza baten ikerketa hizkuntza horren elementuek jokatzen duten funtzioen azterketan bait dakusate:

André Martinet-ek obra bat dauka nagusia fonologiaren eremuan «Economie des changements phonétiques». Lan horren izenburuak dioenez «ekonomia» da sistema fonologikoen oinarrizko ezaugarrietako bat; haren eritziz, edozein sistematan bi baldintza agertzen dira, komunikatzeko beharra eta ahal den energiarik gutxien erabiltzeko beharra: eta behar bi horien lotura ekonomiarako joeraz, h.d., →etekin funtzionalaren

hobeagotzeaz esplikatzen da askozaz hobeto edozein joera teleologikoz baino. Bestalde, puntu bitan →Jakobson-en ikusmoldeak kritikatzen ditu, lehenengoz fonetika artikulatzaileaz baino gehiago Mosku-koak fonetika akustikoaz oinarritu duen kontzepzio bitarrean, ezaugarri hirutar eta lautarrak ere badaudela uste duelako; eta unibertsal fonologikoen existentzian bigarrenez, Martinet-ek ezaugarri fonologikoak fisikoki ezin muga daitezkeela defendatzen duelako.

Teoriaren mailan Martinet-ek proposatu duen ideiarik interesgarriena →artikulazio bikoitzarena da (ikus *Artikulazio bikoitza).* Haren ustez, hizkuntza guztietan bi artikulazio daude: lehenengoa, edo →monemen mailakoa, eta bigarrena edo fonemen mailakoa; hots, adierazpen eta edukinaren mailei dagokie lehenengoa, eta adierazpenaren mailari bakarrik dagokio bigarrena. Azkenez, Martinet-ek joskeraren eremuan egin duen azterketa funtzionalista aipa daiteke. →Joskeraren maila horretan diferentzia bat egiten du, alde batetik monema funtzionalak, →preposizio eta →kasuak bezala; eta beste aldetik modalitateak, →artikulua eta →zenbakia bezala. Bestalde →hedapenaren teoria proposatzen du, haren ustez edozein perpausetan, berau beti perpaus gisa iraun araziz, ken daitekeen guztia hedapena bait da; eta geratzen den →esakuntza hori «muin» edo gutxienezko esakuntzatzat jo daiteke.

BIBLIOGRAFIA

ALARCOS LLORACH, E.: *Gramática estructural,* Gredos, Madrid, 1969.

ARENS, H.: *Sprachwissenschaft. Der Gang ihrer Entwicklung von der Antike bis zur Gegenwart,* Verlag Karl Alber, Freiburg/München, 1969.

— eta beste: *Handbuch der Linguistik,* Nymphemburger Verlagshandlung, München, 1975.

BIERWISCH: «Strukturalismus, Geschichte, Probleme und Methoden», *Kurschbuch* 5, 1966, 77-152. orr.

BRØNDAL, V.: «La linguistique structurale», *Acta Linguistica* 1, 1939, 2-10.

— *Essais de linguistique générale,* Ejmar Munksgaard, Kopenhaven, 1943.

— *Les parties du discours,* Ejmar Munksgaard, Kopenhaven, 1948.

— *Théorie des prépositions,* Ejmar Munksgaard, Kopenhaven, 1950.

COSERIU, E.: «L'arbitraire du signe», *Archiv für das Studium der neueren Sprachen und Literaturen,* Bd. 204, 81-112. orr.

CHRISTMANN, H. H.: «Strukturelle Sprachwissenschaft», *Romanistisches Jahrbuch,* 9 eta 12, 1959 eta 1962, 17-40, 23-50. orr.

DUBOIS, J. eta beste: *Dictionnaire de linguistique,* librairie Larousse, Paris, 1973.

DUCROT, O. eta TODOROV, T.: *Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage,* éditions du Seuil, Paris, 1972.

FONTAINE, J.: *Le cercle linguistique de Prague,* Maison Mame, 1974, France.

GODEL, R.: *Les sources manuscrites du cours de linguistique générale de F. de Saussure,* Genève-Paris, 1957.

HILDENBRANDT, E.: *Versuch einer kritischen Analyse des «Cours de linguistique générale» von Ferdinand de Saussure,* N. G. Elwert Verlag, Magburg, 1972.

HJELMSLEV, L.: *La théorie des cas,* Munksgaard, Kopenhaven, 1937.

— «Structural Analysis of Language», *Studia Linguistica,* 1, 1948. 67-78. orr.

— *Le langage,* éditions du Minuit, Paris, 1966.

— *Ensayos lingüísticos,* Gredos, Madrid, 1972.

— *Sistema lingüístico y cambio lingüístico,* Gredos, 1976.

HOLENSTEIN, E.: *Roman Jakobsons phänomenologischer Strukturalismus,* Suhrkamp, Frankfurt am Main, 1975.

JAKOBSON, R.: «Prinzipien der historiachen Phonologie», TLCP, Praga, 1931, 247-267. orr.

— «Nécrologie, Nikolaj Sergejevic Trubetzkoy», *Acta Linguistica,* 1, 1939, 64-76. orr.
— *Essais de linguistique générale,* éditions de Minuit, Paris, 1963.
— *Aufsätze zur Linguistik und zur Poetik,* Nymphemberger, München, 1974.
— *Form und Sinn,* Wilhelm Fink, München, 1974.
LEPSCHY, G.: *La linguistica strutturale,* Giulio Enaudi, Torino, 1966.
— *Die strukturale Sprachwissenschaft,* Nymphemberger, München, 1969.
LEROY: *Grands courants de la linguistique moderne,* éditions de l'Université de Bruxelles, Bruxelles, 1971.
LINDEMANN, B.: «L'arbitraire du signe. Zur Neubestimmung eines Saussureschen Bregriffes», *Orbis,* 21, 1972, 257-288. orr.
MARTINET, A.: *Élements de linguistique générale,* Armand Colin, Paris, 1960.
— «Au sujet des fondements de la théorie linguistique de Louis Hjelmslev», *Bulletin de la Société de linguistique de Paris,* 42, 1946, 19-42. orr.
— *A functional view of language,* Oxford, 1962.
— *La linguistique synchronique,* Presses universitaires de France, 1965.
— *Économie des changements phonétiques,* Francke, Berna, 1965.
— -ek zuzendua: *Le langage,* Encyclopédie de la Pléiade, Gallimard, Paris, 1968.
MOUNIN, G.: *La lingüística del siglo XX,* Gredos, Madrid, 1976.
SAUSSURE, F.: *Recueil de publications scientifiques,* Carl Winter Universitätsverlag, Heidelberg, 1922.
— *Cours de linguistique générale,* Payot, Paris, 1922[2].
— *Cours de linguistique générale,* édition critique par Rudolf Engler, Otto Harrassowitz, Wiesbaden, 1967-74.
SZEMERENYI, O.: *Richtungen der modernen Sprachwissenchaft,* I, Carl Winter Universitätsverlag, Heidelberg, 1971.
TRUBETZKOY, N. S.: *Grundzüge der Phonologie,* Prag, 1939.
WELLS, R. S.: «De Saussure's System of Linguistics», *Word,* 3, 1947, 1-31. orr.

EUSKALTZAINDIA

Eusko Ikaskuntzak 1918. urtean Oñatiko kongresuan, lehendik zenbaitzuren gogotan zegoen nahia jasoaz, euskara zaindu eta aztertuko zuen erakunde bat sortzea proposatu zuen.

Bilera honetako dokumentu batetan agertzen zenez, hizkuntzaren batasun lexikoa, fonetikoa, grafikoa eta azken finean literatur dialektoaren batasuna lortzea izango omen zuen helburutzat.

1919. urtean Eusko Ikaskuntzak eskari hau egingo zien Diputazioei eta, hauen onarpenaren ondoren, hor dugu harez geroztik, Euskaltzaindia deituko den erakundea, lau euskaltzain fundatzaileen eskutik: Resurrección M.ª →Azkue, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio →Urkixo.

Azkue hautatuko dute bere heriotzararte, behin eta berriro, lehendakari bezala; hots, 1919tik 1951rarte.

Hogeitamaseiko gerra dela eta, bi garai bereiz ditzakegu Euskaltzaindiaren historian:

1. Lehen aroa: 1920-1937.

Hamabi euskaltzainek osatzen zutelarik 1920an Euskera aldizkaria argitaratzen hasiko da, bertan Euskaltzaindiaren agiri, erabaki, txosten eta euskaltzainen nahiz kanpoko ikertzaileen lanak aurki ditzakegu.

Hasiera-hasieratik euskararen batasunaz kezkaturik ibiliko da, eta kezka honi erantzun nahian Kanpion eta Broussain-i informe bat egin dezaten eskatuko die; eta euskaltzain hauek, «Informe de la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera» izenburuarekin, beren aburua aurkeztuko dute.

Euskal Herriaren soziologi egoera, hizkuntza «artifizial» bat sortzeko arriskua eta beste zenbait arazo zirela medio, ez zen eginkizun honetan urrats handirik eman, baina kezkak bizirik iraun zuen; Azkuek, bere aldetik «Gipuzkera osotua» deitzen zuen bidea jarraituko du.

Euskararen eragile bezala, iker-lanez gainera hainbat literatur sari etab., sortu zituen.

2. Gerra ondoko aroa

Gerra dela eta euskaltzainak sakabanatuta aurkitzen ditugu; 1941ean Azkueri eskatuko zaio berriro abian jar dezala Euskaltzaindia; aldizkaria, horrela, berriro agertzen hasiko da 1954ean eta, lehen bezala, elaberri, olerki, nahiz bertsolari etab. sariak antolatzeari ekingo dio.

1954ean, arautegia berritzen delarik, euskaltzain-kopurua handitu egingo da: lehen hamabi baziren hamazortzitara igoko da kopuru berri hau; beranduago hogeitalau izatea erabakiko da eta honetan dira gaur egun.

Hasieran jarritako helburuei erantzunaz ikerketa filologikoan alde batetik eta euskararen eragile eta suspertzaile bezala bestetik, liburu-argitalpenean, Alfabetatze - ikastaroetan, irakasle - tituluen sorketan eta abarretan dihardu gaur Euskaltzaindiak.

Gerra ondoren honetan ere euskara batu beharraren kezkak bizirik zirauen eta Krutwigek, Arruek, Basterretxeak, Lafittek beren proposamenak egin zituzten, baina, ez zuten oihartzun handiagorik jaso.

Hala ere, kezka horrek eraman zituen euskal idazleak Baionan biltzera 1964ean eta han hartu zituzten erabakiak garrantzizkoak izango dira hurrengo urratsetarako.

1968. urtean Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen kongresuan oinarrizko projektu bat aurkeztu zuen eta ondorengo lanak kongresu honetan hartutako erizpideei jarraituko die.

Euskara batzearen eginkizuna bere gain duelarik, batzordetan antolaturik, urrats handiak eman ditu ortografia, deklinabidea, aditz-jokoa etab. batuaz.

Euskara eta beste hizkuntzak

Xabier Kintana

Ez da gaurkoa euskararen hizkuntz apartekotasunaz eta jatorriaz jendeak agertu duen interesa. Euskara, bistan zegoen, ez zetorren, ingurukoak bezala, latinetik; eta hain guraso ospatsuaren ume ez izateak, dirudienez, nolabaiteko desprestigioa eta kaltea ekarri dio. Latinetikoa ez izateak, lehengo eta behin auzoekiko komunikabidea eragozten zion, bai eta literatur eta ortografi ereduak lortzea ere. Honetaz, noski, jadanik 1545ean, Etxepare ongi konturatzen zen, haren liburuaren hitzaurrean irakur daitekeenez. Gauza bera zioen, beste hitzez baina, Leizarragak 1571an, eta orobat, 1643an Axularrek berak ere, euskara, hala ere, bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean zegoela gogoratu arren.

I. EUSKARAREN ETORKI BIBLIKOA

Gizajendearen historiaurrea ezagutzeko tresna bakarra, luzaroan, Biblia izan da; eta haren pasarte batetan giza-hizkuntzen sorrera azaltzen da: Babel-go dorrekoan, hain zuzen. Horren arabera, ordurarte gizon guztiek hizkuntza bakarra zuten, hebraiera; baina Jainkoak, zeruraino heldu nahi izan zuten gizon haien harrotasuna zapuzteko, haien hizkuntzak ugaldu eta nahasi zizkien, eta horrela sortu ziren munduko hizkuntza ugariak.

Hortxe bilatu behar zuten, beraz, eta holaxe egin ere bai, euskararen jatorria. Jatorri bibliko hau are zehatzago eginez, XVI. eta XVII. mendeko autoreek (Garibaik, Pozak, Etxabek...) euskara Ekialde Hurbiletik Pirinioetara Tubal eta beronen familiaz ekarria zen ustea zabaldu zuten. Hona hemen, kasu, P. Arganaratzek Joanes Etxeberriri egin zion bertso akrostikoaren hasiera: *«Etzare zuzenez baizen / estimatzen lehena / Tubalen hitzak ahoan / tuzten eskaldunena» / ...*

Historiaren ezaguera aurreratu ala, baina, Bibliaren historiaurreko kondaira hura greziar geografoen eta erromatar klasikoen izkribuez alderaturik (Strabon, Ptolomeo, Plinio...), euskaldunak eta berauen hizkuntza Hispaniako Iparraldeko behialako jendeenaz nolabait lotzen saiatu ziren.

Euskararen iraute harrigarria, uste zutenez, erromatarrekiko harremanik ezari zor zitzaiokeen; hots, bakartasunezko eta independentzi egoera bati. Horregatik Garibai, euskaldunak aintzinako kantabriar menderagaitzen ondorengo zuzenak ziren eritzira heldu zen. Hortik sortuko zen, noski, *euskaldun* = *kantabres* literatur berdintza famatua. Uste hau, dena den, jadanik XVII. mendean erabat gaitzetsi zuen Oihenartek; idazle klasikoen kronika eta datuak arretaz aztertuz, kantabriarrak Euskal Herritik kanpo, Santander aldean bizi izan zirela frogatuz. Zuberotarrak arrazoi osoa ukan arren, euskal kantabrismoaren ideiak luzaro iraun zuen, eta zenbaitzuk, J. Etxeberri Sarakoak, kasu, Oihenarteri bere sorterrizaletasunik eza aurpegiratu zioten, euskaldunei hain arbaso ohoragarriak ukatzeagatik.

II. EUSKAL IBERISMOA

XVIII. mendearen bukaeran, hizkuntzalaritzaren sorrera modernoan, euskarak hizkuntzalari askoren interesa birbiztu zuen. Alde batetik, Rousseau-ren basati zintzo eta garbiaren kutsua zeukan euskarak, erdal (latindar) kultur eragin galgarri eta nahastaileetatik, mirakuluz ia, Europako kantoi batetako mendi artean gordea bait zen.

Aleman aztertzaile batek, W. Von →Humboldt-ek euskara aintzinako iberieraren ondorengoa zatekeen teoria agertu zuen. Horren arabera, euskaldunok erromatartu ez ziren iberiar zaharren kume besterik ez ginatekeen. Ideia horrek logiko eta egia itxura handia zuen; eta iberiar idazkera deszifratu arte, hau da, mende honetaraino, iraun du. Eritzi honetakoak ziren, beste batzuren artean, Luchaire, →Schuchardt, Hübner eta Menéndez Pidal.

Iberierazko textu idatziak ulertezinak zirela eta, aztertzaileek euskararen jatorria aurkitzeko, beste bide batzu bilatu zituzten. Erromatarrak, lehenagoko indoeuroparrak bezala Iparraldetik etorriak zirela eta, iberiarrak eta berauen hizkuntza, jatorriz Afrikarrak ziratekeela susmatzen hasi ziren; eta, horren kariaz, beren begiaz Ipar Afrikako hizkuntzetan jarri. Gauza jakina zen, bestalde, arabiera Ipar Afrikan berri samarra zela, islamismoaren hedaduraz gerokoa, alegia; baina baziren hor, eta gaur ere badira, beste zenbait hizkuntza, arabiarrek, modu generikoz, eta nolabaiteko mesprezioz, *berber* (= 'bárbaro') deituak.

III. EUSKARA ETA HIZKUNTZA HAMITIKO-SEMITIKOAK

Berber hizkuntzek familia hamitikoa osatzen dute, eta Ipar Afrikatik Sahararen Hegoalderaino mintzatuak dira, modalitate eta →dialekto ugaritan, haietako batek ere literaturarik, ez textu zaharrik eduki gabe. Hizkuntza hauek, bestalde, bai →fonetikaz, bai egituraz eta, seguruaski, jatorriz ere, semitar hizkuntzekin badute kidetasunik, eta berauek, hebraiera, syriako, aramiera eta arabierazko erlijio-textu zaharrei esker, historia luze eta ezaguna dute. Euskararen jatorriaren iturburua aurkitzeko, berau iberiera zaharrean zegoelakoan, hortaz, hizkuntza hamitiko eta semitikoak arakatu eta konparatu behar ziren.

Bide honetan zenbait hitz-zerrenda argitaratu zen, euskara eta hizkuntza hamitiko-semitikoen kidetasuna frogatu nahirik. Horiek guztiok menturazkoak zirela agerrerazteko E. Zyhlarz-ek alemaniera eta arabiar hizkuntzen kidetasuna, halaber, «froga» zezaketen beste →hitz batzu azaldu zituen ironiaz. Harez gero, eta iberiar teoriaren amileraz areago, euskara eta afrikar-arabiar hizkuntzen arteko loturen bidea ia erabat zokoraturik gelditu da.

Bi izan dira, gure ustez, horretarako arrazoiak. Lehena, eta garrantzitsuena, egiturazko desberdintasunena. Adibide jadanik klasiko bat ezartzeko, hor dago, kasu, hizkuntza hamitiko-semitikoen barne-deklinazioa, hau da, kontsonantezko hezurdura iraunkor baten barruko →bokal-→aldaketa adierazkorra (ar. *gatala* 'hil zuen', *gatila* 'hil zen', *gatilun* 'hiltzaile', *gatlun* 'hilketa'...), euskara historikoan erabat ezezaguna. Bide horretatik ez abiatzeko, euskaldunoi dagokigunez behintzat, bazegokeen beste arrazoi bat, →linguistikaz kanpokoa izan arren, hemen aipagarri, hots, delako afrikar jatorri hori euskaldun zintzo eta jatorron dudagabeko odol-etorki garbiarekin hain batera ez etortzea.

Hizkuntza hamitikoekiko harremanen teoriak, dena den, *Hans Mukarovsky* irakasleagan du bere azken aldekoa. Beronen ustez, barneko deklinazioa familia horretako *gaurko* hizkuntza batzuren ezaugarria litzateke, Sahararen Hegoaldeko eta familia bereko zenbait hizkuntzatan azaltzen ez dena. Autore berak, gainera, euskara eta berber arteko elkarkidetza fonetiko batzu jartzen ditu, bien arteko lokarria agertuz. Hala ere, gure ustez, Mukarovsky-ren teoriak ez du frogatzeko aski indar: alde batetik, berber textu zaharrik ez delako; bestetik, elkarkidetza horietako asko oso susmagarriak direlako; eta, azkenik, berak aipatzen duen barne-deklinaziorik eza, familiako hizkuntza gehienetan fenomenoak duen zabalera ikusita, jatorrizko →ezaugarri →erkide gabe, geroagoko ezaugarritzat hartu behar delako.

A) EUSKARA ETA GUANTXEA

Afrikar harremanak utzi baino lehen, esan dezagun, laburki bada ere, badela euskarak guantxearekin, hau da, Kanarietan konkista espainola

baino lehen egiten zen hizkuntza harekin, →ahaidetasuna duela dioenik. Horixe da, gutxienez, F. Krutwig-en eritzia; jatorri erkide hori, zenbait autoreren aburuz, guantxeen Europatiko giza-migrazio batez azalduko litzatekeen arren. Hala ere, guantxezko textu idatzien eskasiak, batetik, eta beroriek ongi irakurtzeko segurantzarik ezak bestetik, oso arriskugarri bihurtzen dituzte alderdi honetako alderaketa guztiak.

IV. NEOIBERISMOA

Duela 60 bat urte Gómez Morenok, Mediterranioaren Ekialdeko idazkera arkaiko batzuri esker, iberiar izkribuen giltza argitu zuen. Idazkera hori bikoitza zen: →zeinu batzuek fonema hutsak adierazten zituzten, eta beste batzuek, aldiz, →soinu →leherkari silabikoak, →gorren eta →ozenen artean desberdinketarik egin gabe. Idazteko modu horren zehaztasunik eza gora-behera, harez gero iberiar →alfabetoz egindako textuak nolabait «irakurtzen» hasi ziren.

Haren fedea zuten hizkuntzalarien zoritxarrerako, iberierazko izkribu irakurriak ez ziren, ordea, euskararen argitan inola ere konprenitzen. Alde batetik, agian ordutik hona euskarak izugarrizko eboluzioa ukana zuela pentsa zitekeen; baina Akitaniako izkribu zahar eta garaikidetsuak *(cison, nescato, sembe, anderexo, bihox...)* aurkitu, eta gaurko euskaraz aski erraz ulertzen zirela ikustean, ondorio garbi bat atera behar izan zen: euskara ez zetorrela iberieratik.

Lehen mementuko eszeptizismo ezkorraren ondoan, ordea, iberiar textuak astiroago aztertu eta gero, elkarren arteko kidetasun batzu azaldu izan dira. Alde batetik, iberieraren →fonologi →sistemak eta euskara zaharrak eduki zukeena; oso antzekoak dira; eta, egiturari dagokionez ere, badirudi biak →eransleak zirela, hots, →atzizkien bidez deklinatuak. Zenbait hitzek, bestalde, itxura beretsua dute *(osaba, bels, argi, ildun, -tar...)* hizkuntza bietan. Gerta daiteke, bai, sustrai berekoak edo elkarrengandik mailegatuak izatea; baina iberieraren lexikoa, textu elebidunik ezaz, erabat ezezaguna zaigunez gero, ez dago gaurkoz hipotesi horiek frogatzerik.

V. BOTORRITAKO BRONTZEAREN HIZKUNTZAZ

Idazkera edo alfabetoa gauza bat da, eta beste bat alfabeto horretan adierazten den hizkuntza. Horrela, gaur latindar alfabetoz latinarekin bat ere zer-ikusirik ez duten hizkuntzak idazten dira (euskara, suomiera,

Maltako arabiera, turkiera, ketxua, swahili, tagalog, vietnamiera...); eta modu berean, arabierazko grafiaz pertsiera idazten da, berau indoeuroparra izan arren. Iberiar alfabetoaz, halaber, gutxienez indoeuropar jatorrizko hizkuntza bat ere idazten zen, gaur komunzki zeltiberiera deitua.

Botorrita Zaragozatik 20 kilometrotara Hegoaldean dagoen herri bat da. Bertan, duela zenbait urte, Antonio Beltrán jaunak iberiar alfabetoz idatzitako textu luze bat aurkitu zuen, brontze batetan egina. Beltranek, iberieraz zegoelakoan eta, Menéndez Pidalen bidetik, hura euskara zaharra zelakoan, gaurko euskal hiztegi batez baliatuz, textua «itzuli» zuen. Baina 1974ean, Javier de Hoz eta →Mitxelenak argi eta garbi frogatu zutenez, delako textua, iberieraz gabe, zeltiberieraz dago, hots, indoeuropar hizkuntza batez. Deus gutxi argitu digu, beraz, textu horrek euskararen jatorria, →hitz baten kasuan izan ezik. Are fantasia handiagoa dute, noski, textu hori georgiera zaharraz itzuli nahi ukan dutenek.

VI. EUSKARA ETA KAUKASIAR HIZKUNTZAK

Elkarrengandik urrun diren arren, euskara eta kaukasiar hizkuntzen arteko loturak ikusi uste izatea oso zaharra da. Alde batetik, historilari klasikoek, zergatik ez dakigula, Aintzinatean bi Iberia seinalatzen zituzten: Mendebaldekoa bata, eta Kaukasiakoa bestea. Agian izenkidetasun honen kariaz, Ioane Mtatsmideli-k, XI. mendeko georgiar handiki batek, Pirinioetarako bidaia bat projektatu zuen, georgiarren bertako anaia euskaldunekin harremanetan jartzeko.

1587an, bere *De la antigua lengua de las Españas*-en, Poza Lizentziatuak idazle klasikoen aipamenak gogoratzen ditu, euskal-kaukasiar loturak onartuz. XVIII. mendean, bere «Hizkuntzen katalogoa»n, Lorenzo Hervas-ek euskara eta georgieraren artean harremanik egon zitekeen susmoa azaldu zuen, geroago aita Fitak eta Trombettik gauza bera seinalatuz. Berauen ondoan, eta joan den mendetik hona, →Uhlenbeck, Dumézil, K. →Bouda, R. →Lafon, Yuri Zytsar eta G. Txantladze bide berean aritu izan dira.

Euskara diogunean, dialektotan banaturik bada ere, hizkuntza oso eta XVI. mendetik aski ongi ezagun batez mintzo gara; baina azaldu beharra dago, hala ere, kaukasiar hizkuntzak aipatzean zer, edo hobeki zertzu, adierazi nahi den.

→Adiera geografikoan kaukasiar (edo *iberiar)* izenean Kaukaso mendi-katearen hegaletan mintzatzen diren hizkuntza guztiak badaude ere, eskuarki ez dira hor sartzen osetiera modukoak (pertsieraren kide hurbila) edo turkiar familiakoak (tatar), horrela kaukasiar izena sailkapen zabalagoetan ahaide ezagunik ez dutenentzat utzirik. Alderdi geografi-

kotik kanpo, badira hizkuntza edo dialekto batzu, 1864erarte Kaukasian mintzatuak izan arren, orduko errusiar erasoetatik iheska, beren hiztunekin joanik, Balkanetara, Palestina aldera eta Turkiara eramanak (eta talde horretan kontsideratzen direnak).

Baina geografiaz auzo diren arren, kaukasiar hizkuntzen arteko jatorkidetasuna ez da oraino gauza frogatua. Iparraldeko kaukasiar hizkuntzen artean hiru talde daude: a) Mendebaldekoak (abxaz, ubyx, adyghe), b) Erdikoak (cecen, ingus, bats...) eta c) Ekialdekoak (avar, dargwa, küri, udi...), talde bakoitza loturagabea izanik.

Hegoaldean, aldiz, kartveliar hizkuntzak dira, elkarren artean zalantzarik gabeko genealogi loturak dituztenak: georgiera, megreliera, txanera eta svanera. Guztietatik mintzatuena, eta literatura zaharra duen bakarra, georgiera da: gaur lau milioi hiztun inguru ditu, beraren lehenbiziko textuak V. mendekoak izanik.

Euskal-kaukasiar hizkuntzen arteko lotura hipotetikoa, urruntasunaren eragozpena kentzeko, aintzina, Iparraldetiko indoeuropar Herriak hegoalderatu baino lehen, Mediterranio aldean familia bereko hizkuntz katea bat egon zitekeen susmoan oinarrituko litzateke. Katea hau →indoeuroparren etorreraz hautsita, Europako bi ertz menditsuetako aterpean, hau da, Pirinio eta Kaukasian, behialako →hizkuntz familia haren azken arrastoak leudeke gaur. Zenbait autorek, gainera, familia hori Mediterranio inguru osoan zegokeela uste du, horrela kaukasiar eta hamitasemitar hipotesiak elkarren osagarritzat hartuz. Berau onarturik ere, ez dakigu, ordea, indoeuroparren etorreran Mediterraniar hizkuntzen dialektalizazio eta urruntze-maila nolakoa zen. Dena den, salbatu diratekeenak bi muturretakoak direnez gero, susmatzekoa da agian elkarrengandik urrunenak ziratekeela.

Dena den, oinarriz, bai kaukasiarrek —georgiarrek bereziki— eta bai euskaldunok, ez dakusagu hain begi txarrez geure hizkuntzen arteko kidetasunaren hipotesia. Alde batetik, egitura eta →tipologiari dagokionez, antza dute guztiek (eranskortasuna, ergatibodun izatea, aditz pertsonaniztunak han ere egotea, →deklinabidea...) zenbait puntutan, eta tipologi kidetasunak berez jatorkidetasunarekin zer-ikusirik eduki ez arren, hura nolabaiteko seinaletzat har daiteke, besterik ez dagoen artean kontutan hartzeko bederen. Berberierarekiko lehen aipatu oztopoak, behintzat, ez dira hemen agertzen.

Hizkuntzalari batzu, →Lafon eta →Bouda bereziki, euskara eta kaukasiar hizkuntzen arteko →analogiak agertzean, alde batetik gaurko euskararen —edo beronen edozein dialektoren— hitzak, Kaukasiako edozein hizkuntzaren hitzekin alderatzen saiatu dira. Prozedura hori, ordea, biziki gaitzetsi du, eta arrazoiz, Mitxelenak; posibilitateez besterik ez balitz ere, holako «antzak» aurkitzea erraza bait da, kaukasiar hizkuntzak, dialektoak kontatu gabe, 32 direla kontsideratuz. Bertako hizkuntzak jatorkide direla oraindik frogatua ez delarik, absurdua da euskal hitzak

hango edozeinekin konparatzea, ondorioz euskal-kaukasiar lotura orokorren ondorioa ateratzeko.

Elkarren arteko sustrai erkideak bilatzen hasteko, beraz, aldez aurretik erabiliko den bidea ongi finkatu beharra dago. Bi dira, ene ustez, probetxugarri diratekeenak, eta hipotesi banatan oinarrizko jatorkidetasuna ontzat eman eta, duda gabeko sustrai erkidetan oinarrituz, bertako aitzin-kaukasieraren berreraikuntza egin; ondoren, aitzin-euskararako berreraikitako →sistema fonologiko eta morfosintaktikoaz alderatzeko. Alderaketa honetan, jakina, jatortasun, zahartasun eta erkidetasun argia luketen elementuak ez beste lirateke alderagarri.

Beste bidea zera litzateke, kaukasiar hizkuntzen jatorrizko batasuna —frogatzen ez den bitartean bederen— ontzat hartu gabe, euskara bertako lau talde nagusietako bakoitzarekin, zein berearekin, konparatzea. Beronek dirudi, enekiko, biderik fruitukorrena eta arinena, kaukasiar hizkuntzen jatorri erkidea frogatzeak, oraindik luze jo dezakeenez gero. Aipatu dugun bide honek, noski, ez du kentzen, bestetik, hizkuntza horien arteko loturen aztertzean segitzea. Aitzitik, bide biak, neurri batez, elkarren osagarri lirateke.

Esan dugun bigarren bidean konparazio historikoa egiteko ongien dagoen taldea, zalantzarik gabe, kartveliarra da. Alde batetik mila eta bostehun urtetako literatura duelako, eta, bestetik, barne-eraikuntzarako, dialekto ugariez gainera, hizkuntza-kide nahiko desberdinduak dauzkalako.

Izan, badira georgiera-euskal hitz batzutan holako antz nabariak, gehienak K. Boudak eta R. Lafonek seinalatuak: georg. *ghame* / eusk. *gau* 'gau'; georg. *tagu* / eusk. *sagu* 'sagu'; georg. *gv-* / eusk. *gu* 'gu'; georg. *gvari* / eusk. *guraso* 'senitartea'; georg. *tot-* / eusk. *zotz* 'abar'; georg. *me* / eusk. *ni* 'ni', etab. baina guztiok xehekiago arakatu beharko dira ezer erabaki aurretik.

VII. HIZKUNTZEN JATORRIKIDETASUNAREN FROGAK

Hizkuntza biren arteko jatorrikidetasunak, lehengo eta behin, zera esan nahi du: hizkuntza horiek, duela x urte, hizkuntza bera izan zirela; eta hartatik, geroagoko dialektalizazio eta urruntze-prozesuan eboluzioz berezi direla. Horrela, esaterako, frantsesa eta espainiera duela bi mila urte egiten zen latin harengandik sorturiko bi bilaka-adar desberdin besterik ez dira.

Jatorri bera izateak, ordea, hizkuntzetan holako seinaleak jartzen ditu, eta beren eboluzioan →aldaketak →lege fonetiko batzuren arabera erregulaturik azaltzen dira. Horrela, kasu, latinez —*ct*— taldea zegoenean *(octo, directum, noctem...)*, espainierak, erregularki —*ch*— eman du

(ocho, derecho, noche...) frantsesak *-it-* egiten duen artean *(huit, droit, nuit...)*. Hortaz, espainiera eta frantsesaren artean korrespondentzia fonetiko bat azaltzen da gisa horretako hitzetan: hots, espainierazko *-ch-*ri, frantsesezko *-it-* datxekio. Holako korrespondentziak dira, hain zuzen, hizkuntzen arteko jatorri erkidea froga dezaketenak. Ez du askorik balio, jende arrunta liluratzeko ez bada, bi hizkuntza urrunen arteko hitz berdintsuak agertzeak; elkarren arteko korrespondentzi legea aurkitzen ez bada; eta berau ez dagoen artean, kidetasun guztiak menturazkoak ote diratekeen susma daiteke.

VIII. MAILEGUEN PROBLEMA

Konparazioa egitean, gainera, hizkuntzen jatorrizko lexiko-ondarea eta geroagoko →maileguak berezi beharra dago. Honela, georgieraz *zeti* eta espainolez *aceite* egoteak, ez du elkarren arteko jatorri erkiderik frogatzen, kasu bietan hitz konkretu hori arabierazko *zaytun*-etik jasoa dutela baizik. Maileguok, oso zaharrak direnean, ez dira erraz berezten, dela dokumentu ezagatik, edo-ta hizkuntza emailea ezagutzen ez delako, eta hortik dator konparazio batzuren arriskua eta ahulezia.

Honetara, euskarazko *orein (<*oreni)*-ek georgierazko *iremi (<*ireni)*-rekin, bai formaz eta bai →esanahiz duen antz nabaria, seguraski, ez datorke jatorrizko sortzetik, biak indoeuropar mailegu zaharrak izatetik baizik (cf. eslav. zah. *jeleň,* lit. *élnis,* gr. *élaphos,* gal. *elain* (fr. *élan),* irl. *elit* 'orkatz', alem. gar. zah. *elaho,* lat. *alces).* Askotan, gainera, hitz baten mailegutasuna susmatua izan arren, datu historikorik ezaz ezin froga daiteke. Horrela, aspaldidanik agertua zen euskarazko *zilar* eta germaniar eta eslaviar hizkuntzetako hitzen arteko antz harrigarria (al. *silber,* ing. *silver,* err. *serebró),* baina euskarazkoa haiengandik mailegatua nola eta zer bidez gerta zitekeen ez zegoen azaltzerik. Gaur, ordea, Botorritako Zeltiberiar textuari esker, euskarazkoa *śilabr*-etik datorkeena uste izatekoa da.

Bideak, beraz, luze izateaz gainera, zaila eta labana izateko itxura osoa du. Ez dezagun ahantz, gainera, euskara eta Kaukasiako edo beste nonbaiteko hizkuntzak inoiz bakar bat izan badira, hori aintzinate oso urrunean izan zatekeela, historilariek azken mila urtekoetan Pirinoetarako populazio-aldaketarik onartzen ez dutenez gero; eta hainbeste urteren buruan hizkuntzen aldaketak izugarri handiak gerta daitezkeela: bai barne-eboluzioz, bai auzoen eraginez eta bai jatorrizko lexiko erkidearen galtzeaz. Honetaz, linguistikaren ikerbideak eskas direlarik, lagun gisa, arkeologiaz eta antropologiaz ere baliatu beharko dugu.

Dena den, zail eta luze bada ere, gaurkoz ez dugu beste biderik; eta zenbat eta lehenago honetan hasi, hainbat arinago aterako dituzkegu geure ondorioak.

BIBLIOGRAFIA

CARDABERAZ, A.: *Euskeraren berri onak,* Auspoa, Donostia, 1964.

DZIDZIGURI, Ch.: *La langue géorgienne,* Ed. de l'Université de Tbiliss, Tbilisi, 1970.

HOLMER, Nils M.: *Structure of the Basque Language,* in FLV, n.º 4, Pamplona, 1970.

HOZ, J. de eta MICHELENA, L.: *La inscripción celtibérica de Botorrita,* Ed. Universidad de Salamanca, Salamanca, 1974.

HUMBOLDT, W. von: *Primitivos pobladores de España y lengua vasca,* Ed. Minotauro, Madrid, 1959.

JUARISTI, J.: *Euskararen ideologiak (1),* Ed. Kriselu, Donostia, 1976.

KLIMOV, G. A.: *Etimologičeskij slovar kartvelskix yazykov,* Izdatelstvo Akademii Nauk SSSR, Moskva, 1964.

MITXELENA, K.: *La lengua vasca,* Ed. Leopoldo Zugaza, Durango, 1977.

MUKAROVSKY, H. G.: El vascuence y el bereber, in *«Euskera»,* XVII, Bilbo, 1972.

POZA, A.: *Antigua lengua de las Españas,* Ed. Minotauro, Madrid, 1959.

TCHIKOBAVA, A.: Le bascologue-caucasologue René Lafon et les tâches actuelles de la linguistique ibéro-caucasique, in *«Bedi Kartlisa»,* vol. XXXIII, Paris, 1975.

TOVAR, A.: *El euskera y sus parientes,* Ed. Minotauro, Madrid, 1959.

VALDES, J. de: *Diálogo de la lengua,* Ed. Castalia, Madrid, 1969.

Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar

Alfontso Irigoyen

Euskararen historiaz zerbait arduratu den edonorentzat, gure hizkuntza denboretan zehar erdal munduz inguraturik agertzen da. Historiaren ikertzaile den askok, gainera, Euskal Herriaren historia egiterakoan, euskaraz jakin beharrik ez du planteatu ere egiten dokumentuak erdaraz aurkitzen bait ditu, eta euskal textu zaharren batekin inoiz edo behin topo egiten baldin badu, gauza bitxia aurkitu duelakoan euskara gaietan aditua den bati galde egiten bait dio argitasuna eman diezaion.

Inola ere ezin esan dezakegu, ordea, hizkuntz arazoak gure historian eraginik izan ez duenik, eta neurri batean bederen hura baldintzatu ez duenik. Errazegira erortzea izango litzateke horrenbesteraino gauzak xinpletzea. Etnologo batek ez luke halakorik esango, eta historian zehar herri baten kultura materialak bere leku handia eta gorena baldin badu, kultura izpiritualak ez du txikiagoa. Hizkuntza alderdia bera ere, herriaren historia da, eta ezin egin daiteke historia osorik hura haintzat hartu gabe.

I. EUSKAL APOLOGISTAK

Euskal apologistek, berea izanik bestela ezin izan bait zitekeen, euskal hizkuntzarekin topo egin zuten, eta beren erdal liburuetarako gogoan harturik merezi zuen balioa eman zioten. Garibai histori ikertzaile mondragoitarrak bultzatu zuen apologismoaren bidea, eta ordurarte mundu zabalean ohi zenez —eta gogoan hartu behar da delako ohiturak joan den menderarte gutxienez iraun duela— Euskal Herrira begira zegoen mitologia moldatu eta ontzat hartu zuen. Mitologia horren azpiegituran teoria euskal-iberikoa, gure menderarte iraun duena, datza.

Izkritura sakratuetan azken iturria duen mitologia horren arabera Tubal eta bere jendea gure mendietara etorri zen, eta ez ziren behereko leku zelaietan gelditu, horrela itotzeko arrisku gutxiago izango zutelakoan Jainkoak mundura uholde berri bat bidaltzen baldin bazuen. Jende hura

euskaraz mintzatzen omen zen, eta Tubal jakituria handiko gizonak berekin zetozenei zekiena bertsotan irakatsi omen zien. Hizkuntza hori Espainia osoan zabaldu omen zen, eta geroago beste hizkuntza batzu hedatu zirenez gero, eta azkenez latina, euskarak gure artean baino ez omen du iraun (1).

Izan ere garai haietan uste zutenez, Jainkoak mundua sortu zuenetik hona, Adan eta Eba paradisuan ipinirik, sei mila urte inguru baino ez ziren iragan. Arkeologiak ikuspegi hau zeharo aldatu du zientzien aurrerapideekin batera bere bidea egin duen neurrian. Orain milaka eta milaka urteko aztarrenez hitz egiten da, eta denboran zehar galdu egiten gara.

Apologismoak, Poza lizentziatua, Etxabe, Larramendi, eta abar, eta azken aldian Mogel, Astarloa eta Erro bezalako gizonak, izan zituen. Astarloa, gainera, Adan eta Eba bera paradisuan euskaraz hitz egiten ipintzera heldu zen (2). Nolanahi dela teoria euskal-iberikoa Europara hedatu zen G. →Humboldt-en bidez, hain zuzen ere hizkuntzen zientzia iraultza handi bat egiten hasi zen ordu berean, eta gure menderarte hizkuntzalarien artean eragina izan du (3). Teoria hauetan toponimiaren ikertzeak leku zabala du Poza lizentziatuaganik XVI. mendean hasirik. Mogel-ek ere lan berezi bat egin zuen horretaz (4).

II. HUMBOLDT-EN ONDOREN

Humboldt-en ondoren, hurrengo hauek aipatuko ditugu: A. Luchaire, bereziki euskal toponimia arakatu zuena, oraindik balioa duten lanetan. C. Pauli, euskaldunak, iberoak eta ligur iberikoak etruskoen ahaideak zirela zioena 1894. urtean, E. Hübner, *Monumenta linguae Ibericae,* Berlin 1893, lehenengo aldiz izen hispanikoak Afrikako toponimoekin konparatu zituena. A. Schulten-ek toki nabarmena eman zien 1914ean toponimo hispanikoei, eta bere ustez iberoek Ipar Afrikatik heldu ziren eta penintsulan indoeuroparren aurreko liguriarrak aurkitu zituzten, euskaldunen ahaideak omen zirenak, eta modu berean Afrikatik

(1) Estevan de Garibay y Çamalloa, *Los qvarenta libros del Compendio Historial de las Chronicas y Vniversal Historia de todos los Reynos de España,* Barcelona 1623, lib. IIII, 72. or.; lib. II, 50. or.; lib. IIII, 76-77-78. orr.; ikus Alfonso Irigoyen, *La época de Astarloa, Moguel y Humboldt,* Bordeleko Unibertsitatean *Colloque International d'Etudes Basques* 1973ko martxoan eginikakoan irakurria.

(2) Pablo Pedro de Astarloa, *Apología de la lengua bascongada,* Madrid 1803, 276. or. eta hurrengoak.

(3) Ikus W. von Humboldt, *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca,* Madrid 1959, Frantzisko Etxebarriak alemanieratik gaztelaniara itzulia. Alemanieraz 1821. urtean argitara zen Berlinen. Bereziki Astarloa-rekin harreman estuak izan zituen.

(4) *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence,* ikus *Euskera* (1935), 185-354, Justo Garate-k argitaratua. Humboldt-i eskerrak iragan da lan hau gureganaino, bere paperen artean bait zegoen. Bigarren partea zeharo argitara gabe gelditu zen aldizkari berean, gerra sortzeak galerazi bait zuen. Ale osoren bat egin ahal izan da, ordea, falta zena erantsirik.

etorriak. Honen kontra, 1915ean, H. Schuchardt jaiki zen; eta, honen eritziz, euskaran →dialekto iberiko bat ikusi behar zen, zeltismoz kutsatua (5).

III. R. MENENDEZ PIDAL ETA A. TOVAR-EN APORTAZIOAK

R. Menéndez Pidal-ek 1918an berandu erdaldu zen eremuko toponimoak ikertu zituen, *berri* eta *gorri* elementuak zituztenak alegia, -ę- eta -ǫ- →bokalak erdal tratamendua izanik diptongazioa izatera heldu ziren horietakoak; eta protoeuskararen barrenean berean dialekto iberiko bi ikusi zituen. Edozein modutan ere, euskara lehenago Pirinio inguruetan eguzki aldera hedatzen zela argi eta garbi frogatzen du bere lanak (6).

Ikuspegi hau Manuel Gómez Moreno-ren lanek aldatu dute, izkribu iberikoak irakurtzeko bidea erakutsi duten neurrian. Irakurtzeko modu berriaren lanak 1922an hasi zituen, eta 1925ean ugaldu, geroago 1943an argitaraturikako lanaz *(BAH,* 251 orr.) bukatzeko (7). 1925ean jadanik argi utzi zuen Erdiko eta Mendebalaldeko inskripzioak, pertsona-izen eta →atzizki indoeuroparrak agerturik, Lebante-ko eta Ebro ibarrekoekin hizkuntzaz ez datozela bat.

A. →Tovar-ek 1951an ordurarte ezagutzen ziren inskripzioetako →hitzak ikertu zituen, indoeuroparrak besteetarik berezirik. Bada hitz horien artean, haren hipotesia ontzat hartuz gero, euskaldunon munduari dagokionik: IPMONES , *ba-ŕ-ṣ-ku-n-e-s,* eta IMONES , *ba-ṣ-ku-n-e-s.* Diruzko txanponetan agertzen dira, eta beharbada Nafarroa inguruko lekuren batean eginak omen dira, eta latinez *uascones* forman erabiltzen

(5) Ikus Johannes Hubschmid, «Toponimia prerromana», ELH, tom. I, Madrid 1960, 447-493 orr., bibliografia zehatza ematen duela.

(6) «Sobre las vocales ibéricas ę y ǫ en los nombres toponímicos», RFE, V (1918), 225-255 orriak. Gero beste lan batzuekin batera *Toponimia prerrománica hispana* delakoan argitara izan da.

Joan Corominas-ek, «La survivance du basque jusqu'au Bas Moyen Age. Phénomènes de bilinguisme dans les Pyrénées centrales», *Estudis de toponimia catalana I, Barcelona* 1965, 93-152 orriak, uste duenez inguru horietan Pidal-ek seinalaturikako VI-VII. mendeak baino geroago ere, Rekonkista deiturikako bi edo hiru lehenengo mendeetan, iraun zuen euskarak zenbait haran goialdekotan, 119. or. eta hurrengoak.

Huesca-ko 1349ko ordenantzetan diglosia zaharra hirukoa bihurturik agertzen da: «Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que conpre nin venda entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych nin en basquenç; et qui lo fara pague por coto XXX sol.», Ricardo del Arco, «Ordenanzas inéditas dictadas por el concejo de Huesca (1284 á 1456)», *Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos,* t. XXIX (1913), 112-126 eta 427-452 orr., 433. or. dator. A Apat Echebarne erraturik dago J. M. Lacarra dela horren argitaratzailea dioenean.

(7) Lanok *Misceláneas* liburuan bildurik daude, Madrid 1949. Aurreko urtean Erdal Akademian sartzeko eginikako hitzaldia izan zen 1943koa; eta egia esateko, ordurarte ez zitzaion behar bezala aintzat hartu izan lehenago eginikako aurrerapiderik. Gerhard Bähr Gipuzkoako seme alemanak, ordea, bere tesirako gogoan hartu zuen, eta hura Göttingen-en irakurri zuen 1940an; 1948rarte, bera hil ondoan, argitara ez bazen ere, *Eusko Jakintza,* vol. II, 3-20, 167-194, 381-455.

zena berdintzat hartzen da. Jakina, *-es* bukaera indoeuropar hizkuntza batetako →desinentzia →plurala da, inolako dudarik gabe (8). Horrek adieraziko luke merkatalgoaren mundu zabalerako, halakoaz baliatzen zirela orduko euskaldunak ere, protoeuskara hutsez izkribaturikako textu argi eta garbirik oraindaino ez bait da sekula agertu izan.

IV. L. MITXELENAREN APORTAZIOA

L. →Mitxelena-k ontzat hartu zuen Tovar-en proposamendua (9), baina oraintsu gogora ekarri du J. Untermann-ek argudio berri bat erantsi diola haren proposamenduari, ilunguneak ikusten zizkiotenentzat; esan izan bait da, alegia, zeltiberikoaren *b-* garai haietan ez zegokiola, erraz bederen, latinezko →bokalaren aurreko *u-* →erdikontsonanteari. Orain, gainera, *bars-, -r-* duena, ez dirudiela bestea baino zaharragoa, berriagoa baino, eta *bas-* delakoaren irakurtzerakoan, /bras-/ izan dezakegula azpiegituran, beste forma paralelo batzuren arabera. Izan ere, izkribakera iberikoak ez zuen halako multzo kontsonantikorik, *br, bl, kr, kl,* eta abar, *muta cum liquida* direlakorik seinalatzeko modu zuzenik; hizkuntza iberikoan ezagutzen ez bait zen, eta ezta orduko euskaran ere (10).

L. Mitxelena-k berak seinalatu zuenez, argitasun berriok ditugula eta, euskal-iberismoaren arazoak ez du irtenbide egokirik aurkitu (11). Iberikoa, hizkuntzari dagokionez, indoeuropar multzokoa ez den hizkuntza hispaniko zaharra da, bereziki inskripzioen bidez ezagutzen duguna; inskripzio hauek gehienetan bertoko izkribakeran —honi ere iberikoa deitzen zaio— agertzen direla. Mediterranioko itsasaldean azaltzen dira haren arrastoak Frantziako Ensérune-tik hasirik eta baita Ebro ibarraren erdi inguruan ere. Baina inskripzio iberikoetan ageri diren textuak ezin ulertu izan dira oraindaino; irakurtzeko bidea zabaldu bada ere; eta hori ez litzateke gertatuko baldin iberikoa euskararen forma zahar bat balitz, edo gutxienez, berekin ahaidetasunez loturik balego.

Hala ere bada ikerbidetik abiatua euskararen bidez arazo honi argitasuna ematen saiatzen dena Mediterranioa idoro duelakoan... Baina ezin har ditzakegu aintzat, sasi-zientzia paralelo baten eraginez besterik ari ez bait dira (12).

(8) «Léxico de las inscripciones ibéricas (Celtibérico e ibérico)», Estudios dedicados a Menéndez Pidal, t. II, Madrid 1951, 273-323 orr. Baita «Etimología de 'vascos'», *BRSVAP,* II (1946), 46-51 orr.

(9) *Sobre el pasado de la lengua vasca,* San Sebastian 1964, 126. or.

(10) *La lengua vasca,* Durango 1977, 69. or. Ikus Jürgen Untermann, «Las leyendas monetales», *Actas del I Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica* (Salamanca, 27-31 mayo 1974), Salamanca 1976, 219-220 orr.

(11) *Sobre el pasado de la lengua vasca,* op. cit., 169-170.

(12) Ikus Miguel Roure Linhoff, *La esfinge entreabre sus labios (Notas sobre vascoiberismo),* Barcelona 1967, 48. or. Baina badira gehiago.

V. J. MALUQUER-EN APORTAZIOA

J. Maluquer-ek finkatzen duenez, agertu diren inskripzioen artean ez dugu batere Kristoren aurretikako IV. mendea baino lehenagokorik; baina mende horren hastapenerako ondo hedaturik zegoen delako izkribatze-molde hori. Badira arrazoiak V.aren bigarren partean hasi zela uste izateko. Tratatzen dugun izkribakeraren ehuneko hirurogei ta hamar →zeinu baino gehiagok, grekoan du zuzen-zuzenean bere jatorria; eta batzu Grezian bertan VI. mendea baino lehenago agertu ez zirenak dira. Beste alderdi batetik greziarren eragina zabala eta hedatua ezin gerta zitekeen VI. mendearen azkenaldian baino, eta arkeologiak inolako dudarik gabe erakusten du V.aren azkenaldian eta IV. mendean izan zirela merkatalgoan, politikan eta kulturan harremanik handienak greziar munduaren eta Penintsula Iberikoaren artean. Hala ere, bada puntu bat argi gelditzen ez dena. Inskripzio horiek sistema erdisilabikoa dute, hegoko eguzki aldean denbora berean izkribakera alfabetiko hutsa erabili bazen ere; hau da, greko-iberikoa. Tovar-ek emanikako argitasun guztia gogora ekarririk, honela dateke, agian: sistema hori asmatu zuen gramatikariak Greziako izkribakera alfabetikoaz gainera, kontsonantiko semitikoa ezaguturik, jakinaren gainean silabismoan iraun zezakeen, hura zeharo baztertu gabe. Nolanahi dela ehuneko hogei ta hamar zeinu baino gehiago aurreratzen zituen edozein textu iberiko izkribatzeko. Maluquer-ek, gainera, uste du berbera dela inskripzio meridionalen —hauek badituzte argitu gabeko puntuak— eta hego-eguzki aldekoen izkribakera eta duten alde bakarra hizkuntza desberdinentzat erabili izatean datzala (13).

VI. KALAGORRI DELA ETA

Badira, ordea, *zenbait diru txanpon* 𐊠𐊬𐊱𐊲𐊭𐊴𐊵 edo 𐊠𐊬𐊱𐊲𐊭́𐊴𐊵 edo 𐊠𐊬𐊱𐊲𐊭𐊴́𐊵 txanpondu zituen hiriaren izena daramatenak (14). *Ka-é-a-ko-ŕ-i-ko-s* irakurtzen dira; baina gogoan izan behar da →leherkari eta →ozenen arteko berezkuntzarik ez zela egiten izkribakera-sistema horretan; eta gainera *ŕ* delakoa beste *r* baten aldamenean agertzen dela,

(13) J. Maluquer de Motes, *Epigrafía prelatina de la Península Ibérica,* Barcelona 1968, 8-10 orr. Gómez Moreno-k Hegoaldeko inskripzioei bastulo-turdetano deitzen die.

(14) Ikus Julio Caro Baroja, «La escritura en la España prerromana (Epigrafía y Numismática)», *Historia de España* dirigida por Ramón Menéndez Pidal, tom. I, vol. III, tercera edición, Madrid 1976, 677-812 orr., «ciudad muy conocida del territorio vascón en tiempo de Ptolomeo» (II, 6, 66: καλαγορίνα), antes celtíbera, y a cuyos habitantes se les dieron derechos de ciudadanía romana de muy antiguo (Plinio, *N. H.,* III, 24: «Caesaraugusta... recipit populos LV, ex his civium Romanorum Calagurritanos qui Nasici cognominantur...»), 718. or. Inskripzioa 708. or., 67. zk.
María Ruiz Trapero, *Las acuñaciones hispano-romanas de Calagurris,* Barcelona 1968, 48-49 orr.

eta →letra horien →ahoskuntzaz argitasunik ez badugu ere, arrazoizkoa da uste izatea, baldin gero latinez agertzen den *Calagurris* forma gogorra badakargu, *rr* indartsua bezalatsuko zela. Horrela *Kalagorrikos* ontzat hartzera iritsiko ginateke, inskripzio horien ordain gisa. Bukaerari dagokionez, Jürgen Untermann-ek, Faust aipaturik, garai bereko diru txanpon hispanikoei begira, zenbait toponimo eta haietarik eratorritako etnikoen artean aurkitzen duen zer-ikusi formala seinalatu nahi dut hemen: *oilaunes - oilaunikos / ařekořata / ařekořatikoś, śekaisa / śekaisakom, ařatis / ařatikoś,* eta latinezko iturri literarioetan agertzen direnak gogoan harturik: *kolounioku - Clunia, titiakos / Tritium, ařkailikoś / Uxama Argaela, kalakořikos - Calagurris, lutiakoś - Lutia* (15). Beraz, zeharo normala da *kalagorri* formak hartzen duen berrekailu zeltiberoa, hizkuntza zeltiko batekoa, alderdi batera utzirik euskaraz ere funtsa hartzen duela →nominatiboaren →marka izan daitekeen *-s* kendurik geroagoko garai historikoetara itzultzen baldin baditugu begiak (16).

Diru txanpon horiek txanpondu ziren garaia ere finkaturik dago: Sertorio-k bere ekintza politiko eta militarrak izan zituenekoa; hau da, 82. eta 72. urteetako bitartea Kristo jaio aurretik, azkeneko urte horretan hil bait zuten hura. *Calagurris* deseginik gelditu zen, eta ordurarte zeltiberotzat agertzen bazen ere, gero *uascones* direlakoen artekoa izango da, eta Zesarrek erromatar udaletxe egingo zuen (17).

Latinezko iturrietan, ordea, toponimoaren *-gurri-* elementua *-gorri-* bezala ere dokumentatzen da: «In itinerario (p. 393, 1) *Calagorra* forma in libris melioribus traditur; Tarracone extat titulus C. Sempronii M. f(ilii) Gal(eria) Fidi Calagorrit(ani); similisque Calagorris forma, quam supra habuimus in titulo n. 2959, tam ab Ausonii libris (epist. 25, 57) quam in oppido Galliae cognomine ab auctoribus melioribus confirmatur», ikus *CIL,* II, 404 orr.

Antonino-ren Itinerario delakoaren esku-izkribu zaharrena *Escorialensis* R II 18 deritzana da, VII. mendekoa, hura sortu zen garaia III. mendean jarri behar bada ere eritzi autorizatuenaren arabera, eta *Calagorra* dakar, hain zuzen eta latinezko →akusatibotik heldu dena, *Calagorre(m)* delakotik (18).

---

(15) Jürgen Untermann, «Las leyendas monetales», op. cit., 223. or.

(16) Tovar-ek euskarazko *-ko,* genitibo leku-denborazkoa eta zenbait eratorri sortu dituena, agian, izen nagusietan eta bizidun adiera dutenekin hipokoristikoak eratzeko erabili izan den berbera —L. Mitxelena-k seinalatu zuenez, FLV 1 (1969), 9. eta 400. orr.— indoeuroparraren eremuan agertzen den *-ko-* elementuarekin konparatzen du. Ikus *El Euskera y sus parientes,* Madrid 1959, 69. or. eta hurrengoak.

(17) Maria Ruiz Trapero, *Las acuñaciones...,* op. cit., 51-53 orr.

Andrés E. de Mañaricua, «Fuentes literarias de época romana acerca del pueblo vasco», *Segunda semana internacional de Antropología vasca,* abril de 1971, Bilbao 1973, 281. or. eta hurrengoak.

(18) Ikus José Manuel Roldán Hervás, *Itineraria Hispana,* Madrid 1975, 42. or. Otto Cuntz hartzen du iturri bezala: *Itineraria Romana,* volumen prius: *Itineraria Antonini Augusti et Burdigalense,* Leipzig, Teubner, 1927, eta haren aparato kritikoan aipatzen diren zazpi esku-izkribuetatik, baten bakarrik agertzen da aldaera *Galagorta* gisan. Baina X-garren mendeko kopia da,

Erromatarren garaian, ordea, baziren hiru *Calagurris*, bat gorago aipaturikako diru txanponak prestatu zituena, eta *Nasica* gaineratzen zitzaiona; beste bat *Calagurris Fibularensis* (Plinio, 3, 3, 24), *ilergetes* direlakoen artean; eta beste bat Akitania-n (Haute Garonne).

Erdi Aroan ondo dokumentaturik dugu *gurri* forma *gorri* euskal →adjektiboaren bikote bezala, eta haren bokalismoak oraino *Arrigorriaga* herri-izenaren era arrunt euskaldunen artekoan irauten du, *Arguia* esaten bait da *-rr-* kontsonantearen →aurreranzko →disimilazioa duela beste fenomeno fonetiko batzuren artean.

Ezin utz daiteke aipatu gabe Burgosko Mena haranean agertzen den Galagorri toponimoa, XIX. mendean baserri-izen gisa Jesus Maria Sasia-k dokumentatua. Balmasedan, alabaina, Bizkaiko mugan, *Garagorri* leku-izena dugu (19), aspaldiko euskaldunen artean *-l-* →bokalartekoa *-r-* bihurturik, agian Mena haranekoan ordurako erdaldunen ahotan erabili izanik fenomeno hori bete ez zela. Berdintsu gertatzen da *Calahorra* hiri-izenaren kasuan; baina azken hitz hau, askoz lehenago, oraino latinez mintzatzen zela, erdararako finkaturikakoaren ondokoa da. Jakina, *-u-* bokalismo nagusituaren ondotik erdaraz ez zen diptongaziorik sortu, *-o-* zutenetan sortu zenez, Brioneseko *Mendigüerra* mendiskaren izenean ageri den gisara, mendebalaldeko lekukotasuna aipatzeko. *Calagurri-* edo *Calagorri-*, beraz, izen bati →adjektiboa erantsirik osatu zen euskarazko →izen-→sintagma besterik ez da (20). Hastapeneko *Cala-* erromatarren aurretik zabal zebilen zibilizazio-hitza zen, dirudienez, eremu protoeuskalduna baino hedadura zabalagoan bait ditu erroak (21).

Parisinus Regius 7230 A deitua eta baditu beste errata batzu ere, hala nola *Uerela, Cascanio* eta abar, *Vereia* eta *Cascanto* formen ordez. Beste guztietan *Calagorra* dator (393, 1). Hala ere Erdi Aroan *Calagurra* dokumentatzen da eta *ad Calahurram* (1049, dok. 139, eta 1042, dok. 119, L. Serrano, *C. S. Millán)*.

(19) Jesús María Sasia, O. S. B., *Toponimia euskérica de las Encartaciones*, Bilbao 1966.

(20) Ikus Alfonso Irigoyen, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara», *Euskera* XX (1975), 184. or., eta «La lengua vasca y el País Vasco», *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* (1977), 183-184 orr., nota 1.

(21) Ikus Johannes Hubschmid, «Toponimia prerromana», op. cit., 468-470 orr., eta Corominas DCELC. Lehenengoak posibletzat hartzen du Zeltikoko *kala* 'gordelekua' hitzetik etortzea, frantsesezko *chalet* legez, eta *alba* bezalatsu 'gaztelua', 'leku harresitua' adieran erabili izatea garai zaharrotan. Artean bigarrenak hitza zaharragotzat hartu izan zuen.

H. Schuchardt-ek, «Iberische Personennamen», RIEV, III (1909), 240. or. «Burg-rote» («Rotenburg») hartzen du, lehenago ere seinalatu izan zenez; hau da, 'gaztelu gorri'.

L. Mitxelena-k bere *Apellidos Vascos* delakoan —hirugarren argitaraldia Donostian argitara da 1973an— ez du ontzat hartzen *Calagurris* = *Garagorri* ekuazioa eta *garo* hitzean pentsatzen du *Iragorri* eta *Irazagorri* direlakoekin konparatuz. Argitaraldi horri, ordea, eranskin batetan *gar, gara, gari* eta *garo* direlakoez izkribatu zuena ez dela batere ziurra gaineratzen dio 256. eta 265. zktan.

Menéndez Pidal-ek seigarren notan aipatu den lanean beste bide bat onetsi zuen, *Calagurris* delakoaren bukaerak *uri* euskal hitzaren gisako zerbait zuela esanik, baina haren era zaharra **hili* / **huli* formen antzeko zerbait zela pentsatu behar dugunez gero, proposamendu hori erori egiten da.

VII. BOTORRITAKO BRONTZEAREN INGURUAN

Botorrita-n, Zaragoza ondoan hego aldera, duela urte gutxi brontze bat aurkitu zuen Antonio Beltran arkeologoak indusketa-lanak egiten ari zela, zeltiberiko deitu izan den hizkuntzan orainarte agertu den texturik luzeena dakarrena. Salamankako Unibertsitatean, textu hori aitzakia harturik, solasaldi batzu egin ziren 1974ko maiatzean erromatarren aurreko hizkuntza eta kulturez. Alderdi batera utzirik solasaldi horietatik kanpora euskararen bidez bilatu nahi izan diren argitasunak, inolako zimentarririk ez bait dute, argi gelditu da indoeuropar hizkuntza baten aurrean gaudela, hain zuzen ere zeltikoa. Euskaldunen aurrekoen inguruan latina zabaldu baino lehen indoeuropar hizkuntzarik izan baldin bada uste izatekoa da elkarren arteko harremanen ondorioz arrastoren bat gelditu izango zela. Aipa dezagun etsenplu nabarmen bat edo beste gaia agortzeko asmorik batere gabe.

Miguel Unamuno-k 1884ean irakurririkako bere tesian euskarazko *zilar* hitza beste hizkuntza batzutako →esanahi berekoekin konparatzen du: «recuerda el escocés *siller;* el inglés *silver;* alemán *silber;* godo *silubra,* etc.» (22). Geroztik gutxienez Tovar-ek konparazio hori ontzat hartu izan du (23); eta Mitxelena-k (24), azkenez Botorrita-ko brontzean agertzen den *śilabur* —berdin irakur daiteke *silabur* nahiz *silabr*— delakoan aintzinekorik hurbilena ikusten duela (25) adierazi du.

Toponimian ere baditugu. Gipuzkoako *Deva* hiriaren eta ibaiaren izen ezaguna erromatarren aurreko hizkuntza indoeuropar batetik datorrena da, argi eta garbi, seinalatu izan denez. Euskal Herriko eremu zaharretik kanpora ere badira beste *Deva* batzu: *Deva* (796. urtetik aurrera dokumentaturik), Santanderreko ibaia; *Deba* (1199tik), *Miño* ibaiaren adarra, Orense-ko Trado-n; *Portela Deva,* mendietako portua Pontevedra-n Petán eta Prado bitartean eta *Portela de Deva* (1059an), Sobradelo de Goma-ko eskualdean Braga-n; *Riodeva,* ibai bat jaiotzen den leku berean Teruel-en. D'Arbois de Jubainville-k zeltikotik zetorrela hitza finkatu zuen eta haren eritziz latinezko *divus* ere jatorri berekoa da, < **deivos* hitz indoeuroparrean duela iturria. *Deva,* emetasunezko nozioz hornitua, horretara, 'jainkosa' besterik ez litzateke, eta halakoak zeltiarren artean ibaietan gorpuzturik ikusten ziren, edo baita mendi-portuetatik edo gailurretatik beterriak behatuz ere (26).

(22) «Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca», *Obras completas* IV, Madrid 1966, 117. or. Lehenengo aldiz 1958rako argitara zuen Manuel García Blanco Salamankako Unibertsitatean irakasle izan zenak.

(23) *Cantabria prerromana,* Madrid 1955, 22. or. (got. *silubr,* aaa. *silbar,* eslabo *Sirebro).*

(24) *Sobre el pasado de la lengua vasca,* San Sebastian 1964, 140. or.

(25) Javier de Hoz, Luis Michelena, *La inscripción celtibérica de Botorrita,* Salamanca 1974, 32-33 orr.

(26) Johannes Hubschmid, «Toponimia prerromana», op. cit., 488. or.

Nafarroako Ultzama ere, U(t)çama Erdi Aroan, erromatarren garaian dokumentatzen den *Uxama* formatik datorke eta agian *-ama* bukaera duten beste zenbait ere, Mitxelena-k seinalatzen duenez (27). Erdarazko eboluzioz beste leku batzutan forma bera, *Osma* izatera iritsi da. Untermann-ek Schmoll-en ondotik dioenez *-samo-, -sama-* →adjektiboen atzizki bat besterik ez da →superlatiboa adierazteko (28).

VIII. ERROMANIZAZIOAREN AZTARRENAK

Eromanizazioaren aztarrenak ugari aurkitzen dira, baina hemen ez ditugu ikertuko. Hala ere aipatu beharrekoak ditugu erromatarren garaiko Akitaniako inskripzioak, eta Nafarroako Lergan aurkitua: latinez inskribaturikoak izan arren, zenbait pertsona eta jainko-izen eskaintzen bait dizkigute euskarekin zer-ikusia dutenak, eta guri ezagun egiten zaizkigunak; Iparraldeko euskal eremua Bordele ingururaino zela agirian utzirik.

Hor agertzen dira *Anderexo, CIL,* XIII, 23, *Anderexso,* 324, *Andere,* 138, eta abar, Erdi Aroan *Andereco (Bec. Ant. Leire,* urte gabe, 195) *Andere Auria Zaarra* (1085ean, 44); *Sembecconi,* →datiboa, beraz nominatiboa *Sembecco, CIL,* XIII, 287. *Sembex(s)onis,* →genitiboa, 4 eta 62, batek *-cco* atzizkia duela, eta beste biak *-xo* eta *-xso,* Erdi Aroan *Seme* bezala batere atzizkirik gabe ere dokumentatua (1359an, Angel J. Martín Duque, «Peajes navarros, Vera y Lesaca (1358-1359)», *Homenaje a Uranga,* Pamplona 1971, 81-83 orr.); *Nescato,* emakume-izen bezala seinalatua, *CIL, XIII,* 314, egun erabiltzen dugun hitza; *Cisonten Cissonbonnis fil(ius), CIL,* XIII, 337, *-ten* eta *-bon* sarri izen bati baino gehiagori itsatsirik agertzen diren elementuak kenduz gero, *Cison* gelditzen da, hau da *gizon,* latinezko *s* euskarazko *z* bezalatsu irakurri behar bait da. Erdi Aroan *Guison* (1366an, Juan Carrasco, *La población de Navarra en el siglo XIV,* Pamplona, 1973, «El número de los fuegos de los de la villa de Lanz», 553 orr.), *Guisson Mulatero* (1366. id. Saragueta, Val d'Arcy, 471 orr.). *V. Paetvs Suri f(ilius), CIL,* XIII, 32, *Suri* nominatibokoa ere izan daitekeela, *Sanctus / Sancti(us)* direlakoetan latinez gertatzen zen bezala, Erdi Aroan *Jaunçuria de Mont Real* (1250ean, *El gran pr. de Navarra,* II, Pamplona 1957, dok. 333), *Juan* izenaurreko duela eta *Çuria* izenak artikulua; *Anderessapalonis f(ilia),* CIL, XIII, 187, agian emakumea, *Apalo* zela aita, Erdi Aroan *Apalo* (1173. inguruan, *Loc. med. artajoneses,* Pamplona 1968, dok. 136), Akitaniakoan zatiketa

(27) *Sobre el pasado...,* op. cit., 133 orr. *Unzama* dokumentatzen da Ataun-en, 1733, *Anuario de Eusko-Folklore* 8 (1928), 68, eta *-l-,* beste kontsonantearen aurrekoa, sudurkariaren eraginez, gero disimilaturik, sortu zela dio.

(28) «Las leyendas monetales», op. cit., 224. or.

(29) *Corpus Inscriptionum latinarum* delakoaz gainera, ikus L. Mitxelena-k *Textos arcaicos vascos,* Madrid 1964, delakoan, 14-15 orr., ematen duen bibliografia.

Sapalo bezala egin behar ez balitz, baina orduan *zapalo* izango genuke, euskarazko *zapal* hitza oinarri lukeena, eta *zabal* formarekin zer-ikusia duena. Bada *Zabalo* deitura ere herskari ozena duela.

Badirudi, ordea, hobeki litzatekeela *Apalo* dibisioa egitea, Erdi Arorako ondo dokumentatua bait dugu, eta *zapal,* ordea, geroago mendebal aldean besterik ageri ez bait zaigu. Uste dut Akitaniako inskripziotan agertzen diren *Suri* eta *Apalo* direlakoak orainarte bestek ez dituela *zuri* eta *apal* euskal hitzekin parean ipini eta lotu. Edozein modutan ere *apal* hitza mailegutzat dugunez gero, *ad uall(e) (m),* H. Schuchardt-ek seinalatu zuenez, franko goiz gureganatua izan behar.

Euskararen ezaugarri nagusiak

Txillardegi

Nekez asma daiteke zehazki euskararen ezaugarri nagusiak ematerakoan.

Hemen, horregatik, euskararen *ezaugarri batzu* aipatuko ditugu. Gure hizkuntzan aspaldidanik ongi erroturik daudenak; eta bestetik, ondoko erdaretatik berezten dutenak.

I. EUSKAL FONETIKAZ

A) IGURZKARIEN HIRUKOIZTASUNA

Bai →igurzkariak, bai →afrikatuak, bi sail hirukoitzetan taxu daitezke, koerlazio honen arabera:

$$\frac{[s]}{[c]} = \frac{[ś]}{[ć]} = \frac{[š]}{[č]} = \frac{\text{(igurzkariak)}}{\text{(afrikatuak)}}$$

Gaur bizkaieraz gertatu den →neutralizazioa:

$$[s] + [ś] > [ś]$$
$$[c] + [ć] > [c]$$

gertakari berria da.

Hots, hiru ordena horiek batera gertatzea ez da maiz aurkitzen. (A.P.I. →alfabetoan, →ikur berezirik ez dute).

→Aurkakotasuna, dena dela, azkarrago agertzen da bi lehendabiziko ordenen artean, bigarren eta hirugarren ordenen artean baino; aspaldiko denboretan *bi* ordena izan balira bezala.

hasi ≠ *hazi* — — — *atso* ≠ *atzo*
esker ≠ *ezker* — — — *hots* ≠ *hotz*

Halaz ere, posible da /ś/ eta /š/ fonologi aurkakotasunean aurkitzea:

sagu ≠ xagu
samur ≠ xamur
sorgin ≠ xorgin

Bigarren sailekoei txikitasuna dagokie, edo-ta bihozkortasun-kutsua.

B) /F/ FONEMAREN URRITASUNA

Aspaldidaniko →hitz bat edo beste kenduta (afari), /f/ →fonema duten hitz guztiek arrotz itxura nabarmena dute; aspaldiko denboretan igurzkari →ezpain-horzkaririk izan ez balitz bezala.

Kutsu berbera uzten dute «afari» hitzaren →aldaerek berez: «aihari», «auhari», «auari», «abari», «apari». Badirudi, bestalde, gure /f/ horrek [ø] balio fonetikoa izan duela (→ezpainbikaria, beraz) eta ez [f] gaurkoa.

Kaskoinak eta gaztelaniak /f/-ri buruz erakutsi duten ukoa, euskal →substratuaren bidez azaldu ohi da; eta honetan Kaukaso-ko hizkuntzetara hurbiltzen gaitu (abkhaz, bereziki). Esate baterako: filius (lat.), eta erromanikoetan: fillo, fils, filho; baina hijo [ixo].

Gaur dena dela, /f/ fonema, normaltzat eman daiteke zenbait euskalkitan.

C) /r/ FONEMARIK EZ HITZ-HASIERAN

Euskarak ez du erdal r- fonema inoiz bere horretan hartu, *a-* edo *e-* →epentesiaren bitartez baizik:

lat. *rota* eusk. *errota*
rege *errege*

Substratu bidez, joera berbera aurkitzen da kaskoinez; eta, hein batez bederen, aragoeraz: kask.: arrat, arro da, arriu; eta arag.: arrier, arroy, arretundo.

D) HASPERENKETA

Hiru modutara aurkitzen da aspaldidanik (gaur egun Iparraldeko euskalkietan bakarrik):

1. Hitz hasieran eta bokal artean.
   hartu; ihar
2. *l, n,* eta *r*-ren ondoren, muga fonikoa *h*-ren aurrean dagoelarik:
   alhaba; senhar; orhoitu

Badirudi →hasperenketa eta →azentua elkarri datxekiola: mérke / merkhátu; máinu / mainhátu.

E) BUSTIDURAREN BALIO SEMANTIKOA

Gauza ezaguna da, →kontsonante bat euskaraz «busti» edo palatalizatuz gero, denotazio soilari, kutsu bihozkorra eransten zaiola:

mutiko *gozo*
muttiko *goxo*

→Bustidurak ondoko kontsonante hauek ukitzen ditu, *l, r, d, t, z, s, tz, ts*. Esate baterako:

labur — — llabur
hori — — holli
madalen — — maddalen
tanto — — ttantto
zakur — — xakur
sagu — — xagu
hotz — — hotx
otso — — otxo

F) DARDARKARIAK: BAKUNAK ETA ANIZTUNAK

Gaurko euskarak (Ziberera alde batera utzita), /r/ / /r̄/ →aurkakotasuna ezagutzen du; nahiz aurkakotasun hori /r/ / /r̄/ eman, edo-ta /ɾ/ / /R/:

oro ≠ *orro*
bare ≠ *barre*

Zenbait aztarnak, dena dela, aspaldiko denboretan →dardarkari *bakar* bat ote zegoen idarokitzen dute; euskara, honetan, *Kaukaso*-ko hizkuntzetara hurbilduz:

a) Hitz zahar batzutan ageri den bikoiztasuna:

beriz = *berriz*
hori > *horrek*
harezkero = *harrezkero*
ateri = *aterri*

b) Hitz-elkartu zaharretan somatzen dena:

lur > *lubizi, lupeko*
hamar > *hamabi, (h)amahiru*
bihar > *biharamun*

Aspaldiko euskara, beraz, Kaukaso-ko hizkuntzetatik hurbiltzen bide da honetan. Gauza bera antzinako leku-izenetan:

iluberi / iluberri

Ez bait da ziur ortografi arazo hutsa denik.

G) EUSKAL ASIMILAZIOA

Ozentasunari dagokionez, eta honetan ere ondoko erdaretatik urruntzen delarik (hizkuntza zeltikoak salbu), euskarak lege hau betetzen du orain dela hogei mende gutxienez:

akit.: *Cisoonbonnis / Andoxponni*
gorra + ozena > bi gor

Adibidez, gaurko euskaraz:

ez dakit > *eztakit*
ez gaitu > *ezkaitu*
ardi + gazte > *arkazte (< art-gazte)*

Plegu bereko sandhi da ondoko hau:

horiek dira > *horie tira*

H) AZENTUA

Zubereraren →azentua salbu (eragin erromanikoaz omen), euskal azentua oso urruti dago hizkuntza indoeuropar eta semitikoetatik; eta bertago, itxuraz, hizkuntza fino-ugriarretatik.

Denak idarokitzen du, dena dela, →aldaketa garrantzitsuak gertatu direla euskal azentuan.

II. EUSKAL MORFOSINTAXIAZ

A) GENERORIK EZ EUSKARAZ

Kaukaso-ko zenbait hizkuntzatan bezala, euskarak ez du →genero gramatikalik ezagutzen.

Baina →aditz-jokoan sexu-marka ageri da (ez beti, dena dela): *duk / dun; ekarri diat / ekarri dinat.*

Ageri denez, sexu-markak NORK eta NORI aldatzen ditu; baina ez NOR: *ikusi haut, hindudan.*

B) ZENBAKIAREN ARAZOA

Gaurko euskarak hiru →zenbaki ezagutzen ditu:

(zenbait) *gizon,* (zenbait) *gizoni...*
gizona , *gizonari...*
gizonak , *gizonei...*

Nahiz, funtsean, hau izan:

*gizon-i; gizon-a-(r)i; *gizon-ag-i.*

Ikuspegi diakroniko batetik, ordea, aisa ageri da bigarren eta hirugarrenaren elkarketa-kutsua (art. *-a* < *er.* hura); eta badirudi, hitz batez, zenbakirik gabeko egoera bat ezagutu duela euskarak aspaldiko denboretan.

Honek, berriro ere, Kaukaso-Mendebaldeko hizkuntzetara hurbiltzen gaitu (abkhaz).

C) KAUSATZAILEA EDO ERAGILEA

Bide berria *erazi* →aditza eranstea da:

erosi > *eros-erazi*
saldu > *sal-erazi*

Bide zaharra, ordea, gaur fosilduta, *-ra-* atzizkiaz baliatzea zen:

egin > *eragin*
ekarri > *erakarri*

Berriro ere, Kaukaso-ko hizkuntzak bide dira hurbilena: *r-* (abkhaz).

D) ELKAR-PERPAUSA ETA PERPAUSA BIHURKORRA

Puntu honetan ere, oso bide berezia ezagutzen du euskarak; Kaukaso-ko hizkuntzetatik hurbilago itxuraz:

1.—Elkar-perpausa

Nik zu maite zaitut
Zuk ni maite nauzu
Hortaz: *guk ELKAR maite dugu*

Elkar hitza deklinatu egiten da: *elkarri, elkarren, elkarrengandik...*

2.—Perpaus bihurkorra

Nik neure burua hilko dut
Zuk zeure burua ezagutzen duzu

Kaukaso-ko hizkuntzetan *«-re burua»* horixe erabiltzen da, eta ez →izenorderik: georgieraz, abkhaz.

E) EUSKAL ADITZAREN UGARITASUNA

→Lafon-en hitzez esateko, «la complexité du verbe basque contraste avec la simplicité de la déclinaison». Eta, berriro ere; Kaukaso-Mendebaleko hizkuntzak gogorazten dizkigu ezaugarri honek.

Euskal aditza *bat, bi, hiru,* are *lau,* →subjekturen arabera moldatzen da:

sartu naiz	(ni)
sartu natzaio	(ni-hari)
sartu naute	(ni-haiek)
sartu diot	(hura-hari-nik)
sartu zioat	(hura-hari-nik, etiko)
sartu zizkioat	(haiek-hari-nik, etab.)

→*Aspektuak* (bi sail bikun) eta →*denborak* →aditz-jokoan sartzen direnez gero, euskal aditzak ugaritasun harrigarria du.

Elkarrizketan entzule dagoena bereziki aipatzeari, «hitano» deritzo euskaraz; eta oso ezaugarri berezia da: «la conjugaison basque comprend tout un jeu de formes que l'on appelle *allocutives,* et qui constituent un de ses traits les plus originaux» (Lafon).

Gero eta osokiago, euskal aditza *laguntzailez* lortzen da; baina antzinako denboretan, galtzen hasia dena dela, aditz sintetikoa bazegoen (→laguntzailerik gabea, alegia):

etortzen nintzen / nentorren

F) SUBJEKTUAK

Euskal perpausean, normaltzat eman daiteke hiru subjekturen egokiera:

nik amari liburua erosi diot
Alegia:
nork erosi: nik (-t)
zer erosi: liburua (d-)
nori erosi: amari (-o-)

Gramatika sortzailean «transformazio pasibo» deituko genukeen hori, euskaraz ez da erabiltzen. Erdarazko «pasiba/activa» aurkakotasu-

nik ez dago euskaraz; →ergatibo (nork) eta datibo (nori) kide hertsiak dira; eta, hitz batez, euskal aditzaren pasibotasunik ez dago. Euskal →joskera *bakarra* bait da ez bata, ez bestea. «Allí donde no hay oposición de voz que *enfrenta* formas pasivas a activas, el verbo sólo puede ser considerado como *neutral o indiferente* a este respecto» (Čikovava, →Mitxelena).

Dena dela, inoiz falta ez den elementua *NOR* da; eta, zentzu horretan, euskal aditzaren ardatza *NOR* dela esan behar da; eta *NORK* eta *NORI* erantsiak direla (*-K* eta *-I* →atzizkiak erantsitzat har daitezkeen bezala). Era berean, eta →deklinabideari dagokionez, *NOR* elementuari dagokio ∅ →marka.

Erdal subjektua, dena dela, eta euskal hiru subjektuok, guztiz dira desberdinak eta erkatu ezinak: «le fait que l'accord ainsi établi se fait avec chacun des trois déterminants, *oppose nettement* l'accord basque et celui des langues indoeuropéennes traditionnelles» (Martinet). Fillmore-ren teoriak arakatu behar lirateke.

G) HIRU KASU NAGUSI

Horri atxekirik, oso leku berezia dagokie NORI eta NORK →kasuei; *-ko* atzizkia ezin bait zaizkie atzetik erants. Antzinako deklinabidea, «abkhaz»-ezkoaren antzera, hastapenetan murritza izan balitz bezala.

Berriro ere, hortaz, euskal deklinabidea *xinplea* izan dela esan dezakegu; eta gero, baina ez oso aspaldian, *atzizki*-mordo bat erantsi zaiola. Atzizki-mordo hau, ordea, *-ko*ren bitartez froga daitekeenez, bestelakoa da; eta gerozkoa seguraski.

H) EUSKAL ERLATIBOA

Gramatika sortzailearen arabera, →erlatiboa izaten da →transformazio bidez, eta ez bestela, azal daitekeen perpaus-moldeetako bat.

Hots, beste ezertan ez dira desberdinago ageri euskara eta ondoko hizkuntzak:

el hombre que has visto hoy
l' homme que tu as vu aujourd'hui
1 2 3 4 5 6 7

gaur ikusi duzu-n gizon-a
6 5 4 3 2 1

I) IZAN ETA EZ IZAN

Lafon-ek behin eta berriz azpimarratu duenez, euskal aditzaren biketan hau ageri da: →*iragana ez dagokiola orainari,* agian-ezko aditzjokoei baizik:

nator / nentorren, banentor
dugu / genuen, bagenu

Iragana, hitz batez, ez-izanekin doa euskaraz; *izan*-arekin loturarik ez balu bezala.

Iraganaren marka, bestalde, (-n), Abkhaz-ez aurkitzen den berbera da.

J) «BAT» ATZETIK

Abkhaz-ez bezalaxe, zenbatzaile guztiez bestaldera *(hiru etxe, lau etxe, hamar etxe),* «bat» atzetik doa: *etxe bat.*

→Ezaugarri arkaikoa bide da, alde horretatik, bizkaieraz bizi den →sintagma:

etxe bi
gazte bi

(eskuarki entzun ohi den «bi etxe» eta «bi gazte» horiez bestaldera).

BIBLIOGRAFIA

MICHELENA, L.: *Sobre el pasado de la lengua vasca,* Auñamendi, 1964.
TOVAR, A.: *La Lengua Vasca,* Amigos del País, 1950.
LAFON, R.: La langue basque, *Musée Basque,* Bayonne, 1973.
— *Etudes basques et caucasiques,* Salamanca, 1952.
BOUDA, K.: *Introducción a la Lingüística Caucásica,* Salamanca, 1952.
MARTINET, A.: *La linguistique synchronique,* (206/222), PUF, Paris, 1968.
— *Economie* (370/388), Ed. Francke, Berne, 1970.

Euskarria
apoyo / appui / support

→Hitzaren →ahoskuntza erraztearren bi fonemen artean sartzen den elementu foniko bizkarroiari euskarri-→bokala edo euskarri-→kontsonantea deitzen zaio.

Normalki euskarri-bokalak bi →kontsonanteren artean sartzen dira, euskaraz *Inglaterra* esan beharrean *Ingalaterra* esaten dugunean, adibidez.

Ik. ANAPTIXIA

Exklusiboa
exclusivo / exclusif / exclusive

Bi →fonema *erlazio exklusiboan* daudela esaten da, bata besteari →ezaugarri →bereizle bakar batez aurkajartzen zaionean eta bientzat →erkide diren ezaugarriak bi fonema horiek bakarrik aurkezten dituztenean: /p/ eta /b/ erlazio exklusiboan daude, bata bestetik ozentasun-ezaugarriak bakarrik desberdintzen ditu eta horiek bakarrik aurkezten dituzte batera ezaugarri hauek; [+ezpainbikari] eta [—sudurkari].

Ez-burutuzkoa
no-perfectivo / non-accompli / non-perfective

Sin.: EZ-PERFEKTIBOA

«Ez-burutuzkoa» deritza gertakaria bere garapenean adierazten duen →aspektuaren formari. «Joxek jaten du», «Joxek jaten zuen», «Jaten ari da», eta «Jaten ari zen», guztiak, aspektuari dagokionez, «ez-burutuzkoak» dira.

Ez-perfektiboa
Ik. EZ-BURUTUZKOA

Ezaugarria
rasgo / trait / feature

1. Eman ditzagun bi →hitz hauek: *ardo/ arto,* semantikari dagokionez, *ardo* (= vino, vin) eta *arto* (maiz, maïs), *bi* hitz dira, eta ez bat. Hots, artikulazio-puntuari dagokionez, oso kideak dira /t/ eta /d/ →fonemak. Zerk berezten ditu? /t/ fonema →gorra da; /d/ fonema, berriz, →ozena da. Hitz batez, →aurkakotasun horretan, ozentasuna da ezaugarri →bereizlea. [+] ezaugarria badu, *ardo;* eta [—] ezaugarria badu, *arto.*

2. Gramatika →sortzailean, berriz, hiztegiko elementu guztiek dituzte zeinek bere ezaugarria. Hauek bi mota edo sailetakoak izan daitezke; *ezaugarri atxekiak,* batetik, inguramendua zein den ere dirautenak: *gizon* [+ biziduna]; eta *textuinguruzko ezaugarriak,* bestetik, ingurunearen araberakoak: *pentsatu* [+ gizaki .....].

Ezpain-horzkaria
labiodental / labiodentale / labiodental

→Kontsonante ezpain-horzkariak, beheko ezpaina eta goiko ebakortzak elkarri hurbilduz edo elkar ukieraziz artikulatzen diren kontsonanteak dira, euskarazko [f] eta frantsesezko [f] eta [v] bezala.

Ezpainbikaria
bilabial / bilabiale / bilabial

→Kontsonante ezpainbikaria bi ezpainak elkarri hurbilduz gertatzen den herste edo konstrikzioaz ebakitzen den kontsonante →ezpainkaria da.

Euskarak bi eratako ezpainbikariak ditu, →herskaria «gan*b*ara» edo «ahiz*p*a» →hitzetan, eta konstrikziozkoa «ho*b*e» edo «ho*bi*» hitzetan; hots, konstrikziozkoa bokal artean gertatzen da.

Akustikoki, kontsonante ezpainbikariek beste kontsonante ezpainkariek (→ezpainhorzkariek) baino uherdura txikiagoa dute.

Ezpainkaria
labial / labiale / labial

→Kontsonante ezpainkaria, ezpainak biribilduz artikulatzen den kontsonantea da. Horrela, ezpainkariak deitzen dira, bai bi ezpainen bidez gauzatzen diren kontsonanteak (→ezpainbikariak), bai beheko ezpainaren eta goiko ebakortzen bidez gauzatzen direnak (→ezpainhorzkariak). →Akustikaren aldetik, →soinu ezpainkaria barreiatua da (ahots-bidearen gehienezko estugunea ahobarrunbearen aurrekaldean bait dago) eta →lodia (periferikoa izanik artikulazioa, ahoko durundigilea zabala da eta ez zati-banatua).

F

Faktitiboa
factitivo / factitif / causative

→Subjektua, normalean, →aditzak adierazten duen →ekintzaren →egilea izan ohi da. Baina zenbait aditz-motaren kasuan, ekintza ez du subjektuak berak gauzatzen, subjektuak horretara behartutako beste norbaitek baizik. Adibidez, *Amak negar egin zuen*

perpausean subjektuak *(amak)* egiten du negar, baina *Amak negar eragin zion* perpausean semeak edo alabak egiten du negar, ez amak (subjektuak). *Eragin*-en gisako aditzei esaten zaie *faktitiboak*. Euskaraz bi →morfema daude, batipat, aditzak faktitibo bihurtzeko: *-ra-* →artizkia *(eraman erabili, erakarri, eratorri...)* eta *erazi* edo *arazi (adierazi, edanerazi, egin erazi...)*. Hala ere, formalki faktitibo den zenbait aditz ez da, gaur egun, faktitibo bezala erabiltzen. Adibidez, *erabili* ez da *ibilerazi* bezala ulertzen.

Familiar

familiar / familier / familiar

Hizkuntza, →hitz edo estilo bat *familiar* direla esan ohi da, beronen erabilkerak nolabaiteko hurbiltasuna adierazten duenean, hizkuntza akademikoaren propio diren zenbait erlazio deusezten direlarik.

Faringaria

faringal / pharingal / pharingeal

Faringaria deitzen da →kontsonante bat, honen artikulazioa mihi-erroa eta →faringeko atzeko pareta elkarri hurbilduz gauzatzen denean; artikulazio-mota honen ondorioz bemolizazio deituriko fenomenoa gertatzen da. Horrelako →fonemak hizkuntza semitikoetan agertzen dira.

Faringea

faringe / pharynx / pharynx

Faringea ahots-bidearen atal bat da, laringea ahoarekin eta sudurtzuloekin harremanetan jartzen duena. Beheko aldetik laringeak mugatzen du, eta goiko aldetik, mihi-erroak. Orain dela gutxi egiaztatu zen, fonazio-aldian itxuraz aldatu egiten dela faringea, mihiaren eta laringearen mugimenduen eraginez; oraindik ez da ongi ezagutzen zein neurritan eragiten dion horrek →ahoskuntzari. Gloti-gaineko durundigilea den aldetik, laringeko dardararen maiztasun apalak faboratzen ditu: indartzen dituen harmonikoek lehenengo →formantea osatzen dute (F_1 edo goi-formantea).

Feed-back

feed-back / feed-back / feed-back

→Sistema batetan, beronen ekintzaren ondorioak sistema-barruan sartzeak duen eraginari esaten zaio feed-back edo atzera-eragina. Atzerantz itzultzen den informazioak funtzionamendu-metodoa eta -eredua aldatzeko gauza denean, feed-back delakoa gertatzen da; atzeraeragin-printzipioa da, zeinaren bidez edozein hizkuntzak, ordenadore on baten gisa, bere buruz kanporatzen bait du, antza, bere baitatik zenbait disfuntzionamendu. Hizkuntza, horrela, sistema autorregulatzaile bezala ikus daiteke: →hitza oso zentzu zabalean hartzen bada, feed-backaren adibiderik ezagunenak, eboluzio fonetikoak sortutako homofonia ezatsegin batzuren baztertzeari lotuak daude. Ingelesez, adibidez, *-ea* eta *-ee* arteko berezketa galtzean, *queen* «erregina» eta *quean* «emagaldua» era berean ahoskatzen ziren: nahasketa honek *quean* hitzaren desagertzea ekarri du, autorregulazio gisako zerbaiten ondorioz. Era berean, jasotzaileak, hizkuntzari eta hitzegiten duenari buruz dakienaren arabera, analisatu egiten ditu entzuten dituen →soinuak, textuinguruzko →aldaketak baztertuz. Honela, *jakin* hitzak →ebakera ezberdinak ditu euskaraz, baina hori ez da eragozpen entzulearentzat, →hiztunak esan nahi duena ulertzeko. Feedback-ik gabe, elkar ulertzeko ezinbestezkoa den gutxienezko egonkortasuna faltako litzaioke hizkuntzari.

Fema

fema / phème / phememe

«→Ezaugarri foniko →bereizle» →kontzeptuaren baliokidetzat erabiltzen da fema. →Fonema baten ezaugarri-multzoari, bide beretik, *femema* deritza.

Femeninoa

femenino / féminin / feminine

Femeninoa →genero gramatikala da. Bi generotako sailkapenean, →maskulinoari aurkajartzen zaio, eta hiru generotako sailkapenean, maskulinoari eta →neutroari. «Arraren» eta «emearen» arteko sexu-→aurkakotasunean oinarritzen den genero naturalean, askotan, ez beti, «emeari» dagokio femeninoa.

Fenotipoa

fenotipo / phénotype / phenotype

Chaumjan errusiar linguistaren terminologian, fenotipoa, →genotipo edo objektu sintaktiko abstraktu batek hartzen duen kanpo-forma da. Fenotipo-genotipo →aurkakotasuna →ariketa-→gaitasun aurkakotasunari dagokio. →Whorf ere ildo beretik doa.

Figura

figura / figure / figure

→Glosematikan, →edukinaren forma edukin-figuratan analisatzen da, eta →adierazpenaren forma, adierazpen-figuratan. *Edu-*

kin-figura unitate semantiko gutxienezkoa da (analisi semantikoaren sema edo ezaugarri semantikoarekin aldera daiteke); *plerema* ere esaten zaio. *Adierazpen-figura,* berriz, adierazpenaren analisiak erdiesten duen unitate gutxienezkoa da (fonologilarien →fonemaren parekotzat har daiteke); →*zenema* ere esaten zaio. Hizkuntza batek erabiltzen dituen figuren multzoa mugatua eta nahiko txikia da; elkarrekin konbinatuz, ordea, →zeinu-multzo →mugagabea lortzen du.

Filologia

filología / philologie / philology

→Linguistika eta filologia ez dira gauza bera; bata eta bestea zientzia oso desberdinekin daude harremanetan.

Filologi zientzia historikoa da eta iraganeko zibilizazioak, hauek utzi dizkiguten dokumentu idatzien bidez, ezagutzea da beraren helburua.

Arkeologia Aintzinateko zibilizazioak aztarna materialen bidez ezagutzen saiatzen den bitartean, filologiak literatur textu idatziak aztertzen ditu batez ere; historiaren zientzia laguntzailea da, hortaz, epigrafia eta papirologia bezala.

Erabiltzen dituen dokumentuen baliozkotasuna finkatzea, textuaren autentikotasuna eta egiatasuna barneko eta kanpoko kritika bidez egiaztatzea: hau da zientzia historiko ororen xedea. Filologia textuen kritika da; «textua ezartzen» ahalegintzen da, horretarako bere teknika propioek (textuen, aldaeren konparazioak, esku-izkribuen historiak) eskaintzen dizkioten barneko eta kanpoko erizpideez baliatzen delarik, baita beste teknika batzuk eskaintzen dizkioten kanpo-datuez ere. Textuen edizioa da filologoen lan nagusia.

Flexiboa

flexivo / flexionnel / inflectional

Hizkuntza batetako →hitzak unitateen →funtzioa adierazten duten gramatikazko →morfemez hornituta daudenean, eta morfema bakoitza osatzen duten elementuak segmentaezinak direnean, hizkuntza hori flexiboa dela esaten da (hizkuntza →eransleei aurkajarriz). Horrela, latinezko *boni*-ren *i* hori →pluralaren, →nominatiboaren eta →maskulinoaren →marka da batera. Hitz-sailek →deklinabideak osatzen dituzte, motatan sailkatzen direnak; mota bakoitzarentzat, →paradigma edo eredu bat dago, eta honen arabera deklinatu behar dira motako hitz guztiak.

Fonema

Ik. FONETIKA-FONOLOGIA

Flexioa

flexión / flexion / inflection

Sin.: JOKOA

1. Gramatika klasikoan, →aditz, izen edo besteren →erroak →afixuz edo →desinentziaz hornitzean datzan prozesu morfologikoa da flexioa. Hizkuntza bakoitzean berezten diren hitz-klaseen arabera, desinentziek →funtzio sintaktikoak (→kasuak), zenbait gramatika-→kategoria (→numeroa, →pertsona, eta batzutan →generoa), edo-ta kategoria semantikoak (→bizidunak ala bizigabeak, etab.) adierazten dituzte. Alde honetatik, oso hizkuntza aberatsa da euskara, flexio-mota ugari duenez.

2. Flexioa, →hitz baten (izen, →izenorde edo aditz baten) forma flexiboen multzoa da. Forma hauek, kasuen, generoaren, numeroaren, pertsonaren eta abarren arabera aldatzen dira. Izenen eta izenordeen flexioa deklinazioa da; aditzena, aldiz, →aditz-jokoa.

Fonetika-Fonologia

Jose Ramon Zubiaur

I. SARRERA

Giza-mintzairari datxezkion ahozkotasunean eta ozentasunean jarri izan du bere arreta →Linguistika berriak.

Fonetika, larri-larrian, mintzairaren →soinu-gaia arakatzen duen Linguistikaren adarra da, →adierazpenaren planoa alegia. Mintzamenari dagokion ondorio fonikoa du ikergai, beraz, →*hizketa* deritzogun alderdia.

Mintzaira, ekintza fonikoa den aldetik, lerroki mamitzen da denboran barrena; baina ez da, izan, →soinu berezitu, eta aisa →bereizlez, osatutako ilara bat.

→Hizketa continuum pluridimentsionala da; eta pausaldiek eta isiluneek baizik ez dute eteten. Soinu konkretuak, →bokal edo →kontsonante, continuum horretan ondoenik, eta beren →ezaugarri bereizleez, gailentzen diren elementu fonikoak dira; baina, multzo foniko horretan, bereizle baldin badira ere, ez dira bereziturik agertzen. Azterketa linguistikoak, dena dela, abstrakzio bidez, gertaera foniko horren segmentazioa lortzen du, eta bi mota nagusi eratzen:

a) gertaera foniko →puntual edo segmentalak, edo-ta osagai laburrak (soinu konkretuak; eta bokal eta kontsonanteak, oro har) = Fonetika (a)

b) gertaera foniko suprasegmental edo prosodikoak edo-ta osagai luzeak = →Prosodia (b)

Bi gertaera foniko mota horiek mintzairaren ñabardura mugagabean iker daitezke; alegia, ikuspegi orokorraren aldetik; edo-ta mintzaira konkretu honen edo haren ikuspegitik. Horretara, Fonetikaren zatiketa berri bat izango dugu:

Mintzairaren Fonetika orokorra (A).

Mintzaira konkretuen Fonetika berezia (B) = Euskal Fonetika adibidez.


Gertaera fonikoak, azkenekorik, ikuspegi deskribatzailearen arabera iker daitezke, beren ezaugarri bakoiztaileetan, →adierazpenaren →substantzia gisa; edo, hertsiki, fonetikoki.

Baina mintzairari buruzko beren baliagarritasunaren aldetik ere iker daitezke, agertzen diren mintzairan duten →funtzioarenetik, edo-ta delako mintzaira horretxen adierazpenaren forma diren aldetik.

Hori dela-ta, mintzaira bakoitzaren *Fonetikak* bi azter-maila ditu:

— deskribatzailea, fonetikoa (α)
— funtzionala, fonologikoa (β)

Hitz batez, eta orain arte esandakoa eskema batetara bildu nahirik, hau genuke:



Galde-zeinu batez markatu dugu alderdi prosodikoen ikerketa fonologikoa; alde batetik, ikerketa-mota berriairea delako, eta bestetik hizkuntzalari guztiek ontzat ematen ez dutelako (ikus 4.4. Prosodia-Fonologia).

Tradizioaren arabera, Fonetika Orokorra fonologikoa eta akronikoa ez den ikuspegi batetik hartu ohi da; gizakumeak, mintzatzerakoan, eskuarki erabili ohi dituen aukera fonikoen ikerketa gisa, alegia.

Fonetika Berezia (B), berriz, sinkronikoa izan daiteke, baita diakronikoa ere. Eta hori alor fonetikoan eta alor fonologikoan batera.

II. FONETIKA OROKORRA

Mintzairaren alderdi fonikoen deskribapen orokorra bi ikuspegitatik egin ohi da:

a) Artikulaziozkoa edo fisiologikoa; hau da, nola artikulatzen diren, eta zein giza-atalez artikulatzen.

b) Akustikoa, alderdi fisikoa duten aldetik, ezaugarri objektiboz osatutako soinu-uhinak direnetik, eta aparatu bidez aztergarri. Ikuspegi honixe datxekio Entzutezko Fonetika.

A) FISIOLOGIAREN IKUSPEGIA

Mintzairaren soinuek —eta beronen prosodi alderdiek— biriketatikako airea dute oinarrigaitzat; eta, beren gehiengoan, →ejektiboak dira.

Mintzaira bakar batzuk, bestalde, soinu injektiboak ere badituzte; oro har, klik-ak edo kontsonanteak.

Arnasbeherako aire hori —bere erritmo eta arnasbeherako presioarekin batera— soinu, →ahots edo →tonu laringal bihurtzen da; zeren-eta irtetean, eta laringearen →ahots-kordak hertsirik topatzean, periodikoki edo aperiodikoki dardarazten bait ditu. Berorien hersketa —→teinkadura— nolakoa den, eta arnasbeherako presioa handiagoa ala txikiagoa den, eta horretantxe finkatuko da ahotsaren ozentasuna ala gortasuna. Ahots horrek gero, laringetik hasi eta giza-soinetik kanpora irten arteko bide-rakoan, aho-sudurren iragazkia edo gloti-gaineko barrunbea kurrituko ditu. Kurribide horretan oratuko da →hitza, tinbre berezitan artikulaturik.

→Tonu laringal edo ahotsak sudur-barrunbea zabalik aurkitzen badu —→aho-gingila «jaitsita» edo «lepotik berezita» dagoelako— hots sudurkari bihurtuko da, edo-ta aho-sudurkari. Soinu →sudurkariok →ahokariak ere izan ohi dira —baita eskuarki soinu →ozenak ere— eta halako tinbre berezi bat erantsi ohi diete; alde batetik, sudurtzuloetatik igarotzean hartua, eta bestetik aho-barrunbekoa.

Ahotsak, nahitaez aho-barrunbetik igarotzean, mihia topatzen du →artikulazioaren organo higikor eta funtsezkoa. Eta hau gerta dakioke:

— bidea libro eta trabarik gabe topatzea: soinu bokalikoak
— bidea hein batez libro bakarrik topatzea, erabat itxita edo mehartuta: soinu kontsonantikoak.

Trabaketa-maila horrek (→irekidura edo artikulazio-moduari dagokionak), honela sailkatzen ditu bokalak:

— →irekiak
— ertainak
— →itxiak

Eta kontsonanteak honela:

— →herskariak
— →afrikatuak (edo erdi-leherkariak)
— →igurzkariak (edo konstrikziozkoak edo arnasbehekariak)


Itxitura ez osoarekin igarapen irekia elkartzen duten soinuak ere badaude. →Aldekari eta →dardarkari esan ohi direnak —tradizioaren arabera likido izenez elkarturik— eta, hein batez, →sudurkariak.

Likidoak eta sudurkariak, bestalde, sonante izenezko multzoan sartu ohi dira; eta, →erdibokal eta →erdikontsonanteekin batera, bokal eta kontsonanteen arteko barrutia osatzen dute. Hots, berriro ere, horietxek egiten dute, etendurarik gabeko ilaran, mintzairaren soinuen multzoa.

Bokalak beren irekidura-mailaz gain, artikulazioari buruz mihiak har ditzakeen jarrera desberdinen aldetik ere berezten dira —→aurreko, →erdiko eta →atzeko bokalak— eta ezpainek har dezaketen itxuraren aldetik —zabalduak nahiz borobilduak— hau dela bide, alde batetik, bokal zabaldu edo ez-borobilduak sortzen direla, eta bestetik ezpainez-tatu edo borobilduak.

Bestetik ere, bokal sudurkariak, eta luzeak, izan daitezke; edo-ta →ahokariak eta →laburrak. Faktore horiek guztiak elkartuz, hizkuntzek dituzten bokal ugariak sortzen dira; fonologi mailan neurtuz gero, 5etik 20ra oro har.

Kontsonanteak ere, era berean, eratzen dituzten giza-organoen arabera aldatzen dira, baita aire-bidean artikulatzen diren puntuaren arabera ere. Horretara, kontsonante →ezpainkari, →horzkari, →apikari, →sabaikari, →belare eta →mingainkariak ditugu, kontsonante-ordenak alegia, baita azpi-ordenak ere; eta hori guztia, noski, artikulazio-moduaren arabera finkatutako kontsonante-sailen barruan. Hitz batez, mintzaira-soinurik gehienak aho-barrunbean artikulatzen dira (ik. 2 irudia).



2. Ird. **Gloti-gaineko barrunbeetako zatirik nagusienak beren latinetiko izenekin (Malmberg, 1970).**

B) ALFABETO FONETIKOAK

Alderdi foniko hauek osatzen duten multzo zabalaren irudi grafikoa ematea nekeza zen tradiziozko ortografi →alfabetoez (askotan latinezko alfabetoaren ondorio). Horregatik, →Alfabeto Fonetiko aberatsagoak eta nabarragoak prestatu dituzte fonetikariek; latinari zetxekion ortografi sokatik bereziago. Horretarako, alfabeto desberdinen →grafemak elkartu zituzten, eta →ikur →diakritikoz osatu.

Alfabeto Fonetiko horien artean, hona hemen ezagunenak:

A.P.I. (Alphabet Phonétique International).

A.I.E. (Alphabet International d'Ethnologie), eta Alfabeto Filologikoa, →Filologia erromanikoari buruzko lanetan oso erabilia.

Euskararen arabera egokitutako alfabeto bat erabiltzen du Euskaltzaindiak bere izkribuetan (ikus VII).

Soinuak, azkenekorik, eta orokorki mintzatuz, hizkuntzen soinuak, edo mintzaira konkretuenak, oso eskuarki taula fonetiko edo fonologi-


kotan aurkeztu ohi dira, deskribapena egitean baliatutako erizpide fonetikoen arabera (ikus, hiztegi honetan: Alfabetoak).

1.—Akustikaren ikuspegia

Tresnabidezko Fonetikak —Europan gaindi gotorki sustraiturik— mintzairaren soinuen ikerketa akustikoa hasi du. Hori dela bide, soinuak objektiboki neurtu eta idurikatu ahal izanez, eta osatzen dituzten uhinetan, eta beren egiazko balioetan, atalkatuz, Hizkuntz Fonetikari oinarri objektiboa eman zaio: Espektrograma edo Sonogramazko →irudikapenen bitartez, «ikusi» egin daitezke soinuok: sudur-dardararik izan ala ez izan; eta baiezkoan, beren akustika-balio objektiboak erakutsiz: →intentsitatea, iraupena edo →kantitatea, baita →maiztasuna, tonua edo altuera ere. Edozein soinuri datxekion laugarren berezgarria, berriz, tinbrea alegia, ez da irudikagarria. Izan, oinarrizko uhin-intentsitate eta maiztasunaren balio elkartuen sintesia da, baita datxezkien armoniko edo sekundarioena ere. Honi guztiari esker, are hitzaren sintetizazioa ere lortua da (ik. 3 irudia).

Hizketan, bere oinarri-tinbre berezia eta guzti sortzen da ahotsa edo tonu laringala. Tonubakarra da orduan, eta nekez entzungarri. Baina, gloti gainetiko barrunbeko edo erresonantzi gune delakoetatik igarotzean, maiztasun —eta intentsitate— mordo zabal batetan gertatzen da gotorturik; eta, hori dela bide, gero hitz artikulatuari datxezkion tinbreen nabartasuna sortzen. Aho-bidearen ezaugarriek ematen dute erresonantzia edo indarketa horien aniztasuna; alde batetik, bere itxura, bere ebakidura eta bere teinkadura aldatuz —eta hein handi batez mihiaren higikortasunarengatik— eta, bestetik, kanpora aldeko irtengunearen ahoaren aldaketaren bitartez, ezpainen itxura zabaldua edo borobildua den arabera.

Bokalek bizpahiru →formante edo armoniko-alor dituzte berezgarritzat; baina laugarren formante bat izaten da, →sudurkaria, espektro-




3. Ird. Ahots-aparatuaren lau durundigile nagusiak: 1. laringea; 2. ahoa; 3. sudurtzuloak; 4. ezpain-barrunbea (Malmberg, 1970).

gramen behereko partean ikusgarri, eta hau, jakina, soinu sudurkarietan.


→Kontsonanteak, soinu laburrago eta araugabekoak izaten dira, berorien soinu-energia barreiaturik egoten da, eta →formante berezirik ez dute. Likidoek formante nahasiak dituzte, ezabakorrak; bokalezkotasunaren kutsua badute eta.

Hitz batez, kontsonanteek ez dute irudikapen berezirik eta garbirik espektrogrametan; baizik eta halako tatxak edo orbanak, biziago edo motelago, ertz nabarmenik gabeak; edo-ta zuriak herskariei dagokienez. Zehazkiago mintzatzera, aldaketak kutsatu ohi dituzte ondoko bokal-formanteetan. Hein batez bederen, hortaz, zeharbidezko irudikapena dute, ezeztakorra. Berorien «consonans» izaeraren baieztapena da hori, jakina, «begibidez» oraingoan; alegia, bere buruz ebakigarri ez den soinuak izatea.

Oinarrizko artikulazio-erizpideok artikulazio-ardatz bikoitzetan taxutzen baldin badira:



ardatz bikoitz horrek baluke, bere irudi gisa, akustika-ardatz bikoitzetan, osoki egokituko ez litzaiokeen bere kidea:



Azkeneko berrogeita-hamarreko hamarkadan gainditu, eta ondoko hirurogeikoaren erdialdean baztertu, egin bide du Fonetika akustiko horrek, artikulaziozkoa. Baina gaur elkarren osatzaile agertzen zaizkigu biak.

III. FONOLOGIA OROKORRA

Bokal edo kontsonante «berberak» →textuinguru berberetan, baina →hiztun desberdinek (edo hiztun berberak) emanik ere, desberdinak dira, izan. Hala ere, «berdin»tzat hartzen ditugu, dituzten desberdintasunak haintzakotzat hartzen ez ditugularik.

Gauza bat adierazten du horrek: alderdi fonetikoen ñabarduraren azpian, unitate-sistema abstraktu bat datzala; eta unitate horiek, arau

batzuren arabera elkartzen direla. Hots, sistema horrek funtsatzen du hizkuntza bidezko →komunikazioa. Azterketa fonetikoaren ondoren, →sistema hori eta arau horiek argitzen saiatzen da Fonologia, adierazpenaren forma edo hizkuntzen bigarren artikulazioa.

Fonologiak, horrela —batzuk Fonetika funtzional deritzoten horrek— hizkuntzan betetzen dituzten →funtzio edo betekizunen ikuspuntutik aztertzen ditu alderdi fonikoak.

Lehenengo kasuan, soinu desberdinak izanik ere, beren arteko →trukaketak —textuinguru berean, jakina—, ez du →Komunikazioa aldatzen. Soinu horiek, horretara, unitate fonologiko berberaren →aldaera →asketzat hartu behar dira; eta →bereizle ez diren betekizunak bete ohi dituzte elkarrizketako partaideen ezaupidetan.

Bigarren kasuan, berriz, textuinguruak baldintzatzen dituen soinuak ditugu —edo-ta, oro har, alderdi fonikoak— eta, hori dela-ta, soinu horiek elkar ordezkatzen ezin ibiltzea gertatzen da. Textuinguruzko aldaerak ditugu horiek, edo-ta konbinaziozkoak. Hizkuntzaren adierazpenari buruz, garrantzitsuago gertatzen dira horiek. Eta Troubetzkoy-k «laguntzaile fonologiko»tzat hartu zituen.

Bi soinuen arteko desberdintasuna, berriz —textuinguru berberetan emanik bestalde— bestelakoa izan daiteke: alegia, batetik bestera pasa, eta derrigor →mezuaren →edukina aldaturik gertatzea. Soinu horiek, orduan, bi unitate fonologiko, bi →fonema desberdin, itxuratzen edo mamitzen dituzte. Horra hor sistemaren inbarianteak. Eta berezten dituzten ezaugarri fonetikoak, bereizletzat hartuko ditugu.

Lehenengo begiraldi batez, hizkuntza baten unitate, fonema edo inbarianteen multzoa eman behar liguke azterketa fonologikoak; baita textuinguruen araberako bere aldaerak edo gauzatze fonetiko zehatzik ohizkoenak ere.

Bigarren begiraldiaz, berriz, soinu horiek fonologi →sistema batetan taxutzeak beste gauza batzu eskaini behar lizkiguke: beren elkargarritasunezko arauak, hitz bat fonologiari gagozkiolarik, euskalduntzat edo ez euskalduntzat harrerazten duena, arrazoia zein-nahi den. Badira ere, mintzairek baliatu ez dituzten aukera fonologikoak, eta espezialistek «ez-ahots» bataiatuak...

Fonemak beren ezaugarri bereizleen arabera zertzen dira. Hots, ezaugarri horiek, mintzairaren bigarren artikulazioaren mailako osagaitzat hartzen dituzte batzuk; edo-ta, soinuaren Fonologiatzat. Fonemak, horretara, hitzaren Fonologiari dagozkion lehen atalak dira.

→Aurkakotasun-mota batzuren arabera egituratzen dira fonemak sistemaren barruan: →aldebikari/aldeanitz, →proportziozko/isolatu, →pribatibo/mailakako/ekipolente, konstante/neutralizagarri. Aldebikari, proportziozko eta pribatibo diren aurkakotasun bikoteek, →koerlazio bat osatzen dute. Koerlazioan zenbat eta fonema gehiago sartu, orduan eta egituratuago egongo da fonologi sistema.

Historian barrena, elementu segmental eta puntualen fonologia landu da gehienik. Prosodi alderdiak, berriz, mailakakoak direlako batetik, eta beti ere katean agertzen direlako bestetik, ez-bereizletzat hartu izan dira; eta betekizun mugarritzaile eta adierazkorrak aitortu izan zaizkie batipat; alegia, maila fonetiko (α) eta maila fonologiko (β) delakoen artekoak.

Berrogeigarren hamarkadatik aurrera, gutxi gora-behera bederen erizpide funtzional edo fonologikoak erabiltzen hasi ziren sistemakiro →azentuak, tonuak eta →lokuneak aztertzerakoan. Alegia, prosodi osagairik laburrenak hautatu ziren, edo-ta puntualenak: hauek egokiago agertzen bait ziren egon/ez-egon →trukaketa-froga erabiltzeko. Hori dela eta, tonema, azentu bereizle edo →prosodema orokorki, izendatzen hasi ziren prosodi alderdiak; alegia, funtzio bereizle edo aurkakotasunekoa betetzen zuten alderdiak.

Oraino berrikiago, →esakunearen edo perpausaren Fonologia sortu da; eta honek →intonazioaren ingurunean balio bereizlea aztertu du; eta gaur metodologi eta teori interes handiko alor bihurtu da. Hitz batez, fonologiaren ikuspegia osagai luze edo suprasegmentalei ere ezar dakiekeela dirudi; eta hizkuntz adierazpenari, horretara, izari dimentsioaniztuna aitortzen zaiola: →substantziaren mailan ez-ezik, →formarenean ere.

IV. PROSODI AZTERKETA

Arestian erakutsi dugunez, oso berandu arte ez du prosodiaren alderdiak ikerketa funtzionala lortu, eta Fonematikaren edo alderdi segmentalen fonologiaren eranskin eta osagarria baizik ez da izan. Prosodikotzat, nolazpait esateko, funtsean ez zen hartzen segmentalaren alorrean sartzen ez zenaz besterik: intonazioa, alegia.

Gogoan har dezagun «tonu puntual» esaera. Beste batzu, berriz, luzaz jardun dira «lokune-fonema» hizpidetsuaren segmentatasunaz.

Azkenaldi honetan, prosodi fonologia sortu da Ingalaterran; eta honek alderdi fonologikoen iker-ilara atzekoz aurrera jarri duela dirudi. Honek osagai luzeak edo perpausaren →prosodia aztertzen du aurrenik; eta gero da pasatzen →sintagmaren prosodiara, →silabarenera, are silaba-parteenera ere, eta abar. Argibide gisa, baina besterik gabe, silabaren prosodi gisa agertuko zaizkigu ezpaineztapena, sabaieztapena, eta abar; eta, horretara, fonema segmentalei kenduko zaizkie →ezaugarri horiek. Ez da ezaugarri puntuala edo segmentala izango, beraz, gaineko prosodi mailan aztergarri ez dena baizik. Fonologia polisistematikoa dugu hau beraz —europarretatik baino bertago Harris eta Hockett-enetatik—, hots, molde hori, →esalditik abiaturik, unitate gorena, mailaka jaisten da

alderdi foniko puntualetaraino →transkripzio fonetiko berri hauek, horretara, ez dira lerrozkoak, ez dira, hitz batez, fonologia klasikoaren plegukoak; maila desberdinak eta prosodi azpimultzoak erakusten dituzten diagramak baizik.

V. FONOLOGIA BITARRA

→Praga-ko Eskolak fonemen maila halere erabat utzi gabe, puntu bati eutsi zion bereziki: fonemak, alegia «→ezaugarri bereizlezko konplexuak» direla. Horrekin batera, aurkakotasun aldebikariak proportziozko eta pribatiboak zituen bereziki balioztatuak; hau da, elkaroinarri berbera izanik, berorien fonemetako batak, besteak ez duen →marka-ezaugarria bait zuen.

Horrekin batera, soinu kontsonantikoen →irudikapenari datxekion zailtasuna jarria zuen agerian fonetika akustikoaren hazkunde harrigarriak; eta, batera, beste hau idaroki: kontsonanteen arteko artikulazio-puntuen aurkakotasun aldeanitzak aurkakotasun akustiko aldebikari bihurtzeko aukera, ez ote zegoen.

Bide horretatik, eta berrogei eta hamarreko hamarkadan barrena, R. Jakobson-ek —Moskuko eta Pragako partaide-ohiak— G. Fonte eta M. Halle-rekin, sistema fonetiko bitarra eraiki zuen. Hamabi ezaugarri akustikoz osatua, giza-mintzairetan aurkitzen diren aurkakotasun fonologiko guztiak azaltzeko helburua hartu zuen gidari.

Geroago, delako sistema hori multzo desberdinetako mintzairei ezarri ondoren, osatua izan da, hogei zifrarainoko ezaugarriz eta azpiezaugarriz.

Zenbaiten formulabidea ere aldatu da. Gaur egun fonologi sistema →bitarra, birrantolatu dute Halle-k eta →Chomsky-k; eta artikulaziozko alderdiak azpimarratu dituzte Fonetika akustikoaren eta entzumenezkoaren aurrerapenen arabera. Bere izari orokor eta bitarra dela bide, Jakobson-en Sistema onartu ohi da gaur egun, eta agian Fonologian gehienetan erabili ohi den sistema da.

Horrez gain, bere eragintza-maila eta bere zehaztasuna direla medio, Linguistikaren beste alorretan ere izan du bere eragina eredu bitarrak: →semantikan, esate baterako.

Halle-k eta Chomsky-k birmoldatu duten eredua, gaur Fonologia sortzailean erabilia —esana dugunez— nahiz artikulaziozko →ezaugarriz osatua izan funtsean, ezaugarriok orokorrak eta bitarrak izaten dira.

Hitz batez, Fonologia bitarrak fonemen mailatik ezaugarrienera jaitsi du Fonologia zaharra; eta Mintzaira-jakintzak dituen alor guztietan nabaritu da eragin hori. Ez da ahantzi behar, bestalde, oinarritzat dauz-

kan deskribapen fonetikook tresnabidezko Fonetika berriak lortu dituen soinu-uhinen neurketa elektrakustikoen objektibitateak sustatzen dituenik.

VI. FONOLOGIA SORTZAILEA (ikus III)

Hasierako urteetan →sintaxiaren azterketa izan zuen Linguistika Sortzaile berriak bere ikergai nagusitzat. Gero, ordea, gramatika transformatzaileen osagai fonologikoa oso landua izan da, Chomsky-ren eta Halle-ren lanen ondorioz batez ere:

The Sounds patterns of English (1968).

Linguistikaren osabide berri honen arabera, osagai interpretatzailea da Fonologia; eta jadanik transformaturik ageri diren amaierako katea sintagmatikoei ezartzen zaie, alegia, perpausen azaleko egiturei.

Katea abstraktu horiek egiazko perpaus bilakarazi behar ditu; fonetikaren alderditik ebakigarri, konkretu, erabateko; eta, adierazpenaren alderditik, gramatikazko.

Horretarako, Lexikon delakoan molde fonologiko abstraktu bana dute →morfema guztiek, zeinek bere ezaugarri bereizle bitarrak, alegia, dagozkien →matrizeetan. Horiek transkripzio klasiko eta fonologikoak (estrukturalistak, alegia) baino goragoko abstrakzio-maila dute; morfofonologiaren mailatik hurbilago, beraz. Fonologi →erregela multzo nabar batek orduan —ziklo ordenatutan barrena— textuinguru hauetan eta haietan morfemek har ditzaketen →subordinazio sintagmatikoak oso kontutan hartuz, morfema horien balio fonologiko eta fonetikoa biltzen ditu. Piskanaka bere zehazketa fonetikoa bilduz doa perpausa. Prosodi edo segmentuz gaindiko ezaugarriak Gramatikaren osagai fonologikoaren arabera zehazten dira, erregela fonetikoen arabera.

Linguistika berri honen Fonologiak, esana dugunez, osagai sintaktikoak eta semantikoak ukitzen ez duten guztia biltzen du; hau da, Linguistika estrukturalistaren maila fonetikoa eta prosodikoa, fonologikoa, eta maila morfologikoa ere bai. Ez da, izan, bestetik, sail autonomo bat; zeren-eta, erabilia izateko, informazio sintaktikoa behar bait du aurrenik eta osagaien zedarriketa bereziki; eta hau guztia perpausen azaleko egiturak ematen dio.

Osagai fonologikoak bi maila ditu nahitaez:

— bata →abstraktua da, azpikoa, fonologikoa, hasierakoa, derrigor bitarrak diren ezaugarriz osatua, transkripzio morfonemiko edo ortografikotik hurbil; nahiz ezaugarri-matrizetan emana;
— eta fonetikoa bestea, nahitaez bitarraz zertan izan ez duten ezaugarriz osatua, perpausaren azkeneko zehazketari dagokiona.

Maila fonematikorik ez dago; nahiz batzu tarteko mailatzat sartzearen aldekoak badira ere.

Hitz batez, Fonologia Sortzailea, bitarra, oraindik ere abstraktua den azaleko egituratik behera abiatzen da, eta bere soinuzko gauzatzera jaisten da; eta, horretarako →hiztunen →konpetentziaren alderdi fonikoa ezagutarazten saiatzen da. Eta hori linguistika plegu honek oinarritzat hartua duen explizitutasunaren bidetik; alegia, erregela formalen bitartez. Lerro sintagmatikoan ageri diren alderdi fonetikoen eraginak birbalioztatu ditu.

Erregelak berak, eta ezartzeko ordena sinkronibidez finkatuak izan arren, badirudi, hein batez bederen, mintzairen →diakronia ere berorietan isladatzen dela; are →dialektoen mailako desberdintasunak ere.

Bultzatzaileetako batzuren iritziz, azkenekorik, Fonologia sortzaileak beste hau jarri du agerian: aldaketa fonetikoen diskretutasuna; ez bait dira hazkorrak edo mailakakoak beren zabalkundean baizik.

VII. EUSKARAREN FONETIKA ETA FONOLOGIA

A) SARRERA


Beharbada Euskararen Fonetika (B) izan da Euskal Linguistikan landuenik dagoen adarra. Ia-ia bere osoan, ikuspegi artikulatzaile edo fisiologiko batetik aztertu izan da (ikus II), eta areago ikusmolde fonetiko (α)-tik, fonologiko (β)-tik baino. Ikerketa horietatik gehienak, bestalde, partzialak dira, edo dialektoen araberakoak.

Orain dela gutxi, lan orokor batzu agertu dira (euskalkien gainetikoak), eta ikuspegi fonologiko (β) batetik eginak bestalde; oro har, Martinet-en europar teoria fonologiko eta klasikoari jarraituz.

Prosodi alderdiak (b) —→azentua eta intonazioa— salbuespen batzu eginez gero, oso laburki arakatuak izan dira; nahiz zenbait ikerketa berrik euskal fonetikari buruzko hutsune hau bete badu ere. Gure ustez, teoria eta azterpide berriak euskal alorrean erabiliko balira —hauek esate baterako: fonologia bitarra (V), prosodi analisia (IV), edo, berriagoa, fonologia sortzailea (VI)— bai horiek, bai euskal fonetikaren beste alderdi batzu, argi daitezke; sistematizatuz, gaurko euskararen →diasistema —fonologikoa eta prosodikoa— bilatzen lagunduz; eta honek, ondorioz, euskararen diakroniaz ere hedatuko luke argi berria. Ez dira ahantzi behar, azkenekorik, Espektrogramak eta Tresnabidezko Fonetikaren bide berriek, ekar lezaketen objektibitatea.

B) BOKALAK ETA DIPTONGOAK


Euskararen bokal-sistema hau da (ik. 4. irudia):



4. Ird. Euskararen bokal-sistema.

/ü/ fonema —fonetikaren aldetik bere kide frantsesa baino zabalagoa— zubereraz aurkitzen da. Jatorriari dagokionez frantsesa agian, funtzio-etekin txikia du; eta zenbait aldiz beste euskalkien eskualdeetan ere entzun daitezke horren aldaerak /ü/.

Euskararen ohizko →diptongoak →beheranzkoak dira: au̯, ai̯, eu̯, ei̯, oi̯ (ik. 5. irudia).



5. Ird. Euskararen beheranzko diptongoak.
Irudian diptongo hauek osatzen dituzten bokalak gezi baten bidez lotzen dira elkarrekin (Txillardegi, 1980).

Mitxelenaren ustez, →bokalarteko kontsonante baten galerari darraizkio eskuarki —/h/a maiz— eta, askotan ere, bokal bakun bihurtzeko joera erakusten dute. Berorien artean, biga dira aldakorrenak: (eu̯) eta (ai̯).

• (eu̯), iraunkorra da bizkaieraz, baita mendebaldeko eskualdeetan ere. Nafarreraz, baxenafarreraz eta zubereraz, berriz, monoptongatu egiten da; edo-ta disimilatu egiten da: (au̯), are (eb-) ere.

Adibidez:

B	AN	BN	S
(e̯uri)	(uri)	(a̯uri)	(ebi)
(euskera)	(uskara)	(uskara	(üskara)

• (a̯i), lehengoa baino iraunkorragoa: baxenafarreraz eta nafarreraz monoptongatu egiten da: (i), «ni niz» «Jinkoa», eta abar...

Bai Mitxelenak bai Moutard-ek euskal diptongoen fonemabikotasuna idarokitzen dute.

Zenbait aldiz, →geminatuak gertatzen dira (V): lapurteraz eta zubereraz; eta beste zenbait eskualdetan, gehienetan, hitz enfatikoetan eta adierazkorretan; eta, hori dela bide, berorien balio fonologikoa ez da osoki onartzen.

Badira, era berean, (ṽ) delakoak, are (V̰V̰) delakoak ere; alegia, bokal eta diptongo sudurkarituak, zubereraz eta erronkarieraz batez ere. Badirudi azkeneko honetan balio fonologikoa ere bazutela, gaurko zubereraz ez da horren garbia.

→Determinatzailearen bokalezkotasuna batetik, eta izen-enbor bokalikoen ugaritasuna bestetik, katean hain bokal ugari elkartzearen zergatiko nagusietako bat izan daitezke.

Eskuarki →hiatusak uxatu egiten bide ditu euskarak; eta arazo hori, bi modutara konpontzen du gehienetan:

a) bizkaieraz eta gipuzkeraz batez ere, →erdikontsonante edo bidenabarrezko kontsonante baten sorreraz;

b) baxenafarreraz eta nafarreraz batez ere, →goranzko diptongoz eta →enborraren azken bokalaren erdikontsonantekuntzaz.

«negua» = ne'guβa, B, G; negwɛ, AN, BN
«mendia» = men'diže, B, G; mendja, AN, BN

Bestetan, berriz, bokalen elkarketak laburbilketak edo →disimilazioak ekar ditzake. Hortaz, B-k ezaugarri berezi hau izango luke: lexemaren -a + a (art) = ea; baita «ia» ere.

Esate baterako:
alaba = alabea, alabie (B)

Euskalkien artean tinbre-→alternantziak gertatzen dira zenbait aldiz:

B = u	e = i	(e: erkidea)
urten	irten	
ule	ile	
uri	iri	
baina: gitxi	gutxi, gutti	
B = a	e = e	
baltz	beltz	
barri	berri	
oba	obe	

Zenbait aldiz, →sintagma-eraginak gertatzen dira bokalen artean. Esate baterako: -a itxi egiten da = (e), bokal itxiaren ondoan (i, u). Hau baxenabarreraz eta nafarreraz gertatzen da usu: «burue» burua-ren ordez.

Zenbait →bokal-harmonia ere agertu ohi da:

(S) u — ü ü — ü (e.b. bürdüña)
(R) ú — i ú — u (e.b. eguzku)

Azentua daraman bokala nagusitzen da bi kasuotan.

→Banaketaren aldetik, lekugune guztietan gertatzen dira bokalak oro; azkenean, dena dela, (i, u) nagusitzen zaizkie (e, o) -ri (bertago honetan astur-leonesetik, gaztelaniatik baino).

Laburki, hortaz: bost tinbretako bokal-sistema bat, gehienetan ahokari eta labur; eta, berorien elkarketaz, →beheranzko diptongoak gertatzen dira.

Hiatusa arbuiatu egiten da, gorago esandako bideen bitartez; eta badaude, euskalkietan barrena, bokal-alternantzia batzu, baita, →ebakeraren aldetik, beste desberdintasun batzu ere. Zeren-eta euskarazko bokalak laxo samarrak bait dira, erdiguneraturik batzutan. Horra hor euskararen alorraren fonologia bokalikoa.

C) KONTSONANTEAK ETA AZENTUA

Euskararen kontsonante-sistema orokorra hau izango litzateke:

		Ezp.	*Hortz.*	*Alb.*	*Sab.*	*Bel.*	*Lar.*
Leh.	asp.	(ph)	(th)			(kh)	
	gor.	p	t		(t̪)	k	
	oz.	b	d			g	
				Txistukariak			
Afrik.	g.		ts	tś	tš		
	o.				(dž = d̪)		
Iguz.	g.	f	s	ś	š	x	(h)
	o.		(z)	(ź)	(ž)		
Sud.		m		n	n̪		
Ald.				l	l̪		
Dard				r/R			

Oharra: Parentesi arteko soinuak, eskualde berezitako soinuak izan daitezke, edo-ta taulako fonemen →aldaera fonetikoak.

1.—Ohar paradigmatikoak

Leherkari aspiratuak (ph, esate baterako), lapurteraz, baxenafarreraz eta zubereraz baizik ez dira gertatzen, azkeneko honetan, aspiratu ozenak ere badaudelarik; eta, eskuarki, dagozkien gorren aldaerak besterik ez dira. Hau ez da zubereraz gertatzen; euskalki honetan funtzioetekin bat bide dute eta.

Aspiratu igurzkari laringala (h), gutxitan erabiltzen da gaur lapurteraz; eta zubereraz da ugarienik gertatzen, bai hasierako lekugunean, bai bokalartean baina inoiz ez bigarren silabatik at (→hitzaren hastapenetik hasita).

Erronkarieraz, baxenafarreraz, eta beste zenbait euskalkitan, *k* eman du; edo-ta *g*.

Adibidez: «agoa», «kaur», «keben», eta abar.

«j» grafiari, →ebakera desberdinak dagozkio:

afr. edo iguz. oz. sab.:	d edo (y), B, L, AN
igurz. sab. oz., txist.:	z, itsasaldean
igurz. bel. g.:	x, Markinan eta Gipuzkoan

Hiru txistukari-ordena ditu euskarak: mingainaurreko, hortzatzeko, →albeolarra eta →sabaikaria eta hori bi sortetan: bai →afrikatuak, bai igurzkariak, gorrak (zubereraz ebakera →ozenak ere gertatzen direlarik, nahiz balio fonologiko zalantzazkoaz). Elkarketazko salbuespen batzu gorabehera, euskalki guztietan dago bizirik hiru ordenen arteko fonologi balioa. (Bizkaieraz izan ezik).

Azkeneko honetan bi bihurtu dira hiru ordenok, honetara:

[ts], [tś] = /ts/ afrik. ming. aurr.
[s], [ś] = /ś / frik. alb.

Bizkaieraz ez daude, era berean, ez /t̪/ eta ez /d̪/, biok ugari Ipar eta Ekialdeko euskalkietan.

Eskuarki, euskarak ez du kontsonante geminaturik nahiz, Moutarden ustez, zenbait geminazio adierazkor gertatu.

Euskarak gaitzetsi egiten ditu leherkari-likido bikoteak; eta, hori dela bide, «crucem» edo «librum» maileguek, honetara, «gurutz» eta «liburu» emango dute; leherkariaren eta likidoaren artean, azentudun bokalaren tinbre bereko bokal bat sortuz.

Hala ere, zaraitzuerak eta erronkarierak, barne-bokal atonoen erortzea dela bide, kontsonante-elkarketa horiek onartzen dituzte:

«librü», «gra» (= gara). Textuinguru erromanikoaren eraginez, elkarketa-mota hori duten hitzak orokortu egin dira: «andrea».

2.—Ohar distribuzional batzu

Agian hauxe da euskal kontsonantetasunaren ezaugarririk nabarmenena: norbaitek kontsonanteen errotazismo bataiatu duena. Hasierako lekugunetan leherkari ozenak eta igurzkariak nahiago ditu. Amaierakoetan, leherkari gorrak eta afrikatuak nahiago sonanteez gain; dena dela, igurzkariak bazterrean utzi gabe. →Bokalarteko lekuguneak ez bestek, onartzen du aurkakotasun-joko guztia (ozentasunari eta afrikazioari dagokienez), baita dardarkari biak: bakuna eta anizkuna r/R.

Lekugune horretan, berriz, ahuldu egiten dira euskal leherkari ozenak; eta galdu ere egin daitezke, /-g-/ batez ere; eta dagozkien gorrak, bigundurik eta ozendurik ebakitzen dira zenbait euskalkitan. (Latinezko bokalarteko gorrek, mendebaldeko mintzaira erromanikoetan gertatu denaz bestaldera, beren hartan iraun dute euskaraz; salbuespenak, hain zuzen, biarnera eta aragoera direlarik).

Hala ere, eta mailegu bidez etorritako hitzetan, ez da harrigarriegia hasierako lekugunetan gorrik topatzea: pake, tenpora, pago, eta abar; are gor teinkoak beren ebakeran ere, edo-ta berorien aldaera hasperenduak: lapurteraz eta zubereraz, adibidez.

Gorren eta ozenen →neutralizazioa txistukarien ondoan gorren alde, eta sonanteen ondoan ozenen alde mintzairaren joera zaharra da; gaur, agian, gaztelaniaren eta frantsesaren eragin erromanikoa dela eta, ahulduta, zenbait eskualdetan ez bait da bitxia hau topatzea:

ésdu tenpora, eta abar.

Bokalarteko lekugunetan ere, ez bide da inoiz oso errentagarria ozentasunezko aurkakotasuna, eta honek euskara Mediterranioko latinaurreko mintzairekin lotzera eraman du autoreren bat.

Beste neutralizazio nagusia hau da:

Igurzkari/afrikatuak; eta ondorio honetara eramaten du: leherkari gorren aurrean, igurzkaria da →artxifonema; eta sonanteen ondoan, berriz, artxifonema afrikatua gertatzen da.

Azkeneko kasu honetan, nafarreraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz bereziki, ebakera igurzkariak aurkitzea ez da batere harrigarria.

Euskarak, hitz batez, afrikatuen erabilketa handia egiten du, likidoen ondoren ere elkar bait daitezke hitz-amaieran; eta honek, Moutarden iritziz, berorien izari fonemabakarra erakusten du.

Bukatzeko, azkenik, hasierako lekugunean, →dardarkaririk gertatzen ez dela oharreraziko dugu, ez bada mailegu berri-berrietan; ezta /h/, ezta ezpainkariak, eta ez /x/ ere hitz-amaieran. Azkeneko fonema hau, gaztelaniaren eraginezkoa seguraski, Gipuzkoan gertatzen da batez ere, aditz pilo batetan batetik, eta zenbait izen berezitan bestetik:

/xaun/, /xende/, eta abar.

Laburtuz, hortaz, kontsonanteen sistema bokalarteko lekugunean mamitzen da osokienik. Gainerakoetan, neutralizazio garrantzitsuak gertatzen dira, baita oso bereziak diren elkarketazko murrizketak ere. Ohargarria da, era berean, txistukarien garrantzia, fonema igurzkari ozenik eza, eta →bustiduren espezializazioa: ia beti helburu adirazkor eta enfatikotan erabilia.

3.—Prosodi ohar batzu

Idarokia dugu jadanik (VII) euskararen prosodia gaur gaurkoz oso gutxi landu dela. Aztertzailerik gehienek, zuberera salbu, euskal azentuaren ez-bereizletasuna markatzen dute ahobatez (v. infra).

Intentsitate eta tonuaren balioak elkartzen ditu euskal azentuak, ez bide da oso «azkarra», eskuarki hitzaren bigarren silaban gertatzen bide da (kontaketa hori hasieratik at egiten delarik), eta areago bide da morfologikoa, perpausazkoa, hitzezkoa baino. Zenbait →atzizkik beragana erakartzen du azentua, hitzean «atzeratuz»; eta →hasperenketan /h/, azentuaren aurrean joana bide da.

Euskalkien mailan, aldiz, eta zubereraren alorrean, areago da tonikoa azentua, intentsitatezkoa baino. Areago: balio bereizle edo fonologikoa ere badu:

elíza ≠ elizá

Bokalen laburdura dela bide, bai erronkarieraz, bai zubererari dagokion eskualde guztian, hitz →oxitono asko dago.

→Lafon-en ustez, zubererazko azentuak banandu egiten ditu hitzak, perpausaren erritmoa hausten; eta honetxek egiten du zailago euskalki honen ulerkuntza. Beste eskualde guztietako euskaldunek erreparatzen dute arazo hau; baina, euskal hizkuntza-alorreko muturrekoak direnez, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek dituzte trabarik larrienak.

Zilegi bekigu, honetaraz gero, ondoko hau idarokitzea: bai azentua, bai intonazioa, bai agian euskal →lokuneak, prosodiaren eta segmentuz gaindiko baranoan aztertu behar liratekeela; eta Europako fonologia klasikoaren ikuspegia baino zabalagoak diren beste azterpide berrien arabera.

Itz.: *Txillardegi*

BIBLIOGRAFIA

A) Lan orokorrak

ALARCOS LLORACH, E.: *Fonología Española*, B.R.H., Gredos, Madrid, 1968 [4].
CHOMSKY, N. eta HALLE, M.: *Principes de Phonologie générative*, Ed. Du Seuil, Paris, 1968.
GARDE, P.: *L'accent*, P.U.F., S.U.P., 5. zki., Paris, 1968.
GRAMMONT, M.: *Traité de Phonétique*, Ed. Delagrave, Paris, 1950 [4].
JAKOBSON, R.: *Ensayos de lingüística general*, Arg. Seix Barral, Barcelona, 1975 (VI. eta VII. kapituluak batez ere).

MALMBERG, B.: *La Fonética,* Cuadernos Eudeba, 107. zki. Buenos Aires, 1970 [4].
MARTINET, A.: *Economía de los cambios fonéticos* (Tratado de Fonología diacrónica). B.R.H., Gredos, Madrid, 1974.
TROUBETZKOY, N. S.: *Principes de Phonologie,* Klincksieck, Paris, 1970.

B) Euskal fonetika eta fonologiaz

GAVEL, H.: «Els. de Phonétique Basque», *R.I.E.V.,* XII, Gran Enciclopedia Vasca-ren berrargitalpena.
HOLMER, N.: *El idioma vasco hablado,* San Sebastián, 1964.
— «Apuntes Vizcaínos», *Anuario del Seminario de F.V.J. de Urquijo,* San Sebastián, 1968, II.
LAFON, R.: «La lengua Vasca», *Enciclopedia Lingüística Hispánica,* I, 67-97 orr., Madrid, 1960.
MICHELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca* (Tesis doctoral). Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián, 1961. (Baita 1979eko berrargitalpena).
MOUTARD, N.: «Etude Phonologique sur les Dialectes Basques»: *Fontes Linguae Vasconum,* 19, 20, 22 zki. Pamplona, 1975-1976.
ROTAECHE, K.: *Estudio estructural del Euskera de Ondárroa* (Tesis doctoral), L. Zugaza Editor, Durango, 1978.
TOVAR, A.: «La lengua Vasca», *B.A.P.,* San Sebastián, 1954.

C) Aldizkariak

Anuario del Seminario de Fil. Vasca D. J. de Urquijo, San Sebastián, 1954.
Fontes Linguae Vasconum, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1969.
Bi aldizkari hauek aldioro argitaratzen dituzte beren lanak.

Fonologia
Ik. FONETIKA/FONOLOGIA

Forma
forma / forme / form

1. →Saussure-ren →adieran, *forma* →hitza *egitura*-ren sinonimoa da eta →*substantzia*-ri aurkajartzen zaio: substantzia errealitate semantikoa edo fonikoa da (egituratu gabeko masa); forma, aldiz, masa amorfo honetan →zeinu-→sistemak egiten duen segmentazio berezia da. Honela, *mahai*-ren forma, hitz honek /m/, /a/, /h/, /a/, /i/ →fonemetan berezteko duen ahalmena da; *mahai*-ren →zentzua, aldiz, hitz honen →gaitasuna da, maila morfematikoko beste zenbait unitaterekin *mahainguru* unitate sintaktikoa osatzeko.

2. Adiera tradizionalean, *forma* hitza →*edukin*-ari, *zentzu*-ari aurkajartzen zaio. Forma, orduan, semantikoki interpretatu ez den hizkuntzaren egitura da, zentzu edo →esanahiari aurkajartzen zaiona.

3. Aurkezten dituen →ezaugarri formalen aldetik kontsideratzen den hizkuntz unitate bat adieraz dezake *forma* hitzak. Zentzu honetan, L. Bloomfield-ekin, forma erregularrak eta forma irregularrak berezten dira. Beste bi forma-mota ere berezten ditu Bloomfield-ek: *forma askea* eta *forma uztartua*. Forma →askea izango da →esakune bat osatzeko gai den edozein unitate. *Andoni, liburu,* etab. forma askeak dira; *-ari kantari* hitzean, edo *-tar herritar* hitzean, forma uztartuak dira.

Formalizazioa
formalización / formalisation / formalization


Formalizazio izenaz, hizkuntz →erregela explizituen jeneralizazioa adierazteko sortu diren erregela formalak ulertzen dira. Jeneralizazio hori, →gaitasun linguistikoaren eta beronen gauzatzearen izaerari buruzko zenbait galdera funtsezkori erantzun-nahiari dagokio. Deskribapen formalak hizkuntza batetako unitateen arteko erlazioak deskribatzen ditu, berorien interpretazioa eta item espezifikotan gauzatzea aintzakotzat hartu gabe. Maila desberdinetako unitateak uki ditzakete erlazio horiek: →ezaugarri →bereizleak, →fonemak, →morfemak, →lexemak, perpausa.

Formantea
formante / formant / formant

1. →Linguistika estrukturalean, →*aditz-enborraren* → *formanteak* deitzen dira, errokiekin batera aditz-enborrak osatzeko balio duten →atzizkiak (adib.: *-tatu gezurtatu* aditzean) eta i*zen-enborraren* formanteak izen-enborrak osatzeko balio dutenak (adib.: *-pen gezurtapen* izenean).

2. Linguistika tradizionalean, *enbor-formanteak* deritze errokiaren eta →kasu nahiz →denbora-→desinentziaren artean jartzen diren →hizkiei; grekoz, esate baterako, zenbait aditzen enbor-formantea *e/o* da *lu*-errokiaren gainean eratutako *luomen, luete* eta abarretan bezala.

3. →Fonetika mailan, iragazki akustiko baten bidez berrindarturiko →soinu kon-



6. Ird. «i» eta «a» bokalen formanteak (Malmberg, 1970).

plexu baten →maiztasun nagusiak dira formanteak. Fonazioan, →ahots-aparatuko bi durundigile nagusiek, faringeak eta ahoak hain zuzen berrindarturiko maiztasunak dira bi formante nagusiak; hauek dira →bokal bakoitzaren eta zenbait →kontsonanteren tinbre bereziaren erantzule (ikus 6. irudia).

Frikatiboa

Ik. IGURZKARIA

Funtzioa

Sin.: BETEKIZUNA

→Pragako Zirkuluak egindako lehen tesiak →sistema funtzionaltzat jotzen zuen hizkuntza; helburu batetarako egokia den sistematzat, alegia. (Ik. *Europako Estrukturalismoa).* Haiek baino lehenago De →Saussure-ren bitartez, hizkuntzak →komunikazioa duela →funtzio nagusia esanda zegoen, eta erizpide funtzional honen arabera, Troubetzkoy-k eta Pragako haren kideek bezala, funtzionalistek ere aztertu dute gero hizkuntza.

→Adierazik arruntenaz, →Martinet-ek dioen bezala, «funtzio»-aren →kontzeptuak ez du termino batek bere zeregina ongi eta egoki betetzen duela besterik esaten («le terme est pris ici avec sa valeur la plus commune d'activité propre, de role bien adapté a la nature du sujet agissant», *Economie de...).* Horrela, →Troubetzkoy-rekin batera, maila fonologikoan hiru funtzio berezten ditu, hirutatik lehenengoa, beti agertzen delako, oinarrizkotzat jotzen badu ere: bereztefuntzioa, funtzio zedarritzailea eta gailurfuntzioa. Perpausean zenbat unitate dagoen markatzen du azken honek. Funtzio zedarritzaileak, berriz, unitateen arteko mugak ditu markatzen, eta bereztefuntzioak unitateak berak, esate baterako:

gerri vs. *herri*

«Funtzio» terminoak, bestela, hiru adiera hartu ditu linguistikaren historia modernoan. →Jakobson-ek lehendabizikoz sei funtzio ikusi zizkion hizkuntzari: erreferentziala, hunkitzailea, konatiboa, fatikoa, metalinguistikoa eta poetikoa. (Ik. *Europako Estrukturalismoa).* Kopenhave-ko eskolan, →Hjelmslev-ek bi terminoren arteko harreman guztiak funtziotzat ematen zituen, eta haren arabera hiru motatakoak izan zitezkeen: menpekotasunak, determinazioak eta konstelazioak. (Ik. *Europako Estrukturalismoa).* Gramatika →sortzaileak, azkenez, egitura baten barruko elementuek, h.d., →kategoriek, beren artean dituzten harremanak jotzen ditu funtziotzat.

A. Eguzkitza

Funtzionalismoa

funcionalismo / fonctionnalisme / functionalism

1. Hizkuntzaren →funtzioei buruzko →Pragako Eskolaren ikerketek zenbait korronte funtzionalista sorrarazi dituzte: korronte hauek garrantzi handiagoa ematen diote hizkuntzaren funtzio bati edo besteari.

Funtzionalisten artean, eragin handiena A. →Martinet-ek eta R. →Jakobson-ek izan dute.

Martinet-en teoriak hiru sail nagusi ditu: →fonologia orokorra, fonologia diakronikoa eta →linguistika orokorra. Teoria honen oinarria, «→artikulazio bikoitz»aren teorian datza: lehenengo artikulazioa, →monemetan, →adierazpenaren eta →edukinaren mailan gertatzen da: honela, monema-multzo ezagun baten bidez, edozein →esakunetara irits daiteke, esakune hauek mugagabekoak direlarik. Bigarren →artikulazioa adirazpenaren mailakoa bakarrik da: adirazpen mailako segmentu baten →aldaketak ez dakar edukin mailako aldaketarik. *Baina* hitzean, adibidez (in), edo (ñ) ahoskatzeak, ez du hitz honen →esanahia aldatzen.

→Jakobson-en teoriaren oinarria, mintzairaren funtzioetan datza (konatiboa, fatikoa, adierazkorra, poetikoa, denotatiboa, metalinguistikoa; edaslearen, entzulearen, →mezuaren eta inguruarearen arabera). Jakobson-ek, →Saussure-ren ondorengoak baztertutako diakroniazko ikerketak berpiztu zituen. Bestontzat, →diakroniazko ikerketek →sinkroniazkoak aurresuposatzen dituzte, baina ez alderantziz. Jakobson-en iritziz, ezin daiteke sinkroniazko ikerketarik izan, diakroniazkorik gabe.

G

Gainestratua
Ik. SUSBTRATUA / SUPERESTRATUA / ADSTRATUA

Gaingeruza
Ik. SUBSTRATUA / SUPERESTRATUA / ADSTRATUA

Gaitasuna
Ik. KONPETENTZIA

Galdetzailea
interrogativo / interrogatif / interrogative

1. Zerbaiti edo norbaiti buruz galderak egiteko erabiltzen diren →izenorde, →adjektibo eta →adberbioak galdetzaileak dira. Galdezko izenorde eta adjektiboak deklinatu egiten dira euskaraz. Galdezko adberbioek lekua *(non)*, →denbora *(noiz)*, →modua *(nola)* edo zenbatasuna *(zenbat)* adierazten dute. Hiru partikula galdetzaile daude euskaraz: a) *al (Ikusi al duzu?)*; b) *-a* aditzondoko partikula *(Etorri dea?)*; c) *ote*, zalantzazko galdera adierazten duena *(Ikusi ote du?)*.

2. *Galde-perpaus* edo *perpaus galdetzailea* galdera bat jartzen duen perpaus-mota da; baiezpen-perpausetatik, izenorde edo partikula galdetzaileak erabiltzeagatik, →intonazio bereziagatik, →hitzen ordena desberdinagatik edo, batzutan, zenbait hizkuntzatan, →indikatiboa ez erabiltzeagatik berezten da.

Garaia
alto / haut / high

1. Batzutan, espektroaren goiko aldean kokatzen den ahoko, edo bigarren, →formanteari esaten zaio *formante garaia*, beheko aldean kokatzen den →faringeko, edo lehen formanteari aurkajarriz. Ahoko formantearenaren goitiko →maiztasunetan aurkitzen diren formanteak ere garaiak deitzen dira: adibidez, sudurreko formantea eta →bokal zorrotzen formante berezia.

2. *Bokal garaia*, mihia →posizio garaian dagoelarik gauzatzen den →bokala da, hau da, mihia airearen pasabidea eragotzi gabe aho-sabaitik ahalik eta gertuen dagoelarik. Bokal garaiak barreiatuak dira →akustikaren aldetik.

Garbizaletasuna
purismo / purisme / purism

Teknikak eta bizimoduak berritu ala, →hiztegia ere aberasteko eta berritzeko beharra gertatzen da hizkuntza guztietan. Aberasketa edo berrikuntz behar honetan, joera batzu agertu ohi dira: bai Euskal Herrian, bai beste herrietan ere. Alde batetik, →mailegu bidez konpon daiteke arazoa. *Garbizaleen* ustez, berriz, jokabide hori «mordoilokeria» besterik ez da; eta besterik asmatu behar da, baina hizkuntza berean iturriak bilatuz. Atzerritar kutsuak oro baztertu nahiz, horretara, muturreko jarreran egon ohi dira garbizaleak: «maileguik ez», gutxi gora behera. Eta joera honi *garbizaletasuna* deritzo.

Bi muturren artean, *jatortasuna* jar daiteke (casticismo, casticisme, ondoko erdaretan); maileguei atea itxi gabe ere, bertako mintzaira-sustraitik abiatu nahi dutenen joera, alegia.

GAVEL, Henri
1880an Saint-Pol-Sur-Ternoise-n jaio zen hizkuntzalari hau. Lanbidez erromanista zelarik, batipat espainiera eta kaskoina arakatu zituen, baina, hauen ondoan euskara ere bere aztergaietan sartu zen. Euskararen alorrean *Eléments de phonétique basque* liburua izan daiteke aipagarriena, eta honekin batera ezin ahantzizko *Grammaire basque*, bukagabe utzi zuena: lehen tomoa bakarrik argitaratu zuen eta Lakonbe-rekin batera lantzen ari zen bigarrenaren zatiak *Gure Herria* aldizkarian, ikusi zuen argia.

Erdi Aroko poesiari buruzko azterketa kritiko bat ere egin zuen: *Bereterretxen Khantoria*.

Tolosa-ko Unibertsitateko irakasle eta ohorezko euskaltzain hau 1959an Angelun hil zen.

Gehikuntza
adición / addition / addition

Gramatika →sortzailean →transformazio batetan elementu bat gehitzen duen operazioari *gehikuntza* deitzen zaio. Elementu horrek ez du inolako →zentzurik edo-ta

→esanahirik ukan behar, teorikoki transformazioek ez bait diete oinarrizko perpausei ezein zentzu-→aldaketarik ekartzen (teoria «standard»-en arabera).

Esate baterako, euskarazko perpaus bi hauetatik:

Aitak esan du hori
Nik etxera joan behar dut

eta →proposizio konpletiboetarako transformazioa erabiliz honako perpaus hau sortzen da:

Nik etxera joan behar dudala, aitak esan du

Agi denez, aurreko perpaus bien zentzu bera duena, /-la/ atzizki horrek ez bait du inolako →adiera beregainik.

Geminatua

geminada / géminée / double geminate

→Kontsonante →sinple bat baino luzeagoa den kontsonantea da geminatua; baina kontsonante luze bat eta geminatu bat ez dira berdinak, bigarren hau →silaba-mugak zatitzen du, lehenengo zatia inplosiokaria eta bigarrena leherkaria delarik.

Generoa

género / genre / gender

Izenak hainbat klasetan sailkatzen dituen →kategoria gramatikala da generoa.

Sailkapen hau, adibidez, hiru generoren araberakoa da (→maskulinoa, →femeninoa, →neutroa) grekoz, latinez, errusieraz edo alemanieraz; bi generoren araberakoa frantsesez, italieraz edo espainieraz (maskulinoa, femeninoa), sei eta gehiagoren araberakoa Afrikako hizkuntza batzutan.

Propietate formaletan oinarritzen da sailkapen hau (genero gramatikala), independentea da, berez, kategorizazio semantikoetatik (genero naturala). Hala ere, genero gramatikalaren araberako sailkapenak hizkuntza askotan izan ohi du kategorizazio semantiko bat, dela sexua, dela itxura, dela kolorea etab.

Bi «genero»-moten arteko korrespondentzia ez delako erabatekoa genero-gatazkak gertatu ohi dira, adibidez, izenaren genero gramatikal maskulinoaren eta izen horrek denotaturiko pertsonaren sexu femeninoaren artean.

Jakina denez, euskarak ez du genero gramatikalik, hizkuntza →indoeuroparretan aurki daitekeenaren antzekorik, alegia. Euskal izen-genero bakarra, sexu-desberdintasunean oinarritua da; horregatik, bizidunek bakarrik azal dezakete genero-desberdintasuna (edo-ta bizigabe metaforizatuek), eta hauen artean ere ez dute guztiek azaltzen *(zaldi/ behor,* baina *zakur).*

Genero bereizketa hau, hitz desberdinen bitartez adierazten da *(mutil/neska),* →morfema berezien aldaketaz ere adieraz daiteke, *jainko/jainkosa, artzain/artzaintsa* bezalako aurkakotasun bakanetan eta batez ere, hitanozko →aditz-formetako →komunztaduran: «hik, Jose... du-*k*..., hik Miren... du-*n*.

Genitiboa

genitivo / génitif / genitive

Genitiboa deritzon →kasuak jabego-lotkia adierazten du. *Kepa-ren etxea* esaeran, esate baterako, *Kepa-ren* horri *Kepa* izenaren genitiboa deritzo (Petri Petrus, latinez).

Gaur genitibo *subjektiboa* eta genitibo →*objektiboa* bereizten dira.

Eman dezagun latinezko →esaldi hau: «amor Dei». Esaldiari dagokion bitasuna gauza ezaguna da, eta gramatika →sortzailearen ikergaitzat proposatu izan da. Alde batetik hau adieraz dezake: Jainkoak gugana duen maitasuna»; alegia, «Jainkoak maite gaituela». Kasu honetan, genitibo *subjektiboa* dugu.

Baina beste adierazpen hau ere izan dezake; «guk Jainkoarekiko dugun maitasuna»; alegia, «guk maite dugula hura». Eta kasu honetan, genitibo *objektiboa* aipatuko dugu.

Genotipoa

genotipo / génotype / genotype

Chaumjan sobietar hizkuntzalariaren terminologian, genotipoak, objektu sintaktiko →abstraktuak dira, hauek adierazteko balio duten bide linguistikoei buruz, h.d., →fenotipoei buruz, independente direnak.

Geroaldia

futuro / futur / future

Denboraren isurian, oso gauza ageria da hiru eskualde berez daitezkeela. Oinarritzat →*oraina* hartzen baldin bada, mintzatzerakoan erabiltzen dugun unea alegia, joandako →denborari buruz →*lehenaldia* esango dugu (atzo, herenegun, iaz, joan den mendean); eta etorkizun dagoen denborari buruz, berriz, *geroaldia.*

Euskarari dagokionez, →aldaketa sakonak izan ditu geroaldiak; baina ez ditugu hemen aipatuko (ikus →Lafon).

Gaur arte bizirik heldu diren ñabarduren artean hau bakarrik aipatuko dugu: *Geroaldi arkaikoa.* Gaur nagusi den geroaldi perifrastikoarekin batera, geroaldi sintetikoaren aztarnak badaude: *izango da, izango du, etorriko da, date, duke, datorke.*

Gerundioa

gerundio / gérondif / gerundive

Gramatika tradizionalak →aditz-moduen artean sailkatu zuen aditz-→izen hau. Aditz-→erro batez eta, izenak bezala, →kasu-, →genero- eta →zenbaki-→desinentziak har ditzakeen →hizki batez osatua dago. Latinez -ndi/-ndo/-ndum hizkiaren bidez eratzen da.

Gezia

flecha / flèche / arrow

Gramatika →sortzailearen idazkera-sisteman, geziak zera adierazten du: geziaren ezkerraldean dagoen elementua geziaren eskuinaldean dagoen elementuaren (edo elementu-sailaren) bidez berridatzi behar dela. →Berridazketa-→erregela honako hau bada.

$$P \rightarrow IS + AS$$

horrek esan nahi du, perpausa (P) izen-→sintagmaren eta →aditz-sintagmaren bidez berridatzi behar dela.

Glide

glide / glide / glide

Ingeles fonetikatik mailegatutako →hitz honek, tradizionalki eta zehazgabetasun handiz →erdikontsonante edo →erdibokal deitu izan diren →fonemak izendatzen ditu. Fonema hauen →ezaugarria, ez →bokalezko, ez kontsonantezko izatea da.

Glosa

glosa / glose / gloss

Zenbait esku-izkributan →hitz edo esamolde baten gainean edo alboan agertzen den oharpen oso laburra da glosa, hitz edo esamolde horren →esanahia irakurlearentzat ezaguna izan daitekeen termino baten bidez azaltzen duena. Glosak, gehienetan, hitz arraro edo ezohitu baten itzulpenak dira; *glosategia* ere, hitz arraro edo hizkuntza arruntaz bestelako hizkuntza batetako terminoen →hiztegia da. Euskarari dagokionez, garrantzi handia dute «Glosas Emilianenses» direlakoak, XI. mendean idatziak eta Errioxako San Millán de la Cogolla-n aurkituak, erdal hitz batzuren euskal itzulpena ematen bait dute.

Glosematika

Izen honek Louis →Hjelmslev-en teoria linguistikoa berezi eta espezifikoki adierazten badu ere —horrela izendatu bait zuen berak bere teoria—, askotan, Hjelmslev bera izateagatik eskolaren ordezkaririk garrantzitsuena, Kopenhave-ko eskolaren lan guztiak izendatzeko erabili da. Horregatik hemen, beragandik kanpo, beste hizkuntzalari bi aipa ditzakegu Danimarkako eskola horren ordezkarietan, Viggo Brøndal eta Hans Jørgen Uldall. Eskolaren erroak, berez, Danimarkako gramatika-ikerketek zuten tradizio luzean daude sarturik, baina De Saussure-k haren ordezkari nagusiarengan ukan zuen eragipenagatik, Genevakoarengandik sorturiko joera buruzagietakotzat jo daiteke batere zalantzarik gabe.

De →Saussure-ren «kurtsu»aren azken perpausean oina jarririk: «La linguistique a pour unique et véritable objet la langue envisagée en elle-même et pour elle-même» (hizkuntzalaritzak duen benetako helburu bakarra, beraren baitan eta beraren baitarako begiraturiko hizkuntza bera da), honako hau dugu Hjelmslev-en jomuga aurreko linguistikari kontrajarriz, hots, hizkuntzaren inguruko elementu guztiak bai baina hizkuntza bera ikertzen ez zuen hizkuntzalaritzari aurkajarriaz: hizkuntzaren egitura «sui-generis»a aztertzea (ikus *Europako Estrukturalismoa),* menpekotasun-multzo eta osotasuna den izaki horren arakatzea. Beraz, mintzairaren ikerketa inmanentea proposatzen du, eta horregatik «glosematika» deitzen dio, grekozko «glossa»-tik (hizkuntza), mintzairaren natura propioaz arduratu behar duen zientzia delako. Horrela, bada, hizkuntzen arteko diferentziak ez daude →substantzian, →forman baizik, esan nahi bait da, hizkuntzak egituratuak dauden moduan.

Hizkuntza egitura gisa ikusirik, ezin daiteke haren ustez tradizionalki egin ohi denez berau →*esanahia* + →*soinuak* den multzo gisa muga, hizkuntza hori zentzu tradizionalean mintzairen arteko bat besterik ez bait da. Horregatik, zenbait mintzaira ez-linguistiko ikertu zuelarik, honako puntu hauek eman zituen hizkuntzaren ezaugarritzat:

1. Hizkuntza →edukin batez eta →adierazpen batez osatua dago.
2. Hizkuntzak bi elementu ditu, textua eta →sistema.
3. Edukina eta adierazpena →trukaketaren bidez daude loturik.
4. Textuaren eta sistemaren barruan

harreman bereziak daude.

5. Ez dago egokitasun eta korrespondentzia zuzenik edukinen eta adierazpenaren artean, →zeinuak unitate txikiagotan azter daitezkeelako.

A. Eguzkitza

Glotala

glotal / glottal / glottal

→Kontsonante ejektiboak edo glotalak arnasaldiaz independente diren kontsonanteak dira. Laringeko aireaz baizik ez dira baliatzen, zeren eta →ahots-kordek elkarri eratxekiz arnasaldiaren aireari ez bait diote iragaten uzten. →Leherkari ejektiboak lehertze doble batez lortzen dira: bata ahozkoa da, lehertze-arrabots batekin lehenik lasaitzen dena, eta bestea glotala, geroago lasaitzen dena, →gloti-kolpe batez. →Akustikaren aldetik, →fonema blokatuak bait dira, kontsonante hauek dagozkien kontsonante ez-ejektiboei aurkajartzen zaizkie, azken hauek fonema ez-blokatuak direlarik. Kontsonante ejektiboak, eskuinaldera eta goian (') zeinua jarriz ezaguterazten dira.

Gloti-kolpea

golpe de glotis / coup de glotte / glottal stop

→Faringean nahiz laringean (non →ahots-kordak erabat elkarganatuz posible bait da une batez airearen pasabidea ixtea) gertatzen den herste bat dela bide gauzatzen den →soinuari esaten zaio gloti-kolpea. →Soinu hau ez da euskaraz agertzen, baina normala da beste hizkuntza batzuetan, alemanieran eta danieran adibidez; hauetan erregularki dator hasiera-→bokal azentudunen aurrean eta →funtzio mugarritzailea betetzen du. /'/ zeinuaz adierazten da.

Glotokronologia

glotocronología / glottochronologie / glottochronology

Glotokronologia, hizkuntza →erkide primitiboak datatzeko edo, beste hitzez esateko, hizkuntza jatorrikide bi edo gehiago noiz berezi ziren berorientzat erkide zen →jatorrizko hizkuntzatik ezartzeko teknika da. M. Swadesh-ek eta R. B. Lees-ek proposatu zuten teknika hau. Gramatika konparatua, glotokronologiari esker, hizkuntz →aldaketak datatzera eta hizkuntzen →ahaidetasun-maila erabakitzera saiatzen da; honela egiztatu ahal izan da, erritmo beretsuan gertatzen dela hizkuntza guztietan →morfemen galtzea: 100en bat →hitzetako multzoa osatzen duten →kontzeptu unibertsalak *(jan, edan, gizon, buru,* etab.) oinarritzat hartuz definituriko funtsezko lexikoak % 19 inguru galtzen du hasierako oinarritik mila urteren barnean. Zeharo berezten diren bi hizkuntza hartzen badira, ontzat eman daiteke, mila urte geroago hasierako stock-etik % 66 bat erkide izango dira bientzat (unitate berak galtzen ez dituzten neurrian). Alderantziz, bi hizkuntzen funtsezko hiztegia % 66-an berdina den unean, mila urte lehenago jarriko du glotokronologiak beraien berezte-data.

Ik. LINGUISTIKA eta MATEMATIKA

Gnomikoa

gnómico / gnomique / gnomic

→Aditz-forma bat gnomikoa da esperientziazko gertakari jeneral bat adierazteko erabiltzen denean. Atsotitzetan eta esaeretan, grekoz →aoristo gnomikoa erabiltzen da; euskaraz, →orainaldi gnomikoa erabiltzen da balio jeneraleko →esakuneetan *(Lurra eguzkiaren inguruan biratzen da).*

Gogorra

duro / dur / hard

→Fonema *gogorra,* sarriago *teinkoa* edo *bortitza* deitua fonema →*samur* nasai edo →*ahulei* aurkajartzeko, ahoko muskuluen →teinkaduragatik ezaugarritzen da. [p], [t], [k] →kontsonante →gorrak gogorrak dira, [b], [d], [g] kontsonante →ozenak samurrak diren bitartean.

Goranzkoa

ascendente / ascendant / rising

→Diptongoak sailkatzerakoan, alde batetik →beheranzkoak ditugu (diptongoaren lehenengo partea da nagusia), eta bestetik *goranzkoak* (diptongoaren bigarren partea da gailen).

Goranzko diptongoetan, beraz, lehengo partean →erdikontsonante bat aurkitzen da:

esp. piedra [pjéđra]
esp. cuando [kwándo]
fr. nuit [nyí]

Euskararen barruan, normalean ez dago goranzko diptongorik; baina Ekialdeko euskalkietan bai:

BN, maitia [maitja]
Zar., negua [négwa]
S, zia [sjá]

Gorketa

ensordecimiento / assourdissement / unvoicing, devoicing

Jatorriz →ozena zen →*kontsonante* baten

ozentasun-galeran datza gorketa. Hein batez bederen, eta aldez, →*bokal* baten gorketa ere gerta daiteke.

Hona hemen *ukipen-→asimilazio* gertatzen den kasu bat; edo-ta, bestela esateko, *baldintzatuak* esan daitezkeen →aldaketa fonetikoak.

Euskararen alorrean (ikus *Euskal Fonetika), gorren* eta *ozenen* arteko →neutralizazioak —lehenengoen alde →txistukarien ondoren— adibide ugaririk eskaintzen du *kontsonante-gorketa* horretaz.

Adibidez: [es*t*ut], [es*k*ero].

Gorra

sordo / sourd / voiceless

Gorra deritzon →foneman, →ahots-korden dardararik ez dago: glotia itxirik dago, biriketatikako airea ez da laringean barrena igarotzen, eta beraz jatorri horretako →soinu-uhinik ez dago. Entzuten dena, hortaz, ondoko edo aurreko →bokalaren ebakunean gertatzen da. Eskuarki gutxiago izaten dira fonema gorrak, fonema →ozenak baino. Euskarari dagokionez. bai /p, t, k/ hirukotea, bai /z, s, x/ hirukotea, →kontsonante gorrez osaturik daude.

Grafema

grafema / graphème / grapheme

Grafema →izkribakera-sistema bateko elementu →abstraktu bat da, →alografo deituriko formen bidez zertzen dena, alografoen marraketa →sistemako beste elementuen menpean dagoelarik: grafema, hortaz, →letrari dagokio izkribakera alfabetikoan, alografoak majuskula, minuskula, kurtsiba etab. diren bitartean. →Fonemak mintzaira mintzatuan bezala, grafemak izkribakeran bigarren →artikulazioko unitateak dira; →morfema grafikoak dira lehen artikulazioko unitateak.

Grafia

grafia / graphie / spelling

→Hitz edo →esakune baten irudikapen idatziari esaten zaio grafia. Hitz baten ortografia oro grafia da: horrela, *au hau*-ren ordez grafia okerra da, baina grafia hala ere. *Zaku* hitza →alfabeto fonetikoan [saku] bezala transkribatzen denean, hori ere grafia bat da.

Gramatika: ulerbide batzuk

A. *Gramatika, teoria gisa*

Lehen-lehenik bi gauza hauek berezi behar dira: alde batetik, gramatika zera da →erregela-→sistema definitua eta barneratua; hori dela eta, gramatika hori →konpetentzia duen →hiztunak hizkuntza horretako perpausak sortzeko eta ulertzeko duen dohaina da. Baina badago gramatikaren beste ulerbide bat ere: hizkuntzalariak, hizkuntza horretako perpausak (eta berauei dagokien egiturazko azalpidea) finkatzeko, eraikitzen duen erregela-sistema.

Jakina, definizio hauetan gramatika sortzailea dugu gidari; eta berori da →axioma bidezko gramatika formalen artean ezagunena, eta hizkuntza baten perpaus gramatikalen definizio berrizkari bat ematen du.

Zehazki mintzatzekotan, gramatika bat axioma-sistema hedatu bat da (alegia, bi →hiztegi edo oinarrizko →alfabeto ditu: →laguntzailea edo kategoriala: NP, VP, eta abar; eta irteerazkoa: →lexemak eta gramatika-→hizkiak; eta erregelak oro →bitarrak dira eta norabidebakarrak. (X x Y → X eta Y). Hitz batez: erdi-Thue deritzon sistema bat. Axioma bakarra P da (perpausa); eta erregela-multzo batek sortzen ditu irteerako kateak (teoremak). Erregela horiei ezartzen zaizkien baldintzek mugatzen dituzte ere azpi-sailak: →textuinguruaren araberakoak edo textuinguruz kanpokoak, zuhaitzaireak eskuinetara edo ezkerretara...

B. *Gramatika eraikuntza gisa*

Matematikan sortu da ulerbide hau (constructium): →sinbolo-konfigurazioen bitartez eragiten dute erregelek. Amerikar estrukturalismoa, →Hjelmslev-en → glosematikatik urrunduz, ulerbide honi hurbildu zaio.

Bi ikuspegiok eman ditu aintzakotzat →Chomsky-k, eta hirugarren ulerbide bat erantsi du:

C. *Gramatika, automata gisa*

1963an, Chomsky-k gramatika formaleko moten ikuspegi orokorra eman zuen, baita hauei datxezkien automatena ere. Honen berri zehazkiago jakin nahi izatekotan, ikus Gross/Lentin, 1970 (Notions sur les Grammaires Formelles, Paris) eta Hopcrpft/Ullman, 1969 (Formal

Languages and thur Relation to Automata).

→*Bloomfield*-en arragoko →estrukturalismoan, gramatikaren →funtzioa gaurko →hizketan aurkitutako emarien deskribapena da. *Praga*-koan, berriz, hizkuntzaren balio funtzionala azpimarratzen da; gramatika ez da →banaketazkoa soil-soilik, baina ezta →semantiko hutsa ere, ohizko alderditik. *Kopenhave*-koan, azkenik, hizkuntzaren pleguan datzan algebra izkutua eta harreman-sistema azaltzea da helburu. Estrukturalismoaren hiru ikusmolde horiek honako hau dute elkarrekin: hizkuntzaren ikuspegi aldaezina. Ezin ditzakete beraren alderdi sortzaileak eta dinamikoak azal.

Antzinatean guztiz helburu *didaktikoak* zituen gramatikak (textu klasikoen irakaskuntza, erretorika-hezkuntza, e.a.). Hori dela eta, oso joera arauemailea zeukan. Haren azterketan, logikaren eta ontologiaren eragina gauza nabarmena da.

Txillardegi

Gramatika-kategoria

Hizkuntz eskolen arabera hedadura desberdina du kontzeptu honek. Ohizko gramatikak, Aristotelen «Kategorien Tratatu»tik hartzen du. Errealitateari datxekion tresna den aldetik, kategoria metafisikoak isladatzen ditu hizkuntzak bere hitz-motetan (modi significandi): izenek →substantzia adierazten dute, alegia, objektu bakunak; →adjektiboek, berriz, nolakotasunak; eta abar. Kategoria horiei, lexikozkoak, perpausaren atal deritze.

Beste alde batetik, hizkuntzan bertan ere, errealitatearen beste gauzaki bat den aldetik, substantzia/akzidente dikotomia isladatzen da; eta substantzi gisako edo itxurakoei, gramatikazko akzidenteak dagozkie, hauek izenaren →paradigma (→generoa, →zenbakia, →kasua), edo →aditzarena (→denbora, →modua, zenbakia, →pertsona), mugatzen dituztelarik. Beste motatako hitzen sailkapenaz agertzen den zalantzatasunaz, ikus *Adjektiboa* goiburua, adibidez. Gainerako hitz-motak, bigarren mailakotzat jotzen ziren (→adberbioa, →preposizioa, →juntagailua eta abar), eta eskuarki ez zitzaien adierazplegurik aitortzen, →funtzio gramatikal soil bat baizik. 1948an Bröndal-ek kategoria horiek ohizko filosofiaren arabera funtsatu nahirik egin zuen saialdia, horretara («perpausaren atalak» litezkeen aldetik), ikerbide horien hutsalaren adibide argitutzat eman daiteke.

Hizkuntzalaritza berrian hiztegizko gramatika-→kategoriak, batetik, hitz-motak, alegia (→izena, aditza, adjektiboa, preposizioa eta abar), eta sintaxizkoak, bestetik (izen-sintagma IS, aditz-sintagma AS, preposiziozkoa PS, eta abar) berezten dira. Gramatika →sortzailean, zuhaitz sintagmatikoetan, adabegien txartel gisa erabiltzen dira kategoria horien izenak; kategoria gramatikal lexikalak ez dira hedagarriak (I, A, Adj, Adb, Prep, eta abar), eta azpikategorizazio-→erregeletan eta →txertakuntza lexikaletan →sinbolo horiek matrizetako →ezaugarriz edo lexemaz ordaintzen direlarik ez dira geziaren ezkerraldean baizik agertzen.

Gorago gramatika-akzidente bataiatu ditugun horiek, hein batez, →matrize edo sinbolo anizkoitz horien ezaugarritzat hartzen dira hemen, beroriek txertakuntza prestatzen eta morfologi output delakoa markatzen dutelarik: + I, + mask, + pl, + kasu 3...

Denbora, aldiz, hiztegizkoa ez den kategori sinbolo gisa erabiltzen da maiz, gero gramatikazko →formantetan hedatua (→iragana, →burutua, eta abar); eta moduak oraino ere arazo larriagoak aurkezten dizkio gramatika honi.

Beste alde batetik, Gramatika Sortzailearen molde standardean ez dago batere garbi →hiztegi eta sintaxi-kategorien arteko harremana; hau da, esate baterako, I eta IS-aren artean dagoen funtsezko harremana.

Kategori gramatikan, aldiz, agerikoa da harreman hori, eta →sintaxi-kategorien mugatzaile gisa defini daiteke. Sintaxi-kategoria horietako bakoitzak badu sintaxi bidez aztertu ezin den zenbait elementu adierazgarri; eta sintaxizko eragiketen helburua, hain zuzen, klase ho-

riek adierazki anizkunez aberastea da (Lambek, Ajdukjewiez, Bar-Hillel, Lewis, Montagus, eta abar).

Txillardegi

Gramatikaltasuna

gramaticalidad / grammaticalité / grammaticalness

→Hiztun bakoitzak, definizioz bere hizkuntzaren gramatika menderatzen bait du, eman dezake gramatikaltasun-eritzirik igorritako →esakuneei buruz. Bere hizkuntzako →hitzez osaturiko perpaus bati buruz berehala esan dezake gramatikaren →erregelen arabera eratua dagoen ala ez; ahalmen hau hiztunen →konpetentziatik dator, eta ez horren kulturatik edo talde sozialetik. Beste modu batera esateko, hiztunak konstatatu egiten du gramatikaltasuna edo ezgramatikaltasuna, ez du baloraziorik egiten. Perpaus baten gramatikaltasunari buruz hiztunak ez badatoz bat, berorien konpetentziak (berorien gramatikak) →sistema beraren →aldaerak direla esan nahi du horrek. Gramatikaltasun-eritziak ez dira baztertze nahiz onartze borobilak bakarrik; gramatikaltasun-mailak daude. Gramatikaltasuna, bestalde, ez da nahasi behar a) →esanahiarekin: gramatikala izan arren, ulergaitza izan daiteke perpausa: b) perpausaren →edukinaren egiatasunarekin; c) →esakune baten gertagarritasunarekin; d) gramatikala izan arren, zailtasun handia aurkezten duen perpaus baten onargarritasun edo ulergarritasunarekin. Gramatikaltasuna ez da hitz edo eraikuntza baten erabileran oinarritzen, juzgu batetan baizik. Eta juzgu hau ez dator eskuratutako esperientziatik, hizkuntzaren ikaskuntzan barneratutako erregela jeneralen sistema batetik baizik.

Grassmann-en legea

ley de Grassmann / loi de Grassmann / Grassman's law

H. Grassmann-ek 1863an indoeuroparreko hasperenduei buruzko lege bat proposatu zuen, eta honela dio: oinarri berean bi hasperendu agertzen direnean, biotatik batek (normalean lehenak) →hasperenketa galtzen du. Euskaraz ere, beraz, lege hau ongi btetetzen dela esan daiteke: *ilhots* dakar Oihenartek.

Grimm-en legea

ley de Grimm / loi de Grimm / Grimm's law

→Lege fonetikoen artean, garrantzitsuenetarikoa da Grimm-en legea. Jacob Grimmek 1822an aurkituriko lege honek germanikoaren historiaurreko aldian gertatutako →mutazio baten bidez azaltzen ditu hizkuntza germanikoen arteko korrespondentzia nagusiak: indoeuroparreko [bh, dh, gh] →kontsonante hasperenduak ez-hasperendu bilakatu ziren [b, d, g], →ozenak →gor bilakatu ziren [p, t, k], eta gorrak hasperendu bilakatu ziren [f, θ, h]. Lege hau, zenbait salbuespen argitu gabe uzten zituenez, Verner-ek osatu zuen geroago; Verner-en legeak →azentuaren eraginaz azaltzen ditu salbuespen horiek.

Lege hau garrantzi handikoa da, eta ez bakarrik eman dituen emaitzen balioagatik, baizik eta baita epistemologiaren ikuspegitik ere. Izan ere, bera izan da →lege fonetikoen erregulartasunaren printzipioaren justifikazioa, hain zuzen →fonetika historiko eta konparatuaren garapena bultzatu duen printzipioaren justifikazioa.

H

Hapaxa

hapax / hapax / hapax

→Corpus batetan adibide bakarra duen forma, →hitz edo esamoldeari ematen zaio *hapax* izena.

Hartzailea

Ik. JASOTZAILEA

Hasperenketa

Hasperenketa eskuarkienik →*kontsonanteetan* gertatzen den →ezaugarri fonetiko bat da; eta jasaten duten kontsonanteok, *hasperenduak* esan ohi dira. →Soinuarekin batera entzun daitekeen haize-kolpeari deritzo hasperenketa. Eta hala gerta dadin, denbora-tartetxo bat behar da izan: *kontsonantearen leherpenetik* hasi, eta *glotiaren hersteraino*. Honela adierazi ohi da eskuarki: (-h). Alegia: */ph/*: →*leherkaria,* →*ezpainbikaria,* →*gorra, hasperendua.*

Itxura denez, →*atzeko* soinutan gertatzen da maizenik hasperenketa hau.

→Fonologia →bitarraren arabera, →*teinkaduraren* agertzapen fonetikoa da hasperenketa. →Chomsky-k eta Halle-k, aldiz, *teinkaduraren ezaugarrietatik* berezten dute; ozentasunarekin, karrankaritasunarekin eta abar, jartzen dutelarik.

Soinu hasperenduok ugariak dira *ingelesez,* alemanieraz eta abar.

Euskarari dagokionez, berriz, *Iparraldeko* euskalkiek dituzte *soinu hasperenduak;* eta normalean dagozkien soinu hasperengabeen →*aldaera* baizik ez dira. Ik. TEINKADURA

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Hautapena

elección / choix / choice, selection

Kateako unitate bakoitza bere →textuinguruan agertu, →hiztunak *hautatu* duelako agertzen da, textuinguru horretan ager zitezkeen beste unitateak baztertuz. *Hautapena,* beraz, →morfemen edo gutxienezko esanahizko unitateen artean egiten da; hauek dira hautapen-unitateak, eta transmititu nahi den →mezuaren arabera hautatzen dira, textuinguru berean posible direnen artean.

Hautazkoa

arbitrario / arbitraire / arbitrary

De →Saussure-ren teorian eta arruntkiago hizkuntzalaritzan, hautazkotzat, →adierazle eta →adieraziaren artean dagoen harremana jotzen da. Hizkuntza hautazkoa da, berau, erabiltzen duten gizarteko partaideen arteko hitzarmen inplizitu bat den heinean; horregatik esan daiteke, zentzu honetan alegia, hizkuntza ez dela naturala. *Mahai* bezalako hitz batek aditzera ematen duen →kontzeptuak ez du [mahai] →soinu-sailarekin derrigorrezko loturarik, ezta *mahai* →grafiarekin ere, hau da, hizkuntz →zeinu espezifiko batekin. Hizkuntz zeinuaren hautazkotasunak, beraz, zera galerazten du, hiztunak osatzea hizkuntz zeinu horiek, hots, halako →esanahi bat berak nahi duen formaz adieraztea edo-ta alderantziz, halako forma bati berak nahi duen esanahia atxekitzea. →Onomatopeietatik aparte hizkuntz zeinua hautazkoa ez den alor bakarra →eratorpenarena da, zeren *zazpi* guztiz hautazkoa izan arren *zazpigarren* motibatua bait da, *zazpi*-rekin daukan erlazioagatik. Horregatik *hautazkotasun* erlatiboaz ere hitz egiten da. Azkenik zera aipatu behar da, hizkuntza osatzen duten hizkuntz zeinuen →aldaketak ez dituztela pertsona edo gizabanako isolatuek egiten; →erregela guztiei nagusitzen zaie, eta hizkuntz zeinuak garai batetik bestera aldatzen badira, ez dira behin ere hiztun isolatuen borondatez aldatzen. Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Hedadura

extensión / extension / extension

→Multzo bat hedaduraz definitzen da, multzo horren barruan sar daitezkeen elementu guztiak, eta horiek bakarrik, espresuki zerrendatzen direnean. Hedadurazko definizioa ezagupidezko definizioari aurkajartzen zaio. Berez, edozein multzo defini daiteke ezagupidez, baina asko ezin dira hedaduraz definitu (zenbaki-segida, adibidez). →Corpus bat, den luzeena ere, hedaduraz deskriba daitekeen multzoa da. Hizkuntza bateko perpaus gramatikalen multzoa ezagupidez bakarrik defini daiteke: →mugagabea bait da haien kopurua.

Hedapena

expansión / expansion / expansion

1. →Linguistika estrukturalean, bi →morfema-sail →textuinguru sintaktiko berdinean agertzen direnean, hots, biek →banaketa bera dutenean eta bigarrena gutxienez bestea bezain luzea denean, hau da, gutxienez besteak adina morfema dituenean, osagaien aldetik egitura desberdina izan arren, orduan bigarrena lehenengoaren *hedapena* da, lehenengoa bigarrenaren eredua delarik.

Demagun, *umea* eta *haur txikia* morfema-sailak dauzkagula: biak textuinguru berdinetan agertzen dira eta osagaiei dagokienez egitura desberdina dute, batarena Izena + Determinatzailea bait da, bestearena Izena + Adjektiboa + Determinatzailea den bitartean. Ba, *haur txikia umea*ren hedapena dela esaten da.

2. A. →Martinet-en arabera, perpaus batetan *hedapena* da, perpausetik, perpausak perpaus izaten jarraituz eta →hitzen arteko erlazio gramatikalak aldatu gabe, ken daitekeen edozein hitz edo hitz-multzo. Honela, *Hernaniko gizona trenez etorri da* perpausean, *Hernaniko* →izen-→sintagmaren hedapena dela esango da eta *trenez* →aditz-sintagmaren hedapena, atera bait daitezke biak perpausetik, honek perpaus izateari utzi gabe: *Gizona etorri da.*

Herskaria

oclusivo / occlusif / stop

Sin.: OKLUSIBOA

→Kontsonante bat herskaria da, beraren artikulazioak, esentzialki, ahots-kanalearen

herste bat daramanean. Kontsonantearen →soinua airearen igarotzearen hasieratik edo-ta bat bateko etenetik dator.

→Akustikaren aldetik, herskariak →ezaugarri etenagatik berezten dira, hau da, espektroaren barruan, isilune bategatik, zeinaren ondotik eta/edo aurretik energiaren barreiatze bat gertatzen bait da →maiztasun-zerrenda zabal baten gainean. Herskari bakoitza besteetatik bere locus-agatik desberdintzen da, hau da, zein maiztasunetara jotzen duten, iritsi gabe, aurreko eta/edo ondoko →bokalaren →formanteek (bereziki aho-formanteak), hori hartzen da kontutan herskarien artean berezteko. [p]-ren kasuan, formante bokalikoek →maiztasun apaletara jotzen dute, [t]-ren kasuan, berriz, espektroaren erdiko maiztasunetara.

Herskari baten →ahoskuntzak hiru fase ditu: organoen tokitzea (katastasia), gehiago edo gutxiago luzatzen den →teinkadura eta organoen nasaipena (metastasia). *Eztandakariak* ere esaten zaie herskariei, eta batzutan, herstea aire-isurtzea hasi ondoren ala hasi aurretik gertatzen den kontu, leherkariak (bokal baten aurretik doazenak) eta inplosiboak (bokalari jarraitzen zaizkionak) berezten dira.

Herskari hutsak, herstea eta aire →frikatiboaren (→afrikatuak) edo →askearen (→sudurkariak, →urkariak, →dardarkariak) igarotzea elkartzen dituzten kontsonanteetatik berezten dira.

Ik. FONETIKA-FONOLOGIA

Heteronimoa

heterónimo / hétéronyme / heteronymous

Gramatika tradizionalean, →erro desberdinekoak izan arren oro har egitura semantiko bat eratzen duten →hitzak deitzen dira heteronimoak. Adibidez, senidetasun-izenak *(aita, arreba, semea, osaba,* etab.), koloreen izenak, egunen izenak, etab.

Heterorganikoa

heterorgánico / hétérorganique / heterorganic

Bi →fonema heterorganikoak dira →artikulazio-puntu desberdina dutenean, adibidez [p] eta [t]: horien kontrakoak →homorganikoak dira, adibidez [d] eta [t].

Hiatus

hiato / hiatus / hiatus

Hiatus-a, bi →silaba desberdinetan banatzen diren bi →bokal elkartuk osatzen duten multzoa da: *joan, jaio.* Hizkuntzak ahalegintzen dira askotan hiatus-ak kentzen, horretarako prozedura desberdinak erabiliz: →fonema ez-bokalikoen →epentesia ([xayo], [čikija]); lehenengo bokala elementu ez-bokaliko bihurtzea [xwan]; kontrakzioa, e.a.

Hibridoa

híbrido / hybride / hybrid

Gramatika tradizionalean, hizkuntza desberdinetako →erroetatik hartutako osagaiez eratuta dagoen →hitz konposatuari esaten zaio hitz hibridoa. Honela, *automobil* hitza hibridoa da, zeren beraren erroak, bata grekotikoa *(autor)* eta bestea latinetikoa *(mobilis)* bait dira.

Hiperbolea

hipérbole / hyperbole / hyperbole

Hiperbolea, ideia bat nabari eraztearren errealitatetik kanpo geratzen den →adierazpen bat erabiltzean datzan erretorika-figura da; adib.: gizon bat haundia dela adierazteko *erraldoia* dela esatea.

Hipokoristikoa

hipocorístico / hypocoristique / hypocoristic

Maitasuna adierazten duten hitzei esaten zaie hipokoristikoak. →Txipigarri gehienak hipokoristikoak izan daitezke. Euskara →fonemen bustiduraz baliatzen da honetarako: [aiṯa], [amoṇa], [gošo].

Hiponimia

hiponimia / hyponymie / hyponomy

Termino espezifikoago bat jeneralago batetan inkluditzen duen erlazioa da *hiponimia,* eta →klase-logikaren bidez formalizatu izan da. *Zakur,* adibidez, *animalia*ren hiponimoa da.

Inplikazio-erlazio aldebakar edo simetrigabe honi *hiponimia propioa* deritza. Sinonimiaren definiziorako proposatu izan den erlazio aldebikoari, berriz, *hiponimia simetriko* edo *elkarrekikoa* deitzen zaio *(X Y*-ren hiponimia bada, eta *y x*-ren hiponimoa, x eta y →sinonimoak dira). Hiponimia oro, bestalde, *iragankorra* da, baldin *a* eta *b* lotzen dituen erlazio berak lotzen baditu *b* eta *c,* orduan *a* eta *c* ere lotzen bait ditu.

Hitz-eraketa: Lexiko-sorkuntzarako baliabideak

Mikel Zalbide

Edozein hizkuntzatako lexikoa ez da izaten normalean, aski ezaguna denez, behin betiko hitz-multzo lotu aldaezina: ezer bada, aitzitik, etengabeko mudantzan ari den elementu adierazgarrizko multzo ireki eta aldakorra da. Aldaketa horiek eskuarki hitzez hitz (edo-ta, gehienera ere jakintzagai, lanbide, teknika edo bizimaila jakin bati loturiko hitz-multzoz hitz-multzo), egiten direnez, gizabanakoa nekez konturatzen da aldioroko isuri honetaz. Aski genuke horrela, nork bere buruaz era dezakeen adibide soil bat baizik ez aipatzearren, orain hamar edo hogei urte ahoz nahiz idatziz erabili ohi genuen hizkera-bide konkretua aztertzea, hizkuntzaren historiarako hain tarte laburra den epealdi horretan neurri handiago edo txikiagoan gure hiztegia —berdin du famili giroan, lagunartean, ohizko langunean nahiz norbanakoon gogoetabide xumean erabiltzekoa den— aldatu egin dela ohartzeko: lehen hitzetik hortzera erabiliko genituen zenbait hitz galbide itxuraz itzulezinaren amildegian barrena abiatuak dira eta, aldi berean, orduraino batezbesteko euskal belarriak apenas entzundako beste hainbat esanbide biziki indartzen ari zaizkigu. Ez da exenplurik kaskarrena izango agian, diogunaren frogagarri batetik *maisu* eta bestetik *irakasle* hitzei euskaldun askoren bizidenboran —baita 35 urtetik beherakoenean ere— suertatzen ari zaien hain ibilbide desberdina kontuan hartzea.

Gertaera horren arrazoi nagusiak ongi ezagunak dira noski. Gizartea aldatuz doan neurrian, bertako gizajendearen pentsabideak eta hurkoari azaldubeharrak ere bestelakotu egiten dira halako neurri batean. Maila horretan aski gogoangarriak dira noski ondoko puntuok: lanbide zahar batzuk desagertuz doaz batetik, ordaineko berriak sortzen direlarik; bestetik jendearen bizimodu eta lekua, ikasbideak, harreman-moldeak eta hiztun ororen pentsakera hain gogor markatzen duten gainerako gizarte-baldintzapenak ere aldatuz doaz, mudantza horien norabidea eta abiadura beti berdinak ez badira ere.

Guzti horren ondorioz, bere inguruan behin eta berriz agertuz doazen tresna, gertaera, aurkikunde, kontzeptu, fenomeno eta ezaguera berriak nola edo hala izendatu beharrean aurkitzen da gizona, bere hizkuntza hori aldian aldiko beharrizan berrietarako egokitu eta zorrozteko premian: izendatze hori normalean beste bizilagunekin (azken batez hizkuntz komunitate osoarekin) batean burutu behar izaten du hala ere gizabanakoak; bere kabuzko izendapen-hautespenak gutxienak izaten bide dira beti ere.

Lexiko-berrikuntza ez da, horretara, hilzorian eta galtzear dauden nola-halako hizkuntza txikien berenezko arazoa, edozein mintzaira bizitan ageri den gertaera naturala, bizibehar horrek berak ezarri ohi duen iharduera-legea baizik. Pierre Guilbert eta beste hiru lexikologok 1960an Petit Larousseko bi edizio konparatuz, esate baterako, ondoko aldaketa-emaitzok aurkitu zituzten itxura osoz gure baino osasuntsuago dagoen frantsesarentzat: edizio batetik bestera, hamar urteko epealdian 3973 hitzek era bateko edo besteko berrikuntzak ageri dituzte. Eta hori, esan bezala, batez ere frantses hiztegi arruntari erantzuten dion hiztegi batean.

Gertaera orokorra izanik ere desberdina da, ordea, hizkuntza batetik bestera; euskarak gaur egun bizi duen moduko giro batean, gainera, agitz-berezia izatera ere hel daiteke. Faktore bi baizik ez dira hemen aipatuko, diogunaren azalpenerako aski direlakoan, desberdintasun-iturri gisa.

a) hitz-eraketarako hizkuntza bakoitzak eskaintzen dituen baliabide desberdinak, beraien egungo emankortasuna eta, azkenik, hizkuntza horrek honegatik edo hargatik baliabide emankor posible horien artean aukeratzerakoan ezartzen duen lehentasun-mailaketa berezia.
b) hizkuntza bakoitzak historiaren jakineko une batean momentu hartako gizartekerak eska ditzakeen beharretarako eduki dezakeen egokitzapen-maila desberdina. Euskararen kasurako, honela bere ibilera historikoan eskuarteratu zaizkion hainbat arrazoirengatik eta, oso bereziki, XIX. mendetik hona Euskal herriaren egituratze politikoak eta industrializazioak hartu izan duen bilakamoldeagatik, desoreka nabarmenak sortu izan dira eskola, administrazio eta teknika mailan erabili beharreko terminologien eta euskarak haiei erantzuteko moduan prestatu eta finkaturik dauzkan hizkerabide aukeran murritzegien artean.

Honekin agertua dago, beraz, euskarak bere hitz-altxorra arrazoi bategatik edo bestegatik oraindaino debeku gertatu izan zaion zenbait langune, adierazpide eta gizarte-eginkizunetarako landu eta egokitu beharra daukala. Horrekin, bide batez, alde batera uzten da oraindik ere etxekoen eta kanpokoen artean defendatzailerik falta ez zaion harako tradizio ezagun haren ikuspegia: euskarak egungo gizarte-beharrizanetara egoki-

tzeko omen lukeen berezko ezintasuna alegia. Eztabaidarik ez da noski, egungo egunean ere, gure hizkuntzaren egokitzapen-gaitasunaz falta. Badirudi ordea, azken urteotako ihardunbideen nondik norakoak aztertzen badira, eztabaida horiek beste galdekizun batzuren ingurunean gorpuzten ari direla gehienean eta, ondorioz, «jatorrizko bekatu»aren azalpide horrek, egunoroko gertaera xumeek partez edo osoz behin eta berriro gezurtatzen dutelako edo, mende-hasierako burruka-indar hura ondotxo mermatua duela. Eztabaidarik latzenak eragiten dituen galdekizuna, eta zuzen-zuzenean gatoz horrekin gaiaren harira, besterik da orain: euskarak zenbait gizarte-eskakizun berri (eta ez hain berri)-ren beharretara egokitzeko berezko ezintasunik ez badu, zein jokamoldez baliatu behar luke nagusiki beharrizan horri erantzuteko? Hots, helburua eskuragarritasuna aitortzeaz gainera bertara eraman dezaketen bide bat baino gehiago existitzen dela onartuz, nondik jo aukerabide konkretuak egiterakoan. Horrekin batean, eztabaidagai gutxiago eskaini bide badu ere, bestelako burutapenak ere ari dira sortzen: ezagunena, agian, erizpide itxuraz soziolinguistikoan funtsatuz zenbaitek auzitaratu duen eraberritze-erritmoaren arazoa izango litzateke. Ea, alegia, noraino den posible eta onuragarria euskaldungoari urte gutxitan izari handiko hitz-erabilerazko ohitura-aldaketa bat eskatzea. Nolanahi ere badirudi galdera honi aurrekoari bezala, egunoroko praktikak bakarrik aurkitu ahal izango diola neurri zuzena: gaur-gaurkoz, jarrera batetik edo bestetik ematen diren erizpideen arabera, zaila dirudi iragarpenezko emaitza operatiboetara iristea.

Euskaraz bere lexikoaren eraberrikuntzarako irispidean dituen baliabideak ez dira, bere batezbestekoan, albo-hizkuntzenetatik hain bereziak. Berezitasuna, inon egotekotan, lehen esan denez baliabide konkretu batez edo bestez egiten den erabilera oparo edo murritzagoan legoke.

Hemen, sailkapen-bide zorrotz eta aldi berean orohartzaileago batek lemakeen zerrenda osatuago baten ezean, ondoko sei baliabideok aipatuko dira hitz-eraketa nahiz lexikoaren eraberriketarako: mailegutza, eratorpena, konposizioa, zabalkuntza semantikoa, berrezarpen lexikala eta berrikuntza fonologikoa. Sailkapen hau, bistan denez, usariozko hirukoitz hura (mailegutza, eratorpena, konposizioa) baino zabalagoa da. Azalpenerako jokabide honen arrazoia, geroago halako xehetasun batez ikusiko denez, zeran dago: klasifikazio «klasiko» horretan adierazlearen aldetiko berrikuntzari soilik begiratzen zaio. Badirudi ordea, eta lexikologiaz azkenaldiotan agertzen diren idaztietan ez da horren aldeko lekukotasunik falta, hitz-eraketazko azalpide batek esanahiaren aldetiko berrikuntzak ere kontuan hartu beharrak lituzkeela. Neologigintza ez da izan ere, Azkueren hitzez esateko, hizperrigintza soilik; horretaz gainera, eta agian hori bezainbateko neurrian, irispidean (bizi-bizirik nahiz hil zorian) daukagun ondare lexikalaz adierazpen-behar berrietarako baliatzen

jakiteak ere hor sartu behar luke bete-betean: hitza aurpegibiko «txanpona» den neurrian, berriro ere harako adibide zahar hartara joaz, bistan dago aurpegi bietariko edozeinen aldaketak «txanpon»-aldaketa adierazten duela ezinbestean.

Honekin ez da esan nahi, dena dela, adierazlearen eta esanahiaren aldetiko berrikuntzak zaku berean sartzekoak direnik: hitz-eraketaren baitako gertaera morfologikoak aztertzerakoan normala da batez ere eratorpenaz edo konposizioaz (eta, neurri batean, mailegutzaz) arduratzea; elementu lexikal desberdinek estaltzen duten esanahi-eremua, eta bereziki eremu honek jasandako aldaketa, kontsideratzekoan normala da ordea beste hiru baliabideak ere begien aurrean hartzea.

Ikus dezagun orain, halako xehetasun batez, goian azalduriko sorbide-izen horiekin zer adierazi nahi den.

a) Mailegutzaz zera adierazi ohi da, hizkuntza baten hitz-altxorrera beste hizkuntza batetik hartutako elementu lexikalak baitaratzea. Euskararen kasuan, esate baterako, maileguak dira *erregina, duda, butano, transformadore, bikini, semaforo* eta *auto-stop* hitzak. Mailegatu ez dira ordea, soil-soilik hitzak mailegatzen: batzutan hitz-multzo osoak eskualdatzen dira hizkuntza batetik bestera (esate baterako *auskalo* < *a buscarlo, arrozkoletxe, puntapaixak* < *puntas de París, mesanotxe, fildeferra...)* eta beste bazutan morfema edo hitz-atalak (adibidez *-zio* atzizkia *asmazio, txikizio* edo *amorrazio* hitzetan, edo-ta *des-* aurrizkia *desegin, desagertu* edo *desbideratu* exenpluetan).

Mailegutza hizkuntz interferentziaren emaitzarik ezagunenetarikoa da; interferentzi giroan bizi diren hizkuntzetan —eta halakoan bizi da gurea, inor bizitzekotan— ezinbesteko ondorioa da hori. Hizkuntza bietatik bata izan ohi da gehienetan indartsua, mailegu-emailea; eta bestea, menpekotasun-egoeran dagoena alegia, hartzailea. Mailegutza ez da, hala ere, hizkuntz interferentziaren emaitza bakarra: kalkoak ere, lexikalak nahiz morfosintaktikoak, iturri berari sor zaizkio. Iturkideak izanik ere, ordea, oso tratu desberdina jaso ohi dute batak eta besteek hiztunaren aldetik: hitz mailegatuak, batez ere samaldan datozenean eta, hori asko ez dela, hiztunek hizkuntzaren etorkizuna hiltzeko arriskuan antzematen dutenean, begi txarrez ikusiak izan ohi dira; hizkuntza galbidean barrena doaneko seinale ezin argiagotzat hartu ohi dira. Kalko bidezko sorkariek aldiz, berekin ekar dezaketen pozoin-karga ohargarria izanik ere, ateak zabalikago aurkitzen dituzte normalean hizkuntza hartzaileko hiztun garbizaleen artean.

Mailegutzak ez du, halaz ere, lexikoaren eta semantikazko ezaugarrien sailean bakarrik eragiten: hitzak eta hitz-multzoak maileguz hartzean, hasieran guztiz oharkabean bada ere, geure hizkuntzaren sistema beste sistema baten araberako egitura fonologiko eta morfosintaktiko batez «kutsatzen» ari gara. Eta horrela, mailegu horiek direla medio, hizkuntzaren barne-erregelak aldatu beharrean gertatzen dira behin eta berriz.

Ez da hain harritzekoa, hortaz, lexiko-sorbide hau hizkuntzari gerorabideak segurtatu nahi lizkiokeen hainbat hiztunen buru-muinetan arrunt txartzat joa izatea. Ulergarria izateak ezin dezake ordea, besterik gabe, sorbide hori gaitzets eta zeharo albora: euskaltzalerik saiatuenak ere, behin eta berriz ikusi ohi denez, maileguzko hitzetara jo ohi du, ezinbestean, ez hizkuntzari buruz, hizkuntzaren bidez baizik, ezer adierazi nahi denean. Kontua ez da beraz, konta halako salbuespen batzutan izan ezik, *mailegutza bai* ala *mailegutza ez* artean garbitzekoa zenbatean, noiz eta nola zehaztekoa baizik. Eta nolakoa finkatzerakoan, jakina, maileguzko hitzen ebakera eta idazkera beste ororen gainetik kontuan hartzekoak dira. Euskararen kasuan, batez ere, premia horrek larritasun ezin biziagoa du.

b) Eratorpena, bere zentzu klasikoan eta ahalik era sinpleenean esateko, zera da: autonomia lexikal osoa duen erro edo oinarri lexikal bati posizio jakin batean autonomia lexikalik gabeko elementu bat(zu) eranstea. Are laburrago bilduz, hitz bati hizki bat (edo gehiago) eranstea.

Hizki horiek, euskararen kasuan, ia beti atzetik eransten zaizkie erroei: *atzizki* izenaz bataiatu ohi dira hitz-atalok. Atzizkidun hitz eratorriak dira horrela, adibidez, ondoko elementu lexikalok: luza*garri,* eder*tasun,* lotsa*ti,* modula*tzaile,* projekta*kor* eta transforma*ezin.*

Batzutan, bestalde, hizkia aurretik eransten zaio erroari edo oinarri lexikalari: *aurrizkia* dela esaten da halakoetan. Orduan, ondoko sekuentzi mota hau lortzen da: *des*agertu, *bir*loratu, *meta*hizkuntza, *mikro*egitura. Hizkia erroaren barnean txertatzen denean, azkenik, *artizki* izena eman ohi zaio. Gure hizkuntzari gagozkiolarik behialako-*ra-* morfema aipatu ohi da ia beti, eta kasik soilik, horrelakoetan: e-*ra*-gin, e-*ra*-man, e-*ra*-karri, e-*ra*-bili...

Euskara hizkuntza postdeterminatua denez, eta beraz preposiziorik ez duenez, normala da aurrizkitan hain motz aurkitzea. Hemen ez da, bestalde, zenbaitek aurrizkitzat jo ohi dituen *basa-, aurre-, goi-, sasi-,* moduko elementuez hitzegingo. Badirudi, eztabaida alferretan sartzeko asmo-izpirik gabe esanik, hitz-elkarketari buruzko azalpen monografiko batean leku aproposagoa luketela hitz edo hitz-atal horiek eta horien antzeko gainerakoek.

Eratorpenaz ematen diren azalpide aski desberdinen artean faktore bi dira, azken batean, garrantzi berezia dutenak: hizki bakoitzaren esanahi-eremua eta, batez ere, hizki horrek kategori aldatzaile gisa berekin daraman eginkizuna. Azken urteotako joera linguistikoek, beren batez-bestekoan, gogor goraipatu dute funtzio kategorizatzaile honen garrantzia eta, horren ondoriobidez, eratorpenak sintagmatika lexikalarekin dituztekeen harreman funtsezkoak biziki azpimarratu ere dituzte. Ikuspegi horretatik, hitz eratorria oinarriko esaldi-eskema baten azalgaineko ordaintzat hartzen den neurrian, oso garbi ageri da bestela ere ezaguna zen ezaugarri konkretu bat: hitz eratorriek leku gutxian, ekonomia sintag-

matiko handiz beraz, bestela azalpide aski luzeagoa behar zukeena emateko eskaintzen duten aukerabidea; eratorpenaren bidez, alegia, bestela «fenomeno honek *atzera itzultzeko duen gaitasunik ezak* asko kezkatzen nau» edo antzeko zerbait esan beharko litzatekeen lekuan «fenomeno honen *itzulezintasunak* asko kezkatzen nau» adierazpen biziki laburbilduagoa posibleztatzen duela. Ikuspegi «gramatikalista» honen beste ekarpen bat zera da itxuraz: erroa maileguzko hitza den kasuetan hizkien aplikatzearauak finkatzeko eskaintzen duen segurtasun handiagoa: halako batean horretara joko bagenu *disimulakor* ala *disimulakoi* behar lukeen, esate baterako, nekez erabaki ahal izango litzateke erizpide semantikoen laguntza soilaz.

Eratorpenak, izenburu orokor horren pean, aski fenomeno desberdinak bildu ohi ditu gehienetan elkarren ondoan: emankortasunari dagokionez, esate baterako, balegoke arrazoirik franko batetik *edertasun, erabilgarri, adierazkor* moduko eratorpen-forma biziak eta bestetik *dendari, erakutsi* edo *arramaiatz* moduko elkorrak elkarrengandik ongi bereizteko. Saioa ez litzateke gainera, inondik ere, hizkuntzezko jakituriaren luzimendurako bakarrik gertatuko: eratorpenak hizkuntzaren egitura morfologikoa birbaliotzen duen neurrian, eta hartarako edozein hiztuni gramatikazko «lege»en ezaguera morfologiko aberatsa eskatzen dion heinean, eratorpen-elementu emankorren (beraz sorketarako erabilgarrien) definizioak badu garrantzirik euskara-irakaskuntzarako eta beste zenbait laneremutarako.

c) →Konposizioa, hirugarrenik, honela definitu ohi da zenbaitetan: hizkuntzaren baitan autonomia osoa duten bi elementu lexikal elkartuz sortzen den esanahi-batasuna. Honekin ere nekez lortuko litzateke, dena dela, hizkuntzalari guztien gogoa asebetetzea: batzuk nahiago lukete batasun morfologikoaz hitzegitea eta, edozein kasutan ere, elementu morfematiko libre gisa funtziona dezaketen atal bi edo gehiagoz osaturiko multzo guztiak konposizioz sortuak diren ala hitz-andana ihartuei bestelako trataera ematea komeni denaz ere ez da oraindik, neurri ohargarri batean, eztabaidarik falta. Mugagabetasun horrek eraginik, hortaz, hemen ez da konposizio-mota desberdin guztien azalpen-biderik eskainiko. Ustez konposizio segurutzat eman daitezkeenak aipatzera joaz, hortaz, ondoko mota hauek adieraz daitezke gutxienez:

1. *menpekotasunezko izen-konposizioa:* gazta-fabrika, artzain-zakurra, gari-meta, diru-poltsa, behi-esnea, urre-mehatzea, ardo-botila, baratxuri-zopa, energi maila, zenbaki-sistema, eskolumea, ortografi araua... Menpekotasunezko →izen-konposizio hauek osatzen dute seguru asko, adibide-ugaritasunez eta baliabidearen beraren erabilgarritasun morfosintaktiko oparoagatik, konposizio-mota garrantzitsuena. Osagai biak →substantiboak dira de facto, *antzuola* modukoen esplikaziorako aldez aurretiko nominalizazio batez hitzegin beharra balegoke ere.

Horrela sorturiko eraikuntza sintagmatikoaren gunea bigarren osagaia da, hemen *mugakizun* izendatuko dena. Lehen osagaiak, bestetik, *mugatzaile* gisa funtzionatzen du.

2. *aditz-erroa* + *izena:* idazmakina, salneurria, ikasgela, etorbidea, ikusangelua, mintzapraktika.

3. *Konposizio sintetikoa:* H. Marchand-ek bederen erabili ohi duen zentzu zabalean, ondoko azpimultzo hauek bereiz daitezke gutxienez:

a) eragile-konposizio sintetikoak: itxuraz forma zaharrenak diren artzain, atezain, oilo-lapur, zamargin, okin, gaizkile, ongile, dirudun, euskaldun modukoez gainera, gaur egun erabiliagoak diren ardo-saltzaile, meza-ema(i)le, harri-jasotzaile, soinu-jotzaile, kilometro-kontagailu, negar-eragile, begi-mingarri erakoak sartzen dira hemen. Euskarazko bibliografian, halaz ere, lehen saileko -zain, -gin, -dun eta abarreko horiek eratorpenaren sailean sartzeko joera da nagusi, bigarren osagai horiek bere hartan autonomia lexikalik ez dutenaren aitzakian.

b) ekintza-konposizio sintetikoak: itxuraz forma zaharrenak diratekeen artajorra, diru-eskea, logalea, hazkur(e)a, uztarrigintza eta antzekoen ondoan gaur eguneko etxe-zuriketa, diru-bilketa, tenperatur gorapena, entropi gehikuntza, hitz-sariketa edo urre-bilaketa modukoak hemen.

Badirudi jatorriz konposizio sintetiko hauek gehienetan *«osagarri zuzen* + *aditz (-erro)»* sekuentzia sintagmatiko finkoaren nominalizazioaz sortuak direla (diru(a) bil(du) → diru-biltzaile, diru-bilketa; euskara (e)dun → euskaldun; ate(a) zain(du) → atezain...) eta, beraz, zenbait hizkuntzalarik agertu izan duenez, eratorpenaren sailean azaltzeko ez litzatekeela arrazoirik faltako. Ikuspegi sinkronikoak dena dela, diru-bildu, zamar-egin, urre-bilatu, soinu-jo, harri-jaso moduko eraikuntzek egungo euskal erabide morfosintaktikoetan normalean bizi-arnasarik ez dutenez (baina *on egin* bat, oraindik ere, erabat zilegi da), baliabide hau konposizioaren barrutian kokatzera bultzatzen du.

4. *Konposizio posesiboak* (Bahuvrîhi). Zenbaitetan, besterik gabe, konposatu exozentrikoak biltzen dira hemen: sudurluze, betoker, ipurterre... *Substantibo* + *adjektibo* sekuentziaz eratuak egon ohi dira, beren azaleko egiturari dagokionez, gehienetan: hankamotz, begiurdin, kopetilun, gibelurdin...; bigarren osagaia adjektibo baino areago partizipio deneko kasuak ere hor sartzekoak lirateke noski: zinegotzi...

Ez beti, ordea; zenbaitetan, esate baterako *zenbatzaile* + *izen* sekuentziaz eratuak ageri dira eraikuntzok: lauburu, hatzamar, hiru oin... edo-ta horien kideko hurbilak diren begibakar, esanahibikoitz moduko adierazpenak.

Badirudi, azken batez, konposizio-mota honen ezaugarririk nabarmenena, behin eta berriz «exozentrikotasun»az hitzegitera bultzatu izan duena, oinarriko esaldi-eskema ongi finkatuan eta, berriena ere izana

den horrako eskola horren hitzetan esateko, eskema horretatik azaleko egitura jakin horretara pasatzen duen transformazio-katean dagokeela. Horrela, esate baterako, «sudurluze, lauburu edo musuzikin» konposizioen pean «X-ek sudurra luzea du, X-ek lau buru d(it)u, X-ek musua zikina du edo dauka» esaldiak daudela aitortu ohi da ia ahobatez.

5. *Atributuzko konbinazioak.* Hor leudeke, batez ere, zerrama, soldadulaguna... modukoak eta, agian, baita arkumea, Urumea... tipokoak ere. Sail honen ezaugarririk nabarienak ondoko biok dateke: a) horrela sorturiko eraikuntzaren gunea ez da, menpekotasunezko izenkonposizioan bezala, bigarren osagaia, lehenengoa baizik: ardizakurra zalantza-izpirik gabe zakurra (eta ez ardia) den artean, zerrama zerria da batez ere; baina b) zerria izateaz gainera, ama ere bada: bigarren osagaia, kasu hauetan, oinarriko esaldi-eskeman lehen osagai horren →atributu gisa diharduen →substantibo bat da, azalgaineratzean →adjektibo baten gisan substantibo ondoko lekugunera bildua dagoena.

6. *Konposizio kopulatiboa.* Atal honetan ondoko azpimultzo hauek bildu ohi dira gutxienez.

a) aita-amak, seme-alabak, aitona-amonak, ogi-ardoak, on-gaitzak tipoa: osagai biak substantiboak (edo substantibaturiko adjektiboak) dira. Pluralezko erabilera bakarrik onartzen dute. Oinarriko esaldi-eskemaren arabera *eta* edo *ala* bidezko klausula konjuntziozkoetatik eratorriak dirudite gehienean.

b) joan-etorri, harreman (hartueman), salerosi (salerosketa) tipoa. Azaleko eraikuntza bederen nominalizaturik ageri da. Ez dauka, ordea, →numero aldetiko murriztapenik.

c) txuri-gorri, gazi-geza, hori-beltzak... modukoak. *Eta* edo *ala* bidezko klausula konjuntziozkoetatik eratorriak dirudite lehen motakoek bezala, baina ez daukate numero aldetiko murriztapenik. Osagai biek adjektibo gisa dihardute azaleko eraikuntzan ere →konposizioaz hitzegiterakoan gehienetan tipo hauek aipatzen badira ere, sailkapen xeheago batek ondoko beste elkarketa-mota hauei ere erantzun beharko lieke:

— sinetsgogor, janerraz...
— jaioberri, ezkonberri...
— Pello Errota, Martin Txilibitu, Marizikin, Peru Abarka...
— oinuts(ik)...

Eta, batez ere, auzigai handi bat dago, guzti honetan erabakizun: ea, alegia, sorreraz aski iturri diferentetik datozen hitz-andana ihartuak ere konposiziotzat hartu behar diren. *Hitz-andana ihartu* izendapenaz, konkretuki, zera adierazi nahi da: jatorriz sekuentzia sintagmatiko normalez osaturik zeuden hitz-multzoak, erabilmaiztasun handiagatik edo beste zenbait arrazoirengatik finkapen (edo-ta, inoiz, desbiderapen) semantiko

nabari bat, desgramatikalizazio edo monolexematizazio bat eta, ondoriobidez, azentuazio mailan ere askotan halako eraketa berezi bat ageri dutenak: neskazahar bat ez da, horrela, neska zahar bat, kanposantu bat besterik gabe kanpo santu bat ez den bezala eta, ur istilegietan sartzeko arriskuz izango bada ere, galeper bat nekez gari-epertzat (beraz epertzat) har daitekeenaren parean.

Oraingoz argibideak baino errazago galdekizunak eskain daitezkeen alor honetan badago, gainera, konposizio «jator»en eta hitz-andana ihartuon arteko erdibidean egotea gerta daitekeen hirugarren multzo bat ere: →aditz-konposizioaz ari naiz: onetsi, hitzegin, gurutz iltzatu, oinartu, galdegin, sinetsi...

Lehen begiratu batez guztiok hitz-andana ihartuen sailean sartu ahal izateko debeku larriegirik ikusten ez bada ere, eragozpen praktiko bat baino gehiago daude, xehetasunetara joan orduko, erantzun beterik ematea oso zailtzen dutenak.

d) Zabalkuntza semantikoaz, bestalde, zera adierazi nahi da: *segmentu fonologiko jakin baten baitan esanahi berri* bat agertzea. Esan gabe doa, beraz, lehendik ere segmentu horrek esanahiren bat bazuela. Demagun, adibide ezagun batzuez baliatzeko, hitz batek Azkue edo geroagoko hiztegi batean jakineko esanahi zehaztu bat duela eta euskaldunok orain ere, bere batezbestekoan, hitz horretaz baliatzerakoan han esandako esanahi harekin erabiltzen dugula. Esate baterako, ardatz hitza: (Azk) eje material, metálico de madera, destinado a... Gaur egun ezinbestekoa dugu ordea, gure hizkuntza egungo gizarte-beharrizan desberdinetarako egokitu nahi badugu, alde orotatik inguratzen gaituen mendebal-kulturak auzo-hizkuntza gehienetan ongi finkaturik dauzkan ejes de, coordenadas, eje de simetría, eje de rotación instantáneo... moduko adierazpenei euskal baliokideak uztartzea. Erdal «eje» guretzat berri horiek inoiz gutxitan badira ere metalez edo zurez egindako izaki materialak, bistan dago erosotasun handia damaigula euskaldunoi ardatz hitzaren ohizko esanahi-eremua zabaldu eta koordenatu-ardatzak, simetri ardatza, biraketa-ardatza moduko adierazpenez baliatzeak. Fenomeno horri esaten zaio beraz, azalpen honetan zabalkuntza semantikoa. Egungo bibliografia teknikoari axaleko gainbegiratu bat ematea aski da, nolanahi ere, zabalkuntza semantikoa egungo idazlegoaren artean noraino hedatua dagoen ohartzeko: *Wheatstone-ren zubia* eta «zubi egin»; *Concorde-aren isatsa; elektroi-talka* (choque de electrones); *eraztun trukakor* (anillo conmutativo); *erro kubikoa* eta *aditz-erroa; zuzen baten malda* (pendiente de una recta); mekanika sailеko *indarra* eta *lana; bizkarzaina* (guardaespaldas); *Gurutze Gorria; Pantera Beltzak; Kafe ebakia...*

Zabalkuntza semantikoak badauzka berekin, nolanahi ere ondo kontuan hartzea merezi duten abantailak.

Nagusiak, agian, ondoko hauek izango dira:

— erdal interferentzi erasoak eragindako korrontearen alde joan ohi denez, hiztun-multzo osoaren (edo-ta, gutxienez, kontzeptu hori erabili behar dutenen) aho-lumetaratzea beste bide gehienak baino errazagoa gertatu ohi da: analogiak eta kalko semantikoak eskaintzen duten *erraztasuna* dago hor tartean, hain zuzen, egindako aukera «logikoa» dela irudiarazten duena.
— ekonomia paradigmatikoa ekarri ohi du maiz, hartarako sintagmatikoa ahuldu gabe. Oroimen-gordailua arintzen du, alegia, aldi berean mihia bestela baino gehiago nekarazi gabe.
— hizkuntzaren «euskal fisonomia» zaintzen du, maileguzko hainbat elementu lexikalen itxura arrotzean erori gabe.

Baditu ordea, guzti horrekin ere, ahaztea komeni ez den zenbait kalte:

— kalkoaren ondorioz, hizkuntzaren ohizko kontzeptu-sarea bere nortasunean ahultzen eta gesaltzen ari da.
— polisemia areagotzen du, eta beraz beren esanahiz zabalduriko hitzen informazio-gaitasuna murrizten. Zientzi tekniketarako hiztegi berezituen sailean oztopo gogorra dakar horrek berekin, ezinbestean, haietan normalean hain beharrezkoa gertatu ohi den monosemikotasuna kontuan hartze bada.

e) Berrezarpen lexikala, egia esateko, gutxitan aipatu ohi da auzohizkuntza gehienen hitz-erabideak azaltzerakoan. Honek ez du esan nahi, halere, beraiek horrelakorik ez dutenik (gogoratu, esate baterako, gaztelaniazko azafata-ren nondik-norakoa edo-ta, arazo puntualetatik eremu zabalagoetara jauzi eginez, Pizkunde garaian eta harez gero, erromantzezko hizkuntza gehienek latin-kutsuko hainbat kultismorekin egina dutena).

Berrezarpen lexikala hemen zeri esaten zaion ikusteko adibideetara itzuliko gara berriro. Gauza aski ezaguna da, eta aski genuke horretarako Azkue bera eskuztatzea, euskal hiztegietan ageri ohi den hainbat hitz galtzear (edo galdurik) dagoela egunoroko praktika mintzatuan ikusteko. Ondoko bi faktoreok eman daitezke, batez ere, horren argigarri:

— hitz horiek adierazten zuten kontzeptu, tresna, lanbide edo funtzioaren gizarte mailako gainbehera.
— geografiaz eta/edo dinamika demografikoaz hitz horiek albo-euskalkietakoak izatea.

Egoera horrelakoa izanik, eta hizkuntzan etengabe agertzen diren kontzeptu berri edo berriztatuei izanaren ondotik (eta inoiz aurretik) izena ere eman beharra izaten duenez, posible izaten da zenbait kasutan euskaldun gehienentzat galdurik dagoen ondare lexikal hori berreskuratu eta, esanahi berritua adieraziz, kaleratzea.

Egungo euskal textu-liburuak ez dira, seguru asko, diogun baliabide honen frogalekurik eskasenak izango: oreka «equilibrio», garatu «desa-

rrollar», garden «transparente» hitzen eta beste hamaika halakoren testigantza aski ezaguna da, nolanahi ere, bere burua halako maila bateraino alfabetatua duten euskaldun askotxorentzat; zer esanik ez, gainera, euskarazko irakasmunduan dihardutenen kasuan.

Berrezarpen lexikalaren abantail ohargarrienak ondoko hauek dirateke:

— ohizko ondare lexikalaren belaunez belauneko transmisioa etendura gutxiagorekin burutzen lagun dezake, bestela segurutik galtzera zihoakeen hainbat elementu lexikal jator birbaliotuz.
— zabalkuntzaren kasuan bezala, lexikoaren euskal fisonomia bermatzen lagun dezake.

Oztopo edo kalteen artean, bestalde, hau izan dezake nabarmenena:

— gizarte-kostu handikoa gertatzea, jendeari inolako «arrazoi» ageririk gabeko erabilera-ohitura lexikalak buru-muineratzea eskatzen duen aldetik. Ezarpen-kanal indartsuak behar dira honelako baliabidez hitza indarrean berrezartzeko.

Hitza

1. →Linguistika tradizionalean, HITZA da →fonema batez edo bat baino gehiagoz osatua den hizkuntz elementu adierazgarri bat. Sekuentzia horrek idatzitako →transkripzio bat onartzen du (ideogramatikoa, silabikoa, edo alfabetikoa), bi hutsarteren artean emana; bere itxura osoki edo aldebatez (→flexioaren kasuan) atxikitzen du, bere erabilera sintagmatikoetan; hitzak objektu bat (→substantiboa), egintza edo egoera bat (→aditza), kualitate bat (→adjektiboa), erlazio bat (→preposizioa) denotatzen ditu.

Denak ez dira ados ikusmolde horrekin: a) grafismoa eta funtzionamendu semantikoa gauza bera direla aditzera ematen duelako; b) hitz batek, gehienetan, zentzu bat baino gehiago dituelako; c) nozio bera markatzen ahal bait da, gramatikalki desberdin diren hitzen bidez: Adibidez, «ederra» eta «edertasuna», «eroriko bat» eta «erortze».

2. Nozio hori ez bait da aski zehatza, linguistika estrukturalak *hitz* nozioa maiz baztertzen du.

a) Halere, hitza kontrajartzen zaio «terminoari». Terminoa esaten zaio zientzia berezi batean zehazki baliatzen den lexiko-unitate baten erabilera monosemikoari (→esanahi bakarra duenari), zientzia batek daukan izendegian korrespondentzia adierabakarra ezarri behar bait da →kontzeptuen eta terminoen artean. →Oposizio honetan, «hitza» esango zaio, hiztegi orokorreko lexiko-unitateari; hau esentzialki polisemikoa da.

b) Hitz nozioa *berba*-rekiko oposizioan ere aurkitzen da. Estatistika lexikalarentzat, hitza da bi hutsarte grafikoren artean idatzitako textu-unitatea. Agerpen berri bakoitza hitz berri bat da. Ikusmolde honetan, Corneille-ren «Le Cid»-ek baditu 16.990 hitz. Ch. Mullerren normak onartuz. Baina erabaki zehatzak hartu behar dira. Izan ere, dudarik gabe bi hitz dira ala hitz bakarra? Berdin, *obi ez bezalako* hiru hitz bezala kontatu behar dira?

Textu-unitatea den hitzaren parean, berba lexiko-unitatea izango da. «Hitz beraren» erabilera guztiak multzo batean sartuko dira. Horrela eginez, «Le Cid»-ek 1.518 berba ditu.

3. Beraz, *hitz* terminoa, zehaztasunik ez duenez, baztertu egiten da, eta gutxienezko esanahizko unitateak bilatzen dira. *A.* →*Martinet*-entzat, hitz nozioa, flexiozko hizkuntzetatik etorria, haietatik sortu bait da ikerketa gramatikazkoa, abandonatu egin behar da, →monema eta →sintagma nozioen abantailetan. E. Benveniste, B. Pottier eta L. Guilbert-ek diotenez, sinapsi, lexia eta esanahizko unitate deitutako entitateak kontutan hartzea ekarriko du lexikologi ikerketari dagokion mailaren bilakuntzak.

4. Gramatika →sortzaileak, lexikoari buruz egiturazko analisia aldebatez integratzen badu ere, →esakuneen interpretazio semantikoaz arduratzen da: inportantzia oso erlatiboa ematen die, beraz, ariketetan agertzen diren lexiko-unitateei.

X. Aramendi

Hitzen ordena

orden de las palabras / ordre des mots / word order

Katea mintzatuan eta bere lerrozko →irudikapen idatzian hitzak bata bestearen atzetik agertzen dira perpausean: ordena baten barruan azaltzen dira.

Ordena jakin bat ohizko izaten hasten denean edozein aldaketa balio adierazkorra izan dezakeen iraulketa bat bezala agertzen da.

Hizkuntza batetan hitzen ordenan nolabaiteko askatasuna dagoenean ordena gramatikalaz edo ordena kanonikoaz hitz egiten da hizkuntzaren erregela orokorrekin baterago datorrena definitzeko; ordena logikoaz pentsamenduaren iharduerarekin adosago datorrena aipatzeko; ordena psikologikoaz hiztunaren izpiritu-egoeran jatorria duenari erreferentzia egiteko.

Hizketa

A) Arruntki, hizketa hizkuntzarekin nahasten da. Hizketa «mintzatzeko ahalmen naturala» dela diote teoria inneistek. Horrela definituz, hizketa, jatea eta ibiltzea bezala, instintuzko eta sorkurazko egintza dela esan nahi da, giza-espezieari dagozkion oinarri biologiko batzuen gainean pausatuko litzatekeena.

Baina E. Sapir-ek dioen bezala, hizketa itxuraz ibiltzea bezain naturala bada ere gizonarentzat, bi gogoeta egiteko momentua aski zaigu gure buruaren konbentzitzeko ikuspuntu hori lilura bat baizik ez dela. Izan ere, era oso desberdinean ikasten da hizketan eta ibiltzen. Ibiltzea gizonari datxekion funtzio biologikoa da. Hizketa ez-instintuzko funtzioa da, funtzio bereganatua, kulturazkoa. Gizartea ken dezagun eta hala ere nola ibiltzen den jakiteko xantza guztiak badauzka gizonak; aldiz ez du sekulan hizketan ikasiko.

B) Linguistikan, hizketari toki berezia ematen dio F. de Saussure-k, mintzairatik bereziz eta hizkuntzari kontrajarriz.

1. *Hizketa-teoria F. de Saussureren baitan*

Mintzairatik abiaturik, «mintzairaren teoria egiten hasi orduko topatzen den lehen bidegurutzea» definitzen du →Saussure-k, esan nahi baita *hizkuntza/hizketa* berezketa. Harentzat, alabaina, «bi zati badauzka mintzairaren ikerketak: batak, funtsezkoak, funtsez soziala eta indibiduoarengandik independente den hizkuntzaren ikerketa du helburutzat; besteak —bigarren mailakoa hau— hizkuntzaren zati indibiduala du helburutzat, esan nahi baita hizketa, →fonetika barne: bigarren zati hau psikofisiologikoa da. Berezketa honek berezketa-sail bat dakar, De Saussure-ren ustez.

Kolektibitatean, eta kolektibitatea dela eta, ematen da hizkuntza. Mintzaira-ahalmenaren produktu soziala da, indibiduoen baitan ahalmen horren erabilera posible izan dadin gorputz sozialak onartzen dituen konbentzio beharrezkoen multzoa. Beraz, hizkuntza instituzio sozial espezifiko bat da. Nola indibidual dena sozial denetik berezten den, halaber hizkuntza hizketatik berezi egiten da. Hizketa «adimenezko eta borondatezko →egintza indibiduala» da. «Mintzairaren gauzatze konkretua ez da kontutan hartzen, zeren haren egiketa ez bait da masaren gauza; indibiduala da eta indibiduoa da beti haren jabe.»

Bigarren →oposizio batean, hizkuntza, «indibiduoak pasiboki barreneratzen duen produktua», eta hizketa, «adimenezko eta borondatezko egintza», egintza libre eta kreaziozkoa. Izan ere, hizkuntza ezin duela gizabanakoak «ez kreatu, ez aldatu» zehaztean, nabarmenago geratzen da, oposizioz, hizketaren izaera libre eta kreaziozkoa.

Hizkuntza →adierazpideen multzoa bada, hizkuntz →komunitate bereko indibiduo guztientzat →erkide den →kodea, hizketa, aitzitik, kodearen erabiltzeko molde pertsonala da.

2. *Elkarketa-harremanak eta harreman sintagmatikoak*

Elkarketa-harremanak (edo harreman paradigmatikoak), Saussure-ren arabera, sail mnemoniko birtual batetan *in absentia* terminoak batzen dituztenak dira. «Haien jarlekua garunean dago; indibiduo bakoitzaren baitan hizkuntza osatzen duen barne-altxor horren parte bat dira». Ardatz honen gainean hautatzen da, gogoan gordeta eta edozein erlazioz elkartuta dauden terminoen artean, ardatz sintagmatikoaren gainean gauzatu eta →sintagma bat eratzeko ardatz honen gainean beste elementu batzuekin konbinatuko den termino bat.

Arazoa, beraz, sintagma hizkuntzaren eremuan ala hizketarenean sartzen den jakitea da, zein neurritan diren libre sintagmak oro, hizketaren berezitasuna konbinazioen askatasunean egongo litzatekeelarik. F. de Saussure-ren ustez, sintagmei dagokionez, adierazpide-multzo haundi bat hizkuntzari dagokio, hain zuzen, erabileraren indarrez aldaezinak diren lokuzioak: *pikutara joan, begietan izan, badoakio zerriari petenta,* etab., ezin inprobisatuak diren eta tradizioak ematen dituen esaerak. Era berean, hizkuntzaren →eremuan sartzen ditu Saussure-k forma →erregularren bidez eraikitako sintagmamota guztiak, hauek ez bait dira ematen «hizkuntzak ez badu horien erakuskari aski ugari bildu». Hala ere, «sintagmari dagokionez, erabilera kolektiboaren ezaugarri den hizkuntzazko gertaeraren eta

askatasun indibidualari dagokion hizketazko gertaeraren arteko muga zehatzik ez dagoela onartu behar da».

Perpausa bera erabilera kolektibo honetatik kanpo geratzen da eta hizketari dagokio.

a) *Mintzairaren kreaziozko aldea hizketazko gertaera da*

Hizkuntza funtzionamendu-→erregela eta →zeinuen barrutia da, hizketa askatasunaren eta fantasiaren eremua den bitartean; hemen ez dago erregelarik, eta hemen bakarrik eman daiteke kreaziorik.

b) *Hizketazko egintzaren mekanismo psikofisiologikoa*

Egintza honek bi indibiduo bederen behar du: eman dezagun A eta B direla. Hona Saussure-k komunikatzeko →egintza honetan deskribatzen duen zirkuitua. Abiapuntua A pertsonaren garunean datza, non elkarturik bait daude kontzientzi datuak (→kontzeptuak) eta hauen adierazpenerako erabiltzen diren hizkuntz →zeinuen nahiz irudi akustikoen →irudikapenak. Kontzeptu batek berari dagokion irudi akustikoa askatzen duenean, fenomeno psikiko baten aurrean gaude. Ondotik dator fenomeno fisiologiko bat: irudiari dagokion bulkada bat helerazten die garunak ahoskuntz organoei. Gero, prozesu fisiko bat dator: A-ren ahotik B-ren belarrietara hedatzen dira →soinu-uhinak, aireak →komunikazio-→kanalearen papera jokatzen duelarik. Jarraian, zirkuitu hori B-ren baitan luzatzen da baina binperrez: belarritik garunera, irudi akustikoaren helerazpen fisiologikoa; garunean, →elkargo psikikoa gertatzen da irudiaren eta honi dagokion kontzeptuaren artean. B ere mintzatzen baldin bada, hizketa-egintza berriak lehenaren bide bera egingo du.

3. *Hizketaren organoak*

a) *Hizketa, fenomeno fonetikoa*

Fenomeno fisiko eta konkretua da hizketa, nahiz zuzenean giza belarriari esker, nahiz zientzia fisikoetan erabiltzen diren metodo eta tresnei esker azter daitekeena. Hizketa-egintzak hiru fase dauzka fisikoki: a) soinu-katearen produkzioa (artikulazioa eta →ahoskuntza) hizketaren organoen bidez; b) →mezuaren transmisioa soinu-uhin bati esker; dardarazko fenomenoen egitura fisikoa eta hizketaren →akustika hartzen ditu fase honek; c) giza belarri batek soinu-uhin hori hartzea; soinu-katearen hautematea hartzen du fase honek, hau da, haren interpretazioa, balio berezgarria duten elementusail bezala.

b) *→Ahots-aparatua eta mintzaira-soinuen produkzioa*

Hizketaren organoak aztertu behar dira. E. Sapir-ek seinalatzen duenez, soinuen produkzio mailan bertan ere, mintzaira ez da funtzio biologiko hutsa, zeren eta beharrezkoa izan bait da laringearen aktibitatearen mekanismo primarioak erabat aldatzea, →aho-sabaiaren, ezpainen, mihiaren jokoak ezarritako aldakuntzen eraginez, azkenean «hizketaren organo» bat sortzeko.

Zehaztasunez hitzegiteko, eransten du Sapir-ek, ez dago hizketaren organorik; ustekabean mintzaira-soinuak produzitzeko baliagarri diren organoak daude; birikak, laringea, aho-sabaia, sudurra, ezpaina, hortzak eta ezpainak hizketarako erabiltzen dira, baina ez dira hizketaren esentziazko organotzat hartu behar; hizketa ez bait da funtzio horri adaptatuak diren organo biologiko batzuek produzitzen duten aktibitate soila; garunaren, nerbio-sistemaren eta entzumen- eta artikulazio-organoen adaptazioen sare korapilatsu eta beti aldakorra da hizketa. Nahi duena lortzen du honek, egitez funtzio oso bestelakoetarako sortu ziren organo eta funtzioetatik.

4. *Hizkuntza eta hizketa kontzeptuen birfomulaketa*

N. →Chomsky-k zalantzan jartzen ditu →Saussure-ren teoriaren alderdi asko, hizkuntzaren eta oroimenaren artean Saussure-k ezartzen duen elkargoa bereziki. Hortik, Saussure-k hizkuntza eta hizketa kontzeptuei buruz emandako definizioak birfomulatu beharra; eta batez ere per-

pausaren, Saussure-ren arabera hizketaren →esparruari dagokionaren, arazoa berraztertzen du. Chomsky-rentzat, perpausa teoriaren lehenbiziko elementu bilakatzen da; sekulan topatu ez dituen perpausak ulertzeko eta produzitzeko mintzatzaileak duen ahalmenaren berri ematea da Chomsky-ren xedea. Kreamen linguistiko hau oroz gainetik →gaitasun edo konpetentziaren alorrari dagokio, gaitasuna «seinaleak eta hauen interpretazio semantikoa elkarlotzen dituen →erregela-→sistema» bezala definitzen delarik. Hizkuntza kontzeptua, Saussure-k «→zeinu-→sistema» bezala definitua, birformulatu egiten du Chosmky-k, horren ordez «erregela-sistema» bezala definitzen duen gaitasun kontzeptua sartuz; hemendik goiti, «erregela-sistemari» dagokio perpausa, norberaren fantasiaren alorra saihestuz. Gaitasun mailan, Chomsky-k kreamena azpimarratzen du, Saussure-k hizkuntzaren sistematik aparte uzten zuena. Alabainan, bi kreamen-mota berezten ditu Chomsky-k; gaitasunari dagokionez, erregelek gobernatzen duten kreamena dugu, erregelen ahalmen →errekurtsiboan datzana. Hizketa kontzeptuari dagokionez, birformulatu egiten du Chomsky-k →performantzia edo ariketa nozioaren bidez, ariketa delarik mintzatzaileak erregelak erabiltzeko duen moldea. Orduan, faktore batzu jokoan sartzen dira: arreta, oroimena, etab. Saussure-ren baitan hizkuntzaren zeinuak metatzeko elementu nagusietarik bat zen oroimena chomskyar →performantziaren funtzionamendu-faktoreetarik bat bilakatzen da. Azkenik, Chosmky-rentzat, Saussure-rentzat bezala —honek hizketa mailan jartzen zuen mintzairaren alde kreatzailea—, badago kreamenik ariketa mailan; baina hau, Chomsky-rentzat, bigarren kreamen-mota bat da, era askotako →desbiderapen indibidualetan datzana. Desbiderapen haueta-rik batzuk, elkarren gain metatuz, sistema aldatuz bukatzen dute.

Ch. Videgain

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Hizkia

Sin.: AFIXUA

Independentea ez den eta hitzaren →erroarekin batera →hitza bera osatzeko laguntzen duen elementua edo →morfema hizkitzat jo ohi da. Morfema hauek bi motatakoak dira, →flexiozkoak eta eratorleak. Lehenengoen bidez hitzaren →funtzio sintaktikoa adierazten da:

gizon*ak* andr*ea* ekar*tzen* du.

→Eratorpen-hizkiak, berriz, hitz eratorriak sortzeko balio dutenak dira, honako kasuetan bezala:

aurre*lari,* irakaskun*tza* edo *ber*pizkun*de.*

Hizkiak hiru multzotan banatzen dira: →aurrizkiak, →artizkiak eta →atzizkiak.

Lehenengoak erroaren aurrean eransten direnak dira:

*ber*resan, *Arra*maiatza (Zuberoan Ekaina esateko)

*arra*saldu (berriro saldu edo *ber*saldu)

euskaraz oso urri dira, eta horregatik hizkuntza zientifikoaren beharraz (aurrizkitan oso aberats diren hizkuntza indoeuroparretatik heldua), aurrizki zenbait sortu egin da aspalditxo honetan, hala nola:

aurre- : aurreritzi
azpi- : azpiegitura etab.

Artizkia, terminoak berak adierazten duen bezala, beste elementu biren artean ezartzen den hizkia da:

dut — d*it*ut, diot — diz*ki*ot,

adizkietan izan ezik ez dira euskaraz askotan agertzen.

Atzizkiak, azkenez, atzean eransten diren morfemak dira:

gizona*rekin,* eri*tegi,* igo*gailu* etab.

Euskara hizkuntza postposizionala denez, euskal hizki gehienak atzizkiak dira.

Gramatika →sortzailean hizkiak, →morfema lexikalekin elkartzen diren morfema gramatikalak dira.

Tradizionalki atzizki diren flexio-hizkiei →desinentzia eritzi zaie, esate baterako:

sprecht alemanieraz *(ihr sprecht:* zuek hitz egiten duzue)

bi elementuz dago osatua, *sprech* erroaz eta *-t* pluralezko bigarren pertsonaren (hikan) desinentziaz edo flexio-atzizkiaz.

A. Eguzkitza

Hizkizkoa, transformazio-

afijal / affixal / affixing (transformation)
Sin.: AFIXUZKOA

Gramatika →sortzailearen arabera, Hi (→hizkia) eta A (→aditza) →sinboloen segidak trukatzen dituen →transformazioari, *hizkizko transformazioa* deritza: Hi + A → A + Hi →trukaketa egiten duenari, alegia.

Hizkuntzak

lenguas / langues / languages

Zenbat hizkuntza dago munduan? Galdera honi ezin erantzuteak berak adierazten du ongienik hizkuntzari dagokion muga jartzea oso zaila dela. Non bukatzen da *hizkuntza?* Non →*dialektoa* hasten?

(Ikus «Hizkuntz Familiak» artikulua.)

Hona hemen, hiztunen kopuruari dagokionez, eman daitekeen sailkapena:

1.	txinera (mandarin) ...	500.000.000
2.	ingelesa	270.000.000
3.	espainiera	160.000.000
4.	errusiera	130.000.000
5.	hindiera	105.000.000
6.	japoniera	100.000.000
7.	bengaliera	98.000.000
8.	arabiera	96.000.000
9.	portugesa	94.000.000
10.	alemaniera	90.000.000

Zientzi eta literatur emaitzen arabera sailkatzen badira, urrundik agertzen da gailen ingelesa; ondotik errusiera, japoniera eta alemaniera darraizkiolarik.

Hizkuntz familiak

Hizkuntza batzutan agertzen diren antz eta kidetasun morfosintaktikoak azaltzeko, guztiak aintzinako enbor edo →erro frogatu beretik datozela diogunean, hizkuntza horiek, horregatik, familia berekoak direla esan dezakegu. Hizkuntz familiak, beraz, nola edo halako erkidetasun genealogikoa adierazten du, etorkizkoa, guztiak, azken buruan, lehenagoko hizkuntza ama bakarrarengandiko →dialekto kumeak direlarik.

Familia hauek oso zabalak izan daitezke (indoeuropar familia, semitikoa, fino-ugroa...) edo-ta berauen adar berezi bati lotuak (germaniar hizkuntzen familia, eslabiar familia...). Hitz hau, beraz, aski zabala da eta askotan *talde* (grupo, groupe) hitzaren adikidea izaten da, nahiz eta *talde,* familia ez bezala, geografi gune batetan elkarren ondoan, jatorri berbera eduki ez arren, bizi diren hizkuntzak adierazteko egokiago izan: Kaukasiako hizkuntz taldea, Amerindiar taldea...

MUNDUKO HIZKUNTZ FAMILIA EZAGUNENAK

1.	Indoeuroparra	
2.	Uralikoa	samoiedikoak fino-ugroak: suomiera, estoniera, laponiera, hungariera
3.	Altaikoa	turkiera, tartarierak, mongoliera eta tungisikoak
4.	Kamitiko-semitikoak	semitikoak: arabiera, hebraiera, aramaiera... kamitikoak
5.	Sudango hizkuntzak	
6.	Bantu hizkuntzak	
7.	Hotentoteen hizkuntzak	
8.	Paleo-siberiarrak (1)	jukagiriskoak, txuktxu-kamtxadkakoak, ainu...

(1) Sailkapen hau ez da genetikoa, geografikoa baizik.

9. Japoniera
10. Txino-indiarrak ... ... — siamo-txinarrak: Txinakoak, Vietnamiera... / tibeto-birmanierak
11. Dravidikoak
12. Andamanesikoa
13. Austro-asiarrak ... ... — malaisiarrak / munda
14. Australiakoak
15. Koreakoa
16. Malasia-Polinesiakoak
17. Kaukasiakoak (1) ... ... — Kartvelikoak: georgiera, megreliera, svaniera... / Ipar Mendebaldekoak: abjhaz, Adygei, kabardiera, ub. / Ipar erdialdekoak: txetxen, ingux, bats / Ipar Ekialdekoak: avar, dido, andi, kaputxa...
18. Euskara
19. Eskimalen hizkuntzak eta aleutikoak
20. Amerindiarrak (1) ... ... — hogei bat familia guztira: algonkindarrak, irokesak, siuxak, uto-aztekak, maia, Karibekoak, tupi-guaraniera, ketxua, araukera, arovakikoak...

INDOEUROPAR HIZKUNTZEN ESKEMA

1. Indo-iraniarrak
   - indiera — bere aintzinako forma ezagunekin: *veda* eta *sanskritoa*
   - iraniarrak — Ekialdekoak: afganiera eta Pamirko hizkuntzak / Mendebaldekoak: pertsiera eta kurduera
2. Armeniera
3. Albaniera
4. Balto-eslaviarrak
   - baltikoak: lituaniera, letoniera
   - eslaviarrak: errusiera, bulgariera, servo-kroata, esloveniera, txekiera, eslovakiera, poloniera, ukraniera...

(1) Sailkapen hau ez da genetikoa, geografikoa baizik.

5. Germaniarrak
   - Iparrekoak: daniera, norgegiera, suediera, ferotera, islandiera...
   - Mendebaldekoak: ingelesa, frisoiera, nederlandera, alemaniera (garaia eta beherea)
   - Ekialdekoak: gotikoa eta burgundiera (hilak)
6. Zeltikoak: bretoinera, irlandera, kimriera, eskoziera...
7. Italikoak: osko-umbriera (hila)
   latina eta beronetatik sortuak: galaiko-portugesa, espainiera, katalana, probentzala, frantsesa, erretorromaniera, italiera, sardua, errumaniera, dalmaziera (hila)...
8. Grekoa
9. Hittita (hila)
10. Tokarioa (hila).

X. Kintana

Hizkuntz geografia

Erramun Baxok

Mundu zabalean bizpahiru mila hizkuntza erabiltzen dira. Hizkuntza bakoitzak badauka zenbait →dialekto eta azpidialekto.

Linguistika geografikoak tokika aztertzen ditu hizkuntz eta dialekto-alderdiak, non nola mintzatzen diren erakutsiz →soinuen, →hitzen, eta →morfosintaxien moldeak agertzen dira mapa edo monografietan. *Hizkuntz geografia* (edo geolinguistika), eta →*dialektologia,* berezten ahal ditugu hizkuntz geografiaren bi zati gisa.

Topolinguistika, aldiz, geografiaren linguistika da; toki-izenen jatorriak eta →esanahiak ikertzen dituena: herriena edo *antroponimia,* jendeena edo *onomastika,* mendiena edo *oronimia,* urena edo *hidronimia,* lekuena edo *toponimia.*

Berezten baditugu geografia naturala, eta giza-geografia, naturaren eta kulturaren arteko lokunea, *«ekolinguistika»* deitzen ahal dugu, Dendaletche-ren ondotik. Aldiz, bizimoldearen eta mintzamoldearen arteko harat-hunatak, *«etnolinguistikak»* ikertzen ditu. Ikus ditzagun zientzia horien edukinak; eta lehenik, hizkuntzaren eta dialektoaren arteko desberdintasuna.

I. HIZKUNTZAK ETA DIALEKTOAK

A) EREMUAK MUGATZEN

Hitz asko erabiltzen da mintzamoldeak zehazteko: mintzaira (langage), hizkuntza (langue), dialektoa, →koinea, hizkera (langue véhiculaire), →kreolera, →idiolektoa; bakoitza bere esanahiarekin.

Hizkuntza, →linguistikaren mailan, mintzo-sistema berezia da, →soinuak, hitzak eta perpausak elkarlotzen dituena, →fonema eta morfosintaxi-egitura batetan.

— Soziologi mailan aldiz, beste →adiera bat hartzen du hizkuntzak: hizkuntza mintzaira osatua da, komunikabide garrantzitsuetan herri batek

darabilena ikastetxeetan irakatsia, akademiek eta beste kultur taldeek landua.

Dialektologi mailan, hizkuntzak baditu bi berezitasun:

1. Mintzaira landua, standardizatua eta normalizatua da hizkuntza, bere hiztegi eta gramatika arautzaileekin, literaturak eta idazlan zientifikoek dute hizkuntza hori osoki finkatzen eta goratzen; beste mintzabideak, dialektoak eta kreolerak, erdara gisa arbuiatuz: kultur mintzaira dugu hizkuntza; eta dialektoak, berriz, etxeko mintzamoldeak. Ihardesten ahal da badirela kultura ederreko dialektoak, idatziak ez izanik ere.

2. Hizkuntzen arteko ulertezina izaten da maizenik onartzen den berezgarria.

→Fonologia, lexikoa, eta morfosintaxiaren aldetiko desberdintasunak hain dira sakonak, non «A» hizkuntza bakarrik dakiena, «B» hizkuntza ezin ulertu bait du; gauza berek izen edo molde desberdinak dituztelako. Adibidez, gazt. «coche, carretera, autopista», fran. «auto, route, autoroute», eusk. «berebil, bide, autobide». Babel fenomeno honek kultur muga trinkoak eraikitzen ditu, alderdi bateko jakintsuak beste alderdian ezezagunak balira bezala.

Hizkuntza baten alorra zatikatzen duten desberdintasun txikiek, bai →hitzen edo perpausen egituraren aldetik, dialektoak osatzen dituzte. Herrialdeetako mintzamoldeak dira. Baina, hizkuntza bereko dialektoek berdintasun aski badute elkar ulertzeko: gauzek izen beretsuak dituzte, eta →morfemek ere elkarren iduri zerbait. Adibidez, euskalkietan: «euskara, euskera, eskuara, uskara»; «ongi, ondo, untsa»; «gira, gera, gara». Hizkuntza beraren dialektoen artean, auzoek elkar ulertzen dute; baina ez katearen bi buruetakoek. Baxenabartarrak errazki mintzatzen dira zuberotarrekin, baina zailki bizkaitarrekin.

B) DIALEKTOEN ALORRAK

Hizkuntza bat erabiltzeko moldeak desberdintzen direlarik, dialektoak agertzen dira, aldaketa-mota asko ikusten da: soinuen, hitzen, esanahien edo gramatika-moldeen aldetik.

1. Fonetika-desberdintasunak: →kontsonanteak eta →bokalak aldatu egiten dira toki batetik bestera. Zuberotarrek [ü] ahoskatzen dute «u» ren ordez, eta Garaztarrek kontsonante asko bustitzen dute mintzamolde bihozkorrean: z → x, t → tt, d → dd... Euskalkietan hiru «r» mota aditzen dira: mihi puntakoa, mingainekoa eta gingilekoa. Eta beste hainbeste «i» mota: «i» bezala, «dd» bustia, edo jota, gaztelaniatik hartua.

2. Onomasiologi desberdintasunak: dialektoen artean gauza, egintza edo kontzeptu bera, →izen, →aditz eta hitz desberdinez esaten ahal

dira. Anitz hitz badago euskalkietan tximeleta, artzain-etxola, zizare edo laborantza-tresnak izendatzeko. Aillères-en euskal mapak, onomasiologikoak dira.

3. Semasiologi desberdinasunak: hitz berak esanahi desberdinak izan ditzake dialektoen arabera, Azkue-ren «Diccionario»-ak agertzen duen bezala. Ikus «alde, are, aro» eta abar. Mapa semasiologikoek hitz beraren esanahi desberdinen guneak ematen dituzte.

4. Morfosintaxi-desberdintasunak: izenen deklinabideak, →aditzjokoak, edo-ta perpausen egiturak aldatzen dira doi bat dialekto batetik bestera: «gara, gare, gera, gira», «dener, denei, deneri».

Toki berean aldaketa-andana bera agertzen delarik, dialekto berezi bat dela esaten da.

C) DIALEKTOEN JATORRIA

Dialektoen berezkotasuna nondik heldu den jakiteko gaurko dialektoen azterketa ez da aski, baina historia behar da ikertu. F. de Saussure-k dioena: «→sinkronia ez da ulertzen ahal, →diakroniarekin baizik». Mendeetan zehar, lur-zerrendak bezala antolatu dira zatika itsas-ezpondetako hizkuntzak. →Azpiestratua lehenengo mintzamoldea da. Gaur ez da ageri, zenbait hitz edo soinuetan izan ezik. Gero atzetik etorritako hizkuntza bat nagusitu bada, lehenengo mintzamoldea suntsitu gabe, →gainestratuan utzi ditu bere ondorioak. Bazterretako hizkuntzek ere, hitz berriak ekarri dituzte; eta mintzamolde zaharrari buruz, →adstratuan daude.

Euskalkien azpiestratuan Kaukaso aldetik etorritako euskara zaharra bide dago, Lafon eta Dumezil-en arabera. Bestalde, ohargarria da gaurko euskalkiek lehengo leinuen muga berak dituztela: gipuzkera, Barduliarren herrialdean dago, Oiartzundik Debaraino; bizkaiera, Karistioen herrialdean, Debatik Nerbioiraino; eta nafarrera, Baskoinen herrialdean.

Euskal gainestratua latinetik etorri diren hitzez betea da gehienik, Erromatarrak Europa guztian nagusi izan zirelako. Baina euskalkiak erromantze desberdinekin ari izan dira harremanetan. Nafarrerak aragoeratik hartu du zenbait hitz eta Nafarroako erromantzetik; zubererak, Kaskoinetik; biarnesetik xuxenki.

Euskararen adstratua gaurko hizkuntzen ondorioa da. Ipar euskalkiek frantsesetik hartzen dituzte hitz modernoak; eta hegoaldekoek, espainieratik. Ingelesetik eta grekotik moldatutako hitz berriak ahantzi gabe. Adibidez azenario edo karrota, fifteka eta telefonoa.

D) DIALEKTOEN HEDADURA

Teoria zenbaitek argitu nahi du dialektoak nola zabaldu diren.

1.—«Wellentheorie»

Edo uhinen teoria: dialektoak hizkuntzetatik zuhaitzetan adarrak enborretik sortzen diren bezala ateratzen direla uste zuen Schleicher hizkuntzalariak. Genealogi iduriaren ordez, aldiz, J. Schmidt-ek fisikaren iduria ematen digu: mintza-molde berriak herri baten erdialdean agertzen dira, eta gero inguruan barrena hedatzen dira ur-izurdurak bezala. Hedatu ala, uhinak ahuldu; eta, era berean berrikuntzak ere suntsitu egiten dira sorlekutik urrundu ala. Frantziako mintzamoldeen mapari so eginez, frantsesa Parisen, azkar dagoela ikusten dugu, eta hiriaren ondoan dauden «oil» dialektoak ahulduz doazela. Urrunago frantsesa doi bat ahultzen da, eta beste «oil» dialektoak Normandian, Pikardian eta Wallonian, azkartzen eta berdin «ol» dialektoak, Gaskoinian eta hegoaldeko Okzitanian barrena. Arrunt bazterrean gorde dira hizkuntza desberdinak: euskara, katalana, korsikera, alsaziera, flandrera, bretoinera. Erdiko dialektoa ahulduz doa bazterraldera eta irakaspideak eta komunikabideak bere alde izan ez balitu, ez zen besteak suntsitu arte azkartuko (ik 7. irudia).




7. Ird. Frantziako dialektoak.

2.—Linguistika espaziala

Matteo Bartoli, Giulio Bertoni eta beste Italiako neolinguista zenbaitek ikertu dituzte hizkuntz alorrak, erdialdea eta bazterraldeak bereziz.

Mintzamolde berriak alorraren erdian sortzen dira, eta bazterretan molde zaharrak, uzten. Azterketa horrek dialektoen →azpiestratuak agertu ditu. Bazterrean hizkuntza desberdinek elkar ukitzen dutelako, linguistika-eskualde handiagoak aztertuz, hizkuntzen arteko harremanak ikus daitezke. Espainian, X. eta XII. mendeen artean, Burgosko gaztelaniak errekonkistaren garaian mozarabera hegoaldera haitzatu zuen; katalana eta galiziera (portugesa) ere aurreratu dira; baina erresumaren bazterretan geldituz. Gaur egun berrikuntzak espainieran agertzen dira beste hizkuntzetan baino ardurago.

Euskal Herrian ere dialektoen aldaketarik handienak erdialdean gertatzen dira, eta →arkaismoak ingurutan gordetzen luzaroenik. Gipuzkera eta nafar-lapurtera euskalkietatik aintzinatuenak dira. Zuberoan eta Bizkaian daude, aldiz, fonetika eta aditz-jokorik zaharrenak.
(Ik. 8. irudia)



8. Ird. X. eta XIV. mendeetan Iberiar penintsulan agertzen den hizkuntz egoera.

3.—Morf, Frings, Lindgvist

Non dira hizkuntz *alorren erdialdeak?* Predikuen bitartez apezpikutegiek dialektoak moldatzen zituztela erakutsi du H. Morf-ek. Frantziako dialektoen mugak elizbarruti zaharretakoak dira. T. Frings-ek gauza bera frogatu du Renanian. Suedian, aldiz, parrokiek mugatzen zituzten mintzamoldeak.

Natan Lindgvist-ek dioenez, kaminoetatik eta trenbideetatik erortzen dira salerospen eta lantegi hirietara. Bigarren sailean, moda berriak hedatzen ditu inguruko herrialdetara. Linguistika-mapetan ongi ageri dira hitz berrien edo hots-→aldaketen ibilbideak, ibaietan eta bide haundietan barrena.

E) DIALEKTOEN DINAMIKA

Bi mugimendu, dialektoen desberdinketa batetik; eta hizkuntzen bakuntza, bestetik, adierazten dizkigu mintzamoldeen diakroniak.

1. Dialektoak *nola berezten dira?* «Erdi eta inguru» teoriek ulertarazten digute berezkunza hori. Komunikabideak zuhur zirelarik eta harremanak bakan, jendeak herrialdeetan egoten ziren, bakardadean, herriak herrietatik berex, eta hiriak hirietatik. Baina hirietan batez ere aldatzen da kultura, ohitura berriak agertzen direlarik, kanpotarrak etortzen eta bizimolde berriak antolatzen. Aldiz, baserriak urrunago daude aldaketa horietatik. Mintzamoldea aldatu egiten da hirietan, herrialdeetan berriz, dialekto zaharrak atxikitzen. Emeki emeki dialektoak elkarrengandik urruntzen dira, azkenean elkar ezin ulerturainokoan. VIII. mendean Espainiako, Italiako eta Frantziako mintzairak elkarrengandik hurbil zeuden, latinaren ondo-ondoan. XVI. mendean elkarrengandik bereziak zeuden aski, latina sobera klasikoa gelditu bait zen denboran barrena. Gaur egun hizkuntza horiek beren dialektoak badituzte. Mintzaira-alor handi batzu sailkatzen dituzte familia bereko hizkuntza eta dialektoak: Romania, Zeltia, Anglia, Teutonia, eta beste.

2. Hizkuntzak nola batzen dira? Komunikabideak azkartzearekin, salerospen eta harremanendako berdindu behar ukan dute hizkuntzek. Dialekto berezien artean anitzek ulertzen dituen mintzaira moldatu dira han-hemen ibiltzeko.

Bakuntza hori lau eraz egiten ahal da:

a) «Hizkera» xinplea, salerospenetan hizkuntza desberdinetako jende askok erabiltzeko modukoa: Afrikan, diula.

b) →Sabirra bi hizkuntzen nahasmena da. Bakoitza bere mintzairan hasten da, eta besteak ulertzen ez duenean, beste hizkera horretan bukatzen du. Dialekto bilakatzen den Sabirra, →Kreolera deitzen da. Adibidez, Haiti-ko Kreolera.

c) Hizkuntza artifiziala: jakintsuek moldatzen dute beren ikerketa eta idazlanetan behar duten hizkuntza, gauza berrien agertzeko eta elkarren artean ulertzeko: matematika edo meteorologiako sinboloak, informatika-kodea, euskara batua.
d) Koinea: dialekto bat beste dialektoei nagusitzen zaie politika, ekonomia edo kultur indarra alde duelakoan. «Hizkuntza, dio Garaudy-k, harmada eta itsas-ontziak dituen dialekto bat da». Adibidez, frantsesaren, espainieraren edo ingelesaren kondaira.

II. LINGUISTIKA-MAPAK

A) MAPEN HASTAPENAK

Dialektoen ikerketa orokor bat egiteko XIX. mendeko filologo batek hau esaten zuen: «behar litzatekeela egin ikerbide bana herri bakoitzean eta hitz bakoitzarentzat eta dialektook diren bezala ikusiz tokian berean, natur-zientzien ikerbide hertsien arabera (G. Paris). Georg Wenter-ek Alemanian, eta Jules Gilliéron-ek Frantzian, asmatu zuten hizkuntz alor baten barnean diren desberdintasunak mapa baten barnean zerrenda ezartzea. Ikerbidea hau zen: hitz eta perpaus-zerrenda bera, ikertoki askotan itzuli behar zen, tokiko dialektoan. Galdegile bera zebilen herriz herri, hitzen lehenengo itzulpena idatziz, eta ihardesle bakar batengandik. Emaitza guztiak bilduz, →isoglosak eta polimorfismoak agertzen ziren.

Isoglosa hitz-muga da; eta marra batez linguistika-gertakari baten alorra mugatzen du. Adibidez zein herritan artzainaren etxeak izena duen «etxola» «txabola» edo «kaiolarra». Isoglosa-marrek agerrerazten dituzte gauza beraren izen desberdinak (polimorfismoak) edo izen beraren adierazkizun desberdinak, fonetika- eta morfosintaxi-desberdintasunak. Izenen, aditzen, hotsen eta soinuen mapak bat bestearen gainean ezarriz azaltzen dira isoglosa-sortak (faisceau d'isoglosses). Hauetxek mugatzen dituzte.

Ohargarri da hizkuntz alorrek muga garbiak dituztela: frantsesaren eta espainieraren artean, →lexemak eta →morfemak ez dira nahasten ahal, bi mintzairak latinetik etorririk ere. Dialektoen mugak aldiz, etengabeak dira: hizkuntza beraren azpisistemak elkarri eragiten diote: «ü» zuberotarra Amikuze iparralderat zabaltzen da; «on» eta «hun» alorren artean «hon» erabiltzen da. Isoglosa-mapek mintzamoldeak zehazten dituzte. Baina hizkuntz alorrak dialektoez zatikatzeko linguistak sintesi bat egingo du erabakiz zein isoglosak diren garrantzizkoak.

B) EUSKAL MAPAK

Lau mapa-mota berezten ahal ditugu:
— Euskalkien mapak: Louis L. Bonaparte.

— Isoglosa-mapak: Sacaze, Bourciez.
— Mapa diakronikoak: A. Irigaray, Odon de Apraiz.
— Mapa demolinguistikoak: Siadeco.

1.—Luis L. Bonaparte printzearen mapak (1863)

Tituluaren itzulpena: «Euskal zazpi probintzien mapa, euskararen gaurko mugak erakusten direlarik; eta dialekto, azpidialekto eta hizkera desberdinekin; Luis Lucien Bonaparte printzeak egina, Londres 1863. Egia esan, 1869an bukatuak izan ziren lehenengo mapak. Printzeak bost ostera egin zituen euskal herrialde guztietan barrena euskararen muga finkatzeko (1856, 1857); eta euskalkiak berezteko (1866, 1867, 1869). Epe berean lan berezi batzu egin zituen gai askotan: euskal aditza, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari haranetako euskalkiak, Kantiken kantikaren itzulpenak. Euskalkiak lautan sailkatu ditu desberdintasun zenbaitekin: 1861-63, 1864-65, 1866-67, 1869, 1880-81.

Hona hemen 1869ko sailkapena. Printzeak berezten zituen hiru dialekto-andana: *mendebaldekoa* (bizkaiera), erdi-aldekoak (gipuzkera, lapurtera eta bi nafarrerak), ekialdekoak (zuberera eta bi baxenafarrerak). Maparen barnean, zortzi dialektoak (bakoitza bere kolorearekin), zatikatuak dira azpidialektoz eta mintzamoldez.

a) Bizkaiera ekialdekoa (Markina), mendebaldekoa: (Gernika, Bermeo, Plentzia, Arratia, Orozko, Arrigorriaga, Otxandio), Gipuzkoakoa (Bergara, Lenitz-Gatzaga).
b) Gipuzkera iparraldekoa (Hernani, Tolosa, Azpeitia), hegoaldekoa (Zegama), Nafarroakoa (Burunda, Etxarri-Aranatz).
c) Nafarrera, iparraldekoa: Ultzamaldean (Lizaso), Baztanen (Elizondo), Bidasoaldean (Bera), Arakilen (Uharte), Araitzen (Intza), Gipuzkoan (Irun).
d) Lapurtera garbia (Sara, Ainhoa, Donibane-Lohizun) eta nahasia (Arrangoitze).
e) Nafarrera (hegoaldekoa): Iruñetik hona (Egues, Olaibar, Artzibar, Erro, Auritze), Iltzarbekoa (Gares), Iruñetik hara (Ultza, Zizur, Gulina).
f) Zuberera garbia (Atharratze); Erronkariera (Bidankoze, Urzainki, Uztarrotze).
g) Baxenafarrera (ekialdekoa): Garazi-Amikuzen (eta Bardoze, Arbela), Atturialdean (Beraskoitze, Urketa), Zaraitzuera.
h) Baxenafarrera (mendebaldekoa), Baigorriarra, Lapurdikoa (Uztaritze, Lekorne), Aezkera (ik. 9. irudia).



9. Ird.

Lau sailkapenen arteko desberdintasunik handienak hauek dira: Zaraitzuko mintzamoldea zubererarekin elkartu zuen (1, 2), eta gero nafarrera-zubererarekin (3), azkenean ekialdeko baxenafarrerari. 1880an Erronkariera bederatzigarren euskalkitzat zeukan Printzeak, eta Baztango euskalkia Lapurteraren azpidialektotzat. 1864erarte, Burundako mintzamoldea nafartar zeukan, baina geroztik gipuzkerarekin lotu zuen.

Louis Bonaparte-ren ondotik, beste sailkapen batzu egin dira: R. M. Azkue-k elkarrekin ezartzen zituen Nafarroako bi dialektoak, Baztango eta Burundako mintzamoldeak barne; eta gauza bera Baxenafarreko bi dialektoak, Zaraitzukoa barne. Orotara heldu bait da: zazpi euskalki Erronkariera kontutan hartuz (Diccionario, XXVIII or.).

Dialektoen mugak dudazkoak direlakoan, beste aldaketa asko egin zaie Bonaparte-ren mapei. Diren bezala, mapa horiek euskalkien egoera XIX. mendearen hondarrean agertzen digute.

2.—Isoglosa-mapak

Hizkuntz mapa zientifikoan galdera-zerrenda luze baten erantzunetan agertzen dira isoglosak. Beste ikerbide bat erabil daiteke, tokiko hiztunei ipuin ezagun baten itzulpena gutunez eskatuz. Dialektoen arteko desberdintasun asko azaltzen du textuak luze samarra den ber.

1887an Julien Sacazek, Tolosaldeko jakintsuak, posta-bidez ikertu zituen Frantziako hegoaldeko mintzamoldeak. Ikastetxe guztietako irakasleei textu bina igorri zien, erdaraz idatziak, lekuan berean bizi zen bati itzul arazteko: tantuguren eta Barbazaneko ipuinak. 1895ean Jean Bourciez-ek gauza bera egin zuen Akitanian eta Ipar Euskal Herrian, herri guztietan haur Prodigoaren parabola itzul araziz. Sacaze-ren eta Bourciez-en linguistika-bildumetarik, Jacques Allières-ek atera ditu ehun bat isoglosa-mapa, Ipar-euskalkietan eta lexikoaren mailan («arno-ano-ardo-ardu», «di(h)uru-di(h)arü», «(h)on-(h)un»), fonetika mailan («ü/u», «arro(l)tze-arrou(l)tze-arrau(l)tze»), morfologi mailan («barka zezon-zezakon-lezon»). Ikus «Via Domitia», 1960-1961, Fontes Linguae Vasconum, 27 zki., 1977.

Posta-bidezko metodo horiek ez dira osoki zientifikoak, egileak ez bait dira linguistak, eta erantzun emaileek ere ele-edergailu (eufemismo) asko erabiltzen bait dute, eta ez jende guztien ohizko mintzamoldea. Eufemismoak ere linguistika-gertakariak direla esan behar da eta diren beren horretan aztertzen dira gaur, mapa horien bitartez, orain dela ehun urteko mintzamoldeak. Konparazioak egin ahalko dira gaur egun antolatzen ari diren isoglosa-mapa orokorrekin, bai Ipar, bai Hegoaldean.

3.—Mapa diakronikoak

Historia eta geografia, elkartzen dituzte mapa diakronikoek hizkuntzen mugimenduak mendeetan zehar agertuz. Herritar guztiek ikasten eta erabilzen dituztelako, estatuen mugak dituzte Koine-ek ofizialitaterik gabeko hizkuntzek aldiz, maizenik hirietatik mendietara eta erdialdetik bazterretaraino gibelatzen dira. Bi muga berezi behar dira: euskara biziaren muga (alde honetan euskara nagusi), eta euskara ahularen muga (beste aldean erdara nagusi). Bion artean hizkuntzak borrokan daude.

A. Irigaray-k eman dizkigun sei mapetan euskararen beherakada agertzen da Nafarroan XVI. mendetik gaur eguneraino. Hona zein argibide ikertu duen hizkuntz mugak finkatzeko:

1587: Iruñeko Apezpikutegiko agiri batek izendatzen ditu herri erdaldunak eta euskaldunak, euskara biziaren eta ahularen alorrak xeheki emanez.

1778: Eliz auzitegiek atera dituzte herri erromanizatuen eta euskaldunen zerrenda; paper ofizialetan zein hizkuntza erabili idazkariek jakin zezaten.

1873: Louis L. Bonaparte-ren mapak.

1904: Iruñeko Apezpikutegiak egin arazten du herri euskaldunen izendegia.

1935: A. Irigaray euskaltzainak ikerketa bat egin zuen Nafarroan euskararen egoeraz ordukotz orotan borrokan zen erdararekin.

1972: J. M. Sánchez Carrión-ek agerrerazi zuen «Euskararen gaurko egoera Nafarroako probintzian». Liburu horrek herrialde eta haran guztien mapa txikiak ematen ditu, euskaldunen eta erdaldunen kontuekin.

Odon de Apraiz-ek (El vascuence en Alaba, 1953) zehazten du euskararen mugimendua azken mende honetan, baina baita Arabako euskararen mapa diakronikoa ere mendeetan zehar. Argibideak bakan izanikan ere, XVI. mendean Gasteizko seminarioko agiri batek, eta Juan de Vitoria-ren Comentariologiak ematen digute orduko euskararen egoera. XVIII. mendeaz geroztik badugu dokumentu gehiago (ikus. J. J. Landazuri, Historia de Alava, 1926).

Mapa horien sintesiak eginak dira, eta «Hizkuntz borroka» liburuaren azken zatian aurki daitezke:

J. Intxausti: Euskara Nafarroan (4. mapa).

O. de Apraiz: Euskara Araban (5. mapa).

Euskal Herri osoaren mapa diakronikoak (2. eta 3. mapak), eta Liburu Zurian», 148. or. Hona euskararen mugak mendeetan zehar:

1200: Zarrakaztelu, Larraga, Uzanzia, Biaizteri, Ezkarai, Otxanduri, Basabe, Berberana, Atzernaga, Barakaldo.

1587: Galipentzu, Tafalla, Zufia, Bernedo, Hirizaharra, Trebiño, Urdunia, Barakaldo.

1778: Irunberri, Tafalla, Lizarra, Gaztiain, Gasteiz, Urdunia, Barakaldo.

1863: Erronkari, Oroz-Betelu, Iturgoien, Ullibarri, Zuia, Laudio, Okendo, Bilbo.

1950: Luzaide, Eugi, Lizarraga, Urdiain, Legutio, Aramaio, Baranbio, Bilbo (Ik. 10. irudia).



10. Ird. **(Euskararen Liburu Zuria, 1978)**

4.—Demolinguistika-mapak

Gaur egun Euskaltzaindiak galdeginik, ikerketa soziolinguistiko bat egin du SIADECO-k: «Hizkuntz borroka (1979)». Herrialde guztiak elebitasunean daudenez gero, ez dira hizkuntzak geografiaz mugatzen ahal. Erdara, guztiek dakitenean, demolinguistikak agertuko ditu euskara ere erabiltzen dutenen kontuak eta arauak, herrietan eta herrialdeetan. Kolore desberdinak erabiliz, begi-ukaldi batez ikus daiteke euskara

nagusi non den, erdara non, eta zein indarrekin. Hizkuntz mapa honek, geografi eta ekonomi mugen gainean ezarriz, hizkuntzen dinamika argitzen du, industria eta etorkintzaren aldetik, mendietan edo bide-bazterretan, eta holako.

III. GEOLINGUISTIKA GAUR

Dialektologia estrukturala (Uriel Weinreich, 1954).

Hizkuntzek eta dialektoek badauzkate bakoitzak beren egiturak. Lehen linguistika-mapek soinuak eta hitzak konparatzen zituzten, dialekto batetik bestera. Uriel Weinreich eta haren kidekoek, aldiz, dialektoen fonologi →sistemak aztertzen dituzte. Sistema osoak behar dira konparatu, eta ez bakarrik hitz eta →fonema zenbait, lehen →dialektologian bezala. Isoglosa-lerroek desberdintasunak berezten zituzten, baina adierazkorrak ziren ala ez ikusi gabe. Soinu baten garrantzia agertzen da, ordea, haren saila emanez fonologi sistema baten barnean. Holaxe fonema berdinek eta desberdinek ikustera ematen dituzte dialektoen arteko →diasistemak.

Dialektologia estrukturalaren lehen ikerketak fonologi mailan egin dira. Baina gramatikan, eta hain segur lexiko mailan ere, metodo bera erabil daiteke.

IV. ETNOLINGUISTIKA

«Wörter und Sachen» metodoak (eta gero aldizkariak) elkarretaratu ditu etnologia eta linguistika-geografia: Jaberg, Jud eta Rohlfs erromanistek, Frings eta Röhr germanistek diote mintzamoldea ezin daitekeela bereiz bizimoldetik. Hizkuntza ulertzeko, mintzatzaileek erabiltzen zituzten tresnak, hornidurak, sinesteak ezagutu behar dira.

Urrunago joanez, hizkuntzaren eta kulturaren arteko sintesia egin nahi luke Whorf-ek; munduaren ikuskera hizkuntzak ematen digu. Mintzamoldetik heldu zaizkigu ingurunea aztertzeko bideak. Adibidez, aditzjokoa →denbora zatikatzeko tresna da, koloreen zerrendatik heldu zaigu ingurunea ikusteko moldea; eta, beraz, linguistika da gizartea aztertzeko tresna.

Antropologia estrukturalak, aldiz, beste hurbilketa bat erabiltzen du. Levi-Strauss eta Zellig Harris-en ustez gizarte-fenomeno guztiak komunikabide-sisteman sar daitezke. Adibidez, ahaidetasunak eta hizkuntz sistemek zenbait berdintasun badute zibilizazio guztietan. Osagaien azter-

ketak hau erakusten du: ahaidetasunezko hitzetan badagoela elkar-adiera eta lotura lexikoaren barne-egituran.

Etnia baten azter-tresna orokorra antolatu du R. Breton-ek. Ama-hizkuntza bera dutenen multzoa da etnia. Hizkuntz komunitate baten oinarriak, lurraldea, jendetza eta mintzamoldea dira. Geolinguistikak ikertzen ditu hizkuntzak lurraldean dituen erroak.

Azken egiturak	Politika	Hiri nagusia	Hiriak
		Erdigunea	
	Kultura	Gizarte mailak	Ekonomia
Lehen egiturak	Hizkuntza	Demografia	Lurraldea
	Gainegiturak		Azpiegiturak


Hizkuntzaren eta jendetzaren hara-honatak aztertzen ditu demolinguistikak. Sortze anitz duen herriaren hizkuntza, azkartu egiten da. Kontutan hartu behar da mintzatzaileen adina, gazteek bait daukate hizkuntzaren geroa.

Gizarte aintzinatuak baditu ekonomia, klaseak, eta kultura; eta gaurko zibilizazioan, erakunde politikoak eta hiriak, beren hiriburuarekin. Gizarte-erakundeen eta hizkuntzaren arteko harremanak erakusten ditu →Soziolinguistikak. Indar politiko eta ekonomikoak alde dituelarik, azkar dago hizkuntza. Orduan erabaki politikoak hizkuntz komunitatearen erdigunean hartzen dira. Aldiz, ekonomiaren eta politikaren zentrua etniatik kanpo dagoenean, hizkuntza zanpatua ahulduz doa, suntsitzeraino. Hizkuntza apala lehenik politika erakundeetatik eta hirietatik galtzen da; gero gizarte mailan aintzinatuenetatik, azkenik baserritar lurraldeetatik.


Arraza, herria, nazioa edo etnia gauza beraren lau izenak dira; baina ikusmolde desberdinekin, jendetza baten biologia, kultura, politika edo hizkuntza erakutsiz. Etnia →ama-hizkuntza berbera duen komunitatea da: etnofonoak ama-hizkuntza beraren mintzatzaileak dira, eta alofonoak etniaren barnean beste hizkuntza bat mintzo dutenak: Euskal Herrian euskaldunak eta erdaldunak bizi dira.


Bi etnia, bata bestearen ondoan, edo menpean, daudelarik, aldaketak egiten dira kultura batetik bestera sail honi jarraikiz: lehendabizi elebakartasuna, gero →elebitasuna, eta gero bigarren hizkuntzazko eleba-

kartasuna. Euskal etnian deskulturazio hau da orain artean gehienik ageri: orain dela 50 urte baziren oraino euskaldun elebakarrekoak. Gaurko egunean 600.000 euskaldun elebidun gara; eta bi milioi euskotar, erdaldun soilak dira. Hemendik goiti akulturazio-mugimenduak berreuskalduntzea ekarriko digu. Euskotar erdaldunek eta herrian bizi diren atzerritarrek euskara ikasiz elebidun bilakatzen dira, eta haien familia euskal etnian berriz sartzen (ik. 11. irudia).



Eman ditzagun ama-hizkuntzak, euskara (e) eta erdara (a), eta herriak, Euskadi (E) eta atzerri bat (A), Frantzia edo Espainia. Euskal deskulturazioaren mailak, hauek dira: 0. Euskaldun etnofono soila (Ee); 1. Euskaldun etnofono elebiduna (Eea); 3. Euskotar alofono euskara ikasia (Eae); 3. Euskotar erdalduna (Ea). Aldiz hona akulturazioaren bidea, euskal etniaren arabera: 0. Atzerritar erdalduna (Aa); 1. Atzerritar euskara ikasia (Aae); 2. Euskaldun berri elebiduna (Aea); eta noizbait, 3. Euskaldun berri etnofono soila (Ae).





11. Ird. Euskal Herriko ama-hizkuntzak, euskal deskulturazioaren mailak eta akulturazioaren bidea (Ik. textuan grafikoko letren esanahia).

V. TOPOLINGUISTIKAREN IRAKASPENA

Jendeen deiturak ulertzeko, tokien izenak ikertu behar dira. Eta tokien izenek zerbait esaten digute gizartearen bizimoldeaz, abere, arbola

eta landareaz. Toponimien bidegurutzean daude antroponimia, zoologia, botanika eta geografia.

A) FORMAK ETA KOLOREAK

Izen askotan agertzen dira geografi hitzak:
— haitz, harri, harroka;
— mendi, muno, tontor, lepo, bizkar, bortu;
— ibai, inta, itsas, erreka, laku, latsa;
— haran, ibar, berro, zelai, ezponda, ordoki, larre, toki, gune;
— leize, zulo, ate, pe;
— arbel, buztin, burdin, iztil, legar, lohi, lur, ur.


Adibidez, ikus liburu batzuren aurkibideetan leku zenbaiten izenak: *Aguilar:* aiz, larre, mendi. *Lemoine:* ibai, ibar, larre, mendi, ur, 140 or.

Koloreak garrantzi handia dute, eta esanahi mitologikoa. Adibidez, zuri eta beltz: zuriak argia esan nahi du, eguna, zoriona; beltzak, aldiz, gauaren iluna, leize-zuloa edo oinanpea, ortzanz-lainoa. Gorria eta horia kolore beretsuak dira, baina gorria beltzari so dago, sua ilunean bezala, goizeko edo arrastiriko eguzkia bezala; ilargia ere gorria da, hilen argia delakoan. Horia, aldiz, eguerdiko eguzkiaren kolorea da, fruitu hondu eta ogi zohituarena. Hirugarren kolore-zerrenda, urdina eta gordina, edo berdea: zerua urdina dago, eta udaberrian pentze-oihanak berde daude eta fruituak gordin.

Sei kolorez euskal kosmogoniaren ingurua egiten ahal dugu, hiru mailatan: zerua, lurra, lurpea edo ura.

Sortaldean eguzki horia, zeruan gora doalarik eguna zuritzen du. Udan zeru urdinak zohitzen ditu lurreko uzta gordinak, eta berdetzen soro-oihanak. Eguzki gorria mendebalean sartzen delarik, ilargia agertzen da gorri-gorria.. Lurpea gaur iluna bezain beltz dago, hilen herria delako. Oihan-zokoetan otsoak, zuloetan laminak eta uren iturriak (ikus 12. irudia).

Kolore zuriak eta urdinak, zoriona, argia, beroa eta idorra esan nahi dute. Kolore beltzak eta gorriak, aldiz, zorigaitza, iluna, hotza eta bustia. Horia eta gordina (berdea) ez dira oinarrizko koloreak, osagarrizkoak baizik. Dendaletche-ren arabera iduri hau, euskal kosmogoniaren laburpena da (127. or.). Ulertu egin behar da deus ez dela osoki zorion edo zorigaitz; jendeak, abereek eta landareek badutela egunaren eta gauaren beharra; negurik gabe ez dela udarik; leizeek ura ematen dutela, eguzkiak argia bezala. Eta sobera bero makur dela ur-eskasian; belarra sortzeko elurra eta eguzkia, sua eta ura behar direla.



12. Ird. Sei koloretan euskal kosmogoniaren ingurua, hiru mailatan: zerua, lurra, lurpea edo ura.

Koloredun toponimoak, kosmogonia hau jakinez ulertzen ahal ditugu. Adibidez: «harxuri, urzuri, mentaxuri, behibideko emaztexuri; mendibeltz, urbeltz, akerbeltz, oihanbeltz; lurgorri, urgorri, baigorri, otsogorri, jaunagorri, galtzagorri»...

Forma hitz hauek toponimoetan agertzen dira lur-jalgunearen iduria emanez: bazter, behere, beltz, eder, epel, gain (garai, guren), handi, begi, hori, gorri, hotz, hun (on), huts, konkor, luze, mosko, makur, ondo, ozka, ordoki, ttipi (ttiki), tontor, urrun, zabal, zahar, zorrotz, zuri, zoko...

B) ABERE-TOPONIMOAK

Alderdi haietan alatzen zirelakoan ematen zitzaizkien, abere-izenak alde haietan alatzen zirelakoan tokiei. Baina, zenbait aberek badutela

mitologiazko esanahirik oharrerazten digu Dendaletche-k. Adibidez, «Sai zuria» (Sai zuria: perchoptère, petit vautour blanc, buitre pequeño y blanco). Txori harraparia, martxoan etortzen da; eta zubereraz «behibideko emazte xuria» eta biarnesez «Marie-Blanque» deritzo. Mendi-lepo batek sai asko dagoen lekuan izen hori du. Zergatik «emazte xuria»? Sai hori etortzen delarik, udaberriaren hegal zuriek mezutzen dute aro ona, eta belar lodia abereentzat. «Emazte xuria»k oroitarazten du, beraz, «lurpeko birjina», Bidarrain eta leku askotan. Behi-bideak, berriz, hau esan nahi du: sai horiek ibiltzen direla bortura doazen kabalekin, eta behien inguruan dauden marmutzak jaten dituztela.

«Sai xuri» hori Himalaya mendietan txori sakratutzat gurtzen da eta jaten ematen diote beilariek. Abeltze honek gurpen bera dauka Asiako mendietatik Euskal Herriko borturaino. Sinbolismoak hiru maila desberdin ditu: han erlijio mistikoa, Zuberoan mintzaira bizian, eta Biarnoan toponimo hila. Mendietan dagoen bizi orokorra artzainek ulertzen dute. Soroak sortzearekin, behereko etxeetatik artaldeak iragaten dira bortuetara; eta sai zuria Himalayatik etortzen da, giro ona hegalpean ekarriz; hegaldatze zuriak iratzarrerazten ditu udaberriko liliak eta lurpeko eta lurgaineko zorionak mezutzen, Bidarraiko harpetik Iratiko oihaneraino. Oroit «Mari», euskal jainkosa edo anderegaikoa dela.

Ardura agertzen dira hartza eta otsoa, mendi-izenetan lehengo izialduren oroigarri:

— Artzamendi, Artxilondoa, Atzapasia, Santa Garazi ondoan, Zuberoko azken hartza hil den lekuan.
— Otsozelai, Otsobia, Otsolarrea, Otsogorri, Otsogorrigane...

Beste abere asko sartzen da izenetan: hartz, ahuntz (Ahunemendi), aker, arrano, ardi, azeri, azkon (Azkonbegi), behor (Behorlegi), belatz, bildots, basurde, basahuntz, idi, oilo, orkatz, otso, sarri, urde, zaldi, zerri, txori...

C) ARBOLEN ETA LANDAREEN IZENAK TOPONIMOETAN

Haritza da arbola totemikoa Euskal Herrian: Gernikako arbola, Harizmendi, Hariztoi, Haritzaga, Hariztegi, Haritxelar...

Beste arbola eta landare asko: ametz, baso, belar, elorri, erramu, ezpel, gaztain, haltz, haritz, ilarra, iratze, pago, piko, ihi, ikar, jats, lapar, leizar, lahar, lasto, mahats, mizpira, ote, soro, zur...

D) ANTROPOLOGI TOPONIMOAK

Toki-izenetan gizartearen kultura agertzen da: Jendeen izenak: abate, harotz, ehule, hil, jaun, hargin, sorgin...

Erakundeak ere toponimoetan daude: baratze, benta, bide, borda, denda, dorre, eihera, eliza, etxe, herri, gaztelu, hiri, hobi; zubi, kale,

karrika, kurutze (Burdinkurutxeta), labe, muga, ola, ospital, sala, teila, tegi...

BIBLIOGRAFIA

A) Hizkuntz geografiaz

ALLIÈRES, J.: Petit atlas basque, *Via domitia,* Toulouse, 1961.
ALVAR, M.: *Estructuralismo, geografía, lingüística y dialectología actual,* Gredos, Madrid, 1969.
APRAIZ, O.: *El vascuence en Alava,* Vitoria, 1953.
BAXOK, E.: *Euskal geolinguistika,* EUTG, Donostia, 1979.
BRETON, R.: *Géographie des langues,* P.U.F., Paris, 1976.
BONAPARTE, L. L.: *Carte des sept provinces basques,* Standford, Londres, 1963.
IRIGARAI, J. A.: *Euskara eta Nafarroa,* Aranzadi, Iruñea, 1973.
MACKEY, W.: *Three Concepts for Geolinguistics,* C.I.R.B., Québec, 1973.
MALMBERG, B.: *Les nouvelles tendances de la linguistique,* P.U.F., Paris, 1976.
MARTINET, A.: *La linguistique, guide alphabétique,* Dénöel, Paris, 1969.
SIADECO, *Euskararen liburu zuria,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1977.
— *Hizkuntz borroka Euskal Herrian,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1979.
VARIOS: *Geografía histórica de la lengua vasca,* Itxaropena, Zarauz, 1960.

B) Topolinguistikaz

ALTUNA, J.: *Lehen Euskal Herria,* Mensajero, Bilbo, 1975.
ARANZADI y UNAMUNO, D. T. de: *La flora forestal en la toponimia euskara,* San Sebastián, 1905.
BARANDIARAN, J. M. de: *El hombre prehistórico en el País Vasco,* Ekin, Buenos Aires, 1953.
DENDALETCHE, C.: *Montagnes et civilisations basques,* Dénöel, Paris, 1978.
LEMOINE, J.: *Toponymie du Pays Basque français,* Picard, Paris, 1977.
MICHELENA, L.: *Apellidos Vascos,* Txertoa, San Sebastian, 1973.
RAYMOND, P.: *Dictionnaire topographique des Basses Pyrénées,* Paris, 1865.

Hizkuntz interferentzia

«Hizkuntz interferentzia» gogotan ikertu duten zientziak, batzuk dira: →linguistika, esate baterako, →psikolinguistika, →soziolinguistika edo-ta pedagogia; eta horietako bakoitzak oso modu desberdinetara egin du.

Hemengo gure honetan, hizkuntz interferentziaren fenomeno horren aurkezpena, linguistikaren aldetik hurbiltzen gatzaizkiolarik saiatuko gara egiten.

Hizkuntzalaritzaren eskola guztien azterketetan ukitu da fenomeno hau, zuzenki edo zeharbidez; baina modu desberdinetan. Hitzak berak, bestalde, ez du ikerlan guztiotan →adiera bakunik, ez bakarrik, ezta maila bera ere; zeren-eta zenbait aldiz, beste hizkuntza baten eraginaz gertatzen diren nolanahiko aldaketak, hizkuntz interferentziatzat hartu ohi bait dira; baina beste batzutan, berriz, aldaketa horietako batzuk bakarrik aitortzen dira halakotzat. Interferentziaren definizioaren kezka, horretara, erizpide hertsiago honetan agertzen da; eta, bide beretik, honetan ere ematen da «hizkuntz →mailegu»ekiko, «hizkuntz integrazio»arekiko, eta abarrekiko, mugaketa garbi utzi beharra.

M. Van Overbeke-k, honi buruz, hizkuntz interferentziak egituratzeko eta sailkatzeko →aurkakotasun →bitarrak zein diren honela proposatzen digu:

— «interferentzia-gertabide» / «interferentzia-ondorio», →sinkroniaren alderditik; eta beste hizkuntzak eragindako hizkuntz →aldaketa, mementu batez eta hizkuntzaren egituraren alderditik begiratzen delarik.

— «Interferentzia aurreraeraginkorra» / «interferentzia atzeraeraginkorra». Lehenengoetan, lehendabizi ikasitako hizkuntzak kutsatzen du bigarrena bere eraginaz; bigarrenetan, berriz, alderantziz gertatzen delarik.

— →Kodearekiko *interferentziak*» / «jokabide soziolinguistikoekiko interferentziak». Alegia, eragin horiek hizkuntza bera ukitzen dutelarik; edo-ta, alderantziz, guztiz zuzena edo gramatikaren arabera moldatua den egintza linguistiko baten desegokitasun hutsak direlarik, dela inguramenduari, dela komunikazio-egintzari buruz.

— «Forma hautazkoen interferentziak» / «forma derrigorrezkoen interferentziak». Eman dezagun esakera bat hizkuntzetako batetan libroa dela, →hautazkoa (eta erredundantziazkoa, beraz); eta beste hizkuntzan ere hautazkotzat ematen dela, nahiz bigarren honetan derrigorrezkoa izan. Horixe da interferentzi mota hau. Adibidez: berezketa hautazkotzat har daitezke, euskaraz, ondoko bi ebakera hauek: [es *t*aqo] / [es *d*aqo]. Gaztelaniaz, aldiz, derrigorrezko berezketa dugu: [es*t*e Fulano] / [es *d*e Fulano].

— «Interferentzia segmentala» / «interferentzia suprasegmentala». Alegia, segun-eta →fonema, →morfema edo →hitzei buruz gertatzen den, ala →azentu, →intonazio, →etenaldi, eta antzekoei buruz.

— «Lehen artikulaziozko interferentzia» / «bigarren artikulaziozko interferentzia». Alegia, fonemen edo →fonologia orokorraren mailan ala →monemen, lexikoaren, eta abarren, mailan gertatzen ote den arabera.

— «Gramatikazko interferentzia» / «lexikozko interferentzia». →Sintaxi-ordenan, →komunztaduran, eta abar, gertatzen den arabera; edo-ta, alderantziz, hitzen mailegutzan.

— «Morfologi interferentzia» / «sintaxi interferentzia», nahiz kasu askotan bion arteko mugaketa egiten zaila izan.

Horrez gainera, beste interferentzi mota batzuk berez daitezke. Esate baterako:

— «Sintaxi-interferentzia» / «semantika-interferentzia».

— «Sinkroni interferentzia» / «diakroni interferentzia». Segun-eta mementu batez gertatua den, ala hizkuntzaren kondairan barrena. Eta abar.

M. Van Dverbeke-k berak, konparatistengandik hasi eta gaur arteko linguistika-kondaira eginez interferentziaren fenomenoa nola aztertu izan den eskaintzen digu ikusmira askizkoan. Eta hiru epe berezten ditu:

1) «Hizkuntz ukipenaren ohizko teoriena». Hauen artean amerikar estruktu-

ralistenak nabarmen eraz litezke (Sapir, Bloomfield, eta abar).

2) «Gerra-ondoko hizkuntzalaritzako interferentzi teoriena»; batez ere Estatu Batuetan eta elebitasunezko egoera zehatzen ikerketen aldetik ikusia. Jadanik klasiko bihurtu diren U. →Weinreich eta E. Haugen-en idazlanak azpimarra litezke.

3) «Gaur egungo hizkuntz interferentzia»ri buruzko teoriena; 60ko hamarkadatik honunzkoena, alegia.

Hirugarren epe hau oso banaturik agertzen zaigu. Baina, gutxienez, ondoko hiru joera hauek bederen berez bide daitezke:

a) Estrukturalista eta taxonomikoa. Aurreko epeko lanetan zegoen hoberena biltzen da honetan; eta linguistika kontrastiboan eta eskola estrukturalistetan agertutako berrikuntza batzuk ere biltzen dira. Adibidez, «→ezaugarri →bereizle minimo»en berezketari eta erabilpenari dagokionez, batez ere fonologiazko eta lexiko-semantikazko interferentziak.

Joera honen barruan, W. F. Mackeyren lan batzuk gailen litezke. Adibidez: interferentzia eta hizkuntz integrazioa ikertzeko proposatzen digun →eredua; baita haren kuantifikaziozko ikerbideak ere, *Bilinguisme et Contact des Langues* delakoan.

b) Joera sortzaile-bihurtzailea; zeharbidez bederen, ikertzaileek «hizkuntz →aldaketa» aztergai dutenean (diakronikoa izan, edo textuinguruzkoa, edo pragmatikoa, edo-ta soziologikoa, eta abar); «hizkuntzazko erratuak», «hizkuntz hiperzuzenketa», eta abar; elebidunaren →gaitasun linguistikoa zinez bikuna ote den, ala gaitasun *bakar bat* ote duen bi hizkuntzei buruz, hein batez antzua (zeren-eta elebakarraren →konpetentzian ere, hizkuntzazko azpi-sistema mordo zabal bat bait dago, hizkuntza osatzen duten →hizkera-moten multzoaren araberakoa; eta elebakar bakoitzak, aldez edo moldez, azpi-sistema mordo hori bait dauka barruan, hobeki ala trakeskiago integraturik); eta, hein batez ere, →hiztun elebidunarengan, hiztun bakar horrengan jatorriz bi hizkuntza diferenteren azpisistemen multzoan zeuden horien integratzaile ere bai.

c) Matematiko-zenbatasunezkoa dei genezakeen joera. Hemen sartuko genituzke estatistika-pleguko lan batzuk; hizkuntz interferentzia gertabide zibernetiko edo hizkuntz ekonomiazko gertabide baten ondorio bezala ikertzen dutenak; eta abar. M. Van Overbeke-ren beraren idazlan batzuk, sail honetan sar litezke.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Hizkuntz maila

nivel de lengua / niveau de langue / language level

Edozein hizkuntzatan egiaztatzen da, zenbait erabilera ingurune jakin batzuetan bakarrik agertzen dela, beste zenbait beste ingurune jakin batzuetan agertzen den bitartean. Hizkuntza →erkidearen erabilpen hauetako bakoitzak bere jatorri-ingurunearen prestigio bera edukitzen du edo haren mesprezu bera jasaten. *Hizkuntz maila* nozioa, beraz, gizartea klasetan edo mota desberdinetako taldetan banatua egoteari lotua dago. Zein ingurunetan aurkitzen diren, maila desberdin asko erabil ditzakete →hiztunek.

Desberdintasunak, batzutan, lexikoan bakarrik agertzen dira (→argota eta hizkuntza arrunta, hitz-altxor teknikoa eta hizkuntza arrunta); beste batzutan, lexikoan ez-ezik, →fonetikan, morfologian eta →sintaxian ere ematen dira (hizkuntza landua eta herri-hizkuntza, hizkuntza arrunta eta patois delakoa). Hizkuntza ofizialetik gertu dauden →dialektoek herri-hizkuntz funtzioa bete dezakete.

Dena dela, edozein hizkuntz →egoeratan, ondoko maila hauek beti aurkitzen dira: *hizkuntza zaindua,* jakintsuen barrutian lantzen den →hizketa kultuari hurbiltzera jotzen duena: *hizkuntza arrunta,* herriko hizketaren erabilerei jarraitzen saiatzen dena, eta →*patois hizketak.*

Hizkuntz menpekotasuna

«→Hizkuntz ukipenari» datxezkion ondorio gertagarrietako bat da «hizkuntz menpekotasuna».

Hizkuntz komunitate edo gizarte bakoitzak, baditu, eskuarki, ongi mugatutako ezaugarri linguistiko, soziolinguistiko eta soziologikoak. Orain, dena dela,

ez da gure asmoa «hizkuntz komunitate» edo «gizarte» hitz horiek hemen zedarritzea. Baina, gure kasu berezian, errealitate berbera dute oinarritzat euskal hizkuntzazko komunitateak, euskal gizarteak, euskaldun herriak, Euskal Herriak, euskal nazioak, eta gainerakoek.

Delako hizkuntz komunitate edo gizarte horiek aldera ditzakegu guk, beren artean; eta horretara komunitate horien arteko tartea kalkulatu. Tarte horrek, orduan, hau emango digu: komunitate horien artean degoen «erakarpen-maila» erakutsiko digu, berezkoa zein aurrikusgarria; edo-ta komunitate horiek batak bestearekiko dutena.

Alderatzen ditugun hizkuntz komunitate horiek «ukipen-komunitateak» direnean; alegia, benetan elkarrekiko harremanetan dauden komunitateak direnean, hizkuntz komunitate horien artean «berez espero daitekeen erakarpenak» emango digu «menpekotasun-maila arriskugarria»; baita, bide beretik, «hizkuntzazko menpekotasun-maila aurrikusgarria» ere.

Horrez gainera, berez espero zitekeen hizkuntzazko menpekotasun-mailari buruz distortsio edo →desbiderapena gerta daiteke, horretara, egiazko hizkuntz menpekotasuna berez espero zitekeen hizkuntzazko menpekotasun-maila baino handiago edo txikiagoa bihurtuz.

Egiazko hizkuntz menpekotasunaren eta berez espero zitekeen hizkuntz menpekotasunaren arteko tarte horrek, horretara, «distortsio eta desbiderapen-gradua» emango digu, edo-ta ukipenetan dauden bi hizkuntz komunitateon arteko «bortxatasa» esan dezakeguna. Gure kasu konkretu honetan, gaztelaniazko eta frantsesezko komunitateekiko agertzen den menpekotasun-harremanean, handia da bortxa-tasa hori.

Distortsiodun hizkuntz menpekotasun horietan, motak eta graduak finkatzen saia gintezke; alegia, diglosi motak eta graduak (ikus *diglosia* goiburua). Eta sailkapen hori egiteko, ondoko puntu hauek har genitzake kontutan: bortxaketaren norakoa eta maila; baita hauetan bildurik eta neurturik, agertzen diren distortsio eta desbiderapen horien alderdirik nabarmenenak.

Helburu horretan, ikusmolde batzu erabil daitezke, eta aldez erabili egin dira jadanik, eta azterkizuna ikuspuntu desberdinetatik hartu. Esate baterako:

1. «Jokabide linguistikoaren» ikuspegia. Hauxe izan da, gaur gaurkoz, hizkuntz komunitate batetan dagoen hizkuntzaren egoera aztertzerakoan, maizenik erabili izan den ikuspegia; eta, eskuarki, →sinkronian erabili izan da.

J. Fishman-ek proposatutako azterbideari jarraikiz, ia beti ondoko alderdi edo aldagai hauek berezi eta ikertu izan dira: a) *nor* jokatzen da linguistikoki; alegia, nor da mintzo; b) *nori* zaio mintzo; c) ukipenetan dauden hizkuntzetan, *zein* du hautatzen; d) *zertaz* mintzatzeko, alegia zein mintzagaiz hitzegiteko; e) *noiz*, eta, gizarteari dagokionez, zein alorretan.

Maizenik ikertu izan den alderdia, gizarte-funtzionamenduaren alorrena izan da. Gutxienik ikertzen dena, berriz, mintzagai edo topikoena izaten da. Hots, zenbait kasutan, gurea barne, oso garrantzitsua da hori; gure euskaraz derrigorrezko analfabetakuntzan bait gaude eta erdaraz alfabetaturik.

Baina, ikuspegi honetatik beretik, badago beste ikerkizunik ere. Esate baterako: f) *nola* delakoari buruz, alegia ea jokabide linguistiko horiek ahozkoak diren, ala idatzizkoak, ala irakurrerazkoak; edo-ta, bestela, formalizazio-mailen araberakoak; eta abar.

SIADECO-k egina duen *El estudio socio-lingüístico del euskara* liburuak eta *«Hizkuntz borroka Euskal Herrian»* deritzon berorren laburtzapenean, hein batez alderdi horiek aztertu ditu gure Herriari buruz.

2. Ukipenetan edo menpekotasunean dauden hizkuntzen arteko «hizkuntz indar tartea» deritzon ikusmoldearen arabera.

Hizkuntz indar tarte hori, edozein hizkuntza pareri buruz iker daiteke; baina ukipenetan dauden hizkuntzei buruz gertatzen da garrantzitsu haren erabilpena; baita diglosiazko menpekotasunetan

ere; euskararen kasuan bezala, gaztelaniari eta frantsesari dagokionez.

Honetarako, ideia hau hartzen da oinarritzat: hizkuntza bakoitzak baduela, berez, garrantzi eta indar maila bat. Indar hori, hizkuntza erabiltzen duen edo duten komunitateen indarrari datxekio, eta «berezko hizkuntz indarra» esan dakioke (W. F. Mackey-k egiten duen bezala). Berezko hizkuntz indar hori kontutan hartzen eta neurtzen diren alderdi edo aldagaien batuketa da; eta, Mackey-ri garraizkiolarik, hauek izan daitezke: a) delako hizkuntza horren →hiztunen kopuru osoa; b) berorien aberastasuna, zenbait ekonomi erizpideren arabera neurgarri; baina, eskuarki, errenta ertainaren arabera neurtua; c) hiztun berorien sakabanatze-gradua; esate baterako, mintzatua den eskualdeen batuketaz: bai Estatu desberdin, bai herrialde desberdin, bai etnia desberdinetan; d) hiztun horien mugikortasun-maila berorien bidaien kopuru-klase-norako-iraupenaren arabera, e. b.; e) hiztun horien kultur ekoizpena, bai jatorrizkoa, bai idurikatua edo inportaziozkoa, eta berez daitezkeen jakintza alorren arabera; f) berorien ekonomi ekoizpena. Honi buruz, eta erabakitzeko eta neurtzeko, oso erizpide desberdinak balia litezke. Jakina. Hemen interesgarria litzateke berezko ekoizpena eta menpekotasunezko ekoizpena bereztea (lehengairik ez izateagatik, esate baterako, edo teknologiaren inportazioarengatik, edo multinazionalekiko betebeharrengatik, edo agintekeria inperialistarengatik); eta berezi egin behar lirateke, era berean, nagusi eta agintzaile diren komunitateekiko menpekotasuna, batetik, eta ez nagusi ez agintzaile diren komunitateekiko menpekotasuna, bestetik; g) hiztunen ekoizpen ideologikoa. Ez, ordea, Mackey-k proposatu duen alderditik zenbait hizkuntzaren erlijio-balioaren aldetik, esate baterako, gure kasuan erabili ezina; baina bai «jarrera»ri atxekirik dauden beste alderdien arabera baizik.

Beti ikusmolde beretik, beste zenbait alderdi edo aldagai berez liteke. Esate baterako (eta gure kasuan oso garrantzitsua): h) hizkuntza bakoitzaren hiztunek erakusten duten nahasketa-maila. Gure kasuan, esate baterako, ez dago nahasketarik gabeko eskualderik batere, baina gaztelania eta frantsesa eskualde osotan erabiltzen dira; eta hauetan ere, zenbait aldiz nahasian eta zenbait aldiz batere hizkuntz nahasketarik gabe.

Aldagai horien guztien batuketak, hizkuntza bakoitzaren «berezko hizkuntz indarra» deritzogun balioa emango liguke. Eta menpekotasun-harremanetan dauden bi hizkuntzen arteko berezko hizkuntz indarren arteko diferentziak edo tarteak emango digu hizkuntza nagusiaren araberako hizkuntz indarraren balioa (gure kasuan bi dira: espainiera eta frantsesa), menperatua den hizkuntzaren arabera (euskararekiko, gure kasuan).

3. Izan, erizpide linguistikoa dena: Alegia, menpekotasun-harremanean dauden bi hizkuntzen arteko «hizkuntz tartea» ikertzea.

Alderdi batzuk berez litezke. Pisudunenak hauek dira, gure ustez: a) «egiturazko hizkuntz urrunera»; alegia, harremanetan dauden hizkuntz →sistemen artekoa; bi hizkuntzen arteko «gaurkotze eta standardizatze-tartea». Lehenengo alderdia, hein batez, Mackey-k eskaini digun ereduan ageri da; bigarrena, aldiz, M. Jose Azurmendik proposatzen du.

— «Egiturazko hizkuntz urrunera» horretan, gutxienez ondoko alderdi hauek berez daitezke: a) Menpekotasun-harremanetan dauden bi hizkuntzen sistema eta egituren artean dagoen diferentzia edo tartea. Ikertzapen honi buruz, badira eredu batzuk; estrukturalistak eta taxonomikoak maizenik, Mackey-k berak erabiltzen dituenen plegukoak. b) Hizkuntza berberaren barruan dauden barne-hizkeren arteko diferentziak edo tarteak. Esate baterako: geografiaz, →dialektoetan barrena; soziologiaz, hizkera ikasian, herrikoian, arruntean, barrena; hizkera berezietan: teknikoak, argotak, eta abar; estiloz: ahozkoa, izkribuzkoa, eta abar... Barne-hizkera horiek guztiek osatzen duten multzoari, «hizkuntza barneko deribazio-sistema» deritzokegu. c) Deribazio-

sistema hauetxen arteko diferentzia eta tartea.

— Bi hizkuntzen arteko «gaurkotze-eta standardizatze-tartea». Hona hemen berez litezkeen alderdiak: a) «Baterakuntza linguistiko-soziala»ren maila, beren hizkuntzaren plangintza eta normalizazioari dagokionez (gure kasuan euskarari dagokionez), hizkuntz komunitate jakin bateko talde desberdinek zein mota eta mailatan parte hartzen duten kontuan edukitzen delarik. «Hizkuntz plangintza»ren aldagaiak hauek dira: delako hizkuntza horren «gaurkotze»-maila; «konbentzionaltasun»-maila; bere gaurkotze eta standardizatze-lanean, bertako altxorretik eta kanpotik hartutako →maileguen maila; hizkuntzari buruzko «berreskuratzearen» eta «jarraitasunaren» maila; plangintza egiterakoan, berezko eta manuzko jokabideen maila; zuzenketa horren zentralizazio-maila, edo-ta dibertsifikazio-maila, hau edo hura nagusi diren ber; eta abar; b) «hizkuntz batasuna»ri buruzko maila: lurraldeari buruz, dibertsifikazio dialektalari buruz, helburu hartua den «hizkuntz eredua»ri buruz, eta abar; c) baterakuntza linguistiko-soziala, eta hizkuntzaren beraren batasuna, aurrera eramaten diren gertabideen denbora edo abiadura; d) normalizazio linguistikoa mamitzen den moduak eta bideak, baita, zenbait aldiz, normalizazio horri eustekoak.

Ikertu eta neurtutako alderdi horien guztien balioak batu eta integratu, eta horretxek emango digu, harreman horretan, aurrikusgarri den «hizkuntz erakarpenaren gradua», alegia, «berezko hizkuntz menpekotasun ikusgarriaren» gradua.

4. Badago, ordea, horri erantsi behar zaion beste alderdi sinkroniko bat: «bortxa-indizea». Berezko hizkuntz menpekotasunean gerta daitekeen distortsio edo desbiderapena azaltzerakoan, beharrezko dirudi indize hau ere kontutan hartzeak; harreman diglosikoetan, ohizko oinarria izaten bait da. Hitz batez, ondoko hau neurtu behar litzateke: a) Desbiderapenaren gradua: alde batetik, ukipenetan dauden bi hizkuntzen artean berez agertu behar lukeen hizkuntz erakarpena litzateke; eta, bestetik, egiazki, diglosi bidez elkartzeagatik, indarrez, gertatu dena. b) Desbiderapen horren norabidea, positiboa izan liteke hori, orduan berez espero zitezkeen hizkuntzazko erakarpena eta menpekotasuna emendatzen direlarik; edo-ta, negatiboa izan liteke, orduan bion arteko erakarpen eta menpekotasun horiek urritu egiten direlarik.

Alderdi berri hau eranstea litzateke kontua, berez, M. J. Azurmendiren proposamenduaren arabera. Hizkuntz menpekotasunaren «eredu teoriko» edo matematikoan, beste aldagai bat izango litzateke hori; eta, honetara, eredu hori aplikagarri litzaieke menpekotasun desbideratua (diglosikoa, alegia) jasaten duten hizkuntzei ere; eta, hortaz, handiago litzateke ereduaren orokortasuna.

5. Beste puntu bat beharko litzaioke erantsi hizkuntz menpekotasunaren ikertzapenari, baita proposatzen dugun eredu teorikoari ere: «ikusmolde diakronikoa». Honela, eta ez bestela, agerreraziko dira hizkuntz menpekotasunezko harremanetan dauden «joerak»; baita joera horien mailak ere, diglosiaren izaera aldakorra eta suntsikorra kontutan hartuz. (Kezka hau beti agertu da M. J. Azurmendi-ren lan soziolinguistikoetan).

Eta orain alderdi horiek guztiek eredu teoriko horren formula orokorrean sartuz gero, beraren aplikazioak geronen hizkunz →egoeraren fotografia eman ahalko luke.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Hizkuntz ukipena

contacto de lenguas / contact de langues / linguistic contact

Gizabanako batek edo talde batek bi hizkuntza erabiltzen dituneko →egoerari esaten zaio *hizkuntz ukipena.* Hau da beraz, →elebitasuna sorterazten duen gertakizun konkretua. Hizkuntz ukipenak geografi arrazoiak izan ditzake: bi hizkuntz komunitateren arteko mugan, gizabanakoak ibil daitezke mugaz harantz eta honantz, horrela beren

→ama-hizkuntza eta auzoko komunitatearen hizkuntza erabiliz. Orobat gerta daiteke komunitateren bat beste komunitate bat dagoen lurralde batetara joatea ere. Horrela gertatu zen erromatarrak Iberiar Penintsulara etorri zirenean, edo espainiarrak Ameriketara joan zirenean.

Era berean, *hizkuntz ukipena* lan-arazoengatik ere izango dugu, esaterako, norbaitek bere herritik kanpora joan eta beste hizkuntza bat hitz egiten badu. Orokorki, bi hizkuntza edo gehiagoren ukipenak eskualde batetan (edo gizabanako batengan) sortarazten dituen arazoak, erabilera aldizkatuaz, edo bietatik bat ezabatuaz edo amalgamatuaz (hizkuntza batean besteko ezaugarriak sartuz) konpontzen dira.

Hizkuntza ama

lengua madre / langue mère / parent language

Hizkuntzen sailkapena egiten denean, eta jatorri bidezko multzoak egiterakoan, jatorrian bakarra izan, eta mendeen buruan eskualdeen arabera desberdindu den hizkuntza.

Latina, esate baterako, mendeen buruan, frantsesa, gaztelania, errumaniera, eta abar, bihurtu da. Hauen guztien «hizkuntza ama», hortaz, latina dela esan dezakegu.

Esaera honek, dena dela, okerbidetik eraman dezake; hizkuntzen artean, izaki bizidunen artean dagoen amatasunik ez bait dago. Hizkuntza beraren egoera-katean, bata zaharra da eta bestea berria. Baina besterik ez dago.

Hizkuntza hila

lengua muerta / langue morte / dead language

Jadanik hitzegiten ez den hizkuntzari, hizkuntza hila deritza; halere, zenbait kasutan, hizkuntza horrek bere betekizuna izan dezake irakaskuntzan, erlijio-ospakizunetan, eta abar. Latinak adibidez.

Hizkuntzalaritza

Ik. LINGUISTIKA

Hizkuntzen arteko konparazioa

Alfontso Irigoyen

I. KONPARAZIOAREN HASTAPENAK

Hizkuntzen alderaketa diogunean XVIII. mendeko azken alderuntz Linguistikan sortu zen mugimenduari begira dihardugu. Badu ekintza honek, berezkoa denez, zientziaurreko bere aldia ere, eta bereziki aipatu ohi direnen artean, hurrengo hauek aipatuko ditugu:

P. S. Pallas, *Linguarum totius orbis vocabularia comparativa* (1786-1789); L. Hervas y Panduro, *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas* (1800-1805); J. Adelung eta J. S. Vater, *Mithridates, oder allgemeine Sprachenkunde* (1806-1817).

Azkenengo biak, bereziki, gure arteko apologisten munduan ere ezagunak izan ziren.

Ez dugu utzi behar, ordea, lerro hauetan agerian ipini gabe geure Lizentziatu Andres Pozakoa, Orduñan jaioa eta gaztetan Flandretan bizi izanik, Lovaina-ko Unibertsitatean ikaskuntzak egin zituena eta geroago Salamankakoan, hizkuntzen konparazioan XVI garren menderako jadanik ari izan zela. Jakina, harentzat, ordurako normala zenez, Babiloniako hizkuntzen nahasmenduan hirurogei eta hamabi gelditu ziren gerokoen oinarri omen zirenak. «De la lengua latina —dio— han resultado las generales que ahora se usan en Italia, España, Francia y Vvalachia (azken hau errumanierari dagokio)», *De la antigva lengva, poblaciones y comarcas de las Españas, en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria,* Bilbao 1587, 13. or. kontuan hartu behar dugu, urte batzu lehenago frantsesaren jatorria grekoan bilatu zuela Joachim Périon-ek, *Dialogorum de linguae gallicae origine, eisque cum cognatione libri quatuor,* 1955. Horregatik errumanieraren jatorria ere latinean ipintzea aurrerapidea zen. Gogoan izan behar dugu linguistika erromanikoa ez zela zientzia gisa sortu Friedrich Diez-ek *Grammatik der romanischen Sprachen* 1936an argitara eman zuen arte.

«*Fater* —dio— con aspiración dice el tudesco, y más blandamente el flamenco, *vader,* de quienes los griegos tomaron *patir,* mudando la *f*

en *p,* y significa, en estas lenguas, al señor del vaso maternal. *Mater,* por la madre, significa, en lengua címbrica, la que ama, la que cuida, la que se aflige. Por el vino dicen los septentrionales *win,* y los griegos como no escriben dos *vv,* arrimáronse a la pronunciación más allegada de *oi,* y así este vocablo que en griego, latín, italiano, francés y castellano, es ocioso y muestra en su lengua natural babilónica, que el licor es bendito, o licor que arranca los malos humores, porque todo esto significa el verbo *vuien,* de quien se compuso el sincopado *vuin»,* 32. or. Oraindik konparatismoa finkatu gabe bazegoen ere argi ageri dira ematen ari zen urratsak. Gure lizentziatu honetaz E. Coseriu errumaniarra mintzatzen da, «Andrés de Poza y las lenguas de Europa» delakoan, *Studia Hispanica in honorem R.,* Lapesa, III, Madrid, 1977, 199-217. orr.

A. →Meillet-ek diosku, *Introduction à l'étude comparative des langues indo-européennes,* grekoek harreman estuak izan zituztela hizkuntzaz berek erabiltzen zutenaren antz handikoak ziren hainbat herrirekin. Baina ez zioten gertakari honi jaramonik egin, eta ez zuten horretaz dotrinarik finkatu. Gero hizkuntza horiek zeharo galdu dira, edo aldaketa larriak izan dituzte. Jesukristo aurreko III. edo IV. mendeetako →dialekto iraniera, frigiera, armeniera, traziera, iliriera, italiko eta zeltikoaren berri zehatzik izan balitz (greziar itzultzaileek nahitanahiez ezagutu behar izan zituzten arabera), hizkuntza indoeuroparren gramatika konparatzailea askozaz ere zehatzagoa izango litzateke, honezkero inoiz izango ez den bezalakoa. Arakatu zuten hizkuntza bakarra, ordea, beren herriarena besterik ez zen izan; eta alde askotatik ondo erdietsi zuten, erdietsi ere. Izkribatu behar izan zutenean, ondo jakin zuten alfabeto silabiko semitikoa bere hartan ez hartzen; eta →bokalak markaturik, →izkribakera alfabetikoa sortu zuten, hizkuntza indoeuroparrei zegokienez; eta honela zerbitzu ona eskaini ahal izan ziguten. Gramatikariek literatur textuetako dialektoen berezitasunak azaldu zituzten; baina ez ziren aldaketen seinalatzetik urrunago joan, eta ez zuten egintza linguistiko bakoitzaren berri nola eman zitekeen ikusi.

Hindutarrak iraniera arakatzeko aukera izan zuten, alde guztietatik beren hizkuntza bezalakoa zena; eta Alexandro-ren garaian eta Baktrianako erresumarenean grekoa. Baina ez ziren baliatu eskuartean izan zituzten aukerez. Hala ere zehaztasun miragarriz begiratu zuten beren hizkuntza. →Artikulazioaren ñabardurarik txikienek ere, ez zuten gramatikarien begirada zorrotzetik ihes egin. Morfologiaren oinarrizko atal guztiak arakatu zituzten, eta alor askotan gramatika konparatzaileak sanskritoari begira sortu zuen ikuspegia, indoeuroparrari begira ezarri besterik ez du egin. Greziarrek bezala beren hizkuntzaren egiturari zegokion erara hastapenetik moldatu zuten mailegaturikako →alfabetoa, eta oso arduraz markatu →bokalak.

India zaharrean eginikako ikerketa linguistikoek joera enpirikoagoa zuten; Grezia-koen ondoan eta parean ipiniz gero. Ez dugu ahantzi behar

Grezia-ko joeren arabera perpausaren zatien sailkapena egin zela; eta, gauzaren bat edo beste aldaturik, menderik mende iraun duela; erromatarrek greziarren urratsei jarraitu besterik ez bait zieten egin, A. M. Badia Margarit eta J. Roca Pons-ek dioskuenez, «Panorama de la lingüística moderna», J. Vendnyes-en *El lenguaje. Introducción lingüística a la historia,* Mexico 1958, delakoari ipinirikako sarreran datorren lanean.

Hindutarrei, greziarren antzera, histori eboluzioaren sena falta izan zitzaien, ordea. Sen hau XVII garren eta XVIII garren mendeetan oraindik neurri handi batean ilunbetan zegoen; greziarren eta hindutarren artean lehenago egon zen bezalatsu.

Egintza linguistiko bat azaltzeko, ez zitzaion kontu hartzen aurreko egintzen ikusmiratzeari, eritzi aprioristikoei baino. Esaldiaren teoria ez zen perpausen eta juzkuen aplikazioa besterik, eta gramatika osoa logika formalaren atal bat.

Gramatikazko logizismoak Port Royal-en aurkitzen du bere puntururik garaiena XVIII garren mendean, frantsesa eredutzat harturik —lehenago latina zen—.

Esanikakoaren ondoan ez da beharrezkoa seinala dezagun greziarrek eta erromatarrek beren hizkuntzak oinarri harturik, eta besterik ez, finkatu zituztela eginikako saioen ondoreak; eta ez zituztela ikertu hizkuntza desberdinen konparatzeak sortzen dituen problemak eta berek zerabiltzaten mintzaira berak ezagupide historikoari begira ipini.

Ezagunak dira XVI, XVII eta XVIII garren mendeetako eztabaidak hizkuntzen jatorriaz. Hedatuen zebilen eritzia hebraiera zela mintzairen ama zen.

II. KONPARATISMO BERRIA

Azalpen historikoaren ikerbidea XIX garren mendean sorturikakoa da, eta neurri batean XVIII garreneko azken aldean. Gure arteko gauzak eboluzio historikoaren ondore gisa agertzen dira. Horrela, ikusmiraturikako oro aldez aurretik bildurik izakien eta elkarteen bilbatze-teoria nagusiak finkatzen hasi ziren.

A) SANSKRITOAREN ERAGINA

Gramatika konparatzailearen sorrera sanskritoa alderdi batetik eta grekoa, latina eta germanikoa bestetik sistematikoki parean ipintzen hasteaz batera gertatu zen. Garai hartan India eta Europaren artean eraiki ziren harreman normalekin batera, europar batzuk sanskritoa ezagutzeko aukera izan zuten; eta hala, Europako hizkuntzen ondoan ezarririk, haiekin zer-ikusirik bazuela agertu ahal izan zen. Gertakari

hau Coeurdoux jesuita frantsesak Inskripzioen Akademiari 1767. urtean bidalirikako nota batetan seinalatu zuen, William Jones ingelesak Kalkuta-ko Sozietatean 1786an eginikako hitzaldian, eta denbora berean Paulin de Saint-Barthélemy jesuita alemanak. Azkenez, linguistikaren aldetik, sanskritoak zuen balio handia Fr. Schlegel-en liburuak finkatu zuen Europan, *Ueber die Sprache und die Wisheit der Indier, Heidelberg. 1808.*

Ikusten denez sanskritoaren ezaguera oinarrizkoa izan zen gramatika konparatzailearen jaiotza gerta zedin.

Izan ere, XIX garren mendea arakatze konparatzaile eta historikoari lotuko zaio, eta hala sortuko dira →filologia erromanikoa, eslabiarra, zeltikoa, eta abar, Filologia klasikoa bera ere azkenean zuzenbide berriari lotuko zaio. XIX garren mendean bada, ordea, eskola berrien aintzindari gisa →linguistika orokorrean ari den ordezkaririk; hala nola G. →Humboldt, hizkuntzen ekile eta sortzaile indarraren izatea markatu zuena, ἐνεργεία ulertu behar zela esanik, eta ez ἔργον bezala.

Jatorri bereko eta arrazoi beragatik gramatikazko egitura berdin batez loturikako hizkuntza indoeuroparren ezagupidea egokia zela ikusi zen etnologiarako, historia zaharrerako eta jakituriaren beste adar batzutarako, eta gauza honek berehala mahairatu zuen problema bat: delako hizkuntza-multzoan zein zen zaharrena. Hastapenean Asiatikako sorterroaren alde jokatu bazen ere, orok uste bait zuen sanskritoa zela katearen arteragoko maila, gero egiteak hobeto ezagutu ziren neurrian egiazko geografian finkatu ahal izan zen. Ipar eta Ekialdeko Europan.

Izan ere sanskritoak morfologia arkaiko bat gorde digu, eta gainera →kontsonante-→sistema egokia zer izan zitekeen indoeuroparra konturatzeko, eta gauza horiek gabe ezezagun edo gaizki ezaguturik geldituko ziren jatorrizko hizkuntzaren aztarren oinarrizkoak. Hain zuzen ere, India zaharreko gramatikariek zehatz eta mehatz arakatu zituzten beren mintzairaren fonetikazko eta gramatikazko punturik txikienak ere eta XIX garren mendean, zenbait argitaraldiren bidez europar jakintsuen eskuetan jarri ziren haien ondorerik nagusienak. Sanskritoak indoeuroparraren →fonetika eta morfologia erakusten duen neurri handian, bazen haren gramatikaren analisi bat, grekoen teorietarik at, eritzi linguistikoak berriztatzeko aski zena, eta egiteen begiratzean oinarritua.

1.—Bopp

Franz Bopp, 1791. urtean Maguntzia-n jaioa izan zen sanskritoa Europako hizkuntzen parean ipinirik, dotrina-multzo bat atera zuen lehenengoa. Paris-en izan ondoan, han bait zegoen ordüan Ekialde-ikerketen zentru nagusia; eta, sanskritoa erdi bakarrik eta gai gehiegi esku artean ez zuela ikusirik, 1816 garren urtean argitara eman zuen bere lehenengo lana Francfort-sur-le-Main-en: *Ueber das Conjugationssystem der Sanskritsprache, in Vergleichung mit jenem der griechischen, latei-*

nischen, persischen und germanischen Sprache, nebst Episoden des Ramajan Und Mahabharat in genauen metrischen Uebersetzungen aus dem Originaltexte und einigen Abschnitten aus den Veda's: Gramatika konparatzailea sorturik zegoen. Lehenik indiera zaharraren →konjugazio-sistema ezagutzen ikasi behar dugu —dio— eta grekoaren, latinaren, germanikoaren eta pertsieraren konjugazioekin konparatzen; horrela, duten identitateaz konturatuko gara, eta bidebatez nola organismo linguistiko sinplea apurka apurka deseginez joan den ikusiko dugu; eta badela joera bat, multzo mekanikoz aldatzearena, ezagun egingo zaigu, multzoon elementuok argitu ezik, itxuraz organismo berri baten antzera ere agertzen zaigula. Ezaguturikako hizkuntzen konparatzea, haren ustez, hastapeneko egoerara igan ahal izateko bide bat da; eta delako ikuspuntutik, gramatikako formak argiturik geldi zitezkeela zeritzon, eta analisa zitezkeela. Zentzu horretan Bopp oraindik XVIII. mendeko gizona da. Cristobal Colon-ek Indiarako bidearen bila zebilela Amerika aurkitu zuen bezala, Bopp-ek ere gramatika konparatzailea aurkitu zuen indoeuroparra esplikatzearen bila zebilela, Meillet-ek argitu zuenez. Hala seinalatzen du Georges Mounin-ek bere *Historia de la lingüística desde los orígenes al siglo XX,* frantsesetik espainierara itzulirikako liburuan, Meillet-en hitzak gorago aipaturikako lanetik harturik. Sanskritoa, grekoa eta latina baino zaharragoa izanik, eta duen morfologia argi eta garbiagatik, uste zuen haren bidez hizkuntzaren lehenengo egoeraraino hurbil zitekeela.

Berlin-go Unibertsitatera deitu zuten 1821. urtean, G. Humboldten gomendioz, eta han jarraitu zion bere ikerlanari. 1824etik 1833ra sei txosten aurkeztu zituen Berlin-go Akademiara. 1833an hasi zen gramatika konparatzailearen argitalpena egiten; eta 1849rarte ez zuen bukatu. Ordurako lituanieraren gramatika-argitaratzeak egin bait ziren, eta eslabiar filologiak aurrerapidea egin bait zuen, posible izan zitzaion balto-eslaboa ere besteekin konparatzea, eta bigarren liburukian eslabiera zaharra ere agertzen da lituanieraren ondoan. Burnouf-ek ikerbide zehatzen bidez avestikoaren irakurtzea posible eginik, pertsieraren ordez hizkuntza iranio arkaiko bat ere sartu ahal izango du. Gotikoa eta alemaniera berezirik ageri dira. Bigarren argitaraldian (1857-1861) armeniera ere agertuko da. Lan bereziak egin zituen prusiera zaharraz eta albanieraz, eta zeltikoa ere ez zuen baztertu. Erratu batzu ere izan zituen, bere metodoaren kontzientzia osoa ez bait zuen hartu; baina hizkuntza malaio-polinesioak eta Hego Kaukasokoak indoeuroparraren familiak ez direla seinalatzera heldu zen.

2.—Rask

Bopp ari izan zen garaitsu berean; eta beste bide batetik, Rasmus Rask daniarrak hizkuntza germanikoek grekoarekin, latinarekin eta bal-

to-eslabierarekin duten ahaidetasuna ezagutzera eman zuen Kopenhave-n: *Undersögelse om det gamle Nordiske elle Islandske Sprogs Aprindelse (Islandiera zaharraz ikertzeak).* Lan hau 1814. urterako bukatua izan arren 1828rarte ez zen argitara eman. Haren bigarren partea alemanierara itzulirik 1822an agertu zen Halle-n.

Rask-ek, ordea, sanskritoa ez zuen bere ikerkuntzetan sartu. Hala ere konparatu zituen hizkuntzen sorterro berberaren berri eman zuen argi hizkuntzen lehenengo egoerara heltzeko alferrikako ahaleginetan ari izan gabe. Aski du, konparazio baterako, islandieraren bukaera bakoitza, gutxi goiti beheti, grekoan eta latinean agertzen dela jakitea; eta, alderdi horretarik, bere liburua zehatzagoa eta modernoagoa da Bopp-ena baino. Hitzen arteko elkarkidetza —dio— ez da gauza ziurra. Herrien arteko harremanetan hitz asko eta asko iragan daiteke hizkuntza batetik bestera, hizkuntzok jatorriz eta egituraz zeharo desberdinak izan arren. Gramatikazko elkarkidetza askozaz ere ziurragoa da →ahaidetasun edo sorterro berberen seinale gisa; zeren beste batekin nahasi den hizkuntza batek, oso gutxitan hartzen bait du harengandik, edo ez bait du inoiz hartzen, morfologiazko →aldaketarik. Oraindik →letrez mintzatzen bada ere, eta ez →soinuz, Rask-ek elkarkidetza fonetikoari ematen dion lekua nabarmena da. Germanikoan gertaturikako aldaketa kontsonantikoaren legeak formulatu zituen, eta haren eragina nabari da 1822an →Grimm-engan. Adibidez, →leherkarien sistema, nolabait esateko, gradu batez aldatu izan zela: germ. *f*, ϕ, *h*, gr. n, z, x, edo lat. *p, t, k;* germ. *p, t, k*, gr. β, δ, γ, lat. *b, d, g;* a. al. *d*, got. ϕ, eta abar. →Lege fonetikoen lehenengo etsenpluak dira eta Linguistika historiko modernoaren oinarri.

3.—Grimm

Grimm hizkuntza germanikoen aldaketa fonetikoen ikertzeari lotu zitzaion. Pott etimologiari, baina gogoan harturik Grimm-en fonetika lanak. Berdin gertatzen da beste filologietan, klasikoa horretan atzeratuago ibili bazen ere.

Zeuss-en gramatika zeltikoak (1853) linguistika zeltikoa sortu zuen.

4.—Schleicher

Schleicher (1821-1868) izan zen lehenengo saiatu zena indoeuroparra berreraikitzen, eta alderdi bakoitzean izan duen eboluzioa jarraitzen; eta finkatu zuen ikerbideak ondore nabarmenak izan zituen. Lituaniera bizia arakaturik, izkribuen bidez erabiltzen ziren hizkuntzei, hizkuntza bizi bat erantsi zien, konparatzekotan. Hizkuntzetan alderdi historikoa ikusteko joera, nagusituz joan zen garai hartan eta fenomenista bihurtu zen zehatz eta mehatz. Joera berriak neogramatikoetarako bidea hartuko zuen, Brugmann eta Osthoff, Verner, Grassmann, Delbrück izan direlarik ikertzailerik nabarmenenak.

Schleicher-ek eboluzio fonetikoan fede itsua zuen; eta, haren akatsen artean, eboluzioaren zehaztasun matematikoa zegoela uste izanik, eboluzio linguistikoa beti jauste-bidean egiten zela, eta horrela egoera sinple batetik —indoeuroparra— egoera-konplexutasun handiagoko batera iragaten zela —hizkuntza modernoak—. Baina geroago argi ikusi izan da maiz jatorrizko mintzaira ez zela hain erraza eta sinplea.

Schleicher-en *Compendium* delakoa 1861.ean argitara eman, eta urte. batzu geroago Fick-ek indoeuroparraren lehenengo →hiztegi etimologikoa eskainiko zuen, konparatze bakoitzean prototipo indoeuropar bat mugaturik.

5.—Curtius

Georg Curtius-ek gramatika konparatzailea filologo klasikoen artean sartu zuen; eta bidebatez linguistikara eraman zituen helenistek eginikako aurrerapideak. *Grundzüge der griechischen Etymologia* (1858-1862) izan zen hizkuntza zahar baten lehenengo hiztegi etimologiko ona.

6.—Bréal

Michel Bréal-ek gramatika konparatzaileak eginikako aurrerapideak Frantzian sartu zituen eta 1866an *Société de linguistique de Paris,* delakoa sortu zuen.

7.—Grassman

Gainbegiraldi batek anomaliak besterik erakusten ez zituen lekuan, elkarkidetza zehatzak agerrerazten zituen gramatika konparatzailearen metodoak, eta 1863. urtean Grassmann matematikariak itxurazkoa baino ez den anomalia bat gertaturik, nola argitzen den azaldu zuen: alegia, skr. *b,* gr. n, got. *b* zenbait kasutan izan ez den beste →fonema berezi bat ontzat hartzera makurtzeko arriskua zegoela. Baina sanskritoan eta grekoan aspiratu batek beste bat disimilatzen zuen —beste alderdi batetik euskaraz ere beste horrenbeste gertatu izan da—; eta fenomeno hori hizkuntza haietako texturik zaharrenak baino lehenagokoa da. Horrela skr. *bandháh, bándhuh* hurrengo zaharragoetatik etor zitezkeen: *bhandháh, bhándhuh,* eta gr. ηενθερός forma →* φενθερός delakotik. Lehenengo aspirazioa galdu zutenez gero, gorago aipaturikako elkarkidetza faltsua da, eta ez dago beste fonema bat izan zenik zertan postulatu beharrik.

8.—Verner

Indoeuroparraren →leherkari →gorrak, **p, *t, *k,* germanikoan →ozen agertzen dira: alderdi batetik *f, ϕ, h,* eta bestetik *ƀ, đ,* ϒ (got. *b, d, g).* Verner-ek 1877an frogatu zuenez, arnasbehekari gorra aurreko

elementu bokalikoa grekoaren edo sanskritoaren elementu toniko bati badagokio, gorde egin zen, eta atonoari baldin badarraikio ozen bihurtu zen: *bhráta* 'anaiea', gr. φρᾰ́τηρ direlakoen ondoan, gotikoak *broθar* 'anaiea' du, baina *fadar* 'aita', sanskritoak *pitá* eta grekoak πατήρ dituztela. Argitasun honen bidez, alderdi batetik germaniko arruntean indoeuroparraren →tonuaren irautea ikusten da; eta, bestetik, gramatikazko zenbait eiteren kontu ematen da. Aitzitik →lege fonetikoen balioa indartzen zen, eta azken finean Schleicher eta Curtius-en joera nagusietarik ez zen aldentzen. Osthoff eta Brugmann-ek honi forma zehatz bat eman zioten *Morphologische Untersuchungen* (1878) delakoa; eta teoria huts agertzen zen aldetik, arrazoiz eztabaidatua izan bazen ere, *de facto* Schuchardt-ek berak ere nolabait ontzat hartu zuen.

Verner-en aurkikundeak zehaztasun osoa ematen zion hurrengo zimentarri honi: historia fonetikoa ez dela egiten azalean ageri diren itxura hutsez, elkarkidetza sistematikoen bidez baino.

Brugmann-ek 1876tik aurrera erakutsi zuen bazirela indoeuroparraren *n̥ eta *m̥, hau da, *n* eta *m* bokal baliokoak, *n* eta *m* kontsonante baliokoen ondoan; eta honek bokalismoaren eremuko aurrerapiderako erruz lagundu zuen, sonanteen ezagupidea mugatu ahal izan bait zuen, eta bokalismo indoeuroparraren teoria orokorra finkatzeko bidean jarri.

9.—De Saussure

Ferdinand de →Saussure (1913an hila) izan zen *Mémorie sur le système primitif des voyelles dans les langues indo-européennes,* 1878an agerturikako lanean, azken urteetako aurrerapideak bildurik, indoeuropar bokalismoaren azken finkatzea egin zuena. →Bokalik →itxienak, **i* eta **u,* aurrerantzean ez ziren hartuko zimendu-bokaltzat, **j* eta **w* direlakoen forma bokalikotzat baino; *r̥, *l̥, *n̥, *m̥ elementuak **r, *l, *n, *m* direlakoen forma bokalikoak diren bezala. Horretara indoeuroparrak berez ez du bokal bakarra baino, **e* eta **o* tinbreetan ager daitekeena, edo agertzen ez dena. Elementu morfologiko bakoitzak **e* graduko edo **o* graduko bokalismoa du, edo ezer gabeko gradukoa.

Guzti honek hizkuntzalariak →analogiak eboluzioan duen eragina gogoan hartzera bultzatu zituen: lege fonetikoen oinarriak baliozkoak eta emankorrak direla ahantzi gabe.

Ezin utz dezakegu aipatu gabe, oso ezaguna bada ere, Saussure-ren *Cours de Linguistique générale,* ikasleek bera hil ondoan Geneva-n argitara ziotena; ikuspegi berri baten zimentarri bilakatu bait zen, eta berorren eraginaz, Pragako Zirkulu Linguistikoa ere abiatu bait zen, eta ondorioz zientzia linguistikoak bide zabala egin bait du.

→Indoeuropar hizkuntzen ikerketei aplikatu zaizkien oinarriak, beste familia batzuren hizkuntzetarako ere erabili izan dira. Bereziki hizkuntza semitikoen gramatika konparatzaileari, fino-ugrienari, Indone-

siakoenari, hizkuntza bantu direlakoenari (eta oro har Afrikakoenari) aplikatu zaizkie. Beste hizkuntza batzu, halakorik izatera abiatu izan ez baldin badira, indoeuroparrarena bezalako morfologia konplexurik eskaintzen ez dutelako izan da; eta alor horretan indoeuropar munduak, esan daiteke, oraingoz eskaintza bakarra egin duela.

III. EUSKARAREN ARAZOA KONPARAZIOAREN BARANOAN

Eta euskal hizkuntza non kokatu behar dugu? Non du sorterroa, eta non ditu ahaideak? Indoeuropeistek ez dute gure hizkuntza, ezagutu bezain laster, delako familian sartu ahal izan. Hori gauza argia izan da Humboldt-en garaitik beretik hasirik.

Horrek ez du esan nahi, ordea, gure hizkuntzak hitz indoeuropar mailegaturik, eta halako hizkuntza bat baino gehiagoren eraginik ezin izan dezakeenik. Baina horri ez zaio ahaidetasuna deitzen; ez bait du jatorri bereko denik adierazten; auzoko diren hizkuntzen arteko harremanak direla medio, zenbait eratako afinitateak sortu direla baino.

A) IKERKETEN EGOERA

Alderdi batera utzirik euskaraz ditugun latinaren eraginezko →maileguak eta egiturak, edo-ta euskararen kausaz inguruko erdaretan sortu diren →sustratuzko eiteak; beti ez bada ere, maiz neke gehiegi gabe begien bistara ekar bait ditzakegu, bada euskarazko hitzik lehenagotik halako hizkuntzaren baten edo besteren eraginez gure egunotan irauten duenik. L. →Mitxelena-k bere *Sobre el pasado de la lengua vasca* liburuan, Donostia 1964, kapitulu bat eskaintzen dio gaiari ordurarte proposaturikako hainbat konparatze galbahetik iraganeraziz eritzi zorrotz eta estuz eta zutik gelditzen direnak gutxi badira ere, eta horietarik batzu hizkuntza indoeuroparretan jatorri iluna dutenak, ezin esan daiteke hizkuntza horrekin edo horiekin harremanik izan ez zenik; zenbait kultur hitz, geroago latinaren eraginez, estaldurik geldi bait zitekeen. Edozein modutan ere, gure hizkuntzaren ondoan mintzatu izan zena, edo zirenak, zelta moldekoak ziren agian, zeltiberiko izenez deituak. Botorrita-ko brontzean dugu halako textu luze bat. Arkeologoen eritziz penintsulako inbasio indoeuroparrak ez ziren hasi Kristo aurreko mila eta ehun bat urte ingururarte.

1.—Iberismotik kaukasismora

H. →Schuchardt-ek euskara, (iberikoa ere tartean sartzen zuela), euskal apologisten ondoan Humboldt-en bidez euskal-iberismoaren teoria

hedatua bait zen eta oraindik zutik irauten bait zuen, hizkuntza hamito-semitikoekin ahaidetasunez loturik zegoela frogatzeari ekin zion. Hipotesi horren zimentarriak urriak ziren, textu iberikoak ondo irakurri gabe (edo gaizki irakurririk) ari izan bait zen; eta horien artean zeltiberikoak ere sartzen bait ziren, geroago Gomez Moreno-ri eskerrak irakurri ahal izan direnean ikusi denez. Zeltiberiko ez direnak ere euskararen bidez ez dira argitu ahal izan; eta delako hipotesia kritikari ezin eutsirik gelditu da. Haren ondoan, ordea, bereziki →Uhlenbeck, Dumézil, →Bouda eta →Lafon-en eraginez, besteak beste, beste hipotesi bati ekin izan zaio: euskara eta hizkuntza kaukasikoen artean dagokeen ahaidetasuna ikertzeari. Mitxelena eszeptizismo handiz mintzatu zen gorago aipatu den liburuan, arazoaren *status questionis* sakon ikerturik. Izan ere hogei eta hamarretik behera ez dira hizkuntzok; eta gero, sistematikoki, historian zehar erantsirikako elementu oro bertan behera utzirik, eta izanikako eboluzioa ahal den neurrian finkaturik; eta beste alderditik euskal hizkuntzaren egoera zaharrera hurbiltzen ahalegintzen garela, egiturazko homologiak konparatu. Ez analogia hutsak, itxura hutsak. Gureak eta hangoek, edo hango batzuek, jatorri berbera baldin balute, jatorri horren eraginez alderdi batean eta bestean, denbora luzeegiaren boterez ezin ezaguturikako bihurtu ez baldin badira, agertuko litzaizkigukeen izari berdinak begien bistara atera beharko genituzke. Ondoreak fidagarri gerta daitezen hori da gorago ikusi den konparatismoaren aintzinatzean zehar sorturikako metodologiaz baliaturik bederen egin beharko litzatekeena, ondorioak fidagarri gerta daitezen.

Gogora ekar dezagun indoeuropar hizkuntzak konparatzean, deklinazioaren eta →aditz-jokoen homologiak ere, eta bereziki halakoak, sartzen direla; eta, gai hauetan hasi gabeak direnentzat, edozein hizkuntzatan hain beharrezko den *izan* aditzaren beraren zenbait adizki konparatuz azalduko ditut, Hans Krahe-ren *Lingüística indoeuropea* alemanieratik itzulirikakotik harturik: indoeuroparra **es-ti,* indio zaharra *ás-ti,* grekoa ἐστι , latina *est,* gotikoa *ist,* lituanoa *ésti,* eslabo zaharra *jest* (bulgaro zaharra *-tь).* Gaztelaniaz latinaren ondorik *es* izatera heldu denez gero, euskarari *da* dagokio, besteekin zer-ikusirik ez duela.

2.—Swadesh-en Legea (Tovar)

Metodologia klasikoaren bidez, agian, ezin heldu garen denbora neurrietara heltzeko asmoz, A. →Tovarrek, beste metodologia batez baliaturik, →glotokronologiarenaz alegia, saio interesgarria eman zuen argitara 1961ean: «El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence». *BRSVAP* (1961), 249-281. orr., Bouda, Lafon, →Mitxelena, Vycichl eta Swadesh espezialisten laguntza zuela hizkuntza desberdinetarako. Euskal hizkuntzaz gainera, bederatzi hartzen ditu gogoan: «churchi, circasiano, avaro, georgiano, bereber del Rif, bereber de Sus,

egipcio, copto, árabe». Euskara hizkuntza horietarik geografian urrun gertatzeagatik bakardade osoan dagoela gogoan harturik, jatorri bereko izatea baino gehiago, hartuko luke ontzat hizkuntzok bakoitzaren eskualdean gerta zitekeen lehen hondar batetik edan zezaketela, gero bestelako elementu ibiltariak gainean kokatu bazaizkie ere. Eta zentzu horretan gaineratzen du Ipar Afrikako hizkuntzak euskararekin metodologia horren bidez konparatu dituzten elementu berdintsuak mendebalaldeko hondar batekoak izan daitezkeela, Kaukasoko hizkuntzetakoak Europako beste hondar batekoak izan daitezkeen bezala, Mediterraniora iristen ez omen zirenak. Izan ere, uste du, orduan ikertzaile famatuen artean bultzaturikako teorien kontra —euskara Kaukasoko hizkuntzekin konparatzen bait zuten—, bereber eta euskararen arteko ahaidetasuna Kaukasokoen artekoarena baino hurbilagoa dela, hipotesi bezala orain zortzi mila urte inguru berezi zirela esanik; eta jatorri berbera baldin balute, neolitikoaren hastapenetara helduko ginatekeela. Baina Kaukasoko zenbaitekin konparatuz gero, neolitikoa baino lehenagoko garaira helduko omen ginateke.

B) IKERKETEN ETORKIZUNA

L. Mitxelena-k seinalatu zuenez ez dugu esperantza handiegirik ipini behar glotokronologian, metodoaren beraren matematikazko sustraietara heldu bait zen kritika 1962. urtean C. D. Chrétien-en eskutik. Kritikatzaileak salatzen zuena —arrazoi onak zituela, gainera— ez da eredu matematikoa bera, linguistika diakronikoan →datazio-arazoei aplikatzea baino.

Egun, ordea, Georgian bertan bereziki, konparazio-lanok indar berria hartzen ari dira Tiflis-eko eskolako buru agertzen den A. →Čikobava-ren inguruan.

Ik. GRASMAN-EN LEGEA; GRIMM-EN LEGEA; LINGUISTIKA ETA MATEMATIKA

Hizkuntzen irakasbideak

Jose Antonio Mujika

I. HIZKUNTZALARITZA APLIKATUA

Linguistikak hizkuntzari buruz sorturiko teoriak eta hizkuntza desberdinez eskaintzen dituen *zehaztapenak* eginkizun praktikoetara ekartzea, hauetarako egokitzea eta, izenak berak nahiko argi dioenez, hauei aplikatzea dagokio hizkuntzalaritza aplikatuari. Honen xedea praktikoa da, ez teorikoa. Hizkuntz aplikazioen eremuak asko dira: itzulpen teknikak, komunikabideen ingeniaritza, literatur kritika, →hizketa-akatsen sendabideak etab. Gehien eta zabalkien landu dena, halere, hizkuntza berrien irakaskuntzari dagokiona da. Ikerketa-sail aski berria da hau, dagokion lekugunearen luze-zabalak eta mugak oraindik zehazteko eta finkatzeko dituena, alderdi askotatik jasoriko xehetasunak arauz eta neurriz aplikatzea gertatzen bait zaio: linguistika teorikoak irakas-edukinak zehaztu eta aurkeztu ahal izateko tresneria eskaintzen dio; edukin horiek mugatu eta egituratzeko, berriz, →psikolinguistikaren eta →soziolinguistikaren emanak ditu beharrezko; eta irakasbideari dagokionez, beste aldetik, psikologiak eta pedagogiak ere badute zer-esanik. Guzti honen azterketa eratua burutzeko dago oraindik, neurri handi batean, metodologia eta metodo desberdinen inguruan egin diren azterketei esker, batez ere, urrats handiak eman badira ere.

II. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: HELBURUAK

Hizkuntza berrien irakaskuntzari buruzko ikuspegia oso aldatu da eta, aldi berean, zehaztu azken mende erdi honetan. Eta ez irakasbideei dagokienez soilik. Helburuak ere —eta agian, batez ere— garbiago eta zehatzago finkatu dira. Hizkuntz ikasleen helburua ez da gehienetan, oraintsu arteko irakasbideek aditzera ematen zuten bezala, hizkuntza

berriaren gramatika teorikoki ezagutzea, haren egituren berri jakitea, hitzzerrenda luzeak buruan sartzea edo, hitz batean esateko, hartan hizkuntzalari zorrotz bilakatzea. Hizkuntza berrian nolabaiteko *performer,* →hiztun, izatera iritsi nahi du, gehienetan behintzat, ikasleak; hizkuntza hartakoekin elkar aditzeko eta komunikatzeko gauza izatera iritsi nahi du eta, hori lortuz, gizarte arrotzean sartu eta nolabaiteko kide izan.

Irakasbide «klasikoek» ez zuten helburu hau garbiro eta zehazki definitzen. Hasteko, mintzaira idatzia zuten eredu. Egungo irakasbide askok, berriz, hizkuntzalaritzaren joera berriei jarraikiz, komunikatzeko ahalmena dute helburu, hau da, perpaus zuzenak eta egokiak ulertu eta esateko —bigarren mailan, irakurri eta idazteko— ahalmena. Zuzenak edo gramatikalak izan behar dute perpausek: →fonetikaz *(etxe,* ez **etze),* →fonologiaz *(atso/atzo),* morfologiaz *(eskua garbitu dut,* ez **eskua garbitu naiz),* →semantikaz *(Mirenen ahizpa,* ez **Mirenen arreba),* etab. Zuzentasun gramatikala, ordea, ez da nahiko; beharrezko bai, nahiko ez. Perpausek inguruari, gizarte-mailari, →egoerari, hizlarien funtzioari eta abarri dagozkienak izan behar dute (egunoroko solasean ez luke inork *hainbat kaloriatako janariaz elikatu ziren* esango edo agur protokolario batean *Kaixo, aspaldiko!).* Perpaus zuzenak —*grammatical competence*— eta egokiak —*communicative competence*— ulertzeko eta sortzeko ahalmena du hizkuntz irakaskuntzak helburu nagusi.

Helburu nagusia xede berezietan banatzen da, ordea, gizarte-funtzio eta maila desberdinak, esan bezala, hizkuntz trebetasun desberdinak eskatzen bait dituzte. Nork bere ama-hizkuntzan maila gehienak erraz mendera ditzake: egunorokoa, teknikoa, argota, jendaurrekoa... Hizkuntza berrian hori lortzea ez da hain erraza. Ikasleak nolako beharrak izango dituen, zein perpaus-mota egin beharko dituen jakin beharko litzateke, beraz, edozein irakasbideren taxuketa egiterakoan. Soziolinguistikari dagokio hizkuntzaren eta gizarte-funtzioen arteko erlazioak aztertzea; hark esan beharko luke zein diren egoera eta maila bakoitzari dagozkion perpaus-motak. Eremu horretan, ordea, gehientsuena azterkizun dago oraindik. Adinari dagokiona da zerbait aurrerago eraman dena: haurren behar linguistikoak aztertu ondoan, haiei egokituriko irakasbide bereziak sortu dira. Hortik landara, metodogileak intuizioz ari dira, neurri handi batean behintzat.

III. HIZKUNTZ IRAKASKUNTZAREN FAKTOREAK

Hizkuntza berrien irakas-ikaskuntzaren egitekoan hiru faktore dira hizkuntzalaritza aplikatuak gehien bat aztertu dituenak: *zer* irakatsi (hizkuntz edukinen arazoa), *nola* irakatsi (glotodidaktika) eta *nori* irakasten zaion (ikasleen gaitasun-motibazioak).

A) EDUKIN LINGUISTIKOA

Irakasbideen hizkuntz →edukinak —perpausak, egiturak, lexikoa...— mugatzeko orduan bi ikuspuntu nagusitan hartzen dute oinarri metodogileek: a) Hizkuntza berriaren ikasleak ez du hizkuntza hau bere osotasunean, nolabait esan, ikusi behar, lehen unean behintzat. b) Hizkuntza berriaren ikasleak ez du «hizketan» ikasi behar; hizketan badaki eta mintzamenari dagozkion trebetasunen jabe da. Trebetasun hauek hedatu eta egokitu behar ditu, ez hutsetik sortu. Psikolinguistikak batik bat →ama-hizkuntza bereganatzean gertatzen direnak aztertu eta hizkuntza berriak ikastearen gorabeherak horren aintzat hartu ez baditu ere, ahobatez onartzen dute ia denek bi eginbide desberdin direla, hizkuntza berria ikastea jadanik bereganatuak direnak hedatzea besterik ez dela. Zer hedatu eta nola, hori da ahalik eta zehazkien mugatu behar dena.

Horiek horrela, metodogintzak, beste ezer baino lehen, hizkuntz edukinak hautatzea eta egituratzea eskatzen du. Eta aukera hori gidatuko duten erizpideetan denak bat ez badatoz ere, badira gehientsuenek onarturiko joera nagusi batzuk:

1.—Baliagarritasunaren erizpidea

Ikasleak gehien erabili beharko dituen elementuak landu behar ditu lehenik, hots, elementurik baliagarrienak. →Maiztasunak eta zentraltasunak egiten dituzte elementuok baliagarri. Hiztun bakoitzak bere-bere dituen forma edo →*idiolektoak* ditu; bestetik, eskualde desberdinetan →*dialekto* desberdinak finkatzen dira; hirugarrenik, gizarte-maila bakoitzak bere forma bereziak edo *soziolektoak* izaten ditu: irakasbide batek, baliagarri izan dadin, joera desberdin guzti horien oinarri erkideetatik abiatu behar du, hizkuntzaren gunetik. Lehen lana, beraz, hizkuntza barneko alderaketa bati ekitea da, hizketa-joera guztien (idiolekto, dialekto, soziolekto, →argot, mintzaira literarioa...) azpian dagoen gunea eta guztietan agertzen dena, lexikoan bezala gramatikan, finkatu ahal izateko. Horra zertan datzan hizkuntz elementuen zentraltasuna.

Horrekin loturik doa maiztasunaren arazoa. Hizkuntza bateko hiztunek maizenik erabiltzen dituzten elementuak ditu hizkuntza hartako ikasleak baliagarrien. Erizpide hau lexikoari bezala gramatika-egiturei ere aplika dakieke eta aplikatu behar litzaieke. Gaurdaino, halere, hizkuntzalaritza aplikatuak hitzen maiztasuna aztertu du batik bat, bestelako hizkuntz elementuak horren aintzat hartu gabe. Egunoroko solasean oso lexiko labur hori mugatzeko azterketak, deskriptibatzaile hutsak batzuk eta irakaskuntzari aplikatzeko asmoz beste batzuk, hots, metodoen →hiztegia finkatu eta mailakatzeko, irakurgai errazak eta programatuak (800 hitzez baliatuz, 1.000 hitzez...) egiteko etab. Ingelesek egin zuten lehenetariko bat, *basic english* (basic: *British American Scientific International Commercial)* delakoa finkatzeko, 850 eta gero 1.993 hitzetako

zerrendak osatuz, batik bat, ordea, teknika eta merkataritzaren beharrei begira. Frantsesek hasieran *français élémentaire* eta gero *français fondamental* deitu zutena finkatu zuten, lehen mailan 1.500 eta bigarrenean 3.000 hitzetako zerrendak osatuz. Beste hizkuntza batzutan ere egin izan dira gisa horretako azterketak. Dena den, hitzen maiztasuna finkatzea lehen begiradan erraza badirudi ere, askok uste baino korapilatsuagoak dira gauzak. Hasteko, azterketaren metodologiaz ez datoz denak bat eta, jakina, iritzi desberdinei ondorio desberdinak jarraikitzen zaizkie: hizkuntza berean zerrenda aski desberdinak eman izan dira oinarrizkotzat. Ahozko mintzaira al da aztergai bakarra? Idatzizkoa nahiko al da? Nondik eta nola hautatu behar dira aztergaiak? M. de Grève-k eta F. van Passel-ek hiru sail nagusitan banatzen dituzte azterketa-motak.

a) Subjektiboa: metodogileek intuizioz aukeratzen dituzte hitzak; bide hau, ez bait da segur, baztergarria da.

b) Objektiboa: aztergaiak ahalik eta zehazkien hautatuz gero, ondorio zehatzak jaso.

c) Objektibo zuzendua: idatzizko zati labur ugari eta mota askotakoak aukeratu, →arkaismoz eta estilo bereziz osaturiko textuak baztertuz, zati horietatik milioi bat hitzez eginiko →*corpus* bat osatu, eta ondorioak atera.

Ondorio hauek, ordea, interpretatu eta zuzendu egiten dira: hedaduraz, hau da, hitzak zenbat aldiz eta zenbat zatitan azaltzen diren ikusiz (eman ditzagun 100 aldiz azaltzen diren bi hitz; bata bi zatitan bakarrik, bakoitzean 50 bat aldiz, azaltzen bada eta bestea berriz zati askotan, azken hau zaigu baliagarriago); balio sortzailez, hau da, hitz →eratorriak sortzeko bide ematen dutenei balio handiagoa eskainiz (eman dezagun *platera* eta *gela* maiztasun berdinekoak direla; azkena zaigu baliagarriago, *logela, egongela, ikasgela* etab. sortzeko balio bait du); aplikazio fonetikoz etab. Beste batzuek idatziaren azterketa bestetarako utziz hizkunzen irakaskuntzak ahozkoaren azterketa eskatzen duela diote. St. Cloud eskolakoek honako hau eransten dute: maizenik erabiltzen diren hitzak gramatikalak edo funtzionalak dira (→preposizioa, →juntagailua...); ondoren, →aditz erabilienak, irregularrak franko askotan, datoz; hitz konkretuak, berriz, gutxiagotan azaltzen dira. Horregatik beren zerrendei *mots disponibles* izendatu dituztenak erantsi dizkiete, hau da, maiztasun txikikoak, edo behintzat maiztasun nahasiagokoak, baina egoera jakinetan nahiztaezkoak direnak. Iritziak iritzi, garbi da oinarrizko hizkuntzaren arazo honetan, esan bezala gramatika-egituretara ere luzatu behar litzatekeena, mugak ez dira dekretoz ezartzen; hau ez da arauen eremua, estatistikarena baizik, alderaketa intralinguistikaren egitekoa.

2.—Desberdintasunen erizpidea

Irakasbideen edukinak mugatzeko ama-hizkuntzaren (A hizkuntza) eta hizkuntza helburuaren (B hizkuntza) arteko antzak eta aldeak ere

kontutan hartu behar dira. Hizkuntza bakoitzak bere erara kodifikatzen du hiztunen esperientzia, sistema fonologiko, gramatikal eta semantiko berezien bidez. Lexikoan ikus daiteke hori ongienik: hizkuntza batek fenomeno-sail bat hitz bakarrez adierazten du eta beste azpisailak berezten ditu *(hermana, arreba/ahizpa)*. Hizkuntza berrien ikasleak, ohartu ere gabe, ama-hizkuntzako →sistemak hizkuntza berrira aldatzen ditu. Berdinak diren elementuetan lagungarri gertatuko da *transferentzia* hori, baina desberdin direnetan kaltegarri izango da eta *interferentziak* sortaraziko ditu (**dabiltxa, *nere amari ikusi diot, pegar el piano)*. Kultur mailan ere gerta daitezke interferentziak. Hizkuntzen arteko alderaketa kontrastiboa beharrezkoa da, beraz, berdintasun-desberdintasunez baliatu ahal izateko: berdintasun garbiak eta erabateko kontrasteak errazago jasotzen ditu ikasleak, erdibidekoak kontu handiagoz landu behar direlarik. A hizkuntzarekiko berdintasun fonologiko, gramatikal eta semantiko ugari dituena hizkuntza errazagoa da, beti ere, ikasteko. Erdaratik harturiko hitzek, adibidez, anitz errazten dute euskal lexikoaren ikastea, gainontzeko elementuetan gauzak bestela badira ere.

Oinarrizko hizkuntzaren berri eta A-B hizkuntzen arteko desberdintasunen berri emango digun alderaketa bikoitz honek (intra eta interlinguala) hizkuntza bakoitzean ondorio bereziak emango ditu. Desegoki da, beraz, hizkuntza bateko metodoak bestetara itzultzen aritzea. Metodologiak har daitezke, metodoak ez. Bestela eginda, gunetik urrun, berdintasunez baliatu ezinean eta kultur interferentziatan erortzeko arriskuan ibiliko ginateke.

B) GLOTODIDAKTIKA

Hizkuntza berriak ikasteko eman behar diren urratsen berri eta aplikatu behar diren teknika eta ariketen berri glotodidaktikak ematen digu. Urrun dago, oraindik, puntu hauei buruzko akordioa; joera desberdin asko dago eta, horren ondorio, metodo-mota ugari. Halere ikuspegi batzuk nagusitzen ari dira. Hona John B. Carroll-ek eta W. Moulton-ek proposaturiko zenbait printzipio nagusi:

1.—Mintzaira mintzatuaren lehentasuna («Language in speech, not writting»)

Hizkuntza berez mintzoa da, ahoz ematen dena, fonemen artikulazio jakin batean oinarritzen dena. Idatzia, berriz, bigarren mailako zerbait da, →ahozkoa nolabait ematen saiatzen dena, haren alderdi adierazkor asko jaso gabe utzirik halere. Hiztun bakoitza ama-hizkuntzaren →fonemak entzuten eta esaten trebatua dago eta beste hizkuntzen fonemetarako gorra da. Belarriak hartzen ditu, bai, hizkuntza arrotzen →soinuak, baina ez dira entzulearen «bahe fonologikotik» igarotzen eta zerebruak

ez du haien balio funtzionala jasotzen, forma eta →funtziorik gabeko zarata nahasi eta huts dira. Ikasleak sistema fonologiko berrira ohitu behar du eta horretarako fonema bakoitza ez bait da ezer soinu-→katearen barnean ez bada, hasieratik kolpe huts egitea litzateke idatzitik abiatzea, ama-hizkuntzaren sistema erantsiko bait lioke, ohartu ere gabe, ikasleak idatziari, sistema berrian sartu gabe.

Printzipio hauetan finkatzen dira Ameriketan sortu eta gerora hainbat hedatu diren «entzun-mintza» metodoak: ikasleak perpaus programatuak entzun eta berresan behar ditu arik eta hizkuntza berriko doinueraz etab. jabe dadin arte. Ondoren sortu diren metodoak ere ez dute printzipio hau baztertu. Gauzak muturreraino eramanik, «entzun-mintza» itsuko metodo zenbait ere sortu da: ikasleak ulertu gabe errepikatu behar ditu emaniko perpausak; poliki-poliki eta berez joango omen bait da haien →esanahiaz ere jabetzen. Areago, oraino, batzuk inkontzientearen lanaz baliatu nahi izan dute ikasleari, lo dagoela, B hizkuntzako zintak entzun araziz. Laborategiek ere, besteen artean, helburu hau dute, hots, ikaslea hizkuntza berriaren doinuerari eta fonemen ebakitzeari ohitu araztekoa, baina zenbaitek, hemen ere, gauzak urrunago eraman nahi izan baditu ere, laborategiek ez dute irakaslearen beharra baztertzen, hau, beti ere, okerrak zuzentzeko, egituren hedapenak gidatzeko etab. beharrezko izango bait da.

2.—Mintzaira, zenbait ohituratan oinarritzen da («A language is a set of habits»)

→Hizketan ari garenean, lanik handiena ohartu gabe burutzen dugu, automatiko bilakatu bait da. Hizkuntza berriak ikastea haiei dagozkien automatismo berriak sortzean datza, soinuen ahoskatzean, gramatika-egituretan, etab. Hori dute helburu perpausen errepikapena eskatzen duten metodoek. Areago oraindik, hizkuntzak ikastea →estimulu jakinei automatikoki perpaus jakinez erantzuteko ohitura sortzea besterik ez dela esan dute «asoziazionistek». Gauzak, ordea, ez dira horren sinpleak: perpaus posibleen kopurua konta ezina bait da eta hiztunak beti ari dira perpaus berriak sortzen; ezin, bada, perpaus denak beregana. Zenbait egoeratarako aproposak direnak, bai, ohizko bilaka daitezke, baina inondik ere ez denak.

3.—Hizkuntza erabiltzen ikasi, ez hizkuntza aztertu («Teach the language, not about language»)

Sistema teorikoki ulertzea ez, erabiltzea du xede ikasleak. Batzuk, edozein aurkezpen gramatikal baztertzeraino joan dira. Mintzapraktikarako onak diren neurrian, ordea, onartzekoak izan daitezke horrelako aurkezpenak.

4.—Egiten den hizkuntza irakatsi behar da

Ez inoren gustoz egin behar litzatekeena. Egiazko hizkuntza irakatsi behar bait da, ez inork asmaturiko hizkuntza ideala. Ikasitakoa egiazko komunikazio-tresna behar du ikasleak.

Beste zenbait autorek ondorengo printzipioak eransten dituzte:

5.—Hizkuntz →edukinak inguruari lotuak eman behar dira

→Mezu linguistikoa ez da bere baitan burutzen, zerbait adierazten du, ingurua du: lehendik jakindakoak eta zentzumenez, bistaz batez ere, jaso daitezkeenak. Hizkuntza eta →egoera eskuz-esku doaz. Alderdi semiologiko hau askok baztertuegi izan badute ere, metodo berriek ondo gogoan hartzen dute: hizkuntz mezua eta ingurua batean ematen dituzte, ezagun direnetatik ezezagun direnetara (hizkuntz elementu berriak) igarotzeko bidea irekitzen bait da horrela. Printzipio honetan oinarritzen dira «ikus-entzun-mintza» metodoak (ikus, batez ere, P. Guberina eta Saint Cloud- Zagreb eskola): mezuaren ingurua nolabait itxuratzen dute, marrazkiz, argazkiz, filmaz, keinuz, antzerkiz etab. Alderdi semiologikoa da garrantzizko, ordea, ez nolako teknikaz ematen den; hizkuntz →zeinuaren eta bestelakoen arteko lotura ahalik estuena izan dadin da garrantzizko.

6.—Hizkuntza, egituren egitura da

Sistema fonologikoak, gramatikalak, semantikoak eta abarrek osatzen dute hizkuntza. Perpaus bakoitza elementu askoren egitura da. Jaso ere globalki jasotzen dira hizkuntz mezuak: perpausak, makrosegmentuak, entzuten eta ulertzen dira. Bigarren unean dator elementuak bereztea eta sistemaz ohartzea. Hizkuntza berriko makrosegmentuak dira ikasi behar direnak, ez elementu bakanduak. Honetan oinarritzen dira metodo «estrukturo-globalak»: perpaus osoak entzun eta esan arazten dituzte hasiera-hasieratik.

7.—Progresioa

Aurreko printzipioa azkeneraino eramanaz, edukinak progresioz ematea alferrikako lana dela diote askok, nonnahitik abiaturik ere egituren sarean sartzen garela. Gehienek, ordea, bestela pentsatzen dute. Progresioa anizkuna da:

a) orokorra: ulertu, mintzatu, irakurri, idatzi;
b) edukinei dagokiena;
c) elementu bakoitzean: ulertu, ohitura bihurtu, egitura hedatu, aldatu...

8.—Oinarri logiko-linguistikoa

Gramatika transformazionalean abiadura hartuz eskola berri batzuek (ikus, batez ere, M. de Grève eta F. van Passel) printzipio hau proposatu dute: perpausak globalki ikasi ondoan, azterketa analitikora igarotzea, praktikan, ikasleak →transformazio-legeak beregana ditzan, edozein egituraren →sintagmak aldatzen eta, progresio egokiz, egitura batetik bestera igarotzen ohitu dadin.

Arau nagusi hauek eta aipatu gabe geratu diren beste zenbait (intentsitateari eta iraupenari buruzkoak, adibidez) metodologia desberdinen inguruan aurkeztu izan dira. Beharrak horrela eraginik, printzipio bakoitzari —haren balioa erabat aztertu baino lehen agian— xehetasunetaraino jaisten diren arau pedagogiko partikularrek eman izan diote segida, ariketak eta testak nola burutu zehatz-mehatz agintzen dutenek.

C) IKASLEAREN MOTIBAZIOA

Zail gertatzen da ikaslearen alderdia arauz aztertzea, haren ahalmenak, prestaerak, egoera (nekea, ardurak...) neurgaitzak bait dira. Bada, ordea, bazterrezina den faktore bat: ikaslearen motibazioa. Faktorerik garrantzizkoena dela ere esan ohi da. Ama-hizkuntza ikasteko motibazioa handia da, behar-beharrezko bait du hizkuntza ingurukoekin komunikatuko bada. Hizkuntza berrietarako motibazioa ahulago izaten da. Hiru mailetan bana dezakegu:

a) barnekoa, norberari barnean sortzen zaiona;
b) kanpokoa, inguruneak eraginikoa;
c) didaktikoa, ikasketak aurrera joan ala lorturiko fruituek sortarazten dutena.

Motibazioak, beste aldetik, ez dirau beti indar berekoa: hasieran bizia izaten da; gero, nekeak eta bidearen luzeak eraginiko bareunea etortzen da gehienetan; azkenik jomugaren hurbiltasunak berpiztea dakar. Faktore hauek guztiek metodogintzan eta urratsen plangintzan zer-esan handia dute.

Hizlaua

prosa / prose / prose
Sin.: PROSA

Inolako erritmo edo punttu behartasunik ez dagoenean, hizkera arrunta dugu; egunoroko →hizketan erabili ohi dena alegia. Eta honi *prosa* deritzo.

Bertsogintzan, berriz, erritmoaren eta punttuaren betebeharrak sartzen direnean, bertsozko hizkera sortzen da, *poesia* alegia.

Poesia eta prosa, alderdi honetatik, elkarren →antonimoak dira.

Hizperria

neologismo / néologisme / neologism
Sin.: NEOLOGISMOA

Berriki sorturiko →hitzari, arestian beste hizkuntza bati mailegatuari edo-ta hitz baten →adiera berri orori neologismoa deritza.

Hiztegia

Idazlan didaktikoa da, elkarrekiko loturarik gabe eta ordena jakin batetan agertzen diren artikulu-sail baten bidez, jakintzaren bat ematera zuzentzen dena.

Artikuluen buruan agertzen diren →hitzei, edo hizpuruei *sarrerak* esaten zaie.

Hiztegiek sorturiko problema linguistikoak

Lexikologia →esakune-segmentuak deskribatzen saiatzen den bitartean, *lexikografiak* —eta honek ezartzen ditu hiztegigintzaren arauak— entitate isolatu bezala hartzen ditu oraindik sailkatu behar diren unitateak, eta ez multzo baten barruko elementu bezala.

Sarreren sailkapena

Tradizioak ordena *alfabetikoa* hobetsi *izan du*. Sailkapen-mota honek badu alde onik: berehala aurki daitezke sarrerak; baina baita alde txarrik ere: alferrikako errepikei bide ematen die eta hitzen arteko harremanak azaltzea eragozten du. Eragozpen hauek saihesturik geratzen dira *sailkapen etimologikoan*. Honek jatorriaren arabera biltzen ditu hitzak, →erro baten edo hitz primitibo baten inguruan: *ardi* hitzaren ondoren, esate baterako, *ardibaba, ardigaldu, ardiki, artalde, artantzu, artile, artzain,* etab. aurkituko lirateke. Bide honek ere, nahiz eta oso interesgarria izan hitzen historia ezagutu nahi denean, badu alderdi txarrik, hala nola: →filologiaren zalantzak eta hutsuneak, kontsultarako zailtasunak. *Gaien araberako sailkapenak* (edo sailkapen nozionalak) →eremu semantikotan taldekatzen ditu hitzak. *Sailkapen analogikoak,* hitz-kopuru murriztu samar baten inguruan biltzen ditu, horiei kausazko, ondoriozko eta beste hainbat motatako erlazioengatik loturik dauden hitz guztiak.

Sarreren hautapena

Sarreren hautapenak ere sortzen du problemarik. Bi →adierazle desberdinek →adierazi berbera (edo beretsua) dutenean, edo adierazle batek adierazi erabat desberdinak dituenean, zer egin? Formazentzu →asoziazio bakoitzari sarrera bat ematea erabakitzen bada, zatiketa bukaezin bati bide ematen zaio. Baina formaunitatea hartzen bada kontutan, *begi* sarrera beraren azpian «ikusmenaren organoa», «lanabesetan, giderra ezartzen den zuloa» eta «landaretan, hostoen galtzarbean sortzen diren hostoska-multzoetatik bakoitza» jarriko dira.

Tradizio lexikografikoak, bestalde, hitz grafikoa hartzen du →esanahien azterketaren oinarritzat. Azterketa linguistikoak, ordea, hitza esanahizko unitate txikiagotan (→morfematan) zati daitekeela erakusten du; alderantziz, maiz samar aurki daiteke hutsartez berezita dauden bizpahiru formaz osaturiko sailak, sail bakoitza «zentzu-unitate» bakar bati dagokiolarik *(giltz ingelesa, eztul kukurruku, lan egin).* Salbuespen dira, hitz grafikoa eta unitate semantikoa guztiz bat datozeneko kasuak.

Gramatika mailako informazioak

Bi eratakoak izan daitezke hizkuntz hiztegiak: *arauemaileak* (hitzen erabilera egoki edo zuzenaz dihardute), nahiz *deskribatzaileak.* Hauek, sarreraren ondoren eta tartekorik gabe, zein →kategoriatan sailka daitekeen hitza, adierazten dute; jarraian konbinaziozko ezaugarri batzu

ematen dira (→generoa eta batzutan →numeroa →izenentzat, eraikuntza →aditzentzat).

Definizioa

Hiru definizio-mota berezten dira. Gutxien maite direnak →baliokidetasunezko definizioak dira (*haizpe* = harpe), sarrera bezain zaila den hitz baten →zentzua ezaguntzat ematen bait dute. →Eremu semantiko batetan ere sar daiteke unitatea, honek zentzu ustez ezaguneko hitzekin dituen harremanak aipatuz: →aurkakotasunezko edo ezezpeneko harremanak (*antikonformista* = konformismoaren kontra dagoena), ahaidetasuna (*suhi* = alabaren senarra). Definizio logikoak hobesten dira: hauetan, definitzaile generiko bat («jarleku» *zabu*-rentzat) eta definitzaile espezifiko bat edo batzu ematen dira, sarrera-multzoko beste elementuetatik desberdintzen dutena (*zabu*-rentzat, «bi sokatatik esekia» eta «zeinaren gainean ziburu-zaburuka ibiltzen bait da»). Bide honek, hala ere, gisa honetako definizioak ematera eraman ohi du: *abere* = «ugaztun...», ugaztun hitza abere hitza baino ezagunagoa balitz bezala.

Hiztegi-motak

Funtsean, ondoko hiru erizpide hauen arabera sailkatzen dira hiztegi-mota nagusienak: harremanetan jartzen diren hizkuntzen arteko erlazioen izaera; hitz bakoitzari buruz ematen diren azalpenen izaera; nomenklaturaren hedadura gidatu eta erabaki duen hautapena.

Elebakarreko eta eleanitzeko hiztegiak

Hiztegi orok, gutxienez bi multzo linguistiko jartzen ditu harremanetan: sarrera gisa jarritako hitzak batetik (nomenklatura) eta berorien azalpena emateko erabiltzen diren →enuntziatuak bestetik (definizioak, itzulpenak, adibideak, iruzkinak, etab.). Bi multzoak hizkuntz →sistema berean ematen dituen hiztegia *elebakarrekoa* deitzen da. Bestela, batera nahiz elkar itzuliz aurkezten diren hizkuntzak zenbat diren, *elebiduna* izan daiteke hiztegia, edo *eleaniztuna.*

Hitzen hiztegiak eta gauzen hiztegiak

Nomenklaturako elementuen inguruan ematen diren informazioak izaera desberdinetakoak izan daitezke. Bi aukera daude funtsean. *Hizkuntz* hiztegi edo →*hitzen* hiztegiek →linguistika mailako datuak eskaintzen dituzte, hala nola: hitzaren izaera, generoa, forma grafikoa eta →ebakera; →esanahiak, erabilera-balioak, →adieraziaren espezializazioa hizkuntz maila desberdinetan; lexikoko beste elementuekin dituen erlazioak: hitzaren jatorria eta batzutan baita historia ere.

Bigarren saila, entziklopedi motako idazlanek, edo gauzen hiztegiek, osatzen dute. Hauek, hitzek irudikatzen dituzten →kontzeptu edo errealitateen deskribapenari edo iruzkinari lotzen zaizkio nagusiki, exklusiboki ez denean.

Hiztegiaren hedadura

Hiztegian sartu nahi den nomenklaturaren luze-zabala erabakitzerakoan egindako hautabideetatik dator: hedatsutasuna nahiz hautapena batetik, →sinkronia nahiz →diakronia bestetik.

Hedatsutasunezko hiztegiak, edo hiztegi extentsiboak, hizkuntzako hitz guztiak aipatzera saiatzen dira, inolako mugarik jarri gabe, ez jatorriaren, ez erabileraren, ez balioaren aldetik.

Hautapenezko hiztegiak, edo hiztegi hautakorrak, ohartuki, lexiko osoaren zati batetara mugatzen dira. Hautapena egitea da orduan problema nagusia. Erizpide desberdinak erabil daitezke horretarako: erabilera-→maiztasuna, →enuntziatu-erregistro batetan espezializatzea, giza iharduera edo bizibide jakin batetan erabiltzen den lexikoa, etab.

Hiztegi *diakronikoek* tradizio kultural edo literario oso bati dagokion nomenklatura besakartzen dute. Honela, hizkuntz →egoera oso desberdinak agerterazten dituzte. Hiztegi *sinkronikoak,* aldiz, hizkuntz egoera jakin batetako lexikoa ematera mugatzen dira, berorren deskribapen estrukturala eta funtzionala egiten dutelarik.

P. Huizi

HJELMSLEV, Louis

Daniar hizkuntzalari hau (1899-1965) izan da →glosematikaren sortzailea, agian joera linguistiko modernoetan aparatu logiko handiena, eta bidenabar erabilerarik txikiena ukan duenetarikoa. Ikaskuntzaz indogermanista, lehendabizikoz Pedersen-ekin ikasi zuen Kopenhave-n, gero Lituanian egon zen, Pragan eta Parisen, eta 1937an Pederseni jarraitu zion hizkuntzalaritza konparatzailearen katedran.

1931an Viggo Brøndal bere herrikidearekin batera «Kopenhave-ko Zirkulu Linguistikoa» sortu zuen, eta 1938an Viggo Brøndal-ekin hau ere, «Acta Linguistica» zeritzon aldizkaria, ofizialki estrukturalista izan zen lehena, haren izenaren ondoan goiburu hau agertzen bait zen: «Revue internationale de linguistique structurale». Uldall-ekin 1933an hasi zen lan egiten, eta 1936an Kopenhave-n izan zen «III Congrès internationale de linguistes»en biok batera textu txiki bat aurkeztu bazuten ere, «Synopsis of an outline of Glossematics», ez zuten gero elkar-lanik argitaratu. (Ik. *Europako Estrukturalismoa).*

Haren obrarik garrantzitsuena, bat ere zalantzarik gabe, «Mintzairaren teoria baten hasikinak» delakoa da, edo-ta izenburu originalarekin adosago, «Mintzairaren teoriaren printzipioei buruz» delakoa. Argitaratu zituen beste lanak, idatzi zituen artikulu pilotik aparte, hauek dira, 1928an argia ikusi zuen «Principes de grammaire générale» delakoak, geroko →glosematikaren lehenengo lerroak jadanik egiten zituena, eta «La catégorie des cas. Étude de grammaire générale» 1935-1937an argitaratu zuena. Baina *Hasikinak* idatziz gero, beste izkribuak ahaztu ziren ia guztiz, berori izan zelako haren saiorik eztabaidatuena. Bestalde, 1943tik aurrera oso gutxi idatzi zuen, denbora horretan argitaratutakoen artean hauxe aipa daitekeelarik, haren «Sporget» edo «Lengoaia», eta orobat 1947an Londresen emandako ikastaldia, lehenengoz 1968an frantsesez agertu zena: «La structure fondamentale du langage».

A. Eguzkitza

Hiztuna

hablante / parleur / speaker

→Esakuneak ekoizten dituen mintzatzailea da hiztuna, esakuneak jaso eta beroriei erantzuten dienari aurkajarriz.

Homofonoa

homófono / homophone / homophone

Bi hitz *homofonoak* dira, biok berdin ahoskatu arren, →esanahi desberdinak dituztenean. /c/ eta /ć/ →fonemen →oposizioa galduta duten euskaldunek ez dituzte «hotz» eta «hots»en →ebakerak berezten.

Bi →letra ere *homofonoak* direla esan ohi da, fonema beraren →transkripzio desberdinak direnean.

Homografia

homografía / homographie / homography

Berdin idazten diren (eta askotan berdin ebakitzen diren) bi formek →esanahi diferenteak dituztenean, fenomeno horri homografia esaten zaio. Esaterako, *hori* (→erakuslea) eta *hori* (kolorea). Era berean →polisemiaren kasuan, forma batek garbi berezten diren bi esanahi edo gehiago har ditzakeenean, homografiaz hitz egin daiteke (gibel = atze; gibel = gorputzeko zatia).

Homonimoa

homónimo / homonyme / homonym

1. Lexiko mailan, *homonimoa* deitzen da hitz bat, beste bat bezala ahoskatu edo/eta idatzi arren, zentzu desberdina duenean. Aldi berean →homofono eta homografo diren homonimoak oso arraroak dira. Daudenak, →polisemi fenomenoen bidez azaltzen dira *(zabaldu* hitzak, adibidez, batzutan «ireki» eta beste batzutan «hedatu» esan nahi du). Askotan, →ebakera berdina, baina zentzua eta idazkera desberdinak dituzten hitzak hartzen dira homonimotzat *(aran* «fruitua» eta *haran* «ibarra», adibidez).

2. Gramatika →sortzailean, *homonimo sintaktikoak* bi egitura sakon desberdinei dagozkiekeen azaleko perpausak dira. Homonimia sintaktikoa anbiguotasunari dagokio.

Homorganikoa

homorgánico / homorgane, homorganique / homorganic

Beste →ezaugarri batzuengatik desberdinak izan arren artikulagune bera duten →fo-

nemak deitzen dira homorganikoak. Honela, [p] eta [b] homorganikoak dira, herste →ezpainkari baten bidez ahoskatzen direnez.

Hortzartekaria
interdental / interdentale / interdental

Mihi-punta goiko ebakortzen kontra eta bi hortz-aldien artean jarriz ahoskatzen den →kontsonanteari, *kontsonante hortzartekaria* deritza; adibidez, espainierazko *mozo*-ren [θ].

Horzkaria
dental / dentale / dental

Fonetikoki, mihi-punta nahiz mingaina goiko hortzetara hurbilduz ebakitzen den →kontsonanteari *kontsonante horzkaria* deritza. Beheko artikulatzailearen eta artikulazio-moduaren arabera, hainbat bereizketa egin daiteke kontsonante horzkarien artean: [t, d] →herskariak, [θ] →igurzkari hortzartekaria, [s, z] eta [ś, ź] igurzkari →txistukariak, [n] sudurkari →apikari-→albeolarea, [l] →aldekari apikari-albeolarea, [r] →dardarkari apikari-albeolarea.

HUMBOLDT, Wilhelm von

Postdam-en (Alemanian) 1967an jaio eta Tegel-en 1835ean hil zen.

Filologo, literatur kritiko, poeta, politiko, beste zenbait ekintzen artean Berlin-go Unibertsitatearen sortzailea da.

Nolanahi ere, gehien landu zuen alorra hizkuntzalaritza izan zen eta berau helburu batekin: antropologia konparatu bat finkatzeko asmoarekin. Gerora eragin handia izango duen ideia nagusi bat agertzen da Humboldt-engan: hizkuntza iharduera tzat hartuko du eta ez ekoizpen bezala.

Berrehundik gora izan ziren ikasi zituen hizkuntzak eta horietako bat euskara. Pariseko Unibertsitatean zegoela hasi zen euskal textu zaharretara hurbiltzen: Leizarraga, Oihenart etab., gero bi bidai egin zituen Euskal Herrira, bata 1799an, bestea 1801ean. Markinan J. A. Mogelekin egon zen eta Durangon P. Astarloarekin. Ordurako zenbait aztertzaile euskaldun euskara eta iberoaren arteko ahaidetasun-harremanei buruz aritua zen eta Humboldt ere ildo honetatik abiatu zen, berarentzat euskara zen Iberia Zaharreko hizkuntza, eta horrenbestez, Europako hizkuntzarik zaharrena. Arazo honen inguruan 1821ean *Primitivos pobladores de España y Lengua Vasca* argitaratu zuen.

Huna
núcleo / noyau / kernel, nucleus

Sin.: NUKLEOA

Gramatika →sortzailean, perpausaren →sakoneko egitura hun batez (laburdura P) eta autoreen arabera modalitatea (laburdura Mod), edo perpaus-osagaia (laburdura Os) edo perpaus-mota deitzen den beste osagai batez osatua dago. Huna bi partek osatzen dute, →izen-→sintagmak (IS) eta →aditz-sintagmak (AS); hauek dira haren →arartegabeko osagaiak (P → IS + AS). Zergatik hautatu zen hunarentzat P →sinboloa erraz ulertuko da, hunak, teoriaren lehen etapan, perpaus →aktiboa, →deklaratzailea, baieztailea, *hun perpausa* deitua, adierazten zuela kontutan hartzen bada. Geroztik, huna ez da oinarrizko perpausaren zati bat besterik.

I

Ideograma
ideograma / idéogramme / ideogram

Ideia (→kontzeptu, prozesu, kualitate) bati dagokion adierazpen grafikoa da ideograma. Gehienetan, txinatar izkribakera eta egyptiar hieroglifikoak ematen dira izkribakera ideogramatikoaren adibide bezala.

Idiolektoa
idiolecto / idiolecte / idiolect

Idiolektoa, pertsona bakar batek sortutako →esakuneen multzoari, eta bereziki horien oinarrian dauden eta idioma edo sistema espezifiko bezala hartzen diren hizkuntz konstanteei esaten zaie; idiolektoa, beraz, gizabanako bati une jakin batetan dagokion hizkuntzaren erabileren multzoa da (gizabanakoaren estiloa). Nozio honek zera erakusten du: aldaketak herritik herrira, eskualdetik eskualdera eta klase sozial batetik bestera ez-ezik, →hiztunetik hiztunera ere gertatzen direla. Idiolektoa da

dialektologoak abiapuntuan aurkitzen duen errealitate bakarra.

Idioma

Ik. MINTZOA

Idiotismoa

idiotismo / idiotisme / idiom

Hizkuntza jakin batetan jatorra izanik, beste hizkuntza batetan inolako parekide sintaktikorik ez duen eraikuntzari esaten zaio idiotismoa. Idiotismoa izango litzateke, esate baterako, euskarazko *agur t'erdi.*

Igorlea

emisor / émetteur / sender

Sin.: EMISOREA

Komunikazioan, igorlea, →kode jakin baten →erregelen arabera gauzatutako →mezu bat sortzen duena da.

→Komunikazioa informazio bat edo mezu bat, leku batetik beste batetara edo pertsona batengandik beste batengana igortzea denez, →kanale baten bidez eta era kodetu batetan, igorlea mezuaren iturrian dagoen aparatua edo pertsona da. R. →Jakobson-ek *bidaltzailea* esaten dio igorleari eta hartzaileari →*jasotzailea.*

Igurzkaria

fricativa / fricative / fricative

Sin.: FRIKATIBOA

Aho-bidea mehartuz, erabat itxi gabe, ebakitzen den →kontsonanteari, *kontsonante igurzkaria* deritza. Pasabidea zenbait gunetan itxi egiten bait da, airea nekez iragaten da eta igurzpen edo txistu-→soinu berezi bat da ondorioa. Ahoaren edozein gunetan sor daitezke igurzkariak, ezpainetatik hasi eta laringera arte (ikus Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa). Euskaraz, kasurako, *afari*-ren [f] →ezpain-horzkaria, *bide*-ren [đ] apikari horzkaria, *zoro*-ren [s] eta *soro*-ren [ś] →txistuzkoak, *xagu*-ren [š] txitxekaria, *jan*-en [x] →belare →gorra, *xagu*-ren [ǧ] belare →ozena, *handi*-ren [h] →glotala.

Ikurra

símbolo / symbole / symbol

Sin.: SINBOLOA

1. Ch. S. Peirce-ren terminologian, *ikono* eta *zantzu* deitzen dituen →zeinuei aurkajartzen zaie ikurra. Ikurra edo sinboloa bi elementuren arteko harreman baten —kultura jakin batetan iraunkorra den harreman baten— irudikapena da. Ikonoak lekualdatuz erreproduzitu nahi du (erretratuak, adibidez, sentimenezko inpresio bat erreproduzitzen du mihisean) eta zantzuak inferentziazko arrazonamendu bat egiteko era ematen du (kea suaren zantzu bezala); ikurrak berriz, hitzarmen bati esker funtzionatzen du (balantza justiziaren ikur bezala).

2. Gramatika →sortzailean, morfofonologiazko gauzatzearen aurreko abstrakzioak adierazteko beharrezko diren «alfabetoko» elementu guztiei ikurrak esaten zaie. Gramatika sortzaileko lehen ikurra, hasiera batean P bezala idatzi zena, Σ bezala idazten da orain. Lehenengo →berridazketa-→erregelan ezkerretara idazten den ikurra da; mailarik sakoneneko eraikuntza irudikatzen du berak; berridazketa-erregelek lehenbizi eta →transformazio-erregelek gero sortu dituzten gainerako eraikuntza guztiak haren osagai dira. Teoria sortzailearen gaurko egoeran, honela berridazten da gehienetan hasierako ikurra:

$$\Sigma \rightarrow \text{Mod} + \text{P},$$

honela irakurtzen dena: Σ hasierako ikurra Perpaus-→Modalitate + →Hun sinboloen bidez berridazten da.

Gramatika-→erregelen bukaeran, elementu lexikoen →klase berezi bati dagokion ikur-sail bat izango dugu. *Amaiera-ikurrak* esaten zaie ikur hauei; ezarpen lexikoaren erregelek, lexikoitik harturiko item lexikalez ordezkatzen dituzte ikur horiek.

Azkenik, zernahitarako sinboloak *(dummy symbols)* aipatu behar dira. A → Δ bezalako erregela batek aukera ematen dio →kategori osagaiari, formante gramatikalez eta Δ-ren zenbait agerpenez osaturiko sekuentzientzako adierazgailuak sortzeko. Δ -ren agerpenek kategoria lexikalen lekugunea markatzen dute.

Iluna

oscuro / sombre / dark

→Akustikaren aldetik →lodiak diren →bokalei esaten zaie bokal ilunak (adibidez, [u] *gure* eta *lur* hitzetan, eta →bokal →belar guztiak). Hitz hau, eta baita honi aurkajartzen zaion eta bokal →zorrotzak (→ahosabaikariak) izendatzen dituen →*argi* hitza ere, entzumenezko loditasun-sentipenaren eta ikusmenezko iluntasun-sentipenaren artean arruntki egiten den elkargotik datoz.

Indoeuroparra

indoeuropeo / indo-européen / Indo-European

Europako hizkuntza gehienek (euskara eta beste gutxi batzu salbu), batetik, eta Asiako zenbait hizkuntzak, bestetik, hain kidetasun nabarmenak aurkezten dituzte bai

gramatika mailan bai →hiztegi mailan, non ez bait dago horiek azaltzerik jatorri erkide baten bidez ez bada. Beste hitzez esateko, historiaurreko garairen batetan eta lurralde gehiago edo gutxiago zabalean egiten den hizkuntza berberak leku eta garaien arabera izan dituen eboluzio desberdinetatik datoz, zalantza gabe, aipatu hizkuntzak. Historiaurreko hizkuntza honi indoeuroparra edo indoeuropar hizkuntza esaten zaio. Izkriburik utzi gabe desagertu zen, baina berreratu ahal izan dira neurri batean gramatikaren ezaugarri nagusiak, baita hiztegiaren parte bat ere.

Infinitiboa

Gramatika tradizionalari dagokion terminoa da hau; eta, beronen bidez, hizkuntza indoeuroparretan aurkitzen diren →aditz-joko bereziak izendatzen ditugu.

1) Aldaezinak dira, ez dute →flexiorik: *esse* «izan», *amare* «maite izan, maitatu». Erizpide hau, dena dela, ez da beti nahastezina. Forma sinple horiez gainera, *amatum/ -am/ -um esse* pleguko forma perifrastikoak ere jotzen ditu infinitibotzat: hauetako lehenengo elementuak halako adjektibotasun-kutsua du, eta bai →generoz bai →kasuz komunztatzen du →subjektuarekin (→akusatibo gisa, eskuarki).

Beste alde batetik, →gerundio izeneko adizkiekiko erlazio sintaktikoa eta semantikoa ez zuen behar bezala azaldu. Hots, infinitiboarekin →banaketa - osagarrian dauden adizkitzat har daitezke horiek; *causa gerendi bellum,* «con el fin de hacer la guerra» (→genitiboa).

2) →Aditzaren →esanahi lexikala biltzen duten adizkiak dira, soilki (Vinogradov, Ružcka...). Erizpide semantiko hau ere maingu gelditzen da; infinitiboa eta aditz-izen →abstraktuak berezteko biderik ematen ez duelako: *amor* «maitetasun», eta jatorrian *amare,* «maite izan».

Zail izaten da zein lexiko →kategoriatan behar den sartu; baita, neurri berean, hizkuntza batek infinitiborik duen ala ez duen erabakitzea. Artikulu →mugatzailearekin eta →adjektiboekin elkartu ohi da maiz; baina, alderantziz, →pluralik ez du izaten. Orain artean aipatutako erizpideak baino garrantzitsuago izaten da →eraenketari dagokiona.

3) Eraenketa. Hizkuntza →indoeuroparretan, aditzezko →eraenketa gertatzen da perpaus konpletiboetan, eta eliditua ez den subjektua akusatiboan agertzen da: izen-→sintagma denean (artikuluekin, adjektiboekin), izenezko eraenketa agertzen du; alemanieraz eta gaztelaniaz, esate baterako.

Beste alde batetik, bai latindar literaturan, bai batez ere antzinako hindueran, aditz-eraenketa duten izen abstraktuak gertatzen dira: *quid tibi hanc curatio* (= izen abst.) *est rem* (= akus.) (= zergatik kezkatzen hau honek?).

Georgieraz eta irlanderaz ez dago inolako alderik izen abstraktuekin. Arabieraz, berriz, aditz-eraenketa duten izen abstraktuei dagokien →funtzio sekundarioaz mintza daiteke.

Bai turkieraz, bai latinez, gerundioak izen-jokoa du, baina aditz-eraenketa. Eta ikuspegi hau oraino era zailago batetan agertzen da →denbora, →aspektua, →modua, →boza, eta gainerako aditz-→kategoria jatorrak kontutan hartuz gero... Portugesez, adibidez, infinitiboak baditu →pertsona-→atzizkiak ere: *comprarmos, comprardes...* Nolanahi ere, hizkuntza →indoeuroparretan fosildurik gelditu diren antzinako aditz-izenak dira; eta antzinako alemanieraz bazuten oraindik halako deklinazio-arrastorik. Bete-betean aditz-itxura hartuko duen adizkirako →aldaketa argiro ikus daiteke, esate baterako, Vedatar kantuak eta antzinateko hizkuntza klasikoa alderatzean (sanskritoa).

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Inflexioa

inflexión / inflexion / inflection

→Bokal batek alboko bokal baten eraginez zenbait kasutan jasaten duen tinbre-→aldaketari esaten zaio batzutan inflexioa. →Metafoni kasu berezi bat da.

Informazioa

Eman dezagun →mezu hau:

zozozozozozozo...

Pittin bat entzun ondoren, benetan,

ebaki egin daitekeela dirudi: «ez du ezer berririk esaten». Mezu horrek zero informazioa dakar hasi eta berehalatik.

Beste mezu honek, berriz:

aktalostrialbadiampi...

bere «interesa» bide du bati. Ez dakigu, benetan, zer adierazi nahi duen; eta, edozein gunetan etenda ere, bere «berritasuna» badu. Mezu horrek «informatu» egiten gaitu.

Hots, lehenengo mezuan, segida asmatzeko segurantzia genuenez, probabilitatea 1 zen:

$$P = 1$$

Bigarrenean, berriz, →letra bakoitzari dagokion probabilitatearen arabera: Pa, Pk, Pt, eta abar; eta balore hauek:

$$0 < P < 1$$

inekuazioaren arabera muga ditzakegularik.

Beste alde batetik: *a* seinaleari dagokion agerpen-probabilitatea 0,14 baldin bada; eta *b* seinaleari dagokiona, berriz, 0,32:

$$P_a = 0{,}14$$
$$P_b = 0{,}32$$

ab mezua agertzekoa, probabilitate elkartua dugunez, hau izango da:

$P_{ab} = P_a \times P_b = 0{,}14 \cdot 0{,}32 = 0{,}0448$

Biderkaketa hauek batuketa bihurtzeko, eta p = 1 kasuan informazio-kantitatea 0 izan dadin, informazioaren neurketa hau da:

$$I = -\log_2 p$$

Eta etsenplu hauetan hau genuke:

$$I_a = -\log_2 p_a = \frac{-\log 0{,}14}{\log 2} = \frac{-\bar{1}{,}146128}{0{,}30103} = 2{,}8365 \text{ [bit]}$$

$$I_b = -\log_2 p_b = \frac{-\log 0{,}32}{\log 2} = \frac{-\bar{1}{,}50515}{0{,}30103} = 1{,}6439 \text{ [bit]}$$

$$I_{ab} = I_a + I_b = 4{,}4804 \text{ [bit]}$$

Eta, orokorki: $I = \sum I_i = -\sum \log_2 p_i$

Oso praktikoa izaten da, ordea, elementu *bakar batekiko* batez besteko informazio-kantitatea kalkulatzea. Esate baterako:

$$P_a = 0{,}06$$
$$P_b = 0{,}14$$
$$P_c = 0{,}80$$

Hiru seinaletako «hizkuntza» horretan, *A* →sinboloa agertzen denean, I_a informazioa eransten dio mezuari:

$$I_a = -\log_2 0{,}06 = \frac{1{,}221849}{0{,}30103} = 4{,}0589 \text{ [bit]}$$

B sinboloa agertzean, berriz:

$$I_b = -\log_2 0{,}14 = \frac{0{,}8539}{0{,}30103} = 2{,}8365 \text{ [bit]}$$

Eta *C* sinboloa agertzen denean, azkenik:

$$I_c = -\log_2 0{,}80 = \frac{0{,}09691}{0{,}30103} = 0{,}32191 \text{ [bit]}$$

A ez da beti agertzen; %-ko 6 kasutan baizik. Eta batez besteko bere ekarpena hau da:

(A) 0,06 × 4,0589 = 0,24354

Era berean, *B* eta *C* sinboloek:

(B) 0,14 × 2,8365 = 0,39711

(C) 0,80 × 0,32192 = 0,25754

Eta sinbolo bateko informazio-kantitatea

$I = -\sum p_i \log_2 p_i = 0{,}89819$ *[bit/sinb.]*

Froga daitekeenez, $I_a = I_b = I_c =$ 0,333 direnean, hau dugu:

$$I_{max} = \log_2 3 = \frac{0{,}477121}{0{,}30103} = 1{,}584962 \text{ [bit/sinb.]}$$

Indikatiboa

indicativo / indicatif / indicative

Indikatiboa deritza →enuntziaziozko (baiezko zein ezezko) perpausaren →moduari. Indikatiboa, perpausaren oinarrizko status-a azaltzen duen modu ez-markatua da.

Inesiboa

inesivo / inessif / inessive

Zein lekutan edo zein lekuren barnean gertatzen den →aditz-→ekintza adierazten duen →kasuari esaten zaio *inesiboa.* Adib.: *Miarritzen* dago, *etxean* dago, *dantzan* badaki.

Inkluditzailea

inclusivo / inclusif / inclusive

1. *Gu* pertsona-→izenordea *inkluditzailea* deitzen da *zu* (edo hi) pertsona-izenordea inkluditzen duenean, h.d., «zu (edo hi) eta ni» esan nahi duenean, eta *zu* (edo *hi)* baztertzen duen *gu* exkluditzaileari, h.d., «hura eta ni» esan nahi duenari, aurkajartzen zaio. Gauza beretsua gertatzen da *zuek* pertsona-izenordearekin ere.

2. →Multzo bat, A, inkluditzaile dela esaten da B multzo bati buruz, B multzoko elementu guztiak A-ren barnean sartzen direnean. B-ri *azpimultzoa* esaten zaio orduan.

Inperatiboa

Ik. AGINDUZKOA

Inperfektua

imperfecto / imparfait / imperfect

Sin.: BURUTUGABEA

→Denborari dagokionez →lehenaldia eta →aspektuari dagokionez burutugabea adierazten duten →aditz-formen multzo bati *inperfektua* deritza. Oraingo nahiz kontaketaren unea baino lehenagoko une indeterminatu batetan kokatzen du inperfektuak esakunea. Indeterminatutasun hau, iraupen, errepikapen, jarraitasun, egoera bezala uler daiteke (inoiz, eta salbuespen gisa, baita une zehatz bezala ere).

Ik. PERFEKTUA, BURUTUA

Inplikazioa

implicación / implication / implication

Inplikazioa deritza bi →proposizioren arteko erlazioari, lehenengoa egiazkoa bada, bigarrena halabeharrez egiazkoa denean. Honela, *Gizaki guztiak hilkorrak dira* proposizioa onartzen bada, *Jon hilkorra da* proposizioa lehenengoaren barnean sartzen da, hau da, lehenengoak bigarrena inplikatzen du. Honela idazten da:

Gizaki guztiak hilkorrak dira → Jon hilkorra da.

Bigarren proposizioaren egiak lehenengoaren egia inplikatzen duenean, inplikazio bikoitza dagoela esaten da.

Inplosioa

implosión / implosion / implosion

«Inplosibo» deritzan →kontsonantearen gauzatzerako →silaba-amaieran gertatzen den →itxierari esaten zaio *inplosioa.* Sarritan, kontsonante →herskari baten →ahoskuntzaren lehen faseari ematen zaio *inplosio* izena. Fase horretan, hersteari bide ematen dion itxiera-→posizioa hartzen dute ahoskuntz organoek. «Hanpatu» hitzean, [m] ahoskatzen den /n/ hori, inplosio-lekugunean dago.

Instrumentala

Ik. BITARTEZKOA

Intentsitatea

intensidad / intensité / intensity

→Soinu baten *intentsitatea,* soinu hori ahoskatzerakoan egiten den arnasbehera-energiari dagokio batez ere, eta uhin-anplitudearen araberakoa da. Katea mintzatuko intentsitate-→aldaketak desberdin erabiltzen

dira hizkuntza batetik bestera, helburu bereizle nahiz adierazkorrekin.
Ik. INTENTSITATEA, AZENTUA ETA INTONAZIOA

Interjekzioa

interjección / interjection / interjection

Interjekzioa hitz aldaezina da, isolatua, berak bakarrik perpaus bat egiten duena eta afektuzko erreakzio bizi bat adierazten duena: →onomatopeiak *(ai, oi, ha,* etab.), izen-→sintagmak *(zakurraren buztana, deabruaren bisaia,* etab.), izenak *(ama, Jesus, Jaungoikoa,* etab.), →adberbioak *(gora, utikan,* etab.), etab.

Intonazioa

→*Sintaxi-talde* edo perpausen *melodia,* edo musika-lerroa, da intonazioa. →Hitza edo →morfema baino luzeago diren segmentuei gainezartzen zaie, hortaz. →Prosodi gertakari hau, beraz, *etena* da, ez *diskretua;* eta, eskuarki, *segmentuaz gaindiko gertakari fonikoekin* batera biltzen da. →Martinet-ek honetara mugatu zuen: «→*tonuak* eta *azentu*-kontuak kenduz gero, *melodi kurbatik* gelditu dena».

Muljačić-ek dioenez, →hizketaren oinarrietako gertakari bat da intonazioa: «→*Enuntziatu agramatikalik* badago; baina *enuntziatu amelodikorik* ez».

Hau dela bide, fisiologiari edo psikologiari datxekion gertaera naturaltzat hartu izan da; alegia, ez hizkuntzazkoa, ez *hizkuntzari* berari lotua bezala. Beste batzuk, berriz, →*Fonetika ez-funtzionalaren* barruan jarri dute. Martinet-ek, esate baterako, *bigarren →artikulaziotik at* jartzen du, ez delako →*fonematan* aztergarri; eta, horrez gain, gaizki zedarritutako →*funtzioak* dituelako, izaera *adierazkorrekoak* eskuarki.

Amerikar estrukturalistek *segmentuaz gaindiko* alderdien Fonematikan sartzen dute —*tonu mailak,* eta abar—; baina ez zaie beti egokitzen berorien azterketa *funtzionalei.*

Beste zenbaiten iritziz, bestetik —*generatibistak* batez ere— *intonazioa →etenaldiekin* eta *Sintaxiarekin* batera ikertu behar da.

Norbaitek, horrela, →hun mailan, intonazioa →*arartegabeko osagaia* dela esan du; eta, hortaz, lehendabiziko →*berridazketa-erregelen* bidez sortua dela.

Muljačić-ek, intonazioa hizkuntzei dagokien fenomeno «sui-generis» bat dela azpimarratu ondoren, beste puntu honi eusten dio: →Enuntziatuaren →Fonologiak, psikologiatik at gelditzen diren alderdiak arakatu behar dituela.

Haren ustez, intonazio desberdinak berezten dituen ingurune foniko konplexua «ingurua» da. Inguruak —alegia, *azentua* eta *tonua* elkartzen dituzten *prosodi alderdiak*— tresna segmentariak ordezten dituzten neurrian bakarrik dira →bereizleak.

Gaurko linguistikak ez bide du, gaur gaurkoz, intonazioari buruzko teoria orokorrik prestatu.

Euskarari dagokionez, S. →Altube eta Jose Basterretxea ditugu alor horretan bide-urraketan saiatu direnak (ik. Mitxel. F. H. V., 2. ed. 565. or. eta hurr.).

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Ik. PROSODIA; TONUA

Iraganaldia

pasado / passé / past

→Esakunea «orain»a baino lehenagoko une batetan kokatzen duen →denbora da iraganaldia. Normalki →orainaldiari eta →geroaldiari aurkajartzen zaie. Baina euskaraz bi elementuren →aurkakotasuna besterik ez dago, →aditz perifrastikoetan →laguntzailean azaltzen dena. Hauek dira bi elementuak: iraganaldia/orainaldia, edo-ta iragana/ez-iragana. Adibidez:

etorri gara / etorri ginen
etortzen gara / etortzen ginen
etorriko gara / etorriko ginen
Denbora: — iragana / + iragana

Iraganaldiaren ezaugarria edo →marka bukaerako -N da, bai aditz perifrastikoetan eta baita sintetikoetan ere. Gainera, hasieran agertzen den *a* →bokalaren ordez beste bokal itxiago bat azaltzen da, askotan beste *-n-* bat tartekatzen delarik:

gara / ginen
nator / nentorren

Iragangaitza

intransitivo / intransitif / intransitive

→Aditz-→sintagmaren egituran →objektu →zuzenaren →funtziotan legokeen →izen-sin-

tagmarik onartzen ez duen aditzari, *iragangaitza* deritza (ik. Iragankorra). Aditz iragankor eta iragangaitzen artean tradizioz egin izan den «noziozko» bereizketaren ordez, erizpide «formal»agoak erabili ohi dira aditzak sailkatzeko: aditz bakoitzak onartzen dituen izen-sintagmen arabera, bat, bi eta hiru *leku*-tako aditzak bereizten dira honela. Bide beretik, sailok bereiz daitezke euskaraz: ISnor bakarrik onartzen duten aditzak *(etzan);* ISnor eta ISnori onartzen dituztenak *(etorri);* ISnor eta ISnork onartzen dituztenak *(jakin);* ISnor, ISnork eta ISnori onartzen dituztenak *(ekarri).*

Iragankorra

transitivo / transitif / transitive

Zenbait →aditzek *nork* →ergatiboaren beharra dute, beste batzuk ez. Esate baterako: *sagarra jan du.* Nork jan du? *Ene adiskideak* jan du. Baina: *harria erori da.* Nork «erori du» galdetzeak ez luke funtsik.

Erdara askotan (baina euskaraz ez) «pasiba»zko →transformazioa egin daiteke lehenengoetan:

zakurrak sagua jan du

(TP) *Sagua, *jana izan da, zakurrak*

(= la souris a été mangé par le chien)

Aditz horietan, (+ *nork)* ezaugarria dutela esaten dugu:

jan + *(ergatiboa)* ——

→Osagarri zuzen deritzan hori, dena dela, ezabaturik gerta daiteke perpausean:

zakurrak jan egiten du

Iraunkorra

durativo / duratif / durative

Berenez iraupen-nozioa adierazten duten →morfema lexikalei eta, bereziki, →aditz eta →adjektiboei esaten zaie iraunkorrak; morfema lexikal ez-iraunkorrei aurkajartzen zaizkie. Adibidez, *eduki* eta *jakin* aditzak iraunkorrak dira; [+ iraunkor] →ezaugarria dute, *handi* eta *hordi* adjektiboek bezala; *hil, iritsi* eta beste hainbat aditz, aldiz, ez-iraunkorrak dira.

Irekia

abierto / ouvert / open

Mihia →posizio jaitsian dagoela eta, beraz, aho-bideak irekirik irauten duela, ahoskatzen den →bokala da *bokal irekia.* Bi →irekidura-posizio daude: bata, mihia oso jaitsia dagoenean, [a] ahoskatzean gertatzen den bezala; bestea, mihia gutxixeago jaitsia dagoenean ([ɛ] eta [ɔ] bokal erdirekien kasuan). →Akustikaren aldetik, bokal irekiak →trinkoak dira.

Irekidura

apertura / ouverture / opening

Irekidura izenaz, →soinu baten igorpena egiten den bitartean, aho-bidean gertatzen den zabaltzea ezagutzen da. Zenbait hizkuntzalarirentzat →bokalezko berezitasunak erlazio bakarrean daude irekidura-maila desberdinekin, eta →Troubetzkoy-ren kasuan bezala zera uste dute, irekidura-maila, bokalezko →marka bat dela bereziki *(Grundzüge der Phonologie).* Beste hizkuntzalari batzuk, berriz, De →Saussure-k esate baterako, zera uste dute, soinu guztiak beren irekidura-mailaren arabera sailka daitezkeela, →herskariei dagokien irekidurarik txikienetik handiagoa dagokien beste →kontsonante batzuetaraino.

Irreala

irreal / irréel / unreal

→Aditzak adierazten duen →ekintza gauzatu ahal izateko beharrezkoa litzatekeen baldintza bat ezinezkoa izanik, ekintza hori ez dela egiazki gauzatu edo gauzatzen adierazten duten aditz-formei *irreal* deritza gramatika tradizionalak. Adibidez, latinezko *possem si vellem* (nahi banu —baina, egiazki ez dut nahi— ahal izango nuke) edo *potuissem si voluissem* (nahi izan banu —baina ez nuen nahi izan— ahal izango nukeen).

Irregularra

irregular / irrégulier / irregular

→Deklinabidean nahiz →aditz-jokoan arautzat jotzen den →paradigmatik urruntzen diren →hitzak dira irregularrak.

Irudikapena

representación / représentation / representation

→Hiztunarengan, →hitzaren adimenezko irudiaren agertzeari deritzo *irudikapena.* Irudi hori, dena dela, eta →Saussure-ren ustez, ez da fonikoa edo materiazkoa: geure kolkorako hitz egiten dugunean, →fonemen →ebakerarik ez dago; baina geure barruan irudi foniko horien adimenezko kideak erabiltzen ditugu.

Irudizkoa

figurado / figuré / figurative

«→Bizidun» edo «konkretu» →ezaugarriez definitzen den →hitz bati, esamolde edo perpaus baten →textuinguruan «ez-bizidun» (gauza) edo «ez-konkretu» (→abstraktu) ezaugarria iratxekitzen zaionean, hitz horrek *irudizko zentzua* duela edo irudizko

zentzuan erabilita dagoela esaten da. Honela, *bizitzaren ilunabarrean* esamoldean, *ilunabar* hitza irudizko zentzuan erabiltzen da, berez «konkretu» ezaugarria eraman arren, «ez-konkretu» ezaugarria iratxeki bait zaio. Modu berean, *fusilaren zakurra* (edo *katua)* esaten denean, *zakur* eta *katu* hitzak zentzu teknikoan erabiltzen dira, ez-bizidun bezala: irudizko zentzua dute.

Isoglosa

isoglosa / isoglosse / isogloss

→Ezaugarri jakin batentzat forma edo →sistema desberdinak aurkezten dituzten bi →dialekto-eskualde berezten dituen lerro ideala deitzen da isoglosa. Isoglosa (edo isoglosa-lerroa), ezaugarri jakin bat ematen den aurkientzak ematen ez den aurkientzetatik berezten dituen lerro baten bidez irudikatzen da hizkuntz mapa batetan. Isoglosa gainezarri edo hurbilen multzoa *isoglosa-→bala* deitzen da eta muga linguistikoak seinalatzen ditu.

Isolatzailea

aislante / isolante / isolating

Hizkuntza batetako «hitzak» aldaezinak direnean edo izateko joera dutenean eta, hortaz, berorietan →erradikala eta gramatikazko elementuak berezterik ez dagoenean, hizkuntza hori *isolatzailea* (edo *analitikoa)* dela esaten da. Hizkuntza baten batezbesteko isolamendu-maila, hizkuntza horretako →morfema-kopuruaren eta →hitz-kopuruaren arteko erlazioak erabakitzen du. Hizkuntza isolatzaileei hizkuntza →eransleak eta hizkuntza →flexiboak aurkajartzen zaizkie.

Isomorfismoa

isomorfismo / isomorphisme / isomorphism

1. Bi gertakari-maila desberdinetako bi egiturak molde bereko erlazio konbinatorioak aurkezten dituztenean, horien artean isomorfismoa dagoela esaten da: honela, →morfemen konbinazio-legeak eta sememak berdinak badira (sintaxia = semantika), bi egituren artean isomorfismoa dagoela esaten da. →Linguistikan, alde honetatik, gizarte-gertakarien, kulturaren eta hizkuntzaren artean isomorfismorik badagoen ala ez dagoen da problemarik garrantzizkoena. B. L. →Whorf eta E. →Sapir-ek hizkuntzaren eta kulturaren isomorfismoa aurkeztu dute hipotesi gisa. Herri baten hizkuntza, herri horren mundu-esperientziaren antolatzaile dela uste dute. C. Lévi-Strauss-ek hizkuntza, kultura eta zibilizazioaren artean homologia bat dagoela suposatzean, isomorfismo bera postulatzen du beste modu batez. Isomorfismoaz hitzegin daiteke baita N. Marr-en tesien kasuan ere, zeintzuen arabera gizarte-egituren eboluzio-maila jakin bati hizkuntz mota bat bait dagokio. Orobat, hizkuntzarekikoaren eta gizartearekikoaren artean elkarmenpekotasun hertsia jartzen duten ikerketen kasuan.

2. Hizkuntza baten egitura semantikoko terminoen →esanahiak beste hizkuntza baten egitura semantikoko esanahiekin hitzez hitz erlaziona daitezkeenean, bi hizkuntzak *semantikoki isomorfoak* direla esaten da; ez dago esan beharrik, isomorfismo-gradua aldatu egiten dela erlaziotan jartzen diren hizkuntz bikoteen arabera.

Iturria

fuente / source / source

1. Iturria →mezu baten kodeketaren lekua da (adibidez subjektu →hiztuna), mezuaren →erreferentearen arabera; orduan emisore bezala funtzionatzen du.

2. Itzulpenari dagokionez, zein hizkuntzatatik itzultzen bait da beste hizkuntza batetara, hari *hizkuntza iturria* esaten zaio.

Itxia

cerrado / fermé / closed

1. Gramatikazko →morfemen →klaseak (→artikuluak, →denbora-→desinentziak, →izenordeak, etab.) *klase itxiak* deitzen dira, zeren hauen elementuak, gutxi izanik, zerrendaketa bidez defini bait daitezke. Morfema lexikalen klaseak, aldiz, *klase →irekiak* deitzen dira; hauek erraz ugari daitezke eta ulerpen bidez bakarrik, h.d., klase bakoitzaren propietateak deskribatuz bakarrik, defini daitezke.

2. →Fonetikan, →fonema bat itxia da, beraren artikulazioak aho-bidearen estutzea edo ixtea dakarrenean berekin. →Kontsonanteak, →bokalekiko →aurkakotasunean, fonema itxiak dira. →Herskariei dagokie itxiera-mailarik goiena. Bokalen artean, bokal bat itxia da, horren →artikulazioak mihia erdiko ardatzaren gainetik jasotzea eskatzen duenean; euskaraz, [i] eta [u] dira bokal itxiak, [e] eta [o] erditxiak, eta [a] →irekia, diren bitartean.

Itzulingurua

perífrasis / périphrase / periphrasis

Sin.: PERIFRASIA

Itzulingurua, →hitz egoki eta soilaren ordez berau definitzen edo iruzkintzen duen hitz-sail batez edo →lokuzio batez baliatzen den erretorika-figura da. Funtsean, itzulin-

gurua →sintaxiari dagokio, lokuzioa (→aditzezko, →adjektibozko nahiz izenezkoa) lexikoari dagokion bitartean. Gramatikazko itzulinguruak eta itzulinguru poetiko edo estilozkoak berezi behar dira. Lehenengoak hizkuntzen joera analitikoetatik datoz. Estilozkoak idazleek erabiltzen dituzte, batez ere nozio baten izendapen soila nozioaren ezaugarri nagusiak adierazten dituen hitzsail batez ordezteko.

Izartxoa

asterisco / astérisque / asterisk, star

1) →Izen baten aurrean jarrita, izartxoak alegiazko plegua edo-ta forma hipotetikoa dela adierazten digu, edozein hizkuntzaren hitz baten etimoa erakusten duelarik. Adibidez, euskaraz agertzen diren *suin* (Bizkaiko euskalkian), *sui* (Gipuzkoa eta Nafarroakoetan) eta *suhi* (iparraldekoetan), **suni* delako forma hipotetikoan dutela jatorria onartu izan da aspaldidanik.

2) Perpaus baten aurrean jarrita, berriz, izartxoak perpaus horren ez-gramatikaltasuna adierazten du. Esate baterako: *«ez behar dut ezer jan»* ez da euskara, hots, euskal perpaus jatorra, horregatik izartxo batez markatuko dugu: **ez behar dut ezer jan.*

Izena

nombre / nom / noun

1. Gramatika tradizionalak izentzat hartzen ditu, noiz →substantiboak soil-soilik, h.d., izaki bizidunak eta «gauzak» (objektuak, sentimenduak, kualitateak, fenomenoak, etab.) izendatzen dituzten →hitzak, noiz substantibo-→adjektiboen multzoa: lehenengo →adiera da erabiliena.

2. Banaketazko →linguistikak, atzetik zein aurretik →determinatzaileen →klasean sartzen den →morfema bat, honekin batera oinarrizko perpausaren →ararteabeko osagai izango den izen-→sintagma bat osatzeko, eraman dezakeen morfema oro hartzen du izentzat.

3. Linguistika →sortzaileak, I →kategori →ikurraren mendean dagoen Δ zernahitarako ikurraren tokian (edo ordez) ezar daitekeen edozein morfema *izen* bezala definitzen du.

Izendatzailea

denominativo / dénominatif / denominative

Gramatika tradizionalean, izen-→erradikaletatik sortutako →adjektibo, →aditz eta →izenak deitzen dira izendatzaileak. Horrela, *bertsolari (bertso*-tik), *izendatu (izen*-etik), *gizonezko (gizon*-etik) izendatzaileak dira.

Izenordea

Aristotele-k →artikulua eta izenordea batera jarri zituen *arzron* izenpean. Baina laster berezi ziren →kategoria desberdinak osatuaz. Erromatarrek *pronomen* deitu zioten, hau da: izenaren ordezkoak egiten dituena. Escaligerok jarrera hau kritikagarritzat jo zuen, izen ezezagunak ere izenordearen bidez aditzera ematen bait dira...

Izenordearen funtzioa izenaren ordaina izatea baino gehiago →izen-→sintagmaren ordaina izatea dela dirudi, zeren izenordeak berak bakarrik osa bait dezake izensintagma. Izenordea anaforikoa, kataforikoa edo →deiktikoa izan daiteke nagusiki. Izenorde batek perpausean atzera bidaltzen gaituenean, perpausean edo elkarrizketan jadanik aipatua den izen batetara, orduan izenorde hori anaforikoa dela esan ohi dugu. Gero etorriko dena aurreratzen duenean, *kataforikoa* izango da. Eta *erakutsi*, seinalatu egiten dutenean, *deiktikoak* izango dira. Adibidez, →erakusleak.

Sailkapena

a) Izenorde *pertsonalak* hizketan agertzen diren bi pertsonei dagozkienak dira: lehen →pertsona eta bigarren pertsona →singularrean eta →pluralak. Hirugarren pertsona delakoa, berez, ez da pertsona, beste edozer gauza ere izan bait daiteke; b) *Erakusleak*, batzutan izen baten arrimuan agertzen dira, →determinatzaile gisa, baina beste batzutan, berak bakarrik. Bakarrik doazenean dira izenorde; c) →Galdetzaile batzu ere izenorde izan daitezke; d) Zenbatzaileak ere bai.

Dena dela, izenorde-klase batzu oso argi agertzen zaizkigu, baina beste batzu, indefinitu delakoak adibidez, oso muga eztabaidagarriak dituzte. Hauen artean sartzen dira galdetzaileekin, formalki behintzat, zer-ikusia duten beste izenorde batzu ere: *inor, ezer...*

Euskaraz ez dago, berez, edutezko izenorderik ez eta izenorde erlatiborik ere. Hala ere, zenbait autore zaharrengan *zein* hitza eta beste galdetzaileak galdetzaile bezala ez, perpaus erlatiboak osatuz baizik agertzen zaizkigu, aditzari *bait-* edo *-en* →morfemak erantsiz. Kasu hauetan,

berez galdetzaile diren horiek izenorde erlatiboak izango lirateke, hizkuntza →indoeuroparretan bezala.

P. Goenaga

Izentzapena

nominalización / nominalisation / nominalization

Sin.: NOMINALIZAZIOA

Perpaus bat →izen-→sintagma bihurtu eta «→matrize perpausa» esaten zaion beste perpaus batean txertatzen duen →transformazioa da izentzapena: perpaus txertatuak, orduan, izen-sintagmaren partea egiten du. Har ditzagun bi perpaus hauek:

(1) *Xabierrek zera uste du.*

(2) *Patxi etorri da.*

(2) perpausa izendu eta (1) perpausean txertatzen bada, azkenean perpaus transformatu hau lortzen da:

Xabierrek Patxi etorri dela uste du.

Patxi etorri dela konpletiboa perpaus izendua da.

Izkribakera

escritura / écriture / writing

Ideiak izkribuz eman nahi izatean, lau bide edo maila gerta daitezke:

1. *Izkribakera sintetikoa:* Zeinu bakoitzari, gauza edo ideia oso bat dagokio. Izkribakera honi →*piktograma* deritzo; eta eskimalek, siberiarrek eta zenbait ozeaniarrek erabiltzen dute.

2. *Izkribakera ideografikoa:* Sistema honetan, gauza bakoitzari zeinu bat datxekio («zeinu/gauza», beraz), eta adierazi nahi den gauzaren →*ideograma* delakoa, xeheki gauzaren irudia izan daiteke, edo-ta zerbait abstraktuago. Hauxe da maia indiarren, antzinako egyptiarren, eta Mesopotamiako herri zaharren izkribakera.

3. *Izkribakera fonematikoa:* Honetan gai fonikoa da oinarria, eta dagozkion →sinboloak erabat →hautazkoak. Abstrakziorako bidean, urrats garrantzitsua izan da, hortaz. Izkribakera honen barruan, dena dela, bi maila daude:

a) Alde batetik, izkribakera *silabikoak* daude: Txipre-ko →alfabeto zaharra, iberikoa, eta abar. →Bokalak berez agertu ohi dira; baina →kontsonanteak, berriz, bokal batekin edo besterekin elkarturik. Txiprekoan, esate baterako, 5 bokal daude (i, e, a, o, u) eta 60 kontsonante-bokal bikote ($= 12 \times 5$), ez guztiz ezaguna, dena dela.

b) Eta bestetik, *izkribakera fonematikoak* daude: kasu hauetan, →fonema bakoitzari zeinu bat dagokio. →Alfabeto ugaritikoan 30 kontsonante ageri dira, bokalak gaingiroki markatzen direlarik. Aramaieran, berriz, 28 kontsonante, eta gaingiroki ere bokalak. Greziar alfabetoan, lehendabizikorik, bai bokalak bai kontsonanteak garbiki idurikaturik agertzen dira.

Izkribakerak, dena dela, hizkuntzei egokiturik agertzen dira. Hizkuntza semitikoetan, esate baterako, muina kontsonante soilez osatua denez, kontsonanteen gailentasun hori nabarmentzen da ongi alfabetoan. Gaurko joera, jakina denez, izkribakera *fonologikoa* da; baina helburu hau ez da, osorik, inongo ortografiatan betetzen.

Izpiritua

espíritu / esprit / breathing

Grekoz, →bokalez nahiz [ρ] →kontsonantez hasten diren →hitzetan lehenengo →letraren gainean, eta →diptongoz hasten direnetan bigarren bokalaren gainean jartzen den zeinu diakritikoa da izpiritua. Izpiritu leuna (᾽), ezein →fonemari ez dagokiona, eta izpiritu →gogorra (῾), →hasperenketa bati dagokiona, berezten dira.

J

JAKOBSON, Roman

1896an Moskun jaioa, 1917ko iraultza zela bide, Errusia eta Sobietar Batasuna utzi zuen, eta 1921etik 1939rarte Txekoslobakian ibili zen irakasle. Gero, bigarren mundu-gerra zela eta, aldegin egin behar izan zuen, eta Estokolmon urte bi eman zituelarik, Estatu Batuetara jo zuen. Han, Columbian, Harvard-en eta M.I.T.-en irakatsi du, eta oraino bertan bizi da. Gizon honen ezaugarri nagusitzat, agian, haren lanen unibertsaltasuna aipa daiteke; hain bait da zabala bera higitu den barrutia. →Linguistikara poetikaren esparrutik heldua, hiru izan dira batez ere zientzia honetan jorratu dituen gaiak: poetika bera, fonologia, eta haur-mintzairaren arazoak.

Moskun ikasle izanik, 1915ean beste sei ikaskiderekin batera, «Moskuko Zirkulu Linguistikoa» sortu zuen: hartu zuen jomuga «hizkuntzalaritza, poetika, metrika eta folklorearen ikerkuntza» zelarik. Izan ere, talde hau da «Errusiar Formalismo» izenaz geroago ezaguna izango zen literatur mugimenduari hasiera eman ziona. Eta hor hasi zituen, hain zuzen, Jakobson-ek bere ikerketa poetikoak, geroago hizkuntzaren funtzio desberdinak ikertzera bultzatuko zutenak (Ik. *Europako Estrukturalismoa).*

→Fonologiaren alorrean bi izan dira batez ere errusiar hizkuntzalariak defendatu dituen jarrerak eta printzipioak; De →Saussure-ren kontra batetik, Genevakoak proposatzen zuen →sinkronia eta →diakroniaren arteko apurtura onartzen ez zuelako; eta bestetik, azken mugataraino Morris Halle-rekin batera aitzineratu duen binarismoaren kontzepzioagatik. Azkenez, →afasiari buruzko haren ikerketak aipa ditzakegu; beraren ustez, eritasun honen printzipiorik garrantzitsuena zera dugulako: eri afasikoek hizkuntza erabiltzeko →gaitasuna, haurrek berau ikasteko erabiltzen duten prozesu berberaz galtzen dutela; baina, noski, kontrako norabidean; gaur egun, hain zuzen ere mundu batek ontzat jotzen duen oinarria.

A. Eguzkitza

Jardulea

actante / actant / doer, performer (of an action)

Sin.: ÁKTANTEA

1. Kontaketaren egiturazko analisian, jardulea →ekintzaren protagonista da, ez derrigor ekintzaren mesedea jasotzen duena.

2. L. Tesnière-k izakiak edo gauzak izendatzen dituzten unitateei aktante esaten die, →aditzak adierazten duen prozesuan era batera nahiz bestera partehartzen dutenean. Horrela: *Peruk gozokia eman dio semeari* perpausean, *gozokia* eta *semea,* ekintza egiten duena irudikatzen ez badute ere, aktanteak dira. Aktanteak →substantiboak edo hauen baliokideak dira beti. Honela, aditzak karakterizatzeko erizpide gertatzen dira: aktanterik onartzen ez dutenak (gaztelaniazko *llover),* bakarra onartzen dutenak *(etzan:* nor), bi onartzen dituztenak *(etorri:* nor, nori), hiru onartzen dituztenak *(ekarri:* nor, nori, nork). Lehen aktantea perpaus aktiboaren →subjektua da *(Peruk);* bigarren aktantea perpaus aktiboaren →objektua *(gozokia)* eta perpaus pasiboaren «kontra-subjektua»; hirugarren *aktantea* berriz, ekintzaren mesedea nahiz kaltea jasotzen duena *(semea).*

Jarraia

Ik. ETENGABEA

Jasotzailea

destinatario / destinataire / receiver

Sin.: HARTZAILEA

1. →Komunikazio-eskeman hartzailea deitzen da jasotzailea.

2. Nori bait dago destinatua →aditzak adierazten duen →ekintza edo noren onerako egiten bait da aditzak adierazten duen ekintza, hari esaten zaio jasotzailea.

Jatorrizkoa

primitivo / primitif / primitive

Gramatika konparatzaileak, hizkuntzaren (bat) →dialektotan banatzea edo dialektalizazioa gertatu aurretik ematen diren (edo suposatzen diren) zerbait batasuneko hizkuntz →egoerak jatorrizkoak deitzen ditu.

Horrela, jatorrizkoa, erabilera batzutan, «→erkide»-ren →sinonimoa da.

Jod

yod / yod / yod

Aurreko →kontsonantearekin elkartzen den «i» →erdikontsonante explosiboari edo aurreko →bokalarekin elkartzen den «i» →erdibokal inplosiboari (deitu [dẹitu]) *yod* deritze. «I» erdikontsonantea salbuespenez ebakitzen da euskaraz; inoiz bi →silabatan ahoskatzen da *maitea* hitza [maịtja].

Jokoa

Ik. FLEXIOA

Jomuga

meta / cible / goal

Itzulpenaren munduan, zein hizkuntzatara itzultzen bait da textu bat, hura deitzen da *jomuga-hizkuntza.* Textuaren hizkuntza ezagunari *jatorri-hizkuntza* esaten zaio.

Joskera

construcción / construction / construction

Hitzak perpausaren barruan elkartzerakoan, beren →adieren arabera eta beren →sintaxi-balioaren arabera lotzen dira; eta,

noski, elkartzeko →erregela hauek aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Jos*kera* horri deritzo joskera.

Hein batez, sintaxiaren kidetzat erabili izan da hitz hau.

Juntagailua

Ohizko gramatiketan juntagailua, bi perpaus nahiz perpauseko bi atal elkartzeko erabiltzen den perpaus-atalari deitzen zaio. Azken batean, *lotura* adierazten duen zerbait da.

Bi eratako juntagailuak berezi ohi dira: a) →*koordinazio-juntagailuak* eta b) →*menpekotasun-juntagailuak*. Euskaraz, hala ere, badirudi benetako juntagailuak koordinaziozkoak direla, zeren besteak, menpekotasunezkoak, alegia, ez bait dira atal autonomoak, edo «hitzak», →atzizkiak eta →aurrizkiak baizik. Menpekotasunean erabiltzen ditugun atzizkiek «→deklinabide-→atzizki» izenekoekin zerikusi handiagoa dute benetako juntagailuekin baino. Beste hizkuntzetan ere menpekotasunezko juntagailuek lotura handiagoa dute →preposizioekin koordinaziozko juntagailuekin baino. Nahiz eta hizkuntza hauetan honako hau esaten den, alegia preposizioek hitzak lotzen dituztela eta juntagailuek, berriz, perpausak.


Juntagailurik nagusienak hiru mota hauetan sar daitezke: 1) Kopulatiboak *(eta);* 2) Adbertsatiboak *(baina, ordea, aldiz...)* 3) Disjuntiboak *(edo* eta *ala).*

Hauetaz gainera, beste zenbait ere aipatu ohi dira: *ilatiboak, banaketazkoak.*

Perpaus bat txertatua denean, juntagailuen ordez atzizkiez edo aurrizkiez baliatu ohi gara. Gehienetan atzizkiez.


Badirudi koordinazioa honako →berridazketa-→erregela baten bidez sortzen dela gramatika sortzailean: P → P + junt + P. Edo, agian, *eta*-ren kasuan behintzat, beste erregela-eskema hau beharko genuke: P → *eta* P*. Eskema honek erregela-kopuru azkengabea aditzera ematen du: P-ren ondorengo izartxoak esan nahi du nahi adina P aukera ditzakegula. Gero beste zenbait erregela behar lirateke *eta*-ri, dagokion lekua emateko.

Dena dela, honela geldituko litzateke adibiderik sinpleenaren zuhaitza:



Bi perpausak maila berean daude. Baina →txertakuntzan ez dugu juntagailurik erabiltzen eta, gainera, perpausak ez daude maila berean bata bestearen barnean txertaturik baizik, edozein izen-→sintagmak edo aditzlagunek beteko lukeen lekua beteaz:

IS → (P) + I + mug



P. Goenaga

K

Kakofonia
cacofonía / cacophonie / cacophony

Entzuteko atsegin ez den →soinu (→fonema edo →silaba) berberen errepikatzea da kakofonia. Adibidez: «Hats hotsaren atsegin hutsa».

Kakuminala
cacuminal / cacuminal / cacuminal

→Kontsonante bat ebakitzerakoan, mihipunttaren azpikaldearekin aho-sabaiaren erdigunea ukitzen bada (lat. cacumen), kontsonante horri *kakuminal* deritzo. Beste hitz pare bat erabili ohi da →fonema-mota hau adierazteko: bai →«erretroflexu» eta bai →«zerebral» ere.

Asiako hizkuntzei dagokienez, hindieraz aurki daitezke sail honetako kontsonante batzu: /ʈ/, /ɖ/, /ɽ/ eta /ɳ/.

Europari dagokionez, berriz, Italiako Hegoaldean aurki daitezke horrelakoak (Sizilia, Kalabria) eta Sardinia irlan: /ɖ/. Ingalaterran eta USA-n ere bai, eskuarki /r/ →apikari baten galeraren ondorioz: *far, earle, girl,* eta abar.

Euskal *s* kakuminala izan da; eta zaharrek kakuminal ahoskatzen dute leku askotan.

Kalkoa
calco / calque / calque

Nozio edo gauza berriak izendatzeko, A hizkuntza batek (euskarak, adibidez) B hizkuntza bateko (frantsesa, adibidez) →hitz bat, bakuna zein konposatua, dela hizkuntzan lehendik zegoen hitz bakun baten bitartez, dela hizkuntzan lehendik zegoen zenbait hitzek osaturiko termino baten bitartez itzultzen duenean, kalko linguistikoa dagoela esaten da. Kalkoa eta →mailegua ondo berezten dira, zeren maileguan hitz arrotza dagoen-dagoenean integratzen bait da. Adibidez, gaur egungo euskaraz *kanpin* eta *futbol* ingelesetik hartutako maileguak lirateke. Hitz konposatuetan, A hizkuntzak B hizkuntzaren elementu-ordena gordetzen du, bere erabilera normalaren aurkakoa bada ere. Euskaraz, XX. mendearen hasieran, eta Sabin Arana Goirik ezarri zuen →garbizaletasunaren eraginpean, zenbait hizkuntz kalko eratu zen (egunoroko bizimodu hiritarrean teknikazko hitz erabilienetan batipat); adibidez, «telefono» grekotiko hitzaren ordez «urrutizkina» kalkoa erabili ohi da.

Kanalea
canal / canal / channel

→Komunikazioaren prozesuan →kodeen →zeinuak igortzen diren bideak *kanaleak* deitzen dira komunikazio-teorian. Kodea mezu-tankeran adierazteko behar den oinarri fisikoa da kanalea, hala nola kable elektrikoak komunikazio telefoniko eta telegrafikoan, edo orriak komunikazio idatzian, edota beste bide tekniko batzu (ondak, gasak, e.a.), beste komunikazio-molde batzutan. Hitzezko komunikazioan haizea da igorpenaren kanalea.

Kantitatea
cantidad / quantité / quantity

Eskuarki, denboran barrena →fonema batek hartzen duen iraupenari deritzo kantitatea.

Fonemen →ezaugarri hau, horretara, (segundo)tan neur daiteke; funtsean denbora bait da.

Baina, noski, kantitate hori ez da aldakaitza. →Azentuaren arabera, esate baterako, luzatu egin daiteke; baita zenbait →kontsonanteren aurrean ere: /r/, adibidez.

Kantitateak ondorio fonologikoak izan ditzake, latinez zeuzkan bezala. Frantsesez, esate baterako: «maître» [mɛ: tr] eta «mettre» [mɛtr].


Kontsonanteei buruzko luzakuntza, geminazio gisa mamitzen da. Euskaraz, dena dela, bokal bikoitzik izan badaiteke ere *(zaarra, semeen),* kontsonantezko geminaziorik ez dago, *r*-arena salbu: *oro (orro(a)).*

Kantitatezkoa
Ik. ZENBATASUNEZKOA

Kardinala
cardinal / cardinal / cardinal

1. →Adjektibo zenbatzaile kardinalak zenbatasun zehatza adierazten duten adjektibo edo izenak dira (bat, hamar, ehun, etab.), lerruna, ordena edo →banaketa adierazten dutenei aurkajarriaz. Banaketa-gramatikak eta gramatika →sortzaileak zenbakizko kardinal hauek mugatzaileen artean sailkatzen dituzte (→erakuslea, →artikulua, →mugagabea edo →edutezkoak bezala).

2. →Soinu bat kardinala dela esaten da soinu horren →artikulazio-→lekugunea arautzat hartua izan denean. Nazioarteko →Alfabeto Fonetikoaren (API) eratzaileek, eta batez ere Daniel Jones-ek, soinu bakoitzarentzat zeinu grafiko bat aurkitzea ezinezkoa zela ikusirik, artikulazio-sistema standar bat erauzi zuten, →erreferentzia gisa alboko artikulazioekin konparatzeko erabil zitekeena, batipat →bokalezko artikulazioekiko. Hala eratu ziren 8 bokal kardinal edo jatorrizko bokal kardinalen →sistema bat; i, e, ɛ, a, ɑ, o, u. X izpien bitartez, zera ikusi ahal izanda, 8 bokal hauei dagozkien mihiaren lekugune desberdinek aho-barrunbean trapezio ideal bat osatzen dutela; trapezio honen irudikapen grafikoa oso egokia da →bokalak bokal kardinal edo nagusiekiko dituzten →aldaketak azaltzeko (ik 13. irudia).




13. Ird. Bokal kardinal primarioen sistema (Dubois eta beste, *Dictionnaire de linguistique*, 1973).

Bokal kardinalek bi dimentsioren baitan osatzen dituzte artikulazio-poloak: mihiaren parte gorengoaren lekugunearen baitan, eta ahoaren →irekidura-mailaren baitan. Polo hauen artean bitarteko lekuguneak kokatzen dira, gutxi-gorabehera berdinak diren →akustika mailako desberdintasun-graduak berezten dituztelarik:

i (u)- e (o), e (o) -ɛ (ɔ), ɛ (ɔ) — a (ɑ).

Hirugarren aldagai bati parte harrerazten badiogu, ezpainen lekuguneari hain zuzen, ondoko bokal kardinal sekundarioen sistema erauzi ahal ukango dugu: y, ∅, oe, ɑ, ʌ, ɣ, ɯ. Sistema primarioan ezpainak kanpoaldera luzatzen dira →atzeko bokaletarako, eta lekugune neutroan geratzen aurreko bokaletarako; sistema sekundarioan, aldiz, →aurreko bokaletarako kanporatzen dira ezpainak, eta lekugune neutralean geratzen atzekoetarako. Eta horretan, bigarren trapezio bat era daiteke, haatik →sistema sekundario honetako bokalak askozaz bitxiago direla munduko hizkuntzetan kontutan hartu behar da (ik. 14. irudia).



14. Ird. Bokal kardinal sekundarioen sistema (Dubois eta beste, *Dictionnaire de linguistique*, 1973).

Kasua

Morfologiaren ikuspuntutik, →lexema berberak bere →sintaxi-→funtzioaren arabera hartzen dituen forma desberdinak dira kasuak (ikus Deklinabidea).

	latin	*turkiera*	*euskara*
nom. sg.	dominus	ev	mendia
nom. pl.	domini	evler	mendiak
abl. sg.	domino	evden	menditik
abl. pl.	dominis	evlerden	mendietatik

Kasuen kopurua oso aldagarria da hizkuntzen arabera: grekoz 5, latin eta turkieraz 6, antzinako hindueraz 8, euskaraz 14; eta funtzioen banaketa oso urrunkor agertzen da, baita hertsiki jatorrikide diren hizkuntzen artean ere.

Hizkuntzak sailkatzeko erizpide garrantzitsua izaten da →ergatibo kasua izatea: hor ditugu, esate baterako, euskara, eskimala eta georgiera ergatibodun hizkuntzen artean.

Hizkuntza indoeuroparrek bestela jokatzen dute. Honetan, →aditz guztien →subjektua agertzen da →nominatiboan; ergatibodun hizkuntzetan, berriz, molde berean agertzen dira aditz →iragangaitzen subjektua eta aditz →iragankorren osagarri zuzen deritzona; hauen subjektua ergatibo gisa agertzen delarik:

Latin

Homo (Nom) canem (Akus) visit
Homo (Nom) venit

Euskara

gizonak (Erg) zakurra (Abs) ikusi du
gizona (Abs) dator

Kasu-gramatika deritzon joeraren ordezkariek (Fillmore, eta abarrek), ekinaldi berri bat egin dute azkeneko 10 urte hauetan kasuak →sakoneko egituran duen lekua eta →kategoria semantiko gisa defendatzeagatik. Hemen →adiera zabalagoa du kasu hitzak; horretara kasu-→atzizkien eta harreman-hitz edo postposizioen arteko erlazio estua azaltzen du. Erlazio hori beste autore batzuk ere azpimarkatu dute aurretik (→Hjelmslev-ek, adibidez).

→Sakoneko egitura batek, osagai hauek ditu funtsean: aditz-hun bat eta aditzaren artean, kasu-erlazio bat dago. Fillmorek unibertsaltzat jo eta aurkeztu dituen kasuen ilaran, hauek ditugu: Agens, Object, Dative, Experiencer, Instrumenta, Locative, Comitative, Directive...

Lan interesgarriak idatzi dituzte →Jakobson-ek eta Kurylowiez-ek; eta beraietan →paradigmen barruan dauden erlazioak aztertu dituzte, aurkakotasun berezgarri gisa; eta, honen bitartez, sistema trinko egiten dituztelarik.

J. L. Iturrioz
Itz. *Txillardegi*

Katakresia

catacresis / catachrèse / catachresis

Hitz baten →esanahia bere esparru hertsitik zabalagora hedatzen duen metafora bat da katakresia, erabiliaren erabiliaz metafora-kutsua galdua duena. Adibidez: *siloi baten besoak.*

Katea

cadena / chaîne / chain

Hizkuntza, lehenik, denboraren harian gertatzen diren ahots-fenomenoen segida bezala agertzen da, →esakuneak eratzen dituzten unitate linguistikoen segida bezala; segida honi, *katea mintzatua* deritza. Unitate linguistikoak elkarri loturiko katemailak bezala direla adierazten du izendapen honek, eta ez direla bata bestearen ondoren nolanahi pilatzen. Katea mintzatuaren azterketak bi ardatzen berri ematen du: kateako elementuen segida aztertzen duen ardatz sintagmatikoa, eta kateako puntu bakoitzean →hiztunak egin behar dituen hautapenak aztertzen dituen ardatz paradigmatikoa.

Kateadura

concatenación / concaténation / concatenation

→Berridazketa-→erregela batetan, [+] kateadura-zeinuak zera adierazten du: osagaiak kateaturik daudela bata besteari formulak ezartzen duen ordenan. Honako gramatika-erregela honetan:

$$IS \rightarrow I + Det.,$$

[+] zeinuak, izen-→sintagma honela eman behar dela adierazten du: I (izenaren ikurra), izen-sintagmaren ardatza, Det-i (→determinatzailearen ikurra) kateatua.

Berridazketa-erregela batetan aukerazko osagai bat derrigorrezko osagai bati kateaturik dagoenean, bi osagaien kateadura juxtaposizio hutsez adierazten da. Horrela, AS → (OZ) (ZO) A erregelan, →aditza derrigorrezko osagaia dela eta →objektu zuzena eta →zehartako objektua aukerazkoak direla, adierazten da.

Kateamendua

encadenamiento / enchaînement / linking

U. →Weinreich-en teoria semantikoaren barruan erabiltzen da hitz hau. *Aulki* →hitzari dagokion errealitateak sei →ezaugarri baldin baditu (hankaduna, eserlekuduna, bizkarrekoduna, koloreduna, gorri, berdea), seiok batera beharko ditu aulki berezi horrek (bost bakarrik baldin baditu, esate baterako, ez da aulki berbera izango). Bestela esatera, E_1, E_2, E_3, E_4, E_5 eta E_6 ezaugarriok batera behar baditu, seion «linking» edo biderkaketa beharko dugu:

$$E_1 \cdot E_2 \cdot E_3 \cdot E_4 \cdot E_5 \cdot E_6$$

Eta honi ezaugarrien *kateamendua* deritzo Weinrich-ek.

Kausala

Ik. KAUSAZKOA

Kausazkoa

causal / causal / causal

Sin.: KAUSALA

→Proposizio bat, beronen kausa edo zergatia adierazten duen beste proposizio bati koordinatzen edo menpekotzen dion →juntagailuari esaten zaio *kausazkoa* edo *kausala.* Honela, *sua aise zabaldu zen zeren etxe osoa zurezkoa bait zen* perpausean, *zeren* kausazko juntagailua da, eta *zeren etxe osoa zurezkoa bait zen* kausazko proposizioa. Era desberdinak daude euskaraz kausazkotasuna adierazteko, guztiek ñabardura berbera ez badute ere: Sua aise zabaldu

zen, (1) *etxe osoa zurezkoa zen eta;* (2) *etxe osoa zurezkoa bait zen;* (3) *etxe osoa zurezkoa zelako;* (4) *zeren etxe osoa zurezkoa bait zen.*

Kiasmoa

quiasmo / chiasme / chiasm

Kiasmo hitzaz bi perpausen alde simetrikoen ordena-alderantziketa adierazten da. *Kiasmoak* →antitesi edo paralelo bat eratzen du; adibidez, latinezko «matrem habemus, ignoramus patrem», edo G. Arestiren bertsoan «joan zen uda / eta negua heldu da».

Kidetasuna

afinidad / affinité / affinity

Jatorri-ahaidetasunik ez duten bi hizkuntza edo gehiagok zenbait antzekotasun tipologiko aurkezten dutenean (perpausaren antolamendua, hiztegi orokorra, →deklinabidea, etab.), hizkuntza horien artean *kidetasuna* dagoela esaten da. Adibidez, latinezko eta errusierazko deklinabideen artean dauden antzekotasunak jatorri-ahaidetasun bati zor zaizkio, gramatika →sortzailearen arabera hizkuntza bi horiek jatorri bera bait dute: →indoeuroparra. Takelmaren eta indoeuroparraren arteko antzekotasunak, aldiz, halako kidetasun bati zor zaizkio.

Kinada

Ik. ESTIMULUA

Klasea

Propietate →erkide bat edo gehiago duten objektu edo hizkuntz gertakizunen multzoa da.

1. →Banaketa-gramatikan, →*klase gramatikala* →berbaldian momentu jakin batetan azal daitezkeen unitateen multzoa izango da. Agerpen-ahalmen honen bidez →corpus bat harturik abiapuntutzat, klaseak egingo ditugu.

Eman ditzagun honako perpausok:

Zakurra doa	Hor atea dago
Umea dator	Emakumeak ura dakar

Corpusa aztertuz, berbaldi-atalak aterako ditugu: izena, →aditza, mugatzailea, deklinazio-→atzizkia...

Klaseak osatuz eta azpiklaseak bereziz (I →bizidun/I bizigabe, A nor/A nornork...) gramatikalariak, hizkuntzan onar daitezkeen perpaus guztiak, eta hauek soilik, erabaki ahal izango ditu. Goian aipatu dugun kasuan, corpusean, azpisailkapenak **Ateak ura dakar* edo **Atea dator* ezin direla egin esan behar digu. Eta *Zakurra dator* edo *Umeak* ura *dakar,* berriz, ondo daudela.

Banaketa-klase nozioak, gauzatutako →berbaldietako hainbat anbiguotasun argituko ditu. Esaterako: *Chomsky-ren kritika* anbiguo da. Banaketa-klase nozioa egiturazko hizkuntzalaritzan emankor izan da maila diferenteetan (analisi fonologikoan, analisi morfematikoan eta Z. S. Harris-en →hizketaren analisian ere bai). Baina ezin du hizkuntzako anbiguotasun guztien berri eman; hau izango da Chomsky-ren kritikako puntu bat.

Chomsky-ren kritika ez da desanbiguotzen ez →banaketa-klaseen bidez ez →arartegabeko osagaien bidezko analisiaz. Perpausaren →eratorpen-moduak soilik (→sakoneko egituratik gauzatze morfofonologikora pasatzeak) argi dezake azaleko egituraren interpretazio semantiko bikoitza: Chomsky-k egin du kritika; Chomsky-ri egin zaio kritika.

2. Klase-nozioa →semantika estrukturalean klaseen logikaren →ereduari jarraikiz erabiltzen da. Esaterako, ahaidetasuna adierazten duten →hitzen taxonomia unitate desberdinen arteko klase-erlazioak aztertuz erabakitzen da; *guraso* hitzaren «denotata»-ren klasea, *aita* hitzaren «denotata»-rena baino handiagoa da; beraz, *aita,* gurasoen klaseari buruz, →hiponimiazko erlazioan dagoela esango dugu.

Hiperonimo *(guraso)*/Hiponimo *(aita)* →aurkakotasuna maiz erabili ohi da semantika estrukturalean.

3. →*Morfema-klase* esaten zaio →textuinguru berdina duten morfemen multzoari. *-ki* adberbio-atzizkiaren textuinguruan, *eder, on, eme, berri...* morfemak aurkitzen ditugu. Morfema hauek *-ki* textuinguruak definitzen duen morfema-

klasea osatzen dute. Alde honetatik, *gorri, urdin...* morfemei kontrajartzen zaizkie goikoak, azken hauek ez bait dute *-ki* textuingururik.

4. →*Hitz-klasea:* egiturazko eta banaketazko hizkuntzalaritzan, aldez aurretik mugatutako perpaus-textuingurutan antzeko banaketak dituzten hitzen →kategoriari esaten zaio. Horrela, →adjektiboen klasea ezarriko dugu, euskaraz (azaltzen denean) beste kategoria baten ondoren, izenaren ondoren doalako. Hitz-klaseak gramatika tradizionaleko →berbaldiaren atalen ordez erabiltzen dira.

5. *Izen-klasea,* «klase-ezaugarri, erakusle» edo «sailkatzaile» deituriko atzizki batzuen erabilerak zertzen dituen kategoriei esaten zaie. Esaterako, Afrikako hizkuntza batzuetan «sailkatzaile» deituriko atzizki honek azalduko digu izena zein klase nominaletakoa den (gizaki, egile...).

6. *Banaketa-klasea* edo *klase paradigmatikoa* anitz perpausetan bata bestearen ordez ipin daitezkeen, hau da, banaketa-egokiera berdinekoak diren, morfema lexikal edo gramatikalen multzoari esaten zaio. Eman dezagun honako perpaus hau:

Zuk ..... a erosi duzu.

Textuinguru horretan: haragi, ogi, arraultza, esne, sagar... azal daitezke. Beraz, banaketa-klase batetan sartuko ditugu.

7. *(Morfemen) segida-klase* textuinguru berdina duten morfemen segida multzoari esaten zaio. Horrela, *ardo-edale, txerri-hiltzaile, fruta-saltzaile...* klase berean sartuko ditugu, →izen-→sintagman textuinguru berdinak dituztelako: zenbait, asko, -a...

8. *Baliokidetasun-klasea* →baliokidetasunean edo banaketa-identitatean oinarritzen diren klaseei esaten zaie. Klase hauek ezartzea izango da banaketazko hizkuntzalaritzaren helburua →hizketaren analisian (Z. S. Harris).

Lehenengo operazioa, berbaldietan hitz identikoak (piboteak) bilatzea da. Berbaldi batean pibotearen aurretik eta atzetik doan edozer gauza, beste berbaldi batean pibot beraren aurretik edo atzetik doanaren baliokide da. Horrela, lehen klasesorta ezartzen da. Bigarren momentu batetan berbaldi desberdinetan azaltzen diren baliokidetasun-klase bereko bi elementuren aurretik edo atzetik doan edozein klase berritan antolatzen da. Horrela, bi sarrera dituen taula bat egin daiteke, ordena horizontalak baliokidetasun-klaseen arteko harremanak adierazten dituelarik.

Har dezagun textu hau:

«Bost mila pertsona ezin dira alde batera utzi».

«Bost lagunetatik lauk X auto-marka nahiago dutela diote».

«Bost lagunetatik lau ezin dira alde batera utzi».

«Zuek eta zuen familiak ere nahiago duzue X auto-marka».

Lehen ardatz edo pibote bat izango dira: «ezin dira alde batera utzi». Hemendik A klase bat aterako dugu: «bost mila pertsona», «bost lagunetatik lau». Bigarren pibotea: «bost lagunetatik lau» hartzen badugu, B klasea lortuko dugu. Bertan: «ezin dira alde batera utzi», «X auto-marka nahiago dutela diote» sartzen ditugularik. Koadroak honako forma hau izango du:

A

A_1 Bost mila pertsona
A_2 Bost lagunetatik lauk

B

B_1 Ezin dira alde batera utzi
B_2 X auto-marka nahiago dutela diote

Laburketan aurrerago joan ahal izateko, hizkuntzako hainbat erregela ezagutzat eman behar ditugu (hizkuntzan, *a priori,* aktiboaren eta aktibo horri dagokion pasiboaren arteko baliokidetasuna ezartzeko aukerabidea eskaintzen diguten transformazio gramatikalak esate baterako, edo-ta oinarrizko perpausaren eta handik eratorritako erlatiboaren artekoak).

M. Azkarate

Klasikoa

clásico / classique / classical

1. Kultur eremuan mementu jakin bati dagokion hizkuntz →egoerari deitzen zaio

klasiko, une hori →erreferentzia eta arau bezala hartzen delarik. Honen aurreko hizkuntz egoerei *klasiko aurreko* izena ematen zaie, eta ondorengoei, berriz, *klasiko ondoko.* «Klasiko» →kontzeptua, hizkuntzak mementu batetan, oreka eta perfekziozko egoera lortu duelako ideiari dagokio. Une horrekin konparatuz, aurreko egoerak ez-perfektu bezala azaltzen ziren, eta ondorengoak, gainbeherakotzat jotzen,

2. Euskararen literatur tradizioan, XVII. mendea, Axular eta Sarako eskola ordezkari bezala dituela, aldi «klasiko»tzat jo ohi da.

Kleene

Kleene / Kleene / Kleene

→Egoera-kopuru finituzko gramatikari *Kleene-ren gramatika* esaten zaio batzutan.

Klik

clic / clic / click

Hizkuntza bantuetan, hotentote eta boskimanoan agertzen den →soinu berezia da. Soinu hori leherpen biren ondorioa da: bata, leherpen nagusia, ezpainek edo mihiaren aurrekaldeak egina; leherpen honen arabera berezten dira klik-motak (→ezpainkari, →horzkari, →sabaikari...). Bestea, leherpen lagungarria, beti da soinu →belarra, hau da, mingainaren atzekaldea aho-sabairantz jasoaz egiten da.

Klimax

climax / climax / climax

Gaur egungo azterketa estilistikoetan, egileak goren puntuko hunkipena lortzeko, efektu kontzeptual eta adierazgarrienak pilatzen dituen textuko lekua izendatzeko erabiltzen da *klimax* hitza.

Goranzko mailaketa ere adierazten du: «eskuinetik, arkupetik, alboan, urrean, hurbil, ondoan ia, ez hamar metro baino urrunago» (R. Saizarbitoria: *100metro).*

Koaleszentzia

coalescencia / coalescence / coalescence

Bi elementu foniko edo gehiago batean biltzeari esaten zaio koaleszentzia edo laburbilketa. Adibidez: hegoaldeko euskalkietako *mandatu* > *manatu* egiten da iparraldekoetan.

Kodea

Sin.: ZEINUTERIA

Kode bat seinale-→sistema bat da —edo →zeinu- edo →sinbolo-sistema—, aldez aurreko hitzarmen bat dela medio seinaleen iturriaren —→igorlearen— eta →jasotzailearen —hartzailearen— arteko informazioa irudikatzeko eta igortzeko eratzen dena.

Izaera desberdinetako seinalez osaturik egon daiteke zeinuteria bat. Seinaleak →soinuak izan daitezke (kode linguistikoa), edo →sinboloak (zirkulazio-seinaleak, esate baterako), edo izkribuzko zeinuak (kode grafikoak), edo keinuzko zeinuak, edo seinale mekanikoak (Morse →alfabetoan bidalitako →mezuak), etab.

Zeinuteria osatzen duten seinaleen kopurua mugatua da; seinale hauen kopurua bera konbentziozkoa da gehienetan eta ez da aldatzen zeinuteriaren erabiltzaileen akordioz ez bada.

→Komunikazio-prozesuaren barruan, transmutazio-sistema bat da zeinuteria, mezu baten forma mezua igortzeko aukera ematen duen beste forma batetara aldatzen duena. →Izkribakera, esate baterako, mezu akustikoa mezu grafiko bihurtzeko aukera ematen duen kodea da. Mezua forma berri kodifikatuan aldatzeko operazioari *kodeketa* edo *kodifikazioa* esaten zaio. Kodeketa, igorle-kodetzailearen baitan gertatzen da. Behin kodetuz gero, igortzeko moduan dago mezua, →kanalearen bitartez. Forma kodifikatuak ez du zentzu-→aldaketarik jasan. Forma hau, ondoren, helmugara iristen da, jasotzaile edo hartzaile-deskodetzailearengana, zeinaren baitan gertatzen bait da →*deskodeketa* edo *deskodifikazioa.* Operazio honen barruan ematen zaio zentzurik forma kodifikatuari. Kodeketatik deskodeketara doan kode-transmisioan parte hartzen duten prozesuen multzoak, komunikazio-prozesua osatzen du. Kodea mezu edo informazio bat igortzeko era ematen duen forma bat denez, emititzen diren seinaleek ulergarriak izan behar dute hartzailearentzat; bestela, komunikaziorik ez dago. Kodea, beraz, konbentziozko sistema da, explizituki formulatzen da.

Komunikazio-sistemen artean lehen mailan aurkitzen diren hizkuntza naturalek, zeinu-sistema edo kode linguistiko baten forma dute, zeinuak ahots-zeinuz —edo →fonemaz— osatuta daudelarik. Fonema gutxi batzu dira eta elkarrekin

konbinagarriak. Fonemen konbinazio-→erregelak konbentziozkoak dira eta kodearen erabiltzaile guztientzat →erkideak eta beroriei esker goragoko mailako hizkuntz zeinu batzu —→morfemak— era daitezke.

L. Artola

Kodetu

codificar / coder / codify

Sin.: KODIFIKATU

Aditzera eman nahi den →kontzeptu-saila erabaki ondoren, kontzeptu horiei dagozkien eta →kanale baten bidez igor daitezkeen elementu fisikoak erabakitzea da *kodetzea.*

Kodifikatu

Ik. KODETU

Koerlazioa

→Pragako eskolan →Troubetzkoy-k emandako mugaketaren arabera, *koerlazioa koerlazio-→marka* bera duten →bikote koerlatiboek osaturiko multzoa da, h.d., ezaugarri fonetiko baten izateaz ala izaterik ezaz definitzen diren →fonema-→pareek osatutako multzoa. Esate baterako, honako fonema-pare hauetan euskaraz agertzen den ozentasuna:

/p/ vs. /b/, /t/ vs. /d/, /k/ vs. /g/

Bikote koerlatibotzat hau ulertzen du →Troubetzkoy-k: →aurkakotasun →aldebikari, →proportziozko eta →pribatibo batez definituriko bikotea: esan nahi bait da, aldebikaria, parekideen arteko aurkakotasuna, pare horretan gertatzen delako bakarrik:

/t/ vs. /d/


horiek bait dira euskarazko →soinuetan →horzkari izanik, →herskari gisa ere definitzen diren bakarrak; *proportziozkoa* /→ozen vs. →gor/ delako aurkakotasuna beste kasu batzutan ere agertzen delako, hala nola /p/ vs. /b/ eta /k/ vs. /g/ bikoteetan; eta pribatiboa, ozentasuna pareko elementu batetan agertzen delako bakarrik baina ez bestean. Aurreko kasuan /d/ zen ozena, ez ordea /t/. Bikote koerlatibotan ordenaturiko →fonemak, «parekatuak» deitzen ditu errusiar printzeak, eta «ez-parekatuak» besteak; eta koerlazio-marka ezaugarri fonologiko bat da, zeinaren presentziak ala ausentziak bikote koerlatiboa definitzen bait du; eman dezagun afrikazioa euskarazko pare hauetan:

/tz/ vs. /z/, /ts/ vs. /s/, /tx/ vs. /x/

→Fonema bat mota bereko koerlazio askotan agertzen denean, bikote koerlatibo berberetan agertzen diren beste fonemak *koerlazio-ardatzetan* sailkatzen dira. Koerlazio-ardatz hauek oso desberdinak izan daitezke. Ardatzik erkideenak koerlazio ahaide bik osatutakoak dira; kasu bi dira gehienetan gertatzen direnak: edo koerlazio bakoitzeko elementu biek beste koerlazioan ere hartzen dute parte, edota koerlazio biek elementu bat besterik ez dute erkide. Lehen kasuan lau terminotako ardatzak dauzkagu, sanskritozko adibide honetan bezala:

/p/ vs. /ph/, /t/ vs. /th/, /k/ vs. /kh/
/b/ vs. /bh/, /d/ vs. /dh/, /g/ vs. /gh/

bigarren kasuan, Iparraldeko euskalkietan bezala, koerlazio horrek hiru termino besterik ez ditu:



A. Eguzkitza

Koinea

coiné / koiné / koine

Greziarrek, Atikoaren oinarria harturik, K.a. IV. mendean aukeratu zuten hizkuntza →erkidea, →dialektoen aroa amaitu zelarik.

Kolorea

color / couleur / colour


Kolore hitza, entzumenezko eta ikusmenezko sentipenen artean erraz egiten den →elkargoari esker, maiz erabiltzen da →fonetikan, gehienetan altuera- edo zorroztasun-→ezaugarri bati dagokion berezgarri akustiko nagusi zein bigarren mailako bat izendatzeko. Horrela, →bokal eta →kontsonante →sabaikariek (→akustikaren aldetik →zorrotzak) kolore «→argia», edo kolore «sabaikaria», dutela esaten da; kolore hori, gainera, alboko kontsonanteetara zabaltzen da →asoziazioz. Akustikoki lodiak diren bokal →belarrek kolore «lodia» edo «belarra» dute; hemen ere, alboko kontsonanteetara zabaltzen da kolore hori.

Komunikazioa

comunicación / communication / communication

1. Beste →hiztun batenganantz zuzendurik doan →enuntziatuak sortzen duen hiztunaren eta solaskidearen arteko hitzezko →trukaketa da, solaskide hori, enuntziatu hori entzuteko nahiz enuntziatu horri inplizituki, edo explizituki erantzuteko, gauza delarik.

2. Komunikazioaren teorilarien eta hizkuntzalarien arabera, *komunikazioa* zera da, puntu batetatik beste batetarako →mezu baten igorpena. Komunikazioa sortzen denean igorpen honetan parte hartzen dutenek komunikazio-sistema bat eratzen dutela esaten da. Sistema honen elementuak bost dira: 1. →zeinuteria, 2. →kanalea, 3. zarata informatikoa, 4. →igorlea eta 5. →hartzailea. Sistema zehaztuz gero, beste elementu batzu ere aipa litezke, hala nola azpizeinuteriak, →mezuaren iturria e.a. Ondoko grafikoan komunikazio-sistema osatzen duten elementuak irudikatzen dira:



Komunitatea

comunidad / communauté / community

1. Une jakin batetan hizkuntza edo →dialekto bera erabiltzen duten eta elkarrekin komunika daitezkeen gizakiek osatzen duten taldeari esaten zaio *hizkuntz komunitatea.* Nazio elebakardunak hizkuntz komunitate bat osatzen du. Baina hizkuntz komunitatea ez da homogenoa; portaera linguistiko desberdinak dituzten talde-sail handi batez osatua dago beti; talde hauetako kideen hitzegiteko moduak, dela →fonetikan, dela →sintaxian nahiz →lexikoan, belaunaldiari, jatorriari, bizitokiari, lanbideari zein hezkuntzari dagozkien diferentziak agertzera jotzen du. Hortaz, hizkuntz komunitatea hizkuntz komunitate txikiagotan zatitzen da. Komunitateko edozein lagun hizkuntz talde askotan egon daiteke batera.

2. Ez dira nahasi behar komunitate sozio-kultural nozioa eta hizkuntz komunitate eta ama-hizkuntzazko talde nozioak. Zenbait giza-portaera erkidean dituzten indibiduoen bilduma da komunitate sozio-kulturala, portaera horien oinarrian faktore sozialak daudelarik: historia, lanbidea, arraza, nazioa, geografia. Portaera horiek desberdintzen dituzte indibiduo batzu besteengandik, eta portaera mailako desberdintasun horien izenean berezten dira komunitate sozio-kulturalak. Komunitate sozio-kulturala ezaugarritzen duten berezitasunen artean errepresentazio kolektiboak aipa daitezke, gehienbat ideologiari eta kulturari zor zaizkienak. →Hizketa-gertaerek (erabilera-ereduek) eta gizarteak badutela elkarrekin zer-ikusirik suposa daitekeen neurrian, garrantzi handia du hizkuntzaren estudiorako komunitate sozio-kulturalen definizioak.

Komunztadura

Perpaus barreneko elementuen artean izan ohi den lotura bereziari esan ohi zaio komunztadura. Hizkuntza askotan →izenaren, →adjektiboaren, eta →artikuluaren artean gertatzen da →generoari, →zenbakiari eta →kasuari dagokion lotura. Alegia, izena →singularrean baldin badago, adjektiboa ere singularrean aurkituko da. Bestalde, komunztadura hori →subjektuaren eta →aditzaren artean ere gertatu ohi da.

Frantsesez bi hitz ditugu, bakoitza →esanahi desberdinarekin: *accord* eta *concordance.*

Euskaraz, izen-→sintagmaren barnean ez da komunztadurarik gertatzen genero gramatikalik ez dagoelako euskaraz, batetik; kasu-→markak sintagma osoari behin bakarrik eransten zaizkiolako, bestetik; eta berdin zenbakiaren →morfema ere. Baina ,euskaraz, aditzak perpausean ager daitezkeen hiru sintagmekin izan ohi du komunztadura: *nor* sintagmarekin, *nork* sintagmarekin eta *nori* sintagmarekin:

aita etorri da
aita guri etorri zaigu
aita zuk ekarri duzu
aita zuk guri ekarri diguzu

Komunztadura hau, aditzari hiru sintagma horiei dagozkien →morfema batzu eranstea da. Gramatika bihurtzaileak, horregatik, komunztadura →transformazio-→erregela berezi baten bitartez sartzen du, aditz →laguntzaileari hiru sintagma horiei dagozkien markak itsatsiz:

nik *zuei* *zigarroak* *eska* + perf -irag

IS_{nork}	IS_{nori}	IS_{nor}
+I	+II	—I
—plur	+plur	—II
		+plur

1 2 3 4 5 6

1-2-3-4-5-6 —— 1-2-3-4-5-6+1+2+3

Euskaraz perpausaren IS-aren eta adjektibo-sintagmaren artean ere gertatzen da zenbakiari dagokion komunztadura: *gizona ona da* baina *gizonak onak dira*

P. Goenaga

Konektadorea

conectador / connecteur / connector
Sin.: LOTURAGAILUA

Banaketazko →linguistikan, oinarrizko bi perpaus perpaus transformatu bakar batera bihur ditzakeen operadore bat da. Horrela, *ba-*→morfema konektadorea da honako →transformazio honetan:

Joan dator, zoriontsu naiz → *Joan badator, zoriontsu naiz*

Konkretua

concreto / concret / concrete

Mundu fisikoko gauzak izendatzen dituzten →izenei esaten zaie izen konkretuak; izen →abstraktuei aurkajartzen zaizkie, hauek ideologi munduko zerak izendatzen bait dituzte. Horrela, *aulkia, etxea, zuhaitza, Leire,* etab. izen konkretuak dira; *ausardia, indarkeria pentsamendua,* etab. berriz, izen abstraktuak dira. Lehenengoek [+ konkretu] →ezaugarria daramate; bigarrenek, aldiz, [-konkretu] ezaugarria. Bi izen-mota hauek →sintaxi desberdina dute; zenbait →aditzek →subjektu konkretua eskatzen du. Horrela, *ibili, egin, ikusi, ernatu* aditzek izen konkretuak eskatzen dituzte; irudizko zentzuan bakarrik erabil daitezke izen abstraktuekin.

Konjugazioa

Ik. ADITZ-JOKOA

Konnotazioa

→Adierazpenaren prozesutik begiratuaz, konnotazioa, →hiztunak bere →mezuari ezartzen dion bereiztasuna da. Norberak hizkuntzari ematen dion aire berezia. Konnotazioetan gure bizipen pertsonaletako gauzak adierazten ditugu, beste inon aurki ez genitzakeenak, eta hizkuntzaren bidez adierazi nahi genituzkeenak.

Konnotazioak, ulerkuntzaren prozesutik begiratuaz, berriz, hitzek gure barruan esnatzen dituzten sentimendu pertsonalak dira, hitzei buruz ditugun sentimendu pertsonalak.

→Hitzak egoera desberdin askotan ikasten dira. Ikaste-egoeren bereiztasun pertsonal hau da, beharbada, konnotazioen pertsonaltasun honen arrazoia. Olerkariek «konnotazioen maisu edo langileek», haurtzaroa hainbeste gairen iturri izan badute, eta haurtzaroa poesiaren

oinarri garrantzizkotzat jo izan ohi badute, beharbada, hizkuntzaren ikaste garairik aberatsena delako izan daiteke. Textu berri bat irakurtzen dugunero sortzen zaizkigu konnotazioak, edo-ta irudi berri bat, edo herrialde berri bat, edo esperientzia berri bat edo, era berri batez bizitzen dugun bakoitzean ari gara geure hizkuntza konnotazioz betetzen.

Batzutan konnotazioak gizartekotu egin daitezke; orduan, denboraldi batetako kultura deitzen zaie, adibidez, aldi berezi bateko bertso-neurriak ez datoz ados beste aldi batekoekin.

Hitzen →esanahiari buruz aritzerakoan, alderdi bihozkorra eta ezagutzazkoa berezi ohi dira. «Egunoroko hizketan» erabiltzen diren hitzak, hizketa zientifiko edo teknikoan erabiltzen direnez bestaldera, bihozkor diren →elkargo edo konnotazioz beterik daude, konnotaziozko alderdi hauek guztiak ezagutzazko alderdi eta →*denotazioez* gainera. Konnotazio/denotazio →aurkakotasun hau Pottier-ek (1974) honela mugatzen du: konnotazioa →adieraziaren →substantzia aldakorra eta bakoiztailea den bezala, denotazioa adieraziaren substantzia baita ere, baina iraunkor eta sozializatua dena.

Bide beretik, hitzek ezagutzaren aldetik →esanahi berdinekoak izan arren, konnotazio desberdinak izan ditzakete. Bereiztasun hau hitz →sinonimoak aukeratzerakoan ikus daiteke garbi; hiztegiek gaizki jaso ditzaketen bereiztasun horiek —konnotazio horiek— izango dira aukera horren gidari.

MOUNIN G., *Clefs pour la linguistique,* Seghers, Paris, 1968.

POTTIER B., *Lingüística general,* Gredos, Madrid, 1976.

I. Idiazabal

Konparatua (gramatika)

comparada (gramática) / comparée (grammaire) / comparative grammar

Gramatika konparatua, edo →linguistika konparatua, linguistikaren bi adarretako bat da, bestea linguistika deskribatzailea delarik. XIX. mendean, eta batez ere →indoeuropar hizkuntzen ikerkuntzan, lortu zituen arrakastak halako moduzkoak izan ziren, non luzaro ikerketa historiko konparatzailera mugatu bait zen linguistika zientifikoa. Gramatika konparatuak bi hizkuntza edo gehiagotako hitzak (hiztegi arrunta bereziki) alderatzen ditu. Hitz batzuren artean formazko eta zentzuzko antzekotasuna eman daiteke, adibidez ingelesezko eta alemanierazko *son* eta *sohn, mother,* eta *mutter; brother* eta *Bruder* hitzen artean; orduan, hipotesi hau ezartzen da: hitz hauetako bakoitza bi era desberdinetan eboluzionatu duen forma bakar batetik dator. Hemen hasten da →lege fonetikoen papera, horiei esker deskriba bait daitezke forma bakar hartatik (etimotik) forma modernoetara iritsi arte eman diren etapak. Horrela →ahaidetasuna ezarri da, bi hizkuntza berberetik hara (jatorri-ahaidetasuna) garatu direla esateko aukera ematen diguna. Indoeuropar familiak eman dizkio gramatika konparatuari ikergairik bikainenak. Izan ere, hizkuntza hauek, nahiz ez duten besteei buruz inolako nagusitasun intrintsekorik, textu zaharrak kontserbatzen dituzte, ehundaka eta are milaka urte dituztenak. Hizkuntzak ahaideak diren neurrian eta beroriek forma gero eta urrunkorragoak aurkezten dituzten eran, zenbat eta urrutirago jo denboran, orduan eta txikiagoak dira desberdintasunak. Aski da hizkuntza bakoitzaren gaurko egoeraren azterketa hutsa →indoeuropar familia baten izatea frogatzeko, baina gauza asko erraztu ditu textu batzu edukitzeak.

Konparazioa

Ik. ALDERAKETA

Konpetentzia

Sin.: GAITASUNA

Hizkuntz konpetentzia →Chomsky-k 1964-ko «Aspects of the Theory of Syntax» liburuan lantzen duen nozioa da, harez gero →Linguistika Transformatzailean —bere orpoko «→performantzia» hitzarekin— oinarri-oinarrizko →kontzeptua.

Hizkuntz konpetentzia, hizkuntzaren jakintza da; hau da, hizkuntza batez edozein →hiztunek inplizituki dakiena. Bere hizkuntzazko konta ezin hainbat perpaus esan eta ulertzeko, edozein hiztunek duen ahalmen berezko eta ideala.

Chomsky-k berak dioen bezala «hizkuntz konpetentzia, gramatika →sortzailean adierazten den eran, hiztun-entzule batek bere hizkuntzari buruz duen jakintza da». Hau da, hiztun-entzule baten konpetentzia, idealki, →erregela-→sistema baten bidez —gramatika baten bidez— azal daiteke. Horrela beraz, gramatika →sortzailea konpetentziaren teoria da. «Ez da, ordea, hiztunaren edo entzulearen →eredu bat. Gramatika batek, ahalik-eta neutrokienik azaltzen saiatu behar du; hizkuntzaren jakintza entzule-hiztun bati hitz egiterakoan bere oinarria emango dion hizkuntz jakintza horren azalketa ematen, hain zuzen» (1964, 19. or.).

Hizkuntz konpetentziak inplizituki, ahalmen hauek emango lizkioke edozein hizkuntzatako hiztunari:

1. Bere hizkuntzako perpaus bat zuzenki ulertu, eta ongi edo gaizki josia ote dagoen ikusi, edo-ta zalantzazkoa ote den, antzeman ahal izatea.

2. Zalantzazko perpaus bat bada, halakotzat hartu, eta dituen →esanahi desberdinez jabetu ahal izatea.

3. Perpaus bat okerra denean okertzat jo: baina okertasun horren arrazoia ematen jakin ahal izan: okerra bait da ongi josi baina zentzurik gabeko perpaus bat; eta okerra baita ere, zentzudun baina gaizki josirik dagoen perpausa ere.

Askotan Chomsky-ren konpetentzia, De →Saussure-ren «langue»-rekin parekatu izan ohi da. Nahiz eta bi hitzak gramatika edo →erregela-multzo nozioarekin ados etorri, Chomsky-ren konpetentziak psikologiazko →subjektuaren sormenari heltzen dio zuzenki. De Saussure-ren «langue», berriz, erregela-multzo bat bai, gizon bakoitzaren buruan ezarria izan den zerbait litzateke; estatikoa, beraz, ez Chomsky-ren indar edo ahalmen dinamikoa.

Konpetentzia, hitz egiterakoan, hau da performantzia garaian diharduten linguistika hutsezko faktoreez arduratzen da (Ik. *Performantzia).*

Konpetentzia, noski, ezin daiteke zuzenki atzeman; performantzi ekintzak direla medio bakarrik irits daiteke bere aztarrenetara. (Richelle, 1971, 36. or.). Hau horrela delarik, gaur arte konpetentziaz dakiguna teoria hutsezkoa da: gramatika sortzaile bat horrelako teoria bat litzateke. Teoria hauen frogaketa →Psikolinguistika-esperientzien bidez saiatzen dira; baina oraindik hipotesi mailatik ezin pasa gintezke.

Era guztietara, konpetentzi teoria edo hipotesiak behar-beharrezkoak dira performantziaren teoriak eraikitzeko; hau da, subjektu batek perpausak nola esaten edo ulertzen dituen jakiteko, hizkuntz →sistema den makina korapilatsu hori gizonak nola erabiltzen ote duen jakiteko, lehenengo makina horren natura jakin behar (Ik. *Psikolinguistika* artikulua).

CHOMSKY N., *Introducción a la edición española de «Estructuras lingüísticas».* S. XXI, Mexico, 1974.

CHOMSKY N., (1964), *Aspects of the Theory of Sintax.* The M.I.T. Press, 1965.

LYONS J., *Chomsky.* Grijalbo, Barcelona, 1974.

OTERO C. P., *Introducción, notas y apéndices a «Estructuras sintácticas» de N. Chomsky.* S. XXI. Mexico, 1974.

RICHELLE M., *L'acquisition du langage.* Dessart, Bruxelles, 1971.

RUWET N., *Introduction a la Grammaire Générative.* Plon, Paris, 1968.

I. Idiazabal

Konpletiboa

completivo / complétive / completive

Beste perpaus batzuetan txertatutako perpausei konpletibo esaten zaie, perpaus haietan azken hauek →izen-→sintagma →subjektu edo osagarri baten →funtzioa betetzen badute. Esaterako,

Jonek bihar etorriko dela esan du

hemen konpletiboa *bihar etorriko dela* izango litzateke, *esan*-en izen-sintagma →objektua delarik. Euskaraz, perpaus konpletiboko aditzari *-(e)la* eransten zaio; baina →aditz nominalizatua ere izan daiteke perpaus konpletibo: *«paperak lurrera botatzea* ez da zilegi» (IS subjektua litzateke).

Konplexua

complejo / complexe / complex

→Erregela-multzo batek sortutako edozein perpausari *perpaus konplexua* deitzen zaio, baldin eta erregela horietako batek behintzat →geziaren eskubitara perpaus-→sinboloa badarama; hau da, baldin eta sinbolo baten →berridazketa den osagai-segidan perpaus-sinboloa agertzen bada. *Aitonak esan dizkigun ipuinak badakizkit* hartzen badugu, *badakizkit* →aditzaren menpe dagoen izen-→sintagma horrela berridatzi beharko genuke

IS → Izlg. + I + Det.
Izlg. → P + /-en/

(Izen-sintagma, izenlaguna gehi izena gehi →determinatzailea bezala berridazten da; izenlaguna, perpausa gehi /-en/ erlazio-→atzizkia bezala). Baina perpaus bakuna balitz, *aitonak esan dizkigun ipuinak* izan ordez, *aitonaren ipuinak.*

Izlg. → IS + -en

(ukango genuke; izenlaguna, izen-sintagma gehi *-en).*

Perpaus konplexua perpaus →bakunez osatua dago. *Aitonak esan dizkigun ipuinak badakizkit* perpaus konplexura iristeko, bi perpaus bakun behar ditugu: *Aitonak ipuinak esan dizkigu; nik badakizkit ipuin horiek.* Euskaraz, atzizkiren baten bidez (-ela, -en, -elako...) txertatzen ditugu perpausak bata bestearengan. Perpaus konplexua osatzen duten perpaus bakunei →*proposizioak* deitzen diegu.

Konposizioa

composición / composition / composition

Termino honek, hizkuntzan berez autonomia ukan dezaketen elementu lexikalez osaturiko unitate semantikoa izendatzen du. Alderdi honetatik, *konposizioa →eratorpenari* kontrajartzen zaio, beronek hitz berriak sortzeko erabiltzen dituen elementuetatik bat behintzat ezin daitekeelako bakarrik erabil. Hitz konposatuak, beraz, *errotarri, hautsontzi* eta *plazagizon* dira, eta eratorriak berriz, *zoriontsu, beldurti* edo *ikusle.*

Konstrikziozkoa

constrictivo / constrictive / constrictive

Ik. IGURZKARIA

Kontsonantea

consonante / consonne / consonant

Ahots-bideko puntu bat edo gehiagotan eragozpen osoa edo partziala aurkitzen duen →soinua da. Haizea igarotzerakoan eragozpen horrek zarata bat sorterazten du; ba, horixe da hain zuzen kontsonantea, edo kontsonantearen elementu bat. Zarata zeri dagokion, →bokal bat ebaki ondoko ahots-bidearen itxiera edo estutzeari ala bokal bat ebaki aurreko ahots-bidearen →irekidurari, kontsonantea →leherkaria izango da *(m,* adibidez, *maite* hitzean), edo inplosiboa *(z, ezti* hitzean). Kontsonanteak, berak bakarrik, alboko bokal batetan euskarritu gabe, jeneralean ez dira ongi nabaritzen.

Artikulazio-→fonetikan, kontsonante-mota desberdinak berezten dira artikulatzeko moduaren eta artikulagunearen arabera.

Kontzeptua

concepto / concept / concept

→Irudikapen sinbolikoa da, ia-ia beti hitzezkoa, zenbait propietate →erkidean duten objektu konkretu sail batentzat baliozkoa den →esanahi orokorra duena (zuhaitz kontzeptua, adibidez, erkidea da zuhaitz-mota guztientzat).

Koordinazioa

coordinación / coordination / coordination

Gramatika tradizionalarentzat, →funtzio edo →kategoria bereko bi →hitz edo bi hitzsegida koordinaziozko →juntagailu deritzan hitz baten bidez lotzeak definitzen du koordinazioa. *Neskato itsusi eta bihurria* →izen-→sintagman, *«itsusi»* eta *«bihurri»* kategoria bereko dira, eta funtzio berdina dute: neskatoa nolakoa den esatea. Definizio honek hiru problema ditu:

a) Kategoria eta funtzio diferenteko hitzen artean ere gerta daiteke koordinazioa: euskaraz esan daiteke *neska lirain eta itxura apalekoa,* eta *lirain* eta *itxura apalekoa* ez dira ez kategoria bereko eta ez funtzio bereko. Bi unitate hauek →banaketa berdina izan dezakete.

b) «Hitz-segida»k, →proposizioak, perpaus-atalak, eta unitate isolatuak adieraz ditzake: *masaileko gogor eta min ematen duena* sintagman, *min ematen duena* (→proposizioa) eta *gogor* (→adjektiboa) koordinaturik daude.

c) Juxtaposizioa, koordinazioaren kasu berezi bat besterik ez da; juntagailurik ez azaltzea da beraren ezaugarria. *Gizon lodi, bizardun, sendoa.*

2. →Joskera endozentrikoetan bi mota berez daitezke: koordinaziozkoak eta menpekotasunezkoak. Koordinaziozko joskera endozentrikoek, beren osagaiek bakarka hartuta dituzten propietate sintaktiko berberak dituzte. *Neska eta mutil*-ek, *neska*-k dituen propietate sintaktiko berberak ditu. Menpekotasunezkoetan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen.

Kopula

cópula / copule / copula

1. *Izan* →aditzari kopula esaten zaio, oinarrizko perpaus batetan, →atributu batekin (→adjektibo, →izen-→sintagma edo preposiziozko sintagma batekin izen-sintagma →subjektu baten →predikatua osatzen duenean.

«Miren zoriontsu da», «Mikel pilotari izango da», perpaus hauetan *izan* kopula da.

2. *Eta* →juntagailuari, bi perpaus edo perpaus-atal lotzen dituenean, kopula esaten zaio.

Korrespondentzia

correspondencia / correspondance / correspondence

Bi →hitz korrespondentzian daudela esaten da, baldin eta hizkuntza jatorkideetako hitzak izanik, →hizkuntza amaren etimo berberaren →aldaketa erregularren ondorio badira. Horrela, bada, latinezko *quis* eta grekozko *tis* hitzak, sustrai beretik agertu bide direnez gero, **K*^{w}*is* indoeuropar →errotik alegia, korrespondentzian daudela esango dugu. Gauza bera gaztelaniazko *lecho* eta frantsesezko *lit*-egatik esan genezake, biak modu erregularrez latinezko *lectus*-tik heldu bait dira.

Kreolera

Hona hemen →hizkuntz ukipenetan sortzen diren hizkeretako bat.

Jatorriari so eginez, «→lingua franca»-rekin, «→sabir»ekin, «pseudo-sabir»ekin eta «→pidgin»ekin alderatu izan dira kreolerak; izan ere, hizkuntza desberdinak zituzten gizataldeen arteko mintzatubeharrak sortu bait ditu; eta, hori dela bide, ukipenetan gertatutako hizkuntza desberdinetariko elementuz osaturik bait daude. Bide horretatik, jatorrian kreolerak sabir edo pidgin bat direla esaten dute, baina, halako batez, erabilkuntza osoko hizkuntza bihurtu direla, eta gizatalde berezi baten mintzabide bakar ere bai. Horrela hastapenetako →elebitasuna suntsitu, eta kreolera hori gizatalde horren «jaiotizkuntza» eta «→ama-hizkuntza» bilakatu direla.

Kreoleraren mamikuntzan, ondoko hizkuntza hauek izan dira jatorri eta oinarri: frantsesa, ingelesa, portugesa, nederlandera eta gaztelania batetik; eta afrikar hizkuntza-mordo bat, Ginea-Golkoaren ingurukoak bereziki, bestetik. Afrikar hizkuntza hauek esklabu beltzek batez ere eraman zituzten Ameriketara. Hori dela eta, kreolerak frantses, ingeles, portuges, eta abar, gisa, sailkatu ohi dira. Esklabu beltzek elkar ulertzekotan sortu ziren, beraz, kreolerak; baita frantses, ingeles, eta abar, jabeekin hitz egitekotan (baina ez frantsesek edo holandarrek berek, beren esklabuekin hitz egin beharrak sortuak). Eta, horretarako, jabeen mintzairak erdipurdi idurikatzen eta ikasten zituzten.

Kreolerei buruzko ikertzapenak, hizkuntzazkoak batik bat, ondoko hiru multzo hauetan sailkatu ohi dira tradizioaren arabera:

1) Alde batetik, hizkuntza ikasien lardasketa gisa har daitezke, egitura-sinplifikazio gisa (Lenz-ek, e.b., «gutxienera bildutako hizkuntzak» bataiatzen dituelarik; edo-ta, →Hjelmslev-en arabera, «beren hoberenera bildutako hizkuntzak»); edo haurgirotze gisa, frantsesarekin, ingelesarekin, eta abar, alderatzen ditugunean. Horrela jokatu zuten taldeek, beren jatorrietan talde desberdin, ahal bezala eta ahal zuten heinean ikasi zituzten hizkuntza horiek; eta, hori dela bide, kulturazko hizkuntza horien barne-hizkerak besterik ez dira kreolerak, eta horien iker-alorretan sartzen, beraz.

2) Beste alde batetik, berriz, funtsean afrikar egiturazko hizkuntzatzat har daitezke kreolerak (nahiz esklabuen hizkuntza desberdinen aniztasuna hor egon) eta sudandar hizkuntzetatik hurbil batez ere; baina, horretara, kulturazko hizkuntzetatik jasotako eraginak eta interferentziak hartu behar dira kontutan, →hiztegiaren alorrean batez ere. Honen alde mintzo dira bai frantses-kreolerak elkarrekin duten antz harrigarria, bai ingelesezkoena, eta abar (nahiz kreoleren arteko geografi urruntasunak handiak izan) eta bai kreoleren arteko batasuna (frantsesena, eta abar), Caribe-ko eskualdean batez ere.

3) Beste alde batetik, azkenik, «hizkuntza mixto»tzat har daitezke kreolerak sorkuntzaren eta tipologiaren ikuspegitik; baina hizkuntza baliotsu, halere, eta ego-

kituak; linguistikoki frantsesetik edo nederlanderatik aski jareginak; eta «egokiera linguistiko eta soziolinguistiko kreatzaile» baten bitartez eratuak (oraingoan ikuspegia sinkronikoa eta barnekoa).

Berrikiago, halere, Jamaika-ra 1968an bildu zen Biltzarre Internazionaletik bereziki, hizkuntzen pidginizazioaz eta kreolizazioaz izana, bestelako lanik agertzen hasi zen: linguistikoak eta soziolinguistikoak, etnolinguistikoak edo psikolinguistikoak; eta oinarritzat gaur kreoleretan nabarmendu den hizkuntz aldakortasunean finkatzen direla (eta gure mendeerditsura arte izan den egonkortasunaz bestaldera). Oraingo aldakortasun honek, itxura denez, frantseskuntzaren aldera jotzen du (edo ingeleskuntzaren aldera) gero eta gehiago; eta joerari «deskreolizazio» deritzote). Alderantziz, berriz, kreoleraren truke frantsesa nagusitzen zaio ezari-ezarian (edo ingelesa, edo abar), →elebitasun aurreratzaile baten bitartez (aurreratzaile eta diglosikoa batera); eta tresna nagusiak eskola eta alfabetatzekanpainak direla.

Gehienetan desiragarritzat hartu ohi dira hizkuntz →aldaketa horiek (eta, hori dela bide, kreolarrek berek ere, oro har, ontzat emanak, dirudienez); zeren eta, gizarte-aldaketari buruz, garapenari buruz, aitzinamenduari buruz, eta abar, ezinbestekotzat hartzen bait dira. Europar eta Amerikar metropolietako ikertzaileen ustez ez-ezik, Kanada-ko eskolako ikertzaileenez ere. (Nahiz beti salbuespenik izan; kasu honetan Dell Hymes-en lanetan gertatu den bezala).

Ez da hau, guztiarekin ere, sobera harrigarria; zeren eta ezagunegia bait da metropoliek duten hobaria, inperialismozko harremanen alorrean, beren koloniak noiz aparte eta bakandurik eusteko; eta, era berean, eta mintzairaren alorrean, noiz metropolien moduetan sartzeko eta berdintzeko. Hau gertatzerakoan, norberaren desjabekuntza dagokio koloniari, eta metropoli-ereduaren iduriketa soil-soila; edo, hizkuntzaren alorrean, hizkuntzaren trukera; eta, edozein erabaki hartuagatik ere, kolonien aldetik gutxi gora-behera bederen onartua izatea.

Halaz ere, kreolarrak ez diren ikertzaileek «kanpotik» ematen dituzten irizkerok, kreolarrek berek eztabaidatuak izaten hasi dira. Adibide bat hemen ikus daiteke: Dany Bebel-Gisler: La langue créole, force jugulée; ikus *Soziolinguistika* hitz-sarrerako bibliografia).

Itxaron egin behar, beraz, kreolarrek berek beren etorkizuna aztertu, eta azken hitza eman dezaten, are hizkuntzaren arazoan ere. Arte horretan, dena dela, puntu batetan dago batasun osoa: herri kreolarretan iker-sail aparta dago gaur, teoriaren eta praktikaren mailan: hizkuntzalarientzat zein soziologoentzat, ekonomilarientzat, eta abar; eta gauza bera soziolinguistentzat, psikolinguistentzat, etnolinguistentzat, eta abar.

(Honetaraz gero, hau gogorazi beharra dago: 1804ean bere askatasuna lortu zuenez geroztik, Haiti dela egiazki koloni egoeran bizi ez den kreolar herri bakarra; eta hortxe eman litezkeela, beraz, itxura denez, bere kreolera berberaren normalizazioaren gertabide edo prozesua eta gizarte-berjabetza).

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

Kromatikoa

cromático / chromatique / pitch

Azentu kromatikoa ahots-tinbrearen gorapena da, →ahots-korden →teinkadura handiago bati zor zaiona eta →hitz bati edo hitzaren →silaba bati eragiten diona. →*Azentu musikala* eta *goratasun-azentua* ere esaten zaio, eta bibrazioen →maiztasunari dagokio. *Kromatiko* terminoa, ikusmenezko →koloresentipenaren eta entzumenezko tinbre-sentipenaren artean berez egiten den →elkargoak esplikatzen du.

Kuantifikatzailea

cuantificador / quantifieur / quantifier

Zein →kantitatek mugatzen duen →izena adierazten duten →determinatzaileei esaten zaie kuantifikatzaileak. Honela, *bi etxe, etxe bakoitza, etxe guztiak* →sintagmetan, *bi, bakoitza* eta *guztiak* →kuantifikatzaileak dira.

Kuneiformea

cuneiforme / cunéiforme / cuneiform

→Izkribakera kuneiformea, aurkezten dituen ziri edo iltze antzeko elementuengatik

ezaugarritzen da; halakoak dira, hain zuzen ere, Mesopotamiako eskribarien kanabera landuek buztinezko tauletan utzitako markak. Sumerieratik hartua, akadiera eta hitita transkribatzeko erabili zen gehienbat.

Kutsadura

contaminación / contamination / contamination

→Hitz, egitura edo elementu foniko batek beste hitz, egitura edo elementu foniko bati eragiten dion →analogi ekintzari *kutsadura* deitzen zaio. Honela, euskaraz, *Ni etorri naiz* bezalako perpausetatik gramatikalki gaizki dagoen hau bezalakorik entzuten da: *Ni etorri behar naiz, Nik etorri behar dut* esan ordez.

L

Laburbilketa

Ik. KOALESZENTZIA

Laburra

breve / bref / short

Hizkuntzako →soinu bat laburra dela esaten da beraren denborazko hedadura edo iraupena beste soinuekin konparatuz txikiagoa denean. Oro har, →kontsonanteak →bokalak baino laburragoak dira. Kontsonanteen artean, →herskariak →igurzkariak baino laburragoak dira, →ozenak →gorrak baino. Bokalen artean, bokal →itxiak →irekiak baino laburragoak dira: (i) bokala (e) baino laburragoa da eta (e) bokala (a) baino; →atze-bokalak →aurrekoak baino laburragoak dira.

→Fonema bat laburra dela esaten da baldin eta hizkuntza bereko beste fonema luzeago bati kontrajartzen bazaio, fonema biak beste →ezaugarri →bereizle guztiak berberak izanik. Fonema laburren iraupena fonema luzeena baino % 50 gutxiago da.

Hizkuntza guztiek soinu laburrik ezagutzen badute ere, iraupenezko →aurkakotasun fonologikoa duten hizkuntzek bakarrik dituzte fonema laburrak; adibidez, alemanierak (i) laburra eta (i:) luzea berezten ditu «in/ihn»; italierak kontsonante laburrak eta luzeak kontrajartzen ditu/pala/ «pala» vs. /palla/ «pilota».

LAFON, René (1899-1974)

René Lafon 1899ko Irailaren 4ean jaio zen, Mérignac-en (Gironde-n). Aita frantsesa zuen eta ama, aldiz, ipar euskalduna. Eskola Normal Gorenean ikasle izan ondoan, 1920an filosofiako albesteko irakasle gisa aritu zen. Pentsaerak hizkuntzarekin zeukakeen harremana aztertu nahiak hizkuntzalaritzarantz bultzatu zuen. Jadanik 1923an Pariseko *Société Linguistique*-ko kide aukeratu zuten.

René Lafonek hizkuntzalaritza estrukturalaren jaiotza hurbildik ezagutu zuen, eta haren oinarriak ontzat eman ere bai. Berak aitortzen zuenez, bi liburuk markatu zioten erabakiorki bidea: Meillet-en *Les langues du Monde,* bata, eta Alfredo Trombetti-ren *Le origini della lingua basca,* bestea.

Frantzian horretan inor ez zela saiatzen ikusirik, Hego Kaukasiako hizkuntza sailkagaitzak estudiatzen hasi zen, georgiera bereziki. Haiekiko harremanak aztertzeko, bidenabar, begiak euskararantz bihurtu zituen, alor honetan gero eta lan sakonagoak eginez. Nikolai Jakovlev errusiar kaukasologoaren kontseiluz, Ipar Kaukasiako hizkuntzak ere aztertzen hasi zen (adjhaz, txerkes, kabardiera...). Bide horretan abiatuz, René Lafonek euskara eta Kaukasiako hizkuntzen jatorri →erkidea frogatzea zuen helburu, kaukasiar hizkuntza guztiak, noski, iturburu berekoak zirelakoan.

Bere doktoregorako tesia, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle,* euskal estudioetarako mugarri gertatu zen (1943), euskal →aditzaren barne-egiturak bertan azalduz. Bordeleko Unibertsitateak, beretzat, 1948an euskal hizkuntza eta literaturaren katedra jarri zuen, eta handixek bere aztertze- eta irakaste-lanekin segitu zuen, Akitaniako, Pirinioetako eta iberiarren hizkuntzak elkarrekin konparatuz.

→Mitxelena eta beste hizkuntzalari batzuren kritikak gora-behera, Lafonek beti uste izan zuen euskara eta kaukasiar hizkuntza ugarien arteko konparaketek elkarrekiko kidetasuna froga zezaketela nolabait, azken urteetan aurreko baikortasun hura piskat hoztu bazitzaion ere.

Lafonek bai euskaraz eta bai georgieraz oso ondo idazten zekien, eta gutuneria aberatsez landa, zenbait artikulu ere utzi zuen hizkuntza horietan, beretzat aztertze-gai hutsak ez zirela argiro agertuz. Linguistikazko aldizkari askotara bidaltzen zituen bere lanak (RIEV, BRSVAP, Bulletin Hispanique, Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, Bulletin du Musée Basque, Euskera, Bedi Kartlisa «revue de Kartvélologie», ...), eta euskara eta Kaukasiako hizkuntzei buruz, hainbat artikulu idatzi zuen entziklopedietan agertzeko. Bere ohorezko tituluen artean, Euskaltzaindikoa zuen, Tbilisiko Unibertsitateko doktore *Honoris Causa* izanik. Haren heriotzea, 1974ko otsailaren 4ean gertatu zen.

X. Kintana

Laguntzailea

auxiliar / auxiliaire / auxiliary

Gramatika tradizionalean eta baita modernoagoetan ere, sail berezi batetan sartu ohi dira *izan* eta **edun* →aditz-→laguntzaileak. (Euskaraz, jakina denez, **edin* eta **ezan* delakoak erantsi behar dira).

Izan eta **edin* aditzei, *nor* dagokie; eta **edun* eta **ezan*-ei *nork* aditzak. Esate baterako:

a) *erori naiz — eror naiteke*
b) *erosi dugu — eros dezakegu*

b sailean →ergatiboa dugu (guk); baina *a* sailean ez dugu ergatiborik (ni).

→Aditz-joko sintetikoa duten aditzetan, aditz laguntzaile hauek beharrezko ez izatea gertatzen da noizean behin:

nator
dakarte

Baina hauetan beretan ere, eta →ekintza →burutuak adierazteko bereziki, beharrezko gertatzen da laguntzailea:

etorri naiz
ekarri zuten

Lakaina

Ik. SEGMENTUA

LAKONBE, Georges

Orthesen sortua 1879ean, Parisen hilko da 1947an.

Nahiz eta libururik ez utzi, H. →Gavelekin elkar-lanean idatzi zuen eta bukatu gabe utzi zuten *Grammaire Basque*-ko 2. tomoan parte hartu zuen.

Artikulu asko idatzi zituen, berrehun inguru, luzera eta gai desberdinetakoak: itzulpenak liburu-iruzkinak, bibliografi oharrak etab.

Euskaltzaleen Biltzarraren buru izan zen, baita *«Cercle d'Études Euskariennes»* eta *«Société de Linguistique de Paris»*-eko partaide ere, hogeitabost urtez RIEV-eko idazkari.

1921ean euskaltzain oso izendatu zuten P. Broussain-en ordez eta L. L. Bonaparteri buruzko hitzaldi batekin egin zuen sarrera.

1914ean hasi zuen doktoradutza-tesia Aldudeko euskara zuelarik aztergai, 600 orrialde bazituela esango zuen, baina hil ondoan H. Gavel-ek fitxa batzuk besterik ez zituen aurkitu eta argitara eman zuen *Les notes de Georges Lacombe sur le basque des Aldudes* izenburuarekin.

Horrelako zerbait gertatu da bere beste lan batekin, dirudienez, Zuberoko euskararen mendez mendeko aldaketei buruz azterketa bat egiten ari zen baina, ez da lan hau aurkitu.

H. →Schuchardt eta →Uhlenbeck-en miresle honek batipat hizkuntzalaritzat jotzen zuen bere burua eta honen barnean dialektologia izan zen gustokoen zuen gaia.

Landsmal

landsmal / landsmal / Landsmaal

Norvegiako Mendebaldean, zenbait idazlek lantzen duten hizkuntza da *Landsmal*. Zenbait hizkera arkaikoetan oinarritzen omen da.

Laringekoa

laríngeo / laryngien / laryngeal

Laringeko →soinua, biriketatik ateratako airearen eraginez →ahots-korden dardarak sortzen duen soinuari esaten zaio. Soinu hau, burrunbada batenaren antzekoa eta aho-bideko barrunbeetan zehar handitzen delarik entzungarri bihurtzen dena, oinarriz-

ko →tonu bezala erabiltzen da →bokal eta →kontsonante →ozenak gauzatzeko.

LARRAMENDI, Manuel

Manuel Garagorri «Larramendi» Andoainen jaio zen 1690. urtean eta Loyolan aurkituko zuen heriotza 1766an.

Nahiz eta bere lanik garrantzitsuenak espainieraz idatzi euskarari «behar duyen thornuya» ematen saiatu zelako baduke lekurik «euskararen historian».

Garai hauetan euskarak jaso zituen erasoek —aita Marianak: «lengua bárbara e incapaz de cultivo» deitu zuen— erantzun sutsu bat izan zuten Larramendiren luman. *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas: Demostración previa al Arte, que se dará a luz de esta lengua* (Salamanca, 1728) liburuan euskara dela Espainiako hizkuntzarik zaharrena defendatzen du; era berean laudorioz beteko du gure hizkuntza, beronen perfekzioa eta beste zenbaitzurekin erkatuz gero agertzen dituen abantailak azalduaz.

Euskal lehen gramatika ere Larramendik egina da: *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada* (Salamanca, 1729). Hiru zatitan banatu zuen: Deklinabidea eta Aditz-jokoa, Joskera eta Prosodia.

Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín (San Sebastián, 1745).

Espainierako hitzak Espainiako Erret Akademiaren hiztegitik harturik daude eta alboan euskal eta latinezko parekideak dakartza.

Eztabaida asko sortu duen hiztegia, izan ere, euskal harrobiko diren terminoen ugaritasuna frogatu nahirik izugarrizko hitz-mordoa asmatu bait zuen eta noski, ez da erraza asmatzen noiz darabilen herritik jasotako hitza eta noiz berak asmatutakoa, euskararen gutxiesleak honen aberastasuna erakutsiaz harritzeko.

Nolanahi ere, zerk eraman zuen horrela jokatzera, euskara kultu bat bapatean sortu nahiak edo etsaia desarmaturik utzi nahiak, ez dago garbi.

Nahiz eta beste zenbait obra ere idatzi zituen, batipat idazlan hauen bidez egin zuen euskararen apologia.

XVIII. mendearen bigarren erdi aldean eta XIX.enaren lehenengoan idatzi zuten hainbat idazleengan eragin bortitza izan zuen.

Lege fonetikoa

ley fonética / loi phonétique / phonetic law

Lege fonetiko esamoldeak →aldaketa fonetiko jakin baten erregulartasun-printzipioa izendatzen du. →Fonetikari neogramatikoek, Scherer eta H. Paul-ek adibidez, erabili zuten XIX. mendearen bigarren erdian, eta berehala jeneralizatu zen. Hizkuntzalari hauentzat, lege fonetikoak aldaezinak dira: →fonema berak, →textuinguru jakin batetan, hizkuntza beraren baitan eta epe baten barruan aldaketa bera jasaten du hizkuntzako hitz guztietan. Onartzen diren salbuespen bakarrak beste zenbait legeren araberako aldaketak, edo →analogiari zor zaizkion aldaketak dira. Lege fonetikoen artean, →Grimm-ek germanikoaren →mutazio kontsonantikoa azaltzeko eratu zuena da garrantzitsuenetarikoa.

Lehenaldia

Ik. IRAGANALDIA

Leherpena

explosión / explosion / explosion

→Artikulazio →herskariaren bukaeran, artikulazio-organoen batbateko aldenketaren ondorioz arnasbehera-aireak, ahotik irtetean, egiten duen zaratari esaten zaio sarritan leherpena.

On litzateke, hala ere, termino hau, →silaba-hasieran aho-bidea irekitzeak sortzen duen zaratarentzat uztea, leherpena eta →inplosioa berezteko.

Lenizioa

lenición / lénition / lenition

→Bokalarteko →kontsonanteen ahulketazko fenomeno-multzo batetan datzan →mutazio kontsonantikoari esaten zaio lenizioa; fenomeno hau bereziki inportantea da →fonetika historikoan zeltar hizkuntzen eboluzioari dagokionez.

Lerrozkotasuna

linealidad / linéarité / linearity

Sin.: LINEALTASUNA

Egitura eta banaketazko →linguistikan, mintzairaren oinarrizko propietateetatik bat da lerrozkotasuna. →Esakuneak, linealki moldaturiko elementu →diskretuen segidak dira. →Morfema bakoitza →fonema-segida

bat da; perpaus bakoitza, morfema-segida; →berbaldi bakoitza, perpaus-segida. Hizkuntz elementu batzu, morfemak eta →intonazio-→ezaugarriak adibidez, elkarren gain jartzen direla badirudi ere, hizkuntz gertaeren lerrozko segidaren hipotesiaren arabera beti dago lerrozko →irudikapena lortzerik. Katea mintzatua segmentuen lerrozko segida bezala ulertzen duen ikuskera honek ezin ditu azaldu osagai etenak, →anbiguotasuna eta beste hainbat fenomeno.

Letra

letra / lettre / letter

→Alfabeto bat osatzen duten eta alfabetozko idazkeretan erabiltzen den elementu grafiko bakoitzari *letra* deritza. Ez da →soinuarekin nahasi behar: badaiteke idazten den zenbait letra ez ahoskatzea (hegoaldeko euskalkietan *h,* adibidez), letra bakarra bi soinuz ebakitzea (*lexikoa* hitzeko *x* [kś] ahoskatzen da), bi letra soinu bakarrez esatea (*Pello*-ren ll [l̬] ebakitzen da).

Lexema

lexema / lexème / lexeme

Lexiko-alorreko oinarrizko unitatea da lexema, lexiko/hiztegi →oposizioan, non lexikoa hizkuntzarekin erlazionatua bait dago eta →hiztegia →hizketarekin.

Hala ere, teorien arabera, →morfemarekin (morfema lexikalarekin) asimilatuko da lexema, edo bestela esanahizko unitatearekin.

Lehen artikulazioko unitate esanahiduna izendatzeko →*monema* terminoa proposatzen du →Martinet-ek. Gainera lexemak eta morfemak bereztea idarokitzen du: lexemaren lekua lexikoan egongo litzateke eta morfema gramatikan agertuko litzateke. Pottier-ek nahiago du, morfema lexikalak, edo lexemak, eta morfema gramatikalak, edo gramemak, berezi.

Nolanahi ere, «lexema» terminoa erabiltzeak «→hitz» terminoaren →anbiguotasun bat saihesteko bidea ematen du. Nekagarria da, *kantatzen kantatu* hitzaren forma bat dela esan beharra, gramatika tradizionalak eskatzen duen bezala. «Hitz» terminoa zentzu askoz ere konkretuagoan erabiltzen denez, hitz/berba →oposizioaren barruan, linguistika modernoak «lexema» hitzera jotzen du maiz unitate →abstraktu bat adierazteko.

Honela, →aurkakotasun hirukoitza agertzen da: hitz foniko nahiz grafikoa →*vs* hitz gramatikala *vs* lexema.

Lexikografia

lexicografía / lexicographie / lexicography

Lexikografia, hiztegigintzarako teknika eta teknika honen analisi linguistikoa da. Terminoa anbiguoa da, *lexikografo* hitza bezala; honek, aldi berean, lexikografiaz arduratzen den hizkuntzalaria eta hiztegi baten egilea adieraz ditzake. Lexikografi zientzia eta praktika lexikografikoa berezten dira eta, era berean, hizkuntzalari lexikografoa eta hiztegigilea.

Lexikografi lana aspaldikoa da: lehen testigantza idatziak glosategiak eta izendegiak dira. Hala ere, nolabaiteko exhaustibotasuna bilatzen duten lehenengo →hiztegiak moldiztegia asmatu ondokoak dira.

Linealtasuna

Ik. LERROZKOTASUNA

Lingua franca

lingua franca / lingua franca / lingua franca

1. «→Sabir» deritzon hizkuntza mixtoa.
2. Hizkuntza mixtoa.
3. Hizkuntza edo →dialekto desberdinetakoak izanik harreman estuak dituztenek, elkar ulertzearren hautatzen duten hizkuntza edo barietate dialektala. Adibide gisa, Brasil-go tupi dialektoan oinarritzen den *lingua geral* delakoa aipa daiteke. Misiolariek egokitu zuten, indiar populazioen arteko →komunikazioa, baita indiarren eta zurien artekoa ere, errazteko.

Linguistika

lingüística / linguistique / linguistics

Sin.: HIZKUNTZALARITZA

Hizkuntzaren zientzibidezko ikertzapenari deritzo Linguistika.

Bi berezketa egin daitezke, beraz.

Gramatika, batetik, ez da Linguistika. Gramatikak →erregelak ditu helburu: →eredutzat hautatu den hizkuntzan, zer esan «daitekeen» eta zer ezin esan «daitekeen» argitzea. Linguistikak, berriz, mintzatzaileen →hizketaren azterketa egiten du.

→*Filologia,* bestetik, ez da Linguistika. Eta helburu hau du: izkribuen interpretazioa eta iraun eraztea. Filologiak, beraz, izkribuaren dataketa bilatzen du, idazpidearen ikerketa egiten, →aldaeren konparaketa moldatzen eta aldaeren arteko hautapena prestatzen; eta, hitz batez, textuaren egiazkotasuna eta jatorria arakatzen. Datu horien bilduma, geroago, *Linguistikazko* azterketaiturri gerta daiteke; baina beste ikusmolde batek gidatzen ditu *Filologi* bidezko ikerketak.

Ik. FILOLOGIA

Linguistika eta matematika

Txillardegi

Gero eta maizago gertatzen da gaur, linguistikari buruzko liburu bat eskuetan hartu, eta... ekuazioak, →matrize erako ikur-zutabeak, multzo-ebaketak, ulerkuntza zaila duten eskemak eta irudiak, eta abar, aurkitzea.

Hizkuntz jakintzak Giza-Zientzien aintzindaritza beregana bildua duenez geroztik, zaildu egin bide da; eta zorroztu ala, matematikorrago ere agertzen zaigu.

Linguistikaren sail edo adar batzuk bultzatzen dute batera alderdi horretara:

1. →Linguistikaren alorrean *Estatistikak* eragin dituen ikerketak daude batetik: →hitzen edo →fonemen →maiztasunak (→Zipf-en legeak bereziki), idatz-moldeen zenbatasunezko azterketak, eta abar. Azterketa horiek ondorio garrantzitsuak izan dituzte maila batzutan: →hizkuntzen irakasbideen prestaeran, hizkuntza barruko →koerlazio-bilaketan, eta abar.

2. Badago ere, bigarrenik, →mezuen igorpenak berak *Telekomunikazio-Teknikan* sortu duen Informazio-Teoriaren eragina. Markov-en kateek eta Shannon-en teoremek, horretara, beren matematika-kutsua utzi dute Linguistika berrian: «→entropia», «→bit unitatea», «→erredundantzia», logaritmo bitarren beharra, eta abar.

3. Badago, hirugarrenik, nahiz bere funtsean kritikaturik ere, →*Glotokronologia* deritzon ekarpena. Swadesh-en teoriaren arabera, eta oinarrizko hiztegiaren kantitate-azterketa eginda, jakin daiteke jatorri bereko bi hizkuntza desberdin (greziera eta armeniera, eman dezagun) noiz «berezi» ziren.

4. →*Multzoen Teoria* izan da laugarren bultzatzaile bat. →Zenbatasunezko azterketak hizkuntzaren alorrean askotan halako desegokitasuna baldin badu ere, egokiago bide datozkio nolakotasunezko azterketak. Hots, Matematika berriak, Multzoen Teoriak, Logika matematikoak,

eta Logika soilak (Wittgenstein, B. Russell), tresna, izen eta →algoritmo zorrotzak eskaini dizkiote gaurko Linguistikari. →Fonologia bera, beste alde batetik, oso dotoreki azal daiteke Multzo-Teoriaren arabera.

5. Eta bostgarren eragilea, nabarmenena agian, →Chomsky bera da, eta *Ameriketako Linguistika berri* osoa ere. Perpausaren antolakera eta →hiztunaren sormena matematikoki azaldu nahiz, zeharo eman dio Generatibismoak Linguistika berriari bere Logika, Informatika eta Matematika kutsu nabarmena: «teorema», «→axioma», eta horrelako hitzak, topatzen dira nonnahi; baita →zuhaitz sintagmatikoak han eta hemen, eta matrizeak, eta abar.

Orrialde gutxitan mundu oso horren berri ematen zail bada ere, joeren lerro nagusi batzu bederen agerrerazten saiatuko gara; baita, gai bakoitzari dagokionez, bibliografia apur bat ematen ere.

I. GLOTOKRONOLOGIA

Eskualde eta mintzaira-mota guztietan aurkitzen dira hizkuntz →maileguak. Gertakari orokor honen arabera, →hitzak (edo-ta →fonemak) esportatu egiten dira, herritik herrira mailegatu; eta bazeuden hizkuntzatik, ez zeuden hizkuntza batetara hedatzen: ingelesezko «meeting» delakoa, «mitin» itxura hartuz, espainierara igaro da; «taladro» erdal hitza, «daratulu» itxura hartuz, euskarara sartu da; eta abar.

Jakina denez, hizkuntz elementuak eremu egituratuago batetara joan behar, eta nekezago barneratzen; eta, alderantziz, hizkuntz egituretatik bere buruz eta bereziago gertatu behar, eta aisago ere onar eta barneratzen. Fonemen →sistema, horretara, askoz ere →iraunkorrago da, tresneriaren hiztegia baino; eta askoz ere aisago gertatzen dira hitzen maileguak, →morfemen edo fonemen maileguak baino.

Hots, azterketa batzu egin ondoren, hipotesi honetara heldu zen Morris Swadesh hizkuntzalaria: «oinarrizko hiztegia» ongi hautatzen baldin bada, politika eta kondaira-baldintzapenak eta eraginak nolanahikoak izanik ere, kanpotikako hitz-mailegutza abaila edo *erritmo berean* egiten dela hizkuntza guztietan. Mendeoroz, hitz batez, eta Swadeshen iritziz, hitz-kopuru *berbera* aldatzen dute hizkuntza guztiek (beti ere «oinarrizko hiztegi» horri gagozkiolarik).

Hipotesi hori egia baldin bada, hortaz, piska bat «carbono C-14» aren bitartez →datazio eta kronologi bilaketan egiten den bezalatsu jokatuz, hizkuntzen bilakaera-gorabeherak ere aztertu ahal izango ditugu.

Legea, beraz, berretazkoa da; eta honela idatz daiteke:

$$c = r^t$$

Edo, logaritmoak hartuz gero:

$$\log c = t \cdot \log r; \text{ eta;}$$

$$t = \frac{\log c}{\log r}$$

t: alderatzen diren hizkuntza (berbera)ren bi aldi edo fase horien artean joandako denbora.
c: hizkuntza berberaren bi mintzaira-aldiek atxiki duten partea.
r: denboraldi-unitatean oinarrizko hiztegi horretan, jatorrizko hitzaz atxikitzen dena.

Zehatz ditzagun orain oinarrizko hiztegi hori, eta formulan agertzen diren koefizienteak.

A) OINARRIZKO HIZTEGIA

Glotokronologiaren ikerketak sakondu ala, zorroztu egin ditu Swadesh-ek bere koefizienteak eta hitz-zerrendak.

Oinarrizko hiztegitzat, horrela, hiru hitz-zerrenda desberdin proposatu izan dira: lehenengoak 215 ditu, bigarrenak 200 hitz, eta hirugarrenak 100 hitz. Hona hemen ehun hitzetako zerrenda:

— guzti, hauts, zuhaitz-azal, sabel, handi, txori, hausiki, beltz, odol, hezur;
— erre, hodei, hotz, etorri, hil, zakur, edan, lehor, belarri, lur;
— jan, arraultza, begi, koipe, luma, su, arrain, hegan, oin, eman;
— on, berde, ile, hazi (= bihi), eseri, larru, belaun, ilargi, borobil, esan;
— esku, buru, entzun, bihotz, ni, erhan (hil, nork), jakin, hosto, etzan, gibel;
— luze, zorri, gizon (= gizakume), asko, haragi, mendi, aho, izen, lepo, berri;
— sudur, ez, bat, lagun, euri, gorri, bide, sustrai, hondar, ikusi;
— lo-egin, txiki, ke, zutik (egon), izar, harri, eguzki, igeri, buztan, hori (hau/hori);
— hau, hi, hiru, mihi, hortz, zuhaitz, bi, ibili, bero, ur;
— gu, zer, zuri, nor, emakume, hori (kolore), altzo, erpe, bete, adar.

Eman dezagun orain *H hizkuntza bakar baten* bi hizkuntzaldi alderatzen ditugula:

H_1 (t_1 urteko hizkuntza-molde zaharra)
H_2 (t_2 urteko hizkuntza-molde berria)

Eman dezagun ere 100 hitzen zerrenda erabiltzen dugula; eta azterketa sakon bat eginez gero, hau aurkitzen dugula: H_1 hizkuntzaldian genituen ehun jatorrizko hitz horietatik, *c* hitz «jator» gelditu direla hizkuntza berrituan; eta, hortaz, *100 — c* hitz aldatu direla: mailegu bidez, kanpotik sartu dira *100 — c* hitz arrotz, bertako zaharrak aihenatuz.

Hortaz, hizkuntza berberaren bi hizkuntzaldi edo molde horien artean, $(t_2 - t_1)$ urte pasa ondoren, hau dugu:

$$Sw\ 1 — \quad t_2 - t_1 = \frac{\log c}{\log r}$$

c ezagutzen dugu: jatorri bereko hitz jatorren kopurua.

Zenbat balio du *r* horrek? Hauxe da Swadeshek, anitz azterketaren ondoren, ezagutarazten diguna:

$$r = 0{,}854 \pm 0{,}004 \text{ (/ mila urteko)}$$

Swadeshen legea, beraz, honela idatz daiteke;

$$t_2 - t_1 = \frac{\log c}{\log 0{,}854}$$

Logaritmo hori, noski, edozein oinarritakoa izan daiteke; baina bietan oinarri berekoa.

$t_2 - t_1$: bi hizkuntzaldi horien arteko denbora, *r* neurtzeko hartutako unitate berean; kasu honetan, beraz, mila urtetan.

1. Argi dezagun hau *etsenplu* baten bitartez.

Eman dezagun H_1-eko hiztegiaren arabera, % 30 galdurik ikusten dugula H_2 hizkuntzan. Hortaz:

$$c = \%\ 70 = 0{,}7$$

$$t_2 - t_1 = \frac{\log 0{,}7}{\log 0{,}854} = \frac{-0{,}1549}{-0{,}0685} = 2{,}261 \text{ (mila urte)}$$

Beraz, $t_2 - t_1 = 2.261$ urte.

r koefizienteaz gorabeherak badaude, jakina. Hona hemen hizkuntza ezagun batzuren arteko azterketak ematen duena:

kopto/egipziera:	0,76
latinera/errumaniera:	0,77
latinera/frantsesa:	0,79
latinera/portugesa:	0,82
latinera/italiera:	0,85

Ulertzen errazak diren arrazoinengatik, areago atxiki du italierak jatorrizko latina, esate baterako, errumanierak baino.

Hori dela eta $r = 0{,}81$ hartzen dute batzuk (nahiz 100 hitzen zerrendari koefiziente handiagoa egokitu).

2. Lehengo etsenpluan, $r = 0{,}81$ hartuz gero, hau dugu:

$$t_2 - t_1 = \frac{-0{,}1549}{-0{,}0915} = 1{,}629 \text{ (mila urte)}$$

$$t_2 - t_1 = 1.629 \text{ urte}$$

Swadeshen legeak, hitz batez, *gutxi gora-beherako* ondorioak besterik ezin eman ditzake. Eta gisa da. Oinarri duen hipotesia ezin bait da xeheki eta hertsiki hartu.

B) SWADESHEN LEGEA

Swadeshen legea, era berean, *jatorri bereko bi hizkuntza* bereziren arteko berezkunea kalkulatzeko ere erabil daiteke.

Berezkuneko t_0 izan bazen, eta orain t_1 urtea baldin bada, hizkuntz adar bakoitzetik joanez gero, hau izango dugu:

$$c_1 = r(t_1 - t_0)$$
$$c_2 = r(t_1 - t_0)$$

eta biok orain alderatuz gero:

$$c_{12} = c_1 \cdot c_2 = r^2(t_1 - t_0)$$

edo, logaritmoak hartuz:

$$Sw\ 2 - t_1 - t_0 = \frac{\log c_{12}}{2.\ \log r}$$

Argi dezagun hau beste etsenplu batez.

Eman dezagun bi hizkuntza jatorkide alderatuz, eta oinarrizko hiztegiari buruz beti, % 63 hitz jatorkide edo «cognate» aurkitzen dugula. Esate baterako: esp. verde, fr. ouvrir (lat. viridem); esp. lleno, fr. plein (lat. plenum), hitz «cognate» dira.

$$t_1 - t_0 = \frac{\log 0{,}63}{2.\ \log 0{,}854} = \frac{-0{,}2007}{2.(-0{,}0685)} = 1{,}465 \text{ m. u.}$$

$$t_1 - t_0 = 1.465 \text{ urte}$$

Hitz «cognate» edo jatorkideen zerrenda ondo zehaztuz gero, ondorio egokiak ematen bide ditu Swadeshen ikerpideak; batez ere 500 eta 2.500 urteren artean.

II. ZIPF-EN LEGEA

Hiztegien estatistika-lege bat da Zipf-ena.

Baina, agerreraz daitekeenez, Informazio-Teoria oinarritzat hartuz, Zipf-ena ondorio gisa froga daiteke.

Egia esan, badaude izen horretxetaz eman ohi diren beste estatistika-lege batzu; eta ez bakar bat. Eskuarki, ordea, hitzen *maiztasuna* bera, eta maiztasunen araberako lerroko *gradua* lotzen dituen legeari deritzo *«Zipf-en Legea»*.

A) Eman dezagun edozein hizkuntzatako «→corpus» bat: liburu bat, esate baterako. Azter dezagun lehendabizikorik hitz bakoitza *zenbat aldiz* agertua den textu horretan; eta hitz bakoitzari datxekion zifra berezi horrek hitzaren *maiztasuna* neurtuko du *(f)*. «Etxe» hitza, eman dezagun, 326 aldiz agertu baldin bada, 326 izango da «etxe» hitzaren maiztasuna.

Har ditzagun orain liburuan agertutako hitz horietxek; eta idatz ditzagun, tajuturik, zerrenda luze batetan. Lehenengo hitza, maiztasunik handiena erakutsi duena izango da. Bigarrena, bide beretik, lehenengoa idatzi ondoren, maiztasunetan nagusi agertzen dena izango da. Eta abar. *Maiztasunen zerrenda* prestatuko dugu horrela, eta hitz bakoitzari bere *gradua (r)* erantsiko zaio. Zerrendan zazpigarren agertzen den hitzaz, 7 gradukoa dela esango dugu. Eta «etxe» hitz hura 174. lerroan agertu baldin bazaigu, 174 gradukoa dela esango dugu.

Bide enpirikotan barrena, hasieran, eta saiaketak erakutsi zuenez, «corpus» guztietan betetzen da ondoko ekuazio hau:

$$r \cdot f = k \text{ (konstante)}$$

1916-az geroztik jabetu zen lege honetaz estenografiaz ari zen Jean Estoup. Matematika-lege gisa, ordea, G. K. Zipf hizkuntzalariak eman zuen lehendabizikorik.

Eman dezagun Joyce-ren «Ulysses» nobela famatua. Bertan agertzen diren hitzen zenbaketa eta zerrendaketa egiten baldin badira, hau aurkitzen da:

r (gradua)	*f* (maiztasuna)	*r.f* (biderkaketa)
10	2.653	26.530
20	1.311	26.220
100	265	26.500
300	84	25.200
1.000	26	26.000
5.000	5	25.000

Kasu honetan, beraz: $r \cdot f = 26.000$.

(Estatistika-bideak baliatuz gero, jakina denez, hitz baten edo besteren irregulartasuna behar bezala hartzeko, on izan daiteke zerrendako hitzak hamarnaka edo neurtzea; eta ez banaka).

Zerrendako lehenengo graduetako hitzak baztertuz gero (gehien agertzen direnak, beraz), ongi samar betetzen da legea; eta edozein izkributan aurki daiteke gauza bera.


Logaritmoak hartuz gero, ordea, hau dugu:

$$\log r + \log f = k$$

Eta grafiko batetan eskala logaritmikoak erabiliz gero:

$x = \log r$
$y = \log f$; eta, beraz: $x + y = K$

Logaritmotan eta grafikoki emanez gero, hortaz, zuzen baten itxuran agertzen da Zipf-en Legea:



(Marrazki horretan agertzen den zuzenean: $K = \log 26.000 = 4{,}416$).

Maiztasun handietan gertatzen diren desarautasunak matematikoki bildu nahiz, formula zailago bat proposatu du Mandelbrot-ek:

$$(r + b)^a \cdot f = k \quad (a > 1)$$

Baina Informazio-Teoriak Zipf-en Legera eramaten du (ikus «Le Langage», Pléiade, 46/56 eta 145/157).

B) Eman dezagun orain textu hau:

L = hitzen kopuru osoa
n = hitz desberdinen kopurua.
Jakina = $n \leq L$

Batetik: $f_1 + f_2 + f_3 + \ldots + f_n = L$

eta, bestetik: $f_1 \cdot 1 = f_2 \cdot 2 = f_3 \cdot 3 = \ldots = f_n \cdot n$

Beraz: $f_n \cdot n = K$

($K = 26.000$ aurreko etsenpluan)

Edo-ta:

$$\frac{K}{1} + \frac{K}{2} + \frac{K}{3} + \ldots + \frac{K}{n} = L$$

$$K = \frac{L}{1 + \frac{1}{2} + \frac{1}{3} \ldots + \frac{1}{n}}$$

Edozein textutan aurkitzen diren *maiztasunak* sorta armonikoaren araberako balioak dira.

1. Lehengo adibidean: $K = 26.000$

Beraz, kalkula dezagun f_{10}, esate baterako:

$$f_{10} \frac{26.000}{10} = 2.600$$

Hots, taula enpirikoan hau dugu:

$$f_{10} = 2.653$$

Ia-ia Zipf-ek proposa lezakeen kopurua.

III. INFORMAZIO-TEORIA

Eman dezagun *komunikabide* bat, →mezuen igorbide bat: Morse-sistema, eman dezagun. Batzutan marra (—) erabiliko dugu, beste batzutan berriz puntua (.); eta, biok nahasiz eta herrenkatuz, *letrak* (A = .—, eta abar), eta *mezuak* ere bidaliko ditugu: hariz, irratiz, edo bestetara.

Era berean jokatzen dugu edozein seinale-→sistematan. Eta gauza bera egiten dugu ere, noski, hitzegiten dugunean. Lehendabizi eman dezagun, «z» fonema ebakitzen dugu; gero «u» fonema; gero «b»; eta gero, azkenik, «i». Lau fonema horien ilarak «zubi» ematen du.

A) Eman dezagun orain (haurtzaroko joko hartan bezalaxe) «z» letra eman digutela. Zer izan ote daiteke segida? Zein fonema ote dator

ondotik? Beharbada «zaku» esan nahi digute; edo «zapi», edo «zatoz», edo-ta «zoaz», edo abar. «z» fonema horrek *informazio* txikia ematen digu.

Eman dezagun orain *u* erantsi, eta «zu» asmatu dugula. Zer ote da segida? Ez ote da «zure»? Ez ote da «zume», «zuhaitz» edo «zulo»? Ez ote «zubi»? Asmatzeko probabilitatea txikia da oraindik; baina lehen baino *informazio* handiagoa badugu. Orain badakigu, esate baterako, «zaku», «zapi», «zerri», «ziri» eta «zori» ez direla posible.

Eman dezagun orain «zub» mezu-→egoeran gaudela. Zer ote datorke atzetik?, «zubr» ez da posible, «zubt» ere ez, «zubo» ez da ezer. Ia-ia segurutzat jo daiteke «zubi» dela. Laugarren fonema honek, hortaz, *ez digu* informazio handirik eransten. Ia-ia *segurutzat* eman daiteke; eta, horregatixek, ia-ia *hutsa* da dakarkigun informazioa. *Seguru denak ez du batere informatzen. Espero ez genuenak, aldiz, erruz informatzen du.*

Informazio-Teoriaren kakoa horretantxe datza, hain zuzen:

$$I_a = \log_2 \frac{1}{p_a}$$

a seinalearen probabilitatea p_a baldin bada, *a* horrek dakarren informazioa (I_a) probabilitate horren alderantzizkoaren logaritmo →bitarra da.

1. Zergatik probabilitatearen *logaritmoa,* eta ez alderantzizkoa bera? Segidan agertuko denez, erosotasunari dagozkion arrazoinengatik bakarrik; probabilitateen metaketa (mezuetan bezala) *biderkaketaz* neurtzen bait da; eta ez batuketaz. Arrazoin praktikoak ere, logaritmoetan bitarrak hain zuzen hautatzeko.

2. Kasurik *xinpleena,* noski, txanpon batena izan daiteke; edo, eletrika-tresnerian bezala, elektrika pasa bai (+), eta eletrika pasa ez (—), (eta biak probabilitate berekoak izanik).

Kasu horretan, gertaera bakoitzaren probabilitatea 1/2 izanik, hauxe da egoera:

$$I_a = I_b = \log_2 \frac{1}{p} = \log_2 \frac{1}{1/2} = \log_2 2 = 1$$

Aukera-behar horretan, beraz, $I_a = I_b = 1$. Informazio-unitatea, horretara, «→bit» izenaz ezagutua, horrela definitzen da. Eta aukera xinple horretan ($p_a = p_b = 0{,}5$) hau dugu:

$$I_a = I_b = 1 \ bit$$

3. Hortaz, eta edozein sistematan, *a* seinalea agertzeko probabilitatea, eman dezagun, 0,125 baldin bada, zer *informazio-kopuru* erantsi du *a* seinale horrek?

$$I_a = \log_2 \frac{1}{0{,}125} = -\log_2 0{,}125 = \log_2 2^3 = 3 \text{ bit}$$

eta, orokorki: $I_a = \log_2 \frac{1}{p_a} = -\log_2 p_a$

4. Logaritmo-taulek eta esku-kalkulagailuek, jakina denez, Briggs-en logaritmoak eman ohi dituzte eskuarki; alegia, hamartarrak, eta ez bitarrak. Hots, erraza da batetik bestera igarotzea. Aski bait da ekuazio hau kontutan hartzea:

$$\log A = \log 2 \cdot \log_2 A; \text{ eta, } \log_2 A = \frac{\log A}{0{,}301}$$

5. *Adibidez:* Eman dezagun hiru seinale *(a, b, c)* dituen mezu-sistema bat; eta seinaleen probabilitate-taula ondoko hau dela:

$$p_a = 1/2$$
$$p_b = 1/3$$
$$p_c = 1/6$$

(Noski: kasu honetan, eta denetan, $p_a + p_b + p_c = 1$)

Agertua delarik, zer informazio-era eransten dio mezuari *a* seinaleak?

$$I_a = -\log_2 0{,}500 = \frac{0{,}301}{0{,}301} = 1{,}00 \text{ bit}$$

Eta, bide beretik:

$$I_b = -\log_2 0{,}333 = \frac{0{,}476}{0{,}301} = 1{,}58 \text{ bit}$$

$$I_c = -\log_2 0{,}167 = \frac{0{,}776}{0{,}301} = 2{,}58 \text{ bit}$$

(Oharra: espero zitekeenez, informazio-kopuru handiagoa dakar *c* seinaleak, *a* seinaleak baino).

Hizkuntza batetan, hortaz, eta lehenengo hurbilketan, aski izango da fonemen probabilitate-taula ezagutzea (p_a, p_b ... p_z), fonema bakoitzak, agertzean, eransten duen informazio-era jakiteko.

B) Entropia. Seinale hau edo hura mezuaren katean agertu denean, ordea, beste guztiak ezin ager.

1. Lehenengo adibidera bihurtuz, «zu-» mezu-→egoeran ginenean, eta *b* agertzean, ez da *f* agertu, ez *u*, ez *p*, eta ez gainerakoak. Kolpe edo mezu-seinale *bakoitzeko*, hortaz, seinale horretxen probabilitatea zegoen berori agertzeko.

Zeini bere pisua emanez beraz, hiru seinale dituen sistema horretan hauxe izango da «→entropia» →sinbolo *bateko:*

$$H_1 = -(p_a \cdot \log_2 p_a + p_b \cdot \log_2 p_b + p_c \cdot \log_2 p_c)$$

Eta, orokortuz:

$$H_1 = -\sum (p_i \cdot \log_2 p_i) \text{ [bit / seinale]}$$

2. *Adibidez:* Lehengora berriro itzuliz:

$p_a = 0{,}500$; $p_b = 0{,}333$; $p_c = 0{,}167$

Zein da, *seinale bakoitzeko,* sistema horrek duen entropia?

Presta dezagun taula hau:

	p_i	$-\log_2 p_i$	$-p_i \cdot \log_2 p_i$
a	0,500	1,00	0,500
b	0,333	1,58	0,527
c	0,167	2,58	0,431
			1,458 [bit/sein.]

Kontuz! Mezu batzutan, *b* eta *c asko* denean, informazio-kopuru *handiagoa* gertatuko da batez-bestean; eta bestetan, berriz, *a* asko denean, *txikiagoa.* Mezu guztien erdigunea 1,458 da, ordea.

3. *Entropiaren maximoa.* Bi seinale bakarrik daudenean *(a, b),* biok probabilitate berekoak izatean gertatzen da sistemaren hoberena:

$$I_{max} = -2 \cdot 0{,}500 \cdot \log_2 1/2 = 1{,}000 \text{ [bit/sein.]}$$

Eta lehengo adibidera bihurtuz, hiru seinaleei probabilitate berbera emanez gero: $p_a = p_b = p_c = 1/3$; hau dugu:

$$H_0 = 3 \cdot 0{,}333 \cdot 1{,}58 = 1{,}58 \text{ [bit / sein.]}$$

Hauxe da edukieraren *maximoa hiru seinalez.*

Eta *n* seinalez hauxe da maximoa: $I_{max} = \log_2 n = H_0$

Informazio hutsaren aldetik, seinale guztiei probabilitate berbera ($p = 1/n$) legokiekeen hizkuntza litzateke onurakorrena.

27 fonema dituen hizkuntza batetan, esate baterako, hauxe litzateke informazio-edukierarik «onena»:

$$H_0 = \log_2 27 = 4{,}76 \text{ [bit / fonema]}$$

Praktikan 4,00-ren inguruan kokatu ohi da edukiera hori. Alde batetik fonema batzu besteak baino maizago erabiltzen direlako; eta bestetik dagoen «→erredundantzia»rengatik; edozein fonema ezin bait daiteke edozein fonemaren ondotik agertu.

H_0 kopuruari (*p* guztiek 1 balio dutenean),

$$\frac{}{n}$$

«*zero graduko entropia*» deritzo.

H_1 kopuruari, berriz (p desberdinak), «*bat-graduko entropia*» deritzo.

Gorago ere esan denez:

$$H_1 \leqslant H_0$$

Era berean, H_2, H_3, eta abar, definitzen dira. Eta beti:

$$H_0 \leqslant H_1 \leqslant H_2 \leqslant H_3 \ldots$$

IV. GRAMATIKA SORTZAILEAK

Beste leku batzutan aztertzen dira berezikiago bai →Chomsky bai «→morfosintaxia». Hemen ere aipatu behar dira gramatika «sortzaileak»; baita →hiztunaren sormena matematikoki azaltzekotan hartu den bidea.

Nola ote liteke haur batek sekula entzun ez duen perpaus bat xuxenki asmatu eta eratzea? Skinner behavioristaren aurka, eta ordura arte emandako azalpenen kontra, →Chomsky-k hau dio: hiztun horrek, barneraturik, nahiz zeharbidez eta ohargabeki bada ere, ikasia duen hizkuntza horren GRAMATIKA SORTZAILEA darama; eta honegatixe asmatzen ditu sekula ez esandakoak, eta ongi asmatzen.

Gramatikak, hitz batez, perpausen MOLDABIDEA azalduko du, sortzailea izango da; eta hau ez deno, taxonomia hutsa eta antzua da, ez bait du mintzamena bera azaltzen.

A) GRAMATIKA SORTZAILEAREN OSAKINAK

Matematika Logikaren arazo zorrotzak hemen gaingiroki baizik ez aipatuz, gramatika sortzaile batek *lau* osakin-mota ditu:

$$V = \{a, b, c, \ldots\}$$

a, b, c, eta abar, *irteerazko* elementuak dira: →hitzak, fonemak, edo abar.

$$V = \{A, B, \ldots P\}$$

A, B ... gramatika-→*kategoriak* dira: →izen, →adberbio ... P = «perpausa», hasierako elementua, →abstraktua.

$$R = \{R_1, R_2, R_3 \ldots\ldots R_n\}$$

(→berridazketa-erregelak: berridatz ezazu ezkerraldeko atala, →erregelak eskatzen dituen aldaketen arabera)

1. *Adibidez:*

$G = \langle V_T , V_A , P, R \rangle$

$V_T = \{a, b\}$ (V_T multzoak, kasu erraz honetan, irteerazko elementu pare bat baizik ez du: *a* eta *b)*

$V_A = \{A, B, P\}$ (V_A multzoak, P perpaus abstraktuaz gain, bi gramatika-unitate dauzka: A eta B)

$R = \{R_1, R_2, R_3, R_4, R_5, R_6\}$

Multzo horrek dituen sei erregelak (erregela erdi-thuear Chomskyren gramatiketan) hauek izaki:

R_1 ... $P \rightarrow aA$
R_2 ... $P \rightarrow aB$
R_3 ... $A \rightarrow aB$
R_4 ... $A \rightarrow aA$
R_5 ... $B \rightarrow bB$
R_6 ... $B \rightarrow b$

Lehenengo bost erregelek ez gaituzte sorkuntza-kateatik ateratzen; A eta B elementuak abstraktuak agertzen direlako. *Seigarren* erregelak, berriz, atera egiten gaitu, ateratzen ari garen mailaren arabera, «teorema», «→monema» edo «perpausa» delakoen maila zehatzeraino.

2. *Molda ditzagun* orain gramatika horren araberako *perpaus* batzu. Esate baterako, erabil dezagun R_1 erregela lehendabizi, R_3 segidan, eta R_6 bukatzeko. Zer lortzen dugu?

1) urratsa ematerakoan, hau egingo dugu: ezkerraldean agertzen dena, «p», R_1 erregelaren arabera, «aA» berridatzi:

$$P \rightarrow aA$$

2) urratsa egitean, era berean, ezkerraldean agertzen dena «aA», R_3 erabiliz, «a.aB» berridatziko dugu; hau da, «aaB».

Eta 3) urratsa egitean, bukatzeko, ezkerraldean agertzen dena «aaB», R_6 erabiliz, honela berridatziko dugu: «aa.b»; hau da, *«aab»*.


3. Erabil ditzagun orain, bide beretik, eta ilara honetan, erregela hauek: R_2, R_5, R_5 eta R_6. Eta hau dugu:

1 ... R_2 ... $P \rightarrow aB$
2 ... R_5 ... $aB \rightarrow abB$

3 ... R_5 ... abB → abbB
4 ... R_6 ... abbB → *abbb*

Sei erregela horiek baliatuz, horretara, eta irakurleak egizta dezakeenez, nahi hainbat «perpaus» molda daitezke: *aab, aabb, aabbb, aabbbb, ab, abb, aabb,* eta abar.

Erregela -multzo *finitu* batek, beraz, perpaus- multzo *infinitu* bat eman dezake. Eta hiztunaren *sormena* honetara azal liteke Chomsky-ren ustez.



Hona hemen arestian emandako gramatika sortzaileari dagokion ZUHAITZ SINTAGMATIKOA. Aisa ikus daitekeenez, elkarren kide dira biok; baina, askotan, argi-iturri oparoa izan daiteke erregelei dagokien zuhaitz hau marraztea.

BIBLIOGRAFIA

Glotokronologiaz

PENCHOEN, T.: «La Glottochronologie», La Pléiade, La Languge, 865-884 orr.

Zipf-en legeaz

GUIRAUD, P.: La Pléiade, La Languge, 152 eta hurrengoak.
MULLER, Ch.: «Estadística Lingüística», 285 eta hurrengoak.
MARCUS, S.: «Introducción en la Lingüística matemática», 237 eta abar.
GUIRAUD, P.: *Statistique Linguistique,* P.U.F., 1960.

Informazio-Teoriaz

MILLER: *Language and Commanication,* 1951 (frantsesez, P.U.F., 1956).
MARCUS, S.: «Introducción en la Lingüística matemática», 253 eta abar.
SINGH, J.: «Teoría de la Información, del Lenguaje y de la Cibernética», Alianza Universidad, 1972.

Gramatika sortzaileen oinarriez

SERRANO, S.: *Lógica, lingüística y matemáticas,* Anagrama, 1977.
— *Elementos de Lingüística matemática,* Anagrama, 1975.
GLADKIJ, A. V.: *Introducción a la Lingüística matemática,* Planeta, 1972.
GROSS, M.: *Modelos matemáticos en Lingüística,* Gredos, 1976.

Lodia
grave / grave / grave

→Fonetikan, energiarik gehiena espektro akustikoaren →maiztasun apaletan biltzen duen →soinuari *soinu lodia* deritza, soinu →zorrotzari kontrajarriz. Entzutez, soinu «iluna» dela esan ohi da. →Artikulazioz, ertzetako soinuak dira; hala nola, soinu →ezpainbikari eta →belarrak: [p], [k], etab.

Lokunea
juntura / jointure, joncture / juncture

Bi segmentu, →silaba, →morfema, →sintagma edo perpausen arteko muga linguistikoki →bereizle bati esaten zaio →lokunea. Lokuneak, beraz, balio →mugarritzailea du, balio zedarritzailea, eta segmentuaz gaindiko elementuen edo →prosodemen artean sailkatu behar da. Fonetikoki, + edo # →ikurren bidez irudikatzen da.

Lokuzioa
locución / locution / phrase

Beren →sintaxi bereziagatik multzo egin edo estereotipatu bezala erabiltzen diren eta →hitz bakarrei dagozkien hitz-multzoak dira lokuzioak. Horrela, *eskerrak eman* →aditz-lokuzioa da, *eskertu*-ri dagokiona; *arimak egin* aditz-lokuzioa *hil* aditzaren baliokidea da; *argi eta garbi* adberbiozko lokuzioa da, *garbiki*-ri dagokiona.

Lokuzio erabat eginak deitzen dira kultur portaera estereotipatu bat adierazten dutenak: «Zer moduz?», adibidez.

Lotura
enlace / liaison / liaison

Bi elementuren artean sartzen den loturazko →bokala edo →kontsonantea da *lotura*. Adibidez: graziya, salduba, duen, bost gizonek.

Loturagailua
Ik. KONEKTADOREA

Luzapena
alargamiento / allongement / lengthening

Alboko →fonema baten desagertzearen ondorioz fonema bat luzaturik gerta daiteke; eta hori jazotzean, «konpentsaziozko luzapena» gertatzen dela esaten da. Frantsesez, esate baterako, →bokal zaharren ondoko *s*-ak galtzean, horixe gertatu da: *asne* > *âne; maistre* > *maître;* eta abar, eta hori da gaur egungo zenbait gaztelaniazko →dialektotan gertatzen ari dena, Andalusian eta Argentinan esate baterako. Euskaraz ere gertatzen da herri-hizkeran; *eerra* (< ederra); *saardoa* (<sagardoa), etab.

M

Maileguak

Hizkuntza batek etengabe eraberritu behar izaten du bere ondare lexikala, aldian aldiko gizartekera bilbatuak ezartzen dizkion baldintzapen berriei erantzun ahal izateko. Lexiko-sorkuntza, horretara, bizirik dagoen hizkuntza ororen ezinbesteko langintza da eta, bide batez, bizirik egote horren seinale argia.

Lexiko mailako zaharberritze eta eguneratze horretarako ez dituzte hizkuntza guztiek, ez eta hizkuntza bat bederak aldi oroz ere, baliabide berdinak ustiatzen; zuzenago esateko, ez dute guztiek eta beti irispidean dituzten baliabide potentzial horien erabilera berdinera jotzen. Desberdintasun horien iturriak, sarri askotan, soziolinguistikoak izaten dira. Hizkuntzaren egitura gramatikaletan baino sakon eta berehalago sentiarazi ohi da, gehienetan, bere ohizko transmisio- eta adieraztresna gisa hizkuntza hori darabilen gizarte bakoitzaren joan-etorriak, gora-beherak, albo-herriekiko harreman-bideak eta abar.

Mintzaira orok bere ohizko ondare lexikala aberastu, zaharberritu edo eguneratzeko duen baliabide ezagun eta erabilienetariko bat mailegutza da: hots, hizkuntza batek beste hizkuntza bateko elementu lexikalak hartu eta, beharrezkoak gerta dakizkiokeen egokitzapenezko hots-, idazkera- eta →esanahi-→aldaketak eraginik, bere masa lexikal biziaren multzora baitaratzea.

Maileguak, hortaz, kanpotiko hitzak dira: erdararen batean sortu eta errotutako hitzak, beren hizkuntz balio xumearekin gehienetan zer-ikusi ahula duten era bateko edo besteko arrazoi batzurenga-

tik beste hizkuntza bat edo gehiagoren baitako kontzeptu-sarean sarbidea aurkitu eta, aldi une labur batez edo luzarorako, bertan txertatuak geratu ohi direnak.

Maileguek, lexiko-arazoetan egiten diren estatistikazko neurketak kontuz erabiltzekoak badira ere, bizi garen mundualde honetako egungo hizkuntzen artean bederen, iturri lexiko-sortzaile oparoenetakoa osatzen dute: garraio-sare eta komunikabideen nazio-mugez gaindiko zabalkunde-ahalmena, jendarteko eta, orohar, nazioarteko era guztietako harremanen gehikuntza eta azkenik, beste maila batean, zientzi-tekniketarako hizkera berezituek darabilten ondare amankomuna akuilagarri ezin bortitzagoak dira, beste gehiagoren artean, maileguen erabilera geroz eta oparo bat eragiteko.

Bere aldeko dituen faktore horien ondoan, halere, gauza ezaguna da mailegutzak eta, banan banako kasuetara bagentoz, maileguzko hitzek etsai biziak ere izaten dituztela.

Eskuratze-prozesu hori, era bateko edo besteko desoreka eta ondorio bidezko menpekotasunen batengatik, ez banan banako lorpen gisa baizik samaldan eta amaigabeko erdal-uholde moduan sentitzen hasten denean, aldarapen eta arbuiojarrerak berehala agertzen dira →hiztunen artean eta, askotan, explizituki formulatuz babespideak edo-ta are «kontrapozoinak» proposatzen. Fenomeno aski hedatua da hau hizkuntza gehienetan, eta beren gerorabidea arrazoi osoz hil-arriskuan ikusten dutenen artean areago noski: ez dugu euskaldunok urrutira joan beharrik, gertaera guztion berri xuxena jasotzeko.

Maileguen joan-etorria, hizkuntz ikuspegi soil batetik begiratuz, ondorio bikoitzekoa da.

Bide erosoa da mailegutza, alde batetik, hizkuntza beharrean gerta daitekeen hainbat elementu lexikal berriez hornitzeko: gizarte-urek ekarri eta barreiatu ohi duten neurrian, kostu txikikoa da bere ezarpena.

Bide arazotsua da ordea, bestetik: mailegu ugarien onartzeak, ezinbestean, hizkuntza →hartzailearen kontzeptu-sareak izan zezakeen nortasun-kutsuaren ezabatze edo gesaltzea eragin ohi du gehienetan, batez ere maileguez baliatzera bultzatutako hiztunak →elebitasun desorekatu batean daudenean eta, beraz, interferentzia lexikalen isuria nagusiki saihets batera okertzen denean. Horrekin batera, eta bere ondorioak gehienetan hain berehalakoak izaten ez badira ere, mailegutzak neurri gogorrean desitxura ditzake, eta hala egiten ere du askotan, hizkuntza mailegu-→hartzailearen egitura fonologiko eta morfo-sintaktikoak.

Erosotasunaren (inoiz ezinbestekotasun praktikoaren) eta nortasun-marka nagusiak galduz joateko arriskuaren arteko burruka hori, hortaz, hizkuntza orok bere etengabeko egokitzapen-prozesuan bizi behar izaten duen ezin itzurizko pasadizoa da. Oso faktore desberdinak izaten dira, zein bere aldiunean, burrukagaraipena alde batera edo bestera makurtzen dutenak.

Euskarari dagokionez, azken ehun urteok burrukatoki apartak gertatu dira indar desberdin horien ahalmena, irispidea eta erabilgune nagusi posibleak antzemateko. Urruti gaude ordea oraindik, beste hainbat gauzatan bateratsu gentozkeen euskal idazleok ere, mailegu horiei geure ondare lexikalerako sarbidea zein neurritan aitortu behar geniekeenaz.

M. Zalbide

Maiztasuna

frecuencia / fréquence / frequency

1. →Akustikan, →soinu baten *maiztasuna,* denbora-unitateko gertatzen diren ziklo-en kantitatea da.

2. Hizkuntz unitateen analisi estatistikoetan, elementu baten →corpus *batetako* →agerpen-kantitatea azaltzen duen indizea da *maiztasuna.* Hizkuntz unitate (fonologiko, morfologiko, lexikal, etab.) horiek beren maiztasun propioak bait dituzte hizkuntza bakoitzean, hainbat aplikazio izan ditzake analisi-mota honek (adibidez, hizkuntza baten oinarrizko →hiztegia erabakitzerakoan). Bestalde, unitate baten maiztasuna eta unitate horrek dakarren informazio-kantitatea erlazionatuak daude, eta alderantziz proportzionalak direla esan daiteke (ondorioz, eta adibide gisan, premia sozialen eskakizunez unitate lexikal baten maiztasuna gehitzean,

unitate horren formak laburtzera jotzen du, batetik, eta, bestetik, berrindartu egiten du →hiztunak, maiztasunarekin galdu den informazio-ahalmena berreskuratzeko).
Ik. ZIPF-EN LEGEA

Marka

marka / marque / mark

1. →Fonologian, →ezaugarri foniko bat da *marka,* bere presentziaz edo ausentziaz ezaugarri →bereizle berak dituzten bi fonema aurkajartzen dituena. Markaren presentzia bereizlea deneko terminoari *markatua* deritza, eta markaren ausentzia bereizlea denekoari *ez-markatua.* Eman ditzagun /b/ eta /p/ euskarazko fonemak: erizpidetzat ozentasuna hartuz, eta /b/ fonemaren artikulazioango ozentasuna edo →ahots-korden bibrazioaren presentzia dela bide, /b/ termino markatu edo positiboa dela esaten da, eta /p/ termino ez-markatu edo negatiboa. Markaren *erizpideak* hautatzerakoan, →neutralizazio-lekuguneetako →artxifonema da hedatuena, artxifonema forma ez-markatuak gauzatzen duelarik eskuarki. Forma ez-markatuak banaketa zabalagoa du, beraz, forma markatuak baino.

Ezaugarri bereizle bera hainbat fonema-→bikote bereizteko aski denean, →*koerlazio-marka* deritza ezaugarri honi: ezaugarri beraren bidez —ozentasunaren bidez, alegia— oposa daitezke, euskaraz /p/ eta /b/, /t/ eta /d/, /k/ eta /g/.

2. *Marka* kontzeptu hau →fonologiatik esanahizko unitateen azterketara hedatu izan da, fonologiako zenbait kontzeptu (sailak, koerlazioa, ezaugarri bereizlea, neutralizazioa, etab.) eremu hauetara aldatuz. Orohar, termino ez-markatuaren ezaugarri guztiak gehi bat dituela esan daiteke termino markatuak. Markatu →*vs* ez-markatu →aurkakotasun honen bidez azal daitezke, esate baterako, →generoa, →numeroa, →aditz-moduak bezalako →kategoria gramatikalak. Lexikoari ere aplikatu izan zaio kontzeptu hau: →sinonimoen artean, adibidez, termino markatu *vs* ez-markatu erlazioak aurki daitezke, termino ez-markatua hedadura zabalenekoa litzatekeelarik.
Ik. KOERLAZIOA

MARTINET, André

Eskolamaisu-maistren semea, Saboian jaio zen 1908an, gero bertako hizkera deskribatuko zuelako famatu egingo zuen Hauteville-tik hurbil. Lizeo eta unibertsitateko ikasketak Parisen burutu zituen, unibertsitatekoak Sorbonan, eta «École pratique des Hautes Études» delakoan egin zituela. Berlinen urtebete eman eta gero, 1932-33an →Meillet-en ikastaldi eta teorietara hurbildu zen eta 1937an bere doktorego-tesia defendatu zuen («La gémination consonantique d'origine expresive dans les langues germaniques»). Meillet-ek erdi kontrolatu baino zuzendu ez zuen azken tesia, beraren defentsa baino urtebete lehenago hil bait zen. 1938an «École Pratique»ko fonologi irakasle izendatu zuten. Gerratean alemanek atxilotua izan zelarik, gaurko frantsesari buruzko inkestarik interesgarrien eta garrantzitsuenetariko bat burutu zuen konzentrazio-esparruko lagunen artean, bertan Frantzia osotiko jendea zegoelako. Gerlaren ostean, 1946tik 1955era, Columbian irakatsi zuen, eta New-York-en bertan ere ateratzen zen «Word» aldizkari ospetsua zuzendu, bera sortzaileetariko bat izan zelarik.

Ikasketaz germanista izanik, André Martinet dugu mende honetako ikerketa linguistikoak erdibanaturik dauden bi pentzeak bidexka batez lotzen jakin duen hizkuntzalari bakarretakoa: h.d., linguistika historikoa eta linguistika orokorra uztartu dituen bakarretakoa. Hiru dira berak landu eta jorratu dituen alorrak batez ere, →fonologia deskribatzailea, fonologia historikoa eta morfologia; azken aldian →joskeraz ere arduratu delarik.

Argitaratu duen lan piloan, beste batzuren artean honako obra hauek gerta daitezke aipagarri. Lehenengoz eta behin, haren tesia, ekonomia fonologikoaren printzipioak jartzen jadanik hasia; eta, bigarrenez, frantsesari buruzko ikerketa hori, lehenengoz 1945ean agertu zena. Bestela, haren «La description phonologique du parler franco-provençal d'Hauteville» eta «Phonology as Functional Phonetics» dira fonologia deskribatzailearen alorreko beste lan garrantzitsu bi, azterketa linguistiko estrukturalen ikuspuntu funtzionala defendatzen saiatzen direnak. Artikulu-mordotik aparte, eta zuzendu dituen elkarlan biez gain, «Le Langage» eta «La Linguistique», liburu bi aipatu behar ditugu, bata «Élements de linguistique générale», eta «Économie des

changements phonétiques» bestea; lehenengoak linguistika teorikoaz dihardu, eta bigarrenak, haren obra nagusia, fonologia diakronikoaren printzipioak jartzen.

A. Eguzkitza

Maskulinoa

masculino / masculin / masculine

→Genero gramatikala da, bi generotako sailkapenean →femeninoari aurkajartzen zaiona eta hiru generotakoan femeninoari eta →neutroari aurkajartzen zaiena. Ar-emeen arteko sexu →aurkakotasunean oinarritzen den genero naturalean, maskulinoak «ar» terminoa irudikatzen du sarritan, beti ez bada ere.

Markov

→Komunikazioaren teoriaren barruan, eta informazio-kantitatearen kalkulua dela eta, problema hau ikertu dute komunikazioaren teknikariek; zenbat informazio bidaltzen da →mezu baten bitartez? →Esanahiari berari jaramonik egiten ez zaiolarik, zenbat →*bit* igortzen da →ikurkatea honen edo haren bitartez? Jakina: ikur bakoitzaren probabilitatea ezagutu behar da aurrenik. Eta, hizkuntzalaritzari bereziki dagokionez, →morfema edo →fonema bakoitzaren gertatzeko probabilitatea ezagutu beharko da aurrenik.

Ikerketa-parte honetan, hortaz, bateratsu agertzen zaizkigu komunikazioaren teorilariak eta amerikar eskolako estrukturalistak.

Hots, probabilitatezko katea hauen ikertzailea Markov errusiarra izan zen (1907-az geroztik); eta, horregatik, eta haren ohoretan, *Markov-en kateen teoria* deritzo honi; edo-ta *Markov-en →eredua.*

Katea edo eredu honetan, ikur bakoitzaren →agerpena aurrekoak edo aurrekoek baldintzatzen dute. Ez denek, noski, baina bai ezkerretako lehenengo elementuek, edo lehengo biek, edo lehenengo *N* elementuek. *Fonemen* mailan jartzen bagara, gauza jakina da (euskarari dagokionez esate baterako), *Z*-ren aurrean *a,* eta *o* eta *t* ager daitezkeela; baina ez *p* edo *m*. Era berean, *tr* digramaren ondoren, *a* ager daiteke; baina ez *p*. Eta abar. Aurreko fonemek (aurreko unitateek) mugatu egiten dituzte ondoko elementuen agerpenak. Eta berauen agerpena, bestela esateko, probabilitate-kontua da.

Jakina: fenomeno berbera aurkitzen dugu katea mintzatuan eta *morfemen* mailan. Izenaren aurrean, esate baterako, izenlagun bat ager daiteke *(harrizko etxea);* baina →adjektiboari zero probabilitatea dagokio lekugune horretan: *(*zuri etxea).* Eskuin aldetik, berriz, probabilitate handia dago *-a* edo *-ak* ager dadin *(etxea, etxeak);* baina baita, zein bere mailan, *bat, hau* edo *urdin* agertzeko ere: *etxe bat, etxe hau, etxe urdina.*

Markov-en katea hauetan, dena dela, baldintza *beti* etortzen da *ezkerraldetik eskuinaldera.* Hots, baldintza-modu honek →hizketa arruntean →komunztadura piloa azaltzen badu ere, ez ditu denak azaltzen. Zenbait aldiz, egiazko hizkuntzetan, eskuin aldeko elementuak aldarazten bait du ezkerrekoa:

ez dakit : [estakit]
baina, ez litzateke: [elicateke]
eta, ez zekien : [ecekien]

Seinale-ilara batetan, elementu konkretu baten →agerpena aurrekoek ez badute ezertan ere baldintzatzen, *zero ordenako katea* dela esango dugu.

Kateako elementu baten agerpen-probabilitatea aurreko elementuaren menpekoa baldin bada, eta ez besterenik, *bat ordenako Markov-en hedapena* dela esango dugu.

Aurreko bi elementuek mugatzen badute, berriz, elementuaren agerpena, *bi ordenakoa* dela esango dugu. Eta abar.

Hizkuntza naturaletan, eta fonemen mailan, menpekotasun horiek ez dute inoiz *boskarren ordena* gainditzen.

Txillardegi

Matrizea

matriz / matrice / matrix

Gramatika →sortzailean, «matrize perpausa» edo «matrize katea», katea bat da (ε_1), non beste katea bat (ε_2) txertatzen bait da →txertakuntz eragiketa baten barruan. Matrize perpaus nozioa →proposizio nagusi nozioari dagokio, baina kontutan hartu behar da matrizea bera ere txertaturik egon daitekeela beste proposizio batetan. *Atzo ikusi nuen filmea asko gustatu zitzaidan* perpaus

konposatuan, *filmea asko gustatu zitzaidan* da matrize perpausa. *Iazko udan gure herrian egon ziren gaztetxoek antolatu zuten festan herri osoak hartu zuen parte* perpausean, *Gaztetxoek antolatu zuten festa* perpausa *iazko udan gure herrian egon ziren* perpausaren matrizea da, baina aldi berean perpaus txertatua da, *Festan herri osoak hartu zuen parte* matrizean txertatua, hain zuzen.

MEILLET, Antoine

1866. urtean jaiotako hizkuntzalari hau 1884ean helduko da Parisa eta Sorbonan jarraituko ditu ikasketak, eta han →Saussure-ren hitzaldiak entzungo ditu.

Sanskritoa, hizkuntza erromanikoak, eslaboak, irlandera, etab., aztertuko ditu.

Meillet-en obrak bi zutabe nagusi izango ditu: hizkuntzalaritza konparatua (lehengo gramatika konparatua) eta hizkuntzalaritza orokorra.

Meillet batipat konparatista da, baina Saussure-ren ikasle izana. Berak XIX. mendeko neogramatikariak landutako metodo konparatzaileari Saussure-rengandik jasotako hainbat kontzeptu erantsiko dio: →diakronia, hizkuntz egoera, aztergai diren hizkuntzen arakatze exhaustiboak, etab.

Introduction à l'étude comparative des langues indo-européennes (1903) liburuan →*sistemak* eta ez gertaera isolatuak alderatu beharra azpimarkatzen du.

Konparazioan zehaztasuna eta zorroztasuna erabili beharra azpimarkatzen du *Méthode comparative en linguistique historique* (1925) liburuan.

Hizkuntzalaritza orokorraren barnean ezin ahantz daiteke Meillet soziolinguista. Berarentzat Saussure-rentzat bezala hizkuntzak izari sozial bat du, horren eboluzioa eta →aldaketak textuinguru historiko, kultural eta soziologiko bati lotuta daude (gogoan hartzekoa da garai elebidun batean lan egiten duela Meillet-ek Frantzian, alemanak indarrez sartu zirenekoan).

Durkheim-en teoria soziologikoekin bat zetorrelarik honek gonbidatuta *L'Année Sociologique* aldizkarian idazten du eta bertan hau azpimarkatuko du: hizkuntza gertaera soziala da.

→Fonetikaren eremuan J. P. Rousselot-en lanak jarraituko ditu →artikulazio-higiduren deskribapenei dagozkienetan.

Menpekotasuna

subordinación / subordination / subordination

1. Menpekotasuna, hitz eraentzailearen eta hitz →eraenduaren arteko harremana da; hortaz, dirudienez, bigarrenaren forma lehenaren izaeraren menpe dago nahitanahiez. Kasu honetan menpekotasuna eta →eraenketa →sinonimoak dira.

2. Perpaus konplexutan, menpekotasuna nagusia denaren menpean dagoen →proposizioaren egoera da.

Metafonia

metafonia / métaphonie / umlaut

→Bokal baten tinbrea ondoko bokal baten eraginez aldatzeari esaten zaio metafonia. Bokal mailan gertatzen den dilazio-fenomenoa da (h. d., urrunerako →asimilazioa), →*inflexio* izenaz ere ezagutzen dena. Diakronikoa (latinez *ostium*, italieraz *uscio*) nahiz sinkronikoa izan daiteke (Italiako zenbait →dialektotan: [nera] «beltza» →femenino →singularrean, [nirə] «beltza, beltzak» →maskulino singularrean eta →pluraleko maskulino eta femeninoan).

Metahizkuntza

metalengua / métalangue / metalanguage

Hizkuntza natural bat deskribatzeko balio duen hizkuntza →artifiziala da metahizkuntza. Aztergai den hizkuntzaren terminoak (baina →adiera bakarrean) eta →sintaxi-→erregelak darabiltza. Hizkuntzaren funtzionamenduaren berri emateko hizkuntzalariak darabilen mintzaira gramatikala metahizkuntza da, baita hiztegigileak darabilen mintzaira lexikografikoa ere. *Hots, hau da,* bezalako hitzak darabiltzagun neurrian hizkuntza baten metahizkuntzaz baliatzen ari gara.

Metatesia

metátesis / métathèse / metathesis

→Fonema batzu katea mintzatuaren barruan lekuz aldatzean datzan fenomenoari esaten zaio metatesia. Termino hau, batzutan, fonemak bata bestetik urruti dauden kasuetara mugatzen da, eta fonemak bata bestearen ondoan daudenean *interbertsio* izena erabiltzen da. Adib.: *hodei, hedoi; ukitu, ikutu; ediren, eriden.*

Metonimia

metonimia / métonymie / metonymy

Oro har, eta →etimologiari jarraituz, izendapen-transfert hutsa da metonimia. Hala ere, hizkuntz fenomeno konkretu bat izendatzeko erabiltzen da hitza. Honetan datza metonimia deritzan fenomenoa: nozioa ez da legokiokeen terminoaz izendatzen, beste batez baizik. Orain bada, bi nozioek loturaren bat behar dute ukan elkarren artean: kausa-ondoriozko lotura edo erlazioa (*uzta*-k, adibidez, bildu den labore edo fruitu-kopurua adieraz dezake, eta ez biltzeko egintza bakarrik), edo edukitzaile-edukinezko erlazioa (*kopa bat hartu*), edo zati-osozko erlazioa.

Metroa


metro / mètre / meter

Bertsogintzari dagokionez, neurrizko elementuari deritzo *metroa* (grezieraz «metron»).

Antzinako Grezian, esate baterako, metro hori honela osatzen zen: bi «oin» elkartu, eta batak →azentu nagusi bat zuenean, eta besteak oihartzunezko azentu bat; eta honetatik heldu dira ezagutzen ditugun izendapenak: «monometro», «dimetro», «trimetro», «tetrametro»; ilara berean, bertso horiek oin-biko horietako bat, bi, hiru edo lau zituztenean.

Mezua

→Komunikazioaren teorian mezua →igorle batek →jasotzaile bati kanale baten bidez eta seinale-→sistema baten →erregelen eta →alfabetoaren arabera igortzen duen seinale-multzoa dugu:



Baina komunikazio-teoriarentzat mezuak esan nahi duenak ez du garrantzirik. Berarentzat mezua forma hutsa da, seinale-sistemak ematen dio forma, hain zuzen ere. Igorleak informazioa kodetzen du, eta jasotzaileak, berriz, deskodetzen, forma hori delarik haren euskarria. Lantzean behin jasotzaileak hartzen duen mezuaren deskodetzea beste seinale-sistema batez kodetzea gerta daiteke, hala nola idazten den mezua, telegrafoz bidalia (seinale elektrikoez, beraz), jasotzaileak deskodetzen duena eta berriz ere idazterakoan kodetzen.

Mezu bat igortzeak →ekintza semiko bat burutzea esan nahi du, hots, jasotzailea eta igorlearen artean komunikazioa sortzea. Ekintza semikoa deskodetzearen ondoren dela burutua esaten da, h.d., jasotzaileak, igorleak erabili duen seinale-sistema ezaguturik, mezua deskodetzen duenean. Mezuaren →substantzia orduan →*informazioa* dela baiezta dezakegu, eta horregatik mezua bera informazio baten euskarria dela esan.

→Jakobson-en arabera edozein mezu-igorketatan sei funtzio desberdin gertatzen dira (ikus Roman Jakobson): 1. erreferentziala, 2. hunkitzailea, 3. konatiboa edo deitzailea, 4. faktikoa, 5. metalinguistikoa eta 6. poetikoa.

A. Eguzkitza

Mimika

mimica / mimique / mime

Keinu eta aurpegi-jarrerez osaturiko mintzairari ematen zaio *mimika* izena.

Mingainkaria

dorsal / dorsale / dorsal

Aho-sabaia eta mihi-gaina elkarri hurbilduz gauzatzen diren →kontsonanteak deitzen dira mingainkariak. Adibidez: [r], [l].

Mintzairaz jabetzea

Hizkuntzaren jabekuntzaz bi alderdi azter genitzake: 1) haurra hizkuntzaz nola jabetzen den, hau da, bidaketaren azalpena; eta, 2) haurra zertaz jabetzen den, jabekuntzaren mailak, egitura. Lehenen-

goari buruz esan dezagun, hizkuntzaren jabekuntza geroz eta forma gehiagoren batuketa soila ez dela; baizik eta, haurrak berez dakartzan oinarri batzutatik hasi, eta ezaguera orokorraren barruan ezartzen den jakintza berezia, gelditugabeko berregituratze bidaketa baten ondorio.

Bigarrenari buruz, eta oinarritzat, esan dezagun hizkuntza, atzeman behar den jakintza berezi eta bide batez komunikabide dela. Hau da, jakintza-bide eta xede, batera.

Hizkuntzaren jabekuntzan, nahiz ekoizpena nahiz ulerkuntza edo barnaketa, azter ditzakegu. Esan dezagun, batez ere, ekoizpen-datuak dakizkigula, eta behaketa hutsez jasotakoak, esperimentu bidez oraindik ezer gutxi aztertu delarik.

Hizkuntzaren jabekuntzaren lehenengo aztarrenak, lehen hilabeteetako garrasi eta hotsetan bilatu behar, hauek guztiak, batez ere komunikazio-alderdian kokatzen direlarik.

Batbederaren hizkuntzaren →fonemak, eta horiek soilki, 10/12 hilabete inguruan hasten da haurra erabiltzen. Ordurarte askoz →soinu gehiago erabili du, baina momentu honetan, inguruko hizkuntzarekiko «→feed-back» baten ondorio (Sinclair, 1974) edo, hitzak esanahiz josten direlako, holofraseetan azaltzen diren fonemak →ama-hizkuntzarenetara mugatzen dira (Jakobson, 1941); →bokaletan «a, i, u», eta →kontsonanteetan →ezpainbikariak lehenengo direlarik, unibertsaltzat jotzen duten bidaketa jarraituaz amahizkuntzaren →soinu edo fonema guztietara iritsi arte (idem).

18 hilabete inguruan, holofrase edo perpaus osoaren →esanahia duten →hitz bakar bateko →berbaldiak azaltzen zaizkigu; haur-hitz bereziak gehienean: «aupa» (har nazazu besoetan), «papo» (bukatu dut, erori egin da). Hemen ikus genitzake hizkuntzaren lehenengo zeinuak; hau da nahiz →adierazlea nahiz →adierazia duten hizkuntz elementuak.

Ondoren, eta bien artean muga garbirik gabe, bi hitzetako →esaldiak sortzen dituzte hizkuntza guztietako haurrek. →Berbaldi hauetan ezartzen ditu haurrak lehenengo aldiz, eta batera, →irudikapen fonikoa eta sintaxia. Deskribapen-analisien eritziz, bi eratako hitzez osatuak daude. Brainek (1963) «pivot» (P) eta «irekiak» (I) deitzen die bi talde hauei. «P» hitzek («allgone» = PAPO, «more» = gehiago, «this» = hau) sarritan azaltzen diren hitz-sail laburra osatzen dute. «I» hitzak askoz ugariagoak, eta →maiztasun gutxiko sail irekia osatzen dute. Konbinazioak, hauek izan daitezke: «PI», «IP», «II» baina behin ere ez «PP».

Bi hitzezko berbaldi hauen esplikazio bat baino gehiago dago. Batzuk, Gramatika tradizionalaren «→subjektu/→predikatu» esanahia ematen diete:

«AITA PAPO» «ZOPA PAPO»;
S P S P

edo-ta perpaus soilaren →izen-→sintagma (IS) eta →aditz-sintagma (AS) gisa ere interpretatzen dituzte. Adibidez:

ZOPA PAPO,
IS → ZOPA
AS → PAPO (bukatu egin da)

Hiru edo lau elementu elkartzen ez diren bitartean, munduko haur guztiak era berean josten dituzte lehenengo berbaldiak (noski, elementu fonetiko desberdinez).

Maila berri bat, ama-hizkuntzaren ezaugarriak (morfologiazkoak edo sintaxizkoak) azaltzen direnean izango dugu. Badirudi ama-hizkuntzaren jabekuntzarako haurrak darabiltzan zenbait estrategia, unibertsal direla: —haurrak azkarren eskuratzen dituen →erregelak orokor eta funtsezkoenak dira, eta ez salbuespenez josirik daudenak. Hitzen eta perpausen bukaeretan arreta handia jartzen dute haurrek. Oso maiz larrien perpausen azken hitzak edo hitzaren azken zatiak berresan ohi dituzte. Azkarren atzematen dituzten morfologiazko ezaugarriak ere, hitz-amaierakoak dira. Adibidez, →atzizkiz adierazi daitekeen lekutasuna, preposiziozkoa baino lehenago ikasten du haurrak (Slobin-ek (1973) servo-croatera eta

hungarera ikasi zituen haur elebidun baten bidaketari buruz).

— →Aditzaren jabekuntzari buruz, nahiko jakina da, →denbora-→markak →aspektu-marka gisa erabiltzen dituela haurrak nahiko berandu arte (6-8 urte) (Bronckart, 1976).

— →Sintaxiari buruz, badirudi «Actant-Action-Objet» ordena ote den haurrak perpaus guztiei ezartzen diena; alegia, perpausean lehenik azaltzen den izena egilea izango da 7-8 urte arte, nahiz eta sintaxi-joskerak beste ordena bat adierazi (adibidez espainierazko perpaus pasiboetan) (Sinclair G. Ferreiro, 1971).

Adibide gehiago ere eman genezake; baina oraindik ez dugu egitura osoaren →eredu esplikatzailerik. Egin diren ikasketa guztietan garbi azaltzen da, ordea, eta honek bidaketaren ikusmira bat ematen digu, hizkuntzaren jabekuntza ez dela behin ere kopiaketa-ikaskuntza haurrak berak zuzentzen duen egituraketa bizkorra baizik.

I. Idiazabal

BRAINE, M. (1963): «The Ontogeny of English Phrase Structure: the First Phrase», in Ferguson & Slobin (1973).

BRONCKART, J. P.: *Génèse et organisation des formes verbales chez l'enfant.* Dessart & Madarga, 1976.

JAKOBSON, R.: «Lenguaje infantil, afasia y leyes generales de la estructura fónica» (1941), in *Lenguaje infantil y afasia.* Ed. Ayuso, 1974.

SINCLAIR, H. eta GERREIRO, E.: «Etude génétique de la compréhension, production et répétition des phrases au mode passif», *Archives de Psychologie,* 1970 (1-41).

SINCLAIR, H.: «Acquisition du langage d'un point de vue Piagetien», *Folia phoniatrica,* 26, 1974 (1-12).

SLOBIN, D. I. eta FERGUSON, C. A.: *Studies of Child Language Development.* Holt, Rinehart & Winston Inc., 1973.

Mintzamena gizonetik at

Txillardegi

Gizonaren ezaugarriak aipatzerakoan, mende askotan barrena eman izan da mintzamena, hitz-egiteko ahalmena alegia, nabarmen eta denetan gailen.

1966az geroztik, ordea, uste iraunkor hori kordokatzen hasia da; antropoideek, eta txinpantzeek bereziki, nolabait mintzatzeko gauza direla segurutzat eman behar bait da.

Gaur egun (1978), 25/30 txinpantzek, gutxienez, gor-mutuen mintzamena ezagutzen eta erabiltzen dute; eta orangutanekin eta gorilekin egin diren lehenengo saioek, bi gizaire-mota horietara nolabaiteko mintzamena hedatzera bultzatzen dute.

Bai hizkuntzaren beraren kakoa ulertzeko, bai gizonaren azken funtsa zientzibidez finkatzeko, garrantzirik handiena dute saiaketa horiek.

I. HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

A) →Saussure-k antzeman zuen XX. mende honen hasieratik mintzamenari dagozkion mugen arazoa. Zer da hizkuntza, eta zer ez? Gauza ezaguna eta ulerterraza da, ahozko hitzik erabili gabe azal dezakegula geure barruan gertatzen dena; eta gauza ezaguna da, era berean, itsasontziak, konparazio batez, banderaz, eta gormutuak keinu bidez «mintzatzen» direla.

Komunikabide guztien zientziari, horretara, «*Semiotika*» eritz dakioke. Eta «Linguistika», horretara, «Semiotika» orokor horren atala litzateke.

Abereek, hortaz, elkar aditzen, eta elkarri hitz egiten diotela, zalantzarik gabeko gertaera da. Komunika-molde horiei, ordea, «hizkuntza» eritz al dakieke? Ezetz pentsatu izan dute denek gaur arte.

1966-az geroztik, ordea, zaildu egin da arazoa *antropoideei dagokienez*. Eta hautakizuna hauxe da: edo gormutuek, gizakiak izanik ere, ez dute hitz egiten; edo-ta, gormutuek erabiltzen duten keinuzko hizkera hori hizkuntza da, eta orduan txinpantzeek ere, gutxienez, mintzamena dute.

Hautakizun honek, gizonaren berezitasuna eta gorentasuna oso apaltzen dituen aldetik, aurkako joera gaitza sortu du giza-multzo askotan; joan den mendean Darwin-ek sortu zuen olatuaren antzera. R. Fouts-ek zorrozki dioenez, kakoa honetan datza: ohartuz edo ohartu gabe, gizonak bere bikaintasuna zaindu nahi duela, bere «divine right to uniqueness».

Hots, mintzamena bide zen azken baradera. Zeren eta *tresnak* prestatzeko dohaina ere ez bait da gizonaren berezitasuna. 1968az geroztik badakigu (Lawick-Goodall) txinpantzeek, basabizieran ere ehize-tresnak moldatzen dituztela; eta geroztik tresnagile diren animalien zerrenda luzatu egin da: gorila, orangutana, gibona, zerkopitekoa, eta abar (Benjamin Beck). Zenbait kasutan «tresneria» ezinago xinplea izanik ere, muga zindorik ez dago gizonaren eta animaliaren artean.

Mintzamenaren eztabaidak, horrela, garrantzi handia du.

B) →Martinet-en arabera hizkuntza zehazterakoan, txinpantzeen (eta gormutuen) hizkera ez da hizkuntza. →Artikulazio bikoitzaren teoriaren arabera, →ahozko katea mintzatua da →hizketa; eta katea mintzatuan agertzen diren →soinuak, bi mailatan zati daitezke. Lehenengo mailako atalek («→monemek») bi izari dituzte: fonetikoa eta semantikoa; bigarren mailako atalek, berriz, izari bakar bat dute: fonetikoa. →Monemek zerbait adierazten dute; →fonemek, berriz, ez dute ezer adierazten.

Gormutuen hizkerarik normalenetan, berriz, nekez berez bide daitezke bi artikulazio horiek. Baina zenbait saio egin da horretaz ere azkeneko urteotan; nahiz ez denen onespenaz. *Stockoe*-k, bereziki, *monema/fonema* biketaren arabera, →*zeinu/txerema* (= sign/chereme) berezten ditu gormutuen hizkeran (1960).

Zeinu batzu *ikoniko* badira ere (→onomatopeien kideak; alegia, adierazten dutenaren berezko keinu soil), beste batzu, aldiz, →*hautazkoak* dira, araugabeak («arbitrary»). Stockoe-ren ustez, horrela, 40 bat txeremaren elkarketaz sor daitezke gormutuen zeinu guztiak: ahozko hizkuntzetan fonemen elkarketaz bezalatsu.

Gormutuen mintzabideak ere, hortaz, *artikulazio bikoitza* luke zenbait bilatzaileren ustez. Baina ez dira, honi buruz, denak ados; →analogia ez baita beti egokia.

Hockett-ek, eta beste anitzek, *ahozkotasuna* eskatzen diote mintzabideari. Baina arazoa orduan, esan dugunez, hauxe da: giza-gormutuak eta txinpantzeak sail berean gertatzen direla. Eta zer esan, horretara, izkribuz egin daitekeen mintzairaz?

Gormutuek darabilten hizkeran, dena dela, →*sintaxi-ñabardurak* ahulago dira, ahozko hizkeretan baino. Eta honek ondorio larriak ditu. Nahiz, Gardner senar-emazteen eritziz, gormutuen hizkeraz esan daitezkeen gauzetan, mugarik ez agertu.

II. TXINPANTZEEN FISIOLOGIAZ

Gizonetik urrun al dago txinpantzea, fisiologiari dagokionez?

A) FISIOLOGIA

1. *Fisiologi tarteak* neurtu nahi izatekotan, *odol-ikerketak* ematen ditu arrastorik zehatzenak.

Hots, odolari dagokionez, «bertago dago txinpantzea gizonetik, beste edozein animali motatatik baino» (Tobias; Washburn, 1974); (King/Wilson, 1975).

Ruffie-ren hitzez esateko, «primateen ordezkari berezkoa» da gizona.

2. *Kromosomei* dagokienez, bestalde, eta De Grouchy-k frogatu duenez, 23 kromosomatatik 15 dituzte berberak txinpantzeak eta gizonak. Eta Langaney-k eransten duenez, bost urrats daude diferentzia horretan: 4 inbertsio perizentriko, eta deslekuketa bat. Biologilarien ustez kariotipo-desberdintasun hau ez da handia.

Azken zifra pare bat: gizonaren *garunak* 22.260 cm^2 dituela, eta 9,5 mila milioi zelula; gorilarenak berriz, (tamainaz hurbilena), 5.400 zentimetru karratu eta 3,5 mila milioi dituelarik.

B) AHOZKO MINTZABIDEA

Halaz ere, hitz egiteko aukerari dagokionez, txinpantzeak ezin dezake ahozko mintzabiderik erabil.

Alde batetik, eta Liebermann, Crelin eta Klatt-ek erakutsi dutenez (1972), *ahots-→sistema* guztiz da desberdina gizonarengan eta antropoideengan. Ez dute hauek →faringe alderik. Eta, ezpainen higikortasunaren aldetik, ez dira bokalei dagozkien ezpain-jarrerak egokitzeko gauza. Mihia ere nagi dute.

Ez da harritzekoa, beraz, *ahozko hizkeraren* bitartez egin diren saialdi guztiak errekaratzea. Furness-ek (1916) ez zuen lortu, orangutaneme batengandik, bi hitz zuzen baizik esan eraztea: «papa» eta «cup». Hayes-ek (1951), era berean, sei urtez saiatu ondoren, lau hitz baizik ez zituen lortu «Viki» txinpantzeagandik: «mama», «papa», «cup» eta «up». Eta laurok, noski, «with a heavy cinpanzee accent»...

Gardner-tarren zorroztasuna, beraz, horretan datza: tximuen ahoezintasuna ezaguturik, «*Ameslan*» *hizkera* irakastea bururatu zitzaiela (= *Ame*.rican *S*.ign *Lan*.guage, Amerikatar gormutuen hizkera). Ez da ahaztu behar, bestalde bilatzaile batzuren ustez bederen (Hewes, 1971) gizonak berak ere bi hizkera-motak (ahozkoa eta keinuzkoa) nahasian erabili dituela oso berandu arte.

III. TXINPANTZEEN ADIMENAZ

Premack-ek frogatu duenez (1971) txinpantzeak badu, psikologiari dagokionez, *sinbolamenaren oinarria;* eta plastikozko txartelen bitartez, mintzaira-ahalmena baduela erakutsi du garbiki: «Les primates different de l'homme non pas en ce qu'ils ne possèdent pas de système leur permetrant d'*objectiver* leurs représentations internes». Besteak beste, ondoko eragiketa hauek erabil ditzake: ezezkakoa, galderazkoa, →izenak, →aurrizki eta →atzizkiak, baldintzak. Erraz ikasten ditu hitzak (ehunka); eta frogatua da ehunetik gora, sistemakiro eta xuxen erabil ditzakeela.

Gauza bera aurkitu dute, *adimen-neurketa* huts horretan, Rumbaugh-ek, von Glaserfeld-ek, eta bestek.

Jokamoldeei dagokien adimenaz gain, txinpantzeak harrigarriro frogatu du bere argitasuna, bi jokaera hauetan gutxienez:

— Bai Gardner-tarrek bereak, elkarrizketaren bidez; bai Gordon Gallup-ek, zeharkako azterbidez, frogaturik utzi dute txinpantzeak *bere buruaren kontzientzia* baduela. Gardner-ek, esate baterako:

Susan-ek: «Nor da hori», txinpantzeari galdetu, Washoe-k: «Ni»; baita, geroxeago, berriz: «Ni Washoe».

(«Washoe» Gardner-tarren lehenengo txinpantzea da)

— Benjamin Beck-ek, ondoko *tresnagintza* edo erabilkera hauetan ari izan dituen adarren soilketan, sugeak edo beste animaliak urrundik ukitzeko makilen hautaketan; ura edo besterik xukatzeko, hostoen aukeraketan; adar trinkoen hautaketan, ez bustitzeko, euri-jasa handietan, eta abar.

Baita, jakina, Gardner-tarrekin eta R. Fouts-ekin hitzegiten ikasteko erakutsi duen dohainean ere.

IV. GARDNER-TARREN LEHENENGO PROJEKTUA

A) HIZTEGIA

Gardner-tarrek (Allen eta Beatrice) 51 hilabetez atxiki zuten Reno-n (USA-ko Nevada-ko Unibertsitatean) «Washoe» deritzon txin-

pantze emea; 1966ko Ekainetik 1970ko Urrira arte. Geroztik, Normango Unibertsitatean bizi da Washoe (Oklahoma), Roger Fouts ikertzailearen eskuetan.

Txinpantzea Reno-ra iritsi zenean, 11 hilabete zituen gutxi gorabehera. Zaharregia zen, →Psikolinguistikak irakasten duenez, adin horretan mintzatzen hasteko; eta bestetik, Gardner-tarrek nekez erabiltzen zuten «Ameslan» delakoa (gormutuen hizketa).

Halaz ere, azkar ikasi zituen Washoe-k Ameslan-ezko hitzak; eta, Reno-ko Unibertsitatetik joaterakoan, azkarki aberasten zuen oraindik bere hiztegia.

Hitzetarako bahea ezin hertsiagoa izan zen: Washoe-k hitz bat zinez ezagutzen eta erabiltzen zuela erabakitzeko, 3 aldiz aurkitu behar zuten hiru aztertzailek; eta, hortik aurrera, 15 egunez segidan, hutsik egin gabe, egunoro erabilia izan. Halaz ere, Washoek Reno-tik joatean (6 urte zituenean, beraz), 132 hitz zituen ofizialki; baina ulertu, eta batzutan erabili, ehunka ulertzen eta erabiltzen zituen.

Saiaketa berrietan, halere (Gardner II, Fouts), azkarkiago ikasi dute txinpantzeek.

B) SINTAXIA

Washoe-k 10 zeinu ezagutu zituenez geroztik, eta haurrek egiten duten bezalaxe, bi hitzek osatutako elkarketak asmatzen hasi zen, eta «in contextually correct situations» (Gardner). Adib.:

- *Tickle me* (2)
  (egizkidazu kili-makurrak)

Hitz-kateak luzatu egin ziren denboran barrena:

- *Key open please blanket* (4)
  (eman giltza irekitzeko eta tapakia hartzeko)
- *You me go-out there hurry* (5)
  (eraman nazazu azkar kanpora)

C) SEMANTIKA-HEDAPENA ETA ZEHAZKETA

Gardner-tarrek «open» (ireki) hitza irakatsi zioten Washoe-ri; baina kasu hauetan bereziki: etxeko ateak, armarioetakoak, kutxetakoak irekitzeko. Hots, Washoe-k, bere buruz, iturria ere irekitzeko erabili zuen. Halako abstrakzio-dohaina ukatu ezina da.

Alderantziz, Washoe-k usainentzako hitz bakar bat («flower») ezagutu zuen bitartean, kasu guztietan berori erabiltzen zuen. «Smell» hitza ikasi zuenean, ordea, lore-usainak eta gainerako usainak biketa horren arabera taxutu zituen (Flower/smell). Honelaxe jokatzen du gizonak ere.

D) GRAMATIKA-KATEGORIAK

Gardner-tarrek ongi oharrerazten dutenez, «Nor» galderari erantzutean, garrantzitsuago da «Pertsona-izenak» erantzutea (nahiz kasu honetan edo hartan pertsona-izena oker emana izan), «Pertsona-izenak» eta «aditzak», eman dezagun, nahasiz erantzutea baino. Hots, test hauen arabera, dudarik ez dago txinpantzeak hizkuntz →kategoriak berezten dituela: ez du hitz-mota nahasketarik egiten.

E) HITZ BERRIEN SORRERA

Zerbaiti dagokion hitza txinpantzeak ezagutzen ez duenean, jadanik duen →hiztegia baliatuz sor ditzake hitz berriak.

Washoe-k, esate baterako, ahateak ikusi; eta «ahate» hitza ez ezagutuz, «water bird» bataiatu zituen (= ur-txori).

Kasu hau ez da behin bakarrik gertatu.

F) IRUDIAK ETA EGIAZKO GAUZAK

Washoe-k oso erraz onartzen zituen (liburuetan, aldizkarietan) gauzen irudiak; eta jatorrizko gauzari berari eransten zion izena ezartzen zien irudiei ere.

G) TXINPANTZEAK HIZKERA BERE BURUZ DARABIL

Bai Washoe-k, bai ondoko urteotan «ameslan» hizkera ikasi duten txinpantzeek, beren buruz eta horretara inork behartu gabe hitz egiten dute, eta zuzen erabiltzen zeinuak.

Alde batetik, Washoe bere buruz ari izaten da mintzatzen, bakarrik, oherakoan aldizkariak eta liburuak begiratzen dituelarik.

Bestetik, bai Washoe bai ondokoak, bai elkarri, bai kristauei, bai katuei eta zakurrei, ameslan-ez mintzo zaizkie, inork ere horretara behartu ez arren. Zinez esan daiteke sendotu egin dutela ameslan-hizkera.

V. GARDNER-TARREN PROJEKTU BERRIA

Lehenengo saiaketaren arrakasta ikusita, oinarriak onduz eta txinpantze batzu batera ikertuz abiatu dira Gardner-tarrak.

Oraingoan ,txinpantzeak eta gormutuak alderatu nahi dituzte; horretarako jaioz geroztik beretik «ameslan» erabiltzen den mundu batetara sartuz. Eskolatzaileek ongi ezagutzen dute orain hizkera, gormutu batzu irakasle daudelarik. Eta, bestetik, txinpantzeek beren artean ameslan-ez mintzo ote diren aztertzen da.

Ikerraldia 1972ko bukaeran hasi da («Moja», txinpantze emea urte hartako Azaroan sortua, eta Reno-ra eramana); eta, mementu honetan, hiru txinpantzerekin doa aurrera: «Moja» 5 urte; «Tatu», emea, 1975-XII-koa; eta «Dar» arra, 1976-VIII-koa. («Pili», arra, bere bi urtetan hil zen).

Lehenengo projektuan aurkitu ziren dohain guztiak baietsi dira. Azkarturik ere gertatu dira denak.

Txinpantzeak maiz mintzo dira ameslan-ez beren artean; eta azkarkiago lortu dute hiztegia Washoe-k baino: lehenengo 10 zeinuak ikasteko, 25 hilabete behar izan zituen Washoe-k, 5/6 hilabete oraingo txinpantzeek; lehenengo 50 →zeinuak, era berean, 37 hilabete Washoe-k, 21/23 hilabete oraingoek. Ikas-epe horiek osoki dira gormutuen epeekin alderatzeko modukoak. (Bellugi-Schlesinger).

«Moja»k oso maite du marraztea. Eta, halako batez, 3 urte zituenean, oso gauza bitxi bat egin zuen; eta gero gelditu. Gardner-ek esan zion:

G. — Segi aurrera!
M. — Bukatua.
G. — Eta, zer da?
M. — Txoria.

Marrazkiak ez du txori-eite handirik (ikus Gardner, 1977, 10. irud.); baina haur txikiek egin ohi dituzten marrazkiek ere ez. Harrigarriak dira, dena dela, bai txinpantzearen segurtamena, bai elkarrizketa bera.

Hitz bikoteen lerrokadek eta Nelson-ek haurren artean idoro dituenez, antz nabarmena dute. Washoe-rekin aurkitu ziren →semantikazko →hedapenak eta zehazketak, berdin aurkitu dira projektu berrian; eta →hiztegiaren jabetzean, % 60 hitzetan bide berbera eraman dute txinpantze guztiek. Ñabardurak badaude, halere: Washoe-k «ohe» esaten zuena, oraingo saioan «lo» esaten zuen Pili-k.

Bere buruaren kontzientzia garbiki erakutsi du Moja-k ere, hiru urterekin:

G. — Zer hori?
M. — Belarra
G. — Nork marraztu hori?
M. — Mojak

VI. FOUTS-EN LANAK OKLAHOMAN

Ezinezkoa da azterkizun guztia lerro gutxitara biltzea.

Oklahoma-n dago, esan dugunez, Washoe; baita txinpantze-mordoska bat ere (7 gaur).

Fouts-ek ikerketa batzu daramatza batera:

1) — ia Washoe-k (hiztegirik aberatsena) hitzik irakasten ote dien besteei.

2) — ia txinpantzeek itzul ditzaketen perpausak, ingelesetik ameslan-era (ingelesez entzun, alegia; eta ameslan-ez erantzun).

3) — ia noraino esan daitekeen beren artean ameslan-ez mintzo direla. «Ally» txinpantze arra «elebiduna» da; eta oso ongi egiten ditu proposatzen zaizkion itzulpenak.

«Lucy»k, berriz esaera berriak asmatu ditu: makakoez hitzegiteko, kanpora pasean ateratzeko, eta abar. «Booce» eta «Bruno» arrak, gutxitan bada ere, hasiak dira elkarrekin hitzegiten:

B0 — Egin kilikili
Br — (jaten ari)
Booce nik jan.

Bai «Washoe» bai «Lucy» oso berritsuak dira. Lehenengoak denei hitzegiten die ameslan-ez. Bigarrenak, berriz, R. Fouts-ekin izan dituen 267 elkarrizketatan, % 77tan txinpantzeak hasi du hizketa; eta Washoe-k are gehiago ere: % 80tan.

Denak adierazten du (Gardner) sintaxizko gorabeheretan uste zuten baino askoz aurrerago joan daitezkeela txinpantzeak.

VII. STANFORD-KO UNIBERTSITATEKO GORILAK

Gardner-tarrek txinpantzeei hitz eragitekotan erabili dituzten teknika berberak erabiliz, Stanford-ko Unibertsitatean saiaketa berbera hasi du 1973an Francine Patterson andereak. Baina oraingoan gorilak hautatuz.

Hots, gorilak ere «Ameslan» hizkeraren bitartez, mintzamen berbera erakutsi du.

«Koko» gorila emeak, 6 zeinu erabiltzen zituen 10 hilabete zituenekо. Eta gaur egun 375 ditu. Harrigarriro, orainaldiko ez diren gertakariez ere mintza daiteke (bai joandakoez, bai etorkizunez).

Geroztik, bigarren gorila bat iritsi da Stanford-ko Unibertsitatera, arra berau; eta bide beretik ikasi ditu 45 zeinu. Oraingo ikerraldian, beraz, gorilen arteko elkarrizketak aztertuko dira.

«Koko» gorilaren abiada hau izan da:

19 hilabete	.....	6 zeinu
36 hilabete	.....	184 zeinu
72 hilabete	.....	375 zeinu

Zeinu-modu hauek eta txinpantzeenak alderatzen badira, gutxienez ahalmen berbera ageri da gorilarengan.

BIBLIOGRAFIA

GARDNER, A. eta B.: Teaching Sign Language to a Chimpanzee, *Science,* V. 165 (664-672), 1969.
— Two-Way Communication with an Infant Chimpanzee, *Non-Human Primates,* 1971 (117-184).
— Teaching Sign Language, *Filma,* 1973, X.
— Comparing the Early Utterances of Child and Chimpanzee, *Child Psychology,* University of Minnesota, 1974 (3-24).
— Evidence for Sentence Constituents in the Early Utterances of Child and Chimpanzee, *Experimental Psychology,* V. 104, 1975 (244-267).
— *Comparative Psychology and Language Acquisition,* University of Nevada, Reno, C. 1977 (1-70).
LAIRD, Ch.: *A Non-Human Being Can Learn Language,* Reno, 1973 (142-154).
RICHARD, G.: «L'outil chez l'animal», *La Recherche,* n.º 52, 1975 (5-14).
GLASEFELD, E. VON: «Les chimpanzés et le langage», *La Recherche,* n.º 92, 1978 (725-732).
DUDLEY FLEMING, J.: «La planète des singes», *Psychologie,* n.º 52, 1974 (7-15).
— «Le primate et l'homme» (*Colloque,* IX, 1972, Toyaumont), Ed. Points, Seuil, 1974 (1-77). Lehenengo liburukia bereziki.
GALLUP, G., ROGERS, Ch., RUMBAUGH, FOUTS, R.: *Socioecology and Psychology of Primates,* Mouton, 1975. Parte hau bereziki: 307-409.
KÖHLER, W.: *L'intelligence des singes supérieurs,* PUF, 1973.
LAWICK: *Les chimpanzés et moi,* Goodall-Stock, 1971.
YERKES: *The Great Apes,* Yale University, 1929.
PREMACK, D.: *Intelligence in Ape and Man,* Erlbaum, 1976.

Mintzoa
idioma / idiome / language
Sin.: IDIOMA

1. *Mintzoa* (edo *idioma)* deitzen da komunitate jakin baten →hizketa, hau dagokion hizkuntza edo →dialektoari buruz aurkezten dituen berezitasunen aldetik aztertzen denean.

2. «Mintzo-→adierazpen» bezala ere uler daiteke *mintzo* terminoa.

3. *Mintzo* hitza «hizkuntza» hitzaren →sinonimoa ere izan daiteke.

Mintzura
Ik. BERBALDIA

MITXELENA, Luis

1915. urtean Errenterian jaio zen hizkuntzalari ospetsua. Bere gazte-denboran gerra ezagutu zutenetarikoa. Hiltzera kondenatu zuten.

Kartzelan hasiko da hizkuntzalaritzaz arduratzen eta handik irten ondoren lizentziatuko da Filologia Klasikoan. Doktoradutza egin ondoren →indoeuropar hizkuntzetako katedra lortzen du Salamancan. Gaur egun Gasteizko unibertsitatean dihardu.

Maila honetako zenbait erakundetan partaide eta lankide: Euskaltzaindian, Espainiako Erret Akademian, Pariseko Société de Linguistique-n, CSIC-en, Julio Urkixo Filologi Seminarioan, etab.

Idatzi dituen liburu eta artikulu ugarien artean honako hauek aipatuko ditugu duten garrantziagatik:

Apellidos Vascos, Donostian, 1953an.

Historia de la literatura vasca, Madrilen, 1960an.

Fonética Histórica Vasca, Donostian, 1961ean. (Bere doktoradutza-tesia).

Lenguas y protolenguas, Salamancan, 1963an.

Sobre el pasado de la lengua vasca, Donostian, 1964ean.

Hamaika aldizkaritan lankide: *Emerita* (Madrid), *Bulletin de la Société de Linguistique* (Paris), *Via Domitia* (Toulouse), *Word* (New York), *Archivum* (Oviedo), *Príncipe de Viana* (Iruñea), *Zephyrus* (Salamanca), *Pirineos* (Zaragoza), *Fontes Linguae Vasconum* (Iruñea), *Euskera* (Bilbo), *Egan* (Donostia), *A.S. F.V. «Julio Urquijo»* (Donostia) etab.

Liburu eta artikulu-multzo hauetan aurkitzen ditugu Mitxelena hizkuntzalariaren lan eta hipotesiak.

Baina Mitxelenaren lana ez da hizkuntzalaritza sailean egin dituen idazlanetan agortzen; euskal kulturaren barnean nahitaezko erreferentzi puntua da.

Egan aldizkaria eta Euskaltzaindian euskara batzearen arazoa izango dira haren kultur lanen bi zutabe nagusi.

Egan aldizkarian 1951.ean hasi zuen saio-lana, eta saiolari bikain agertzen zaigu: zehaztasun handiko hizkera, hiztegi aberatsa, estilo trinkoa, oso landua. Bere gogoetetan, euskal gizartea jasaten ari den aldaketez oharturik, euskara gizarte honen hizkuntza izan zedin zenbait joera baztertu beharra zegoela zekusan. Ordura arte euskarak izan zuen balio ideologikoaren aurrean haren *tresnatasuna, funtzionaltasuna,* aldarrikatuko du. Garai zahar eta berrien artean zegoen amildegia ikusirik bi belaunaldiren artean zubi izaten jakin zuen belaunaldi berri honi ateak irekiaz, laguntzaile eta aurrerazale agertuaz.

Euskarak batasuna lortzeko eraman duen eta daraman prozesuari barne barnetik jarraitu zaio eta darraio, 1968ko Arantzazuko Biltzarrean aurkeztutako txostena ardatz nagusia gertatu delarik.

Parte hartu duen erakundeetan egin eta bultzatu dituen lanek eta hizkuntzalaritza mailan plazaratu dituen ikerketek inork zalantzan jartzen ez duen maisutasuna aitortzen diote.

Modalitatea
modalidad / modalité / modality

1. Modu hitzaren sinonimo bezala, modalitateak perpausaren estatutua adierazten du: →baiezpena, agindua, galdera.

2. Ch. Bally-ren arabera, perpausaren analisi logiko batetan, modalitatea elementu-sail bat da, zera adierazten duena: alegia, dictum-a (h. d., prozesua soilki eta bakarrik, →hiztunaren eskuhartzea kontutan hartu gabe), hiztunaren nahiz beste norbaiten aldetik, burututzat edo burutugabetzat, desiratutzat edo ez-desideratutzat, pozez edo penaz hartutzat ematen dela.

Perpaus oro ageriko nahiz isilbidezko modalitate batengatik ezaugarritzen da.

→Modu gramatikalak ez dira modalitatea adierazteko erabiltzen diren bideetariko bat baizik. →Adberbioek ere, sarritan, →funtzio hau betetzen dute *(agian,* etab.).

3. Gramatika →sortzailean, oinarrizko perpausaren →arartegabeko osagaia da modalitatea, →hunarekin batera.

4. →Martinet-ek, funtzioa markatzeko balio ez duten →monema gramatikalak deitzen ditu modalitateak: plural-monema modalitatea da.

5. *Modalitate logikoak* esaten zaie, perpauseko →predikatua egiazko, kontingente (edo ezinbesteko), gertagarri (edo posible) bezala aurkezteko era desberdinei.

Modua

Lehen-lehenik, →aditzaren morfologi →kategoria bat da modua. Latinez, espainieraz, alemanieraz, →indikatiboa, →subjuntiboa, →aginduzkoa; euskaraz, berriz: indikatiboa, subjuntiboa, aginduzkoa, →baldintzazkoa. Modu hauei eman dakizkiekeen izenak, oso dira hitzarmenezkoak; eta ez dute inolaz ere errakuntzara eraman behar: berorien erabilera oso desberdina da hizkuntzetan barrena. Beste zenbait hizkuntzatan ez dauden bi modu euskaraz egoteak, argiro erakusten du subjuntiboen erabilera ezin daitekeela berbera izan. Modu kategoriaren →ezaugarriak, →morfosintaxiaren eta →textuinguruaren mailakoak izaten dira maiz. Hori dela bide, subjuntiboaren erabilera, euskaraz, espainieraz, latinez, eta abar, menpeko perpausean →aditzak duen lekugunearen arabera aldatzen da. Hauxe da latinaren gramatikan «consecutio temporum» esan ohi dena. →Matrize perpausari buruz daukan →menpekotasuna, eta baiezko edo ezezko moduari buruz daukana, oso nabarmen agertzen da espainierazko ondoko perpausetan:

— Creo que *viene* mañana
— No creo que *venga* mañana
— Dice que *vienes* mañana
— Dice que *vengas* mañana (agindua)
— ¿Te parece que *viene* mañana?
— ¿Te parece que *venga* mañana? (ados egon)

Bi modu hauek onartzen dituzten aditzak, anbiguoak dira.

Alderantziz, textuinguruzko menpekotasunik gabeko adibide on bat eskaintzen digu alemanierak; →hiztunak, hain zuzen, eman den berriaren egia segurtatzerik ez daukala adierazi nahi duenean.

Kategoria semantiko gisa definitzen badugu 'modua' delako hau (→modalitatea), hizkuntzek modu-→edukina azaltzekotan bestelako biderik ere badutela aitortu beharko dugu, hala nola hiztunaren jarrera dioenarekiko (ziurtasuna, zalantza, nahia, agindua, galdera...): aditz modalak matrize perpausean, →adberbioak *(onenean, noski, agian...),* partikula bidez (latinez: *num, nonne* →galdetzaileetan, euskarazko *al...),* eta abar. Zenbait indikatibozko →denbora, era berean, moduzko zentzuarekin erabili ohi da. Espainieraz, esate baterako: *no tengo reloj, pero serán más o menos las siete.* Zenbait hizkuntzalarik, bestalde, alemanierazko geroaldiaren denboratasuna ukatzen dute: *werden* →laguntzaileaz, eta →infinitiboaz osaturik, probabilitatezko zentzu modala aitortzea nahiago dute. Nolanahi ere, elkarrengandik berezten zail gertatzen diren bi kategoria dira denbora eta modua.

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Monema

monema / monème / moneme

A. →Martinet-en terminologian, lehen →artikulazioko unitateari, →adierazle-→adieraziz hornituari, monema deritza, honen azpitalde direlarik →morfema eta →lexema: hitz bakuna, →erradikala, →afixua, →desinentzia izan daiteke. Sailkapen funtzionalaren arabera, motok bereizten dira:

1. *Monema autonomoa:* unitatearen eta →enuntziatuaren arteko erlazioa unitatearen →edukin semantikoan inplikatua dagoenean, monemari *autonomoa* deritza, edozein lekugunetan ager bait daiteke, salbuespen batzu gora-behera. Adibidez, *atzo mendian izan nintzen, (mendian izan nintzen atzo, atzo izan nintzen mendian, mendian atzo izan nintzen)* perpausetako *atzo.*

2. *Monema funtzionala:* Monema ez-autonomo baten →funtzioa edo enuntziatuarekiko erlazioa espezifikatzen duen monemari, *funtzionala* deritza. Inbentario gramatikal zedarrituetakoa da, eta preposizio, →menpe-

kotasun-→juntagailu, →kasu-desinentzia etab. izan daiteke. *Mendian,* adibidez, *-n* desinentziaren bidez erlazionatzen da enuntziatuarekin *atzo mendian izan nintzen* perpausean.

3. *Monema menpekoa:* ez autonomoa eta ez funtzionala den monemari, *menpekoa* deritza, nahiz ordena nahiz monema funtzionala behar bait dute enuntziatuarekiko erlazioa markatzeko. Hizkuntzaren monemarik gehienak menpekoak dira.

Monoptongazioa

monoptongación / monophtongaison / monophthongization

Monoptongazioa →diptongo edo triptongo zena monoptongo bihurtzea da. Hori gertatu zen latin inperialean [α]-tik [e]-ra jo zenean (*/poenam/* → /penam/), edo baita [ae] → [ɛ] bihurtu zenean (*/kaelum/* → /kɛlum/).

Nafarreraz maiz gertatzen da; leku-izenen ahoskeran ere ongi ageri denez:

Beruete → Beute
zazue → zaze

Monosemikoa

monosémico / monosémique / monosemic

Zentzu bakarra duten →morfema edo →hitzak deitzen dira monosemikoak; zentzu bat baino gehiago duten hitzei (→polisemikoei) aurkajartzen zaizkie. Terminologia zientifikoetako hitz gehienek ez dute zentzu bat baizik: *laringologia, neuralgia,* etab.

Monosilaboa

monosílabo / monosyllabe / monosyllabic

Sin.: SILABABAKARRA

→Silaba bakarra duten →hitzak deitzen dira monosilabo edo silababakarrak: *ur, gai, lan,* etab.

Monosilabozkoa

monosilábico / monosyllabique / monosyllabic

Monosilabozko hizkuntzak, →hitz gehienetan →morfema lexikalak eta gramatikalak silaba bakarrekoak direlako deitzen dira horrela (txinera monosilabozko hizkuntza da, baina baditu hitz silabanitzak ere.).

Mora

mora / more / mora

Hizkuntza batzutan →silabak izan ditzakeen bi silaba-erdiguneetarik bakoitza, *mora* deritzan unitate prosodikoa da. Hizkuntza horietan (latin klasikoan eta lituanieran, adibidez), →azentu musikalak eragiten du bi unitateen arteko desberdintasuna, mora gorenean →tonua igo egiten delarik.

Morfema

XVIII. mendearen azken alde arte pentsatu izan zen →*hitza* zela →esanahia zuen hizkuntz unitaterik txikiena: →berbaldia perpausaz osatua da eta perpausak hitzez osatuak. Eta hitza zatitzen bada, esanahirik gabeko atalak agertuko zaizkigu: →silabak, →letrak... Baina hizkuntzalaritza konparatzaileak hitza esanahia duten atal txikiagoetan zatitzea ekarri zuen. Gehienetan hitzaren zatikatze hau bitara egin ohi da: batetik, →*erroak* (edo semantemak), eta bestetik *morfemak.* Eta morfemetan, flexioari dagozkionak, (→aditz-jokoan eta →deklinabidean sartzen direnak), eta afijoak, bereziko lirateke, hauek bata besteagandik askoz independenteagoak direlarik. Afijoak, →aurrizkiak nahiz →atzizkiak izan daitezke. Euskaraz, atzizkiak dira, dudarik gabe, ugarienak.

Dena dela, berezketa hauek guztiak zalantzan jarriak ditu hizkuntzalaritza berriak eta, horrenbestez, amerikar hizkuntzalariek hitzaren osagai esanahidun guztiei izen berbera ezarri diete: morfema. Beraz, *morfemak dira esanahia duten gutxienezko unitateak.* Eta perpausak hitzetan oinarritu beharrean, morfematan oinarritzen direla esaten ahal dugu. Ahoska daitekeen hizkuntza bateko fonema-sail batek morfema bezala funtziona badezake, fonema-sail honi *morfo* deitzen zaio. Horretaz, morfema baten errepresentazio fonemikoa litzateke morfoa. Morfema bati morfo bat baino gehiago dagokionean, morfo horiei →alomorfo deitzen zaie.


Izan ere arazoa hau da, alegia, askotan materialki desberdinak diren atalek (morfo desberdinek, alegia) esanahi berberari eusten diote. Adibidez, *hau* eta *honek* hitzetan *hau* eta *hon* morfoak agertzen zaizkigu. Baina materialki desberdinak badira ere, argi dago →edukin berbera dutena. Berdin, adibidez, →aditzeko pluralgileak *-zki* eta *-it-* dira. Beraz, morfema batek itxura desberdina har dezake. Morfema baten forma desberdinak *alomorfoak* dira.

Bestalde, hots-atal analisa ezin bat esanahi bat baino gehiagoren euskarri izan daiteke. Adibidez, latinezko *bona*-ren azken *a* hori hiru morfemaren estalkia da: →femeninoarena, →singularrarena eta →nominatiboarena. Elementu esanahidun txikiagotan zati ezin daitekeelarik esanahi bat baino gehiagoren euskarri gertatzen den elementu foniko horri, *morfo portemanteau* ere deitzen diote. Horretaz, paralelismoa erabatekoa da:

fono — alofono — fonema
morfo — alomorfo — morfema

Nozio honen ordez, Matinet-ek →*monema* hitza asmatu du.

Morfema-motak: a) →erroak *(egin, etor, buru...)*
b) →eratorleak *(des-, -era, -tsu...)*
c) →flexiboak (N-, -K, -Z: *Noa, AndoniK, mendiZ)* edo:



P. Goenaga

Morfonologia


Morfofonologia izenaz ere ezagutua, →Troubetzkoy-k proposatzen zuenez hau dugu morfonologia: hizkuntzaren →ezaugarri fonologikoen erabileraren ikerketa morfologian. Autore beraren arabera, hiru dira zientzia linguistikoaren atal honek landu behar dituen eremuak: 1. →morfemen egitura fonologikoak, 2. mórfema-taldeetan morfemek jasaten dituzten →aldaketa fonikoak, eta 3. →funtzio morfologikoa duten aldaketa fonikoak. Hiru eremuetatik lehenengoa da ia hizkuntza guztietan aplikazioa duena, morfema-→kategoria desberdinak dauden hizkuntza guztietan, morfema-mota horiek →marka foniko bereziak bait dituzte. Esate baterako, hizkuntza semitikoen →aditz- eta →izen-morfemek hiru →kontsonante ukan ohi dituzte, baina ez →izenorde-morfemek; eta hau bezalako →erregelek hizkuntza askotan balio dute. Bigarren eremua indiar zaharra edo sanskritoaren gramatikariek «barne-sandhi» deitzen zutenaren azterketa dugu. Eman ditzagun, euskal elkarketaren erregelak:

beterre < begi + erre («voyeur» edo aux yeux irrités) edo errepide < errege + bide («route», «carretera», «camino real»). Hirugarren kasua →indoeuropar hizkuntza gehienetan gertatzen denaren azterketa da. Adibidez, alemanierazko →deklinabidea:

der Mann: gizona, gizonak.
den Mann: gizona.
dem Mann: gizonari:
des Mannes: gizonaren.

Baina, hizkuntzalaritza sortzailean, termino honek duen →adiera, arras bestelakoa da. →Eredu linguistiko horretan morfonologia da azaleko emaitzei interpretazio morfologiko eta fonikoak ematen dizkien gramatikaren atala (ikus *Estrukturalismotik gramatika sortzailera).* Esate baterako,

gizona etxera dator



A. Eguzkitza

Morfosintaxia

Patxi Goenaga

I. TRADIZIOTIKO GRAMATIKA

Gramatika dugu giza-zientzietan zaharrenetarikoa. Kristoren aurreko III. mende inguruan zenbait textu zahar azaltzeko asmoz sortu bait zen. Greziarrek beren hizkuntza besterik ez zuten aztertu; eta grekoaren *gramatika*-→*kategoriak,* →sintaxi-egiturak (→*subjektua* eta →*predikatua,* batez ere) eta *inflexio* nagusienak (→*generoa,* →*zenbakia,* →*kasua,* →*pertsona,* →*denbora,* →*modua*...) aurkitu zituzten. Greziarren jeneralizazio hauek ez ziren XVIII. mendera arte hobetu.

Filosofo eskolastikoek, Erdi Aroan, latinaren gramatikaren zenbait berezkotasun ikusi zuten: →*izenaren* eta →*adjektiboaren* arteko desberdintasuna, →*komunztadura, eraenketaren* eta →*aposizioaren* arteko desberdintasunak...

Gramatikak, tradizioz, bi parte nagusitan banatu izan dira: *morfologia* eta *sintaxia.* Gaur egun edozein gramatika-lanetako erdi muina sintaxiak hartzen badu ere, hau ez da betidanik honela izan. Morfologiari orrialde pila bat eskaintzen zitzaion garai bat izan da, sintaxiari, edo horrela deitzen zenari, pare bat besterik eskaintzen ez zitzaion bitartean. Gaur, hala ere, gauzak beste modu batez begiratzen ditu →Linguistikak.

A) MORFOLOGIA

Morfologia hitzei buruz aritzen da, hitz bakoitza bere horretan harturik, perpausean dituen erlazioei jaramonik egin gabe. Hizkuntza baten gramatikak, elkarrekin doazen →*morfema*-motak deskribatzen ditu. Morfema hauek hitzak osatzen badituzte, morfologian deskribatzen dira. Perpausak osatzen badituzte, berriz, sintaxiari dagokio morfema horien deskribapena.

Gramatika, tradizioz, hitzetan oinarritzen da, Baina zenbait hizkuntzatan hitz horien forma, itxura, aldatu egiten da. Adibidez, *etorri,*

hitza izan daiteke; baina baita *zetorkigun* ere. Eta bestalde, *etorri zaigu* bi «hitz» dira, ala bat bakarra? Dena dela, badirudi →*hitzak* eta *hitzen formak* berezi beharko genituzkeela. Hitzak aurkezten dituen forma desberdinei, gramatika tradizionalean, *inflexioa* zeritzen, eta morfologiaren sailean sartzen den zerbait genuke. Morfologia hori bait da: formen azterketa. Hala ere, hor dago oraindik aidean deribaziozko eta flexiozko morfemen arteko desberdintasuna. Batzuk ez dute ikusten berezketa horren balioa.

Horretaz, morfologiari dagokion zerbait litzateke hitz batek har ditzakeen forma-aldaketak aditzera ematea. Adibidez, izenaren →*deklinabidea* eta *aditzaren jokabidea* aztertuko ditu morfologiak.

Baina bada morfologiari zor zaion beste zerbait ere, alegia, hitzmotak edo →klaseak zeintzu diren esan behar digu morfologiak: *izena, adjektiboa, aditza,* →*adberbioa*... Hauek dira «gramatika-kategoriak» edo *perpausaren atalak* (partes orationis).

Berezketa hau egitea ez da askotan oso erraza izaten. Eta, bestalde, hizkuntza batetik bestera, «perpaus-atal» hauen kopurua ez da berdina izan ohi. Hemen ere «zenbat buru, hainbat aburu»; zeren ez bait da erraz gramatikariak kontu honetan ados jartzea. Euskarari gagozkiolarik, →*Azkuek* hamar kategoria ematen dizkigu: *izena, adjektiboa,* →*galdetzailea,* →*izenordea, mugatzailea,* →*adberbioa, postposizioa,* →*juntagailua,* →*interjekzioa* eta *aditza.* →*Artikulua* «→hizki»tzat ematen du, «afixu»-tzat.

Hizkuntza batetik bestera erruz aldatzen da morfologia. Euskal morfologia eta ingelesa, adibidez, bistan da zeharo desberdinak direla: euskararena askoz korapilotsuagoa bait da, →aditz-jokoan adibidez.

Dena dela, gehienetan —hau esan behar da— erdararen, eta bereziki latinaren, mende egon gara eta gaude; hizkuntza bere baitatik aztertzen saiatu beharrean.

B) SINTAXIA

Baina morfologia ez da gramatika osoa. Beste zati bat ere bada, oso garrantzitsua: *sintaxia.*

Sintaxiak ere hitz horiek berak hartzen ditu gaitzat, baina oraingoan perpaus barruan gertatzen diren konbinazioez eta elkarren arteko erlazioez arduratzen da:

— Lehenbizi, *komunztadura* eta *errekzio* gorabeherez aritzen zaigu. Euskaraz badugu komunztadura kasu bat oso berezia: aditzak perpauseko hiru izen-sintagmarekin duena *(nor, nork* eta *nori sintagmekin,* hain zuzen). Morfologiak aditzak hartzen dituen forma desberdin guztiak emango lizkiguke (aditzaren paradigmaz beterik aurkitzen dira ia euskal gramatika guztiak): baina morfologiak ez digu esango, berez, noiz forma bat erabili eta noiz bestea. Hori sintaxiari dagokioke.

— Sintaxia *hitzen ordenaz* ere aritzen da (ik. *galdegaia).*

— Era berean, hitzen ordena desberdinak hitz horiek klase desberdinetakoak direla adieraz dezake. Eta, gainera, gorabehera handiko kontua dugu hitz bat klase batekoa ala beste batekoa den jakitea. Adibidez, bi egitura hauek zeharo desberdinak dira, kasu bakoitzean hitz bakoitza klase desberdinekoa bait da:

on itxura ≠ itxura ona

On lehenbizikoan *izena* litzateke *(On itxura = onaren itxura* edo); eta bigarrenean, *adjektiboa* litzateke, argi eta garbi (beste sintagma hauekin aldera daiteke: *itxura ederra, itxura txarra, itxura eskasa...).*

Gramatika tradizionalak erizpide logikoak —edo semantikoak— erabiltzen bazituen, gaur, batez ere *distribuzionalismoa*ren eraginez, erizpide formaletara jotzen da. Dena dela, goiko adibide horietan beretan argi ikus daiteke sintaxiaren eta morfologiaren arteko muga, argiro ezin berezia. Tradizioz, muga hori hitzak ezartzen du. Adibidez, har dezagun honako perpaus hau:

langileak pozik datoz lanetik etxera

Gramatika tradizionalak *langileak, pozik, datoz, lanetik* eta *etxera* «hitzen» barne-egitura morfologiari utziko lioke; baina «hitz» horien arteko kanpoko erlazioak sintaxiaren barrutian sartuko lituzke, adibidez, *langileak* eta *datoz*-en arteko komunztadura.

Baina hitz barreneko erlazioak, elkarren segidan dauden morfemen arteko erlaziotzat hartzen baditugu, ez legoke arrazoi berezirik, berez, *lan-gi-le-ak* gisako eta *langileak-pozik-datoz-lanetik-etxera* gisako egituraketen artean berezketarik egiteko. Horregatik, hizkuntzalari askok ez du →*fonologiaren* eta *sintaxiaren* arteko maila berezi batetan kokatuko litzatekeen morfologiarik onartzen (ik. →*Glosematika).* Horrexegatik, gramatika sortzailea ere hitzetan gabe, *morfemetan* oinarritzen da.

1948. urtean morfologiaren eta sintaxiaren arteko muga berezten saiatu ziren Hizkuntzalarien Nazioarteko Batzarrean ere, eta ez zuten argi gehiegirik eskaini ahal izan.

— Eta azkenik, batez ere XVIII. mendetik aurrera, sintaxiaren zeregina da, baita ere, hitz bakoitzak perpaus barruan betetzen duen →*funtzioa* aztertzea.

II. EGITURA SINTAGMATIKOZKO GRAMATIKAK

→Chomsky-k, «egoera finituzko» gramatikaren azterketa egin ondoren, egitura sintagmatikozko gramatikaren azterketari ekin zion. Gramatika hau, egia esan, aski zaharra da, aski tradizionala, gutxigorabehera

eskoletan erabiltzen genuen *analisi sintaktiko* delako hura besterik ez bait da. Hierarkidun eraikuntzatzat hartzen du perpausa eredu horrek. Estrukturalistek landu dute bereziki, batez ere amerikar →estrukturalismoak, *Inmediate Constituents analysis* delakoaren bidez. Hau da Chomsky-ren lehenbiziko ikerlanetan aurkitzen dugun gramatika-→eredua. Perpausa, atalez osaturiko egitura dela esaten ahal dugu. Har dezagun honako perpaus hau:

(1) *Etxeko alaba Pariseko mutil batekin ezkondu da*

Esan daiteke perpaus hau zazpi hitzek osatzen dutela eta, gainera, hitz horiek ordena bat dutela. Hitz horiek lirateke —lehen begiratu batez behintzat— perpaus horren azken osagaiak, azken atalak. Jakina, morfologiaren ikuspegitik hitz horietan oraindik beste atal txikiagoak ere aurkituko genituzke: →atzizkiak, adibidez. Atzizki hauek, esan dugunez, tradizioz morfologiaren alor dira. Euskal morfologian, atzizki hauen azterketak badu tradiziorik. Baina horretan sartu gabe, beti esan daiteke perpausak egitura lineal bat dutela. Eta, horrenbestez, perpausaren azken osagai horien eraketa berezitzat har daiteke perpausa. Dena dela, kontutan hartzeko da osagai horiei ordena desberdina emanez gero, perpaus desberdinak sor daitezkeela. Adibidez:

(2) *Pariseko alaba etxeko mutil batekin ezkondu da*

Hau ere beste euskal perpaus bat dugu. Ordena-aldaketa gertagarri guztiak egingo bagenitu, perpaus desberdinak lortuko genituzke: batzu →esanahi desberdinez beste batzu esanahi berdinez; eta, baita, inolako esanahirik gabekoak ere:

(3) **da etxeko alaba batekin Pariseko mutil eskondu*

Honek ematen digu aditzera, egitura lineal horrez gain baduela perpausak beste era bateko egitura ere. Adibidez, (1) perpaus horretan azken osagaitzat jo ditugun horiek elkarrekiko lotura dute, baina ez doa hitz bakoitza beste edozeinekin.

Denok dakigu *etxeko alaba* sintagma bat dela, *Pariseko mutil batekin* bezala. Baina **alaba Pariseko* ez da ezer, adibidez.


Bestalde, *Pariseko mutil batekin* eta *ezkondu da* sintagmek ere badute elkarrekiko lotura. Mako bidez eman daiteke aditzera hau guztiau:

$$\Big[\,[\textit{etxeko alaba}] \quad \big[[\textit{Pariseko mutil batekin}] \quad [\textit{ezkondu da}]\big]\,\Big]$$


Mako hauek adierazten dutenez, perpausak bi atal nagusi ditu: *etxeko alaba* eta *Pariseko mutil batekin ezkondu da.* Bigarren honek, era berean, beste bi atal nagusi ditu:

Pariseko mutil batekin eta *ezkondu da*

Makoekin batera, hizkuntzalariak beste sistema batzuz ere baliatu izan dira egitura hori aditzera emateko (ik. Hockett-en kutxa). Baina ezagunenak Chomsky-ren zuhaitzak lirateke, *phrase marker* delakoak. Dena dela, sistema honek ez du lehengoak baino informazio gehiago ez gutxiago ematen. Baina argiago gerta daiteke:



Baina era honetako zuhaitz batek ez digu informazio gehiegirik ematen, zuhaitzeko gune bakoitzari bere izena, txartela, jartzen ez badiogu. Alderantzikera bat eginez:



III. CHOMSKY

Chomsky-k dioenez, egitura sintagmatikozko gramatika bat gramatika «→sortzaile» bihur daiteke. Tradiziotiko gramatika bera, →erregela batzu ematen dituenez, gramatika *sortzailetzat* har daitekeen bezala. Baina, gramatika sortzaile batek, →adiera hertsiago batez, erregela horiek oso formalizatuta ematea eskatzen du. Adibidez, honoko erregela-multzo honek eskaintzen digu goiko perpaus hori *sortzeko* bidea, eta, baita, perpaus horren *egitura* ere:

1) P → IS AS
2) AS → Alg A
3) IS → Izlg I mug

4) Izlg → IS erl I → {etxe, alaba, Paris...}
5) Alg →IS erl A → {ezkon, etor, joan...}
6) Aditza → A lag
7) Lag → asp d
8) asp → ±perf
9) d → ±irag

Erregela-multzo hau, nolabait *egitura sintagmatikozko gramatika* sinple bat izan liteke, →*textuinguruarekiko atxikimendurik* gabea. Erregela hauek aplikatuz lortuko genuke perpausa eta perpaus horri dagokion atal-egitura ere. Egitura honi deritzo *phrase marker.*


Chomsky-ren lehenengo formulazioan *(Syntactic Structures, 1957),* ordurarte erabili gabeko edo erabili ez bezalako erregelak sartu ziren: →*transformazio*-→*erregelak.* Erregela hauek besteak ez bezalakoak dira. Orain, ezkerreko aldean agertzen dena ez da →ikur bakarra, ikur-katea bat baizik. Transformazio-erregela hauek, aldez aurretik egitura sintagmatikozko erregela-multzo bat aplikatu izana eskatzen dute. Eta ondorio gisa, lortzen dena ez da *katea* bat aldatzea, markatzaile osoa aldatzea baizik. Adibidez, honako bi perpaus hauetan bada zer-ikusirik:

(1) *dendariak sagarrak saltzen ditu*
(2) *sagarrak saltzen dira*

Intuizioz behintzat, (2) perpausak azpian (1) perpausaren antzeko zerbait duela ikus dezakegu: norbaitek sagarrak saltzen dituela, alegia. Baina goiko perpausaren ordez, bestea lortu dugu. Horretaz, lehenbizikoaren katea, transformazio bidez, bigarrengoaren katea bihurtzen dugu:

(1) IS_1 IS_2 A Lag ⟹ IS_2 A Lag
1 2 3 4 2 3 4

Baina ez da hemen katea bat aldatzen. *Phrase marker* osoa zaigu aldatzen:




Transformazio-erregela hau zenbait baldintzaren pean gertatzen da. Hauetariko bat, hain zuzen, zera litzateke: delako katea hori *IS - IS - A -*

Lag gisa aztertu ahal izatea. Adibidez, perpaus batek IS bakarra balu, ezin izango genuke goiko transformazio hori aurrera atera.

Syntactic Structures argitaratu ondoren, Chomsky-ren gramatika bihurtzaileari aldaketa asko ezarri zitzaion. Eta aldaketa guzti hauen ondorioz, hor dugu Chomsky-ren beste liburu garrantzitsua: *Aspects of the Theory of Syntax* (1965).

Chomsky-ren gramatika honek hiru estaia dituela esan liteke, hiru eratako erregela-multzoek osatzen bait dute: *sintaktikoak, semantikoak* eta *fonologikoak:*



Erregela sintaktikoek perpausak sortzen dituzte, eta perpaus horietako bakoitzari azpiko *phrase marker* bat (perpausaren →sakoneko egitura adierazten duena); eta baita beste *phrase marker deribatu* bat ere, besteakrekin erlazionatua, ematen dio. «Phrase marker» erakarri honek azaleko egitura adierazten digu.

Sintaxiak bi parte ditu: →*oinarria* eta *transformazioak*. Oinarrizko osagaiak sortzen ditu sakoneko egiturak; eta, transformazio-osagaiaren esku geratzen da, berriz, sakoneko egitura horiek azaleko egiturara bihurtzea.

Oinarrian bi alderdi bereiz daitezke: *kategori azpiosagaia* eta *lexikoa* Kategori azpiosagaiak lehenbiziko formulazioan agertzen ziren *egitura sintagmatikozko erregelen* antzeko erregelak ditu. Hiztegiak, berriz, hizkuntza horretako «hitz» guztiak emango dizkigu, hitz edo →lexema horietako bakoitzari buruzko informazioa emanez: informazio sintaktikoa, semantikoa eta fonologikoa. Informazio hau, jakina, behar beharrezkoa dugu erregelak ongi ibili ahal daitezen.

Bada diferentziarik *Aspects*-en ematen zaizkigun kategori erregelen, eta *Syntactic Structures*-ko egitura sintagmatikozko erregelen artean:

A) Batetik, hitzak ez dira zuzenean txertatzen azpiko *phrase marker*-ean, erregela berezi baten bidez baizik, hots: *lexiko-ordezkapenezko* erregela baten bidez. Erregela honek hiztegiko «aleak» aukeratzen ditu, zenbait baldintzaren arabera. Kategori erregelek sortzen duten *phrase marker*-ean «zulogune» lexiko batzu ditugu. Zulogune hauetariko bakoitzak, zenbait ezaugarri sintaktiko du. Eta zulogune hauek, berei dagozkien hitzez betetzen dira. (Ik. *lexiko-azpikategorizazioaren erregelak).*

B) Eta hona hemen bigarren desberdintasuna. *Syntactic Structures*-eko eta *Aspects*-eko kategori erregelen artean, hots: hauek hasierako ikurra (P, alegia) erregelaren eskuineko aldean agertzea zilegitzen dutela. Adibidez, holako zerbait aurkitu ahal izango dugu:


IS → (P) I Det.

P parentesi artean doanez, aukerakoa dugu. Sistema honek, horrenbestez, lehengo sistema zaharrak sor zitzakeen perpaus guztiez gainera, beste hainbat, askoz zailagoak; askoz ugariagoak, sor ditzake. Hauetan, perpaus bat edo gehiago «txertaturik» agertzen zaigu. Perpaus txertatu hauek beste perpaus zabalago baten atalak izango dira.

Har dezagun, adibidez, honako perpaus hau:

Atea jo duen mutikoa korrika joan da

Hona hemen perpaus honen *phrase marker*-a, erregela sintagmatikoak —goikoa barne dela— aplikatu ondoren lortua:



Hau litzateke perpaus honen azpiko *phrase marker*-a. Jakina, askoz zailagoa izan beharko luke markatzaile honek; eta, gainera, abstraktua behar luke. Baina elkar ulertzeko aski dela uste dut.

Bestalde, azpiko «phrase marker» horri zenbait transformazio ezarri behar zaio: adibidez, bistan da hor →*erlatibo* baten aurrean gaudela, eta erlatiboari dagokion transformazioa aplikatu beharko dugu. Transformazio hori, funtsean, honetan datza: P_2 perpausean agertzen den IS ezabatu behar da eta, perpausari -EN atzizkia erantsi behar zaio.

Argi dagoke, beraz, gramatika honek nola txertatzen dituen perpaus batzu beste batzuren barruan, horrela perpaus elkartuak lortuz. Transformazio-erregela hauek dira sakoneko egituratik azalekoetara igarotzeko tresnak. (Ik. *transformazio bakunak eta hedatuak).*

Aspects-eko transformazio-erregelak derrigorrezkoak dira, *Syntactic Structures*-ekoak ez bezala. Eta, horrenbestez, nola jakin zein transformazio aplikatu behar den? Transformazioak →berridazketa-erregelek berek eskatzen dituzte. Adibidez, goiko berridazketa-erregela, hots: IS → (P) I Det, aukeratzen badugu -P eta guzti alegia nahitanahiez, T_{erl} aplikatu beharko dugu. Jakina T_{erl} hori aplikatzeko baldintza batzu eskatzen dira (bi ISak berdinak izatea, adibidez); baina behin baldintza horiek betetzen diren unean, T_{erl} hori derrigor aplikatu behar dugu.

Sakoneko egitura, azken batean, *morfema* abstraktuz osaturiko sekuentzia bat izango da. Eta morfema abstraktu horiek interpretazio fonetikoa (edo morfofonologikoa) hartu behar dute. Morfema bakoitzari *morfo* bakar bat dagokionean, ez dugu batere arazorik, baina bat baino gehiago badagozkio (ik. *alomorfoak)* orduan oztopoak sortzen dira. Adibidez, holako sekuentzia bat badugu, hots:

mutil - a - etxe - a - tik - etor - +perf - +irag

+perf hori morfema abstraktu bat da; baina perfektuari dagokion atzizkia kasu honetan *-I* bada ere, *-TU* ere izan zitekeen (konpara *asperTU*-rekin). Alderantziz, +irag horrek bi →marka ditu berekin: batetik *-N* bat erantsiko zaio aditz-formari; eta bestetik, →bokala itxi egingo da *(a > e: da, zen).* Hau dena formalizatzeko hainbat zailtasun izango genuke. Honetaz, badira saio interesgarriak. Batzuk, adibidez, morfemaren eta fonemaren artean beste maila bat ezartzen dute: *morfofonema.*

Dena dela, gramatika transformatzailearen ikuspegi honetatik, argi dago morfologiak ez duela leku berezirik gramatikaren barnean. Eta tradiziozko morfologia hori, nolabait osagai fonologikoari utzi behar zaio. Parte bat behintzat. Eta beste partea, sintaxiari. Dena dela, hor dago arazoa. Eta aitortu beharko da gramatika sortzaile eta transformatzaile honek sintaxiari dagokion maila eman ahal izan diola azkenean. Eta azken urteotan sintaxiak aurrerapen handiak egin baditu, gehienbat Chomsky-k zabaldutako bide honetatik egin da aurrerapen hori.

Euskaraz, egia esateko, ez gara gehiegi saiatu bide berri hauetatik. Ezagutzen ditugun morfologia eta sintaxiari buruzko azterketak (→Azkue, →Altube, Villasante...) bide tradizionaletik doaz. Hala ere, azken urteotan egin da euskarari buruzko zenbait azterketa gramatika bihurtzailearen ikuspegi honetatik Rudolf de Rijk-en eskutik, adibidez.

IV. BIDE BERRIAK

Hala ere, Chomsky-ren ondoren sortu diren «jarraitzaileek» ez diote denek otzan-otzan maisuaren bideari jarraitu. Chomsky-ren zenbait kontzeptu eztabaidan jarria izan da: sakoneko eta azaleko egitura; interpretazio semantikoa eta abar. Zenbaitentzat, →semantikak lehentasuna du sintaxiaren aurretik (McCawley...); eta semantikaren eta sintaxiaren arteko harremanak dira, bestalde, gaur hizkuntzalari asko arduratzen duen arazoa.

Dena dela, *Aspects*-en ondorengo sintaxi sortzaileen artean dauden desberdintasunak, Chomsky-ren sintaxiaren eta Chomsky-tarra ez den sintaxiaren artean dagoen diferentzia bera baino handiagoak dira dagoenekoz; eta izugarrizko literatura ari da sortzen gai hauetaz. Irakiten bezala dago.

BIBLIOGRAFIA

1)

BACH, E.: *Teoría sintáctica (Syntactic Theory)*, Anagrama, Barcelona, 1976.

BLOOMFIELD, L.: *Lenguaje (Language)*, Ed. Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Lima, 1964.

CHOMSKY, N.: *Estructuras sintácticas (Syntactic Structures)*, Siglo XXI, México, 1974.

— *Current Issues in Linguistic Theory*, Mouton, The Hague, 1965.

— *Aspectos de la Teoría de la Sintaxis (Aspects of the Theory of Sintax)*, Aguilar, Madrid, 1975.

GLEASON, Jr.: *Introducción a la Lingüística Descriptiva (An Introduction to Descriptive Linguistics)*, Gredos, Madrid, 1970.

HOCKETT, Ch. F.: *A Course in Modern Linguistics*, Macmillan, New York, 1958.

LYONS, J.: *Introducción a la Lingüística Teórica (Introduction to Theoretical Linguistics)*, Teide, Barcelona, 1971.

— «Sintaxis generativa», *Nuevos Horizontes de la Lingüística (New Horizons in Linguistics)*, Alianza, Madrid, 1975.

MARTINET, A.: *La Lingüística sincrónica (La Linguistique synchronique)*, Gredos, Madrid, 1968.

— *Elementos de Lingüística General (Eléments de Linguistique Générale)*, Gredos, Madrid, 1968.

MATHEWS, P. H.: «Evolución de la morfología en los últimos años», John Lyons, *Nuevos Horizontes de la Lingüística*, Alianza, Madrid, 1975.

MITXELENA, L.: *Zenbait hitzaldi*, Ed. Mensajero, Bilbo, 1972.

NIQUE, Ch.: *Introducción metódica a la Gramática Generativa (Introduction méthodique à la Grammaire Générative)*, Cátedra, Madrid, 1977.

RUWET, N.: *Introducción a la Gramática Generativa (Introduction à la Grammaire Générative)*, Gredos, Madrid, 1974.

SAPIR, F.: *El Lenguaje: Introducción al estudio del habla (Language: An Introduction to the Study of Speech)*, Fondo de Cultura Económica, México, 1964.

2)

ALTUBE, S.: *Erderismos,* Bermeo, 1929. 2. argitaraldia, Bilbo, 1975.
AZKUE, R. M.: *Morfología Vasca,* 2. argitaraldia, Bilbo, 1969.
AREJITA, A.: *Euskal joskera,* Leopoldo Zugaza, Durango, 1978.
GOENAGA, P.: *Gramatika bideetan,* Erein, Donostia, 1978.
LAFITTE, P.: *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire),* Baiona, 1978.
LEWY, E.: «Bosquejo de una sintaxis elemental del vasco», BRSBAP, II (1946), 367-385 orr.; III (1947), 3-28 orr.
N'DIAYE, G.: *Structure du dialecte basque de Maya,* Mouton, The Hague, Paris, 1970.
ROTAETXE, K.: *Estudio estructural del euskera de Ondárroa,* Leopoldo Zugaza, Durango, 1978.
VILLASANTE, L.: *Sintaxis de la oración compuesta,* Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1976.
— *Estudios de Sintaxis Vasca,* Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1978.
SARASOLA, I.: «Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»,* XI, 1977.

Motibazioa

motivación / motivation / motivation

1. Gizabanako nahiz talde bat hizkuntz eremuan era jakin batean jokatzera daramaten faktore kontziente edo erdi-kontzienteen multzoa adierazten du motibazio hitzak: horrela, motibazioaz hitzegin daiteke, →hiztun batek, moda baten kontra edo modatzat hartzen duenaren kontra joateagatik, «egitura» hitza sistemaz baztertzen duenean.

2. Hitz baten eta berorren →esanahiaren (→edukinaren) artean edo hitz baten eta beste →zeinu baten artean hiztunak jartzen duen nahitaezko erlazioa ere motibazioa deitzen da. F. de →Saussure-k, →onomatopeien kasuan izan ezik, zeinua motibogabea zela sostengatu zuen. E. Benveniste-k gezurtatu egin zuen Saussure-ren tesia, →adierazlearen eta →adieraziaren arteko lotura nahitaezkoa dela eta ez →hautazkoa agertuz: hautazkoa, zeinuaren eta →erreferentearen arteko lotura da.

→Eratorpenean, beti dago motibaziorik: *hamargarren hamar*-ek motibatzen du.

Mugagabea

Mugatu kontzeptuaren →antonimoa da (ikus hura ere); eta, hori bezala, ez litzateke erabili behar klase lexikal berezi bat aipatzeko (→artikulua, →izenordea); baina, bai hobeki, mintzairaren →funtzio erreferentzialari dagokion maila semantikoko →kategoria bat izendatzeko.

Artikulu mugagabeak, bere funtzio primarioan, kalkulu logikoetan existentzi eragileari dagokion →adiera izaten du. *Liburu bat erosi dut* perpausa, honela eman dezakegu parafrasi bidez: *nik erosi dudan liburu bat badago.* Artikulu mugatuaz bestalde, oraingoan, hemen ez da objektu edo pertsona konkreturik aipatzen; baina zerbait/norbaiten existentzia baiesten da soil-soilki, eta horri buruz adierazten da perpausean agertzen dena egia dela.

Zenbait hizkuntzalarik mugagabe kontzeptuaren barruan egin ohi duen desberdinketak, [± espezifiko], ez du funtsik. Ezaugarri horren bitartez azaldu nahi denak, esplikazio betegarriagoa du eragileen arteko nagusitasunezko harremanetan, hots, Jackendoff-ek, besteak beste, →erregela interpretatzaileak emanaz, azaleko egituretan bilatzen ditu.

Bestelako eragileen menpean dagoelarik (moduzkoak, esate baterako), edo →aditzen menpean, edo-ta izaera intentsionala duten beste →hitzen menpean, interpretazio espezifikoa ez den beste zerbait behar du artikulu mugagabeak. *Adarbakarrei buruzko liburu bat bilatzen ari da Juan* perpausak, ondoko bi interpretazio hauek onar ditzake:

a) Adarbakarrei buruzko liburu berezi bat bilatzen ari da J.

b) Adarbakarrei buruzko edozein liburu bilatzen ari da J.

Honi gagozkiolarik, hona hemen ondoko bi perpausen artean dagoen →adiera-desberdintasuna:

1. *Ikastetxe honetako pertsona guztiek atzerriko hizkuntza batez* hitz egiten dute (eta ez berbera, hortaz, nahitaez).

2. *Ikastetxe honetako pertsona guztiek* hitz egiten duten *hizkuntza atzerritar* bat badago (berbera, alegia).

Artikulu mugagabea eta «bat» →zenbakizkoa oso lotuta egon ohi dira; artikulu mugatua eta →erakusleak egoten ohi diren bezalatsu: euskaraz, alemanieraz, espainieraz eta beste zenbait hizkuntzatan, hitz berbera erabiltzen da. Honetxek azaltzen du, hain zuzen, alemanieraz esate baterako, artikulu mugagabeak →pluralik ez izatea. Plural hori badago, dena dela, euskaraz (batzuk), espainieraz (unos/unas), eta abar.

→Izenorde mugagabeak: zerbait, norbait, zenbait...

→Adberbio mugagabeak: noizpait, nonbait, halako batez...

J. L. Iturrioz
Itz.: *Txillardegi*

Mugarritzailea

demarcativo / démarcatif / demarcating

1. →Fonetikan, hasieran nahiz amaieran unitate esanahidun baten, →hitz zein →morfema baten, mugak ezartzen dituen elementu foniko bat da *seinale mugarritzailea.* Zenbait hizkuntzatan (txekieraz, adibidez) →azentuari dagokio →funtzio hori. →Ezaugarri →bereizle batzuk ere izan dezakete balio mugarritzailerik: grekoz, esate baterako, →hasperenketak. Balio bereizlerik gabeko ezaugarri foniko batzuk ere funtzio mugarritzailea dute batzutan: errusieraren kasuan, →bokalaren itxierak eta →bustidu-

rarik ezak hitzaren amaiera adierazten dute. Orobat, unitate esanahidunen mugan bakarrik ager daitezkeen (seinale positiboa) edo lekugune horretan agertzerik ez daukaten (seinale negatiboa) →fonema-sail bat izan daiteke seinale mugarritzailea.

2. Banaketazko →linguistikan, →hedapen baten (perpaus nahiz →izen-→sintagma baten) hasiera markatzen duten hizkuntz elementuei (→preposizio eta →menpekotasunezko →juntagailuei, bereziki) esaten zaie mugarritzaileak.

Multzoa

conjunto / ensemble / class

Hizkuntzalaritzan sarritan erabiltzen den nozio matematikoa da multzoa. Hedaduraz (elementu bakoitza banan banan izendatuaz) ala ezagupidez (elementuen propietateak agertuaz) defini daiteke.

Ik. HEDADURA

Multzozkoa

colectivo / collectif / collective

→Zenbakiaren →kategoriari dagokion →ezaugarri →bereizle bati multzozkoa deritzo. Multzozko honek bana daitezkeen elementuez osaturik dagoen talde bati egiten dio erreferentzia: sagasti-k sagarrondo talde bat adierazten du eta [+ multzozko] ezaugarria darama.

Murrizketa

restricción / contrainte / constraint

→Corpus baten gainean lan eginez, →banaketa-gramatikak *murrizketa* sekuentzialen formulazioa eman nahi izan du; esan nahi bait da, jadanik formulatua edo emana den →mezuaren parte batek geroagoko puntu batetan sorterazten dituen *murrizketen* formulazioa.

Orokorki, ezagun da hizkuntzaren lerrozkotasunagatik, katea mintzatuaren edozein puntutan maila bereko unitate bat bakarra ager daitekeela. Eman dezagun, →fonema bat agertzen den puntuan ezin daiteke beste fonemarik ager. Baina horrez gain zera ere gertatzen da, unitate baten →agerpenak ondoko unitateen agerpena baldintzatzen duela, eta halako unitate bat agertzen bada hemen, hor ezin daitekeela beste hori ager e.a. Esate baterako, euskaraz orain arteko joera, /m/ fonemaren ondoren →bokala baizik ez agertzea izan da, egun «amnistia», «gimnasia» bezalako hitzak ditugularik baldintzapenen norabidea zalantzan jarri da. Orduan, X = (a, b) eta Y = (c, d) (X eta Y fonemak edo →lexemak edo →morfemak izanik) baldin eta gramatika baten oinarrizko →erregelak badira delako hizkuntzorren murrizketa sekuentzialak zehaztu behar ditu gramatika horrek. Euskararen kasuan, X →*izena* bada eta Y →*adjektiboa* (halako salbuespen xume batzu albora utzita), gramatika horrek *XY* dela ordena-→agerpen bakarra esan beharko luke.

Mutazioa

mutación / mutation / mutation

1. →Metafoniaren →sinonimotzat erabiltzen da batzutan →bokal-mutazioa.

2. →Kontsonante-mutazioa zenbait kontsonante-aldaketari deritzo. Hauek hizkuntza baten historian katean ager daitezke, batzutan mendetan barrena jasandako bilakabidea agertzen dutelarik.

Mutazio fonologikoa fonologi →sisteman gertatzen den →aldaketa da; arrazoi desberdinei zor dakieke: →aurkakotasun berrien agerpenari, aurreko aurkakotasunen desagerpenari, aurkakotasun fonologiko baten lerraketari. Mutazio hitza aldaketa fonologikoak jauzika ematen direla erakusteko erabiltzen da.

3. Mutazio hitzak, katea batetan ez zegoen unitate bat sartzean sortarazten diren ordezkatze-edo →trukaketa-eragiketak adierazten ditu.

Mutua

mudo / muet / silent

Idatzi arren, zenbait lekugunetan behinik behin ahoskatzen ez diren →fonemak deitzen dira mutuak.

Mutuketa

enmudecimiento / amuissement / muting

→Fonema bat denboran barrena ahulduz doanean eta azken buruan bat ere ahoskatzen ez denean, prozesu honi *mutuketa* deritzo. Euskaraz, esate baterako, hori gertatu ohi zaie →bokalarteko →igurzkari →ozenei: (b, d, g)

[laguna] > [launa]

[sidan] > [sian]

Gauza bera frantsesezko /e/ →mutuari gertatu zaio:

[petí] > [ptí]

N

Nagusia

principal / principal / main

1. →*Sintagma baten osagai nagusia* esaten zaio sintagma horren muina edo guna den osagaiari (→izen-sintagman, adibidez, izena da osagai nagusia).

2. Gramatika tradizionalean, bere menpean konpletiboak, →erlatiboak nahiz zirkunstantzialak dituen perpausa, bera ezein perpausen menpeko izan gabe, perpaus (edo →proposizio) nagusia deitzen da. Gramatika →sortzailean, proposizio nagusiari →*matrize perpausa* esaten zaio eta, tradizionalean ez bezala, →txertakuntzei bide ematen dien matrize perpausa bera txertaturik egon daiteke.

Neogramatikaria

neogramático / néo-grammairien / neogrammarian

→Grimm-ek →kontsonanteen →mutazioari dagokion lege famatua ezaguterazi zuenez geroztik, halako hutsuneak edo legetik ateko →aldaketak ere gertatzen zirela onartzen zen. Brugmann, →Osthoff eta Scherer-en iritzi, itzuletara, berezkuntzarik ez dago; eta aldaketa fonetikoak beti ere lege zehatzen arabera gertatzen dira. Joera hertsi hau aldarrikatzen zutenei *neogramatikari* deritze. («Jung-grammatiker» alemanieraz). Neogramatikari hauek Leipzig-eko Unibertsitatera bildu ziren XIX. mendeko azkenaldian; eta, fonetika-lege horiez gain ere, joera bereziak hartu zituzten beste alorretan: arreta osoa lan diakronikoetan; hizkuntzatik ateko eragileei buruz, axolagabekeria handiegia; hizkuntzetan organismo bakun eta gotorrak somatzea, barne-tirabirak gutxietsiz; honen ondorioz, hizkuntzen arteko mugei, aldakaitzegi iriztea; mailegutza-arazoez kasurik ez, eta arreta genealogian eta barne-hitzetan jartzea; eta abar.

Gaur egun, neogramatikarien ekarria onuragarritzat harturik ere, →lege fonetikoen aldakaiztasuna ez da onartzen; geografiaren, kondairaren, are barne-tiraduren eragina, gauza segurua bait da.

Neologismoa

Ik. HIZPERRIA

Neutralizazioa

Izen honetaz zenbait lekugunetan gerta daitekeen →aurkakotasun fonologiko (ikus *Aurkakotasuna)* baten desagertzea adierazten da. Kasu horretan aurkakotasunaren biotako elementu baten →ezaugarri bereizleek beren balio fonologikoa galtzen dute, eta aurkakotasunaren elementu biek →erkide dituzten ezaugarriek bakarrik diraute baliodun. Neutralizazioaren lekugune horretan, bi elementuetako bat aurkakotasunaren →artxifonemaren ordezkaria (ikus *Artxifonema)* bilakatzen da. Adibidez, euskaraz →igurzkarien ostean ez dago /p/-/t/-/k/ eta /b/-/d/-/g/ →kontsonanteen arteko diferentziarik, bigarrenak lehenak bezala ebakitzen bait dira:

ez dut = [estut]
horrez gero = [hoṙeskero]
ikuspegi < ikus + begi = [ikuśpeg̱i]

Horregatik, hain zuzen ere, euskal idazle klasikoek gehienetan «eztut», «ezkara», «ezpaitzitzaizkidan», eta horrelako formak, idazten zituzten.

→Troubetzkoy-ren arabera hauek dira neutralizazio-motarik garrantzitsuenak:

1. →*textuinguruak baldintzatutako neutralizazioak.* Bi motatakoak izan daitezke, asimilatzaileak eta desasimilatzaileak. Lehenengoetan, aurkakotasun bat textuinguruan agertzen den fonema edo ezaugarri fonologiko bat, desasimilazioz neutralizatzen da; esate baterako, euskaraz ezin egon daiteke →hasperenketa bat baino gehiago hitz berean, horregatik elkarketan maiz /hasperenketa vs. ∅/ aurkakotasuna neutraltzen da:

hil + *herri* → *hilerri* (batuaz)
hil + *herri* → *ilherri* (Iparraldeko zenbait hizkeratan)

baina inoiz ere ez **hilherri.*

Bigarrenetan, h.d., asimilatzaileetan, neutralizazioa textuinguruko →fonema

edo-ta ezaugarri fonologiko baten asimilazioz gertatzen da, adibidez, euskaraz /p/ eta /b/-ren aurrean /m/ eta /n/-ren arteko aurkakotasuna galtzen da, eta /m/ da ebakitzen den fonema bakarra, →sudurkari →ezpainbikaria alegia.

2. *Egiturak baldintzaturiko neutralizazioak.* Bi mota ere sailkatzen ditu Troubetzkoy-k talde honetan: zentrifugoak eta murrizkorrak. Neutralizazio zentrifugoetan aurkakotasun fonologikoa hitz edo morfema baten mugetan neutralizatzen da, hasieran dela, edo-ta amaieran. Euskaraz, kasu batez, /r vs. r̄/ aurkakotasuna hitzaren amaieran desagertu egiten da:

ura, urra, vs. ur, ur

Bigarrenetan, hots, murrizkorretan, neutralizazioa →silaba guztietan gertatzen da, azentua daramanean izan ezik; Palaueraz, Mikronesian erabiltzen den hizkuntza indonesiar batetan adibidez, →azenturik ez daukaten →bokal guztiak [ə] bilakatzen dira:

mədəmăn: gure begiak

A. Eguzkitza

Neutroa

neutro / neutre / neuter, neutral

1. →Generoaren sailkapen hirukoitzean arrezko eta emezkoari oposatzen zaien generoa da neutroa. Bizidunak ar eta emeetan sailkatzen direnez gero, neutroa, sarritan, bizigabeak adierazteko erabiltzen da.

2. →Bokal neutroa posizio nagusien artekoa da: ez-zabala, ez-meharra; ez-aurrekoa, ez-gibelekoa.

Nominalizazioa

Ik. IZENTZAPENA

Nominatiboa

nominativo / nominatif / nominative

Deklinaziodun hizkuntzetan, perpausaren →subjektuari dagokion kasua da nominatiboa, →aditza jokatua denean. «Izenaren kasua» bezala ere definitu ohi da.

Norabide-kasua

directivo / directif / directive

Norabide-kasua, NORA adierazten duena da. Adibidez: *Etxera dator Peru.*

Norantz kasuari erantzuten dionean tendentziala izan daiteke: *Etxerantz abiatzen da Peru,* adibidez, edo amaierakoa, noraino kasuari erantzutean: *Etxeraino iritsi da Peru,* adibidez.

Iparraldean nora eta norat bereizten dituzte: *Badoa Pariserat*-ek han gelditzeko doala esan nahi du, aldiz, *Badoa Parisera*-k joan-etorria egingo duela esan nahi du.

Nukleoa

Ik. HUNA

Numerala

Ik. ZENBAKIZKOA

Numeroa

Ik. ZENBAKIA

O

Objektiboa

objetivo / objectif / objective

Izenaren osagarriari, →genitiboari, izenaren osagarri →objektiboa, genitibo objektiboa, deritzo, berari dagokion perpaus aktiboan →objektu zuzenaren →funtzioa betetzen duenean. Eman dezagun *Jainkoaren amorioa* →izen-→sintagma; honi dagokion perpaus aktiboa honako hau izan daiteke: *Jainkoa maite dugu (Jainkoa* objektu zuzena da); baldin perpausa *Jainkoak maite gaitu* izango balitz, izenaren osagarria «subjektiboa» dela esango genuke.

Objektua

objeto / objet / object

1. Gramatika tradizionalaren arabera objektu-→osagarria →subjektuak egindako →ekintza jasaten duen gauza edo izakia adierazten duen →aditzaren osagarri den →izen-→sintagma da: Hark ogia erosi du etab.

2. Gramatika →sortzaileari jarraituz objektu-osagarria edo objektua soilik, ondorengo →berridazketa-→erregelako IS-a da:

AM → IS + A

3. Barne-objektua aditz-ekintza bera adierazten duen ekintzari edo ekintza →iragangaitzaren emaitzari deritzo.

Oinarria

base / base / base

1) Gramatika →sortzailean, oinarriak hizkuntzaren →sakoneko egiturak definitzen ditu. Bi atalez dago osatua: 1) →kategori osagaia edo osagai sintagmatikoa; hau da, kategori →ikurren segida zilegiak eta, segida hauen barruan, kategori ikurren arteko erlazio gramatikalak definitzen dituen →erregela-sistema; 2) lexikoa, →morfema-zerrenda hutsa dena, morfema horietako bakoitza definitzen duten →ezaugarri fonologiko, sintaktiko eta semantikoez hornitua. Hortaz, *haur* euskaraz honela mugatuko da: izena, izen →erkidea, →generorik gabekoa, →biziduna, gizatiarra e.a.

2) Oinarria ere zerari esaten zaio, →hitz baten edo-ta unitate lexikal baten →desinentzia gabeko →erro soilari. *Ikus,* beraz, *ikusiko, ikusten, ikusi* direlako formen oinarria da.

Oklusiboa

Ik. HERSKARIA

Oldarra

ataque / attaque / attack

→Ahots-kordak bolakezko artikulazioetarako prestatzeko higidurari esaten zaio oldarra: →samurra izan daiteke (frantsesezko hasierakoetan bezala, izan ere, ahots-kordak, berehala, dardara-lekugunean jartzen bait dira), ala →gogorra alemanierazko hasierakoetan bezala. Kasu honetan, ahots-kordak airebide osoa itxiaz hasten dira, gero bapatean hertsirekitzeko.

Onargarritasuna

aceptabilidad / acceptabilité / acceptability, admissibility

→Esakune bat *onargarria* izan dadin, gramatikala ez-ezik (hots: gramatika-→erregelez sortua; ik. GRAMATIKALTASUNA), →hiztunek naturalki emititzeko eta ulertzeko modukoa izan behar du. → Ariketari dagokio *onargarritasuna;* horregatik, →textuinguruak erabakitako erregelei eta →subjektuen propietate psikologikoei ere menpekotzen zaie. *Onargarritasun-maila* desberdinak daude: halako luzera batetatik aurrera, onartezina da perpausa: onartezintasun hau, ordea, desberdina da →igorlearentzat eta →hartzailearentzat, edo perpaus idatzia ala mintzatua den kontu.

Ondorekoa

consecuente / conséquent / consequent

1. Menpeko perpaus bati *ondorekoa* esango diogu, baldin eta perpaus nagusiaren ondoren badator. «Irakurriko dut, logura ez banaiz», hemen *Logura ez banaiz* ondorekoa da, eta nagusi, noski, *irakurriko dut.*

2. →Erlatiboa nahiz →juntagailuen sailean sartzen den edozein →hitz gramatikal ere *ondorekoa* deitzen da, →proposizio nagusian →*aitzinkari* deritzon hitz gramatikal batez iragarrita dagoen erlatibozko nahiz juntagailuzko →proposizio bati hasiera ematen dionean. Horrela, *Hainbeste diru du, non nahi dituen etxe guztiak eros bait ditzake* perpausean, *hainbeste* hitza aitzinkaria da eta *non* hitza ondorekoa.

Ondoriozkoa

consecutivo / consécutif / consecutive

Beste perpaus batetan txertatua dagoen perpausari, aurrekoaren ondorioa adierazten duenean, *ondoriozkoa* deitzen zaio. Euskaraz, adibidez:

Hain alferra da, non ez bait du egun osoan kolperik jotzen.

Onomasiologia

onomasiología / onomasiologie / onomasiology

Onomasiologia izendapenen azterketa semantikoa da; →adierazi edo →kontzeptua abiapuntutzat harturik, dagozkion hizkuntz →zeinuak bilatzeari lotzen zaio. L. →Hjelmslev-i jarraituz, onomasiologia →edukinaren (kontzeptuaren) →substantziatik abiatzen dela esango dugu edukinaren →formara (kontzeptu-eremuaren zatiketari dagozkion hizkuntz zeinuetara) iristeko.

Onomasiologia semasiologiari oposatzen zaio; azken hau, zeinutik abiatzen da ideiaraino iristeko.

Onomastika

onomástica / onomastique / onomastics

Onomastika lexikologiaren adarra da, →izen →propioen jatorriaz arduratzen dena. Batzutan bi zati berezten dira onomastikaren barruan: →*antroponimia* (pertsona-izen propioei dagokiena) eta →*toponimia* (lekuizenei dagokiena).

Onomatopeia

onomatopeya / onomatopée / onomatopoeia

Hots natural bat imitatuz sorturiko lexiko-unitateari deritza onomatopeia. Adibidez, *kukurruku,* oilarrak egiten duen hotsa.

Imitazio ez-linguistikoa (pertsona batek, adibidez, astoaren arrantza imita dezake) eta onomatopeia ez dira berdinak. Onomatopeia hizkuntzaren fonologi →sistemaren barruko →erregelak errespetatuz egina bait dago. Bestalde, onomatopeiak, hizkuntza horretarako beste edozein hitzek har ditzakeen gehigarri berak har ditzake. Zenbait kasutan eratorriak ere izango dituzte; ingelesak, esate baterako, oso erraz sartzen ditu onomatopeiak eratorpenezko sailetan: splash, to splash, splasher, splashy.

Hizkuntzaren jatorria onomatopeian datzaneko *hipotesia* aski baztertua dago gaur egun. F. de →Saussure-k jadanik erakutsi zuen, aski bigarren mailakoa zela hitzak sortzeko bide hau. →Zeinuaren hautazkotasunaren teoria, hizkuntzak onomatopeian oinarrituz eratu direla dioenaren aurka dago erabat.

Oposizioa

Ik. AURKAKOTASUNA

Optatiboa

optativo / optatif / optative

Gogoa, desioa adierazten duen →aditzmodu bati deritza optatiboa. Grekoz, optatiboak bere →sistema berezia du; inguruko erdaretan, eta euskaraz ere, →subjuntibo bidez adierazten da: Berehala etxera dadin nahi dut.

Orainaldia

presente / présent / present

Berez, *orainaldia* hitz egiteko uneari berari dagokio: *erosten dut* (orain, beraz). Baina denboratik at, edo beti ere, betetzen diren egiak adieraztekotan, orainaldi horixe erabili ohi da hizkuntza askotan: *eguzkia ekialdetik agertzen da.*

Euskarazko orainaldia *sintetikoa* izan daiteke *(nator, dakarte);* edo-ta *perifrastikoa (etortzen naiz, ekartzen dute).* Gaurko hizkuntzari dagokionez, bi adizkerak daudenean, lehenengoari →aspektu →puntuala dagokio, eta bigarrenari aspektu →iraunkorra (edo errepikakorra). *Gaur nator, oraintxe nator;* baina, *goizero etortzen naiz.*

Ordezkapena

sustitución / substitution / substitution

1. Linguistika estrukturalaren arabera, →esakune batetako atal aldengarri bat esakunean balio gramatikal bera duen beste elementu batez trukatzen duen operazioari *ordezkapena deritza.* Adibidez, *astoa arin doa* perpausean, *asto*-ren lekuan *zaldi, auto, hots* etab. azal daitezke, edo-ta *-a*-ren lekuan *hau hori* etab., perpausak bere egokitasuna galdu gabe. Ardatz paradigmatikoa, honela, ordezkapen-ardatzaren parekoa da (Ik. TRUKAKETA, PARADIGMA).

2. →Glosematikaren arabera, →mutaziorik eragiten ez duen unitate-trukaketari deritza *ordezkapena:* →fonema baten →aldaera baten ordez fonema beraren beste aldaera bat erabiltzeari, adibidez.

3. Gramatika →sortzailearen arabera, egiturazko aldaketari *ordezkapena* ere esaten zaio, hots: →transformazio-→erregelen hiru atal oinarrizkoetako bat da, egiturazko deskribapenak zehazten duen →sakoneko egituran eta baldintzak agintzen dituen mugetan, zein →aldaketa egin behar den adierazten duena.

Ordinala

ordinal / ordinal / ordinal

→Zenbakizko →adjektibo ordinalek maila, ordena, adierazten dute. Euskaraz, izenaren aurrean doaz, beste zenbakizko adjektiboak bezala.

Ortoepia

ortoepía / orthoépie / orthoepy

Ortoepia, →fonema baten →ahoskuntza zuzena erabakitzen duen zientzia da.

Ortofonia

ortofonía / orthophonie / speech therapy

→Ebakera-akatsak, edo →fonemak gauzatzeko behar diren higidurazko programak burutzeko zailtasunak, aurkezten dituzten gaisoen berreziera da ortofonia.

Osagai-analisia

análisis componencial / analyse componentielle / component analysis

Hitz baten →esanahia bere funtsezko elementu bereizgarrietara laburtzen duen analisi-metodoari deitzen zaio *osagai-analisia.* Teknika diakritiko bezala, *osagai-analisia* lehenbiziko aldiz hizkuntzalaritza antropologikoan erabili zen, →ahaidetasuna duten hitzen arteko erlazioak aztertzeko tresna bezala, baina esanahiaren azterketaren alderdi askotarako baliagarri dela ere erakutsi da. Badu antzik zenbaki bateko faktoreak ateratzeko egiten dugun eragiketa matematikoarekin, zenbaki-multzo baten faktore erkidea atera dezakegun bezala, atera ditzakegu sexu-, adin-..., ezaugarriak:

gizona emakumea-ri dagokio
mutila neska-ri dagokion bezala
edo zaldia behorra-ri

eta aharia ardia-ri
arra emea-ri dagokion bezala

Osagaia, arartegabeko

constituyente inmediato / constituant inmédiat / inmediate constituent

Perpausa arartegabeko osagaitan egituratua dagoelako teoriak printzipio edo ikuspuntu inplizitu hau ezartzen du: Perpausak ez direla elementu →diskretuen sekuentzia lineal hutsak eraikuntzen elkarketaz osatuak daudela baizik, maila apalagoko osagai nahiz eraikuntzak maila garaiagokoen atal direlarik; perpausa, honela, hainbat osagai-geruzaz eratua dago. Eman dezagun *mutilak liburua dakar* perpausa: osagaien teoriaren arabera, perpausaren arartegabeko osagai garaienak, *mutilak* eta *liburua dakar* eraikuntzak dira; eraikuntzotako bakoitza bere aldetik, arartegabeko osagai biren eraikuntza da: *mutila* eta *k* osagaiena, batean, eta *sagarra* eta *dakar* osagaiena, bestean; *mutila* eraikuntza, *mutil* eta *a* arartegabeko osagaien konbinazioa da; halaber *sagarra*. Mailarik apaleneko *mutil, a, k, sagar, a, dakar* elementuak perpausaren azken osagaiak dira. Perpausaren egiturazko deskribapen hau, parentesien nahiz zuhaitz-diagramaren bidez irudika daiteke.

Hiru aldi bereiz daitezke teoria honen garapenean: →Bloomfield-en lehen azalpenen ondoren, haren jarraitzaileen (batez ere Wells eta Harris-en) formulazio zehatzagoak azaldu ziren; azkenik, →Chomsky-ren formalizazioa eta perpausak osagaien egitura egokiz sortzeko →erregelak aipa daitezke.

Osagarria

complemento / complément / complement

Perpausean →izen-→sintagmek edo izen-→esaldiek (edo hauen ordez erabil daitezkeen perpausek) beteriko →funtzioen multzoa da. Izen-sintagma horiek, berriz, →objektu →zuzenak edo →zeharkakoak izan daitezke (→aditz-sintagmen edo beste edozein perpausen osagai), edo zirkunstantzialak (era berean aditz-sintagmen edo beste edozein perpausen osagai), edo-ta perpausak eta edozein kasutan ere oinarrizko perpausaren sintagma edo esaldi osatzaileen →adieraren betetzaileak (P → IS + AS).

Osthoff-en legea

ley de Osthoff / loi d'Osthoff / Osthoff's law

H. Osthoff aleman neogramatikariak formulatutako lege honen arabera, *i* eta *u* →erdibokalen aurrean edo →sudurkari nahiz →urkari baten aurrean, hauei →kontsonante bat jarraitzen zaienean, aintzinako →bokal luzea bokal →labur bilakatzen da grekoz; *gnō̃ntos* forma, *gnōntos* forma hipotetiko batetik dator.

Oszilografoa

oscilógrafo / oscillographe / oscillograph

Oszilografoa, hitzegiterakoan sortzen ditugun hotsen osagaiak aztertzeko erabiltzen den tresna da. Diagrama batetan irudikatzen ditu →ahotsaren gorabeherak (→intentsitatea, →maiztasuna...) denboraren funtzioan. Airearen presio-aldaketak tentsio elektrikoaren aldaketa bihurtzen ditu mikrofonoak, eta imantazio-aldaketa antzean erregistratu ondoren oszilografora bidaltzen dira.

Oxitonoa

oxítono / oxyton / oxytone

Oxitonoa, azken →silaban azentuatzen den →hitza da. *Oxitono* hitza grekotik dator: *tonos* «azentua» eta *oxus* «zorrotza». Greziar gramatikarientzat goratasunezko →azentua zen, ez intentsitatezkoa.

Ozena

sonoro / sonore / voiced

→Fonema ozenak ebakitzen ditugunean, artikulazioari berari →ahots-korden bibrazioa gaineratzen zaio.

→Bokalak, esate baterako, glotiaren →irekidurak eta itxierak elkarri darraizkiolarik ebakiak ozen gertatu ohi dira eskuarki hizkuntza guztietan.

Euskaraz, era berean, /b, d, g/ hirukotea →kontsonante ozenez osatua da.

Ozenketa

sonorización / sonorisation / sonorisation

→Fonema →gor bat fonema →ozen baten ukitzeaz ozen bihurtzen denean ozenketa bat dugu. Frantsesez, adibidez, [p] fonema *capot* [kapo] hitzean fonetika mailan ozen bezala zertzen da eta *cabot* hitzeko bere kideko [b]-ri →teinkaduraz bakarrik aurkajartzen zaio.

P

Palatograma

palatograma / palatogramme / palatogram

Zenbait →soinu ahoskatzen diren bitartean mihiak eta →aho-sabaiak elkar ukitzen duten gunearen →irudikapena da palatograma. Diagrama edo argazki bidez egiten da palatograma.

Paradigma

Paradigmatzat tradizionalki →lexema edo sustrai lexiko batek hartzen zituen →desinentzia desberdinez osaturiko formen multzoa ulertzen zen, h.d., →deklinabidea →kasu-desinentziak zirenean. Gure mendeko hizkuntzalaritzan baina, →Saussure-rengandik hona hain zuzen, zera ulertzen da, elkarren artean truka daitezkeen unitateen multzoa. Horregatik haren ezaugarri nagusia birtualtasuna dela esan daiteke (ikus *Europako Estrukturalismoa).*

Sintagmatzat, berriz, katea mintzatuaren edozein elementu-→elkargo eman ohi da, hots, gehienetan →hitz bat baino gehiago duen unitate sintaktikoa; esate baterako:

gizon etsia

Hizkuntzalaritza estrukturalistan sintagmaren kontzeptua unitate sintaktiko desberdinak definitzeko erabili da, hala nola aditz-sintagma edo izen-sintagma. Haren elementuak bi motatako →morfemak izan daitezke, gramatikalak eta lexikalak, hots, bizitza libre bat ez duten lehenak eta nortasun oso bat duten bigarrenak, adibidez *kanpo, -tik* alde batetik eta *etxe* bestetik:

etxetik kanpo

Koordenatu pare batez esan genezake paradigmaren ardatza bertikala dela eta horizontala sintagmarena:

laurdenegun
herenegun
atzo
gaur Bilbora { *nindoan* / *noa trenez*
bihar
etzi
etzidamu

Ardatz bertikalean gertatzen diren harremanak paradigmatikoak dira; horizontalean gertatzen direnak, ostera, sintagmatikoak. Harreman sintagmatikoen operazioa *taxuketa* da, →esakunearen elementuen ordenatzeari dagokiolako, eta katea mintzatuan sintagma bat bera inguratzen duten beste elementuen →aurkakotasunaz definitzen duelako; harreman paradigmatikoen operazioa →*trukaketa* dugu, toki berean unitate bat ala beste ezartzen duelako, baina bat bakarrik, eta unitate bakoitza bera toki berean ordezka dezaketenen aurkakotasunaz definitzen duelako.

Azkenez harreman sintagmatikoak zein mailari dagozkion galde liteke, hizkuntzaren mailari ala →hizketarenari, perpausa, Saussure-k zioenez, hizketari dagokion bitartean, «begitan hartzea» hizkuntzari bait dagokio. Arazo hori →linguistika modernoan, hizkuntzalaritza sortzailean, →*konpetentzia*/→*performantzia* bikoteaz konpondu da (ikus *konpetentzia/performantzia),* gizarteko/pertsonako zen bikote hura (hizkuntza/hizketa) →erregelek zuzendutako sorkuntza (= konpetentziaren eremua) erregeletatik aparteko sorkuntza (performantziaren eremua) bihurtu duelako.

A. Eguzkitza

Parafrasia

paráfrasis / paraphrase / paraphrase

1. A →esakune bat B esakune baten parafrasia dela esaten da, A-k, B baino luzeago izan arren, B-ren informazio bera ematen duenean.

2. Arruntkiago, unitate edo textu baten azalpideari esaten zaio parafrasia. Eurrez erabiltzen da →linguistikan erretorikatik datorren parafrasi nozioa.

→Lexikografian (hiztegi-)sarreraren definizioa sarreraren →sinonimo diren parafrasisail batez osatua dago gehienetan, parafrasi bakoitza →adiera bati dagokiolarik.

Gramatika →sortzailea, funtsean, parafrasi-nozioan oinarritzen da; batez ere, eredu sintagmatikoa kritikatzeko baliatzen da nozio honetaz: gramatika estrukturala ez da

gauza, *etxe hau nik egin dut* eta *etxe hau nik egina da* perpausen artean dagoen parafrasi-erlazioa adierazteko.

Parataxia

parataxis / parataxe / parataxis

Bi perpaus elkarren ondoan jarri, eta ezelako loturarik gabe beren horretan uzten ditugunean, *parataxian* daudela esaten dugu.

Eman ditzagun bi perpaus hauek:

a) *Andoni etorri da.*
b) *aita hil da.*
1) →Koordinazioz hau genuke:
Andoni etorri da eta aita hil da.
2) →Menpekotasunez, berriz:
Aita hil delako etorri da Andoni.
3) Baina, *parataxi* hutsez hau genuke:
Andoni etorri da, aita hil da.
1) eta 2) *perpausetan, hipotaxia* dago.

Parea

Ik. BIKOTEA

Paroxitonoa

paroxítono / paraxyton / paroxytonic

→Azentua azkenaurreko →silaban daraman →hitzari deritzo paroxitonoa. Espainieraren hitz gehienak paroxitonoak dira: árbol, cárcel, mesa, casa etab.

Partitiboa

partitivo / partitif / partitive

Osotasun baten zatia adierazten duen →kasuari esaten zaio partitiboa. Adibidez: *Ogirik bazegoen etxe hartan.*

Patois

patois / patois / patois

Patois izenaz, edo *patois egin* esamoldeaz, gizarte-→dialekto bat ezagutzen da, ezaugarri hauek aurkezten dituena: zenbait →zeinutara murriztua dago (gertaera fonetikoak edo konbinazio-→erregelak), zona mugatu batetan erabiltzen da, nekazaritzatik bizi den komunitate batetan gehienetan. Patois direlakoak eskualde-dialekto batetatik edo hizkuntza ofizialak jasan dituen zenbait →aldaketatatik datoz; hizkuntza ofizialaren aldetik jasaten duten →kutsadura hain da bortitza, non ez bait dituzte gordetzen →textuinguru sozio-kultural jakin batetan erabiltzen diren sistema ez-oso batzu baizik.

Patronimikoa

patronímico / patronymique / patronymic

Aitaren edo aurreko baten izenetik eratorria den pertsona-→izena.

Pattern

pattern / pattern / pattern

Hizkuntzaren egitura berezia nolabait iduritzekotan erabiltzen den eskemari *pattern* deritza. Era berean, →hizketaren egiturari ere *pattern* esan dakioke.

Pausa

Ik. ETENALDIA

Perfektua

Ik. BURUTUA

Performantzia

Sin.: ARIKETA

«*Hizkuntz performantzia,* edozein hizkuntzatako →hiztunak entzun eta esaten duena da (hau da hizkuntzaren produkzioa eta pertzepzioa)». (Otero, 1974, 161. or.). Beste hitz batzutan, performantzia, hizkuntz jokabidea, hizkuntzaren benetako erabilera dela esan liteke.

→Chomsky-ren hitzetan, «performantzia, →hiztun edo entzule batek sorkuntza bat praktikan eta eragilekiro sortzeko era litzateke» (1964, 19. or.). Beti desberdin diren mintzakuntza konkretuen multzoan azaltzen den gramatika-→sistemaren agerpena.

Performantzi →eredu batetan, →subjektuak perpausak nola sortzen edo-ta atzematen dituen adierazten da. Baina subjektuaren benetako performantziak, hau da, perpausen osaketak, oroitzeak, linguistikazko ez diren faktore asko ukitzen ditu; gramatikaz aparte, anatomiazko, psikologiazko eta beste eremu askoren joerak jasan behar ditu delako performantzia edo benetazko hizkuntz jokabide batek. (Bronckart, 1976).

Horrela bada, performantzian, →konpetentzia nola gertatzen den adierazi nahi duen psikologiazko eredu batek, gauza asko hartu behar du kontutan. Hizkuntzalariek gramatika bat egiterakoan ahazten dituzten gauzak, hain zuzen: gizonaren oroimen eta arreta mugatuak, fisiologi edo psikologi prozesuen arteko interferentziak, eta abar.

Performantziak eskuratzen ditu behaketaren datuak —era guztietako «→corpus»-ak, idatziak, ahozkoak, elkarrizketa grabatuak, rezitalak, aldizkari-artikuluak,

literatur textuak, eta abar— konpetentziaren ikasketa egin ahal izateko.

Baina performantzia orokorki ez da subjektuaren konpetentziaren errainu bat baino. (Ruwet, 1968). Izan ere, lehen esan dugun bezala, «→hizketa-egintzetan», performantzian, linguistika hutsezko ez diren faktore asko ari bait da lanean.

Ruwet-ek (op. cit. 368. or.) dioen bezala, bai →Chomsky-rentzat bai bere ikasleentzat, eta baita ere de →Saussure-rentzat, perfomantziak —«la parole»— «→komunikazio-egintza» bere zabalera osoan adierazten du: edozein hiztunek esandako perpausa, eta besteak entzun eta ulertutakoa». (Godel, 1957, 146. or., Ruwet-ek aipatua).

I. Idiazabal

Erreferentziak

Ik. KONPETENTZIARI BURUZKOAK

-J. -P. BRONCKART, *Genèse et organisation des formes verbales chez l'enfant,* Dessart-Madarga, Bruxelles, 1976.

Perifrasia

Ik. ITZULINGURUA

Permutazioa

permutación / permutation / permutation

Bai →*trukaketa* deritzona, bai *permutazio* delakoa, izan, →fonema-trukeak dira.

Trukaketa bat egiten dugunean, ordea, *hizkuntzaren* alorrean egiten dugu fonema-trukea (bi hots, bi fonema ote diren jakiteko, esate baterako): *urde/urte, bedi/beti,* eta abar.

Permutazio bat egiten dugunean, berriz, →*hizketaren* mailan egiten dugu trukea katea mintzatuan: *ate/eta.* →Metatesia, beraz, permutazio-mota bat da.

→Sintaxiari dagozkion elementuen mailan egiten baldin bada, eta bigarren perpausak →adiera berbera baldin badu, *permutazio-*→*transformazioa* egin dela esaten da.

Pertsona

persona / personne / person

Elkarrizketa eta →esakune batetako partaideekiko erreferentzian oinarritzen den gramatika-→kategoria da *pertsona.* →Komunikazio orotan hiru pertsona bereiz daitezke: lehen pertsona erabiltzen du →hiztunak berbaldi-gaitzat bere burua aipatzeko; bigarrena, entzulea aipatzeko, eta hirugarrena, hiztuna eta entzulea ez beste pertsona nahiz objektuak aipatzeko.

Lehen bereizketa argi honen ondoan, beste sailkapenik ere egiten dute hizkuntzalariek. Adibidez, hainbat arrazoi dago hirugarren pertsona lehen eta bigarrenetatik bereizteko: hiztunak eta entzuleak presente egon behar dute komunikazio-egoeran, ez hala aipatzen diren beste pertsona eta objektuek; hauek, gainera, ausente ez-ezik, identifikatu gabeak ere izan daitezke; hots: «hirugarren pertsona» kategoria «definitu/indefinitu», «hurbil/urrun» bezalako beste kategoriekin konbina daiteke; lehen eta bigarren pertsonak —hirugarrena ez bezala— gizakiei dagozkie nahitaez. Ondorioz, lehen eta bigarren pertsonak pertsona-kategoriaren atal positiboak lirateke, eta hirugarrena negatiboa (Hizkuntza askotan lehen eta bigarren pertsonen →komunztadura-→marka formalen ausentzia da hirugarren pertsonaren bereizgarria). Bestalde, eta komunikazioa berez bait da egozentrikoa, hiztunaren inguruan moldatua, bereizketa primarioa lehen eta ez-lehen pertsonen artekoa dela proposatzen da, bigarren eta hirugarren artekoa sekundariotzat joz.

Pertsona eta →numero kategorien konbinazioari dagokionez, zera esan behar da: *gu* ez da *ni*-ren plurala (haurrak, *haurra*-ren plurala den era berean, alegia): *gu* izenordea «ni eta beste pertsona bat nahiz batzu» bezala interpretatzen da; eta, entzulearen aipamena besarkatzen duen ala ez kontu, erabilera inklusiboa eta exklusiboa bereizten dira (antzeko bereizketa egiten da →pluraleko bigarren pertsonan ere, erabilera inklusiboa aurreango entzuleak bakarrik aipatzen dituena delarik).

Pertsonak, komunztadura-marka formalak ezartzen dizkio →aditzari. Zenbait hizkuntzatan, euskara barne, entzulearekiko jarreraren marka formala ere jasotzen du aditzak: cfr: *joan naiz/joan nauk, naun/joan nauzu.*

Pertsonagabea

impersonal / impersonnel / impersonal

→Ekintzaren egilea ezezaguna delako edota isildu nahi delako →subjektu expliziturik ez duen →izen-→sintagma edo →esaldia →joskera pertsonagabetzat jotzen da. Honela «egia dela diote», «ez omen zegoen jenderik kalean», perpaus pertsonagabeak dira. Euskarak «omen» eta «ote» elementuen bidez azpimarkatzen du pertsonagabetasun hau. Gainera, «ote»k galdera edo galderakutsua ezartzen dio perpausari.

PIAGET, Jean

Jean Piaget, Neuchatel-en, Suitza-n, jaioa (1896). Oso gaztetatik Natur Zientzietan, hobeto esan Zoologi ikaskuntzetan, hasia. Zientzi eremu honek eskatzen duen metodologia menderatuaz, bere doktorego-tesia, Valas kantoiko muskuiluei buruz egin zuen (1918). Ondoren Filosofi gaiak kezkatu zuten batez ere; hobeto esan, epistemologiazko gai nagusi den *gizonaren ezagutzaren azalpen zientifikoa* izango da bere ikaskuntzen helburua, eta xede honen baitan egingo ditu ondorengo ikaskuntza guztiak.

Psikologiaren eremuan murgildu zenean, lehenengo Paris-en Binet eta Simonen laborategian (1918-20), eta geroago Genevan, Claparede-ren eskolan (1921), muskuiluak ikasteko erabili zuen hipotesi berbera erabiltzen du gizonaren ezagutzaren azalpenerako: nahiz zelula, nahiz adimena —bakoitza bere mailan— *subjektu-objektu arteko dialektikaren ondorio* dira. Maila guztietan, organismo biziak ez dira objektu edo inguruaren erreplika huts, baizik-eta →ekintza-→sistema. Ingurua aldatuz, berrantolatuz diharduen ekintza-sistema eta ez inguruaren eragina jasan besterik egiten ez duen «tabula rasa». Hau horrela delarik, ezagutza edo adimenaren bi kakoak (→subjektua eta →objektua) hirugarren elementu batez josirik daude: subjektuaren aktibitatea edo eragintza; eragin honek organismo eta inguru arteko harremanak zuzentzen dituelarik. Horrela bada, edozein →bizidunek organizazio edo antolamendu bat du, eta antolamendu hau, mantendu ez-ezik eboluzionatzen ari da gelditu gabe. Eboluzio hau inguruko gorputzak *asimilatuaz* eta bide batez beraietara egokituz egiten da. Asimilazio-egokiera joko hau indar batek zuzendua da: delako autorregulazio-indarrak, berez ez sortzezkoa, ez atzemana ez dena; erantzun organikoen artean mekanismorik orokorrena dela esan genezake. Bere eginkizuna, organismoari kanpotik datozkion «asaldurak» eragilekiro balantzatzea litzateke; hau noski bere garapen-mailak uzten dion neurrian.

Piaget-ek hizkuntzari buruz, bi eratako irakaspenak dakarzkigu: 1. Hizkuntza-adimen harremanen teoria bat, eta 2. Hizkuntzaren atzematea aztertzeko metodologia.

Lehenengo puntuari dagokionez, Piaget-ek hizkuntza *irudikatze-funtzio*aren alderdi edo sistema gisa jotzen du (keinu, marrazki edo beste →ikur-sistemen antzera). Beraz, adimenaren garapenaren faktore garrantzitsutzat, baina ez ezinbestezkotzat. Alegia, gizonaren adimenaren hazkuntza ez da hizkuntzaren ondorio. Gor-mutuekin egindako esperientzietan ikusi denez, haur hauek, nahiz eta hizkuntzarik ez izan (honek ez du esan nahi irudikatze-sistemarik ez dutenik), adimen-frogaketak hiztunek bezain ondo menderatu dituzte, urte batzu beranduago bada ere (Oleron, 1957; Furth, 1966). Piaget-ek dioenez, adimenaren sustraiak ez ditugu aurkituko hizkuntzan, baizik-eta lehenengo 12-18 hilabeteetan zehar osatzen diren ekintza-eskemetan. Akzio-eskema hauetan datza klase edo erlazio logiko kontzeptuen oinarria, bai eta kontzeptuen oinarria, bai eta kontzeptu fisikoak diren kausalitatea eta denborarena ere.

Hemezortzi hilabete inguruan, adimenak irudikatzeko ahalmena lortzen duenean, «orain eta hemengo» ekintzei neurtu ezinezko zabalera eta bizkortasuna ematen die. Eta hizkuntza irudikatze-sistema horren aukerarik aberatsenetakoa izanik, noski, jakintza atzematearen lanabes garrantzitsua dela aipatu beharrik ez dago. Horrez gain, hizkuntza adierazpide ere bada; baina hemendik Piaget-ek aztertu dituen gaietatik urrunduko ginateke.

Bigarren alderdiari dagokionez, Piaget-en lan-bilduma osoan ikus genezakeen *sorbidezko metodologia* da irakaspen baliotsua. Alegia, ezin uler dezakegu inolako jokabiderik, ez berorren egituran, ez funtzioan, jokabide horren eraikuntza bere hazkundean barrena ikasten ez bada. Sorbidezko ikusmirak beste hau ere adierazten digu: garapen-mailetan barrena, lehenengo mailako atzemateen berregituraketa gertatzen dela egitura berrietara heltzeko, eta honen esanahia, atzemate

berrien *batuketa soila baino zerbait gehiago* dela esan behar edozein aurrerapen edo ikaskuntza: hizkuntzazko, logikazko edo zernahi eremutako.

I. Idiazabal

Erreferentziak
CELLERIER, G., *Piaget,* PUF, 1973.
FURTH, H. C., *Thinking without Language: the Psychological Implications of Deafness.* Free Press. New York, 1966.
OLERON, P., *Recherches sur le Développement mental des Sourds-muets.* Centre National de Recherche Scientifique, Paris, 1057.
PIAGET, J., *Le langage et la Pensée chez l'enfant.* Detachaux et Niestlé, Neuchatel x Paris. 1923.
PIAGET, J., *La formation du symbole chez l'enfant.* Delachaux et Niestlé, Neuchatel et Paris, 1946.
PIAGET, J., INHELDER, B., *La psychologie de l'enfant.* PUF, Paris, 1966.
SINCLAIR, H., *Acquisition du langage et développement de la pensée* Dunod, Paris, 1967.
SINCLAIR, H., *«Developmental Psycholinguistics»:* in: *Language in Education,* CASHDAN, A. y GRUGEON E. (eds.), Open University Press, 1972, 156-161 orr.
SINCLAIR, H., «L'acquisition du langage d'un point de vue piagietien» in: *Folia phoniatrica,* 1974, 26, 1-12 orr.

Pidgin-a

pidgin / pidgin / pidgin

Ingelesaren eta Ekialde Urruneko zenbait hizkuntzaren (batez ere txineraren) arteko ukipenetik sortutako bigarren hizkuntza bati ematen zaio *pidgin* izena; hizkuntza desberdinetan mintzatzen ziren komunitateek elkar uler zezaten sortu zen. Pidgin-aren sistema osoagoa da →sabir delakoarena baino: haren hiztegia iharduera askotara hedatzen da. Zentzu hertsigoan, *pidgin-english,* edo besterik gabe *pidgin* izena gramatika-oinarria txineratik eta hiztegia ingelesetik hartuz eratutako hizkuntza bati ematen zaio.

Piktograma

pictograma / pictogramme / pictogram

→Mezu bat, →hizketa-molde zehatza kontutan hartuz adieraz badaiteke ere, koloreko marrazki bidez ere adieraz daiteke, nolabait bederen. Piktografian, beraz, hitzez hitzezko kondairarik ez dago; gudaketa bati buruzko margo batetan ez dagoen bezala. Piktogramek, hitz batez, aurridazketa-mota bat osatzen dute.

Ameriketako indioen artean aurkitu da idazkera hau; baita eskimalen, siberiarren eta boskimanoen artean ere.

Pleonasmoa

pleonasmo / pléonasme / pleonasm

→Hitz-multzo bat pleonastikoa da, erabiltzen diren →adierazpen-elementuak →edukin jakin baten adierazpenak eskatzen dituenak baino gehiago direnean: *gora igo* plenasmoa da.

Ik. ERREDUNDANTZIA

Plurala

Izenak, edo izen-→sintagmak izaki bati baino gehiagori dagokionean, →zenbaki gramatikal berezi hau hartzen du. Zenbait hizkuntzatan →singularraren eta pluralaren ondoan beste hirugarren bat ere badago: →duala, bi izakiri dagokiona, alegia.

Zenbaitetan, plurala ez da izenari soilki dagokion zerbait, izenarekin →komunztadura duten →adjektiboari eta →aditzari ere bai.

Euskaraz, plurala eta singularraren arteko →aurkakotasuna, hots, zenbaki-aurkakotasuna, mugatzailea duten sintagmetan bakarrik gertatzen da. Berez, sintagma →mugagabea baldin bada, nahiz eta zenbatzaileren bat izan bere ondoan aniztasuna adierazten duena, *(asko,* adibidez), ezin daiteke esan plurala denik. Ez da, ez plurala ez singularra, mugagabea bait da.

Pluralak, nor sintagman *-K* du ezaugarritzat: *gizon + a/gizon + a + k.* Baina beste kasuetan, batzutan *-e-* eta besteetan *-eta-* agertuko zaizkigu, baina mugatzailea eta plurala elkartuta agertzen dira beti, →amalgama moduan.

→Aditzak perpauseko hiru izen-sintagmekin →komunztadura duenez, sintagma hauei dagozkien pluralgileak eraman ohi ditu, batez ere nor sintagma pluralari dagozkionak: -it-; -zki-. Baina nork sintagmari ere badagokio: *-te,* zuek eta zuk, hark eta haiek berezteko, adibidez.

Pertsona-→izenordeetan ere —izen-sintagmak osatzen bait dituzte— singularra eta plurala bereizten dira. *Zu,* jatorriz, plurala da. Horregatik eskatzen du pluralgilea aditzean: *gu ikusi gaITu* bezala, *zu ikusi zaITu.*

P. Goenaga

Pluskuanperfektua

pluscuamperfecto / plus-que-parfait / pluperfect

Esakuneko →lehenaldi bati buruzko lehenagotasuna adierazten duten →aditz-formen multzoari *pluskuanperfektua* deritza.

Polifonia

polifonía / polyphonie / polyphony

→Letra batek bi →fonema desberdin edo gehiago irudikatzeko balio izateari esaten zaio polifonia. Horrela, espainolez, *c* letrak bi fonema irudika ditzake: *cara, cera.*

Polisemia

polisemia / polysémie / polysemy

Askotan gertatzen da hizkuntzetan hitz berberak (→*adierazle* berberak, zehazkiago hitz egitekotan) →*adiera* desberdin batzu izatea. Adiera-aniztasun horri *polisemia* deritzo. Sinonimia eta polisemia, beraz, elkarren →antonimoak dira. Esate baterako:

Esan dudana aditu al duzu?
Usaina aditu zuen.

Lehenengoan «entzun»en antzerako zerbait adierazi nahi da (edo «ulertu», agian); baina bigarrenari «somatu, usaitu» dagokio.

Zenbait aldiz, gauza frogagarria da bi formakide horien jatorri desberdina; eta *homonimia* dugula esango dugu:

frants. *le tour de France / la tour Eiffel*

Baina homonimiaren eta polisemiaren arteko mugak finkatzea, zail gertatu ohi da.

Posesiboa

Ik. EDUTEZKOA

Postonikoa

postónico / post-tonique / post-tonic

Sin.: TONIKONDOKOA

→Silaba azentudunaren atzetik doana da →fonema edo silaba postonikoa. Lekugune honek halako ezegonkortasun bat dakar; horrela, latinezko →bokal postonikoak desagertu egin dira sarritan hizkuntza erromantzeetara iragatean: lat. *óculum* → **oclum* → fr. *oeil,* it. *occhio;* esp. *ojo,* etab.

Gauza bera gertatu da Nafarroako euskalkietan: larúnta (< larunbata).

Postposizioa

posposición / postposition / postposition

1. Hitz bat beste baten ondoren jartzea, bien artean →azentu-unitate bat eratzen dutela, postposizioa deitzen da. Horrela, latinez, *cum* →preposizioa →izenordearen atzetik doa multzo honetan: *vobiscum, nobiscum,* etab.

2. Preposizioei aurkajarriz, *postposizioak* deitzen dira, eraentzen dituzten izen-→sintagmen ondoren jartzen diren gramatikazko →morfema aldaezinak (edo partikulak); esate baterako, *causa* eta *gratia* latinez *(mortis causa), landa* eta *aurka* euskaraz *(hemendik landa, etsaien aurka).*

Praga-ko eskola

Izen horretaz 1926an Vilém Mathesius-en zuzendaritzapean sortu zen «Praga-ko Zirkulu Linguistikoa» (Cercle Linguistique de Prague) ezagutzen da. Beste lagun batzuen artean Mathesius bera, Havránek, Mukarovsky, Trnka, Vahek eta Skalička aipa daitezke, eta zalantzarik gabe eskolaren oinarriak izan ziren hiru errusiarrak: Troubetzkoy printzea, Roman →Jakobson eta Kartxevski. Eskolarekin zuzenik lotuta egon gabe ere, badago bestalde zenbait zientzilari nolabaiteko harremanak zituztenak harekin, hala nola, Jones, Brun, Tesnière, Benveniste eta →Martinet hizkuntzalariak eta Bühler filosofoa.

Eskola honek, Kopenhave-koak Danimarkan bezala, Txekoslovakian dauzka sustrairik sakonenak; haatik ezin daiteke, Jakobson-ek dioenez, ezelan ere uka Pragan egindako lana txekiar eta errusiar pentsamenduaren sinbiosi bat denik, Mendebal Europako eta Ameriketako esperientzia zientifikoak ere balioztatu dituena. Azken alde honetatik halaber →Saussure-ren jarraitzailetzat begira daitezke, zeren Genevako irakaslearen eragina Praga-ko gogoeten ore eta legamia gertatu bait da, dela →sinkronia eta →diakroniaren arteko berezketan, dela hizkuntza →zeinu-sistematzat jotzerakoan, edo-ta hizkuntza eta →hizketaren arteko desberdinketan. Praga-koek pentsatzen zutena ezagutzeko, ordea, egin zuten agiria da aztertu behar dena, hots, haren «Travaux du cercle linguistique de Prague» zeritzon aldizkarian argitaratu ziren be-

deratzi tesiak (ikus *Europako Estrukturalismoa).* Azken seiak, izan ere, ez dira guretzat hain interesgarri, hizkuntzalaritza eslabistikoari buruzko hatsarre metodologiko batzu bait dira; lehen hirurak, aitzitik, eskolakideek defendatzen zuten eredu teorikoa argi eta garbi uzten dutenak, oso dira garrantzitsu. Lehendabizikoz 1929an ospatu zen hizkuntzalari eslabisten lehen biltzarrean aurkeztu ziren. Gero, lehenago esan bezala, argitaratu egin ziren, eta engoiti zirkulukoa izan nahi zuen edonork onartu beharreko oinarri erabili.

Praga-ko eskolaren lan nagusia →fonologiaren eremukoa dela esan behar da, eskolakideek egindako lanek →fonetikatik fonologiaraino doan bidea finkatu bait zuten, nahiz eta, errusiar formalismoari jarraikiz, mintzaira poetikoaren barrutian ere, morfologiarenean bezala, lan asko egin.

A. Eguzkitza

Predikatua

Logikan, →proposizio batean →subjektuaz baieztatzen nahiz ezetatzen dena da predikatua.

Aintzinatik berezi izan dira bi →funtzio nagusi perpausean subjektua (zertaz hitzegiten den adierazten duena) eta predikatua (subjektuaz zerbait esaten duena). Predikatua eta subjektua dira perpausa osatzen duten bi atalak. Horretaz, subjektua ez den beste guztia litzateke predikatua.

Predikatuaren muina, normalki, →aditza izan ohi da. Baina, aspalditik, ohizko gramatiketan bi eratako predikatuak berezi dira: a) *aditz-predikatua,* aditz batez edo aditz-→sintagma konplexu batez osatua *(dator* edo *etxera dator);* eta b) izen-predikatua, →adjektibo batez edo subjektuarekin erlazionatzen den izen-sintagma batez osatua. Kasu honetan, loturazko aditz bat behar dugu (izan edo besteren bat) subjektuaren eta izen-predikatuaren arteko lotura adierazteko.

Subjektu/predikatu erlazioa →sakoneko egiturako kontzeptua da.

Subjektu logikoa eta subjektu gramatikala berezi ohi diren bezala predikatu logikoa eta gramatikala berezi ohi dira, bestalde. Perpaus deklaratzaile guztiak, azken batean, objektu bati propietateren bat egokitzea lirateke. Horregatik, perpaus horien deskribapen semantikoak bi parte behar ditu: subjektu logiko bat eta predikatu logikoa (baieztatzen den propietatea adierazten duena).

Tesnière-rentzat, subjektu/predikatu →aurkakotasuna logikari dagokion zerbait da eta ez hainbeste, hizkuntzalaritzari. Hizkuntzalari honek gramatika-dependentzietan oinarritzen du. Stemma batean ezeren osagarri ez dena, bera beste zenbait elementuk osatzen dutelarik, predikatua izango da. Beraz, Tesnière-rentzat predikatua ez da subjektua ez beste guztia, perpausaren gailurra baizik, hots: aditza. Aditz honi lotuak agertzen dira beste elementu guztiak.

P. Goenaga

Preposizioa

preposición / préposition / preposition

Sin.: HARREMAN-HITZA

Aristotele-rengandik berezi zen →gramatika-→kategoria hau. Oro har, aldaezina izaten da preposizioa; eta edozein elementu eta beronen osagarria lotzeko erabiltzen den →morfema izaten da. Erdarazko preposizioak *(a/à; con/avec; hacia/vers;* eta abar) aurretik jarri ohi badira ere (pre-/pré-), euskarazko kideak →*atzizki* gisa agertzen dira *(-ra, -kin, -antz,* eta abar).

Pribatiboa

privativo / privatif / privative

1. Bi terminoren arteko →aurkakotasuna pribatiboa deitzen da, haietako batek →*marka* deritzan →ezaugarri →bereizlea daukanean, besteari falta zaion bitartean: horrela, →ozen *vs* →gor aurkakotasuna, →sudurkari *vs* →ahokari aurkakotasuna, →ezpainkari *vs* ez-ezpainkari aurkakotasuna. /p, t, k/ eta /b, d, g/ sailen arteko aurkakotasunak pribatiboak dira.

2. *Alfa pribatiboa* esaten zaio, konposatuetan →erradikalak ematen duen →esanahiaren eza edo ukapena adierazten duen grekozko *a-* aurrizkiari.

Proklitikoa

proclítico / proclitique / proclitic

→Azentu-unitate baten barruan, bertako azentu-gailurraren aurretik →morfema edo

→hitz bat dagoenean. Esate baterako:
gazt. *voy a tu pueblo*
Perpaus honetan, «a tu pueblo» →sintagmari azentu bakarra dagokio:
a tu pueblo [atupwéblo]
eta «a tu» sekuentzia, *proklitiko* dela esango dugu.
Eusk. *ederki ikasi bait du* [baitú] perpausean, era berean, *bait-* aurrizkia *proklitikoa da.*
Ik. ENKLITIKOA

Prolepsia
prolepsis / prolepse / prolepsis
Menpeko perpausaren elementu bat hartu, eta perpaus nagusian sartu: horra hor grezieraz *prolepsia* deitzen zuten →sintaxi-jokabidea. Hizkuntza hartan →zeharkako galde-perpausaren →subjektua, prolepsi bidez, perpaus nagusiaren osagarri zuzen bilaka daiteke.
→Etenaldi edo doinu-aldaketen bitartez, grezieraz normala zen sintaxi-bide hau, onargarri gerta daiteke beste hizkuntzetan.

Proparoxitonoa
proparoxítono / proparoxyton / proparoxytone
Hitz hau grezierari buruzko →azentu-mota bat adieraztekotan erabiltzen zen. Baina gaur beste hizkuntzetara ere hedatu da: eta azentua, atzetik hasi eta hirugarren →silaban duten hitzetan baliatzen da. Esate baterako: gazt. *catástrofe, ridículo,* hitzak, proparoxitonoak dira.

Propioa
propio / propre / proper
Aspaldidanik, bi multzotan berezi ohi dira izenak: izen →*erkideak* daude batetik *(katu, gizon, liburu),* eta izen *propioak* bestetik *(Kepa, Aralar, Bilbo).* Biketa hau, lehen filosofi bidez egiten bazen ere, gaur →banaketa-bidez aztertzen da izen propioen muga. *Katu hau, katu bat* esan daitezke; *Kepa hau, Kepa bat,* eskuarki bederen, ezin esan daitezke.

Proportziozkoa
proporcional / proportionnel / proportional
Eman ditzagun euskararen →leherkariak: /p, t, k/ eta /b, d, g/. Sei fonema hauek, ozentasunari dagokionez (— ozen; + ozen) taxutuz gero, proportzio-segida hau dugu:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{k}{g} = \frac{(\rightarrow \text{gor})}{(\rightarrow \text{ozen})}$$

Alegia, *p* eta *b* bereizten dituen →ezaugarriak «ozentasunik, ez» / ozentasunik, bai» dira. Eta gauza berbera gertatzen zaie beste bi bikoteei. Hori dela eta, *proportziotan* daudela esan dezakegu.

Proposizioa
proposición / proposition / proposition
→Aditz baten ondoan era daitekeen perpaus bakunari *proposizio* deritzo: *gizona etxera joan zen,* esate baterako. Perpaus batek, dena dela, bi proposizio izan ditzake; edo-ta *menpekoak.*
Logikaren mailan ere erabiltzen da proposizio-ideia.

Prosa
Ik. HIZLAUA

Prosodema
prosodema / prosodème / prosodeme
→Prosodi unitateari prosodema deritza, Batzutan →fonema baino txikiagoa den elementu bati datxekio (→mora, esate baterako); beste batzutan, berriz, fonema baino handiagoei (→morfema, hitza bera, perpausa). Prosodi elementuak hauek dira: *altuera* (→tonua eta →intonazioa), →*intentsitatea* (→azentua esan ohi dena) eta *luzera.* Prosodemak ez dira inoiz beren buruz gertatzen: beti ere katea mintzatuko segmentu honi edo hari dagozkio. Bestetik, prosodemen artean ez dago bat ere barnetik, eta bere fisika-ezaugarrien bidez, zedarrizta daitekeenik: nahitaez, alboko unitateen arabera funtsatzen dira denak. Intentsitateak balio →bereizlea duen hizkuntzetan, prosodema horren bitartez berezten dira hitzak. Bestetan, era berean, tonuari dagokionez, →silaben arteko altuera-mailak eta desberdintasunak dira kakoa. Eta guztiz bide beretik, silaba laburrak eta silaba luzeak, elkarrekiko dira labur edo luzeak, eta ez berez.
Zenbait hizkuntzalariren ustez bide beretik, →adiera zabalagoa du *prosodema* hitzak: fonemen mugetatik at gertatzen diren gertakari foniko guztiei «osagai luze» (long components) deitzen diete. →Bokal-harmonia delakoa, esate baterako, prosodematzat daukate. Doinuak, bide beretik, betekizun adierazkorra izan dezake: perpausa zeinnahi izanik ere, goranzko doinuak galdera-kutsua ematen dio. Prosodemak puntu berean egoki daitezke: intentsitatezko eta goratasunezko azentu-motak, esate baterako.

Prosodia
→Fonetika edo →Adierazpenaren zientziaren atal bat da Prosodia (ikus Fone-

tika-Fonologia sarrera-hitza); eta alderdi foniko segmentuaz gaindikoak edo osagai luzeak ikertzen ditu (edo «konkomitanteak» beste autore batzuren ustez).

Ikusmolde zabal batez, ondoko hau biltzen du Prosodiak:

— azentua;
— kantitatea;
— tonua;
— intonazioa.

Malmberg-en iritziz, →morfemaz gaineko unitateak ezaugarritzen dituzte prosodi elementuek: →sintagmak, perpausak, eta abar; eta haren →funtzio nagusia honetan datza: katean barrena unitateak mugatzea eta taldekatzea.

Beste autore batzuk →intonazioa eta beronen →aldaketak ikertzera biltzen dute prosodia; →azentua, →kantitatea eta →tonuak (zenbait aldiz «puntualak» deituak) maila segmental edo fonematiko delakora mugatuz.

Lehenengo aldian, fonetika bidez, eta ez bestez, aztertu zituen hizkuntzalaritza estrukturalak delako prosodi alderdi hauek. Martinet-ek idatzi duenez, horretara, →funtzio →bereizlerik ez, baina funtzio kontrastibo edo mugarritzaile soilak betetzen dituela.

→Jakobson-ek, bere aldetik, prosodi gertaeren izaera polarea azpimarratu du, haien egonaren beharraren mailatasuna; eta honek, dioenez, oso zailtzen du haien fonologi azterketa. Nolanahi ere funtzio bereizlea edo fonologikoa hartzea onartzen du. Hori dela eta, amerikar estrukturalistengandik hona, bai →fonemak, bai →prosodemak, alderdi funtzional gisa aipatzen dira.

Berrikiago, ingeles prosodi eskolak eta fonologia sortzaileak intonazioaren eta gainerako prosodi →ezaugarrien ikerketa birbalioztatu dute.

Euskararen prosodia oraindik gutxi landurik agertzen da.

J. R. Zubiaur

Itz.: *Txillardegi*

Protasia

prótasis / protase / protasis

Eman dezagun ondoko perpaus hau:

Diru aski banu, etxe hori erosiko nuke.

Lehenengo →proposizioa bakarrik ematen bazaigu, aidean edo gelditzen zaigu segida, zain jarriko garelarik. Hori dela eta, *diru aski banu* parteari *protasia* deritzo; eta ondoriotzat har daitekeen bigarren proposizioari, →*apodosia.*

Protesia

prótesis / prothèse / prothesis

Hitz mailegatuetan gertatu ohi den fenomenoa da hau. Eman ditzagun latinetikako bi →mailegu hauek:

lat. spatha eusk. ezpata
rota errota

→Etimologi bidez etorri ez diren *e* horiei, *protesi* deritze.

Psitazismoa

psitacismo / psittacisme / psittacism

→Hiztunak →hitzak esan bai, baina zer esaten ari den ez dakienean, *psitazismoa* dagoela esango dugu. Psitazismoa, beraz, mintzamena hondatzen duen eritasun berezi bat da.

Puntuala

puntual / ponctuel / punctual

→Ekintza bere garapenaren une batetan (→aoristoa), bere hasieran (→abiakaria) edo bukaeran (→burutua) hartuz adierazten duen →aspektuari esaten zaio puntuala.

Psikolinguistika

Itziar Idiazabal

I. PSIKOLINGUISTIKA ZER DEN

A) PSIKOLINGUISTIKA, DISZIPLINARTEKO JAKINTZA

Zientzia berri honen izenean, ohar gaitezen honetaz: Psikologia eta →Linguistika elkartzetik datorren disziplinarteko zientzia bat dugula hau. Disziplinartekotasun hau norbaitek sasi-zientziaz jo dezake, edo jo izan du; baina guztiz bestela dela azaldu nahi genuke. Hizkuntzaren alorra —errealitate guztia bezala noski —berez da disziplinartekoa.

Psikologia, gizonaren *jokabideen azterketa eta agerpena* egiten saiatzen den zientzia dela esan dezakegu. Hizkuntza, berriz, gizonaren *jokabide bat,* bereziena, giza-zentzu handienekoa. Linguistika, orokorki, mintzaira aztertzen saiatu da. Salbuespen batzu aparte, ez ditu, ordea, Linguistikak, →hizketaren produkzio-baldintzak kontutan hartu. Hizkuntza, mintzaira bereziak, →hitzak, perpausak gizonak sortuak, noski; baina, zein gizonek?, noiz?, nola?... Linguistikaren alorrean gai hauek bigarren mailako edo filosofikotzat hartu izan dira orain dela gutxi arte. Linguistikak, nortasun bila, noski, Filosofia, Psikologia eta beste giza-zientziak baztertu zituen (Bloomfield-en «Language» 1933, adibidez); baina helburu estuegitan barrena abiatu zela esan behar: hizkuntzaren alderdi nagusi hori aztertzeko beste jakintzarekiko harremanak beharrezko direla garbi bait dago.

B) PSIKOLINGUISTIKAREN DEFINIZIO BAT

J. P. Bronckart-ek (1967) dioen bezala, hizkuntzaren jakintzetan parte hartuaz, baina Psikologiaren atal, Psikolinguistikak gizonaren zenbait jokabideren deskribapena, azterketa eta agerpena ditu helburu. Hain zuzen hizkuntzarekin zer-ikusia duten jokabideen azterketa: hizkuntzaren ulerkuntza, oroipena, sormena eta abar. Gizonaren hiztuntasuna edo

mintzamena aztertu eta azaldu, ezaugarriak agerrerazi, eta gizonaren beste jokabideekin zer-ikusia duten alderdi guztiak argitaratu.

C) PSIKOLINGUISTIKAREN METODOLOGIA

Psikolinguistikaren metodoak psikologia zientifikoak sarrerazi eta hazi dituenak dira. Bi mota nagusi bereiz genitzake: era sinkronikoari dagozkionak eta diakroniazkoak.

Lehenengo bidetik, gizartearen azpimultzo baten jokabidea ikasi izan ohi da (pertsona larriak, agureak, gazteak, haurrak eta abar), beharbada beren artean azterketak eginez. Horrela, adibidez, haurraren Psikologia muga daiteke, ezaugarri orokorrak edo bereziak atereaz. Bide hau jarraituz, aspaldidanik jaso izan dira hizkuntz datuak, hiztegi mailen hazkundea neurtzeko, hauen erabilpen-→maiztasunak, hitz-elkarketak, eta abarren ezaguera iritsi nahirik. Ikasketa hauek beren balioa badute; gaurregungo Psikolinguistikak, ordea, beste teknika batzu erabiltzen ditu hizkuntzaren jabekuntza *nola* gertatzen den jakin nahirik. Honetarako bigarren bidea, diakronikoa, behar noski. Bere ezaugarri bereziena historiaz baliatzea delarik, jokabidearen genesia aztertzen digu. Orientazio hau epistemologi ikusmira batekin dator ados, alegia, jokabide bat ezin daiteke uler bere atzematea eta garapena aztertzen ez badira.

Horrela, bada, haur txikiekin soegintza erabiltzen da gehienbat. Honetan haur baten edo batzuen hizkuntz jokabideak erregistratzen dira erregularki, eta bertatik ziplo ematen diren perpausen erregulartasunak atera genitzake.

Sarrien erabiltzen diren esperimentu-metodoek perpausen oroitzapenak, produkzio kontrolatuak eta ulerkuntza-teknikak dira. Produkzio kontrolatuaren teknika honetan datza: haurrari zenbait irudi edo jostailuz egindako egintza irakasten zaio, ondo mugaturiko ezaugarriekin, noski; eta ikusi duena konta dezan eskatzen zaio. Honela, haurraren perpausaren forma, eta irudi edo gertakizunaren ezaugarrien arteko erlazioak aztertzen dira. Ulerkuntza-tekniketan, haurrari morfosintaxizko zenbait «zailtasun» duen perpaus bat proposatzen zaio; berak perpausak dioena ekintza-bidez egin dezan, hau da eskura ematen zaizkion jostailuez zerbait egiteko eskatzen zaio. Haurrak egin duen egintza-motak, proposatu zaion perpausaren ulerkuntza-maila emango digu.

II. PSIKOLINGUISTIKAREN HISTORIA: ATAL NAGUSIAK

A) HIZKUNTZA ETA PENTSAMENDUA

Psikolinguistika jakintza berria da; ez, ordea, bere izena adina. Orain 20 bat urte hasi ziren izen hau erabiltzen.

Psikolinguistika jakintza edo zientzia, pentsamendu-hizkuntza arteko ikasketetan oinarritzen dela esan genezake. Hau horrela delarik, Filosofia edo Epistemologiaren bide nagusiak aztertu beharko genituzke ikusmira zehatz bat emanez geroz. Labur-labur esan dezagun, greziar klasikoek (Platonek adibidez) pentsamendua eta hizkuntza gauza beratzat jotzen zituztela. «Pentsatzea hitzegitea (edo norberari hitzegitea) zela uste zuten eta hitzegitea, berriz, pentsatzea bezala. Hizkuntza pentsamenduaren gorpuztea zen; sintaxi-erlazio bat erlazio logiko baten pareko» (Sinclair, 1967).

Geroago, hizkuntza pentsamenduaren moldatzaile edo egituratzailetzat hartu izan da. →Whorf-ek (1956) dioenez, «hizkuntza bakoitzak duen hizkuntz sistemaren oinarria, ez da ideiak adierazteko balio duen berrekuntza-tresna hutsa, baizik-eta ideien forma berbera, eta gizonaren buru-lanen gidari, bere inpresioen analisirako, eta bereganatzen ari den ikasketa-bildumaren sintaxia egin ahal izateko» (Sinclair-engandik, 1967, hartua).

Hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko askatasunaren arazoa, hizkuntz konparazio eta historiazko ikerketak egiten hasi zirenean sortu zen. Pentsatzaile erromantikoen aburuz, hizkuntza bakoitza gizon-sail bereziaren arimaren adierazpena zen. XX. mendean eskola estrukturalista dela eta, hizkuntza askoren deskribapen zehatzak egin ziren. Adibidez, Ameriketan, Boas -→Bloomfield-en eskolan, hizkuntza indio gehienen azalpenak egin ziren. Azterketa zehatz hauekin, hizkuntza bakoitzak bere gramatika-egitura berezia daukala frogatu nahi zuten. Horrela, hizkuntzalariaren zeregina hizkuntza bakoitzari dagokion deskribapen-sistema asmatzea litzateke; beti zuzenki ohartu, eta fisikoki neurtu egin daitezkeen datuak bakarrik kontutan hartuz; kanpo-egituraren azterketa bakarrik zen zientziaren helburu. Bide honetan ikus genezake, beraz, pentsamendu-hizkuntza arteko burujabetzaren adierazpiderik garbiena. Halaz guztiz ere, hizkuntza —Bloomfield-en eskola batez ere— nahiz eta Psikologiatik aldendu nahirik ibili, Psikologiaren eragin handia izan dute. Hain zuzen psikologia behavioristarena.

B) CHOMSKY AURREKO PSIKOLINGUISTIKA

Bronckart-i (1976) jarraituaz esan dezagun Psikolinguistika-atal honen ezaugarri nagusia: bere azalpena hizkuntza mintzabide gisa harturik egiten saiatu da.

Bide honetan garbi ikusten dugu lehen aipatutako estrukturalisten eragina (→Saussure, →Bloomfield, eta abar). Hauengandik hizkuntzaren edo hizkuntza baten azalpen zehatzak harturik (hizkuntzaren kanpo-egiturarenak bakarrik, noski) Psikologiari bere metodologia eskatzen zaio, produkzio honen agerpen bat eman dezan. Lehen Psikologia behavioristaren eragina aipatu dugu hizkuntzalari estrukturalista batzurengan. Atal honetako psikolinguistetan, are gehiago, dakusagu ikusmira berbera. Psi-

kologia behavioristak, hizkuntza, beste edozein jokabide bezala hartzen du; eta eragingarri-erantzun bikoteaz esplikatu nahi du. Skinner-en «Verbal Behavior» (1957) dugu ahaleginik handiena, hizkuntza, teoria honen bidez, esplikatu nahian. Baina Skinner-ek, linguistika gutxi dakienez, gizarte-harremanen bilakaeraren ezaugarri orokorrak besterik ez digu ematen hizkuntzaren Psikologiari buruz. Horregatik, bide honen barruan, edo, hobeki esateko, Epistemologia honetan kokatu dugun Psikolinguistika askotan, Hizkuntzaren Psikologia deitu izan da. Bi izenburuen desberdintasuna azken batez, Epistemologia-desberdintasuna bait da.

Informazio-teoriak ere garrantzi handia du →Chomsky aurreko Psikolinguistika-eskola honetan. Izan ere, teoria honek eskema egoki bat eskaintzen du →igorle-→jasotzaileen arteko bidal-epeak azaltzeko. Halaz guztiz ere, ikuspegi teoriko honetan, →mezuaren azaleko ezaugarriak bakarrik hartzen dira aintzat. Hauek Linguistika estrukturalistaren teknikaz baliaturik aztertzen dira. Noski, teknika hauek ere perpausaren kanpo-ezaugarrietan bakarrik finkatzen dira.

Metodologia sinkronikoa erabiltzen dute hauek. Egin diren ikasketa gehienak pertsona larrien hizkuntzari buruzkoak izan dira. Jaso izan diren datuekin lortu nahi den helburu nagusia —→fonetika, lexiko edo →sintagmari buruz dela— beti, kanpo-egituraren unitatetzat hartuak noski, jabegaiari eman dioten informazio-tasaren baitan egon da.

C) CHOMSKY-REN ESKOLAKO PSIKOLINGUISTIKA

Bigarren atal nagusi honek →Chomsky-ren Linguistika transformatzaile edo sortzailea du gidari. Bronckart-en iritziz, →konpetentziaren →eredu linguistikoetan oinarritzen da.

→Hiztunaren ezaugarri nagusi bat kreatibitatea edo sormena da; estrukturalistek eta behavioristek askotan ahaztu izan dutena, hain zuzen. Chomsky eta bere psikolinguistika-eskolak, ezaugarri honen azalpena dute helburu. Hizkuntza horrela mugatzen dute: sortzeko ahalmenari esker egiten den hizkuntz jokabide kontaezinen multzoa. Ez da posible horrelako sormenik, hizkuntza, sortze-→erregelez osatutako egitura sistematiko bat ez bada. Beraz, hizkuntz jokabideen edo hizkuntzaren azaleko unitate bakoitzaren →funtzioa eta →esanahia, sortze-erregelak edo konpetentziaren deskribapenak emango digu; barne-egituraren unitateekin duen erlazioa aztertuaz.

Gramatika →sortzailea, sortze-erregelen sistematizazio bat da, hizkuntza baten gramatikazko perpaus guztiak eta hauek bakarrik, sor edo eman ditzakeena.

Chomsky-ren →eredu guztiak —berauen egileak dioenez— hiztunaren konpetentzia adierazten dute, hau da, barneko ahalmen ideala, bere hizkuntzaren perpaus guztiak esan eta ulertzeko gauza egiten duena.

Pertsona baten egiazko →performantziak, hau da, perpausen gauzatzeak, ulertzeak, oroitzeak... linguistiko ez diren faktoreak ukitzen ditu; anatomia, psikologia, eta abar.

Chomsky-ren eskolako Psikolinguistika, bere konpetentzi eredua egiaztatzen saiatu da. Horretarako nahiz sinkronikoa, nahiz diakronikoa, Psikolinguistikaren metodologiaz baliatu dira: hau da, pertsona larrien, nahiz haurren, hizketaren azterketaz.

Adibidez, D. McNeill-en ahaleginak hauek izan dira: sortze-erregela formalak sortze-ilaran ipini. Horretarako Brown eta Braine-k emandako hizkuntz →jabekuntzarako urratsak, →gramatikaltasun-mailaren hierarkiekin batuz.

Ikaskuntza hauen hipotesi nagusia hau izan da: zenbat eta desberdintasun handiagoa egon kanpo-egitura eta barne-egituraren artean, hau da, zenbat eta transformazio gehiago behar izan perpaus batek sortua izateko, orduan eta zailagoa, konplikatuagoa izango da produkzio-mekanismoa, performantziarena, beraz; orduan eta zailago izango ere perpaus horretaz oroitzea edo ulertzea eta esatea (McNeill-ez gainera, Miller, McKlean eta abar bide honetan saiatu dira).

Baina azkar konturatu ziren Psikolinguista hauek, produkzio edo performantziaren zailtasuna eta transformazioarena ez zirela elkarren pareko. Pertsona baten performantzian beste alderdi askok dihardu. Adibidez, esaten ari denari buruz zenbaterainoko jakintza duen, perpausaren egiazkotasuna, perpausaren luzera, eta abar. Alderdi hauek, transformazioaren zailtasunak hainbat edo garrantzi gehiago dute. Lehenengo etekin eskas hauen ondoren, beste bide batzutatik abiatu ziren chomskyar psikolinguistak. Alde batetik, lehenengo hipotesiari gogor eusten ziotenak; adibidez, Fedor & Garret-ek (1966) zera zioten: performantziaren kakoa, hizkuntz barne-egituraren konplexutasunean dago; bien parekotasunik eza, esperientzi egoerak sortzen dituen performantzi nahasteari zor zaio. Beste alde batetik, Yngve (1960) eta Johnson-ek (1965) performantzi mekanismoen barne-egiturari ez diote garrantzirik ematen. Hauen iritziz, produkzioa, pertzepzioa eta oroitzea, kanpoko perpausaren analisi estrukturalistarekin azal daiteke, hau da, ezkerretik eskubira perpausa ordenatuaz. Zenbat eta ezkerraldeko inbrikazio gehiago, orduan eta zailago gertatzen da perpausa oroitzeko, ulertzeko eta esateko.

D) PERFORMANTZIAREN EREDUA PSIKOLINGUISTIKAN

Psikolinguistikaren hirugarren bide hau horrela mugatzen digu Bronckart-ek: Nolabaiteko konpetentzi eredu bati eutsiaz, aldi berean performantziaren naturari eta →funtzioari buruzko hipotesiak aurreratzen dituzte; eta helburu, hizkuntz performantziaren egiazko eredu bat eskaintzea dute, nahiz pertzepzio-teorietan, nahiz adimenaren teorietan oinarrituaz.

1.—Geneva-ko Psikolinguistika-eskola

Hirugarren «bolara» honen aldaera garrantzitsu bat da Geneva-ko eskola. Psikologia eta Linguistikaren ekarria jasotzen ditu aldi berean.

Psikologiaren mailan, →Piaget-engandik bere hizkuntzaren teoria hartu du; baina baita ere —*batez ere* esan genezake— bere Epistemologi oinarriak; eta, noski, hauei dagokien metodologia.

Piaget-en teoriaren ezaugarri nagusia, →sujektu-objektu delakoen arteko dialektikaren aintzat hartzea da; eta hau bizimoduaren edozein mailari buruz: zelula, enbriogenesia, adimena, eta abar. Maila guzti hauetan, organismo bizidunak ez dira objektu edo inguruaren erantzun huts gisa azaltzen; baizik eta akzio-sistema gisa, berrorganizatzaile, ingurua aldatuz, bihurtuz, eta ez bakarrik haren eragina jasanez. Konstante honetatik ondorio hauxe ateratzen du: ezaguera edo adimenaren bi kakoak (subjektua eta objektua) hirugarren elementu batez josiak daude: subjektuaren eraginak, edo aktibitateak, organismoaren eta ingurunearekiko harremanak zuzentzen dituelarik. Edozein bizidunek organizazio bat du: iraun ez-ezik, bilakatu, eboluzionatu ere egiten du, inguruko gorputzak asimilatuaz, eta bide batez beraietara egokituz. Asimilatze-egokitze joko hau indar batek zuzendua dago, delako autorregulazio-indarrak; berez ez ondarez hartua, ez atzemana; erantzun organikoen artean mekanismorik orokorrena dela esan genezake. Edozein bizidunek kanpotik datozkion perturbazioak eragilekiro balantzatzen ditu, bere gorapen-mailak uzten dioen hein berean.

Hatsarre hau garapenaren psikologiari atxikiaz honetara heltzen gara: jokabidearen aldaketak subjektu-objektu arteko harremanen berriztapen geldi-ezinen ondorio direla, eta ez inguruneak subjektuarekiko eragin berri; beste alde batetik begiratuaz, garapenaren maila berriak ez dira aurrekoekiko guztiz desberdin baizik eta hauen birmoldaketa, aurreko mailetakoen berregituraketa kualitatezkoa.

Piaget-ek proposaturiko ikerbidea, beraz, nahitanahiez «genetikoa», sorbidezkoa, izango da: jokabide baten funtsezko psikologiazko mekanismoak ezin dira azaldu jokabideen sorbidea ikasten ez badugu, eta jokabide baten egiturazko ezaugarriek ez dute benetako esanahirik aurreko eta ondorengo mailetakoekin konparatzen ez baditugu.

Piaget-ek askotan landu du hizkuntza, eta honen jabekuntza (1945, 1964); baina beti →funtzio semiotikoaren barruan kokatuz. Semiotika hitz honekin errepresentazio-sistema guztiak adierazten ditu Piaget-ek. Urtebetez gero, haurra zenbait →sistemaren jabe da: irudiak, keinuak, jokoa eta mintzaira. Mintzaira, izan ere, gizonak duen berrekuntza-lanabes bat da: gertakizun, gauza edo jokabide bat, beste maila batetan azaltzeko gai ezin hobea. Maila honetan, hizkuntzak eta gainerako →ordezkapen bideak (keinuak, eta abar) egitura-propietate berdinak dituzte (batak

eta besteak, ordezkoak darabiltzate); eta adimenaren garapenerako, lanabes garrantzitsua da, nahiz eta guztiz beharrezko ez izan.

Geneva-ko Psikolinguistika-eskola, lehen esan dugun bezala, Piaget-ek hizkuntzaren jabekuntzari buruz jasotako datuetan, eta batez ere bere metodologia eta Epistemologian, oinarritu da. Bertan, hizkuntz jokabideen ikaskuntzarako, metodologia bat sortu eta garatu da. Geneva-ko eskolak, eskura daitezkeen linguistika-axiomatizazioak erabili ditu, nahiz eredu sortzaileak, edo-ta lan berriagoak, →hizketaren teoriak adibidez.

Hizkuntzak ordezkatzeko betekizuna betetzen duela garbi dago, baita ere beste jokabide semiotikoekin zer-ikusi handia duela ere. Baina argi gelditu behar du baita ere, hizkuntza →zeinu-sistema berezia dela, bai bere egituran, baita bere funtzioetan ere.

Honez gainera, hizkuntza, →komunikazio-sistema ere bada; eta alderdi honen garrantziaz ez mintzatzea arinkeria litzateke.

Geneva-ko eskolan bi eratako ikasketak egin dira: alde batetik hizkuntzaren jabekuntz mailen eta adimen-mailen artean dauden harremanak aztertu —hau, batez ere, subjektuaren jokatze-garapenaren aldetik begiratuaz—; eta, beste aldetik, linguistika-azterketa bereziagoak eskatzen zituzten lanak.

H. Sinclair-en lehenengo ikasketak (1967) lehendabiziko bidean daude, dudarik gabe. Lan hauek erakutsi dutena zera izan da: alegia, zenbait kontzepturen →adierazpen diren hitzak («gehiago» eta «gutxiago», adibidez) ez dituela haurrak erabiltzen kontzeptu horiek menperatu bitartean. Beraz hizkuntzaren unitate hauen atzematea, adimenaren garapenaren bidez esplika daiteke.

Beste zenbait morfosintaxi-egitura esplikatzeko ordea, ez da nahikoa izan adimen edo jokatze-garapenak eskaintzen digunarekin bakarrik. Adibidez, menpeko egiturak (→erlatiboa, konparatzailea), pronominalizazioa, edo perpaus bakunaren ordenari buruz egindako esperientzietan ikusi zen, somatzen ez ziren zenbat eta zenbat zailtasun zuten haurrek egitura horiek menperatu ahal izateko (Ferreiro et al. 1977; Sinclair, 1967; Chipman, 1974; Sinclair & Bronckart, 1972).

→Morfosintaxi-egitura hauen numeroa eta zailtasuna desberdina da hizkuntza batetik bestera, baita ere beren bitartez eskaintzen den →adieraren eraketa. Hizkuntza bateko haurrek, eta bestekoek, ez dituzte egitura horiek denbora eta ordena berberean atzematen, psikolinguistika-esperientziek adierazi dutenez.

Beraz, nahiz adimenaren garapena unibertsal gisa eta kultur ereduekiko nahiko aske azaldu, hizkuntzaren garapena →ama-hizkuntzaren ereduari atxikia dagoela dirudi.

Kakoa, Bronckart-ek dioen bezala, eredu linguistikoaren garrantzian, eta honen egitura bereziaren baitan dago alde batetik; eta, bestetik, adimenaren garapenean zein operazio den beharrezkoa hizkuntz ikasketa bakoitza egiteko jakitean.

III. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA BESTE ZENBAIT IKASGAI: ZER DAKIGUN ETA ZER JAKIN NAHI DUGUN

Jakin, ezer gutxi dakigula esan behar; nahiz eta azken urte hauetan Psikolinguistikan ikasketa asko egiten ari.

Haurtzaroko hizkuntz ikasketaren lehenengo atala, «holofrase» edo «hitz-perpausetatik» hasi eta hiru elementutako perpausetarainokoa ongi azaldua izan da europar klasikoen aldetik (Gregoire, Bühler, Cohen eta abar), edo gaurko amerikarrei esker (Bronn, Braine, eta abar). Geroago, 2;6 urtetatik aurrera gutxigora-behera, haurraren perpausetan, heuren ama-hizkuntzaren morfosintaxiazko ezaugarriak azaltzen dira.

Nahiz eta hizkuntza batetik besterako berezitasunak egon, badirudi erregulartasun batzu daudela hizkuntz jabekuntza honetan. Adibidez, psikolinguista asko konturatu da haurraren jabekuntza-mekanismo honetaz: haurrak elementu bat ongi darabilki, baina sisteman atxiki gabe oraindik; ondoren, azterketa baten fruitu, elementu hori eskura duen sistemara egokitzen du, eta, azkenik, bere sistema pertsona larrien sistemarekin egokitzen du. Adibidez, haur bati entzun zaio irregular den forma bat ongi erabiltzen (gaztelaniazko «puso», edo ingelesezko «feet»); ondoren, forma oker bat ematen du, baina sistema batetan atxikia, dudarik gabe («ponió», «foots»); eta azkenik, berriro forma zuzena, eta orain bai sistemaren salbuespen gisa. Gutxi gorabehera haur batek 5 urte inguruan bere hizkuntza menderatzen duela uste izaten da. Haur gehienek bere hizkuntzaren morfosintaxizko egiturak badarabiltzate. Haurrak komunikatzeko darabilen sistema, hizkuntzaren ezaugarri guztiz osatua da itxuraz (kanpo-egiturarena). Ziplo azaltzen den produkzio honek ez du esan nahi, ordea —ezta gutxiagorik ere— haurrak bere hizkuntza menderatua daukanik. Psikolinguistika-esperientziak ari dira piskaka-piskaka hau erakusten. Adibidez →aditzaren →denborek, nahiz eta 2 edo 3 urteetarako erabili, ez dute denbora-esanahia adierazten 6 eta 8 urte ingurura arte. Kasu honetan, haur txikientzat, denbora aldiak →modu-edo →aspektu-esanahia gehiago dute, pertsona larriak ematen dietena baino (Ferreiro, 1971, Bronckart 1976).

Horrelako eredu asko azal genezake; baina gehiago oraindik aztertu gabeko alorrak, eta kontutan izan, gainera, hizkuntzaz-hizkuntzako azterketak beharrezkoak direla.

Gaur egun egiten ari diren lanek hau guztia azaldu beharko lukete: zenbait hizkuntzaren sintaxi-egituren jabekuntz atalen ikusmira bat, ahalik eta zehatzena. Haurrak, hizkuntzaren →jabekuntz bidean egiten dituen huts, saiaketa, eta erabiltzen dituen estrategien azterketak alde batetik; eta, bestetik, azterketa konparatzaileen bidez, hizkuntz jabekuntzaren zenbait estrategi unibertsal atera beharko lirateke, baita jakin ere zein eta nolakoa den hizkuntza baten sintaxi-egituraren jabekuntzak eskatzen

duen zailtasuna. Honez gainera, nabarmen jarri beharko lukete egitura hauen pareko diren barne-esanahiak zein mailatan atzematen diren, eta egiturak berak ere nola menderatzen diren. Subjektuari buruzko estrategi unibertsal hauek, berez, ezaguera edo adimenaren estrategiak izango lirateke. Hona, beraz, hasieran ukitu dugun pentsamendu-hizkuntza arteko erlazioen beste azterketa bide bat; oraingo honetan Psikolinguistikatik sortua.

Eta honeraino gaur eguneko Psikolinguistikaren nahi eta arazoak, Geneva-ko Psikolinguistikaren ikusmiratik begiratuak.

BIBLIOGRAFIA

BENVENISTE, E.: *Problèmes de linguistique générale,* I et II, Paris, Gallimard, 1966 eta 1974.
BLOOMFIELD, L.: *Language,* New York, Holt, 1933.
BRAINE, M. D. S.: «The ontogeny of English phrase structure», *Language,* 39, 1-13, 1963.
BRONCKART, J. P. (Ed.): *Recherches psycholinguistiques et Pédagogie de la langue maternelle,* Genève, F.P.S.E. & Centre Pédagogique, 1976.
— ; SINCLAIR, H.; PAPANDROPOULOU, I.: «Sémantique et réalité psycholinguistique», in *Mémoire sémantique,* N.º spécial du Bulletin de Psychologie, 225-231, 1976.
— *Genèse et organisation des formes verbales chez l'enfant,* Bruxelles, Dessart et Madarga, 1976.
BROWN, R.: *A First Language,* London, G. Allen & Unwin Lt., 1973.
CHOMSKY, N.: *Syntactic Structures,* La Haye, Mouton, 1957.
— *Aspects of the Theory of Syntax,* Cambridge, M.I.T. press, 1965.
FERREIRO, E.: *Les relations temporelles dans le langage de l'enfant,* Paris, Droz, 1971.
— ; OTHENIN-GIRARD, C.; CHIPMAN, H.; SINCLAIR, H.: How children describe relative clauses, *Archives de Psychologie,* Vol. XIV, N.º 3, 229-266, 1976. Genève.
FODOR, J. A. eta GARRET, M.: Some reflections on competence and performance, in J. Lyons & R. Wales, *Psycholinguistics Papers,* Edinburgh, E.U.P., 1966.
GREGOIRE, A.: *L'apprentissage du langage,* I & II, Liège, Bibliothèque de la Faculté de Philosophie et Lettres, 1937 & 1947.
JOHNSON, N. P.: The Psychological Reality of Phrase-Structure Rules, *J. Verb. Learn. Verb. Behav.,* 1965, 4, 469-475.
LYONS, J.: *Linguistique générale,* Paris, Larousse, 1970.
— *Chomsky,* Barcelona, Grijalbo, 1974.
MCNEILL, D.: *The Acquisition of Language,* New-York, Harper & Row, 1970.
MILLER, G.: Some Psychological Studies of Grammar. *American Psychologist,* 17, 748-762, 1962.
PIAGET, J.: *Le langage et la pensée chez l'enfant,* Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 1936.
— *La formation du symbole chez l'enfant,* Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 1945.
— *Seis estudios de Psicología,* Seix y Barral, Barcelona, 1967.
— *Biologie et Connaissance,* Paris, N. R. F., 1967.
RICHELLE, M.: *L'acquisition du langage,* Bruxelles, Dessart, 1971.
RUWET, N.: *Introduction à la grammaire générative,* Paris, Plon, 1967.
SAPIR, E.: *Le langage,* Paris, Payot, 1953.
SAUSSURE, F.: *Cours de linguistique générale,* Paris, Payot, 1916.
SINCLAIR, H.: *Acquisition du langage et développement de la pensée,* Paris, Dunod, 1967.
— eta BRONCKART, J. P.: S.V.O. A Linguistic Universal: A Study in Developmental Psycholinguistics, *J. Child Experm. Psychol.,* 14, 329-348, 1972.
— et al.: Recherches en Psycholinguistique génétique. *Archives de Psychologie,* Vol. XLIV, N.º 171, 157-175, 1976.
SKINNER, B. F.: *Verbal Behavior,* New York, Appleton Century Crofts, 1957.
VIGOTSKY, L. S.: *Pensamiento y Lenguaje,* Buenos Aires, La Pleyade, 1973.
YNGVE, V.: A Model and an Hypothesis for Language Structure, *Proceedings of the American Philosophical Society,* 1960, 104, 444-466.

R

Rhema
rema / rhème / rheme

Perpaus batetan, →aditzaren →subjektuaz argitzen edo esaten dena. *Ama etorri zen* perpausean, esate baterako, *etorri zen* da *rhema;* eta *ama,* perpausaren *thema.* →Indoeuropar hizkuntzetan, beraz, →*predikatuaren* kidea da.

S

Sabaikaria
palatal / palatal / palatal

→Fonema baten artikulazio nagusia →aho-sabai gogorrean kokatzen denean, fonema horri sabaikaria esaten zaio. Horrela, [n̪] eta [l̪] →kontsonanteak (andereño, *ll*abur), [i, e̯] →bokalak, etab.

Fonema sabaikaria →trinkoa eta →zorrotza da →akustikari dagokionez, ahoko durundi-barrunbea oso zatibanatua dago eta garrantzitsuagoa da estugunerik meharrenaren aurretik atzetik baino.

Sabaiaurrekoa
prepalatal / prépalatale / prepalatal

Mihi-puntaz edo mingainaz →aho-sabai gogorraren aurrekaldean artikulatzen diren →kontsonanteak dira sabaiaurrekoak. Frantsesezko [ʃ] eta [ʒ] kontsonanteak sabaiaurrekoak dira. →Fonologiaren aldetik →horzkarien artean sailkatzen dira sabaiaurrekoak, haien →ezaugarri akustiko berak dituztenez: →zorrotzak eta →trinkoak dira.

Sabirra
sabir / sabir / sabir

Sabirrak, zenbait elkarketa-→erregelatara eta →eremu lexiko jakin baten hiztegira laburturiko hizkuntz →sistemak dira: hizkuntza konposatuak dira, eta elkar ulertzeko, merkatal eragiketetan bereziki, beste biderik ez duten bi komunitate linguistiko desberdinen, edo gehiagoren, arteko ukipenetik sortzen dira. Sabirrak hizkuntza laguntzaileak dira; hauen egitura gramatikala gaizki ezaugarritua dago eta lexiko urria dute, sorterazi dituzten beharrizanetara mugatua. Ez dira nahasi behar sabirrak →pidgin direlakoekin: hauek, bigarren mailakoak izan arren, sistema osoak bait dira; ez eta →kreolerekin ere: hauek, →sabir edo pidgin bezala jaio baziren ere, komunitate kultural batzuen ama-hizkuntza bilakatu bait dira.

Sabir izena →*lingua franca* adierazteko erabili zen hasieran; gero mota bereko sistema guztietara hedatu zen.

Sakoneko egitura
Ik. EGITURA, SAKONEKO

Salbuespena
excepción / exception / exception

Alor zedarritu batzuetan orokorragoa den A →erregela hautsi eta mugatuagoa den B erregela jarraitzen duten gertaera linguistikoak salbuespenak deitzen dira.

Samurra
dulce / doux / soft

→Kontsonante *samurra,* kontsonante *azkar* koerlatiboa baino indar txikiagoz artikulatzen da, ahoskuntz aparatua atsedenegoeratik gutxi higituz. →Fonema samurrak, eskuarki, →ozenak izan ohi dira; *azkarrak,* berriz, →gorrak. Bestalde, *samur* →vs *azkar* →aurkakotasuna *nasai* vs *teinko* aurkakotasunaren parekoa da.

→Akustikaz, →ezaugarriok ditu kontsonante samurrak: →formanteak ez dira oso zehatz agertzen espektrograman, eta energi kopurua eta honen denbora zeharko hedapena txikitu egiten dira.

Sandhi
sandhi / sandhi / sandhi

Sandhi terminoa, Indiako aintzinako gramatikariengandik jasotako terminoa da; literalki «batera jarri, batu» esan nahi du. Termino honek, zenbait →hitz, →morfema edo →sintagmaren hasierak eta/edo amaierak jasaten dituen modulazio eta →aldaketa fonetikozko ezaugarriak adierazten ditu. Lekugune isolatuan ahoskatzen den forma, forma absolutua da; barne-lekugunean agertzen direnak, sandhi formak dira. Frantsesez, lotura *(liaison)* sandhi-fenomenoa da. Euskaraz, *baita* («bait da»), *bapatean* («bat batean»), *Haizkorri* («Haitz gorri»), etab. sandhi-fenomenoak dira.

SAPIR, Edward

Hizkuntzalari bezain antropologilari izan zen Edward Sapir, Estatu Batuetan

eman bazuen ere bere bizitzaren luzea, Alemanian jaio zen, Lauenburg-en, 1884-ean, baina bost urte beterik Ameriketara alde egin zuen. Bertan, New York-en egin zituen ikasketak, eta Columbia-ko Unibertsitatean filologia germanikoa amaitu. Gero, Franz Boas antropologilari ospetsuak eraginda, zenbait indiarren tributako bizimodua aztertzen ibili zen (1904-1906). 1906an gramatika takelma bat argitaratu zuen (Oregon-go hizkuntza bat). Horrez gain, wishram indiarren hizkuntza eta bizimoldea ere ikertu zuen, eta halaber pajutera (Pensilvania-n), nootka, atabaskera eta tlingit-a, azken hirurak 1910 eta 1925 bitartean, Ottawa-ko «Canadian National Museum»go zuzendaria izanez. Azkenez, Chicago eta Yaleko unibertsitateetan irakatsita, 1939an hil zen, 55 urte besterik ez zuela.

Kultura unibertsaleko gizona (musikari eta olerkaria), indiar hizkuntzen ikerketak salbuespen eginda, hizkuntzalaritzaren eremuan obra luze bat utzi digu bakarrik: *Language* (Mintzaira), 1912an argitara emana. Hala ere, artikulu-mordoa idatzi zuen. 1949an D. Mandelbaumek argitaratu zuen «Selected writtings of Edward Sapir in language, culture and personality» bildumak (45 agertu ziren) 288 idazlan aipatzen ditu. *Language*, gizaldi honen lehen erdiko hizkuntzalaritzaren oinarrizko lana dugu, eta agian «Soudpattern in language» eta «The psychological reality of phonemes» dira, inportantzia bereko, idatzi zituen artikulu bakarrak. Hiru dira hizkuntzalaritza orokorrean berak ezarririko iltzeak. Lehenengoz 1925ean oraindik «soud-patterns» deitu zituen →fonemak, bere kontura Europako hizkuntzalaritzatik aparte, aurkitu zituenak; bigarrenez hizkuntzaren formari eman zion garrantzia, eta hirugarrenez, genealogikoki ezin sailka zitezkeen Ameriketako hizkuntzak ikusmiran edukirik proposatu zuen tipologi eredua.

Lehengo puntua dela eta, *Language*-n errealitate fonetikoaz gain sistema ideal txikiago baten existentzia defendatzen du eta ematen duen mugaketa oso zehatza ez bada ere (*muga psikologikoez* mintzo da bera) ezin daiteke esan psikologista denik; Mounin-ek esanaren arabera, haren punturik makalena morfologia eta →fonologiaren artean egiten zuen nahasketan datza. Bigarrenari dagokionez, ostera, →funtzioa eta forma ederkiro desberdindu zituen, eta funtzioa forma baino lehenago agertzen dela baieztatu ere: hala eta guztiz, formaren ikertzearen beharra defendatu zuen eta orobat formak osatzen duen sistema aztertzearen beharra. Azkenean, hain konplexu den haren eredu tipologikoa aipatu behar da. Hiru →aldaera ditu kontutan hartzen: adierazitako →kontzeptuak, →adierazpenbideak eta sintesi-maila. Apur bat aldaturik, hain zuzen, oraindik Greenbergek erabilia. Baina badago beste puntu bat, →Whorf-ek, haren ikasle izandakoak aitzineratua, Sapir-i sona handia eman diona, h.d., →hiztuna hizkuntzaren egiturak determinatua dagoelako hipotesia.

A. Eguzkitza

SAROÏHANDY, Jean

Saint-Maurice-sur-Mosellen jaio zen 1867an; aita euskalduna zuen.

1913rarte ez zuela euskararik ezagutu esan daiteke; garai honetan hasiko da arduratzen eta Euskal Herrira etorriko da eta denboraldi batzuk igaroko ditu.

RIEV-eko lankide bezala hainbat artikulu argitaratu zituen, bere iker-eremurik landuena euskal aditzarena izan zelarik. Aditzari dagokionez atzerriko zenbait hizkuntzalarik defendatu duena onartzen zuen: aditzaren pasibotasuna.

RIEV-en parte hartzeaz gainera beste aldizkari batzutan ere idatzi zituen artikuluak, hala nola *Bulletin de la Société de Linguistique*-n, *Bulletin Hispanique*-n etab.

→Urkixok esango digu berandu samar heldu zela euskal estudioetara eta denbora gutxiegi izan zuelarik euskara eta euskarari buruz idatzitakoa arakatzeko berak emaniko hipotesiak ez direla beti fidagarriak, nahiz eta bere izpiritu zientifikoak huts hauek aitortzeko eragozpenik ez izan.

Erromanista eta euskalari hau 1932an Parisen hil zen.

Satem

satem / satem / satem

→Indoeuropar hizkuntzak larri-larrian sailkatu nahi izatean, «satem» taldekoak jarri ohi dira batean, eta «centum» taldekoak, berriz, bestean.

Ekialdeko hizkuntzetan, hain zuzen, /k/ →fonema asibilaturik agertzen da. Satem hizkuntzak dira indo-iraniar deitzen den multzokoak, eslaviera, armeniera, eta abar.

SAUSSURE, Ferdinand de

1857an Genevan jaioa, hogeita bat urte besterik ez zituela eta Leipzig-en ikasle, linguistika indogermanikoan, h.d., linguistika historikoan, hain funtsezko gertatuko zen «Mémoire sur le système primitif des voyelles indo-européennes» (Paris 1878) idatzi zuen; ikasketez, eta oraindik luze egingo zuen lanaz, neogramatikaria bait zen. Haatik, lan nagusi hori argitaratu eta gero, albo batera utzi zuen ia guztiz hizkuntzalaritza historikoa, esaten omen zuenez, lehendabizikoz hizkuntzaren zientzia bera zer zen, zientzia den aldetik, zeintzu haren helburu eta jomugak, eta zeintzu haren metodoak eta bideak argitu behar zirelako. Horrela, bada, arazo horrekin kezkaturik, eta Parisen lehenengoz eta geroago Genevan irakatsi zuelarik, azken hiri honetan teoria linguistikoari buruzko eskola batzu zuzendu zituen 1906tik 1911rarte (1906-1907, 1908-1909, 1910-1911). Baina oso gazte hil zenez gero, (1913an gertatu zen haren heriotza), bere lagunei aginduta zeukan liburua argitaratu gabe utzi zuen. Halaz ere, eskola haietan entzuleek hartutako zirrimarrez, Charles Bally-k eta Albert Sechechaye-k, haren ikasle izandakoek, bera hil eta hiru urte geroago, haren «Hizkuntzalaritza orokorraren kurtsu» famatua eman zuten argitara.

Zalantzarik gabe, De Saussure-k bertan eginiko proposamenek aurreko filosofo eta hizkuntzalariengan dauzkate beren erroak, hala nola Georg von der Gabelentz, Peirce, Whitney eta beste; horregatik, bere obraren bidez halako bira kopernikar bat eman ziola zientzia linguistikoari baieztatzeak ez du inolako oztoporik jartzen, haren ideiek, ezerezetik sortuak izan gabe ere, benetako itxuraldaketa bat lortu bait zuten hizkuntzalaritzaren barrutian.

Aipaturiko «kurtsu»ko lehen kapituluan →linguistikaren kondairaz dihardu, eta berak esaten duenaren arabera, hiru aldi nagusi igaro dira zientzia honek bere burua nolabait ezagutu duen arte; gramatikaren garaiak, ia Mendebaldeko historia guztia betetzen duenak, grekoengandik XVIII. menderarte bait dirau; filologia gero, Alexandrian jadanik aldez edo moldez sortua izanda ere, 1888an bakarrik hartuko zuena bere benetako nortasuna August Wolf-en eskutik; eta, azkenez, linguistika konparatzailearen denbora, hizkuntzak erka eta aldera zitezkeela aurkitu zenean, hasiera ukan zuen aldia. Hor dauzka bere sustraiak, beraz, hor funtsatzen du bere ahalegina, hots, eskola horren gainditzean, haren ustez «alor berri eta fruitukor bat irekitzearen merezimendu izugarria duen eskola honek ez bait du lortu benetako zientzia linguistikoari hasiera ematea» («cette école, qui a eu le mérite incontestable d'ouvrir un champ nouveau et fécond, n'est pas parvenue à constituer la véritable science linguistique», Cours...[2], Paris, 1922). Eta lehenengo eta behin zientziaren objektua aurkitu ez duelako.

A. Eguzkitza

Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

SCHUCHARD, Hugo

H. Schuchard Gotha-n sortu zen 1842an. 1864ean doktoradutza lortu zuen «De sermonis Romanis plebei vocalibus» tesiarekin; tesi hau zabaldu eta «Der Vokalismus des Vulgärlateins» izenburuarekin argitaratu zuen urte batzuk beranduago.

Erromanista iaioa hasiera hasieratik, laster Erromaniako mugak gaindituaz erromanikoak albanieran izan duen eragina ikertzen hasiko da, ondoren zeltikoan izan duena; hungariera, italo-eslabo eta beste hizkuntza askoren ikertzailea izan zen.

Euskarari dagokionez esan behar da liburutan ikasi ondoren 1887ko udan

Sarara etorri zela eta euskara ere bere ikerlanen barrutian sartu zuela.

Euskal aditzari «Baskische Studien I Ueber die Entstehung der Bezungsformen des baskischen Zeitworts» eskaini zion, gero beste sei artikulurekin osatu eta garatu zuen azter-lan hau.

Honen ondoan eta beste zenbait lanen artean aipagarria da Linschmann-ekin batera egin zuen Leizarragaren «Testamentu Berriaren» berrargitalpena. Berrargitalpen honi Schuchard-ek berak sarrera bat egin zion.

Euskararen jatorriaz arduraturik Kaukasoko hizkuntzak, semitikoa, berberera eta beste hainbat hizkuntza ikertu zituen.

Ohorezko euskaltzain, beste hogeitabost Akademitako akademikide edo laguntzaile, lau unibertsitateko ohorezko doktore, RIEV-eko lankide hau, 1927an hil zen larogeitasei urte zituela.

Segmentua

segmento / segment / segment

Sin.: LAKAINA

Katea mintzatua puskatan zatitu, eta agertzen diren elementuei *segmentuak* deritze. Eragiketa horretarako, ingurune foniko *desberdinen artean* agertzen diren *elementu aldakaitzak* jartzen dira batean; eta, alderantziz, ingurune *berberetan* agertzen diren elementu *desberdinak*. Adibidez: *etxea handia da*. Eta orain beste hauek: *etxea txikia da. Etxeak handiak dira — Etxeak txikiak dira.* Hor «etxe» elementua berez daiteke. Ik. TRUKAKETA

Sekuentzia

secuencia / séquence / sequence

Edozein elementu-ilarari (dagokion elementu-multzoa hutsa ez delarik) *sekuentzia* deritzo.

Semantema

semantema / sémantème / semanteme

1. Semantema, Ch. Bally-rentzat, «lexikal hutsa» den ideia bat (hau da, substantzia bat, tasun bat, prozesu bat, tasunaren edo →ekintzaren modalitate bat) adierazten duen →zeinua da, «zeinu gramatikalak» kanpoan geratzen direlarik. Forma gramatikal desberdinak har ditzake semantemak: →erradikala, *jar, jan;* →hitz bakuna, *mahai,* hitz konposatua, *mahai-joko, hitz-jario.*

2. B. Pottier-entzat, semema osatzen duten elementuetako bat da semantema. Semak hiru taldetan bana daitezke sememaren barruan: sema generikoek klasema osatzen dute, noizik behineko semek birtuema; konturako hartzen den unitatearen sema espezifikoen multzoak osatzen du haren semantema. Horrela, *aulki* sememari edozein klasema eta, noizik behinka, edozein birtuema iratxekitzen zaiola ere, esertokien →paradigmako beste hitzetatik berezten duten →ezaugarri espezifikoak hartuko ditu haren semantemak. Ik. LEXEMA

Semantika

Jesus Artzamendi

I. SEMANTIKA-MOTAK

Hitz hau joan den mendearen azkenean (1897. urtean) M. Bréal-en liburu batetan lehenik agertu eta, polibalentzidun bihurtu zaigu epe labur honetan. Orain balio berezi horiek azaldu nahi ditugu.

Hemen agertuko den mugaketa ez da berez hain absolutua (urteetan zehar korronte hauek beren artean interferentzia asko izan bait dute).

A) XIX-XX. MENDEKO MUGAN

Mintzairarekiko ikuspuntu berria hartzeko joera somatzen zen. Beste zientzien metodologian mintzaira tresna huts izatetik, analisiaren gune bihurtu zitzaigun.

Urte horietako autore batzu (G. Frege, B. Russell, A. N. Whitehead) Logikaren eta Matematikaren oinarriak ezartzeaz kezkatuak zeudelako gertatu zen hau.

Helburu honek eragin eta azterketa zientifikorako *metamintzaira* egokia prestatzen saiatu ziren.

Hemendik lan-sorta bat sortu zen, batipat honako hau argitan ipintzeko: mintzairaren joka-legeen azpiegitura logika denez, nolako legeez baliatzen den.

Ildo honetan *Varsovia-ko Zirkuluaren* ekarpenak inskribatzen dira (A. Tarski, L. Chwistek, T. Kotarbiński, K. Ajdukiewicz); eta baita *Viena-ko Zirkuluarena* ere (M. Schlick, R. Carnap, O. Neurath, H. Hahn).

Mende honetako hogei eta hamargarreneko urteotan arreta sintaxi logikoan jartzen zen, mintzaira logikoaren jokabideak ezagutzeko bide nagusitzat; eta, horrela, alde batetik mintzairaren «paradoxak», eta bestetik, haien iritziz eskasa zen filosofiaren sasiarazoak, gaindituz joan ziren.

Joera honek, ñabardura *neopositibista* batez tindaturik, «enpirismo logikoa» hartu zuen izen. Bere baitan *idealismo subjektiboa* eta *enpirismo inmanentea* nabaritzen dira, batez ere *L. Wittgensttein*-en kutsuagatik.

Azterketa hauek egiterakoan, Logikarentzat garrantzitsuak diren kontzeptu batzu argitzeko →Sintaxi Logikoa gai ez delako, Semantika Logikoruntz jiratzen da begirada.

Semantika izango dute ezagueraren sistematizazioa lortzeko tresna logikoa. →Zeinuen eta objektuen *(denotata)* arteko erlazioak finkatzen eta mugatzen saiatuko dira, zein zirkunstantzia erlaziotan errepikatzen den ikusteko.

Neopositibismoarekin harremanetan, Ch. W. Morris-ek zubi egiten zuen amerikar *pragmatismoaren* joerarekin (Ch. S. Peirce, J. Dewey, G. H. Mead, James); eta sintesi gisa, →*Semiotika* sortu zuen. Zeinuen zientzia orokor honek bere menpean Sintaxia, Pragmatika, eta Semantika hartzen ditu (oso ikusmolde antzekoak agertu ziren hogei eta hamargarreneko azken urteetan, bai →Bloommfield-engan, bai Carnep-en liburuetan ere).

→*Sintaxiak* zeinuen arteko erlazio formalak aztertuko ditu.

Semantikak zeinuak, eta hauek aditzera ematen dituzten objektuen arteko erlazioak aztertuko ditu.

Pragmatikak azkenik, zeinu eta egite komunikatiboko partaideen arteko erlazioak aztertuko ditu.

Azken bolada honetan biziki hazi da Semiotika.

Hori dela eta, Europako Semiologi joerekin harremanak maiztu egin dira.

B) SEMANTIKA OROKORRA

Korronte hau Chicago-n berrogeigarren urte inguruan sortu zen, A. Korzybski buru zela.

Bere proposamenak eta Semantika logiko-filosofikoarenak oso urrun daude elkarrengandik. Hark enpirikoki aztertzen ditu pertsonen nerbioen erreakzioak, hitzak erabiltzean (nola erabiltzen dituzten hitzak eta nola ukitzen duten hauek pertsona bakoitza).

Breuden kutsaketaz, teknika psikoterapikoa zen, bada, mintzairaren egitura eta gizabidearen erlazioa finkatzen zuena.

Honekin gizataldearen era guztietako arazoak askatu nahi zituzten (sozialak, politikoak, osasunezkoak...).

Talde honen gehiegikeriak alde batetara utzita, semantika eta psikologiaren arteko erlazioa onar dezakegu; psikologiak →*komunikazioaren* funtzionamendua eta *egintza semikoaren* azpiko psikologia erakutsiko dizkigu.

C) SEMANTIKA LINGUISTIKOA

1.—Izana zaharra, izena ere ez hain berria

Mintzairaren ikaskuntzak (eta horietan semantikazkoak) greziarren kulturan gogoeta filosofikoaren barrutian agertzen zaizkigu. Mintzairaren *berezkotasuna* ala *konbentziozkotasuna* oso goiz ikusten ditugu eztabaidatuak. Horretatik, beranduago, beste eztabaidarik ere sortuko da hizkuntzen →*analogia* eta →*anomaliari* buruz.

*Mintzairen jatorria*ren eta esentziaren inguruko eztabaidek eragin zuten →*etimologia*ren eta →*lexikografia*ren ekintza. Honela gaurko *sinbolismo fonikotik* gertu diren kontzeptu batzu, eta semantikari buruz balio duten beste batzu ere (adibidea: metaforari buruzko lanak) landu ziren.

Mintzairarekiko eta semantikarekiko kezka hau filosofiaren arazoekin batera doa erromatar tradizioan.

Erdi Aroan mintzairaren filosofiari garrantzi handia ematen zitzaion, errealitatearen egitura aztertzeari buruz tresna egokia zelakoan.

Hala «De modis significandi» (adierazteko bideei buruz) izenarekin liburu asko idatzi ziren. Ikusmolde honen arabera, hitzen itxurak adierazten ditu gauzak, →hiztunen buruan forma edo itxura horrekin elkartua dagoen kontzeptuaren bidez. →Kontzeptu hau →hitzaren →esanahia omen zen.

Hurrengo mendeetan, XVIII. mendeko tradizio razionalista frantsesa oso nabarmena izan zen. Hemen mintzairaren egitura, adimenaren produktua dela frogatzen saiatu ziren, eta egitura horrek balio unibertsala zuela (ikus *Grammaire Générale et Raisonnée).*

2. Hala eta guztiz, XIX. mendeko azken urteetara arte itxaron behar dugu mintzaira aztertzen duten zientzien artean semantika ezarriko duten autoreen eta obren mugimendua ikusteko (K. Reisig, A. Darmesteter, M. Bréal, K. Jaberg, H. Paul).

Barruti linguistiko honetan lehenbiziko lan hauek ikuspuntu *historiko konparatzailea*-z eginak daude (mende honetako linguistikazko lanik gehienak bezala), eta bai →hitzen →esanahiaren →aldaketak, bai beren zergatiko logiko, psikologiko eta beste motatakoak, aztertzen dituzte.

Wörter und Sachen (Hitzak eta Gauzak) mugimenduak, →Hizkuntz Geografiaren hazkundeari loturik, semantika-ikerketetan kultur eta soziologi alderdi berri bat piztu zuen.

Aldi honi amaiera emanaz 1931. urtean G. Stern-en *Meaning and change of Meaning with special Reference to the English language* liburua agertu zen. Hemen aldaketa semantikoen sailkapena egiten zen, baina Semantika eta beste zientziek dituzten erlazioak ikuseraziz. Lan hau egiterakoan, gaur oso obra klasikoa den beste batez (Ogden eta Richards-en *The Meaning of the Meaning)* baliatu zen, dirudienez.

1931. urte honi Semantikaren Kondairan mugarri deritzakegu, garrantzi handiko beste lan bat ere agertu bait zen bertan: Jost Trier-en *Der Deutsche Wortschatz im Sinnbezirk des Verstandes. Die Geschichte eines sprachlichen Feldes.*

Liburu honetan →Saussure-rengandik sortutako →estrukturalismo linguistikoaren kutsua, eta E. Husserl-en Fenomenologiarena, nabaritzen dira.

Kondairazko joerari eta, bapatean, joera estrukturalistari, arreta ematen zitzaien; eta geroago *eremu semantikoen* ikaskuntzak diratekeen ernamin gertatu zen liburu hori.

Ildo estrukturalista honetatik jarraitu dira azken urteotan, besteak beste, E. Coseriu, K. Heger, K. Baldinger, B. Pottier, H. Geckeler, B. Quemada eta A. J. Greimas.

Ameriketan esanahiari buruzko ikaskuntzak, harreman handia du soziologi ikaskuntzekin (ikus Semantika orokorra); eta joera paralinguistikoa dakar berarekin.

Hizkuntzalarien artean metodo bat badela konturatzen gara →Sapir-engandik hasita. Honen obran esanahiaren ikaskuntza metodo introspektiboaz egiten da.

Ondoren datorren →Bloomfield-ek ezinezko jarrera erakusten du semantikaren aurrean.

Honen eraginez aldi luzean Ameriketako linguistikan gai hauek osoro baztertuak izan dira.

1965. urtean aldatutako Gramatika →sortzaile-bihurtzaileari bakarrik eransten zaio explizituki, *osagai semantikoa* (ik. III. puntua artikulu honetan bertan).

II. SEMANTIKAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK

A) ESANAHIAREN ESANAHIAK


«Esanahi» hitzaren ulerkuntza desberdinak ikusten ditugu. Esanahia aurkitzeko erabiltzen diren metodoetatik sortzen da desberdintasun hau.

Une honetan ez ditugu aipatu nahi *mintzairaren funtzioak* aztertzetik sortzen diren esanahi bereziak.

1.—Ikerbide barneratzailetik


Hitzen esanahia ezagutzeko bakoitzaren barrena aztertu, eta norberaren lekukotasun horretaz baliatzen ziren. Horregatik mentalista deritzete, batzuk.

Kondairan zehar ikusmoldea honelako zerbait zen:

«dictio» (hitza)  «vox» (hitzaren itxura)
«Significatio» (kontzeptua)
«res» (gauza)

«Vox significat res mediantibus conceptis» (hitzaren itxurak kontzeptuez baliaturik gauzak adierazten dizkigu).

Gaur egunean Ogden-Richards-en hirukiak honen antz apur bat badu:



Horrela hitzen eta hauek itxuratzen dituzten gauzen artean ez dago erlazio zuzenik. Batzuk *analisi erreferentziala* deitzen diote. Ullmann-en iritziz Semantikarako →erreferentearen erpina sobera da, eta beretzat izenaren (sinboloa) ⟷ →adieraren (aipamena) arteko erlazioa izango litzateke esanahia.

2.—Ingurune linguistikotik esanahira

Wittgenstein-en filosofian sustraitutako joera baten arabera, «hitzaren esanahia, mintzairan duen erabilera da». Era berean uste dute J. R. Firth-ek eta S. Chase-k.

Sustrai hau hazten bada, hitz bakoitzaren *analisi distribuzionalaren* bidez lortuko da esanahia.

Ikerbide honen ezaugarri positiboak honako hauek dira: aprioriismoaren bidea baztertzea, eta bide enpirikotik jotzea.

Inguruneak beti zabalik dauden sail horietakoak gertatzen dira, eta hainbestez ezin agortu izana du bere alderik ahulenetakoa. Inguruneen hautapenak, alderdi subjektibo samarra dakar beti berekin, eta, alde horretatik, bilapide honek aurrenekoaren antza hartzen du.

3.—Egoera-ingurunetik esanahira

Bide honen eredu nagusia L. Bloomfield dela esan dezakegu.

Berak esaten digu forma linguistiko baten esanahia zer den:

«→Hiztun batek hitz bat ahoskatzen dueneko egoera, eta entzule-

arengan sortarazten duen erantzuna». Argi eta garbi ohartzen da *behaviorismo* delakoarekiko erlazioa. Horrez gainera, esanahiaren iturria mintzakortasuna dela ikusten dugu. Honen arabera, esanahiaren balio *erreferentzial* eta *pragmatikoa*rekiko arreta nabari da autore horrengan. Esanahia ikasteko bidea horixe dute haurrek komunzkiro, dirudienez.

Horren alde eztabaidagarri batzu honako hauek dira:

— →Egoera bakoitzaren berezgarriak aurkitzeko posibletasuna, zeren-eta honek berarekin bait dakar mintza-egoera guztiak (posibleak, noski) →*paradigma artikulatu* itxitan sartzea.

— «Egoera» kontzeptu bera ere, zabaldu egin behar da, mintza-egintza askotan, esanahia gizarte eta kultur ingurune batzuren bidez bihurtzen bait da ulergarri, eta ingurune horiek egintza horren inguramendu espazio-denborazkoak gainditzen bait dituzte.

Alde honetatik hau *mintzaira desplazatua*rekin oso lotuta dago. Pasarte batetan aditzera ematen bide du, *esanahi denotatiboa* hitz bat sortu duten jarrera guztien multzoa baizik ez dela.

Hala ere, egoera hauek erlazio estuan daude *esanahi konnotatiboarekin.*

Honen ikusmoldetik gertu, beste batzuk (E. Nidak adibidez) proposatzen dute esanahira iristeko bide *extentsiboa,* eta ez *intentsiboa.*

B) ESANAHIEN ARTEKO ERLAZIOAK

Esanahiari buruz hitzegiten dugunean, semantikako banako-mota berezia aukeratzen ari gara inplizituki: *Mintzairazko esanahiak* alde batetara uzten ditugu; ez dugu aztertuko ere *sinbolismo fonikoa* eta berarekin elkartuta dagoen →*onomatopeien* arazoa.

Hemen hitzaren mailan ihardungo dugu; maila horren barruan *gramatika-esanahia* eta *sintaxizkoa* bigarren planoan utzi, eta lexiko-esanahia aztertuko dugu.

1.—Hitz beraren barnean esanahi erlazionatuak

Lexema edo hitz baten barneko →adiera berezien artean zein erlaziomota sortzen den aztertu nahi da.

Aurretik erizpideak finkatu behar dira, →*polisemia* eta *homonimia* berezteko.

Guk hemen hitz polisemikoaren adiera desberdinak aztertuko ditugu, noski. Hauexek dira:

a) *Eratorpena*

Azpiko oinarri bateko funtsezko konposagai guztiak, eremu semantiko berezi bateko beste esanahiren bati itsatsita daude. Horrelako erlazioa *exozentriko* dei dezakegu. Oinarrizko adieraren eta eratorriaren arteko erlazioak sistematikoak dira, eta *gramatikazko hun-egituretan* dauden →*kasu-erlazioak* direlako horiek funtsean gauza bera dira.

Adibidez: tresna → ekintza: mailu → mailukada
tokia → ekintza: ohe → oheratu
egile → ekintza: ikasle → ikasi

Eratorpen morfologikoak ez dakar beti berarekin semantikazko eratorpena.

b) *Ordezkapena*

Gutxienez oinarritik konposagai bat aldatu eta beste berri bat ipini behar da. Berri horrek adiera berezia erantsiko du, baina →eremu semantiko nagusia aldatu gabe. Erlazio *endozentrikoa* izango litzateke.

Erantsitako edo ordezkatutako →morfemaren bidez markatzen da sarri. Hemen sar ditzakegu, ene ustez, euskarazko →deklinabide-formak.

Bai eratorpena bai →ordezkapena, esanahi gramatikalarekin elkartuta daude.

c) *Irudizko hedaera*

Oinarrizko esanahiaren eremu semantikoa zeharo aldatzen da esanahi hedatu bihurtzerakoan. *Konposagai osagarri* baten bidez edo *konposagai diagnostiko* berrinterpretatu baten bidez, lortzen da hedapen hau. Oinarrizko esanahiaren eta hedatuaren arteko lotura askotan ez da sistematikoa.

Atal honetan *metafora, metonimia, sinekdoke* eta *alegoria* sartzen dira.

d) *Erdi inguruko sailkapena*

Hitz baten adierak, adiera baten inguruan sailkatzen direnean, goiko erlazio hori sortzen da. Zenbait konposagai berdin eta beste zenbait konposagai diagnostiko elkartuaz erlazionatzen dira zentzu hauek. Beste alde batetik begiraturik, atal honek eta aurrekoak bat egingo lukete.

2.—Hitz desberdinen esanahi erlazionatuak

a) *Barnetasuna*

Bi hitzen esanahiak bata bestearen barruan sartuta daude; sartua dagoena bereziagoa da, eta gutxienez konposagai bat gehiago izan behar du besteak baino. Sartua dagoenari azpimultzo eta besteari multzo deritzokegu.

Multzoa bere aldetik abstraktuago da eta horrexegatik →*hedapen* handiagoa du.

Lyons-en iritziz →*hiponimia* barnetasuna baino zabalagoa izango litzateke, berak dioen *adierari* lotuta bait dago; eta barnetasuna, berriz, *esanahi erreferentzialari*. Horrenbestez beren artean *baliokide* diren hitzen arteko hiponimia-mota berezi gisa aztertzen dira sinonimia kasu batzu.

b) *Gainezarketa edo sinonimia*

Hitz baten esanahiaren ordez bestearena ezarri eta balio kontzeptuala (ikus →funtzio erreferentziala) aldatzen ez bada, bi hitz horiei sinonimia-erlazio hori dagokie. Gutxitan truka daitezke bi hitz elkarren artean eta inguru guztietan. Hala ere inoiz gertatzen baldin bada, sinonimia guztizkoa deitzen zaio. Oso gutxitan du berdina hitz pare batek bere *funtzio erreferentziala* eta *hunkitzailea.* Hala badadi, sinonimia osoa esaten zaio.

c) *Osagarritasuna*

Hitzen esanahiek konposagai batzu berdinak dituzte, baina beste batzu oso aurkakoak. Atal honetan sartzen dira →*antonimoak, rebertsiboak* eta *konbertsiboak.*

d) *Hurbiltasuna*

Hitz batzuk, beren esanahien artean gutxienez konposagai bat dute bera, baina besteren bat ez, beren artean berezteko. Zenbat eta konposagai gehiago izan berdin, hainbat eta hertsiago dateke hurbiltasuna eta eremu semantikoa txikiago. Ikusten denez, adierazi guztien arteko erlazioak osagai-analisi edo *analisi konponentzia*laren ikuspuntutik emanak dira.

III. SEMANTIKA GRAMATIKA SORTZAILE-TRANSFORMATZAILEAN

A) Bloomfield —Harris— ildotik joaz, →Chomsky-k 1956. urtean intuizioa onartu zuen hizkuntz egintzak sailkatzeko erizpide laguntzailetzat; baina ez zuen bere ikusmoldean esanahiaren azterketa sartu. Sintaxia →soinuen eta adieren arteko zubi autonomoa dela baizik ez digu esaten.

B) 1965. urtean Gramatikaren *osagai interpretatzaile* gisa agertzen zaigu Semantika (J. J. Katz, J. A. Fodor eta P. M. Postalen eraginez). Hiztun-entzule denak bere barnean nahitaez egituraren bat duela, eta egitura horren antzeko beste egitura formal batetan sartu nahi dute hiztegien mamia. Sintaxi-osagaiaren →erregelen bidez sortutako *adierazgailu sintagmatikoei* erantsiko diete *projekzioa*ren erregelez baliaturik hiztegiaren egitura hori.

C) *Kasuetako gramatika:* Fillmore-ren iritziz, *semantikazko modalitateek, perpausaren →predikatuek,* eta →*kasu* batzuk osatzen dute barne-egitura.

Hauek hipotesian unibertsalak eta mugatuak dira. Gramatika honek bere egilearen eritziz perpaus guztiak esplika ditzake.

D) Hirurogeigarren urte inguruan →Chomsky-ren ikusmoldetik mugimendu bat berezi da, eta Semantika Sortzailearen izena hartu du (P. M. Postal, J. A. McCawley, G. Lakoff).

Semantika Sortzailearen gramatika-erregela sortzaileen multzoz definitzen da. Hona ezaugarririk nagusienak:

— *Logika-semantikazko egitura,* balio unibersala duena.

— *Kanpo-egiturak,* hizkuntza bakoitzean bereziak.

Ahal daitezkeen textuinguruen sorta eta logika-semantikazko egitura adierazteko kanpo-egituraz baliatzen diren presuposizioak.

Talde linguistiko honetan barne-egitura edo-ta erabat galtzen da, non amaitzen den ezin muga daitekeelako; edo-ta egitura logiko-semantiko orokortzat hartzen da, →sakoneko egitura horiek azpian datzan zerbait esan nahi dezakeelako soilik. Logika-semantikazko egiturarik gehienetan predikatuen kalkulua izaten da.

E) Chomsky-k, bere azter-moldea aldaturik, kanpo-egituraren mailako →intonazio-doinua erantsi dio semantikazko osagai interpretatzaileari. *Foko* eta presuposizioa hor sartuak daude. Kanpo-egituraren semantikazko interpretazioarekin elkartuak azaltzen dira *topikoa, iruzkina, kuantifikatzaileen ordena, →moduzko →laguntzaileak, →aspektu amaikorra* eta *bilakaera anaforikoak* ere.

Chomsky-ren ikusmolde berri honetan, Fillmore-ren ekarpenak ere barne-egituran txertatuak agertzen dira.

F) Egungo egunean semantika «osagai interpretatzaile» delakoaren aldekoak, eta semantika «oinarrizko osagaia» dela diotenak, elkarri hurbiltzen ari zaizkio beren jarrera eta eritzietan. Hala ere nor bere aldetik doa.

Semantika sortzaileak bi puntu hauetan jartzen du arreta:

— Semantikari buruzko ikaskuntzak nola formaliza ote ditzakegun. Horregatik Logika eta Linguistika berriz harremanetan jarri, eta berezko Logika sortzen da.

— Semantika erabat ustiatu nahirik, beste alor zabal bat aztertzen hasi dira: *Pragmatika* deritzona.

Esanahiaren barrutia geure ikerketaz ahitu nahi, eta beste ikuspegi berria agertzen zaigu. Horrelaxe doa semantika aurrera: ikuspuntua aldatuz, eta formalizazioa egokiagotuz.

BIBLIOGRAFIA

A) Lan-orokorrak

STEINBERG, D. D.; JACOBOBITS, L. A.: *Semantics. An Interdisciplinary Reader in Philosophy, Linguistics and Psychology,* Cambridge Univ. Press, 1971, Cambridge.

LYONS, J.: *Semantics,* I eta II, Cambridge Univ. Press, 1977, Cambridge.

B) Sarrerako oinarri-lan batzu

GUIRAUD, P.: *La Semántica,* F.C.E., 1971, Mexico.
BREKLE, H. E.: *Semantik. Eine Einführung in die sprachwissenschaftliche Bedeutungslehre.* W. Fink, 1972, München.

1. GRECKLER, H.: *Semántica estructural y teoría del campo léxico,* Gredos, 1976, Madrid.
   MAURO, T. DE: *Introduzione alla Semantica,* Editori Laterza, 1966, Bari.
   SCHAFF, A.: *Introducción a la Semántica,* F.C.E., 1969, Mexico.
   ST. ULLMANN: *The Principles of Semantics,* Basil Blacwell-Jackson, 1967[3], Oxford.
2. NIDA, E.: *Componential Analysis of Meaning,* Mouton, 1975, La Haya.
   KEACH, G.: *Semántica,* Alianza Universitaria, 1977, Madrid.
   ST. ULLMANN: *Semántica. Introducción a la ciencia del significado,* Aguilar, 1965, Madrid.
3. SAN JOSE, V. B.: *Introducción crítica a la gramática generativa,* Planeta, 1975, Barcelona.
   GALMICHE, M.: *Sémantique générative,* Larousse Université, 1975, Paris.

Semiotika
semiótica / sémiotique / semiotics

→Saussure-ren plangintzaz geroztik erabilia, *semiotikak* helburu hau du: gizarte-bizieraren barruan →zeinuen gora-beherak ikertzea. Gaur, dena dela, adierazpide guztien teoria orokorra izan nahi luke semiotikak. Hauxe da, hain zuzen ere, *Peirce*-k markatu zion bidea.

Sensum (constructio ad-)
sensum (constructio ad-) / sensum (constructio ad-) / constructio ad sensum

Latinezko esakera honen arabera ondoko hau adierazten da: →adieraren arabera esaera moldatzea, gramatika-itxuraz jaramonik egin gabe. *Pilo bat erosi zituen* esaten bada (*zuen* esan beharrean), *pilo bat*-i dagokion aniztasuna da kakoa.

Silaba
sílaba / syllabe / syllable

Katea mintzatuko edozein →fonema-talderen oinarrian dagoen funtsezko egitura da silaba. Egitura hau →bokalak eta →kontsonanteak deitu diren fonemen kontrastean oinarritzen da eta →erregela-multzo baten arabera aldatzen da hizkuntza batetik bestera.

Silaba askea edo irekia bokalez bukatzen dena, bifonematikoa da eta silaba-mota unibertsal bakarra; silaba trabatu edo itxiak, kontsonantez bukatuak bakarrik dauzkan hizkuntzarik ez dago.

→Saussurek fonema inplosiokari eta →leherkarien arteko berezkuntza eginez pentsatzen zuen silaba-muga zedarritzea, «appa» bezalako talde baten ahoskeran bi «p» desberdin entzun daitezke, lehenengoak hersketa osora darama, inplosiokaria da; bigarrenak a-ren irekidurara darama, leherkaria da.

Silaba-muga →inplosio batetik →leherpen batera igarotzen den lekuan kokatzen da.

Silaba-ebakunea
corte silábico / coupe de syllabe / syllable boundary

Silaba-ebakunea, bi →silabaren arteko muga da. Silaba-muga ere deitzen zaio. Gehienetan →hitz baten barnean, →bokal edo →kontsonante inplosibo baten (silaba batetan bokalezko hunaren atzetik dagoen kontsonantea: har*t*u) eta kontsonante →leherkari baten (bokal baten aurrean dagoen kontsonantea: *l*eku) artean kokatzen da.

Silababikoa
bisílabo / dissyllabe / dis(s)yllabic, bisyllabic

Bi silaba dituen →hitza da silababikoa; adibidez, *etxe* [eče] hitza.

Silabema
silabema / syllabeme / syllabeme

Silaba-erdigune bezala funtziona dezaketen unitate fonikoak deitzen dituzte hizkuntzalari batzuk silabemak; →bokalak, eta zenbait hizkuntzatan, txekieraz adibidez, [l] eta [r] →kontsonante →urkariak izango lirateke silabemak. Silabaren bazterreko zatia osatzen duten →fonemei, aldiz, *asilabemak* esaten zaie.

Silepsia
silepsis / syllepse / syllepsis

Bi →hitzen →komunztadura, →generoz nahiz →numeroz, ez gramatikaren arabera, baina →adieraren arabera egiten denean, komunztadura horri *silepsia* deritzo. Frantsesez, horretara, *une joule l'attendait à la Gare* esan beharrean, *une joule l'attendaient à la gare* ere, silepsi bidez, esan daiteke. Gauza bera euskaraz: gramatikaren araberako *askok esaten du*-ren ordez, silepsi bidez *askok esaten dute* ere entzun daiteke gaur.

Sinalefa
sinalefa / synalèphe / synaloepha

Hitz baten amaierako eta hurrengoaren hasierako →bokalen bategite-fenomeno fonetikoa da *sinalefa; ikusi*-ren *-si* eta *al* partikula →silaba bakarrean ahoska daitezke, agudo mintzatzean: [ikuśjalduk].

Sinboloa
Ik. IKURRA

Sinekdokea
sinécdoque / synecdoque / synecdoche

Hitz bati ohizkoa baino zabalagoa den →edukina ematen zaionean, sinekdokea gertatzen da: *bela Belauntzi* esan ordez (zatia osotasunaren ordez), *gizona giza espeziea* adierazteko (partikularra jeneralaren ordez). Sinekdokea gertatzen da baita, alderantziz osotasuna zatiaren ordez hartzen denean: Euskadi, adibidez, *Euskadiko ekipoaren* ordez.

Sineresia
sinéresis / synérèse / syneresis

Bi →silabatako bi →bokal jarraikorren bategite-fenomeno fonetikoa da *sineresia.*

Metrikaren eskakizunez, [gaištwa] bezalako hainbat sineresi egin behar da, Etxepareган adib.

Singularra

singular / singulier / singular

Edo «mugatu bakarra» ere deitua.

Hona hemen izen-→kategoriari datxekion gramatika-→kasu bat.

→Adiera desberdin batzu izan ditzake:

1. zenbatgarri diren izenetan, bakuntasuna adierazteko: *bat* (= bakar bat)/*bat baino gehiago.*
2. Multzo-izenetan, barrenean aniztasuna izanik ere.
3. zenbatgarri ez diren →izenetan, →oposiziorik ezaren irudi gisa.

Esate baterako:

1. *zakurra* (eta ez zakurrak)
2. *sagardia* (nahiz sagarrondo-multzoa izan)
3. *haurra* (edozein haur) = *haurra jostaria da*

Gramatika →sortzailean [+ sing] →ezaugarria datxekio.

Sinkopa

síncopa / syncope / syncope

Hizkuntzen eboluzioan oso maiz gertatzen den fenomenoa da sinkopa eta →hitz baten barruan →fonema bat edo batzu desagertzean datza. →Bokalak eta →silaba tonugabeak erortzen dira bereziki.

Sinkretismoa

sincretismo / syncrétisme / syncretism

Honetan datza sinkretismo izenaz ezagutzen den fenomenoa: bi elementu, jatorriz desberdinak edo analisiak berezi egiten dituenak, forma bakar batean nahasita agertzen dira, itxuraz biak bereztea ezinezkoa gertatzen delarik. →Indoeuropar hizkuntzei dagokienez, →*kasuen sinkretismoaz* hitzegiten da: hastapeneko kasu-zerrendan, →nominatiboaz, →bokatiboaz, →akusatiboaz, →genitiboaz eta →datiboaz gainera, →ablatibo bat (aldenketa edo urruntzea adierazten zuena), lokatibo bat (nor, non zegoen adierazten zuena) eta →instrumental bat (zeren bitartez burutzen zen →ekintza adierazten zuena) ere sartzen zirela pentsatzera garamatza gramatika konparatuak: latinak, instrumentalaren zenbait forma eta erabilera guztiak eta lokatiboaren erabilera gehienak *ablatibo* deritzan kasuaren barruan bildu ditu sinkretismoz; grekoak ere, sinkretismoz, instrumentala eta lokatiboa ia osorik datiboaren barruan bildu zituen, ablatibo hertsiki deituak genitiboarekin bat egiten zuen bitartean.

Sinkronia

Ik. DIAKRONIA ETA EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Sinonimoa

sinónimo / synonyme / synonym

Zentzu bera, edo beretsua, eta forma desberdinak dituzten →hitzak dira sinonimoak. Hau da sinonimiaren definizio zabala; honek bide ematen die hiztegiei, zenbait →textuingurutan beste baten ordez jar daitezkeen hitzen zerrenda luzeak emateko. Gaurko teoria semantikoan ez dira sinonimotzat hartzen bi unitate, ez badute zentzu estruktural bera, analisi zorrotz baten bidez mugatzen dena.


Sinplea

Ik. BAKUNA

Sintagma

Bai sintagmaren definizioa, bai hartzen dituen izendapenak, onartua izan den gramatika-→ereduaren araberakoak dira (ikus *banaketa).* Oraingo honetan, ahalik eta definiziorik markagabeena ematen saiatuko gara. Perpaus bat ez da izan hitzak (→lexemak) katemaila liratekeen katea huts bat, baizik-eta barne-egitura ere baduena. Aurreranzko hitzen antolaketan agertzen da hori, besteak beste, eta biderdiko multzo horietan ere barne-egitura bat agertzen da. Tarte-multzo horiek, berebat, beste hitz-multzoekiko harreman sintaktikoak lotzen dituzte.

Morfologiari dagozkion alderdiak alde batera utziz, aurreranzko egituraketa hori honetara eman daiteke:



Modu horretara, goitik ala behetik ari garen arabera, urraska segmentatzen edo eraikitzen dugu perpausa. Gauza ageria da, jakina, era horretara egiturazko azalpen osorik ez dugula burutzen. Horretarako lexema edo hitz-multzo (sintagma) bakoitza zein hiztegi-→kategoriari dagokion adierazi behar genuke; perpaus bat beste biga edo gehiagorekin lotzen duen eragiketa-mota nolakoa den ere bai, baita emaitzaren kategoria eta bere gaineko osagai-sintagma bakoitzak duen →funtzioa ere.

Hau guztia, ordea, ezin daiteke egin, aldez aurretik sintagma deritzon unitate hori kontutan hartu gabe.

Ik. PARADIGMA

Txillardegi

Sintaxia

Betidanik berezi izan dira gramatiketan bi atal nagusi: morfologia eta sintaxia.

Perpaus barnean →hitzek elkarren artean dituzten harremanak aztertzen dituen gramatika-atalari Apolonio Discolo delakoak jarri zion *sintaxi* izena. Ordurarte gudu hitza zen, era berezian taxututako gudari talde bati zegokiona. Gero, gramatikariek, metafora bidez edo, hitzak eratzeko, letra edo →soinuen arteko elkarketari deitu zioten.

Sintaxi tradizionala perpaus barnean hitzek hartzen zuten ordenamendu berezia, edo hitz horien arteko →komunztagudu-hitza zen, era berezian taxututako gudari-talde bati zegokiona. Gero, graperpausaren erregulartasunen multzoa zen. Gauzak horrela pentsatzea, perpaus ez-erregularrak edo ez-osoak bazirela presuposatzea da. Perpaus ez-erregularrok erregularrago edo oinarrizkoagotzat jotzen ziren perpausetatik abiatuz esplika zitezkeen. Ez-erregulartasun hauek «joskera-figura» izenez, sailkatu eta esplikatu zituen Port Royal-eko *Gramatikak.*

Sintaxiaren langaia, beraz, tradizionalki, hitzak dira baina perpaus barnean gertatzen diren elkarketez eta elkarren arteko erlazioez arduratzen da. Sintaxiari dagozkio, aintzinatik, komunztadura eta →eraenketa kontuak. Port Royal-eko *Gramatikak* «komunztadurazko sintaxia eta eraenketa-sintaxia» bereizten zituen. Lehenbizikoa gehienbat berdintsua da ia hizkuntza guztietan. Bestea, berriz, ia ia arbitrarioa da eta horregatik oso desberdina gertatzen da hizkuntza guztietan.

Sintaxiari dagokio, beraz, baita morfologiak ematen dizkigun formak nola

erabili esatea eta, era berean, hitz bakoitzak perpaus barruan betetzen duen funtzioa aztertzea ere. Hala ere, sintaxiaren eta morfologiaren arteko muga, askotan, ez da erraz non dagoen jakiten.

Gramatika →sortzaile transformatzaileak estrukturalistek ukatu ziotena eman diote berriro sintaxiari eta →Chomsky-k ardaztzat ematen du sintaxia. Sintaxia sortzailea da —haren ustez— eta →semantika eta →fonologia, berriz, interpretatzaileak dira. Lan hauetan, lehengo morfologiarik ez da agertzen: sintaxiaren eta fonologiaren artean banaturik dago. Sintaxiaren kotzepzio berri honek ia ia gramatika osoa hartzen du, edo gramatikaren zatirik handiena behintzat, bai.

P. Goenaga

Sintema

sintema / synthème / syntheme

A. →Martinet-en terminologian, zenbait →monema lexikalez osaturiko →esakune-segmentua da sintema, gutxienezko sintaxi-unitate bezala funtzionatzen duena; sintemak dira, adibidez, hitz eratorriak *(gogozko, berregin,* etab.). A. Martinet-entzat hizkuntzaren baliabideen artean egiten den hautapen bakar baten ondorio dira. Sintema →*sintagmari aurkajartzen zaio.*

Sistema

sistema / système / system

→Linguistikan, sistema bezala hartzen da hizkuntza, zentzu honetan: hizkuntzaren edozein mailatan jartzen garelarik (→fonema, →morfema edo →sintagmenean), maila horretako elementuek elkar mugatzen dute, benetako erlazio-sare bat sortuz; eta, hori dela bide, *sistemaren oreka* bera aldatzen da.

Bide beretik, eta gramatika →sortzailean, →berridazketa-→erregelen multzoari, *sistema* esan dakioke.

→Glosematikan, azkenik, prozesu-nozioari datxekio sistemaren ideia.

Soinua

sonido / son / sound

Gizonaren ahotsa, soinu-multzo batek sortutako uhina da. →Hiztunarengandik irteten den uhin hau aidean barrena (edo beste zenbait gorputzetan barrena) hedatzen da; eta uhinaren abiadura, aideari dagokionez, 340 m/seg izaten da. (Beste zenbait gorputzetan barrena azkarrago joan daiteke, lurrikaren azterketak aspaldidanik erakutsi duenez).

Ahotsa osatzen duten soinu horiek ez dute edozein →maiztasun. →Fonema bakoitzari maiztasun-espektro desberdin bana dagokio; eta espektro horren maiztasun nagusiei, «→formante» deritze. Dena dela, giza-ahotsaren maiztasunek muga hauek dituzte: 16 Hz behetik (maiztasun txikiagoetan, belarriak ez du ezer sentitzen); eta 16.000 Hz goitik (maiztasun handiagoetan, belarriak min hartzen du). Haiei eta hauei *infrasoinu* eta *ultrasoinu* deritze.

→Bokaletan bi formante nagusi egoten dira; eta hirugarren bat, gorago, 2.500 (3.000) hertzetakoa. Bi formante nagusi horien maiztasunak elkarren ondoan egon daitezke (o, u), edo-ta elkarrengandik urrun (i).

→Kontsonanteetan, zaratak eransten zaizkie oinarrizko formante aldiorokoei; eta espektroak, horregatik, askoz ere nahasiago izaten dira.

Giza-hots bakoitzari, hiru →ezaugarri nagusi datxezkio: →*maiztasuna,* jadanik esana denez; *anplitudea,* alegia uhinaren intentsitatea; eta *tinbrea,* nota bera emanez ere pertsonen ahotsak berezten dituen armoniko-mordoa.

Zientzibidez frogatua denez, hizkuntza guztiek ez dituzte maiztasun berberak erabiltzen, ezta fonema berberak ematerakoan ere; edo, bestela esateko, fonema berberak izanik ere, berorien balio fonetikoak ez dira berberak.

Giza-ahotsen ulerkuntzak arazo larriak ditu berekin. Nahiz →fonema berberak (pertsonen arabera, ingurune fonikoaren arabera, tinbrearen arabera) fonetikari dagokionez soinu berberak ez izan, denek ulertzen dituzte. Oharkabean, hortaz, eta →hizketa bat entzuten dugunean, dudarik gabe baztertzen ditugu bereizle ez diren ezaugarriak, eta →bereizleak soilki gogoan hartzen. →Fonologiaren eta →fonetikaren arteko mugak, beraz, behin eta berriz agertzen zaizkigu tinko.

Solezismoa

solecismo / solécisme / solecism

Perpaus-eraikuntza bati, hizkuntza baten garai jakin bateko gramatika-→erregelek sortua ez denean edo arau baten edo egokitzat ematen den erabilera baten barruan onartzen ez denean, solezismoa esaten zaio. Horrela, **Zenbait gizon guztiak* solezismoa da (agramatikaltasuna) gramatika-erregelen aldetik; *Atzo hitzegin genuen arazoa konponduta dago* solezismotzat jotzen dute gra-

matikari garbizaleek, beraiek mugatutako arauari buruz.

Sortzailea (gramatika)

generativa (gramática) / générative (grammaire) / generative (grammar)

1960tik 1965era bitartean N. →Chomsky-k eta Massachusetts Institute of Technology-ko hizkuntzalariek eratutako teoria linguistikoa ezagutzen da *gramatika sortzaile* bezala. Chomsky-k eta beronen laguntzaileek ez dituzte onartzen linguistika estrukturalaren analisiaren →eredua eta →arartegabeko osagaietango analisiaren eredua; haien ustez, eredu hauek perpaus gauzatuak bakarrik deskribatzen dituzte eta hizkuntz datu-sail haundi bat (esate baterako, →anbiguotasuna, osagai etenkorrak, etab.) ezin dituzte argitu. Horregatik, teoria berri bat eratzen du Chomsky-k, →hiztunaren sormenaz, alde aurrez sekula agertu ez diren perpausak moldatzeko eta ulertzeko hiztunak duen →gaitasunaz, kontu eman dezakeena. Zenbait hipotesi formulatzen du mintzairaren izaeraz eta funtzionamenduaz: mintzaira sortzezko →egitura unibertsal batzuren existentzian oinarritzen da (→subjektu/→predikatu erlazioa, adibidez); egitura horiei esker iristen da haurra hizkuntzaz jabetzera (hizkuntza ikastera); ingurune linguistikoak suspertzen ditu mintzairaren funtzionamendua funtsatzen duten egitura horiek. Horren argitan, *gramatika* mekanismo finitu bat da, hizkuntza batetako perpaus gramatikalen (ongi eratuen, zuzenen) multzo infinitua, eta horiek bakarrik, sortzeko era ematen duena. Zeintzu →hitz edo →soinusegida onarturik dauden ezartzen duten →erregelek osatzen dute gramatika, eta hau da hizkuntza batetan mintzatzen direnen hizkuntzazko jakitea, h.d., berorien hizkuntz gaitasuna; komunikazio-egoera jakin batetan hiztun bakoitzak egiten duen hizkuntzaren erabilera berezia →perfomantzia edo ariketari dagokio.

Sortzezkoa

innato / inné / innate

Gramatika →sortzailearen arabera, *mintzamena,* mintzatzeko dohaia edo ahalmena, giza-espezieari dagokio eta inguruneak eragiten du gizakume bakoitzarengan. Ahalmen berezi honen sustraian, giza-motan ez bestetan aurkitzen diren biologi oinarriak daude, batez ere mintzaira zerebroko ezkerreko hemisferioaren atzekaldean lekutzea eta sinbolakuntzari buruz bi hemisferioek erakusten duten disimetria.

Gramatika sortzaileak, horretara, oinarri hauek postulatzen ditu:

a) mintzairari legozkiokeen hizkuntz unibertsalak;

b) gramatikaren moldakuntza ageria, →*sintaxia,* erdiko zutabe bezala; eta alboko osagai *fonologiko* eta *semantikoak,* elementu interpretatzaile bezala;

c) maila bakoitzari dagozkion →erregelak;

d) hizkuntza guztietan aurki bide daitezkeen unibertsalak: fonologikoak, semantikoak eta sintaktikoak;

e) aukeragarri izan daitezkeen gramatiken artean, hautabide zuzen baten finkaera.

Soziolinguistika

M. J. Azurmendi

I. SOZIOLINGUISTIKAREN ZEDARRIKETAREN ARAZOA ZIENTZIA AUTONOMO DEN ALDETIK

Zientzien multzoan etengabe gertatzen da oinarrizko zientzia batetik abiatu, eta alderdi, problema eta ikerbide-mordoak beren buruz askatu ala, iker-sail berriak sortzea. Horixe gertatu da gramatika →sortzailean, eta →linguistikatik hasita; edo-ta, sailartekotasuna dela bide, →psikolinguistikaren eta soziolinguistikaren alorretan.

Gure zientzia berri honek zer-ikusia du linguistikarekin; eta beronen arazo, helburu, ikerbide, eta abarrekin, ere bai. Mintzairazko agerkariak eta ekarpenak aztertzen bait ditu, aukerak eta bideak, baita mintzairazko ekarpenak bai pertsonetan, eta bai gizatalde berezietan batez ere. Zer ikusia du soziologia orokorrarekin ere eta beronen kategoria, molde, ikerbide, eta abarrekin; baita gizatalde-soziologia bereziarekin ere. Zeren eta mintzaira bakoitza, gizatalde honi edo hari lotuta datorren aldetik, pertsonazko eta kondairazko mintzaira gisa ere agertzen bait da; mintzaira bakoitzak sortzen eta atxekitzen bait du hein batez gizataldearen izatea bera.

Badira, mintzaira bakoitzean, mintzaira-jokabide desberdinak, mintzaira-baliaketari dagozkion maila desberdinak, eta mintzakuntzari buruzko erabilbide desberdinak. Hots, hauen guztien azalpen eta deskribapenen iturburua eta ingurua dira gizataldearen egitura eta ezaugarriak zehazten dituztenak. Eta hau soziologiari datxekio.

Badira, bestalde, gizatalde bereko elkarren ondoko mintzairetan eta bertako mintzairon artean elkarlotura-mota desberdinak, eta gauza beretsua aurkitzen da mintzairazko jokabideen motei eta mailei dagokienez; hauek guztiak gizatalde bakoitzaren egiturak eta ezaugarriak argitzen bait dituzte. Eta abar.

Zientzia honek, era berean, linguistikan sortu diren gainerako joerekin eta iker-sailekin badu zer-ikusirik: →dialektologiarekin edo gramatika sortzailearekin, esate baterako. Baita soziologian eta psikologian sortu direnekin ere (mintzairen balioztaketarekin eta giza-entzutearekin, esate baterako); edo-ta, gizatalde honetan edo hartan, erabil-arauen gorabehe-

rekin. Hauxe da, hain zuzen, W. Labov-en teoria Soziolinguistikoan itsatsia izan den kezka esate baterako.

Dena dela, oraindik ere arazo gertatzen da soziolinguistika eta linguistikaren (edo-ta soziologiaren) arteko zedarriketa egitea; are zientzia horren eta beste batzuren artekoa finkatzea ere; filosofia, antropologia, etnologia, psikologia, kondaira, pedagogia, eta abar. Hori dela eta, zientzia berri honetan egin diren «sarrera» ugari samarretan, zedarriketaren arazoa agertu ohi da beti.

Hona hemen soziolinguistikak eta filosofiak ukitu ohi dituzten arazoen adibide batzu: hizkuntzaren monogenesiaren arazoa, alegia, horrelakorik badagoen ala ez dagoen; hizkuntzaren bilakaera, eta gerozko bestelakotza; gizatalde batetan kokatuz gero, hizkuntza, berorren kanpo-egituraren produktua ote denez ikusmolde honetan filosofia alemanean ere bai (Coseriu, esate baterako), mintzaira, kontzientzia eta gizartearen artean gertatzen den elkar-menpekotza. Logikarekiko harremanak, eta abar.

Hona hemen antropologia, etnologia eta abarrekin, dituen elkar-alderdiak: mintzaira eta kulturaren arteko harremana; mintzaira, nazio eta etniaren artekoa; akulturazioarena, eta abar, tradizio luzekoak direlarik, →Sapir-→Whorf-en eskolaren ildotik, esate baterako. Badaude ere, era berean zenbait aldizkaritan («American Anthropologist» deritzonean, adibidez) soziolinguistikaz argitaratu diren lan ugariak. Badago ere, bestetik, yankeetarra hau ere, «Ethnography of Communication» soziolinguistika-eskola, eta D. Hymes-ek, J. J. Gumperz-ek, eta bestek, eman dituzten lan garrantzitsuak.

Hona hemen orain psikologiarekin dituen elkar-arazo batzu: mintzairaren →jabekuntza eta erabilpena; unibertsal psikologikoak; unibertsal linguistikoak; hizkuntza desberdinen arteko interferentziak, edo-ta hizkuntza bereko moten artekoak →elebitasuna eta →diglosia; motibazioa, balorazioa, leialtasuna, eta abar.

Hona hemen, azkenik, pedagogiarekin batera dauden arazoak, amerikar eskoletan batez ere (nahiz, zenbait aldiz, asiar eta afrikar herrialdeei buruz): eskola mailako elebitasuna. Garrantzitsua da Estatu Batuetan eta Alemaniako Errepublika Federatuan ere, hizkuntz erabileraren arau desberdinen arazoa, hizkuntz →kode desberdinena, eta hizkuntzari buruzko «murrizketa»-mailen arazoa. Honek guztiak ondorio garrantzitsuak ditu zenbait alderditan: «aukeren berdintasuna» deritzonari buruz, hezkuntzazko plangintzetan diru-altxorraren ustiakuntza osoa lortzekotan; eta abar.

Izan ere, eta soziolinguistika izen horretxen bitartez, oso lan-mota desberdinak ezagutzen dira: eskolen arabera, zientzi tradizioen arabera, sortzen edo aztertzen dituzten gizataldeen kezka eta beharren arabera, eta abar.

Horrez gain, eta lan horietan erabili ohi diren teknikei dagokienez, gero eta maizago izaten dira zenbatasunezkoak, estatistikak hazi dituen ikerbideen arabera; gero eta matematikoago ere bai, beronen alderdirik

zabalenean, eta zenbait arazo soziolinguistikori buruz, beste hainbeste eredu matematiko eraiki direlarik. Adibidez: (1) hizkuntza honi edo hari buruz «→hizkuntz menpekotasuna» deritzen hori ote dagoen erabakitzekotan. Gero eta berrizaleago ere agertzen da, eta ikerbide zibernetikoak ere erabiltzen ditu arazo soziolinguistikoak mahairatzeko eta garbitzeko. Adibidez: bi hizkuntzaren artean (edo gehiagoren artean) gertatzen den «interferentzia»ren mota eta maila neurtzeko (2).

Hitz batez, ikergaiei dagokienez, helburuei dagokienez, teori-zientziazko ikusmoldeei dagokienez, eta abar, zientzia nabar eta anizkun agertzen zaigu gaur soziolinguistika; eta horretan sortzen da zientzia hau zedarriztatzekotan dagoen zailtasuna.

Hein batez bederen aisa uler daiteke ñabardura hori; zeren-eta hastapenetako lanak alde batera utzita, zientzia hau berri samarra bait da: 60-etako hamarkadara arte, zientzia autonomorik aipatzerik ez dagoela uste dute ikertzailerik gehienek. Bestetik ere, arrazoi sakonagorik eta argigarriagorik izan daitekeela dirudi zientziaren ikuspuntutik edo-ta zientziaren historiaren aldetik (zeren-eta, beharbada, hizkuntzarekin zer-ikusia duten ikerketetan, halako joera orokortzailea erreparatzen bait da). Badirudi ere arrazoiak izan daitezkeela soziologia orokorraren alderditik; gaur munduko errealitate soziolinguistikoa hain anizkuna eta aldakorra denean.

Ikuspegi horretatik, pisudun gertatzen da eskola eta joera soziolinguistiko desberdinak egotea, gizarte honetan edo hartan joera bereziak onartzea; gurean gertatzen denaren arabera, gizarte honetan edo hartan ez soziolinguistikazko teoriarik egotea, ez praktikarik.

Zientzia honetan gertatu den «boom» harrigarriaz edonolako sarreretan esaten zaiguna kontutan hartuz gero, garbiago agertzen da delako adostasun hori. Bestela ezin uler liteke 1972rako argitara eman den bibliografian (eta →elebitasunari ez besteri emana) 11.006 lanen kopurua iristea; eta hori erabatekoa izateko asmorik ere gabe (3). Honela eta ez bestela uler daiteke, era berean, mota desberdinetako elkarte soziolinguistikoak sortzea: unibertsitate-*katedrak,* biltzarre nagusi, mintzaira-plangintzak finkatzeko gobernu-batzorde, eta abar); edo-ta Quebec-en, «Centre international de recherches sur le bilinguisme» delakoan, 1967an datubanku bat sortu izana. Eta abar.

II. HAREN IZENDAPENAREN ARAZOA

Hein batez esandakoari loturik, zientzia berri honen autoidentifikazioaren eta izendapenaren arazoa ulertzen da. Badira gaur joera batzu.

(1) MACKEY, W. F.: *Bilinguisme et contact des langues,* Klincksieck, Paris, 1976.
(2) OVERBEKE, M. V.: *Mécanismes de l'interférence linguistique,* Fragua, Madrid, 1976.
(3) MACKEY, W. V. (Zuz.): *Bibliographie internationale sur le bilinguisme. International Bibliography on Bilingualism,* Centre international de recherches sur le bilinguisme, Les Presses de l'université de Laval, Québec, 1972.

A) Joera horietako bat arazo honetaz batere kezkarik gabe agertzen da; eta harrerarik zabalena eta anizkorrena onartzen du, edozelako berrikuntza guztiekiko prestenik agertzen, eta orokortzaileena da (eta soziologizaleena ere bai, beraz). Eta joera horretan «soziolinguistika» izendapena agertzen da gailen.

Toronto-n, 1974ean, VIII Soziologiako Mundu-Biltzarre Nagusian izan zen eztabaidan, esate baterako, ea «soziolinguistika» hitzari eutsi behar ote zitzaion hizkuntzen erabilpena baldintzatzen duten ingurunetan, ala, izen hori trukatu, eta «hizkuntzaren soziologia» izendapena hobeki eman behar ez ote zitzaion. Hots, gehiengo handiaz, ohizko «soziolinguistika» izendapenari eutsi zitzaion, nahiz bertako hamaika bileratan aztertu ziren gaiak hauek izan:

1) Hizkuntz zentsua: baldintzak eta ikerbideak;
2) Gobernu eta Nazioarteko betekizunetarako hautatutako hizkuntzak;
3) Hizkuntza eta erlijioa;
4) Hizkuntza hezkuntz zientzietan;
5) Hitzezko egintzen teoria, etnometodologia eta mikro-soziolinguistika;
6) Industrigintza, hirigintza eta hizkuntza;
7) Kataluñar soziolinguistika;
8) Hizkuntz plangintza;
9) Hizkuntza eta nazio-nortasuna;
10) Soziolinguistika txikanotarra;
11) Mintzairaren soziolinguistika iker-sail gisa (4).

B) Beste joera batek, berriz, bakuntasun handiagoa nahi luke zientzia honen ikergaiaz eta ikerbideez; eta areago ere arduratzen da bere zedarriketaz eta izendapenaz. Eta bestetik, nahiz elkarrekin loturik, zientzia autonomo batzu finkatu nahi lituzke:

— edo bi oinarrizko norabide bereziz; eta hauei «Mintzairaren soziologia» eta «soziolinguistika» leritzeke: H. López-Morales-en lanean ageri den bezala, adibidez (5);

— edo-ta hiru norabide bereziz; eta hauei «mintzairaren soziologia», «soziolinguistika» eta «gizarte-linguistika» (edo «linguistika soziodiferentziala») leritzeke; J. B. Marcellesi eta B. Gardi-en sarrera-lan batetan adibidez, agertu denaren arabera (6).

(4) Grup Català de Sociolingüística: *Treballs de sociolingüística catalana,* I, 1974-76. Ponéncies al VIII Congrés Mundial de Sociología (Toronto), Valencia, 1977.

(5) López Morales, H.: «Sociolingüística: nuevos enfoques metodológicos»: *Revista Española de Lingüística,* Año 7, Fasc. 2, 1977.

(6) Marcellesi, J. B.; Gardin, B.: *Introduction à la sociolinguistique. La Linguistique sociale,* Larousse, Paris, 1974.

C) «Soziolinguistika» norabide bakarreko zientzia egiteko joera, besterik gabe, J. A. Fishman, N. Labov, eta beste ikertzaile nagusiren artean aurki daiteke, baita berorien jarraitzaileetan ere, honetarako zientzia honen zedarriketa berezia ematen saiatzen direlarik.

Gure kasuari gagozkiolarik, zuhurtziarik txikienaren ohoretan, eta batez ere egoki datorkigulako (gure egoera soziolinguistikoaren larriarengatik, eta zientzia honetako edozein alderdi, edo berari buruz erakusten dugun ahulezia, ezagutzen dugulako), jokabiderik onena hau litzateke: zabalena, anizkunena, sailartekoena, orokortzaileena, eta murrizketari buruz arriskurik txikienekoa, eta, beraz, aipatutako horien arteko lehendabizikoa (beste biak ere barneratzen bait ditu).

III. JOERA DESBERDINAK SOZIOLINGUISTIKAN

Soziolinguistikaren kondaira egoki bat behar genuke: bateratzailea, kritikoa, orokorra, berrizalea; baina ez dugu horrelakorik ezagutzen.

Horregatik, eta behinbehinekoa izan arrèn, Brigitte Schlieben-Lange-ren sintesi-lan bat hartuko dugu gidaritzat: *Iniciación a la Sociolingüística* (7); eta hor darabilen sailkapen-erizpidea ondoko hau izan arren: Ipar-Amerika (barnean sartuz, multzo berean eta okerbidez gure ustez, bai Estatu Batuak bai Kanada), Britainia Handia, Frantzia, Italia eta Alemaniako Errepublika Federala. Amerikar joerak batetik, diferentziak (nabarrago eta heterogenoago, eta tradizioz eta produkzioz zabalagoak); eta europarrak bestetik, multzo berean sartuta berezten ditu.

Horrez gain, nabarmen gertatzen dira liburuan ageri diren hutsuneak: asko izanik, ez gara hemen konpontzen saiatuko.

Ipar-Ameriketako soziolinguistikaz mintzo delarik, hiru joera aipatzen ditu egileak:

A) Elebitasun eta →diglosiari buruzko ikerketak. Talde honen barruan zenbait autore eta lan konkretu nabarmentzen dizkigu: Joshua Fishman: *Language Loyalty in the United States* (8); Charles Ferguson: *Diglosia;* Wallace Lambert: *A Social Psychology of Bilingualism.*

B) Hertsiki mugatutako gizatalde linguistikoen ikerketak, edo «Urban Language Studies» delakoak. Honi buruz William Labov-en bi ikerlan azpimarkatu behar dira: *The Social Motivation of a Sound Change,* eta *The Social Tratification of English in New York City.*

(7) SCHLIEBEN-LANGE, B.: *Iniciación a la sociolingüística,* Gredos, Madrid, 1977.

(8) 181-196. orrialdeen artean, B. Schlieben-Lange-ren lan honetan aipatzen diren bibliografi aipamenak.

C) «Ethnography of Communication» delakoaren ikerlanak. Eta hauetan gailen: *Dell Hymes-en Toward Ethnographies of Communication: The Analysis of Communication Events;* Jan Petter Blom - John Cumperz: *Social Meaning in Linguistic Structure: Code Seifching in Norway.*

D) Ingalaterra: Ingalaterrako soziologiari dagokionez, Basik Bernstein, eta beronen eskolaz, mintzo zaigu bereziki autorea, eta psikolinguistikak berorien lanetan izan duen eraginaz. Beharbada alemaniar soziolinguistikan Bernstein-ek eragin handiagoa izan duelako, proportzioz letorkiokeen baino aipamen garrantzitsuagoa ematen dio eskola horri; izan ere, gure autorea multzo horren barruan bait dago. Eta berorren lanak aipatzen ditu zenbait aldiz.

E) Frantzia: Frantziako soziolinguistikari dagokionez, berriz, beronen ezak dirudi aipagarriena; eta gure autorea azaltzen saiatzen da. Linguistika frantsesaren tradizio luzean barrena ageri den joerarik berrikoiena, eta hemen aztertzen dugun zientzia berri honen barruan hobekienik ere kokatuko litzatekeena, textu-linguistikari buruzko ikerlanak lirateke. Eta honetan: J. B. Marcellesi: *Analyse linguistique et sociolinguistique du vocabulaire du Congrès de Tours* (8); edo Jean Dubois: *Le vocabulaire politique et social en France de 1869 a 1872, à travers les oeuvres des écrivains, les revues et les journaux* (9).

F) Italia: Italiako soziolinguistikari dagokionez, ikuspegien berrikuntzarik ez da gertatu, eta bere tradizio dialektologikoaren ildotik jarraitu du gehienik; nahiz orain, basotik hirietarako barne-joairaren ondoriozko hizkuntz →egoeraz arreta handiagoa jarri. Turin-go eskola dialektologikoa agertzen da gailen.

G) Alemania: Alemaniako Errepublika Federaleko soziolinguistikari buruz, berriz —eta honetan ezarri du autoreak bere arreta nagusia— bi ezaugarri nagusi bide ditu: ikasleen mugimenduaren bitartez (eta unibertsitate-giroan barrena haren barreiakuntza azkarra lagunduz); B. Bernstein-en teorien onarpena batetik (nahiz bakunduegi eta xinplekiegi lehendabiziko mementuan) eta joera praktikazalea bestetik: alegia, hezkuntzazko politikabide konkretu bat hartu, eta aukera-berdintasuna egiazkoa bilatzea, «hizkuntz baraderen» deuseztatzea, eta horrela pedagogia, hitz batez, zientzia gidari bihurtzea. Joera honetxen barruan, bigarren une bat badago, eta horretan bernsteindar teorien berrikuspena, aberasketa eta egokiera egiten dira Alemaniako egoerari buruz. Hona hemen gailen agertzen diren lan batzu. Ubrich Oevermann-en *Sprache und soziale Herkunft;* Oskar Negt-en, *Soziologische Phantasie und exemplarisches;* Ulrich Ammon-ek, *Dialekt, soziale Ungleichheit und Schule;* Armin Gutt-Ruth Salffner-en, *Sozialisation und Sprache* (8).

(9) Larousse, Paris, 1962.

H) Ikuspegi labur horrek, halako tema-kutsu handiegia du, esate baterako, zientzia hau ez da aipatzen mendebaldeko mundua delakoaren parte batetan baizik. Azken buruan (8) eskaini digun bibliografi hautaketa gerta daiteke interesgarri; hartan hobeki agertzen bait dira eskola eta joera soziolinguistikoetan ageri diren gaiak eta edukinak. Aipatutako autore-lan horiek gomendatuko nituzke nik, eta amerikarrenak bereziki; baina baita hemen aipatu ez diren zenbait autorerenak ere. Einar Haugen, Uriel →Weinreich, eta abar (8).

Beste alderdi batetik, zenbait lan garrantzitsu falta da hor: W. F. Mackey-renak (1), adibidez, edo-ta N. Van Overbeke-renak (2); nahiz beroriek, metodologiaz eta teknikez ekarri duten berrikuntzaren aldetik, eta gure egoera zehatza aztertzekotan duten egokitasunarenetik, lan interesgarriak izan.

Bestetik ere, eman den bibliografia horretan gehiena —eta irakurgarriena ere bai— ingelesezkoa izanik, eta gure artean zientzia hau eskuragarriago egitekotan, egokia da beste bibliografia apur bat bederen frantsesez ematea —oraindik ere zabalduago bait dago hizkuntza hau gure artean—; nahiz hein batez ingelesetik egindako itzulpenak izan (10).

Beste aldetik, eta gure artean izan dezakeen oihartzunarengatik, beste aipamenen bat egingo dugu orain Frantziako eta bestetako soziolinguistikari buruz.

1.—Frantzia

Frantziako soziolinguistikari buruz, eta zientzia batzuk hartua duten joera soziologikoa nabarmena izanik ere, eta linguistikak bereziki, harrigarria da zientzia berri honi datxezkion kezkei buruz horren kanpoan gelditzea; nahiz eta bere egoera soziolinguistiko egiazkoa, bere eremu politikoaren barruan, horren aberatsa (nahiz tristea ere) izan: bai Europan (Euskal Herria, Bretainia, eta abar); bai gainerakoetan munduan zehar (Antillak, eta abar). Jakina, hau ez da batere trabagarria jokabide politiko eta linguisikoak oso kronkretuak izan daitezen; eta aski nabarrak ere bai (11).

---

(10) FISHMAN, J. A.: *Sociolinguistique,* Nathan, Paris, 1971.
LABOV, W.: *Sociolinguistique.* Les Editions de Minuit, Paris, 1976.
BERNSTEIN, B.: *Langage et classes sociales. Codes socio-linguistiques et controle social,* Les Editions de Minuit, Paris, 1975.
WEINREICH, U.: «Unilinguisme et multilinguisme»: *Le Langage* (sous la direction d'A. Martinet), Encyclopédie de la Pléiade, Gallimard, 1968.
Aspects sociologiques du plurilinguisme, Actes du I colloque, AIMAV, Bruxelles 23-25 septembre 1970; Didier, Paris, 1971.
OVERBEKE, M. V.: *Introduction au problème du bilinguisme,* F. Nathan, Paris, 1972.
(11) Esate baterako, aldera frantses hizkuntz politika hori ondoko lan hauetan:
LAFONT, R.: «Un problème de culpabilité sociologique: la diglosie franco-occitane» (8).
BEBEL-GISLER, D.: *La langue créole force jugulée, Étude sociolinguistique des rapports de force entre le créole et le français aux Antilles,* L'Harmattan, Paris, 1976.

2.—Espainia

Espainiako soziolinguistikari buruz, berriz, eta bakandurik gertatu den lan bat edo beste kenduta, orain hasi bide da agertzen halako lekukotza. 1976an, «Metodología de la investigación lingüística» zeritzon sinposio bat antolatu zen Madrillen, «Sociedad Española de Lingüística» delakoak antolaturik; eta Humberto López Morales-ek (amerikarra jatorriz eta Espainian bere hizkuntz lanen aldetik ezagunagoa) txosten hau aurkeztu zuen: *«Sociolingüística: nuevos enfoques metodológicos»;* gero «Revista Española de Lingüística»-n argitaratua (5).

Espainiar hizkuntzalarien artean aztertzaile honek duen lekukotasun-mota dela bide, espainiar soziolinguistika hasi berrian duen eraginaz hitzegin liteke agian, eta hortaz, emandako norabidearen egokitasunaz. Bi metodologi bide aipatzen dizkigu: «hizkuntzaren soziologia» batetik, gizarte-talde desberdinen hizkuntz alderdiak bere gain hartuko lituzkeena; eta «soziolinguistika» bestetik, alegia gizarte-taldeetako mintzairagertakariak ikertuko lituzkeena, baina gizarte-aldaera berezien arabera (etni multzoa, lanbidea, adina, eta abar); eta hizkuntz erabileraren mailen arabera (berezko elkarrizketa, hizkera zaindua, textu irakurria, eta abar), eta W. Labov-en ikerbidearen arabera. Hots, bigarren bide hauxe proposatu zuen, hizkuntzalarientzat interesik handienekoa izan daitekeelakoan. Lan horretan egileak erabili zuen bibliografia ere interesgarri gerta daiteke.

Egia esan, luzaz hitz egin behar genuke zientzia hau Espainian gaur arte sartu ez izanaz. Hain zuzen, ozenki iragarri diren lan eta itzulpen soziolinguistikoak ezagututa (parte batez, jadanik azalduak) kontrakarrean gertatzen da hutsune hori gaitzi eta ezeroso diren arazoei buruz (euskararen egoerari buruz, esate baterako), ahalik eta interesatuenik erabiltzea erabaki dela ez ote da kontraesanaren kakoa?

Nolanahi ere, egiazko espainiar hizkuntz politika, eta beroni dagokion jokamolde etengabea, iruditzen zaigu garrantzitsuena: penintsulako hizkuntza desberdinei buruz erabiltzen diren jokabide desberdinak: munduan zehar espainieraren egoeraz erakusten duen sendiberatasun aparta, batetik, eta euskarari buruz (edo-ta katalanera eta galizierari buruz) erakusten duen soraiotasuna, bestetik.

Badirudi katalandar soziolinguistika aipa daitekeela; eta hauxe esan zuen A. M. Badiak Soziologiazko VIII. Mundu-Biltzarrean (4). Eta zori hutsa ez da, izan, segurki, oraingo joera nagusia H. López Morales-ek «hizkuntzaren soziologia»tzat hartuko lukeena izatea; eta ez, «soziolinguistika» bataiatuko lukeena. Seinale adierazkorra ere bada, izan, Katalunian hasiera-hasieratik joera soziolinguistiko berriak onarturik egotea; zeren-eta 60. hamarkadan bertan argitaratutako lan interesgarriak ere badaude eta.

Badira, bestalde, hein batez gizartekoturik dauden arazo soziolinguistiko katalandar batzu, adibidez: hizkuntz irakaskuntzaren alorrean (Rosa Sensat-en mugimenduaren bitartez, elebitasunari buruzko biltzarre eta egunak, eta abar); Katalunian katalanak izango lukeen ofizialtasuna edo ofizialkidetasuna (baita egunkarietan eramandako eztabaidaren bidez); eta abar. Bartzelonako Unibertsitatean bada, bestalde, soziolinguistikari emandako katedra bat, bere mintegiarekin batera. Badago, era berean, halako nazioarteko lekukotza: bibliografian, biltzarreetan (13), eta abar.

Ekarpen bibliografikoa ere, ugari samarra da; eta honetan Rafael Ll. Ninyoles-en (14) izkribuak gailenerazikо nituzke, batez ere gure artean izan duten eraginarengatik; eta *«Treballs»*en agertu diren lanak, baita zekarten bibliografi aukeraketa ere.

Ez dut uste gaur gaurkoz galiziar eskola soziolinguistikorik aipatzerik dagoenik; nahiz hor egon X. Alonso Montero-ren lan goiztarrak, eta Santiago-ko Unibertsitatearen inguruan sortutako saialdi batzu.

Gure herriari dagokionez, azkenik, egoera tamalgarria da egunoroko gertakari soziolinguistikoen mailan, soziolinguistikari buruzko azterketaren urrian, zientzia honi buruz at egon horretan. Eta honek guztiak azaltzen du hein batean gure bibliografi egoera. Zenbait ekintza hor egon arren, dena dela: ikastolen gorakada, alfabetatze-bultzaldiak, euskarazko argitarapenak, euskararen berrikuntzaren alde egiten diren saiaketak(«Elhuyar» agerkarian, esate baterako), eta abar.

Itz.: *Txillardegi*

BIBLIOGRAFIA

Gai soziolinguistiko hauei buruzko gure bibliografiaz orain, azkeneko urteetan barrena, eta, osotasun-asmorik gabe, hona hemen gure artean zientzia honetako puntuez idatzi denaren berri:

A) Liburuak

— *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros,* Informa Gaur, San Sebastián, 1969.
— *Euskera. Batasuna. Azken araudiak.* Euskaltzaindia, Bilbao, 1969.
— Fr. Luis Villasante: *Hacia la lengua literaria común,* Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate (Guipúzcoa), 1970.
— *Gure ikastola,* Jakin sorta, Editorial Franciscana Aránzazu, 1972.

(12) Adib.: Ninyoles, R. Ll.: *Conflicto lingüistic valencià,* Edicions 62, Barcelona, 1969.
Badia i Margarit, A. M.: *La llengua dels Barcelonins. Resultats d'una enquesta sociològico-lingüística,* Edicions 62, Barcelona, 1969.

(13) 1974ean Toronto-n egin zen Soziologiazko VII. mundu-Biltzarrean, hamaika bilkura izan ziren soziolinguistikazko gaiei eskainiak. Hauetako zazpigarrenak «Sociolinguistica catalana» zeukan ikergaitzat, eta bertan 1977an argitaratutako zenbait lan desberdin aurkeztu zen [4].

(14) *Idioma y poder social,* Tecnos, Madrid, 1972.
Estructura social y política lingüística, Fernando Torres-Editor, Valencia, 1975.
Bases per a una política lingüística democràtica a l'Estat Espanyol, Tres i Quatre, Valencia, 1976.
«Cuatro idiomas para un Estado (El castellano y los conflictos lingüísticos en la España periférica)», *Cambio 16,* Madrid, 1977.

(15) «Ensayo de bilingüística: Galego e castelán frente a frente», *Grial, Revista galega de cultura,* n.º 13, Vigo, 1966.

— José M. Sánchez Carrión: *El estado actual del Vascuence en la Provincia de Navarra,* Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1972.
— José Angel Irigaray: *Euskera eta Nafarroa,* Aranzadi, Pamplona, 1973.
— A. Apat-Echebarne: *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra,* Ediciones y libros, Pamplona, 1974.
— Ibon Sarasola: *Euskal literatura numerotan,* Kriselu, Donostia, 1975.
— Luis C.-Núñez: *Opresión y defensa del euskera,* Editorial Txertoa, San Sebastián, 1976.
— *Euskararen liburu zuria,* Euskaltzaindia, 1977 (versión en español: *El libro blanco del euskara).*
— Iragarria, are aurkeztua ere, izan den lan bat, SIADEKO-k egina, eta honelako izenburu batez argitaratua: «Situación sociológica del euskara». Euskaltzaindiak argitaratuko bide du; «Euskararen liburua zuria»ren segida gisa.


B) Artikuluak

Azurmendi, M. J.: «Algunos aspectos sociolingüísticos del bilingüismo», *Mundaiz,* n.º 5, EUTG, San Sebastián, 1976.
— «Apuntes para una normalización lingüística (respecto del euskara)», 1978an, Peñíscola-ko «Jornadas de Bilingüismo» delakoetan aurkeztutako txostena, *Mundaiz,* n.º 11, 1978.
Irigaray, J. A.: «Aspectos de Antropología sociocultural en la evolución diacrónica del Euskara», *Munibe,* Año XXIX, Fasc. 3-4, San Sebastián, 1977.
Michelena, L.: «Las lenguas y la política», *Doce ensayos sobre el lenguaje,* Publicaciones de la Fundación Juan March, Rioduero, Madrid, 1974.
Rotaetxe, K.: «Metodología para verificación de traducciones de vocabulario de una lengua 'A' a una lengua 'B' en situación de diglosia», Madrilen, 1976an, VI Simposio delakoan *(Metodología de la Investigación Científica),* aurkeztutako txostenaren laburpena bakarrik.
Sánchez Carrión, J. M.: «Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»,* VIII, 1974.
Txepetx (seudónimo de J. M. Sánchez Carrión): «La aportación vasca al Atlas Lingüístico de Europa». *Fontes Linguae Vasconum.* Studia et documenta, Año VI, n.º 18, Instituto Príncipe de Viana, Pamplona, 1974.
Yrizar, P. de: «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico»: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País,* n.º 1, 2, 3, 1973.
— «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo»: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».* VII, San Sebastián, 1973.

Stemma

stemma / stemma / stemme

Tesnière hizkuntzalariaren ustez halako zuhaitz edo «stemma» batez adieraz daitezke perpaus barneko elementuen arteko erlazioak:



Zuhaitz honek, ordea, ongi ageri denez, ez du deusik ikustekorik →Chomsky-k erabiliko zituen zuhaitzekin.

Subjektua

Subjektu eta →predikatu deiturak, zenbaitek baztertu nahi izan ditu, logikarekin zer-ikusi handiegia dutelako edo. Baina horien ordez asmatu nahi izan direnek ez dirudite askoz egokiago. Horrela, batzuk →egile/→ekintza erlazioa proposatu dute.

Tesnière-rentzat, subjektuak ez du inolako lehentasunik. Predikatua baldin bada perpausaren gailurra, predikatuari lehen mailan atxikiak agertzen diren →sintagmetako (aktanteetako) bat besterik ez da izango subjektua.

→Martinet-entzat predikatua eta subjektua perpausaren atal batzu besterik ez dira. Baina hizkuntzalari honen «→hedapenaren teoria» dela eta, derrigorrezkoak ez diren elementuak kenduz lortzen den «perpaus txikienaren» osagaiak bi lirateke (ingelesez edo frantsesez bezala) edo agian lautara irits daitezke (euskaraz bezala; adibidez, *aitak amari gona gorria ekarri dio).* Horretaz, subjektua beste osagarrietatik berezten duena bere derrigortasuna litzateke eta ez inolako erizpide logiko bat.

Beraz, derrigorrezkoa dirudi, bai subjektuak eta bai predikatuak, hizkuntzalaritzari dagokionez, nolabaiteko justifikazio formala izatea hizkuntzan. Horrela, subjektua eta predikatua →izenarekin eta →aditzarekin duten erlazioaren arabera justifika daitezke: subjektua, funtsean, *izena* litzateke, eta predikatua, *berriz, aditza.*

Horretaz, perpaus batetan egile gisa edo predikatuaren euskarri gisa lan egiten duen izen-sintagmari deitzen diogu subjektua.

Kontzeptu funtzional bat denez, gramatika →sortzaileak perpaus-elementuen arteko erlazioaren bidez definitzen ditu bai subjektua eta bai predikatua. Hots: subjektua zerbaiten subjektu da eta predikatua ere, zerbaiten predikatu. Beraz, subjektua perpausaren izen-sintagma delarik, {IS, P} parearen bidez errepresenta daiteke.

Bestalde, subjektuak aditzari →komunztadura eskatzen dionez, pentsa daiteke subjektua aditzari komunztadura eskatzen diona dela. Baina orduan, euskaraz subjektu baten ordez hiru subjektu izan ditzake perpaus batek (ik. gorago, Martinet-en hedapenaren teoria dela eta esandakoa).

Euskarari gagozkiola, badugu beste arazo bat ere, →ergatiboa dela eta. Izan ere subjektua delako horrek itxura desberdina hartzen du aditza →iragankorra eta →iragangaitza denean. Batzuk, proposatu dute *nor sintagma* dela beti subjektu eta *nork sintagma* berriz, pasiboa duten hizkuntzetako subjektu →agente delakoren baliokidea dela. Hau da pasibismoaren teoriak dioena. Baina, agian, →transformazio-bidez sortarazi daiteke *-K* duen izen-sintagma hori. Eta horrela, nor eta nork sintagmaren artean dagoen desberdintasuna zerbait azalekoa litzateke.

Dena dela, predikatuan bezala, subjektu logikoa eta subjektu gramatikala berezi beharko lirateke. Subjektu logikoa sakonekoa izango litzateke eta subjektu gramatikala azaleko egiturakoa. Fillmore-rentzat, aldiz, subjektu/predikatu erlazioa azaleko egituran gertatzen da. Honek *kasuetako gramatika* izenekoa eratu du eta kasu hauen artean bat bada, *egilea,* subjektu logikoari dagokiona.

P. Goenaga

Subjuntiboa

subjuntivo / subjonctif / subjunctive

→Aditzaren →modu bat da subjuntiboa.

→Indikatiboa errealitatearen modua den bezala, subjuntiboa subjektibitatearena da. Honenbestez iritzipenak, zalantzak, nahiak etab. adierazteko erabiltzen da.

Substantiboa

Normalki, izen honekin →*izen substantiboa* deitu ohi dugu. Izan ere, izen substantiboa eta izen →adjektiboa berezi izan ohi dira, alegia beren buruaren jabe direnak (substantiboak) eta beste bati atxikiak behar dutenak izan (adjektiboak). Hala ere, aintzinatean *onoma* izenak adjektiboa eta izena biltzen zituen biak batera.

Erdi Arora arte ez zen bien arteko berezketarik egin. Baina harez gero *izena* beti substantiboa izan ohi da eta adjektiboa, berriz, izen adjektiboa.

Izena, →*erkidea* (nomen appellativum) edo →*propioa* (nomen propium) izan daiteke. Sailkapen honek baditu oinarriak →semantikan baina baita →sintaxi mailan ere. Adibidez, izen erkidea mugatzaileaz lagunduta agertzen zaigun bitartean (*gizon* + *a*), izen propioa normalki, mugatzailerik gabe agertuko zaigu (Peru).

Dena dela, izenaren definizio bat ematea ez da erraz eta historian zehar hainbat eman dira, denak gutxi gora-beherakoak.

Izena beti izen-→sintagmaren ardatza izango da. Eta era horretan pertsona-→izenordeak ere, nolabait, izenaren →kategoriakoak lirateke. Eta izen erkidearen, propioaren eta pertsona-izenordearen arteko desberdintasuna azpikategorizazioari dagokion zerbait litzateke.

Beste sailkapen batzu ere egin ohi dira, baina kontutan hartzen diren →ezaugarriak berez azpikategorizazioari dagozkionak dira; ± abstraktua; ± kontagarriak; ± biziduna...

Askotan perpaus bat —eta bereziki, →aditza— izen bihurturik ager daiteke azaleko egituran (*gauzak ongi egitea ←norbaitek gauzak ongi egiten ditu*). Orduan perpaus hori nominalizaturik dagoela esan ohi dugu. Eta nominalizaturiko perpaus horiek transformazio berezi baten bidez lortzen ditugu.

P. Goenaga

Substantzia

substancia / substance / substance

Hona hemen →Saussure-ren beraren esaldi ezaguna: «Hizkuntza →forma da, eta ez →substantzia». Erizpide hau are muturrerago eramango zuen gero →Hjelmslev-ek. Substantzia hori zer den ikertzerakoan, horretara, funtsean ezezkabidetik egingo da: alegia, forma ez den guztia esango dugu substantzia dela; alegia, erlaziozko egitura-→sistema horretan sartzen ez den guztia. →Glosematikak, horretara, bai →adierazpenaren planoan bai →edukinarenean, forma eta substantzia delakoen arteko loturak ikertzea hautatzen du helburu.

Eman dezagun, adierazpenaren maila aztertu nahi dugula. →Fonologi elementuei buruzko gorabeherak ikertuko ditugu: katea mintzatuan barrena elkar mugatzen eta agerrerazten dute, eta →paradigmen sailean elkarrekiko kontrajartzen.

Horra hor forma. Substantzia, ordea, baliatua izan den gai fonikoa izango da. Erlazio-sistema horrek zertzen du horrela gai fonikoaren saila.

Gauza bera edukinaren mailan. Koloreen multzo osoa substantzia baldin bada, hizkuntza bakoitzak bere ebaketa berezia egiten du hor, eta egitura desberdin bana sortzen. Euskal *hori*-ren muga eta erdal *amarillo, jaune*-rena, ez dira berberak. Substantziaren mailan egiten dugun ebaketa ez da beti bat eta berbera.

Bide honetatik, Hjelmslev-ek eman du →estrukturalismorik zorrotzena eta abstraktuena.

Substratua; superestratua; adstratua

Sin.: AZPIGERUZA; SUPERGERUZA; AZPIESTRATUA

Hizkuntza bat beste bat mintzatua den tokira zabaldu, eta bertako bizilagunek berri hori ikasten dutenean, lehenagotik erabiltzen zen hizkuntzaz leku hartako hizkuntz substratua dela esaten da. Substratu horren eragina hizkuntza berria toki horretan mintzatua izateko moduan nabari daiteke, bai →fonetikan —→hiztunek ia ohartzeke hizkuntza ikasia lehengoaren usadio fonetikoen arabera bait darabilte—, bai morfologian lehengo hizkuntzaren hitz batzu gordez, hitzak herri-→etimologiaz desitxuratuz eta bai →sintaxian ere, hizkuntza berriari arrotz gertatzen zaizkion egiturak, (eta aurrekoan normalak zirenak), erabiliz. Substra-

tuaren eraginak, behin gertatuz gero, batzutan hizkuntza berrian luzaro iraun lezake; baita jatorrizko hizkuntza hil ondoan ere. Honetara, zenbait hizkuntzalariren eritziz, espainieraren ezaugarri berezi batzu (bost →bokalak izatea, eta hasierako f-aren galtzea, esaterako) Burgos aldeko sorlekuaren euskal substratuaren eraginaren ondorio lirateke. (Ik. 15. irudia).

Gaur egun, euskara egiten den, edo duela gutxi egiten zen tokietan, maiz entzuten dira euskara usaineko perpaus pitxiak erdaraz mintzatzean (ha visto un saguchu; no ha dejado en el plato ni ondaquines; ni acierta una, ni urriquemon; dîmelo guchigorabera; esta máquina ya ha pagado su cabeza; me ha dicho mi madre que me dé un pan en ordea...) bai eta erdarazko *z* euskaraz bezala ebakitzea, zenbait tokitan *f* ezin ondo ebakitzea, *r* eta *d* →bokalartekoak ongi ez bereztea, →generoa nahastea (bizkaitar →komunztadura famatuak).

Lehendik beste hizkuntza bat egiten zen lekura helduriko mintzaira berria aldiz, superestratua da. Horretara, espainiera Euskal Herriko eta Hego Amerikako herrialde askotako superestratua da, euskara eta amerindiar hizkuntzak bertako substratua direlarik. Substratuak superestratuen eragina izaten badu ere, ia beti ordea, handiagoa izaten da superestratuak substratuan obratzen duena. Izan ere, superestratua indarrez sarturiko hizkuntza da, gehienetan prestigio sozial, administratibo, politiko edo ekonomiko handiz hornitua, eta piskanaka, →diglosi →egoera baten bidez, substratua zokoratzera zuzendua da, azken buruan berau suntsitu arte.

→Hiztunak gogorki kontrajartzen direnean, edo- ta superestratuzko hizkuntza hori elite batena besterik ez denean (Espainian arabieraz, Ingalaterran eta Errusian frantsesaz gertatzen zena), ordea, superestratua, denboraldi batez halako eragina izan ondoan, erabat gal daiteke bertan, →maileguak-eta utziz.

Bi hizkuntza elkarren ondoan, zein bere muga jakinetan daudenean, bakoitza bestearen adstratua dela esaten da. Kasu honetan ere, elebidunen bidez, elkarri eragiten diote, prestigio, indar, usadio, zabalera eta harreman desberdinen arabera. Adstratuaren eraginik nabarmenenak hitz mailegatuak (bizk. *bentana,* gip. *duro*) eta kalkoak izaten dira (*betaurreko,* cfr. gazt. *anteojo; esan gabe doa,* cfr. fr. *ça va sans dire...*).

X. Kintana

Sudurkaria

nasal / nasal / nasal

Artikulazioaren aldetik, honako →ezaugarri hau aurkezten dute sudurkariek: laringetik datorren airearen parte bat sudurtzuloetatik barrena irteten da, →aho-gingila jaistearen ondorioz. Airearen bidebanatze honek ahoko durundigile edo erresonatzaileari gehigarrizko durundigile bat eranstea dakar. →Akustikaren aldetik, sudurkariak →ahokariei aurkajartzea ezaugarri hauetatik dator: →formanteen →intentsitatearen murriztea, energia →maiztasun-xingola zabalagotan barreiatzea eta formante gehigarriak sartzea.

→Kontsonante ahokarien eta kontsonante sudurkarien arteko →aurkakotasuna ia hizkuntza guztietan ematen da. Artikulagune guztietan (→ezpainkariak, →horzkariak, →sabaikariak, →belareak) aurki daiteke kontsonante sudurkariren bat, baina usuenak [m] sudurkari ezpainkaria eta [n] horzkaria dira. Euskarak aurkezten du →fonema sudurkari sabaikari bat ere [n̯], *andereño* hitzekoa, adibidez. Fonema sudurkarion gauzatze fonetikoa oso lotua dago →textuinguruari, artikulagunea textuinguru honen arabera aldatzen delarik. Fonemok, bestalde, neutralizatu egiten dira hainbat lekugunetan.

→Bokal sudurkari eta ahokarien arteko →aurkakotasuna oso bakan ematen da Europako hizkuntzetan, frantsesa, portugesa eta poloniera (eta euskara zaharra) salbu.

Superlatiboa

superlativo / superlatif / superlative


Alderaketak egiten direnean, bi mailatan egin daitezke:

1. *berdintasunean*
2. *desberdintasunean*

Desberdintasunean, berriz, goreneko mailari superlatiboa deritzo:

Emakumeetan ederrena
Ardorik garestiena

Bi kasu horietan, *superlatibo erlatiboa* dugu; besteekin alderaturik agertzen bait da gailen.



15. Ird. **Italian substratuaren eraginez sortutako zenbait zatiketa dialektal (Von Warburg, 1971).**

Baina, zenbait aldiz, *hutsik* ager daiteke superlatiboa:
Oso ederra da
Biziki garestia da

Superestratua
Ik. SUBSTRATUA; SUPERESTRATUA; ADSTRATUA

Superbizipena
Ik. ARKAISMOA

Supinoa
supino / supin / supine
Latinezko gramatikan, →aditzaren izenforma bat da supinoa, →erroari *-tu* atzizkia erantsiz lortzen dena. Hiru forma aurkezten ditu: *-um* supinoa, →akusatibo baten zer-egina betetzen duena *(eo lusum)*, *-ui* supinoa, →datibo-→funtzioa duena, eta *-u* supinoa →ablatibo-funtzioan *(facilis dictu)*.

Sva
schwa / schwa / schwa
1. Hebraieraz «ezereza» esan nahi duen hitz baten transkripzioa da termino hau. Batzutan, [ə] →bokal neutro eta erdikoa, frantsesez *«e* mutua» edo *«e* orokorra» deitzen dena eta beste zenbait hizkuntza erromanikotan sarri lekugune →atonoan agertzen dena, adierazteko erabiltzen da.
2. →Indoeuropar hizkuntzen arteko zenbait korrespondentzia $schwa_1$, $schwa_2$, eta $schwa_3$ bokalezko →soinu-sail baten bidez azaldu da: horrela, latinez *jacio/jeci*-n gertatzen den a/ē alternantzia, jək (zero gradua) eta jaek (e gradua) direlakoen bidez azaltzen da,ə-k *a* eta *ae*-k *ē* ematen duelarik.

Svarabhaktia
svarabhakti / svarabhakti / svarabhakti
→Kontsonante-talde baten barruan bokal bat tartekatzeari esaten zaio *svarabhakti;* horrela, *garazi* sortu da *gratia*-tik.

T

Tagmemika
tagmémica / tagmémique / tagmemic
Pike hizkuntzalariak proposatutako «teoria tagmemiko»aren arabera, bi maila berezi behar dira →hizketaren mailan.
Badago, batetik, ikuspegi *etikoa:* hauxe da distribuzionalismoarena; hizkuntzaren fenomenoaren azterketa egiterakoan, beronen «→corpus»-a hartu eta objektu gisa ikertzea. Eta badago, bestetik, ikuspegi *emikoa:* hizketa jokabide bat da, inguruneak baldintzatua; eta esaldi bakoitzean jokabide-unitate bat ikus daiteke.

Tautologia
tautología / tautologie / tautology
1. Ideia edo pentsamendu bera era desberdinetan adieraziz errepikatzea da. Gehienetan errepikapen oker eta alferrikakotzat hartzen da.
2. Izenak eta izendapenak gauza bera esan nahi dutenean ere, tautologia dagoela esaten da. Adibidez, *Aldapetako aldapa, Palacio (jauregi) de Jauregi,* etab.

Taxonomia
taxonomía / taxinomie / taxonomy
Edozein elementu-sailkapen egiten delarik, *taxonomia* egiten da. Hizkuntza bati dagozkion perpausen multzoa aztertuz, horretara, elementu-zerrendak egin; eta, elkarketa-→erregelak emanez, perpausak sortzeko bidea eman.
Distribuzionalismoak eta →estrukturalismo zaharrek proposatu duten →eredua, taxonomi bidezko eredua da.

Teinkadura
tensión / tension / tension, tenseness
Teinkadura, ahoko fonazio-organoek egindako giharreen ahaleginaren bortizketa da, eta biriketako airearen presio gogorragoak laguntzen du. Bestela berdinak diren bi →artikulazio bereziz, →fonema teinkoak (kontsonantezko nahiz →bokalezkoak) fonema nasaiei oposatzea zilegiztatzen du teinkadur desberdintasunak hizkuntza askotan.

Textuingurua
contexto / contexte / context
1. Unitate jakin baten aurretik eta atzetik doazen unitateei esaten zaie →*textuingurua* edo *hitzezko textuingurua.*
2. Hizkuntzaren erabileraren *gizarte-ingurunea* deitzen da askotan gizarte-jokabidearen eta hizkuntz jokabidearen arteko

harremanak aztertzeko kontutan hartzen diren baldintza sozialen multzoa. *Egoerazko inguruneaz* ere hitzegiten da: esamolde honek, →igorlea eta →hartzailea bata bestearen kultur maila, egoera psikologiko, esperientzia eta ezaguerez jabeturik egotea adierazten du.

3. Gramatika sintagmatikoek asko erabiltzen dute *textuinguru* nozioa: berorien artean, gramatika textuinguruari lotuak eta gramatika textuinguruari ez-lotuak berez daitezke. Eman dezagun →berridazketa-→erregela hau:

$$I \rightarrow I + \text{eta} + I$$

Erregela honi textuinguruak ez dio inolako zedarriketarik jartzen. Aski da I azaltzea erregela aplikatzeko.

Alderantziz, I ez badago I + eta + I bezala berridazterik, baldin ez badu aurretik nahiz atzetik edo aurretik eta atzetik zenbait unitate, erregela textuinguruari lotua dagoela esango da eta honela adieraziko da: I → I + eta + I, X + ... + Y textuinguruan. Hau da, I aurretik X eta atzetik Y dauzkanean berridatz daiteke I + eta + I bezala.

Thema

tema / thème / theme

Baiezko perpaus batetan, nolabait mugatuko den →arartegabeko osagaiari (izen-→sintagmari) esaten zaio thema: thema, perpausaren →subjektua izan daiteke ala ez (adib.: *liburua mahai gainean dago* perpausean *liburua, ikusi genuena Pello da* perpausean *Pello*.

2. →Erroaz eta enbor-→bokal (e/o) batetaz osaturiko →erradikalari *enborra* esaten zaio: enbor-bokalari zuzenean eransten zaizkio →aditz-→desinentziak (aditzetan) eta →kasu-desinentziak (→izen eta →adjektiboetan). Latinezko *dominus* →hitzean *(dominos* jatorrian) erroa *domin-* da, enbor-bokala *-o-*, desinentzia *-s* eta enborra *domino*.

Tipologia

Hizkuntz tipologia hizkuntzen arteko etorkizko harremanik kontutan hartzen ez duen hizkuntzen sailkapena dugu, edo Bressler-ek esan bezala, hizkuntzen sailkapenerako baliagarri diren kategorien mugaketa. Bi dira haren oinarriak, bata hizkuntzak konpara daitezkeelako hatsarria, eta hatsarri horrek aurrejartzen duen tipologia bera egitear bihurtzen duten hizkuntz unibertsalak.

Hizkuntzalaritza konparatzailearekin batera proposatu egin zen lehenengo tipologia August Wilhelm Schlegel-ena dugu (1818). Haren ustez hiru dira hizkuntz motak: →isolatzaileak, →eransleak eta →flexiboak. Lehenengoetako adibide klasikoa txinera da, hizkuntza horretan ez bait dira hitzak formaz aldatzen. Bigarren motakoen artean turkiera jar daiteke etsenplu bezala, hizkuntza horretan ez deklinatzen diren hitzek ez eta hitz horiei eransten zaizkien →atzizkiek aldaketarik jasaten ez dutelako:

ev:	etxea
evler:	etxeak
evim:	nire etxea
evimdem:	nire etxetik
evlerimdem:	nire etxeetatik

Mende honen hasierakoa, berriz, Fincken sailkapena dugu. Berak zortzi tipo berezten zituen erizpide gramatikalak eta semantikoak erabiliz. Haren ustez hizkeraren akzioak bi atal zituen:

1. →Egoeraren analisia beraren elementuetan.
2. Egoeraren sintesia edo beraren berrosaketa hizkuntzaren hitzen bidez.

Analisiaren arabera honako zortzi tipo hauek ematen zituen:

1. Eskimoera: hitz batez egoera batetako elementu bat baino gehiago adierazten da.
2. Turkiera.
3. Georgiera.
4. Arabiera.
5. Txinera: hitz batez egoera batetako elementu bat besterik ez da adierazten.
6. Grekoa.
7. Samoera.
8. Subiya: hitz batez egoera batetako elementu bat baino gutxiago adierazten da.

Sintesiaren arabera, ostera, honako hau zen haren tipologia:

isolatzaileak:
- Txinera (erro-bakarkorra).
- Samoera (enbor-bakarkorra).

flexiokorrak:
- Arabiera (erro-flexiokorra).
- Grekoa (enbor-flexiokorra).
- Georgiera (talde-flexiokorra).

Elementuak oinarriarekin nahastugabekoak:

Subiya (juxtajarria).
Turkiera (eranslea).
Eskimoera (polisintetikoa).

Saio honen ostean →Sapir-ena eta Greenberg-ena aipa daitezke, Praga-koek egin zutena ahantzi gabe. Sapir-en sailkapena oso konplexua da, eta hizkuntzek adierazten dituzten kontzeptu-motetan jartzen du erizpide nagusia, h.d., 1. oinarri-kontzeptuak (1. taldea) eta kontzeptu erlazionalak (4. taldea) bakarrik adierazten dituzten hizkuntzek; 2. aurreko kontzeptu-motez gain kontzeptu eratorriak ere adierazten dituztenak; 3. oinarri-kontzeptuak (1. taldea) eta kontzeptu erlazional nahasiak (mixed relationed concepts) (3. taldea) adierazten dituztenak, eta laugarrenez, 1., 2. eta 3.taldeko kontzeptuak adierazten dituztenak. Gainerakoan, sintesi-maila eta teknika ere kontutan hartzen ditu. Greenberg-ek zenbait indizetan oinarri duen sailkapena proposatzen du. Honako hauek dira berak proposaturiko indizeok: 1. hitz bakoitzeko →morfemen kopurua ematen diguna edo sintesi-indizea; 2. eransketa-indizea edo eransketan gertatzen diren forma-aldaketen berri ematen diguna; 3. hitz bakoitzeko morfema-moten kopurua ematen duena. Ingelesez, esate baterako, hitz bakoitzak sustrai bat bakarra du gehienetan. Azkenez, 4. indizea hitz bakoitzeko →hizkien kopurua ematen duena dugu eta boskarrena harremanak adierazten dituen indizea, dela ordenaren arabera markatuak direlako, edo dela →komunztaduraren arabera markatuak direlako.

A. Eguzkitza

Tonikoa

→Azentu tonikotzat edo-ta →intentsitate-azentutzat, energi azentu edo azentu dinamiko bezala ere ezagutua, arnasbeheraren indar berezíaz egiten den azentua da (ikus *azentua*). Espainierazko azentua, kasu batez, toniko da:

está, ésta

Azentu honek, espainierazko aurreko adibidean bezala, berezte-→funtzioa betetzen du libre den hizkuntzetan, h.d., beraren kokamendua →textuinguru fonikoak edo morfologiak mugatua ez denean. Ingelesez, esate baterako:

cóntent: eduki / *contént:* pozik

eta italieraz gauza bera:

áncora: aingura / *ancóra:* oraindik

Bete ditzakeen beste funtzio biak gailur-funtzioa eta funtzio zedarritzailea dira. Lehenengoak talde edo unitate foniko baten gailurra markatzen du, bigarrenak, ostera, →hitzaren amaiera, frantsesez bezala, edo hasiera, txekieraz bezala.

Azkenez greziar eta erromatar gramatikalariek ematen zioten zentzua aipa daiteke, h.d., goratasun-azentuarena tonu-azentuarena, latinez eta grekoz zegoen bakarra, alegia.

A. Eguzkitza

Tonua

Hizkuntza baten →*morfemak* ezaugarritzen dituen →soinuaren altuera edo →maiztasuna da →tonua. Horra hor *altuera-azentua.* →Prosodi gertaera *diskretua* da; eta *tonu-hizkuntza* deritzen horietan, →funtzio →*bereizleak* izaten ditu. Kongo-ko lonkundo hizkuntzan, esate baterako:

bòkòngò hitzak «bizkar» esan nahi du.
bòkòngó hitzak «hondar» esan nahi du.
bòkóngó pertsona-izena da.

(Oharra ` = tonu *lodia;* ´ = tonu zorrotza edo garaia).

Nahiz tonuari halako *melodi mugimendua* atxeki, ondoko hauen artean berezten da:

— *tonu puntualak,* melodiaren mugimenduaren arabera definituak. Adibidez: tonu *gora, ertaina* eta *apala;* eta →*silabako* bat eman ohi dena, *altuerari* datxekion prosodi →ezaugarri bereizlea, *silabarteko* motari dagokionez (ikus gorago aipatutako adibideak).

— *tonu melodikoak,* melodi kurbaren norabidearen arabera definituak. Adibidez: tonu *goranzkoa, goranzko-beheranzkoa,* eta abar. Jakobson-en hitzez esatekotan, *endosilabiko* deritzan motakoak.

Zenbait hizkuntzak bi tonu-mota horiek egiten dituzte, itxura denez. Beste zenbait aldiz, berriz, *tonu puntualen* eta

→*«morazko azentu»en* elkarketaz gertatzen bide dira.

Hizkuntza batetan →*azentua* eta *tonuak* batera datozenean, azentudun lekuetan baizik ez dira aurkajartzen.

Altuerako aurkakotasuna erlatiboa da, ez absolutua.

Tonuak ez du, dena dela, →intonazioa baztertzen. →Azkuek, eta beste batzuk ere, euskal azentuan *tonuari* dagokiona, →*intentsitateari* dagokionari nagusitzen zaiola uste izan zuten.

J. R. Zubiaur
itz.: *Txillardegi*

Ik. INTONAZIOA; AZENTUA

Toponimia

toponimia / toponymie / toponymy

Toponimia, leku-izenen jatorriaz, herrialdeko hizkuntzarekiko haien erlazioetaz, beste herrialdetako hizkuntzekikoetaz edo desagerturiko hizkuntzekikoetaz arduratzen den →linguistikaren zatia da. Lurralde jakin batetako leku-izenen multzoari ere *toponimia* deritza, *toponimia handia* eta *toponimia gutia* bereziz, lekuaren handitasunaren arabera.

Toponimiak konstatazio jakingarri hau egiten du, besteren artean: herrialde batetako leku-izenen eta hartan mintzatzen den hizkuntzaren artean ez dela maiz erlaziorik ikusten. Honela, eta →substratuen eragina dela medio, euskarazko hainbat leku-izen aurki daiteke euskara aspaldidanik galdua duten Andorra eta Errioxa Garaian, esaterako.

TOVAR, Antonio

Valladolid-en jaio zen 1911an. 1942an Salamanca-ko unibertsitatera irakasle bezala helduko da 1951tik 1956ra dagoen tartean bertan erretore delarik.

Buenos Aires, Tucuman (Argentina), eta Illinois-ko (Estatu Batuak) unibertsitateetatik igaro ondoren Tubingen-era (Alemania) dator. Hemen azken hamabi urte hauetan Hizkuntzalaritza konparatuko katedraren arduradun izan da.

Tovar idazle oparoa da. Liburu eta artikulu asko idatzi du hizkuntza desberdinetan, eta ez hizkuntzalaritzaren alorrean bakarrik; filologia, arkeologia, historia etab. ere bere iker-lanen eremuan sartu dira.

Euskarari eskaini dizkion idatzien artean aipa ditzagun *La Lengua Vasca* (1954) *El euskera y sus parientes* (1959), *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* (1980)

Euskararen alorrean egin dituen lan baliotsuengatik Ohorezko euskaltzain dugu ikertzaile nekagaitz hau.

Trabatua

trabado / entravé / blocked

→Kontsonantez bukatzen den →silaba batetan dagoen →bokalari esaten zaio trabatua. Bokal trabatua bokal →askeari aurkajartzen zaio. *Gurdi* hitzean, [u] trabatua da, ez, ordea, [i] bokala.

Transfert

transfert / transfert / carryover, transfer

Berez multzo bati dagokion unitate bat, zenbait aldiz beste multzo bati dagozkion →erregelen arabera erabilia aurkitzen dugularik, «translazio» edo «transfert» bat gertatu dela esaten dugu (Tesnière).

Esate baterako: *pizti ikaragarria da* perpausean, «ikaragarri» hori →adjektiboa da. Baina *ikaragarri zehaztu da* perpausean, →adberbio gisa erabiltzen da (= ikaragarriro).

→Hitzak, adjektiboen multzotik adberbioen multzora pasatuz, →*klase-transfert* bat jasan du.

Transformazioa (Harris-Chomsky)

Transformazioen betekizun orokorra hau da: intuizioz erreparatzen ditugun desberdintasun semantikoak, nahiz aktualizatutako katean ageriko desberdintasunik ez egon, formalki azaltzea, eta, era berean, bi perpaus desberdinen semantikazko berbertasuna azaltzea.

Harris-ek (1952ko «Discourse Analyses» delakoan bereziki) ia beti aipatzen du perpausen →baliokidetasuna; eta hau, beraren ustez, →esanahietara jo gabe, forma eta →banaketak soilik kontutan hartuz muga daitekeela dio (esandako izk., 19). Perpaus-molde batetik bestera igarotzean, elementu lexikalak beren horretan uzten dituzte transformazioek (→flexioari dagozkion aldaketa batzuk gora-behera); harreman gramatikal eta semantiko berberak gertatzen dira unitate lexikalen artean; →adierazia, bere

funtsezko moldean bederen, ez da aldatzen; transformazioak, ordea, elementuen ordena alda dezake, zati hau edo hura azpimarratuz (topic-comment), elementu semantiko batzuk gaineratuz edo kenduz; edo perpausetako batek, besteak baino elkarketa-aukera gehiago izatea gerta daiteke. Formula hauek: «N_1 vVN_2» eta «N_2V+N_1» (= «N_2 vbe Ven by N_1») baliokideak dira; alegia, transformazio bidez daude loturik, elementu lexikal berberen →txertakuntza posible delako (hautakortasun berbera):

(The boss)$_{N1}$ (fir-$_v$-ed$_v$) (Jim)$_{N2}$ →
Jim$_{N2}$ was$_{vbe}$ fired$_{ven}$ by the boss$_{N1}$

Bere ikerbidearen onuragarritasunaz erabat sinetsirik, berak emanda zituen adibide ugarien kontra-garrantzi egokia ez zuen erreparatu ere egin. Transformazioen azalpena ezin daiteke →banaketa-gaitasunetara muga. Eta honek ondorio honetara darama →Chomsky: nahiz eta →corpus bat nahi bezain handia izan, egin daitekeela berorren bitartez, eta beste laguntzarik gabe, hizkuntza baten gramatika osorik, horretarako idorobiderik («discovery procedures») batere ez dagoelako. Harreman horiek ez dira, besterik gabe, «azalean» erreparagarri. Banaketazko erregulartasunak, →hiztunaren →gaitasunari loturik dauden errealitate-agerpen abstraktuagoak dira. Haurrak, esate baterako, ez du ikasten perpaus aktiboak pasibo bihurtzen, baizik-eta →edukinen →adierazpenen bi hautu ditugula. →Sakoneko egitura berberaren bi →eratorpen desberdinen aurrean gaudenean, bion arteko harremana badago transformazio bidez. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus *Banaketa, Gramatika: ulerbide batzuk,* eta *Estrukturalismotik Gramatika Sortzailera* artikuluak.

Txillardegi

Transkripzioa

transcripción / transcription / transcription

Transkribatzea, hizkuntza mintzatuaren unitate →diskretuak eta unitate grafikoak bata bestearekin zehazki egokieraztea da; transkripzio fonetikoak ere egokierazi egiten ditu hizkuntza batetako →fonemak Nazioarteko Alfabeto Fonetikotik harturiko →ikur banarekin. Transkripzioa (hautaturiko →alfabetoa edozein delarik ere) argi eta garbi berezi beharra dago →izkribakeratik. Transkripzioak esan dena forma grafikotan gordetzeko joera du ezer gehitu edo ezabatu gabe. Izkribakera, aldiz, →sistema gutxiasko autonomoa da.

Translazioa

translación / translation / translation

Hitz bat, *A* →klasekoa izanik ere, *B* klasekoa balitz bezalaxe erabiltzen denean, *translazio* bat dela esango dugu. Esate baterako: *oso gizona da,* beste perpaus honekin aldera dezagun, *oso ederra da*rekin; →banaketari dagokionez, klase berekoak dira [gison] eta [eđeř]; nahiz lehenengoa →*izena* izan, eta →*adjektiboa* bigarrena. Kasu horretan, *translazio* bat gertatu dela esango dugu: *gizona* (bizidun, izena), *ederra* adjektiboaren kide gisa agertzen da.

Triala

trial / triel / trial

→Izen-→kategoriaren →kasu gramatikal bati esaten zaio *triala:* hizkuntza batzutako izen kontagarrietan, «bat» (→singularra), «bi» (→duala) eta «hiru baino gehiago» (→plurala) kontzeptuei oposatuz, «hiru» kontzeptua adierazten du.

Trinkoa

denso / dense / compact

Terminologia zaharrean, aho-muskuluen →teinkadura ahulari buruz neurrigabea den aire-igorpen oso bortitz batez gauzatzen diren →kontsonante →herskariak (terminologia horretan «mutuak» deituak) izendatzen ditu trinko hitzak. Indartsuegia dirudi airearen presioak eta sarritan hats-ukaldi edo →hasperenketa moduko zerbait sortzen du.

Triptongoa

triptongo / triphtongue / triphthong

→Bokalezko hiru tinbre desberdin dituen →bokala da triptongoa; adibidez, *beau* frantses zaharrean edo *fire* eta *house* ingelesezko hitzak.

TROUBETZKOY, Nicolai

1890ean jaio zen Moskun familia aristokratiko baten barruan. Oso gaztetandik (13-15 urte) hizkuntzalaritzaz arduratzen hasi zen.

Behin unibertsitatean →indoeuropar hizkuntzen gramatika konparatua ikasi zuen.

Handik urte batzutara mintzairaren gertaera fonikoez arduratzen hasten da eta lan hauengatik da, hain zuzen, gaur ezaguna Troubetzkoy.

R. →Jakobsonekin harremanetan jarriko da eta 1928.urtean biak Praga-ko Zirkulu Linguistikoan aurkitzen ditugu. Zirkulu hau →fonologiari buruzko ikuspuntu berriekin agertuko da Kongresu desberdinetan (beste zenbaiten artean Praga-n, 1929, Amsterdam-en 1932, Erroma-n 1933, Kopenhave-n 1936) eta Troubetzkoy-k partaidetza garrantzitsu bat eskaini zuen lan hauek prestatzen.

Idatzi zituen artikuluen multzotik bi aipatuko ditugu: *Zur allgemeinen Theorie der phonologischen Vokalsysteme, Anleitung zu phonologischen Beschreibungen.*

1939an, bera hil ondoren argitaratu zen *Grundzüge der Phonologie* liburuak jasotzen du fonologiari buruzko haren ikuspegia.

Bere aitzindariekin zordun bada ere, Troubetzkoy lehenengoa izan zen →fonemaren definizio zientifiko bat ematen. Definizio hau J. Baudouin de Courtenay-k eman zuenari aurkajartzen zaio azken hau psikologikoegia delako eta baita Lev Vladimirovitch-enari ere fonetikoegia delako.

Fonemaren definizioa, bereiztasun kontzeptuaren eguneratzea, →neutralizazioa, →aurkakotasunen tipologia bat egitea (→pribatiboak, →aldebikariak, etab.), haren lan-eremuan sartu ziren.

Berak landutako hainbat kontzeptu eta prozedura zorroztu dira, baina obra bere osotasunean fonologiak geroztik izan duen garapenaren oinarrian dago.

Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik fonologiak bere status zientifikoa Troubetzkoy-ri esker hartzen duela esan daiteke.

Trukaketa

conmutación / commutation / commutation

Trukaketa deritzon proba maila fonikoan erabili zen aurrenik; eta →Jakobson-ek azaltzen duen helburuan egiten zen: hitz batetan segida foniko bat kendu, eta berorren ordez beste sgida foniko bat tartekatu; eta horrela, eta hizkuntza berean beti, beste hitz bat aurkitu». Trukaketa-bide hau erabiliaz, gauza batzu lor daitezke. Alde batetik, →fonema berberak bi →alofono (edo gehiago) izan ditzakeela hizkuntza batetan jakitea:

eusk. [eɾan] = [eRan] (fonema bakar bat)

Eta bestetik, →adiera aldatzen denean, berriz, bi fonema ditugula:

eusk. [eśkeɾ] ≠ [eskeɾ]

«esker» ≠ «ezker»

→Aurkakotasunean agertzen diren bi fonema horietan beraz, (/ś/ eta /s/ gure adibidean), →ezaugarri batzu berberak dira; baina beste batzu ez. Gure etsenplu honetan, esate baterako, «→igurzkari» ezaugarria edo «→gor» delakoa, biek dituzte; eta ez dira, beraz, aurkakotasun-sortzaile. Artikulagunea, berriz, bai: *→apikaria / →mingainkaria.*

Trukaketaren bitartez lortzen ditugun ondorioek, hizkuntza batetan balio dute; baina beste batzutan ez. Zenbait hizkuntzatan /ɾ̄/ eta /R/ bi fonema desberdin dira; baina euskaraz ez dira.

Trukaketa *→morfosintaxiaren* mailan erabiltzen da gaur (→Chomsky-ren eskolan bereziki). *Gizon hau/gizona* bikoteak, kasu batez, *hau* eta *-a* →sintaxi-→kategoria berean sartzera bultzatzen gaitu.

Turing

turing / turing / turing

«Turing-en makina» deitu ohi dena, ez da, izan, matematikazko ideia baten irudia baizik.

Leibriz-ez geroztik, eta algebraren bitartez, kopuruak erabili beharrean →letrak ere erabil daitezke.

Baina edozein algoritmoz baliatzeko gauza izango litzatekeen *automatari,* Turing-en makina deritzo.

Gramatika →sortzaileak ematen dituen →berridazketa-→erregelak, honetara, eragiketa automatikoak dira.

Txandaketa

Sin.: ALTERNANTZIA

Erregularki elkarrekin truke egiten duten *→fonemen* korrespondentzian datza txandaketa, forma-sail desberdinetan barrena:

— *bokalikoa* izan daiteke: Alem. B*u*x, B*ü*xen; fr. p*eu*vent, p*ou*vons.

— edo *kontsonantikoa:* Fr.: *vif - vive.*

Gerta daiteke, era berean, →*prosodi* →*ezaugarrien* arteko txandaketa. Adibidez:
— *kantitatezkoa, txekieraz.*
— *azentuzkoa, errusieraz.*
— *tonuzkoa, mixtekoz.*

Garde-ren ustez, *fonemen* arteko *mugak* eta →morfemen arteko mugak batera gertatzen ez diren hizkuntzetan, gertatu ohi dira eskuarki alternantziok. Hau da, *morfemek* ez dituzte beti →*ezaugarri* →*bereizle* berberak agertzen.

Amerikatar Morfofonemikak, *morfema* berberaren →*alomorfoen* arteko txandaketak ditu aztergai.

Ezagunak dira, bestalde, indoeuropar hizkuntzetan gertatzen diren txandaketak.

Ik. INFLEXIOA; SANDHIA

J. R. Zubiaur
Itz.: *Txillardegi*

Txertakuntza

incrustación / enchâssement / embedding

Kontzeptu hau gramatika bihurtzailean erabiltzen da gehienik; eta elementu bat *tartean* sartzeko eragiketa adierazten du. →Erlatiboa, esate baterako, txertakuntza bidez sartzen da perpaus nagusiaren barruan:
gizona azkarra da
gizona etorri da
Eta, hortaz:
etorri den gizona azkarra da.

Txipigarria

diminutivo / diminutif / diminutive

Sin.: DIMINUTIBOA

Txikitzat hartzen den eta gehienetan →konnotazio →hipokoristikoz hornitua dagoen objektu bat aipatzen duen →izenari *diminutiboa* deritza. Laburduraz lor daiteke *(Peñan,* Fernandoren ordez), →horzkarien palatalizazioaz *(Maddalen, ttipi, txakur, Mañu),* →atzizki diminutiboak erantsiz *(umetxo, andereño, urrunsko).*

Txistuzkoa

sibilante / sifflante / sibilant

→Kontsonante →igurzkarien azpitalde bat dira *txistuzkoak,* →albeolare edo →horzkari eta →apikari edo mingainaurreko bezala gauzatuak. Akustikoki, kontsonante barreiatu, →zorrotz, →etengabe, karrankariak dira txistuzkoak.

Txistuzkoak, txitxekariak bezala, mihia kanale-forman jarriz gauzatzen dira, honela espirantizazioa bortitzagotuz eta airea zurrunbiloka jaurtikiz. *Txistuzkoa* terminoa, ordea, txitxekarien eta beste igurzkari guztiena baino frekuentzi erregistro garaiagoak (8.000-9.000 bat hertziotakoak) sortzen duen entzute-inpresioari dagokio.

→Fonema arruntak dira txistuzkoak munduko hizkuntzetan. Zenbait hizkuntzak ez du fonema txistuzko bat besterik: [s] gorra, alegia, →textuinguru batzutan [z] →ozen bezala gauzatua. Euskaraz, bi igurzkari txistuzko bereizten dira, biak gorrak direlarik eskuarki: *zen* hitzaren [s] txistuzkoa, mingainkari-albeolarea da, eta *sen* hitzaren [ś], apikari-horzkaria.

Txutxumutxua

cuchicheo / chuchotement / whisper

Txutxumutxuzko ahotsa, →ahots-kordek arnasketa normalari dagokion lekugunearen (ahots-kordak berezirik eta glotia irekita) eta fonazioari dagokionaren (ahots-kordak elkar ukitzen dutela eta glotia itxirik) tarteko lekugunea hartzen dutenean, direlako ahots-korden dardarak sortzen duen laringeko burrunbada da. Txutxumutxuzko ahotsa sortzeko, ahots-kordak hein batetan baturik daude, baina aritenoideoen artean dagoen glotiaren zatia irekia dago airea igarotzen utziz. →Soinu-iturburua, orduan, aire-zurrust antzeko isurtze-hotsez egina dago, zeinak gloti gainetiko barrunbe guztiak zeharkatzen bait ditu eta →mezu fonikoaren →euskarri-zeregina egiten bait du. Txutxumutxuzko ahotsak artikulazioaren irudi osoa ematen du funtsean eta normalean →adierazpen fonetikoa entzuteko eta harmoniaren aldetik aztertzeko aukera ematen du. Hala ere, intentsitatea motelagoa da hemen, eta irispidea murriztuagoa, ahots normalaren kasuan baino.

U

Ubula
Ik. AHO-GINGILA

Ubularra
Ik. AHO-GINGILEZKOA

UHLENBECK, Christianus Cornelius
La Haya inguruko Woorburg-en 1866-an jaio zen hizkuntzalari hau.

Gaztetatik agertu zuen euskara ikertu nahia, baina, eragozpen bat zela medio ezin egin izan zuen euskarari buruzko doktoradutza-tesia.

Amerikako indioen hizkuntzen azterlari honek euskara ikertzeko ere denbora hartu zuen. Lan hauek *RIEV*-en eta *Eusko-Jakintza*-n argitaratu ziren frantsesera eta espainierara itzuliak; euskal fonetika, eratorpenean erabiltzen diren atzizkiak, euskarak beste hizkuntzekin izan ditzakeen harremanak (indoeuroparrarekin, Afrikako Ipar aldeko hizkuntzekin, Kaukasoko hizkuntzekin), euskararen jatorria etab. bere iker-lanetan sartu ziren.

Ohorezko euskaltzain eta beste Akademi askotako akademikide edo laguntzaile, 1950ean Lugano-Ruviglianan (Suitzan) hil zen.

Ukapena
negación / négation / negation

Oinarrizko perpausaren (→enuntziaziozko edo →deklaratzailearen, →galdetzailearen nahiz →aginduzkoaren) →modu bat da ukapena, perpauseko →predikatua ukatzean datzana. *Enekok ez du dirurik* ukapena da; perpaus hau deklaratzaile ezezkoa da. *Enekok ez du dirurik?*, ukapena da; ezezko galde-perpausa da. *Ez esan, gero, horrelakorik* ukapena da; aginduzko perpaus ezeztailea da.

Ulergarritasuna
comprensibilidad / compréhensibilité / intelligibility

Ulergarritasuna esaten zaio erabat garbi entzun eta erraz uler daitekeen →berbaldi baten egoerari.

Umlaut
umlaut / umlaut / umlaut

→Bokal-→inflexioaren →sinonimoa.

Unibertsalak
Ezer baino lehen, oinarrizko eta itxurazko unibertsalen arteko diferentzia egin behar da. Lehenengoei buruz hau esan daiteke: hizkuntzetan aurkitzen diren edukin batzuk elementutegi orokor batetatik hartuak direla. Bide honetatik, esate baterako, →Jakobson, →Chomsky eta Halle-ren teorian dauden →ezaugarri →bereizleak eta berauen arteko harremanak, oinarrizko unibertsaltzat jotzen dira; eta hizkuntza konkretuetan beti ere kide akustiko eta artikulatzaile bana dutela ematen: hizkuntza bakoitzak, hitz batez, →alfabeto orokorrezko azpimultzo bat hautatzen du.

Fonologi unibertsal horiek gizakumearen ahoskuntz eta entzumen organoek mugaturik dauden bezala, giza pentsamenaren eta pertzepzioaren egiturak ere bide beretik semantikazko oinarri-unibertsalak funtsa ditzaketela kontsidera daiteke. Hori dela bide, «arrezko», «emezko», «materiazko» eta abar kontzeptuak, elementutegi orokor horretako parte direla kontsideratzen da. Honek ez du behartzen egitura lexikal guztiak berdinak izatera (alegia, sema horiek hizkuntza guztietan modu berean elkartzera eta, hizkuntzalaritza estrukturalaren hizkeraz esateko, semema berberak sortzera); ezta, beraz, hizkuntza batetik besterako itzulpen zehatza posible izateko. →Hiztun-talde baten hitzezko kontzeptuak ez dira izari orokorrari datxezkion baldintza biologiko eta sozialen menpeko, baizik-eta haren jakintzaz, produkziomoduez eta abar, →sintaxiaren alorrean uste denez, zenbait →kategoria lexikal unibertsal horietakoak dira (NP, VP, esate baterako); baina egiazko →hizketaren azterketa bidez zail froga daiteke horrelakorik.

Oinarrizko unibertsalak hizkuntzen deskribapenetan erabili den hiztegiari badagozkio ere («ezaugarri semantiko», «ezaugarri fonologiko», «NP», «VP», eta abar), itxurazkoek gramatiketan eman ohi diren →erregelak eta hauen arteko

harremanak dituzte gogotan; hau da, deskribapen-sistemetan egin daitezkeen egiturak. →Fonologiaren alorrean, esate baterako, ezaugarri bereizleak, hauek katea fonikoen ezagupideari buruzko matrize-lekuguneak diren aldetik. Sintaxiarenean, berriz, →transformazioen izana eta moldea, erregela sortzaileen erabilpen ziklikoa...

Hitz batez, mintzaira guztien ezaugarri formal eta abstraktuak dira (hiztegiaren kategori zatiketa; perpausen, →hitzen, sintaxi-eragiketen izana...); eta beren →baliokidetasuna aurkitu behar dute gramatikan, alegia, teoria beraren moldean bertan.

Hona hemen ideia nagusi orokor bat: semantikazko eta ezagupidezko egiturak, hierarkidunak direla eta denboragabeak; fonologikoek, aldiz, denboratasunezko izaria badute (igarokortasun-hatsarrea). Hizkuntzaren ikaskuntzaren gertabidean barrena, era berean, unibertsalak aurkitu dira.

Nolanahi ere, onuragarriagoa da baldintzazko unibertsalen formulazioa, (alegia, A baldin badago, B dago), →ezaugarri →erkideen izanari buruzko erizpide borobilak ematea baino.

Alde honetatik, Greenberg-en lanak aipatu dira oso bereziki (1963 = Language Universals; 1966, Universals of Language; eta abar).

Txillardegi

Urkaria

liquido / liquide / liquid

Aintzinateko gramatikariengandik hartu den *urkari* izena, aho-bidearen herstea eta →irekidura konbinatzen duten →kontsonanteei ematen zaie; →aldekarien kasuan batera gertatzen dira herstea eta irekidura, →dardarkarien kasuan, aldiz, elkarren segidan. →Bokalenetik hurbil dagoen ozentasun-gradu batengatik ezaugarritzen dira kontsonante hauek eta, egitez, bokalen →ezaugarriak aurkezten ditu berorien espektro akustikoak, →formante-egitura aski garbi batez. →Akustikari dagokionez, urkariak kontsonantekoak eta →bokalezkoak dira batera. Bi urkari-moten arteko berezketa noizean behingoa da eta ezegonkorra. Mendebaldekoak kenduta, hizkuntza gutxik berezten dute [r] eta [l]-ren artean. Ekialde Urruneko hizkuntza handiek, txinerak eta japonierak adibidez, ez dute ezagutzen berezketa hori. Hizkuntza hauetan ez dago fonema urkari bat baizik, →textuinguruaren arabera dardarkari nahiz aldekari bezala gauzatzen dena. R. →Jakobson-ek dioenez, azkenetakoa da haurrek bereganatzen dituzten berezketen artean. →Fonetika *diakronikoan ere* agerian geldtzen da bi urkari-moten arteko berezketaren ezegonkortasuna: [r]-[l] nahasketaren adibide franko dago iberorromantzearen eta talde italikoaren garapenean. Euskaraz ere gertatzen da horrelakorik: *elizara(t) / elizala,* edo *garesti / galesti* adibidez.

URKIXO, Julio

Deustun (Bilbon) jaio zen 1871an jatorri oneko famili batean. Deustun bertan hasitako ikasketak Salamanca-n bukatu zituen Zuzenbidean lizentziatuaz.

Politikoa, bi bider diputatua Madrileko Gorteetan, liburuzale aparta eta euskal kulturak izan duen suspertzaile handienetariko bat dugu.

Liburuzale bezala, bere liburutegian euskaraz argitaratu den ia guztia biltzea lortu zuen; gero liburutegi hau Diputazioak erosi zuen.

Liburu-bilaketa honetan aipagarriak dira Zarauzko frantzizkotarren komentuan aurkitu zituenak: galdutzat jotzen ziren Joanes Etxeberriren idazlanak. Bazekien aurkikuntzak besterenganatzen eta argitara eman zituen hain eskuragaitzak ziren Etxepare, Axular, Oihenart eta abarren idazlanak.

Nahiz eta berak oso gutxi idatzi euskaraz, euskal kulturaren sustatzaile dugu; zentzu honetan ekintzarik garrantzizkoena *Revista Internacional de Estudios Vascos* sortzea da.

1907an sortu zuen aldizkari honen zuzendari izan zen 1936an hura desagertu zen arte. 1922rarte bera izan zen aldizkariaren jabe ere; urte horretan Eusko Ikaskuntzak hartu zuen haren jabetza.

Urkixok aldizkari honekin zehaztasuna eta zorroztasuna ekarri zuen euskal estudiotara; bertan parte hartzeko baldintza lanak kalitate zientifikokoak izatea zen.

→Euskaltzaindia sortu zenetik, 1918an, euskaltzain, Espainiako Hizkuntz eta Histori Akademietako kide izan zen euskal estudioen bultzatzaile hau 1950ean Donostian hil zen.

V

Verner-en legea

ley de Verner / loi de Verner / Verner's law

1875ean K. Verner hizkuntzalari daniarrak formulaturiko →lege fonetikoari esaten zaio *Verner-en legea;* lege honek osatu egiten du germaniko primitiboaren →mutazioei buruzko →Grimm-en legea (1822), honen itxurazko salbuespenak azalduz. →Azentuaren kokamendua kontutan hartzen bada, salbuespen hauek erregularrak direla erakutsi du K. Verner-ek, zeren germaniko primitiboaren arnasbehekari →gorretatik arnasbehekari →ozenetara iragatea ez bait da gertatzen aurreko →silabak →azentu toniko indoeuroparra daramanean. Lege honen aurkikundeak oinarri berri bat eman zion →neogramatikariek defendaturiko →aldaketa fonetikoen erregulartasunari buruzko tesiari.

VINSON, Julien

Paris-en 1843an jaiotako euskalari honek Indian egin zituen ikastetak.

1867an Parisen sortu zen *Revue de Linguistique et Philologie comparée* aldizkariaren ohizko lankide eta zuzendari ere izan zen eta han argitaratuko zituen Euskal Herriari buruzko artikulu asko: hizkuntza, historia, bibliografia, folklorea eta abarri buruz. →Urkixoren iritziz 1868tik RIEV sortu zen urte arteko euskararen inguruan egindako lanak ezagutzeko nahitaezko erreferentzi puntua da aldizkari hau.

Beste zenbait aldizkaritan ere bere lanak aurki ditzakegu: *Revue anthropologique*-n, Berlin-en argitaratzen zen *Euskara*-n, *Bulletin de la Société de Sciences et Arts de Bayonne*-n, *RIEV*-en eta abarretan.

Hizkuntzalaritza mailan Hovelacque eta Schleicher-en jarraitzailetzat hartua izan da eta neogramatikari eta hauen ondorengo hizkuntzalariekin ez dirudi bat zetorrenik zenbait euskalariri egin zien kritiketatik atzeman daitekeenez.

Beste euskalari asko bezala euskararen jatorriak eta euskal aditzaren izaerak kezkatu zuen. Lehenengoan iberismoa defendatzen zutenen aurka agertu zen eta bigarrenari dagokionez aditzaren pasibotasunaren aurka.

Berari esker XVI, XVII eta XVIII. mendeetako zenbait euskal textu berrargitaratu ziren, baina laguntzarik handiena bibliografi mailan eskaini digu *Essai d'une Biblioghraphie de la Langue Basque* eta honen *Complément et Supplément*-ekin. Geroztik lan hauek jarraituaz *Les Etudes basques de 1901 a 1905* eta *Revue Générale des Etudes basques de 1906 a 1912* argitaratu zituen.

Libourne-n hil zen 1926an hirurogei bat urte euskarari eskaini zizkion euskalari hau.

Vs.

«Versus» hitzaren laburdura; eta «-ren aurkakoa» adierazteko erabilia:

ozena vs *gorra*

→Ozena, →gorraren aurkakoa da.

W

WEINREICH, Uriel

Judutar jatorriko hizkuntzalari honen lanak, →elebitasuna, hizkuntz aldaketa eta →hizkuntz interferentzia ukitzen dituzten hizkuntz ikertzapenetan ageri ohi dira; baita aztergaitzat →soziolinguistika orokorra eta praktikoa dutenak ere (zientzi adar honetan, bestalde, sortzaileen artean jarri ohi da Weinreich). 1967an hil zen, berrogei urte besterik ez zuenean, eta Columbia-ko Unibertsitatean jiddish-ezko irakasle zegoelarik. Garai

hartan, hain zuzen, azken begiratua ematen zion bere azken idazlanari: *«Empirical Foundations for a Theory of language Change»*.

Haren biziaren laburra kontutan hartuz, zabaltzat eman daitekeen ekarpenean, ondoan aztertuko ditugun bi izkribuak gaileneraz daitezke:

1) *Languages in Contact. Findings and Problems*. Mouton, 1974 (8.berrargitalpena).

1953an idatzia, bere zortzigarren berrargitalpena ezagutu du lan honek 1974-ean. Hastapenetan, «Publications of the Linguistic Circle of New York» sortako lehendabiziko ale gisa agertu zen; eta honek garai hartako hizkuntzalarien arteko zabalkuntza lagundu zuen, lanik ezagunena bihurtzen zuela.

Oso hizkuntza desberdinen ezagutzaren ondorio bait da 1949-1950ean Suitzan dagoen frantses-aleman-italiera-romantxe delakoen albo-egoerari buruzko saiaketarena ere, hizkuntz ukipenetik sortzen diren «hizkuntz interferentzien» arazoa du ikergai.

Izkribu honen arabera, ukipenetan dauden bi hizkuntz aldaeraren arteko hizkuntz interferentziak (hizkuntza desberdinak izan, →dialekto desberdinak, edo beste), hizkuntz egiturazko eragileek markatzen dituzte batetik; baina baita hizkuntz mailako ez diren eragileek ere. Zergatikoei dagokienez dioskunez, azterbide linguistikoen (estrukturalisten) bidez, ukipen-hizkuntzen egiturak konparatuz, aurki daitezke haiek, baina, beste zenbait aldiz, hizkuntzaz kanpokoak izan daitezke zergatikoak. Interferentzien hedakuntzaz, iraunkortasunaz edo atzerakundeaz, berriz, batez ere hizkuntzaz kanpoko eragileek bide dute azken giltza. Esate baterako: ukipen-hizkuntza horien ezaguera elebidun pertsonarengan edo pertsonengan norainokoa den, haiekiko jarrera nolakoa den, eta abar; elebiduna den →hiztun-taldearen tamaina; ukipen-hizkuntza bakoitzean elebakar diren azpitalde desberdinen arteko, eta orobat azpitalde elebidunen arteko, homogenotasun- edo desberdintasun-gradua sozio-kulturari dagokionez; ukipenetako hizkuntz komunitate bakoitzari buruz eta berorien hizkuntzei buruz, ospearen araberako jarrera estereotipatuak; hizkuntzen erabileran egindako hutsei buruz dagoen tolerantzi giroa, edo interferentziei buruz; eta abar.

Hori dela bide, etengabe aipatzen du ikersailartekotasunaren beharra (hizkuntzalari, antropologo, psikologo, geografo, etnografo, soziologo, legelari, hezitzaile, eta abar), bai hizkuntzen eta kulturen arteko ukipenen ondorioak ezagutzeko, bai azaltzeko batez ere. Horrez gain, interferentziei buruzko ikertzapenetan zenbaketaren beharra ezinbestekotzat goraipatzean, aipatu gabe bada ere, estatistikarien laguntzaren beharra ere goraipatzen du, eta, oro har, matematikariena ere bai.

Interferentzien hizkuntz egiturazko eragileen artean (ukipen-hizkuntzen konparaketaren bitartez igergarri direnak), tipologia bat eraikitzen saiatzen da; eta, honetarako, hizkuntzaren ohizko alderdiak hartzen ditu gidari: fonologikoa, gramatikala eta lexikala.

Gauza bera hizkuntzazko ez diren eragileekiko. Hauen artean, hona hemen elebitasunen motak eta mailak sailkatzeko garrantzitsuen jotzen dituenak, eta, hori dela eta, haren ikertzapenean kapitulu bereziak direnak: 1) hizkuntzetako bata nagusi gertatzeko tenorean, inguramendu sozio-kulturazkoak duen eginkizuna: 2) talde elebidunetan, hizkuntza bakoitzak betetzen dituen funtzioak, eta hizkera-aldaketek; 3) hizkuntzazko eta soziokulturazko zatiketen artean kategorien arabera dagoen egokitasuna (adibidez: geografi etendurak; bertako eta kanpotikako hizkuntzen artekoak; kultur eta etni taldeak; erlijioa; arraza; sexua; adina; gizarte-gradua; lanbide edo ogibidea; baserriko eta kaleko jendeen artekoa); 4) hizkuntza batua, «hizkuntzarekiko leialtasuna»ren sinboloa den aldetik; 5) hizkuntzen arteko ukipenaren luzea; 6) hizkuntza berrien kristalketa; 7) hizkuntz trukaketa. Egia esan, benetan izan zen berrikuntza bat garai hartan, →estrukturalismoa eta inmanentismoa beren gorenean zeudelarik, gure autoreak hizkun-

tzen egituraren deskribapena bera ematerakoan honen garrantzi handia aitortzea hizkuntzaz kanpoko eragileei.

Ikerbide edo moduei dagokienez, hirurok elkartzen ditu gure autoreak: estrukturalismoa batetik (funtzionalista batez ere; ez bait da txiripa hutsa lan honen gidatzailea A. Martinet izatea), →dialektologia bestetik (eta, honi buruz, dialektologia estrukturala posible eta beharrezkoa ere dela esaten zaigu; alderdi garrantzitsuak nabarmen erazten direlarik: «→diasistema»ren deskribapena, konparazio baterako); eta behaviorismoa bestetik. (Dialektologia estruktural delakoaren hazkundeari zegokionez, gure autorearen iritziz, hauxe zen traba nagusia: hizkuntzazko continuum delakoan, segmentazioa egiteko erizpide garbirik ez egotea).

2) Hilondoko haren idazlana: *«Empirical Foundations for a Theory of Language Change»*, in *Directions for Historical Linguistics. A Symposium*. Ed. W. P. Lehmann eta Y. Halkiel, Austin-London, 1968 (bigarren berrargitalpena 1971an); W. Labov-ek, M. I. Herzogek, eta Weinreich-ek berak egina; nahiz honek zuzendua. Ikuspegi nagusia historizista izan arren, «hizkuntz aldaketa»zko arazoa eta teoriari buruzko lanen bibliografietan agertu ohi da.

Amaierako kapituluan *(«Some General Principles for the Study of Language Change»)*, eta laburtzapen gisa, «aldaketari buruzko teoriaren oinarri enpirikoei dagozkien proposizio batzu ematen ditu. Gutxi gora-behera bederen, hona hemen proposizio horiek zein diren: 1) Ez dira nahasi behar hizkuntz aldaketa bera, batetik, eta hizkeraren aldaketa berezkoari datxekion bultzadak edo nolagertazko aldaketak, bestetik. Hizkuntz komunitate batetako azpitalde batetan alternantzia bat gertatu, eta desberdintasun erregularren norabidea eta izakera lortzen dituenean hasten da hizkuntz aldaketa. 2) Egitura eta homogenotasuna nahastea, lilura baten ondorio da. Egitura linguistikoari hiztunen eta hizketamoduen desberdintasun erregularra dagokio beti, hizkuntz komunitatean aldaketa eraentzen duten arau batzuren bidez taxutua; jatorritik datorren hizkuntz jabetzak, egitura desberdinduen eta heterogenoen jabetza esan nahi du. 3. Heterogenotasun eta aldakortasun guztiei ez dagokie, nahitaez, aldaketarik; baina, alderantziz, aldaketa guztien funtsean dago aldakortasunik eta heterogenotasunik. 4) Hizkuntz aldaketaren jeneralizazioa ez da erabakarra, eta ez bapatekoa; luzaroan elkartutako aldaketen kobariazioa behar du, eta geografi eskualdeetako →isoglosen hedakundean isladatzen da. 5) Hizkuntz aldaketa mamitzen den gramatikak, hizkuntz gizataldearen beraren gramatikak dira. Zeren-eta hizkuntzaren barruan dauden egitura aldakorrak, gizarte-funtzioek zertzen bait dituzte, eta ez →idiolektoek berek. Hauek ez dute, berengan, edo barnebidez, gramatika trinkorik izaten. 6) Hizkuntz aldaketa gizatalde osora hedatzen da; eta ez da familiaren mailako urrats jarraikigabetan gelditzen. Hizkuntz aldaketetan aurkitu izan diren etendurak oro, izan, gizataldean aurki daitezkeen etendura berezien ondorioak baizik ez dira; eta ez aitagandik semeaganako belaun-hutsarteari legozkiokeen nahitaezko gertakariak. 7) Hizkuntzazko eta gizartezko faktoreak elkarri loturik daude azkarki hizkuntz aldaketaren hazkundean. Batari zein besteari mugaturik ematen diren azalpenek, nahiz biziki ongi eraikiak izan, porrot egingo dute hizkuntz jokabideen azterketa enpirikoetan errepara daitezkeen erregulartasunen multzo ugaria azaldu nahi dutenean.

Autore beraren beste izkribu batzu 1953rarte, elebitasunaz eta jiddish-ez argitaratuez eta argitaragabeez gain.

— «Is a Structural Dialectology Possible?», *Word* 10, 1954.
— «On the Description of Phonic Interference», *Word* 10, 1954.
— «Review of Hockett», *Modern Linguistics, Romance Philologie* 13, 1959.
— «On the Semantic Structure of Language», in: *Universals of Language*, Ed. por J. H. Greenberg, Cambridge, 1963.

— «Explorations in Semantic Theory», in: *Current Trends in Linguistics 3: Theoretical Foundations,* Ed. por T. A. Sebeok, Mouton, The Hague-Paris, 1966.
— «Unilinguisme et multilinguisme», in: *Le Langage (sous la direction d'André Martinet),* Encyclopédie de la Pléiade, Ed. Gallimard, Paris, 1968.

M. J. Azurmendi
Itz.: *Txillardegi*

WHORF, Benjamin Lee

Formulatu zuenetik hain eztabaidatua gertatu den «Erlatibotasun linguistiko»-aren teoriaren sortzailea dugu Benjamin L. Whorf, →Sapir-en ikasle eta lanbidez asegurantza-inspektore. Massachusetts-ko askasi zahar batekoa, 1897.eko Apirilaren 24ean jaio zen Winthrop-en estatu horrexetan bertan. Argitasun handiko eta jakingura izugarrien jabe, txikitandik lan intelektualak erakarri zuen, eta haren aitaren eraginez, etxean zeukan hamaika aparaturengatik, lehen unetik kimikarekin interesatzen hasi bide zen. Horrela, 1914ean «Massachusetts Institute of Technology» delakoan kimika hasi zen ikasten eta 1918an, sei hilabetez oso gaixo egon eta gero, haren kimikazko batxilergoa jaso zuen. Apur bat geroago, 1919an, hil arte egongo zen asegurantza-entrepresan sartu zen lanera, suteen kontrako inspektore bezala. 1920an ezkonduta, 1924erarte ez zen hizkuntzalaritzaz axolatu, orduan Mexiko-ko hizkuntzak ikasten hasiz, maiera eta aztekera (nahualtera), eta orobat maiar hieroglifikoen esanahiaz azterketak eginez. Baina 1931-an Sapir-en ikastaldi batean parte hartu arte ez zen hizkuntzalaritza haren benetako ardura nagusia izan. Sapir-en eraginez aurreko teoria batzuk ologosintesiarena kasu batez —gure artean oso era antzeko batez Bittor Kapanagak defendatua (ikus haren *Euskera, erro eta gara)*— erdi utzi zituen, eta halaber Ameriketako hizkuntzen ikerketak sakondu. Norabide horretan 1932an hopieraren ikerketak hasi zituen eta 1935ean bazeuzkan hizkuntza horren hiztegiaren eta gramatikaren hasikinak. Denbora honetan, hain zuzen, eta hopien hizkuntzan egindako aurkikundeengatik batez ere, gorago aipaturiko teoria aitzineratu zuen. Azkenez, 1941.eko Uztailaren 26an, lanez leher eginda, eta 44 urte besterik ez zituela, hil egin zen, gaixotasun luze bat pairatu eta gero. Haren biografiagileak, John B. Carroll-ek, honela diosku haren nortasunaz mintzo delarik; «Benjamin Lee Whorf-en bizitzea modu honetaz deskriba daiteke, batetik, trebetasun eta talentu handitako entrepresagizona, eta bestaldetik askotan agertzen ez den bezalako ikertzaile maratz eta artatsua, gehienek, osterantzean, ahaztutako alorretan, hala nola, maiarren idatz-sistema galduaren azterketan eta Mexiko-ko azteken eta Arizonako hopien hizkuntzen arakaketan».

Whorf-en ustez, →Humboldt eta Sapir-i jarraituz, baina hatsarria era erradikalagoaz defendatuz, hizkuntzak gizakien mundu-ikuskera eragiten du, h.d., hizkuntza ez da →zeinuteria hutsa bakarrik, sistema namiko bat baizik beraren erabiltzaileak eragiten dituena berauek esperientziak adierazterakoan. Adibide klasikoa koloreetan dugu (ikus Larresoro, *Hizkuntza eta pentsakera);* euskaldunok, esate baterako ez dugu *zuri bat* baizik bereizten, eskimoarrek, berriz, askozaz mota gehiago. Honek zera ematen duke aditzera, euskarak hitz bat ematen digula zuritasuna adierazteko, eskimoarrei haien hizkuntzak multzo oso bat. Eta hori da, hain zuzen, Whorf-ek berak hopieraren aditzaz zioena, hots, hizkuntza hark ez duela →denbora-→kategoriarik, berau, haren ustez, indoeuropar hizkuntzen ezaugarri bat izanik.

Hipotesia, Sapir-Whorf hipotesia bezala ere ezagutua, ez da inoiz modu irmo batez frogatu ahal izan, baina ez eta ere txartzat ukatu ere. Bi dira, besteren artean, egin zaizkion kritika garrantzitsuak. Lenneberg-ek metodologia du kritikatzen, alde batetik Whorf-ek erabiliriko itzulpen-teknikak, Horts G. Kleinen jarrera bera, eta bestaldetik, teoria tautologiko bilaka ez dadin beharrezko omen den elementu linguistiko eta ez-

linguistikoen tratamendu banandua, bestela teoriaren frogantza bakarra, teoria bera bait da Feuer-ek, berriz, zera uste du, bizi izateko hain beharrezkoak diren mundu fisikoko elementu hauek —espazioa, denbora, kausaltasuna...— ezin daitezkeela era desberdinez burutu, haien oharmen zuzena bizitzearen baldintza bete beharrezkoa bait da.

A. Eguzkitza

X

Xedezkoa

final, de finalidad / de but / final

1. Gramatika tradizionalean, xedezko osagarria eta xedezko menpeko →proposizio zirkunstantziala →aditz nagusiaren →ekintza zein asmotan egina den adierazten dutenak dira. Adibidez, *Bizi ahal izateko ari da kantatzen* edo *Berehala ekar itzak liburu horiek, arrebak laster irakur ditzan.*

2. Gramatika estrukturalean, «xedezko» izena aditz iragankorraren →objektuari ematen zaio batzutan, izen →subjektua →jardulea izanik. *Anttonek liburu hau irakurri du* perpausean *liburu hau* osagarria litzateke *irakurri* aditzaren xedea, eta *Anttonek* subjektu jardulea.

Xixakaria

chuintante / chuintante / palatal sibilant

→Kontsonante xixakariak kontsonante →igurzkariak dira, gehienetan albeolareatzeko edo aurresabaikariak, adibidez euskarazko [š] «xamur» eta frantsesezko [ž] «jambon». Hurbilen dituzten kontsonante →txistukariekin ([ś] eta [s] euskarazko *soro* eta *zoro)* zenbait berezketa dute: artikulazio-puntuaren atzeratze txiki bat, eta batipat aurreratze eta borobiltzea artikulazio xixakarikako.

Ezpain-barrunbearen eraginak dardara-→maiztasunaren beherapena dakar, eta honela xixakarien espektroan energia beheko aldetan biltzen da (2.000tik 3.000 bat ziklo segundoko, 4.000 edo gehiago izan ordez.).

Z

Zabaltasuna

amplitud / amplitude / amplitude

→Fonetika akustikoan, aire dardarkarizko partikulen atseden-puntuaren eta horiek beren higiduran lortzen duten muturreko puntuaren arteko tartea deitzen da ahots-uhinaren *zabaltasuna.*

Dardararen *zabaltasunak* →soinuaren intentsitatea manatzen du (→maiztasuna iraunkorra izanez geroz). *Zabaltasuna* bi aldiz handiagoa eginez, soinu baten intentsitatea lau aldiz handiagoa egiten da. Maiztasun berdineko dardara bi edo gehiagoren konbinazioak *zabaltasuna* emendatzen ahal du: horrela →ahots-korden dardarak sorturiko soinu-uhina entzungarria egiten da beraren *zabaltasuna* ahoskuntz aparatuaren durundigile desberdinen bidez bortiztuz.

Zarata

1. Mintzatzerakoan, aidea eten egiten dugu batzutan, osoki edo erdizka; eta etendura horrek *zarata* bat sortzen du. Hau dela bide, laringeak egiten dituen dardarak ez dira beti, mintzamenean, →hizketa-→soinuen iturri bakarra. →Artikulazioan laringe-soinuaz besterik ez badago, →*bokal* baten aurrean gaude; eta oinarrizko dardara horri zarataren bat ere eransten baldin bazaio, →*kontsonante* baten aurrean.

2. →Komunikazioaren teorian, berriz, informazio-galera guztiei deritze *zarata.* Edozein →mezu-igorketatan, bi mutur berez daitezke: →*igorlea,* batetik, mezua kodetu eta igortzen duena, eta →*jasotzailea,* bestetik, mezua deskodetzen duena. Bi muturren arteko kurribidean, nolanahiko trabak gerta daitezke; eta, hitz batez, irteerako informazio-kantitatearen parte bat gal daiteke bidean. Eman dezagun:

Abiaburuan = 25 (bit)
Helburuan = 21 (bit)
«zarata» gisa, galdurik = 4 (bit)

Galera hau, noski, bai elektrika-harietan, bai aidean barrena, bai bestela, gerta daiteke. Igorleak igortzen duen mezuilara («input»), eta jasotzaileak jasotzen duena («output»), ez dira erabat berbera. Bi ilara horien arteko desberdintasunari *errore* deritzo; eta beronen kakoa, zarata da.

Mezu bat igortzerakoan horrela, kurribideaz bestaldean ulergarri gerta dadin, informazio-gehigarri bat erantsi behar zaio; mezua, zaratarengatik lardaskaturik ere, ulergarri gerta dadin.

Informazio-gehigarri horri →*erredundantzia* deritzo.

Txillardegi

Zeharkakoa

indirecto / indirect / indirect

1. *Zeharkako osagarria:* ik. *osagarria.*

2. *Zeharkako estiloa:* beste baten edo norberaren hitzak edo pentsamenduak berresateko era bat da *zeharkako estiloa.* Estilo *zuzenari* oposatzen zaio: honek, esandako hitzak osoki berregiten ditu (galdetu zuen: *Zenbat diru dago?);* zeharkakoak berriz hitz horiek menpeko perpaus baten bidez berresaten ditu, →aditz nagusi baten osagarri dena *(Zenbat diru zegoen galdetu zuen).*

3. *Zeharkako estilo librea:* estilo zuzen eta zeharkakoaren arteko erdibide bat da; literatur mailan, ez egunoroko →hizketan, eman ohi da batipat. Hemen ere hitzak edo pentsamenduak berresaten dira. Berresandako perpausak, estilo zuzenean bezala, tonuzko sintaxi mailako askatasuna du. Idazkeran, bi puntuen atzetik joan ohi da. Ez dago aditz nagusirik (hau ez da ez zuzenean ez zeharkakoan gertatzen); baina →moduak eta →denborak aldatu egiten dira (zeharkakoan bezala): *Haserre zegoen: ez zara joango!*

Zeiharra

oblicuo / oblique / oblique

→Atribuziozkoaren →funtzio gramatikalak (→datiboa) edo funtzio konkretuak (→genitiboa, →ablatiboa, lokatiboa, →bitartezkoa) adierazten dituzte kasu zeiharrek. →Kasu zuzenei aurjakartzen zaizkie, hauek →subjektuaren eta osagarriaren funtzio gramatikalak adierazten dituztenez (→nominatiboa, →ergatiboa, →akusatiboa).

Zeinua

Hiru dira *zeinu hitzaren* →adierak, aipatu behar dugun «zeinu linguistiko»az gain: 1. *zantzua,* h.d., lehenengoan ezin ikus daitekeen fenomenoaren «zeinua» edo «zantzua» den beste fenomeno bat, gehienetan naturala, eta behingoan ikustekoa. Esate baterako, *ebatondo* bat ebakuntza baten aztarna izan daiteke, edo *elgaitza* gaixotasun batena, 2. *seinalea,* h.d., honako baldintza bi hauek betetzen dituen aztarna, a) helburu batez sortua izatea, b) seinalearen →jasotzailearentzat ulerkorra izatea; eman dezagun, trafikoseinaleak; 3. →*ikurra,* h.d., →Saussure-k dioenez, zeinuaren bi elementuen artean (ikus beherago eta *Europako Estrukturalismoa)* harreman natural xumea, eta beraz ez-→hautazkoa, duen zeinua, askotan forma grafikoa duena; adibidez, bakearen ikurra den uso zuria.

Zeinu linguistikoa «→adierazle» edo irudi akustiko baten eta «→adierazi» edo →kontzeptu baten →elkargoa da, →Saussure-ren terminologian «signifiant» baten eta «signifié» baten elkargoa. Haren ustez, bi dira zeinuaren barne-ezaugarri nagusiak; hautazkotasuna eta →lerrozkotasuna. Zeinua →hautazkoa da motibogabea delako, «etxea», «maison», «Haus» edo «ti» adierazleak, kontzeptu edo adierazi bakar baterako erabiltzeak ez bait du inolako kausa naturalik; adierazle horiek naturarekin edo errealitatearekin loturarik ez bait dute, eta hala dira zein bere hizkuntzan. Zeinua lineala da, berriz, irudi akustikoa denboran aitzinatzen delako, eta horregatik linealki, h.d., hedadura bat duelarik, hedadura hori izari batetan neur daitekeelako bakarrik: lerrozkotasunean.

Zeinu linguistikoaren hautazkotasunaren eztabaida, azken hirurogei urteetako europar hizkuntzalaritzan gertatu den handienetakoa dugu (ikus bibliografia Bernhard Lindemann-en baitan). Lehendabizikoz esan behar da, Coseriu-k erakutsi duen bezala, ez dela ideia hori inolaz ere Saussure-rengan berri, 2.300

urteko historia daukan gogoeta zahar bat baizik. Hala ere (ikus *Ferdinand de Saussure),* Coseriu berarekin batera esan genezake, Genevakoaren originaltasuna zerean datzala: printzipio horri eman dion garrantzian, eta «kurtsu»aren baieztapen hau egiazko egitean: «le principe de l'arbitraire du signe n'est contesté par personne», printzipio horrek, beraren ustez, hizkuntzalaritza eta semiotika osoaren oinarri izan behar duelako. Bide batez, eta suitzarrak ere erabilia izateagatik, hautazkotasun erlatiboaren kontzeptua aipa dezakegu; hots, nolabaiteko kausa bat duten «hitzen/zeinuen» kasua, esate baterako, *hogeita bat (hogei + eta + bat)* edo *zezenplaza* (zezen + plaza).

Zeinu linguistikoaren hirugarren ezaugarritzat, kanpo-ezaugarritzat, Saussure-k aipatzen duen →aurkakotasunena dugu, edo zeinuak beren ondoan daudenekiko aurkakotasunaz definitzen direla. Eman dezagun «alargun» euskaraz (iparraldeko euskalkiren batetan erabiltzen den «alarguntsa» ez dugu oraingoan kontutan hartuko), eta «viudo-viuda» Espainiako erdaraz. Hitzok →esanahi bera dute, ez ordea balio bera, «viudo»k bere ondoan «viuda» daukalarik «alargun»ek daukan beste espaziorik ezin bete dezakeelako, euskarazko hitzak kasu honetan espainierazko bi horiek betetzen duten toki bera betetzen bait du. Gauza bera esan daiteke «neba-arreba-anaia-ahizpa» laukoteaz, euskaraz eta «frère-soeur» bikoteaz frantsesez.

A. Eguzkitza

Zeinuteria

Ik. KODEA

Zenbakia

Sin.: NUMEROA

Hitz bat bakarra den zerbaiti edo anitza den zerbaiti aplikatzen zaiola adierazten duen →gramatika-→kategoriari esaten zaio zenbakia. Beraz, zenbakia →singularra edo →plurala izan daiteke. Beste hizkuntza batzuetan →*duala* eta →*triala* ere agertzen dira.

Euskaraz kontutan hartu behar da →sintagma baten →*esanahia* ez dela aski sintagma hori singularra ala plurala den erabakitzeko. Euskaraz zenbaki-kategoria mugatzaileari lotua agertzen da zeharo. Horrenbestez, singular/plural →aurkakotasuna sintagma mugatuetan bakarrik gertatzen da. Adibidez, *hamar gizon* sintagma esanahiaren arabera, ez dagokio gizon bakarrari, askori baizik, baina ez zaigu sintagma horretan zenbaki delako kategoria hori agertzen, mugatzailerik ez bait dugu. Baina sintagma mugatua bada, orduan bai:

gizon-a = mugatu singularra
bi gizon-ak = mugatu plurala

→Generoak ez bezala, badirudi zenbakiak justifikazio handiagoa duela errealitatean. Eta, agian horrexegatik, hizkuntzetan hedatuago aurkitzen ahal dugu zenbaki-kategoria genero-kategoria baino. Euskara bera dugu horietako hizkuntza bat.

→Aditzak ere agertzen ditu zenbaki-→markak, perpausean agertzen diren hiru izen-sintagmen arabera eta bereziki nor sintagma singularra ala plurala den kontutan hartzen dutenak. *Dator* esaten dugu baino *datoz.* Hala ere, askotan *ad sensum* delako →komunztadura dela eta, I S →mugagabea izan arren —eta beraz, zenbaki-markarik ez duena— aditzean pluralaren marka ager daiteke: *bi mutil datoz* eta ez **bi mutil dator.* Horretaz, agian, euskaraz, pluralaren ondoan kolektiboa ere sartu beharko litzateke.

P. Goenaga

Zenbakizkoa

numeral / numéral / numeral

Sin.: NUMERALA

Gramatika tradizionalean, →adjektibo →kardinak nahiz →ordinalak dira zenbakizkoak. Hitzartze hutsez sailkatzen dira adjektiboen artean.

→Determinatzaileen →klasean edo sailean sartzen dira zenbakizko kardinalak; →izenaren aurretik jartzen dira *(bat,* eta batzutan *bi,* ezik).

Zenbakizko ordinalak egiazko adjektibo kalifikatzaileak dira eta izenari dagokion lerruna adierazten dute. Gehienetan izenaren aurretik jartzen da. Zenbakizko kardinalei *-garren* →atzizkia erantsiz eratzen dira ordinalak *(bi + garren = bigarren).*

Zenbakizko adjektibo biderkakorrak ere

badaude, euskaraz kardinalei *-koitz* atzizkia erantsiz lortzen direnak; *hirukoitz, seikoitz,* etab. Baita →banatzaileak ere, →kardinalei *-na* →atzizkia erantsiz eratzen direnak: *bina, hamarna,* etab. Azkenik, zenbakizko adjektiboekin zer-ikusirik duten izen batzu aipa daitezke: unitatearen zatikien izenak dira, adibidez *erdia, herena, laurdena, hamarrena,* etab.

Zenbatasunezkoa

cuantitativo / quantitatif / quantitative

Zenbait aldiz, izenaren kopurua edo zenbatasuna mugatzen duten elementu zehaztaileei *zenbatasunezkoak* deritze. *Bat, bi, hiru...* zenbatasunezkoak dira.

Zenema

cenema / cénème / ceneme

Zenema hitza, «unitate hutsa» (→esanahirik gabea) esan nahi duena, L. →Hjelmslev eta Kopenhave-ko eskolako hizkuntzalariek erabiltzen dute →fonema hitzaren ordez, →adierazpenaren planoan gutxienezko unitate →bereizleak izendatzeko, mintzairaren izaera fonikoa akzidentaltzat joaz. Zenema adierazpen-→figura da, plerema →edukin-figurari kontrajartzen zaiona.

Zentrala

Ik. ERDIKOA

Zerebrala

cerebral / cérébral / cerebral

→Kontsonante zerebrala kontsonante →kakuminala edo →erretroflexua da.

Zeroa

cero / zéro / zero

1. →Sistema batetako unitateak elkarrekiko erlaziotan definitzeko →ezaugarri baten presentzia ala ausentzia erizpidetzat hartzean, ezaugarri formal edo semantiko horren ausentzia adierazten du *zero* terminoak *zero gradu, zero →desinentzia, zero →morfema* bezalakoetan. Euskarri-materialik ez badu ere, bere balioa du; ezaugarrien presentzia bezain esanahizkoa da, hots → ezaugarri →bereizlea da. Euskaraz, adibidez, →mugagabearen eta →mugatu →singularraren arteko →oposizioa (nor →kasuan) mugatu singularrean agertzen den *a* →determinatzaile mugatzailearen bidez azaltzen da *(mendia* vs *mendi);* →sistemaren deskribapena, horrela, mugagabeak *zero desinentzia* duela esanez egin daiteke. *Zero* kalifikatzailea hizkuntzaren egiturazko deskribapenmota bati lotua dago, beraz. Linguistika sortzaileak oso bestela azalduko ditu →oposizio horiek berak: minus zeinuaz (—) adieraziko du ezaugarri baten ausentzia, gauzatze morfologikoa kontutan eduki gabe; *mendia,* adibidez, [— biziduna] ezaugarriaz definituko, azpikategorizatuko da. (Zeroren →ikurra ∅ da).

2. Ingurune berean →fonema bat fonema ororen ausentziari oposatzen zaionean, *zero fonema* bat dagoela esaten da. Honela, ingelesez, [h] bokalaurreko →hasperenketa →bokal baten oldar ez-hasperenduari oposatzen zaio: lehen fonema →euskarri-bokal teinkoa da eta bigarrena euskarri-bokal nasaia, *zero fonema* bat, ondoko gutxienezko bikoteotan bezala: *hill* «mendiska» vs *ill* «gaixo» edo *hue* /hju:/ «margo» vs *you /ju/*; «zu, zuek».

Zibilizazioa

civilización / civilisation / civilization, culture

1. →Soziolinguistikan, gizarteak eratzen dituen gizabiziaren elementu guztiek, materiazko nahiz ideologiazkoek, osatzen dute zibilizazioa.

2. Zibilizazio jakin baten ezaugarri den nozio bat adierazten duen hitzari zibilizaziohitza deritzo.

3. Zibilizazio-hizkuntza literatura idatzi baten oinarri eta kultur mota berezi baten zutabe izateko gai den hizkuntza da.

Zikloa

ciclo / cycle / cycle

Zikloa →soinu baten →maiztasunaren neurria da. Zikloak gorputz →dardarkari (pendulu, diapasoi, etab.) baten higidura adierazten du, hau da, pausagunezko →egoerari dagokion puntu finko batetatik hasita, eta higiduraren mutur batetaraino joanez, beste muturrera itzuliaz, hasierako puntutik igaroaz egiten den higidura. Ziklo-kopurua segundoko, edo hertza, «dardara-maiztasuna» deitzen da.

Dardarek →soinu bat sortzean, ahots-soinuak gauzatzean gertatzen den bezala, soinuaren altuera maiztasunaren menpean dago. Ziklo/segundo maiztasunari, *Hertz* deritzo.

Zirkunflexua

circunflejo / circonflexe / circumflex

Zenbait hizkuntzatan erabiltzen den →zeinu →diakritikoa da →azentu zirkunflexua. Latinezko textu idatzietan heiagorazko *ô* eta →genitiboaren forma laburtuak *(dominûm dominorum* -en ordez) adierazteko erabiltzen zen. Frantsesez asko erabiltzen

da desagertutako →bokal edo →kontsonantearen ordezko zeinu bezala: frantses zaharra *mesme*, frantses berria *même*.

Zirkunstantea

circunstante / circonstant / circumstantial

→Aditzak adierazten duen prozesua zein zirkunstantziatan (noiz, non, nola, etab.) ematen den agertzen duten →sintagmak deitzen dira zirkunstanteak. *Putzutik, Donostiara, mendian, bihar, oparo* zirkunstanteak dira.

Zorrotza

agudo / aigu / acute

→Tonu edo hots bat *zorrotza* dela esaten da espektro akustikoan goi-→maiztasunak nagusitzen direnean.

Fonema ertainek, adibidez, (i) →bokal (→aho)sabaikariak, (t) eta (d) →kontsonante →horzkariek e.a., tinbre zorrotz bat dute →ezaugarri. Ezaugarri akustiko hori ahoko erresonatzailearen forma mehar eta zatibanatuari zor zaio.

→Azentu zorrotza, frantsesez, *e*-rekin *(é)* e bokal itxia adierazten duen →zeinu →diakritikoa da. Espainolez, →intentsitate-azentua adierazteko erabiltzen da.

Zuhaitza

árbol / arbre / tree diagram

Zuhaitza osagaietan banatzen den perpausegituraren errepresentazioa da (perpaus hori parentesi-sistema batez ere errepresenta daiteke). Baldin eta gramatika →sortzailean oinarriak honako →erregela hauek baditu:

P → IS + AS (perpausa elementu bik osatzen dute, izen-→sintagma batek eta →aditz-sintagma batek)

IS → I + Mug (izen-sintagmaren elementuak bi dira: izena eta mugatzaile bat)

AS → IS + A (aditz-sintagma aditz batek eta beste izen-sintagma batek osatua da)

I: haur, egunkari (izena *haur* edo *egunkari* izan daiteke)


Mug.: -a

A: dakar (aditza *dakar* da)

Perpausa →ikur-segida honetaz errepresenta daiteke:

I + Mug + I + Mug + A

eta orain →kategori ikurren ordez beren balio posibleak jartzen baditugu *(egunkari* hitzak *dakar*-en →subjektu-→funtziorik ezin dezake bete), honako perpaus hau daukagu: *umeak egunkaria dakar* eta perpaus hau ondoko zuhaitz honetaz ere errepresenta daiteke:



(ez dugu hemen →ergatiboaren sorrera azaldu; baina, dirudienez, →transformazio bat da seguruasko biderik egokiena).

Lerro jarraiek zuhaitz-adarrak adierazten dituzte, eta puntudunek, berriz, →berridazketa lexikalerako →erregelak.

Zuhaitz honetan IS eta AS (baita IE eta AE deituak) adabegiak dira eta →kategori →ikurrak errepresentatzen dituzte. Adabegiak lotzen dituzten lerroak adarrak dira eta horregatik P-k IS eta AS menperatzen dituela esaten da, eta AS-k halaber IS eta A menperatzen dituela. Erregeletan geziaren ezkerraldeko ikurrak eskuinaldekoa menperatzen du, lehenak menperatzaileak dira, beraz, eta menperatuak besteak. Zuhaitz hau P-ren egiturazko deskribapena da; batzutan haren adierazgailu sintagmatikoa dela esaten da.

Zuzena

directo / direct / direct

1. Euskal gramatika tradizionaletan osagarri batek, Ø →atzizkia, edo-ta inolako atzizkirik ez duenean, osagarri *zuzena* deitzen da. *Peruk sagarra dakar* perpausean, *sagarra* da osagarri zuzena edo →objektua. -I atzizkia eramanez gero, osagarriari, →zeharkako osagarria esaten zaio. *Peruk sagarra amari ekarri dio* perpausean, *amari* da zeharkako osagarria.

2. *Kasu zuzenak:* kasu →zeiharrei kasu zuzenak kontrajartzen zaizkie. Kasu hauek →nominatiboa eta →akusatiboa dira. Perpausaren arabera, subjektu ala →objektuaren →funtzioa izan dezakete: *Peru etorri da; Peru ikusi dut.* Bi perpaus hauetan, adibidez, *Peru* izena da kasu zuzena, subjektua lehenengoan eta objektua bigarrenean.